

*Anuario del Seminario de Filología Vasca «Julio de Urquijo»*. Gehigarriak, XLVIII  
Monumenta linguae Vasconum: Studia et Instrumenta, II

IÑIGO RUIZ ARZALLUZ

*AITORKIZUNEN* HISTORIA ETA TESTUA  
ORIXEREN ESKUIZKRIBUTIK LEKUONAREN EDIZIORA



«Julio Urkixo» Euskal Filologia Mintegia  
Gipuzkoako Foru Aldundia  
Donostia  
2003



*AITORKIZUNEN* HISTORIA ETA TESTUA  
ORIXEREN ESKUIZKRIBUTIK LEKUONAREN EDIZIORA

*CIP. Biblioteca Universitaria*

**Ruiz Arzalluz, Iñigo**

«Aitorkizunen» historia eta testua [Recurso electrónico]: Orixeren eskuizkributik Lekuonaren ediziora / Iñigo Ruiz Arzalluz. – Datos. – Bilbao : Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea. Argitalpen Zerbitzua = Servicio Editorial, [2021]. – 1 recurso en línea: PDF (482 p., [21] p. de lám.) – (Anejo del Anuario del Seminario de Filología Vasca «Julio de Urquijo»; 48) (Monumenta Linguae Vasconum : Studia et Instrumenta ; 2)

Ed. electrónica de la ed. impresa.  
Modo de acceso: World Wide Web.  
ISBN: 84-7907-434-5.

1. Orixé, 1888-1961. Agustín gurenaren aitorkizunak. 2. Lekuona, Manuel de, 1894-1987.

(0.034)891.69Orixé7.06  
(0.034)891.69Lekuona7.06

© Iñigo Ruiz Arzalluz (ecpruari@vc.ehu.es)

ISBN: 84-7907-434-5

Lege gordailua: SS-0527/04

*Anuario del Seminario de Filología Vasca «Julio de Urquijo»*. Gehigarriak, XLVIII  
Monumenta linguae Vasconum: Studia et Instrumenta, II

IÑIGO RUIZ ARZALLUZ

*AITORKIZUNEN HISTORIA ETA TESTUA*  
ORIXEREN ESKUIZKRIBUTIK LEKUONAREN EDIZIORA

«Julio Urkixo» Euskal Filologia Mintegia  
Gipuzkoako Foru Aldundia  
Donostia  
2003



È ormai giunta la stagione della penitenza. Gli editori dei classici [...] devono, finalmente inteneriti, convincersi che il loro compito non si esaurisce nel tentare di restaurare il testo restringendo a poche dosi la medicina della collazione e in compenso esercitando crudelmente [...] la chirurgia della congettura. Invece devono intendere che loro dovere primo, da servire con tutto l'ingegno e con tutti i mezzi, è di ripercorrere, attraverso la tradizione e anche attraverso la fortuna, l'intero corso che il testo seguì in una serpentina [...] spesso interrotta da immersioni e emersioni carsiche.

Giuseppe Billanovich





## AURKIBIDEA

Hitzaurrea	11
Laburdurak eta oharpen orokorrak	16
I. Liburuaren sorrera	25
I. Mugaz bestaldean	27
II. Ameriketean	40
III. Lazkaoko beneditarren etxean	48
II. Testuaren ibilbidea	65
I. C-tik B-ra	67
1. <i>Aitorkizunen</i> bi idatzaldiak	68
2. B-ren kopiagilea	78
3. C-ren eta B-ren arteko eskuizkribu galdua: b	91
II. Orixe —eta testuaren kopiagilea— B zuzentzen: B-prior (eta B-alter)	96
1. m1, m1bis, m1ter eta B-ren kopiagilea	98
2. m2: Orixe	105
III. Lekuonaren eskua B-prior-eko orrietan	134
1. m3: arkatz gorri-urdina	135
a. Hiztegia	136
b. Testua bera	145
c. Nabarmendutako pasarteak	173
2. m4	179
3. m5 eta m5bis	183
IV. B-prior-etik 1956ko edizioaren testura	188
1. «S. Augustin'en Aitorkuntzetan utsuneak» izeneko paperak	188
2. B-prior-etik A-ra bidean sartutako aldaketak	213
3. «Okerrak zuzentze»	288
V. 1956ko edizioaren testutik kanpokoak	298
1. <i>Egan</i> -eko testua	298
2. 1956ko edizioaren eranskinak	305
a. «Gauza iakingarrienen arkibidea» ('index')	306
b. «Arkibidea» ('aurkibidea')	315
c. «Iztegitxoa»	327

III. <i>Aitorkizunen</i> historia .....	341
Eranskinak .....	359
I. Testu batek —batik bat inprimategira bidean— jasan ohi dituen aldaketen tipologia bat ..	361
II. Orixek erabilitako edizioak .....	364
III. Mokoroaren txostena .....	388
IV. Orixeren oin-oharrak .....	413
V. Azentu zirkunflexua, bokal bikoitza eta <i>h</i> letra C-tik A-ra .....	420
VI. <i>Ekidin</i> , «nendun» .....	444
VII. Lekuonak idatzitako testuen ezaugarri grafiko zenbait .....	457
Izendegia .....	471
I. Aurkibide orokorra .....	473
II. Orixeren obrak ( <i>Aitorkizunak</i> izan ezik) .....	478
III. <i>Aitorkizunak</i> .....	480
Irudiak .....	485

## HITZAURREA

1956garren urteko irailean Orixek ondutako san Agustinen *Aitorkizunen* euskal itzulpena argitaratu zen Zarautzen, Itxaropena argialetxean, Clément Mathieu apezpikuak lan hura iradoki omen zionetik hamabost bat urte geroago: liburu honekin gailurra jo zuen, batetik, hizkuntzaren gaitasunaren eta duintasunaren froga testu klasikoak itzultzeko ahalmenean jartzen zuen tradizioak eta, bestetik, egilea bere bizi guztian hausnartzen eta gauzatzen joan zen hizkuntz ereduak. Aurkitu ditugun eskuizkribu eta bestelako lekukotasunetatik abiatuta saiatu gara testu honen gorabeherak ahal den xeheena berreraikitzen, Orixek Lazkaoko beneditarren etxean berridatzi, kopiarazi eta zuzendu zuenetik Zarautzen inprimatu zen arte. Horrela, eta besteak beste, ikusiko dugu Orixek inprimategira bidali zuela uste zuen orijinala on Manuel Lekuonaren eskuetara heldu zela, eta honek ez ohiko arreta batekin aztertu zuela eta ehunka aldaketa egin zizkiola.

Testuaren historia berreraikitzea da liburu honen helburua: nola gauzatu zen guganaino iritsi den eskuizkribua (nork jo zuen makinaz eta nola baldintzatu zuen honek testuaren itxura, nolakoa zen kopiagile hark aurrean izan zuen antigrafia...); norenak diren —eta zerk eragin dituen eta zein eragin izan duten— orijinalan dauden zuzenketak; zer aldatuko duen —eta zergatik— testu horri inprimategira bidean fortunatuko zaion zuzentzaileak; nola sortu ziren, argitara atera zen liburuan, jatorrizko testuan ez ziren ezaugarri eta osagarriak... Ohar bedi ondo hemen ez zaigula axola n o l a itzuli zuen Orixek san Agustinen testu aldrebesa, ezpada z e r eskribitu —nahi izan— zuen eta zer argitaratu zen azkenean; horrela, gorde zaigun aurreko idatzaldia ere (Iparraldean egindakoa alegia, I-IX liburuak bakarrik baditu ere) neurri honetan bakarrik zaigu hemen axola: alegia, Orixek behin betikotzat jo zuen testu haren lekukotasun hobeagoa izan daitekeen neurrian —zeren eta, izan ere, askotan hala baita— edo, zenbait kasutan, testuaren grafian izan ziren gorabeheren nondik norakoa argitu ahal duenean, baina ez —inondik ere— bere itzulpena egiterakoan izan zituen iritzi aldaketak ikusteko. Hau da: mintzagai dugun testuaren historia Lazkaon ondutako idatzaldian hasten da; hori baino lehenagokoak —alde bat lagata, esan bezala, gurearen lekukotasun gisa izan dezaketen garrantzi erabatekoa— testuaren g e n e s i a r i dagozkio; hemendik liburu honen izenburuko singularra: ‘eskuizkributik’, ez ‘eskuizkribuetatik’. Bestalde, hemen egin nahi —edo, hobeto esateko, ahal— izan duguna zera baino ez da izan, hots, *Aitorkizunen* testuaren historiako irazkia eta bilbea nabarmendu: xehetasun interesgarri asko, ezinbestean, kanpoan utzi behar izan ditugu.

Berreraiketa lan honetan bi lanabes erabili behar izan ditut: testuaz kanpotiko datuak eta

testuaren beraren lekukotasunak. Neurri batean bederen oso datu mota desberdinak dira eta, beraz, bereiz azaldu beharrekoak; honen arabera antolatu ditut liburu honen bi zati nagusiak: «Liburuaren sorrera» (25-63 or.) eta «Testuaren ibilbidea» (65-339 or.). Elkarren osagarriak dira: askotan ikusiko dugu testuaz kanpotiko datuek ezin pagatuzko laguntza ematen digutela testuaren historiako auzi garrantzitsu bat garbitzeko eta, alderantziz, testu barneko kontu bat liburuaren historia argitzera datorkigula. Horrelakorik erabiltzeko aukera apenas izan ez duten filologiek inoiz kontrako iritzia sortu ahal izan badute ere, begien bistakoa da ezin dela horiek gabe testuaren historia bat egin —ezta, beraz, testuaren edizio bat ere—. Alabaina, oso kontuan izan dugu testuaz kanpotiko datuek ezer gutxi balio dutela testu barnekoek berresten ez badituzte: behin baino gehiagotan jo behar izan dugu gezurrezkoztat, testu barneko datuen argitan, aipatu lehenengo zati horretan bildutako lekukotasun bat edo Orixeren eta Lekuonaren adierazpen bat edo beste. «Liburuaren sorrera» izeneko zati honetan Orixek egin gogo zuen eta egiten ari zen liburua bera hartu dugu aztergai, ez bakarrik —ikus, honetaz, beheraxeago dioguna— behin betikotzat jo zuen testua: batez ere horrela egin ezcan ezin genukeelako behar zuen testuinguruan kokatu eta ulertu gehien axola zaigun testu honen historiaren zatia (begira lehenengo parte honi eman diogun izena: 'liburua', ez 'testua'). Hiru kapitulutan banatu dugu hasierako atal hau, gaiak hala eskatuta: lehendabizikoan Iparraldean emandako urteei buruz jardun dugu, eta hauxe da, agian, hiruretan ilunena, ditugun datuak ere horrelakoak baitira; bigarrenean Ameriketako garaia jorratu dugu; eta, hirugarrenean, Lazkaon pasatutako urte eta erdia eta *Aitorkizunen* argitaratzeak sortu zituen oihartzunak: azken kapitulu honetan dirateke Orixeren liburuaren historiari buruzko berritasun gehienak.

Ez dakit —inoiz ezin baita jakin— testuaren lekukotasunen ehizan mendi guztia ibili dudan, baina gutxienez segurtasuna izan dezakegu ehizaki hoberena behintzat atzeman dudala: Orixek inprimatzeko bidali zuen behatzizkribua, non eskuz idatzita irakur baitaitezke izkribu hura makinaz jo zuenaren zuzenketak, Orixerenak berarenak eta Lekuonarenak. Honetaz gain, agertu dira beste lekukotasun garrantzitsu batzuk ere: aipatu behatzizkribuaren beste aldaki interesgarri bat; *Aitorkizunen* lehenengo bertsioaren zati luze bat (I-IX liburuei dagokiena); Lekuonak Orixeren testuari egindako gehiketa zenbait jasotzen dituzten —eta inprimategira joan ziren— bi orri; etab. Testuaren ibilbidea, ezinbestean, honako modu honetara azaldu dugu: lehendabizi (67-95 or.), Orixek ondu zituen *Aitorkizunen* bi idatzaldien berri eman dugu eta erakutsi dugu, orobat, bigarrenaren —hots, guri gehien axola zaigun— testua kopiagile batek jo zuela makinaz; bigarren kapituluan (96-133 or.) aipatu kopiagileak eta Orixek berak makinaz jotako testuan egin zituzten zuzenketak eta gehiketak aztertu ditugu; hirugarrenean (134-187 or.), Lekuonak gure behatzizkribuan utzitako arrastoari segitu diogu, eta saiatu gara haren ohar anitzen nondik norakoa ulertzen; laugarren buruan (188-297 or.) mintzagai izan ditugu esandako hiru eskuek esandako moduan aldatutako testuak oraindik 1956ko edizioan inprimatu zen bertsioraino jasan zituen aldaketak: Lekuonak idatzitako «S. Augustin'en Aitorkuntzetan utsuneak» izeneko dokumentuaren bidez sartutakoak, probetan gehitu bide zirenak eta, azkenik, 1956ko edizioak daraman «Okerrak zuzentze» batean egindakoak; bosgarrenean (298-339 or.), bukatzeko, *Aitorkizunen* testu nagusitik kanpo baina honen ibilbidearen bazterretan diren beste testu batzuen gainean jardun dugu: *Egan* aldizkarian liburuaren iragarpen gisa-edo argitaratu zen zatia eta, beste alde batetik, beren ezdeusean kontuan hartu

beharreko ondorioetara eramango gaituzten 1956ko edizioaren hiru eranskin, hots, *index rerum* moduko bat —gure ustez Orixek berak egina—, san Agustinen liburuko kapituluaren izenburuak biltzen dituen aurkibide xume baina gure helburuetarako ezin interesgarriagoa eta garai hartan usatzen zirenen eiteko «Iztegitxoa» bat. (Agian azpimarratu beharra dago inprimategira joan zen orijinalaren azterketa gure lan honen guztiaren erdi-erdian dagoela: behatzizkribu hau erabat ulertzea, hau da, ulertzea nork eta nola jo zuen makinazko testua, norena den bertan dauden ehunka oharretako bakoitza, zein xederekin diren eginak, etab., testu honen historiako korapilo nagusia zen).

Eranskinetan eman ditugu, batetik, liburuaren bi zati nagusietan oztupo izango ziratekeen dokumentu pare bat eta, bestetik,aldi berean kapitulu bati baino gehiagori zegozkion azalpenak. Azken hauei dagokienez, ezinbestekoa izan da batzuetan Orixek hizkuntzari buruz zituen iritzi zenbaiten berri ematea: nola azaldu bestela —esaterako— *ekidin* ustezko laguntzaile edota «nendun» adizkiaren inguruan gertatutako aldaketak? Eta, izan ere, hizkuntzari berari buruzko Orixeren gogoetak eta asmoak *Aitorkizunen* oinarri-oinarrian badaude ere, hau da, *Aitorkizunen* izateko arrazoia bera —harako *causa finalis* hura— iritzi eta asmo horietan egon arren, ez da hau tokia horien gainean sistematikoki jarduteko: emango ahal dugu horien guztien berri hemendik gutxira atera nahi genukeen —eta hemengo orrialdeetan zehar ere behin baino gehiagotan aipatu behar izan dugun— edizioan.

Liburu honen hiru zati nagusietan —lehenengo bietan eta eranskiniek osatzen dutenean— iritsitako ondorioak bateratzen saiatu naiz «*Aitorkizunen* historia» izeneko atalean (341-357 or.): filologiaren bidezidorrak gogoko ez dituen baina Orixeren testu honen gorabeherak jakin nahi lituzkeen irakurlea hortik hasi daiteke irakurtzen, eta hortik abiatuta jo ahal izango du gehien axola zaizkion zatietara; akaberako aurkibidea ere lagungarri gertatuko zaio horretarako. Ibili beharra zegoen ordea bidezidor horiek; *Aitorkizunen* testua orritsa da filologoarentzat: besteak beste, itzulpena izanik ohi ez bezalako arazoak —eta konponbideak— eskaintzen dituelako, testuaren beste bertsio bat dugulako —zati baterako bakarrik bada ere—, eta baita ere, azkenik, testua zuzendu nahi izan duen esku —ez nolana hiko— bat ibili delako bertatik. Gauzak horrela, ez da harritzekoa testu honen azterketan perretxikoak bezala sortzen badira testukritikazko eskuliburu batean agertzeko moduko adibideak, baita hain erraz aurkitzen ez direnetakoak ere: batik bat, azken urte hauetan eztabaida ezin interesgarriagoak sortu dituzten *voluntas auctoris* eta *errores auctoris* kontzeptu irristakorren ingurukoak. Beste muturrean —ez dezala inork esan edizioak, edo hauen prestalanak, emankorrek ez direnik—, testuak Orixeren eskuetatik irteerakoan izan zituen gorabeherak istorio honetan parte duten pertsonai eta gauzen gainetik dauden kontu interesgarri asko erakutsi dituzte: esaterako, orain arte euskal hiztatzat genituen batzuk ez direla inoiz izan... Era honetako xehetasun batzuetara, esan bezala, liburuaren akaberan jarri dudan aurkibidearen bidez iritsi ahal da.

Testu baten edizioa eta testu horren berorren historia elkarrekin ibili behar duten ikerketak dira, baita gurea bezalako kasu batean ere —alegia, baita egilearen orijinala eta ditugunean ere—: batetik, edizioaren helburua ezin delako izan —eskola zaharraren jarduteak erakusten zuenaren kontra— jatorrizko testua finkatzea bakarrik; bestetik, testuaren historiak (agian honen gainean hitz egiten denean presente izan ohi diren kasuetan baino gutxiago izan arren) orijinalaren —hitza, orain, *voluntas auctoris* delakoaren adieran

ulertuta—berreraiketa baldintzatu ahal duelako hemen ere. Lehenengo puntuari dagokionez, orijinala bera zeharbidez bakarrik ukitzen dutela diruditen testuaren historiako zatiek edo alderdiek ere beren tokia dute —ez beti bigarren maila batean— testuaren edizioan: hitzak hemen axola zaigun kasuari egokituz (eta, honetaz landara, ez dut uste batere adibide txarra denik), Lekuonak Orixeren testuan egindako aldaketak, nahi eta nahi ez, *Aitorkizunen* testuaren zatia dira eta, hortaz, *Aitorkizunen* benetako edizio kritiko batek, nola edo hala, jaso beharrekoak. Bigarren puntuaren hamaika adibide harrigarri ematen ditu eskuen artean dugun kasuak: esaterako, «gogoematean» editatu behar genukeelakoan nago (baita, inongo zalantzarik gabe, idatzaldi zaharra izango ez bagenu ere), eta ez Orixek, makinazko behin betiko testua zuzenduz, bere eskuz eskribitu zuen «gogoen artean»... Hau guztia, noski, alde bat utzita testuaren historiak berez duen balioa letren edo kulturaren historiarako. Beraz, testuaren historiarik gabe ez dago izena merezi duen ediziorik; baina hau gabe ere osatzeko bezala gelditzen da hura, haren helburu nagusietako bat testuaren kritika zerbitzatzea baita; burura datorkigu Timpanaro-ren gaztigua —eta badu garrantzia, era honetako ikerketen norabidea baitago jokoan—: «rimane l'esigenza pratica di non rimandare all'infinito certe edizioni critiche per studiare la storia della tradizione in tutti i suoi minimi dettagli, di non immergersi tanto a fondo nello studio [...] da dimenticarsi di ritornare alla critica del testo» ([1981, 102 or.]; nabarmendua gurea da, baina bete-betean dagokio pasartearen izpirituari).

Honetaz guztiaz gain, nago testu honen historiak —ez, esan gabe doa, gure lan honek— begien aurrean jartzen dizkigula aipatu ere egin behar ez lirakeen oinarri-oinarrizko lezio pare bat. Batetik, filologiaren beharra ez dela heuristika soilean gelditzen: Orixeren orijinala bakarrik axola izan balitzaiagu ere (eta hau ere erakusten digu, hots, orijinala ez dela testu baten historian interesgarria den gauza bakarra), ez zatekeela nahikoa izango Orixek inprimatzeko eman zuen testua eskuratzea; hau da, eskuizkribu hori dagoen-dagoenean ematea ez zatekeela 1956ko edizioaren testua berriz inprimaraztea baino askoz zuzenagoa. Bestetik, atzo goizeko testuekin ere testu zaharrekin bezain beharrezkoa izan daitekeela filologia. Hitz batean, filologiaren ikuspuntua ezinbestekoa dela fortunatu dakigukeen edozein testuren aurrean, baldin eta —eta, azken batean, hauxe da kontua— testu hori axola bazaigu.

\* \* \*

Orain dela hamar bat urte Joseba A. Lakarrak Orixeren *Aitorkizunen* edizio bat eskatu zidan; hasi nintzen lanean, baina testuaren historiari zegokion atala luzeegia eta, batez ere, aberatsegia joan zen egiten: ez zen arrazoizkoa hura edizioaren atarian ematea eta, bestalde, iruditzen zitzaidan gaiak lan bat *a se stante* eskatzen zuela; nolnahi ere, ezin nuen orga idien aurrean lotu, eta hemen aztertu ditudan auziak edizioari ekin baino lehenago garbitu behar ziren nahitaez. Liburu honen zati garrantzitsuenak beneditarrekin du zer ikusi eta egin ditudan zor handienetakoak haiekin egin ditut: Lazkaoko Juan Joxe Agirrek eta Estibalizko Juan Luis Plazaolak, beti bezain eskuzabal, beren etxeetako altxorrek ikusten eta miatzen utzi zidaten, behin eta berriz. Era berean, Paulo Iztuetak nire eskuetan ipini zituen bereak zituen ezin pagatuzko Orixeren gutun asko. Nola edo hala *Aitorkizunen* historiaren zatia edota

zattia izan zirenen oinordekoak diren beste askorekin ere zorrak egin ditut: Andoni Sorarrain, Joxe Mari Aranalde, Juan Anjel Etxebarria zenaren alaba Ainhoa, Ramon Labaien, Patxi Unzurrunzagaren semeak. Aipatu nahi nituzke, orobat, Euskal Herriko Unibertsitateko, Euskaltzaindiaren Azkue Bibliotekako eta 'Sancho El Sabio' Fundazioko liburuzainak hala nola Eusko Ikaskuntzaren eta Tolosako Udalaren artxiboetako langileak. Bihoakie guztiei nire esker ona.\*

---

\*Lan hau egin ahal izan da Euskal Herriko Unibertsitatearen «1/UPV/EHU 00033.130-HA-4465/1998» eta «1/UPV/EHU 00106.130-HA-8117/2000» proiektuei esker.

## LABURDURAK ETA OHARPEN OROKORRAK

1. *Aitorkizunetako* hitz edo pasarte bat identifikatzeko honako datu hauek eman izan ditugu: lehendabizi, eta eskuizkribu jakin baten testuari buruz ari baldin bagara, eskuizkribu horren orriaren zenbakia; ondoren, san Agustinen testua aipatzerakoan eman ohi den erreferentzia: liburua, kapitulua eta paragrafoa; azkenik, hitz edo pasarte horrek —hots, hitz edo pasarte horri dagokion testuak— 1956ko *Aitorkizunen* edizioan duen kokapena, horretarako orrialdearen eta lerroaren zenbakiak emanez. (Lerroak honela zenbatu dira: ez dira kontuan sartzen orrialdeetako izenburu jarraituak, baina bai liburu eta kapituluaren izenburuak eta, orobat, lerro bat betetzen duen edozein zenbaki. Aipatu dugun hitzak edo pasarteak lerro bat baino gehiago betetzen duenean, eta erreferentzia tauletan baldin badago, lehenengoa bakarrik aipatu izan dugu). Adibidez, B-prior izeneko behatzizkribuan irakur daitekeen «zugurrari» hitza aipatzeko, honako erreferentzia hau emango dugu: 143 or. = XI, 6, 8 [309, 20-21]; hau da: aipatu hitza B-prior-eko 143. orriari dago, *Aitorkizunetako* hamaikagarren liburuko seigarren kapituluako zortzigarren paragrafoan, eta —dela hitz bera dela hitz honen tokian dagoen beste bat: gure kasu honetan «zuhurrari»— 1956ko edizioaren 309. orrialdeko 20-21 lerroetan. (Kapituluaren izenburuak aipatzeko «iz.» laburdura erabili dugu; esaterako, «Kiroletan B : Kiroalak A» aldaerari dagokion erreferentzia honela emango genuke: 9 or. = I, 10, iz. [22, 8]).

2. Izan bitez kontuan honako oharpen hauek:

a. 'gangardun' kontsonanteak, ohi bezala, kontsonante horiek beroriek bikoiztuz eman ditugu;

b. erabili ditugun eskuizkribuetan, idazmakinarenean bi giltz desberdinek —edo gehiagok— toki berean jo baldin badute (hau da, giltz batek jo baldin badu beste giltz batek marraztu duen letraren gainean), hortik sortutako zirrimarra # ikurraren bidez eman dugu;

c. badira, azkenik, ez ohiko modu batean erabili ditugun hitz batzuk edota gutxitan usatzen diren baina guk maiz behar izan ditugun hitzak: *ohar* hitzarekin, askotan, adierazi nahi izan dugu norbaitek testuaren irakurketa bat aldatzeko edo nabarmentzeko egindako zeinahi ikur; *paleografiko* izenondoa ere adiera berezi samar —baina, agidanean, beharrezkoa zen— batean erabili behar izan dugu: ikus 97 or. 1 oh.; ez dakit, bestalde, *behatzizkribu* hitza inoiz erabili den euskaraz: gaizki sortutako —baina, era honetako lanetan, dezentetan erabili izan den— *dattiloscritto* eta enparauen kalkoa da (erabili dugun moduari buruz ikus 67 or. 2 oh.).



3. Zenbait laburdura erabili dira izendatzeko *Aitorkizunen* testua duten behatzizkribuak edo inprimakiak eta 1956ko liburuaren eranskinak; laburdura hauen esanahia honako orrialde hauetan aurkitu ahal da:

A	67 or. 1 oh.
B	67 or. eta 73 or. 18 oh.
B-alter	71-73 or.
B-prior	71-72 or.
b	91 or.
C	67 or.
Ca	68 or.
Ca-alter	68-69 or.
ca-prior	68 or. eta 4 oh.
cb	68 or. eta 4 oh.
cc	68 or. eta 4 oh.
E	298 eta 302 or.
e	303 or.
Uts	188 or.
Ark	315 or.
index	306 or.
Izt	327 or.
Oz	288 or.

4. San Agustinen jatorrizko latina, besterik esaten ez denean, Vega-ren 1946ko ediziotik aipatzen dugu; edizioaren erreferentzia osoa eman gabe aipatzen diren *Aitorkizunen* latin testuak honako hauek dira:

Labriolle	Saint Augustin, <i>Confessions</i> [...] ed. P. de Labriolle, Paris, Les Belles Lettres, 1925 [eta berrinpr.]
Trabucco	Saint Augustin, <i>Les confessions</i> [...] itz. J. Trabucco, Paris, Garnier [s.a. baina 1937]
Vega	<i>Obras de san Agustín [...]. Tomo segundo [...]. Las confesiones</i> , ed. [...] A.C. Vega, Madril, BAC, 1946 [1951, 1955]
Wangnereck	<i>S. Aurelii Augustini Confessionum libri XIII</i> [...] ed. P.H. Wangnereck, Torino, SEI, 1942 [1. ed. 1631]

5. Orixeren idazkien erreferentziak —eta behin bakarrik aipatu behar izan diren haren garaikideen lekukotasunenak— osorik eman dira, honako hauek izan ezik:

<i>Aitorkizunak</i>	<i>Agustīn gurenaren Aitorkizunak Nikolas Ormaetxea Orixek euskeratua</i> [euskeratuak 3.or.], Zarautz, Itxaropena, 1956
<i>El lenguaje vasco</i>	N. Ormaechea 'Orixek' - M. de Oyarzábal, <i>El lenguaje vasco</i> , Donostia, s.b., 1963
<i>Erregela</i>	Benito santua, <i>Bizitza eta Erregela, Alkarrizketak</i> aita Alberto Begiristainek euskeratua, <i>Erregela</i> Nikolas Ormaetxea Orixek itzulia, sarrera eta oharra Estibalitz eta Lazkao beneditarrek [...], Lazkao, Priorato de Lazcano, 1980

- Euskaldunak* 1950 N. Ormaetxea 'Orixe', *Euskaldunak poema XV kantuetan* [...] Zarautz, Itzaropena, 1950
- Eusk. p. eta o. g.* N. Ormaetxea 'Orixe', *Euskaldunak poema eta olerki guztiak* [...] Donostia, Auñamendi, 1972
- Euskaldunak* 1980 N. Ormaetxea 'Orixe', *Euskaldunak. Facsimil de la edición príncipe con prólogo, enmiendas y glosario de J.M. Moco-roa*, Bilbo, La Gran Enciclopedia Vasca, 1980
- IG N. Ormaetxea Orixe, *Idazlan guztiak*, ed. P. Iztueta, Donostia, Eusko Jaurlaritza - Etor, 1991, I-III
- Jainkoaren billa* Nikolas Ormaetxea Orixe, *Jainkoaren billa*, Bilbo, Etor, 1971
- OE [L. Akesolo], «Orixek Oiarzabali [...] [I]», *Karmel*, 1979 [4], 47-67 or.; [Lino] A[kesolo], «Orixeren eskutitzak (Martin Oiarzabal apaizari) [II]», *ib.*, 1980 [1], 33-39 or.; Id., «Orixeren eskutitzak. III. Atzerririk Euskalerrira», *ib.*, 1980 [2], 51-61 or.; Id., «Orixeren eskutitzak. IV. Lazkaotik eta Orexatik», *ib.*, 1980 [3], 53-62 or.; Id., «Orixeren eskutitzak. V. Oiarzabal jaunari», *ib.*, 1980 [4], 59-72 or. [= «Orixeren eskutitzak. Orixek azken-urteetan Oiarzabal jaunari bidalitako gutunak», in Akesolo 1989, 933-975 or.\*]
- Quito-n arrebarekin* N. Ormaetxea Orixe, *Quito-n arrebarekin*, ed. I. Seguro-la, Bilbo, Euskal Editoreen Elkarte, 1987

6. Laburtuta eman diren gainerako erreferentzia guztiak —liburu eta artikuluenak zein bestelakoak— ondoren datorren zerrenda nagusian bildu dira. Baldin testu bat behin baino gehiagotan argitaratu bada, eta horren orrialde jakin bat aipatu behar izan badugu gure lan honetan zehar, testu horren edizioetako bat izartxo batekin (\*) nabarmendu dugu ondoko zerrenda nagusian: izardunaren orrialdeen arabera aipatu dugu —normalean edizio berrien eta zabaldueneko orrialdeen arabera alegia—, baina ez nahitaez edizio horren testuaren arabera (esaterako, Mitxelenaren zenbait artikulutarako MEIG-eko orrialdeak eman ditugu, baina testua lehenengo argitalpenetik aipatu dugu; eta berbera esan behar genuke Orixeren eta Lekuonaren idazki gehienengainean).

\* \* \*

- AB Azkue Biblioteka (Euskaltzaindia, Bilbo)
- Akesolo 1986 L. Akesolo, «Agustin deunaren eta gure Orixeren gomutaz», *Karmel*, 1986 [3], 6-18 or. [= Akesolo 1989, 585-593 or.\*]
- Akesolo 1989 L. Akesolo, *Idazlan guztiak*, ed. J. Urkiza, Larrea-Zornotza, Karmel (Karmel sorta, 1), 1989
- Akesolo 1991 L. Akesolo, «Zer da Axularren *ekidin*?», in Akesolo [1992, 121-125 or.]
- Akesolo 1992 L. Akesolo, *Idazlan guztiak III*, ed. J. Urkiza, Larrea-Zornotza, Karmel (Karmel sorta, 1), 1992
- Aland 1982 K. Aland - B. Aland, *Il testo del Nuovo Testamento*, Genova, Marietti, 1987 [jat. 1. ed. 1982]
- Altube 1928 S. Altube, «Batasunera-bidean», *Euskera*, 9 (1928), 67-85 or.
- Altuna 1989 P. Altuna, «Orixek Jesusen Lagundian emaniko urteak (1907-1923)», *Euskera*, 34 (1989), 71-122 or. [= *Mendeurrena...*, 41-86 or. eta Altuna 2002, 467-520 or.]

- Altuna 1990a P. Altuna, «Jose Maria Estefania Zabala (1889-1942). Lauaxetaren eta beste zenbait euskal poetaren gidaria», *Euskera*, 35 (1990), 75-97 or. [= Altuna 2002, 521-545 or.]
- Altuna 1990b P. Altuna, *José María Estefanía Zabala, S. I. (1889-1942), 'maestro de vascos'*, Bilbo, Mensajero, 1990
- Altuna 2002 P. Altuna, *Haizeak ez eramango!*, ed. E. Pérez Gaztelu - E. Zulaika Ijurko, Donostia, Deustuko Unibertsitatea, 2002
- Aranalde 1965 J.M. Aranalde, «Orixe zanaren bizialdia. [Noiz eta nun]», in *Omenaldi...*, 13-14 or.
- Arrieta 1994 A. Arrieta, «Sarrera», in A. Ibiñagabeitia, *Ovidiusen Maita-Bidea*, ed. A.A., Bilbo, Euskal Editoreen Elkarte, 1994, vii-lxi or.
- ASJU *Anuario del Seminario de Filología Vasca 'Julio de Urquijo'*
- Avalle 2002 D'A.S. Avalle, *Principi di critica testuale*, Roma-Padova, Antenore, 2002 [1. ed. 1972]
- Azkue 1923-1925 R.M. Azkue, *Morfología vasca*, Bilbo, Euskaltzaindia, 1923-1925 [= *Euskera*, 4, 1923; 5, 1924; 6, 1925]
- Azkue 1928 R.M. Azkue, «Batasunera-bidean», *Euskera*, 9 (1928), 63-66 or.
- Azkue 1930 R.M. Azkue, «Estudio de síncopas del vascuence. Uso de *be o bere*, 'también'; *lez o legez*, 'como'; *ba o bada*, 'pues'», *Euskera*, 11 (1930), 221-228 or.
- Azkue 1931 R.M. Azkue, «Primer apéndice de la *Morfología vasca*. Conjugación del verbo guipuzcoano», *Euskera*, 12 (1931), 87-206 or.
- Azkue 1934-1935 R.M. Azkue, «Gipuzkera osotua», *Euskera*, 15 (1934), i-x, 1-150 or.; 16 (1935), 151-184 or.
- Azurmendi 1976 J. Azurmendi, *Zer dugu Orixeren kontra*, Arantzazu, Jakin, 1976
- BAP *Boletín de la Real Sociedad Vascongada de los Amigos del País*
- Baztarrika 1973 I. Baztarrika, «Orixeren beste salmu batzuk», *Jaunaren deia*, 42 (1973), 11-18 or.
- BIAEV *Boletín del Instituto Americano de Estudios Vascos*
- Bilbao 1996 G. Bilbao, «Lati-izkuntzaren joskera (1947): una pequeña sintaxis latina en vascuence», in *Historia y métodos en la enseñanza de las lenguas clásicas*, Gasteiz, Euskal Herriko Unibertsitatea, 1996, 117-130 or.
- Blaise 1986 A. Blaise, *Dictionnaire latin-français des auteurs chrétiens*, revu [...] par H. Chirat [...], Turnhout, Brepols, 1986 [1. ed. 1954]
- Brunet 1814 J.-Ch. Brunet, *Manuel du libraire et de l'amateur de livres [...]*, Paris, G.-P. Maisonneuve et Larose, 1814 [5. ed.; 1. ed. 1809]
- Catalogue 1973 Bibliothèque Nationale, *Catalogue général des livres imprimés. Auteurs, collectivités-auteurs, anonymes. 1960-1969. Série 1 caractères latins. Tome 2. Au-Bibliop*, Paris, Bibliothèque Nationale, 1973, 45-47 or.
- Catalogue 1990 Ministère de l'Instruction Publique et des Beaux-Arts, *Catalogue générale des livres imprimés de la Bibliothèque Nationale. Auteurs. Tome V. Aubry-Azzoni*, Paris, Imprimerie Nationale, 1990, 374-414 zut.
- Charritton 1991 P. Charritton, «Ipar Euskal Herria Orixeren denboretan (1938-1950)», in *Mendeurrena...*, 111-116 or.
- Chaussy 1990 Y. Chaussy, «Les Mauristes et l'édition de saint Augustin», in *Troisième...*, 29-35 or.
- De Ghellinck 1930 J. de Ghellinck, «L'édition de saint Augustin par les Mauristes», *Nouvelle revue théologique*, 57 (1930), 746-774 or.
- Eck.-Kr. 1992 W. Eckermann-A. Krümmel, *Repertorium annotatum operum et translationum S. Augustini. Lateinische Editionen und deutsche Übersetzungen (1750-1920)*, Würzburg, Augustinus-Verlag, 1992
- EG *Euzko-Gogoa*

- EGLU Euskaltzaindia, *Euskal gramatika. Lehen urratsak. IV. Juntagailuak*, Bilbo, Euskaltzaindia - Euskal Herriko Unibertsitatea, 1994.
- EI Eusko Ikaskuntza, Donostiako Artxiboa.
- EJ *Eusko-Jakintza*
- Elosegi 1989 J. Elósegui Odriozola, «Los defectos de un hombre de bien», in *Leizaola, la lealtad del viejo roble*, Bilbo, Sabino Arana Kultur Elkargoa, 1989, 51-54 or.
- Etxeberria 1997 G. Etxeberria, *Orixeren metrikaz*, Donostia, *Egan-en* gehigarriak, 1997
- Fahy 1999 C. Fahy, «Storia della bibliografia testuale», in *Bibliografia testuale o filologia dei testi a stampa? Definizioni metodologiche e prospettive future. Convegno di studi in onore di Conor Fahy (Udine, 24-25-26 febbraio 1997)*, ed. N. Harris, Udine, Forum, 1999, 23-24 or.
- Folliet 1990 G. Folliet, «Les méthodes d'édition aux XVIe et XVIIe siècles à partir des éditions successives du *De correptione et gratia*», in *Troisième...*, 71-112 or.
- Folliet 1993 G. Folliet, [Eckermann-Krümmel <1992>...], *Revue des études augustiniennes*, 39 (1993), 475-477 or.
- Folliet 1995 G. Folliet, «Deux grandes éditions de saint Augustin au 19e s.: Gaume (1836-1839) - Migne (1841-1842)», *Augustiniana*, 45 (1995), 5-44 or.
- Garmendia 1965 J. Garmendia ['Zeleta'], «Jainkoak ekarri nau onera...», in *Omenaldi...*, 53-59 or.
- Garriga 1957 G. Garriga, [Aitorkizunak...], BIAEV, 8 (1957), 137-138 or.
- Gaskell 1972 Ph. Gaskell, *Nueva introducción a la bibliografía material*, Gijón, Trea, 1999 [= jat. 1. ed. 1972]
- GH *Gure herria*
- Goenaga 1991 P. Goenaga, «Orixeren gramatika lanez», in *Mendeurrena...*, 535-553 or.
- Goikoetxea 1972 J.I. Goikoetxea, «Semblanza de Orixé», in N. Ormaetxea Orixé, *Euskaldunak poema eta olerki guziak*, Donostia, Añamendi, 1972, xxxiii-xxxvi or.
- Gorman 2001 M.M. Gorman, *The manuscript traditions of the works of St. Augustine*, Firenze, Sismel, 2001
- Greetham 1994 D.C. Greetham, *Textual scholarship. An introduction*, New York - Londres, Garland, 1994 [1. ed. 1992]
- Greg 1950-51 W.W. Greg, «The rationale of copy-text», *Studies in bibliography*, 3 (1950-1951), 19-36 or. [= Id., *Collected papers*, ed. J.C. Maxwell, Oxford, Clarendon Press, 1966 374-391 or.\*]
- Harris 2000 N. Harris, «Filologia dei testi a stampa», in *Fondamenti di critica testuale*, ed. A. Stussi, Bologna, Il Mulino, 2000, 301-326 or.
- Ibarzabal 1977 E. Ibarzabal, *Koldo Mitxelena*, Donostia, Erein, 1977
- Ibiñ..., *Gutunak* A. Ibiñagabeitia, *Erbestetik barne-minez. Gutunak 1935-1967*, ed. P. Urkizu, Zarautz - Iruñea, Susa, 2000
- Ibiñagabeitia 1965 A. Ibiñagabeitia, «Orixé euskeratzalle», in *Omenaldi...*, 87-117 or.
- Intxausti 1979 J. Intxausti, «Euzko-Gogoa-ren lankideak», *Jakin*, 12 (1979), 120-137 or.
- Irigoien 1976 A. Irigoien, *Sorterriaren alde. Ene artearen iturriak eta bizitzako zenbait diztira*, Donostia, Kriselu, 1976
- Irizar 2002 P. de Yrizar, *Memorias de un vasólogo. Mis relaciones con lingüistas y colaboradores*, Madril, Delegación en Corte de la RSBAP, 2002
- Iztueta 1990 P. Iztueta, «El trato con Dios», in *Orixeren aportazio literarioak*, ed. L.M. Mujika, Donostia, Euskal Herriko Unibertsitatea, 1990, 27-46 or. [= *Mendeurrena...*, 493-514 or.]
- Iztueta 1991 P. Iztueta, *Orixé eta bere garaia*, Donostia, Eusko Jaurlaritz - Etor, 1991
- Iztueta 1994 P. Iztueta, *N. Ormaetxea 'Orixé' (1888-1961)*, Gasteiz, Eusko Jaurlaritz, 1994
- Iztueta 2001 P. Iztueta, *Erbesteko euskal pentsamendua. Bi belaunaldiko en lekukoak: «Euzko-*

- Gogoa» eta «Zabal», Donostia, Utriusque Vasconiae, 2001*
- Iztueta 2002 P. Iztueta, «Irakurtzeko gomendioa», in Orixe, *Euskal literaturaren historia laburra*, ed. P.I., Donostia, Utriusque Vasconiae, 2002, 9-15 or.
- KMKL Koldo Mitxelena Kulturuneko Liburutegia (Donostia)
- Labaien 1990 A.M. Labaien, *Nikolas Ormaetxea Orixeren kondaina laburra*, Bilbo, Sabino Arana Kultur Elkargoa, 1990
- Lafitte 1931 P. Lafitte, «Un nouvel évêque basque. Monseigneur Joseph-Clément Mathieu», GH, 11 (1931), 385-391 or. [= *ib.*, 35, 1963, 21-25 or.]
- Laharie 1993 C. Laharie, *Le camp de Gurs. 1939-1945. Un aspect méconnu de l'histoire du Bearn*, Pau, J&D editions, 1993
- Lakarra 2002 J.A. Lakarra, «Etimologiae (proto)vasconicae LXV», in *Erramu boneta: Festschrift for Rudolf P.G. de Rijk*, ed. X. Artiagoitia, P. Goenaga, J.A. Lakarra, Bilbo, Euskal Herriko Unibertsitatea - Julio Urkixo Mintegia, 2002, 425-442 or.
- LBL Lazkaoko Beneditarren liburutegia.
- Leizaola 1956 J.M. Leizaola, «Gure olerkariak», EG, 1956 [3-4], 106-114 or.
- Leizaola 1973 J.M. Leizaola, «*Jainkoaren billa*» gutuna zer da?, Baiona, Euskal-Kulturaren Alde, s.a [baina 1973]
- Leizaola 1982 J.M. Leizaola, *El refranero vasco antiguo y la poesía euskérica. II. Los ritmos*, in Id., *Obras completas*, Donostia, Sendoa, 1982, III, 135-316 or.
- Lekuona 1984 M. Lekuona, *Idaz-lan guztiak. VIII. Euskeralajia*, Tolosa, Librería Técnica de Difusión ('Kardaberaz' bilduma, 29), 1984
- Maas 1967 P. Maas, *Textual criticism*, Oxford, Clarendon Press, 1967\* [= al. 3. ed. 1957; jat. 1. ed. 1927]
- McKerrow 1928 R.B. McKerrow, *Introducción a la bibliografía material*, Madril, Arco Libros, 1998 [= jat. 2. ed. 1928; 1. ed. 1927]
- MEIG K. Mitxelena, *Euskal idazlan guztiak*, Donostia, Euskal Editoreen Elkarte, 1988, I-IX
- Mendeurrena* Orixe *mendeurrena (1888-1988)*, ed. P. Iztueta, Donostia, Eusko Jaurlaritza - Etor, 1991
- Metzger 1992 B.M. Metzger, *Il testo del Nuovo Testamento. Trasmissione, corruzione e restituzione*, Brescia, Paideia, 1996 [= 3. ed. 1992]
- Migliorini 1960 B. Migliorini, *Historia de la lengua italiana*, Madril, Gredos, 1968 [jat. 1. ed. 1960]
- Mitxelena 1950 L. Michelena, «De fonética vasca. La aspiración intervocálica», BAP, 6 (1950), 443-459 or. [= Id., *Sobre historia de la lengua vasca*, ed. J.A. Lakarra, Donostia, Julio Urkixo Mintegia <ASJU-ren gehigarriak, 10>, 1988, I, 190-202 or.]
- Mitxelena 1954 L. Mitxelena, «Orixe gure artean», *Egan*, 1954 [2-4], 3-4 or. [= MEIG, VIII, 51-52 or.]
- Mitxelena 1956a L. Mitxelena, [*Aitorkizunak...*], *Egan*, 1956 [5-6], 142-144 or. [= MEIG, II, 75-78.\*]
- Mitxelena 1956b L. Mitxelena, «*Euzko-gogoa eta Euskeran*», *Egan*, 1956 [5-6], 157-163 or. [= MEIG, VIII, 125-132 or.\*]
- Mitxelena 1956c L. Mitxelena, [*Aitorkizunak...*], BAP, 12 (1956), 374 or.
- Mitxelena 1959 L. Mitxelena, [†E. Olabide, *Itunzàreta berria*, Bilbo, Yesu'ren Biotzaren Deya, 1958], *Egan*, 1959 [1-4], 85-94 or. [= MEIG, II, 111-122 or.\*]
- Mitxelena 1960 K. Mitxelena, «Asaba zaarren baratza», *Egan*, 1960 [3-6], 121-134 or. [= MEIG, IV, 29-47 or.\*]
- Mitxelena 1963 K. Mitxelena, «Adabakiak», *Egan*, 1963 [1-3], 123 or. [= MEIG, I, 235-

- 237 or.]
- Mitxelena 1970 L. Michelena, *Estudio sobre las fuentes del diccionario de Azkue*, Bilbo, Centro de Estudios Históricos de Vizcaya, 1970
- Mitxelena 1972 K. Mitxelena, «Azken ordukoak», in *Mitxelenaren idazlan hautatuak*, ed. P. Altuna, Bilbo, Mensajero, 1972, 365-401 or. [= MEIG, VIII, 151-185 or.\*]
- Mitxelena 1977 L. Michelena, *Fonética histórica vasca*, Donostia, Julio Urkixo Mintegia, 1977 [= 1985, 1990; 1. ed. 1961]
- Mitxelena 1979 L. Michelena, «Miscelánea filológica vasca, III», *Fontes linguae Vasconum*, 11 (1979), 213-236 or. [= Id., *Palabras y textos*, Bilbo, Euskal Herriko Unibertsitatea, 1987, 411-433 or.]
- Mujika 2002 J.A. Mujika, *Euskal ortografiaren hastapenak Iparraldeko literaturan*, Bilbo, Euskal Herriko Unibertsitatea, 2002.
- OEH †L. Michelena, *Diccionario general vasco. Orotariko euskal hiztegia*, Bilbo, Euskaltzaindia, 1987-
- Omenaldi* *Orixen Omenaldi*, Donostia, Euskaltzaindia, 1965
- Onaindia 1974 S. Onaindia, *Eskutitzak euskal literaturari buruz*, Bilbo, s.b., 1974
- Onaindia 1986 S. Onaindia, «Orixeren omenez. (Bere iru eskutitz)», *Karmel*, 1986 [3], 19-27 or.
- Oñatibia 1990 M. Oñatibia, «Aita Mokoroa: bizitza-ezpalak», in *Justo M. Mokoroa: biografia, lanak, usteak*, ed. A. Arejita et al., Bilbo, Labayru Ikastegia, 1990, 17-24 or.
- Palau 1956 A. Palau y Dulcet, *Manual del librero hispanoamericano. Bibliografía general española e hispanoamericana [...]*, Bartzelona, Librería Palau, 1956 [2. ed.]
- Palau 1967 A. Palau y Dulcet, *Manual del librero hispanoamericano [...] Tomo XIX [...] San-Santa [...]*, Bartzelona, Librería Palau, 1967
- Pérez Gaztelu E. Pérez Gaztelu, *Koldo Mitxelena Elissalt: egitasmoa eta egitate*, Erretereria, Erretereriako Udala, 1995
- PIA Paulo Iztuetaren artxiboa
- Quondam 1983 A. Quondam, «La letteratura in tipografia», in *Letteratura italiana. II. Produzione e consumo*, zuz. A. Asor Rosa, Torino, Einaudi, 1983, 555-686 or.
- Rico 2001 F. Rico, «Lecturas en conflicto: de ecdótica y crítica textual», in *Studia in honorem Germán Orduna*, Alcalá de Henares, Universidad de Alcalá, 2001, 543-556 or.
- Rico inprim. F. Rico, «En torno al error: crítica textual, crítica literaria y transmisión impresa», in *Actas del I congreso internacional del Instituto de Historia del Libro y de la Lectura (Syntagma, 2)*, Salamanca, IHLL, imprimategian
- Roncaglia 1975 A. Roncaglia, *Principi e applicazioni di critica testuale*, Erroma, Bulzoni, 1975
- Ruiz Arzalluz 1992 I. Ruiz Arzalluz, «Sarrera», in A. Ibiñagabeitia, *Bergiliren Unai eta Alor-kantak*, ed. I.R.A., Donostia, Euskal Editoreen Elkarte, 1992, vii-lxv or.
- Ruiz Arzalluz 1995 I. Ruiz Arzalluz, «Virgilio Txerribuztangoerrekan. (I. *Bukoliken eta Georgiken* euskal itzulpenak)», *ASJU*, 29 (1995), 661-696 or.
- Schoenemann 1794 C. Schoenemann, «Supplementum ad opera S. Augustini [...]. Notitia litteraria in vita, scriptis et editionibus operum S. Augustini», in *Bibliotheca historico-litteraria Patrum Latinorum [...]* Leipzig 1794, II, 73-190 eta 328-338 or. [= apud J.-P. Migne, *Patrologiae cursus*

- completus... Series prima...*, Paris, J.-P. Migne, 1849, XLVII, 40-141  
zut].
- Segurola 1987 I. Segurola, «Oharrak eta argibideak», in Orixe, *Quito-n arrebarekin*, ed. I.S., Bilbo, Euskal Editoreen Elkarte, 1987, 211-222 or.
- Solignac 1992 A. Solignac, «Aveu et Louange: les mots confiteri et confessio», in Id., «Introduction aux Confessions», in *Oeuvres de saint Augustin. XIII. Les Confessions...*, s.l., Études Augustiniennes (Bibliothèque Augustinienne), 1992, 9-266 or.
- Som. 1890-1900 A. de Backer - A. Carayon - C. Sommervogel, *Bibliothèque de la Compagnie de Jésus [...] nouvelle édition par C. Sommervogel*, Bruxelles-Paris, Schepens-Picard, 1890-1900 [= Louvain, Éditions de la Bibliothèque S.J., 1960]
- Stoppelli 1987 P. Stoppelli, «Introduzione», in *Filologia dei testi a stampa*, ed. P.S., Bologna, Il Mulino, 1987, 7-31 or.
- Stussi 2000 A. Stussi, «Filologia d'autore», in *Fondamenti di critica testuale*, ed. A.S., Bologna, Il Mulino, 2000, 287-299 or.
- Sudupe 1996 P. Sudupe Elorza, *Nemesio Etxanizen biografia eta ideologia*, Bilbo, Euskaltzaindia - Bilbao-Bizkaia Kutxa, 1996
- Thalamos L. 1976 J. Thalamos Labandibar, «Isidoro Fagoaga Larrache. Una vida señera de artista y de escritor», BAP, 32 (1976), 343-413 or.
- Timpanaro 1977 S. Timpanaro, *El lapsus freudiano. Psicoanálisis y crítica textual*, Bartzelona, Crítica, 1977 [jat. 1. ed. 1974]
- Timpanaro 1981 S. Timpanaro, *La genesi del metodo del Lachmann*, Padova, Liviana Editrice, 1985 [=2. ed. 1981; 1. ed. 1963]
- Tombeur 1997 P. Tombeur, «Le vocabulaire des titres: problèmes de méthode», in *Titres et articulations du texte dans les oeuvres antiques. Actes du Colloque International de Chantilly 13-15 décembre 1994*, ed. J.-C. Fredouille et al., Paris, Institut d'Études Augustiniennes, 1997, 559-579 or.
- Torrealdai 1996 J.M. Torrealdai, «Bibliografía», in *Rikardo Arregi: gizona eta garaia*, ed. B. Arregi et al., Andoain, Manuel Larramendi Kultur Bazkuna ('Saiakera', 3), 1996, 103-118 or.
- Tovar 1952 A. Tovar, «La obra de D. Resurrección María de Azcue», in *La obra de D. Resurrección María de Azcue. Edición-recuerdo de la velada necrológica celebrada en Bilbao el día 4 de enero de 1952 para honrar la memoria del virtuoso sacerdote e ilustre vascofilo*, Bilbo, Junta de Cultura de Vizcaya, 1952, 19-40 or.
- Tovar 1966 A. Tovar, «Azkie gramático», in L. Michelena - J. Caro Baroja - A. Tovar, *Don Resurrección María de Azcue: lexicógrafo, folklorista y gramático. Conmemoración del centenario del nacimiento del filólogo vasco, perteneciente a la Real Academia Española*, Bilbo, Junta de Cultura de Vizcaya, 1966, 58-80 or.
- Trifone 1993 P. Trifone, «La lingua e la stampa nel Cinquecento», in *Storia della lingua italiana*, ed. L. Serianni - P. Trifone, Torino, Einaudi, 1993, I, 425-446 or.
- Troisième* *Troisième centenaire de l'édition mauriste de saint Augustin. Communications présentées au colloque des 19 et 20 avril 1990*, Paris, Institut d'Études Augustiniennes - Institut Catholique (Collection des Études Augustiniennes, Série Antiquité, 127), 1990
- Trovato 1991 P. Trovato, *Con ogni diligenza corretto. La stampa e le revisioni editoriali dei testi letterari italiani (1470-1570)*, Bologna, Il Mulino, 1991
- Trovato 1998 P. Trovato, *L'ordine dei tipografi. Lettori, stampatori, correttori tra Quattro e Cinquecento*, Erroma, Bulzoni, 1998
- Ugalde 1977 M. Ugalde, [Elkarrizketa Jokin Zaitegiri], *Deia*, 1977ko abenduaren 8a, 14 or.

- Ugalde 1981 M. Ugalde, «Jesús María de Leizaola. Elkarrizketa-Entrevista», in J.M. de Leizaola, *Obras completas*, Donostia, Sendoa, 1981, I, xxi-xxv or.
- Urgell 2001 B. Urgell Lázaro, «Sarrera», in P.A. Añibarro, *Gueroco guero*, ed. B.U.L., Bilbo, Euskaltzaindia, 2001, i-ccix or.
- Velez de M. 1981 J. Velez de Mendizabal, *Iokin Zaitegi*, Arrasate, s.b., 1981
- Verheijen 1990 L. Verheijen, «Introduction», in *Sancti Augustini confessionum libri XIII, quos post Martinum Skutella iterum edidit lucas Verheijen O.S.A., editio altera*, Turnholt, Brepols (‘Corpus Christianorum’, Series Latina, XXVII), 1990 [1. ed. 1981], v-xxii or.
- Zaitegi 1956 U. [= J. Zaitegi], «Augustin Gurenaren Aitorkizunak irakurten», EG, 1956 [5], 102-107 or.
- Zuazo 1988a K. Zuazo, *Euskararen batasuna*, Bilbo, Euskaltzaindia, 1988
- Zuazo 1988b K. Zuazo, «Orixeren mendeurrenean», ASJU, 22 (1988), 243-252 or.



I

LIBURUAREN SORRERA



## Mugaz bestaldean

Donibane Lohizunen egindako oporralditik Parisa itzulita, honela azaltzen zion Andima Ibiñagabeitiak bere lagun Jokin Zaitegiri, 1947ko irailaren 26ko gutun batean, Telesforo Monzonekin izandako elkarrizketa bat:

Orain arte egin lan batzuen berri eman zidan [sc. Monzonek]. [...] Orixek *divi Augustini liber Confessionum* euskeraltzen omen. Bukatuxe omen du itzulpena. Zergatik ez digu Omer euskeratzen, esan nion Telespori. Obe luke poema-aundi ori emango baliguke. Bainan Orixek ez izaki errez makurtzen danetarikoa. Itxumustuan ari baino, obe genuke euskeltzale guziok bat artu ta gerorako idazti-piloa gertu. Ez al gaitu etorkizunak larru-gorri atzemango!<sup>1</sup>

Hemendik abiatuta, arrazoizkoa da pentsatzea 1947ko udara aldean aurreratuxe zuela Orixek handik hamar bat urtera bakarrik argitaratuko zen itzulpena: Ibiñagabeitiaren hitz hauek *Aitorkizunei* buruz dugun lehenengo lekukotasuna dira.

Mugaz bestaldean eman zituen urte haietan sortu bide zitzaion Orixeri *Aitorkizunak* itzultzeko asmoa eta, izan ere, orduan ondu zuen egin zituen bi idatzaldietako lehendabizikoaren zati handiena: I-IX liburuei dagokiena eta X. liburuarena, lehenengo idatzaldi honetako XI-XIII liburuen testua Ameriketara eta bospasei urte geroago eskribitu baitzuen.<sup>2</sup> Nahitaezkoa dugu, beraz, Iparraldean pasatutako garai ilun hura ahal den xeheena berreraikitzea, orain arte eman diren datu eta uste zenbait zehazten eta zuzentzen saiatuz.<sup>3</sup> Ezaguna da nola ihes egin behar izan zuen Orixek, 1938ko abuztuan seguruenik,

<sup>1</sup>Ibiñagabeitiak Zaitegiri, 1947ko irailaren 26koa (AB eta Ibiñagabeitia, *Gutunak...*, 27 or.). Izan zuen Orixek Homero euskaratzeko asmoa, baina 1947a baino urte batzuk lehenago, J.M. Mokoroari 1934ko azaroaren 26an egindako gutun batetik atera dezakegun bezala: «Omer gizagajoa oraingoz baztarrean iduki bearko dut, neronen asmoak ere lanik aski ematen didate-ta. Segalá ari omen da ekoizpen eder kritikua bat argitaratzen. Ua erosi bearko. Nik Teubner zarra besterik ez dut» (PIA). Asmo zahar —damurik ustel— honen berri ote zuen Ibiñagabeitiak?

<sup>2</sup>*Aitorkizunen* testurako ditugun lekukotasun guztien deskribapen zehatz bat (hauen artean I-IX liburuen lehenengo idatzaldia) 67-73 or. irakurri ahal da. Xgarren liburuari dagokion itzulpena —edo honen zati handiena— zuen eskuizkribu bat izan zela pentsarazten diguten arrazoien gainean ikus, hemen bertan, 37-39 or.; Orixek Ameriketara emandako urteez eta han egindako lanaz 40-47 or. mintzatu gara.

<sup>3</sup>Aurrerapen handiak egin dira azken urteotan Orixeren bizitzaren —eta, b e r a z , obraren— inguruan: alde batetik, Altuna [1989], Orixeri buruz zeharka baino ez badihardu ere Altuna [1990a], eta XX. mendeko euskal literaturaren historiaren zati handi baterako pentsa daitekeen baino askoz garrantzitsuagoa den Altuna [1990b]; beste alde batetik, ezin neurtuzko aurrera pausoa da Iztueta [1991] eta, beste modu batera, egile honek beronek zuzendutako Orixeren idazlan guztien edizioa: lehendabiziko

Orexako etxetik mugaren beste aldera.<sup>4</sup> Lehenengo bi urteak Donibane Lohizunen egin zituen, 1940ko maiatzera arte: ordukoak dira Angelun 1939-1940 bitartean ateratzen zen *Euzko-Enda* aldizkarian argitaratutako artikuluak,<sup>5</sup> Isidoro Fagoagaren Donibaneko etxean izandako bilerak eta geroago sortuko zen *Gernika* aldizkariko jendearekiko hartu-emanak<sup>6</sup> eta, orobat, Olabide ikustera —Toulouse-n baitzen hura 1937garren urtetik— Martin Oiartzabalekin batera egindako bi bidaiak.<sup>7</sup> 1940ko maiatzaren erdi edo bukaera aldean Gurs-eko itxitura eraman zuten (errefuxiatuentzako *camp de concentration* bat, Oloron eta Navarrenx-en artean, Mauletik kilometro gutxi batzuk ipar-ekialdera, Baionatik, esaterako, hirurogeita hamabost bat kilometrorra),<sup>8</sup> Hegoaldetik joanda Iparraldetik zebiltzan beste euskaldun askorekin batera: pentsatzekoa da Orixek irailean-edo irtengo zuela handik, bertan hiru hilabete eta erdi pasatu zuela baitio.<sup>9</sup> Gurs-etik irten eta, nola zehazki ez

aldiz argitaratu dituen dokumentuengatik, jaso dituen —eta bestela ja betiko galduta leudekeen— ahozko lekukotasunengatik eta, oro har, Orixeren bizitza berreraikitzen egin duen lan eskergarengatik.

<sup>4</sup>Ihesari buruzko xehetasunez Iztueta [1991, 96-99 or.].

<sup>5</sup>«Hacia una gramática nuestra», *Euzko-Enda. Bulletin mensuel dédié à l'union de la race basque. Boletín mensual dedicado a la unión de la raza vasca*, 6 (1939ko ekaina), 10 or.; 7 (1939ko uztaila), 3 or.; 8 (1939ko abuztua), 11 or.; 9 (1939ko iraila), 14 or.; 10 (1939ko urria), 7 or.; 11 (1939ko azaroa), 6 or.; 12 (1939ko abendua), 6-7 or.; 13 (1940ko urtarrila), 13 or.; 14 (1940ko otsaila), 13 or.; 15 (1940ko martxoa), 14 or. [= IG, III, 815-830 or.]; eta «Las dos banderas de san Ignacio y la guerra de España», *ib.*, 7 (1939ko uztaila), 10 or. [= IG, III, 1.207-1.208 or.]. *Euzko-Enda* aldizkarian agertutako testuaren beste bertsio bat, M. Oiartzabalen paperen artean aurkitua, J.A. Etxebarriak argitaratu zuen: N. Ormaetxea Orixe, *Hacia una gramática nuestra. Tiempos de la conjugación. Adizkien eraskina*, Gernika, Jakintza Baitha, s.a. Ikus honetaz —eta baita ere, oro har, Orixek Iparraldean emandako urteez— Charrirton [1991].

<sup>6</sup>Ikus Thalamas Labandibar [1976, 374 or.].

<sup>7</sup>Honela idazten dio Orixek aita 'Perico' Leturiari —berak diotsen bezala— 1954ko irailaren 3ko gutun batean (OE, 953-954 or.): «Entre los años 1938-1940 estuvimos [sc. Orixe bera eta Oiartzabal] dos temporadas en Toulouse, donde él [sc. Olabide] residía, corrigiendo y confrontando [sc. Bibliaren itzulpena], y nadie como nosotros dos sabe las últimas tendencias del finado en las correcciones [...]»; jakina, on Martinen lepotik, Orixek ez baitzuen xemeikorik: «Don Martín es el más acreedor en esto, pues a sus expensas fueron el viaje de los dos y la estancia en el Hotel, y él ponía el papel, etc., para las cinco copias que le íbamos sacando [...]». Toulouse-ra egindako bidai hauetaz ere ikus «Olabideren Itun zarra», EG, 1950 [5-6], 46 or. [= IG, III, 425 or.] eta, beheago, 30 or. 19 oh.; bi bidai horietako baten beste lekukotasun bat J.A. Etxebarriak argitaratu emanarazitako *Lati-izkuntzaren joskera* liburuxkaren hasieran eta bukaeran dauden argazkiak dira, biak M. Oiartzabalengandik hartuak (7 eta 55 or.: ikus, liburuxka honen erreferentzia, beheago 33 or. 31 oh.). Bi adiskideak Saubion-en zeudela hil zen Toulouse-n, 1942ko irailaren 9an, maisutzat zuten Olabide aita.

<sup>8</sup>Ikus, honetarako ere, Iztueta [1991, 102-115 or.]. Gurs-a Donibane Lohizunetik joan zen: «Donibanetik uda pasatzera / igorri nau igorri nau Gurs-era» («Idorreria», IG, I, 626-628, 627 or.); poesia honen gainean ikus beheago 32 or.

<sup>9</sup>Noiz eta norekin batera sartu zuten Gurs-eko itxitura seguru dakigula dirudi: ikus Iztueta [1991, 108-110 or. eta, zehazki, 108 or. 56 oh.]. Irteeraren data, berriz, Orixeren beraren lekukotasunaren arabera finkatu behar da, harekin batera sartu ziren euskaldun gehienak hura baino lehenago atera zirela baitirudi: izan ere, 1940ko ekainaren azken egunetan alde egin ahal izan zuten etxea eta bizibidea zituztela frogatzen guztiak (ikus Laharie [1993, 140-143 or., zehazki 142 or.]). Ezin da ordea zalantzarik izan Orixek irailean-edo irten zuela, argi eta garbi dioelako Gurs-en hiru hilabete eta erdi pasatu zuela, eta ia-ia ezinezkoa da oroitzapen hau zehatza ez izatea (*Quito-n arrebarekin...*, 102 or.); bestalde, Gurs-en bertan zegoen A.M. Labaienen lekukotasuna dugu (Labaien [1990, 52 or.]), eta merezi du osorik ematea: «Goitik bera aleman gizonek Espaniaruntz zetozten eta beldur giñan Gurs-en axiloiutak guendenak zer nolako irten bidea izango genduen. Erreztasun gutxi izanagatik zelai hartako buru gelditu ziranak beren lana arintzeko eta prantzez agintarien paper agiriak genituenai atek iriki zizkiguten. Bai guk ere ontzat hartu. Ausartzeke bertan geldi ziranak etorkizun okerrago ezagutu zuten. [...] Orixe Uruñuela anaiekin zoritxarrez bertan geldituz, gero tiro tartean atera ziran, oiñez eta neka neka eginda, zituen puska apurrak bidean galduz. Orixe alare Lapurdiruntz iritxi zalarik antziñan Aresotik etorritako eta Bidarrai

dakigula, Saubion-a jo zuen (Landetan, Saint-Vincent-de-Tyrosse-tik hurbil, Akizetik hego-mendebalera), bertan baitzegoen erretore, Clément Mathieu apezpikuak izendatuta, Martin Oiartzabal bere lagun mina:<sup>10</sup> Saubion-en daude idatzita eta datatuta, 1941. urtean, Viennot jaunari bidalitako zenbait testu;<sup>11</sup> badakigu, halaber, 1941-1942 urteetan egin zuela (eta Saubion-en egin zuela pentsatu behar da, Oiartzabalekin batera egin zuenez gero) askoz geroago *El lenguaje vasco* izenburuarekin argia ikusiko zuen liburuaren zati handi bat;<sup>12</sup> Saubion-go garaikoa izan behar luke 1942an idatzia bide den «Composición gramatical griego-vasca» artikulua,<sup>13</sup> hala nola Orixek gutun batean aipatzen duen eta ja galdutzat ematen duen 'hiztegitxo' batek;<sup>14</sup> eta egonaldi haren bukaeraren *terminus post quem* da —dakidalarik— berriki argia ikusi duen *De mi vida externa* idatzi ezin garrantzitsuagoa, izenburuaren azpian honela irakur baitaiteke: «Saubion (Las Landas), 24 de febrero de 1943».<sup>15</sup> Saubion-dik noiz eta nora alde egin zuen jakiteko J.M. Aranaldek bakarrik dakarren lekukotasuna daukagu —*De mi vida externa* idatziaren datak berretsita, zati batean—: honen arabera —ez digu ordea esaten, zoritxarrez, nondik ateratako datua den— Saubion-en «bizi izan zan 1943garren orrillaren 6 arte», egun honetan Aire-sur-l'Adour-a joan zelarik, Pauetik berrogei bat kilometro iparraldera.<sup>16</sup>

Saubion-go garaitik aurrera uste izaten den baino ilunago gertatzen dira Orixeren ibilaldiak. Aire-ko egonaldiaz ezer gutxi dakigu: «varios meses» pasatu zituela bertan.<sup>17</sup>

---

herrixkan bizi ziran aietara biltzea lortu zuan». Aranaldek [1965, 13-14 or.] Saubion-en kokatzen du ja 1940ko irailean, eta hutsa dirudi Goikoetxearen «en octubre de 1940» delakoak [1972, xxviii-xxix or.], haren iturri bakarra Aranalde [1965] baita (nahastu egingo zen Aranalderen lan honetan agertzen den «ix-1940» itzultzean; segurutzat jo dezakegu haxe duela iturri bakarra hemengo huts bat kopiatzen duelako, alegia Bétharram-etik «Baigorriara» joan zela, eta ez, behar zuen bezala, «Bidarraira»).

<sup>10</sup>Gurs-etik Saubion-a joan zelakoa (Bidarrain, esan bezala, geldialdi labur bat eginez) segurutzat jo bide daiteke; hara nola kontatzen duen, zeharka bada ere, *Quito-n arrebarekin* liburuan (101 or.): «Gurs-eko atari itxitu edo Mirandategi artatik atera berri nintxinan. Landes-etara igesegin nunan, adiskide aundi Martin Oiartzabal jaunaren etxera».

<sup>11</sup>1941eko data daramate, izan ere, Wilham Viennot jaunari Saubion-dik Donibane Lohizuna bidalitako —eta frantsesez idatzitako— filosofiazko gutunek (ikus IG, III, 19-30 or.): «le 1 janvier 1941», «le 27 janvier 1941», «le 5 mars 1941», «le 8 mai 1941» eta «le 17 mai 1941»; eta 1941ekoak izango dira, seguruenik, Bergson-i buruzko burutapenak (IG, III, 31-52 or.), filosofoa hildakoan onduak baitira: «Con ocasión de la muerte del renombrado filósofo de nuestros días, Henri Bergson (enero 1941), he podido leer sus obras facilitadas por mi discípulo de español, el belga Gros fils» (IG, III, 44 or.).

<sup>12</sup>Honela irakur daiteke hitzaurrearen hasieran (5. or.): «Curioso lector: la primera redacción de esta Gramática se hizo allá por los años 1941-1942. La Providencia permitió que nos separasen, y hasta el año 1960 no nos hemos reunido para darle la segunda. En la primera redacción mi colega tenía buena parte, y en esta ha ido puntualizando y aumentando, sin que yo haya tocado nada, salvo en la última preparación». Ohartu behar litzateke «allá por los años 1941-1942» honek ez digula uzten nahi genukeen beste zehazten: kontuan hartzekoa da behegero aipatuko diren zenbait gauzatarako.

<sup>13</sup>ASJU, 5 (1971), 77-103 or. [= IG, III, 1.018-1.041 or.]; Manuel Agud jaunak, lan honi jarritako hitzaurrean, 1942an idatzitakoa dela dio (1.018 or.).

<sup>14</sup>Oiartzabali 1957ko abuztuaren 9an Orixetik bidalitako gutunean, antza aurreko batean hark egindako galdera bati erantzunez, honela dio (OE, 963 or.): «Saubion-go iztegitxo... *neque si Spiritus Sanctus est...* ez neukan gogoan. Emengo *fisheroa* ere, Euskaltzaindirako egiña neukana, itzalia da. Oinbeste lan galdu!».

<sup>15</sup>Izrueta [1991, 175-183 or.].

<sup>16</sup>Aranalde [1965, 14 or.]; Charritton [1991, 113 or.] eta Iztuetaren arabera [1991, 753 or.], Aire-sur-l'Adour-eko seminarioan ('Petit Séminaire') egon zen: ez dute, berriz ere zoritxarrez, besterik gehitzen. (Bere lagun mina zen J.M. Mokoroa ere bertan egona zen, hara bidaltzen baitio *carte postale* bat 1938ko irailaren 16an [PIA], zalantzarik gabe Donibane Lohizunetik; ikus baita ere Oñatibia [1990, 20 or.]).

<sup>17</sup>Halaxe dio «*Adur, eskara*», *Gernika*, 15 [1951ko apiril-ekaina], 105-106 or. [= IG, III, 925-927, 926

Hortik aurrera, esan ohi da 1943tik 1946ra —edo 1945era— Bétharram-eko garikoiztarren ikastetxean egon zela irakasle.<sup>18</sup> Badira ordea kronologia honekin bat ez datozen zenbait datu. Segurutzat jo dezakegu Bétharram-en, gutxi gorabehera, bi urte egin zituela: Orixek berak dioskulako argi eta garbi, bere poesia batean eta *Gernika* aldizkarian argitaratutako artikuluko batean, eta urte haiek Orixerekin batera pasatu zituen J.M. Leizaolaren lekukotasun askorengatik;<sup>19</sup> segurutzat jo daiteke, orobat, Bétharram-en emandako denboraldian 1943. urtearen zati bat sartzen dela eta 1944. urtea ia-ia osorik;<sup>20</sup> 1943 urteari dagokionez Saubion-go garaiari buruzko lekukotasunengatik, Leizaolaren batzuenengatik eta Orixeren beste batzuetatik atera behar diren ondorioengatik, eta 1944ari dagokionez Orixek berak datatzen duelako Bétharram-en eta 1944an Prudentzioren bi olerkiren itzulpena, espresuki esaten duelako *Jainkoaren bila* liburuan, ekainaren 2tik abuztuaren 28ra bitartean Zataraindarrei bidalitako gutunengatik eta, berriz ere, Leizaolaren lekukotasun ugarirengatik;<sup>21</sup> eta segurutzat jo daiteke, azkenik, 1944ko udazken aldean

or.] artikuluan: «La simpática población Aire-sur-l'Adour, en donde pasé varios meses de refugiado [...]». Honetaz gain, aurreko oharrean aipatutako lekukotasunak ditugu eta baita Labaien en hau ere [1990, 52 or.]: «Gure gizona adiskideen deiak betetzearren Akitz (Dax), Pabe (Pau), Air sur Adour [sic] eta Lourdes ingurutik zetorkionak ezin bada uzkeru egin». Osu kontuan izan behar da, ez bakarrik puntu honetan baizik eta oro har Orixek mugaz bestaldean emandako urteei buruz ditugun datu gehienei dagokienez, dakigunaren —edo dakigula uste dugunaren— zati handi bat jatorri jakinik ez duten lekukotasunetan oinarritzen dela: hau da, askotan ez dakigu guri oroitzapen gisan aurkezten zaizkigun datu horiek oroitzapen hutsetatik datozten ala oroitzapen horien azpian idatzizko datuak dauden; hau guztia, bestalde, bereziki larria da kronologia bat eratu nahi baldin badugu: oroitzapenak erraz lausutzen badira, edonork daki zeinen zaila den horiek urte jakin batean kokatzea.

<sup>18</sup>Charrittonek «1943-1946» dakar [1991, 113 or.] eta baita Iztuetak ere [1991, 101 or.], nahiz eta hiru lerro beherago (eta baita 753 eta 1.076 or. ere) 1943-1945 urteekin jokatu. (Bétharram-eko 1943-1946 bitarteko egonaldi hau berriz aipatzen du liburuxka berriago batean: Iztueta [1994, 3 or.]).

<sup>19</sup>«Lurden (1938-1939)» izenburua duen olerkian (IG, I, 622-623 or.) ikasturte horretan Lourdes-en egindako gurutze bide bat aipatzen du; 1972ko edizioan (588-589 or.), ez ordea idazlan guztienean, Orixeren beraren ohar hau irakur daiteke: «Toulouse-ra bidean —etortzekoan—. Oiarzabal-dar Martin aipaizak A. Olabide ikustera eraman ninduean» (gaizki jasota, bide batez esan dezagun, erdarazko itzulpena: «De vuelta para Toulouse...»); hots, Olabide ikusteko Toulouse-ra egin zituzten bi bidai haiei batean, Donibane Lohizuna 'etortzerakoan', Lourdes-en sartu ziren; baina poesia ez da 1938-1939koa —hori titulua besterik ez baita, olerkian kontatzen den g e r t a k a r i a r e n data— askoz geroagokoa baizik, azken ahapaldian honako hau irakur baitaiteke: «Betharram-en gero, irakasle lagun / batek: "etzabiltza maiz Lurde-bidean". / Aste guziz ua; ni lau bost aldiz / bi urte osotan» (Bétharram, noski, Lourdes-etik oso hurbil dago, hamabost kilometrora, Orixek berak aipatu oharrean gogorarazten duen bezala). Oso argi dago, beraz, Bétharram-en bi urte eman zituela, eta ez hiru. Gauza berbera errepikatzen du *Gernika* aldizkarian argitaratutako «Ciencia y práctica de nuestro idioma» izenburuko artikuluan (18 [1952ko urtarril-martxoan], 23-26 or. [= IG, III, 940-943, 940 or.]): «Dos cursos hice en Bétharram [...]» (baita ere apud Iztueta [1991, 1.076 or.]). Azkenik, bi urteri buruz hitz egiten duten Leizaolaren lekukotasun ugari ditugu: «Catorce años más tarde, reunidos por espacio de unos dos años él y yo en Bétharram [...]» (Leizaola [1982, 231 or.]); Leizaolaren bi urteri buruzko beste lekukotasunak 21 eta 22 oh. ikus daitezke.

<sup>20</sup>Ez nahitaez oso-osorik, aipatu poesian «bi urte osotan» badio ere: hemen ez dago bere bizitzaren kronologia bat egiten, beste zerbait baizik; ez dago argi, bestalde, zer esan nahi duen aurreko oharrean aipatutako «dos cursos» horrek: nekez bi ikasturte oso, inongo lekukotasunek ez baitu horrelakorik berresten, bai ordea agian ikasturte bat eta beste baten zati bat.

<sup>21</sup>Parisen ateratzen zen *Euzko-deya*-n (1945eko otsailaren 15, 208 zenb., 11-12 or.) Orixek euskaratutako Prudentzio poeta latindarraren bi olerki argitaratu ziren («Ollaritean» eta «Goizeroko»), eta, bien bukaeran, itzultzailearen izenaren ondoan, tokia eta data —Orixerengan askotan bezala— irakur daitezke: «Bétharram 1944». (Itzulpenak beste bi edizio hauean ere irakur daitezke: *Euskaldunak poema eta olerki guztiak...*, 598-600 or., eta IG, II, 22-24 or.; baina lehendabizikoan tokiaren aipamena ez da jaso eta bigarrean ez tokiarena ez urtearena). Gainera, euskaratutako bi olerkien izenburu «Euzkotar kristau zarrenak otoitzean» agertzen da eta

Bétharram-etik Bidarraira joan zela: berriz ere Leizaolaren lekukotasun batengatik eta, aldi berean, Bidarrain daudelako datatuta, 1944ko azaroan, beherago aipatuko diren Orixeren paper batzuk.<sup>22</sup> Ez dakigu ordea urte eta erdi hau edo bi urte eskas hauek Bétharram-en pasatu zuen denbora guztia diren; baditugu honen kontra hitz egiten duten datuak: alde batetik, Orixeren «bi urte osotan» eta «dos cursos» haiek ez datoz zeharoan bat mugatu ahal izan dugun denboraldiarekin, baina egia da, orobat, ez dagoela —dauden testuinguruan egonda— hitz horiek *sensu stricto* ulertu beharrik; beste alde batetik, 1944ko udazkenetik aurrera Bidarrain gelditu zela onartuez gero, bertan emandako denboraldia luzeegia gelditzen zaigu, honen gainean hitz egiterakoan ‘urte eta erdi’ eta ‘bi urte’ esaten baitzuen Orixek baina, esan bezala 1944ko udazkenetik kontatuta, bi urte eta erdi aterako litzaiguke gutxi gorabehera. Datu hauekin jolasean hasiez gero eta beste urte bat pasaraziko bagenio Bétharram-en —hau da, gorago ikusi dugun puntu honi buruzko kronologia *vulgata* ontzat ematekotan—, borobildu egingo genuke bi egonaldien iraupena: baina bi hipotesien arteko aldea ez da nahikoa auzi hau era honetako argudioekin garbitzeko; eta, bestalde, kontuan izan beharko genuke Orixeren mugikortasuna joan-etorri hauek pentsarazi dezaketen baino handiagoa izan zitekeela (gogora, bestela, Donibane Lohizunen egindako azken egonaldia, 1947-1949 urteetako alegia), hau da, daitekeena dela, esaterako —eta adibide bat besterik ez da—, Bétharram-etik Bidarraira joan ondoren berriz ere Bétharram-a itzuli izana. Nolanahi ere eta hipotesiak hipotesi, ditugun datu seguru bakarrak gorago aurkeztutako hiru haiek dira.

Iparraldean egindako lehenengo urte hauetan guztietan, zuzen edo zeharka, Clément Mathieu euskaldun apezpikuaren itzala dago une oro Orixeren gainean: Oiartzabal Saubion-en baldin bazegoen erretore, apezpikuak jarrita zegoen; pentsatzekoa da Aire-ko egonaldi misterioitsu samar hartan ere zer ikusirik izango zuela, hango apaiztegia ere, Saubion bezala, haren apezpikugokoa baitzen; eta, zalantzarik gabe, urte haietako Orixeren biziaren beste gauza txiki edo ez hain txiki askotan egongo zen Clément Mathieu-ren eskua —gogora,

---

izenburuaren azpian itzulpenen historia eta zergatikoa azaltzen dituzten J.M. Leizaolaren hitz batzuk («L'ar J» sinatuta); honela hasten da aurkezpen moduko hau: «Orixek eta nik alkarrekin egin degu azkeneko urtia» (Prudentzioren itzulpenari buruz ikus baita ere Leizaola [1973, 10 or.] eta ja aipatu dugun Leizaola [1982, 231-232 or.]). *Jainkoaren bila* liburuan ere (276 or. [= IG, I, 813-977, 973 or.]) 1944an Bétharram-en zegoela erakusten duen aipamen bat dago: «Bétharram-en (1944gn) nere eskuetan erori zan [...]». Hiru gutun bidali omen zizkien Orixek Zatarain aita-semeei Bétharram-etik: 1944ko ekainaren 2koa eta abuztuaren 11 eta 28koak; hauek dira behintzat argitaratu direnak («Orixeren irispide batzuk», *Euskerazaintza*, 1988 [5], 42-49 or.). Eta 1943-1944 urteak aipatzen dira berriz ere Leizaolak [1973, 10 or.] dakarren —eta beherago poliki irakurri beharko den— beste lekukotasun honetan: «[...] Orixerekin izan nituan jardunaldiak. Ugari eta zabalak izan ziran alkarrekin Bétharram-en arkitu giñanean 1943-1944 urtetan»; gauza berbera irakurri ahal dugu lehen ere aipatu dugun liburuaren beste pasarte batean [1982, 184 or.]: «[...] la época de mi conversación con el primero [sc. Orixe] en 1943 o 1944 [...]». (Eta ez da baliorik gabea berriz ere Leizaolak EG aldizkarian egindako aipamen hau [1956, 107 or.]: «Zenbat izketaldi egin ditudan gai orretzaz Orixe ber-berarekin! Azkenekoak, orain amabi urte Bétharram-en». Baina kontuan izan behar da EG-ren zenbaki hau 1956ko abenduan-edo argitaratu zela).

<sup>22</sup>«Alkarrekin Bétharram-en bi urte igaro ta gero, Parisa ni eta Bidarraira bera juanak giñan [...]»; «Bétharram-en utzi nuan nik Orixe urtearen azken aldean» (Leizaola [1973, 6 eta 10 or.]). Orixe Bidarraira joan zela Leizaola ere Parisa joan zenean —pixka bat geroago, ikusi dugunez— 1944ko azaroan Bidarrain datatuta dauden paperek berresten dute (ikus, beherago, 38 oh.). Leizaolaren bizitzari dagokionez, noski, ez da inongo zalantzarik: gogora dezagun 1944ko udazken aldera Parisa joan baldin bazen izan zela 1944ko abuztuan aliatuak Parisen sartu zirelako; ikus, dena den, Ugalde [1981, xli or.]: «Fue profesor [1941-1944] en Lestelle-Bétharram»; edo Elosegi [1989, 53 or.]: «Luego, liberada Francia, volvió de inmediato a París [...]»; etab...

esaterako, misalaren *imprimatur* Mathieu-k emana dela—.<sup>23</sup> Halaxe izan zen *Aitorkizunen* itzulpenaren sorreran ere. Izan ere lan hau, Orixeri sinistu behar badiogu, apezpikuaren iradokizuna izan zen eta hari dago eskainia: «Aturia'ko ta Akiza'ko gotzai txit agurgarri Clément Mathieu iaunari» (Aturia, zenbaiten iritzian, Aire-sur-l'Adour-en izen zaharra da, ustez euskal izena); eta honela hasi eta bukatzen da 1956ko edizioari ipinitako hitzaurrea:

Iauna: Zuk eragin ninduzun emeki, obeki esan bultzatu ninduzun bortizki Augustiñ Gurenaren Aitorkizunen liburua gure izkuntzara biurtu nenzan. Emen duzu eskuetan aspaldion ametsetan zenerabillana. [...] Idekazu ta irakur. Baiña lènik emaidazu, otoi, Gotzai-onespena, nik Zure Artzai eraztunari muñ ematen diotan bitartean.

Harrigarri samarra da, hala ere, Clément Mathieu apezpikuaren izena behin ere ez agertzea *Aitorkizunen* idazketak iraun zuen garaiko Orixeren gutunetan. (Mathieu-rentzako eskaintzari buruz ikus 72 or. eta 75 or. 23 oh.).

Badirudi, beraz, 1944ko udazkenean Bidarrain dela Orixe.<sup>24</sup> Ikusi dugu lehendik ere ibilia zela handik —Gurs-etik irtendakoan— eta, esan bezala, hantxe datatzen ditu, 1944ko azaroan, guganaino iritsi diren metafisikazko paper luze samar batzuk —euskaraz, latinez eta gaztelaniaz—. <sup>25</sup>Han eginak eta handik zabalduak dira, orobat, «Merkatu beltza», «Kontrabanda» eta «Idorreria» izeneko hiru olerki eta hauekin batera, dirudienez, inoiz argitaratu ez den «Emazteketa» izeneko beste laugarren bat.<sup>26</sup> Poesia hauen inguruan eta, oro har, Bidarraiko garai honetaz badugu dirudien baino argigarriagoa den —eta ja behin baino gehiagotan erabili behar izan dugun— J.M. Leizaolaren lekukotasun garrantzitsu bat:

[...] berak [sc. Orixek] neri emanda baditut lau bertso-berri —«Merkatu beltza», «Kontrabanda», «Idorreria», eta «Emazteketa»— 'Bidarraiko' izenpeaz egin zituanak. Alkarrekin Bétharram-en bi urte igaro ta gero, Parisa ni eta Bidarraira bera juanak giñan, eta gero ikusi giñanean nora juaterik etzekiyan. Bertsoaritzan erriz-erri juateko asmotan zebillen eta ortarako egin zituan. Gero *Urte guziko meza-bezperak* itzultzea lana bezala sortu zitayon.<sup>27</sup>

Gehi dezagun «gero ikusi giñanean» hori, zalantzarik gabe, 1946ko irailean izan zela,

<sup>23</sup>Mathieu apezpikuaren euskaltzaleasunari buruz ikus bakarrik Lafitte [1931]; hemen darabilgun gaiari dagokio Mathieu-k berak euskarari buruz idatzitako lan hau —apika bakarra—: «Comment servir la Langue Basque?», GH, 26 (1954), 151-160 or. [= *ib.*, 35, 1963, 26-32 or.].

<sup>24</sup>Antza denez, Liseronea baserrian egin zuen lehendabizi denboraldi bat, bertan lehengusu bat baitzuen, eta gero Noblia ostatuan egon ohi zen (Iztueta [1991, 101 or. eta 16-17 oh.]); baina M.H. Gastigard-ek dioenez, Orixe, hark tratatu zuen bi urteetan, Noblia ostatuan ez Pont-Noblia izenekoan baizik bizi zen (apud Iztueta [1991, 168 or.]). Bidarraiko egonaldiaz ere, beste lekukotasun batzuk irakur daitezke hemen: Charritton [1991, 113-114 or.].

<sup>25</sup>IG, III, 53-102 or.; tokiari eta datari buruzko berria P. Iztuetak ematen du testu horiei egindako sarreran, 12 or.

<sup>26</sup>Poesia hauek (IG, I, 624-628 or.) orri solteetan zabaldu omen zituen Orixek berak eta, inongo zalantzarik gabe, Bidarraitik bertatik. Orri horietan ordea ez bide da ez lekurik ez urterik aipatzen, baina J. Bilbaoren iritzian izan ziren «publicadas por el mismo Orixe y vendidas por él, en persona, durante su estancia en Bidarray, c. 1944» (*Eusko bibliographia...*, III, 321 or.). Leizaolak poesia hauei buruz dakarren lekukotasun ezin baliotsuagoan ere —testuan bertan, bi lerro beherago— J. Bilbaoren bi datuak —datari eta lekuari buruzkoak alegia— berresten dira. Non eginak diren, bestalde, ezin da zalantzarik izan, honela hasten baita «Merkatu beltza» izenburua duena: «Bachanabarre Bidarrain nuzu nitaz bazineza galde» (IG, I, 624 or.). Idazlan guztien edizioan, hala ere, hirurek «1947-1948» data daramate, ez dakigu non oinarriturik baina zalantzarik gabe oker.

<sup>27</sup>Leizaola [1973, 6 or.].



Baionan:

Bétharram-en utzi nuan nik Orixe urtearen [sc. 1944. urtearen] azken aldean. Bera andik aterata, 1946garren[eko] iraillean Baionan ikusi giñan oraindik alkar. Aurki samar *Meza bezpera*-ren itzulpena ezin uste alako bezin laster osatu zuan.<sup>28</sup>

Pentsatzekoa da herriz-herri ibiltzeko asmo horiek *cum mica salis* hartu behar direla baina, besterik ez bada, adierazpen honek erakusten digu nolakoa izan zen Bidarraiko egonaldi gazi-goza.<sup>29</sup> 1946ko maiatzean Bidarrain zegoela beste bide batetik ere segurtatu daitekeela dirudi,<sup>30</sup> eta 1947ko ekainaren 19an ere bai, data hau eta hango posta zigilua baititu Orixe Oartzabali bidalitako *Lati-izkuntzaren joskera* liburuxka biltzen zuen gutun azalak.<sup>31</sup> (1949ko udaran eta udazkenean ere Bidarrain sinatzen ditu *Gernika* aldizkarira igorritako hiru artikulu, baina badakigu 1949ko egonaldi hau opor moduko bat izan zela eta Donibane Lohizunen bizi zela orduan).<sup>32</sup> Beste alde batetik, segurutzat jo behar dugu Bidarrain bi urte bakarrik egin zituela segidan, Orixe berak —behin baino gehiagotan— horrela esana baitu.<sup>33</sup> Gorago emandako datu guztien arabera, beraz, Bidarrain errenkan pasatutako bi urte horiek 1944ko udazkena eta 1947ko udara bitartean kokatu behar dira: ikusi dugu lehenengo datari buruz ezin dela zalantzarik izan. Bigarreneko dugun datu bakarra

<sup>28</sup> Leizaola [1973, 10 or.].

<sup>29</sup> Nora joan' ez jakite horri buruz ere hitz egiten digu 1946ko maiatzean kokatu behar den gertakizun bati buruzko beste lekukotasun batek: ikus Iztueta [1991, 754 or. eta 4 oh.], Pio Montoya jaunarekin izandako elkarrizketa batean oinarrituta. Jakin beharra dago garai honetan, hau da Iparraldean pasatutako honetan, Orixe eusko gobernunik jaso zuela diru zerbait: ez dakigu ez zein urtetan, ez zenbat, ez nolako maiztasunez. Dakidalarik, hiru lekukotasun ditugu. Bata Orixerena berarena: 1952ko abenduan, El Salvador uzteko eta berriz Euskal Herrira joateko asmotan dabilenean (handik bi urtera baino gauzatuko ez den asmoa, jakina), honela idazten dio Zaitegiri: «Nik ez dezaket eskatu biderako dirurik, eta Prantzira iritxirik ere, ez nago ziur E-ko I-k lengo laguntza emango lidaken» (1952ko abenduaren 9ko gutuna, apud Iztueta [1991, 124 or.] eta AB eta, gutxi gorabehera gauza bera esanez, 1952ko abenduaren 4koa, hau ere AB); nire ustez (baina ikus, aipatu tokian, Iztuetaren zalantzak) ezin da dudarik izan «E-ko I» hori «Euzkadiko laurlaritzza» dela (4ko gutunean, izan ere, osorik agertzen da: «Euskadiko laurlaritzza [...]»). Eta hirugarren lekukotasuna da Iztuetak Labaien ahotik jasotako bat: apud Iztueta [1991, 113 or. eta 85 oh.]. Ameriketan izandako diru arazoez ere Iztueta berak [1991, 113-115 or.] jasotako lekukotasunak biziki interesgarriak dira.

<sup>30</sup> Ikus aurreko oharrean aipatutako Iztuetaren pasartea.

<sup>31</sup> Ikus J.A. Etxebarriak liburuxka honi jarritako aitzin oharra (*Lati-izkuntzaren joskera*, Bilbo, S. Antongo Katekesia, 1966, 5 or.; idazlan guztien edizioan ere irakur daiteke testua —IG, III, 995-1.017 or.—, ez ordea Etxebarriaren oharra); liburuxkoari berari buruz ikus G. Bilbao [1996].

<sup>32</sup> «Las expresiones y la expresión», *Gernika*, <8> [1949ko uztail-iraila], 16-19, 19 or. [= IG, III, 856-858 or.]; «Bidarray, agosto de 1949»; «La primera Academia vasca», *ib.*, <9> [1949ko abendua], 18-23, 23 or. [= IG, III, 858-862 or.]; «Bidarray, octubre de 1949»; eta «Errores de vascólogos nuestros», *ib.*, 10 [1950eko urtarril-martxoa], 15-19, 19 or. eta 11 [1950eko apiril-ekaina], 25-28, 28 or. [= IG, III, 863-869 or.]; «Bidarray, otoño de 1949». (Besterik dio ordea Iztuetak [1991, 116 or.]: ikus, beherago, 40 or. 2 oh.). Esan bezala, 1949ko egonaldi honi dagokionez badakigu opor aldi moduko bat izan zela; opor aldia asmo bat besterik ez zenean horrela kontatzen zion Donibane Lohizunetik orduan Txilen zegoen Justo M. Mokoroari 1949ko ekain edo uztaileko 20an egindako gutunean (Iztuetak [1991, 1.076 or.] 1949ko martxoaren 11kotzat jotzen badu ere): «Oporraldia artzeko asmoetan naiz datorren astetik. Biarnora noa. Udazkena Bidarrain inguruan pasako dut, eta neguan... Ameriketara. Misalak eman ditzidan sosekin (eskubide guziak utzirik) joan etorria egiteko aña ba dut» (PIA-ko kopia ordea datarik eta hartzaile izenik gabea da).

<sup>33</sup> Honela dio Orixe berak, zeharka, 1951ko artikulu batean: «Ikusi dugu beintzat Bidarrain, urte t'ardi an bizi izanik, zenbatak erosten zuten *Herria*» («Erria, erria! Berriz eta azkenekoz», EG, 1951 [1-2], 10-12, 10 or. [= IG, III, 927-929, 927-928 or.]; eta apud Iztueta [1991, 1.076 or.]); eta, 'urte eta erdi' izan beharrean 'bi urte'

—dakidalarik— *Lati-izkuntzaren joskera* liburuxka biltzen zuen gutun azalaren data da, esan bezala: datu segurua da —beste asko ez bezala— eta ditugun gainerako guztiekin bat datorrena.<sup>34</sup> Data hau zehazten saiatzeko beste muturretik hasiez gero, badakigu 1949ko azaroaren hasieran —lehendabiziko egunean, seguruenik— Ameriketara joateko itsasoratu zela Bordelen eta badakigu, orobat, alde egin baino lehenago Donibane Lohizunen bizi izan zela.<sup>35</sup> Donibaneko bigarren egonaldi honen lekukoak dira bertan datatuta dauden 1949ko hiruzpalau gutun eta, dirudienez, 1948aren uztaileko bat.<sup>36</sup> Iztuetaren arabera ere 1947-1949 bitartean bizi izan zen Donibanen eta Charrittonen arabera «azken bi urteak» egin zituen bertan, ez batak ez besteak zertan oinarritzen diren esaten ez badigute ere. Hortaz, badirudi Bétharram ondorengo urteei dagokienez honako kronologia hau —bere gutxi gorabeheran— eman daitekeela ontzat: 1944ko udazkenetik 1947ko udarara Bidarrain —agian hemendik kanpo emandako denboraldiren bat tartean dagoelarik<sup>37</sup>—, eta 1947ko udaratik 1949ko udazkenera Donibane Lohizunen —hemen ere kanpoan egindako egonaldi luze samarrekin, gutxienez 1949ko urteari dagokionez—.

Aipatu dira Bidarraiko urteetan ondutako lan batzuk: poesia bat edo beste, agian hara heldu zenerako eginda edo erdi eginda zeuden metafisikazko paper haiek, *Gernika* aldizkarian argitaratutako «El genio de un pueblo»...<sup>38</sup> (Ez dakigu non eginga den *Lati-izkuntzaren joskera* liburuxka: Bidarrain bukatua beharbada bai, baina daitekeena da bere zati handiena Saubion edo Bétharram-eko garaikoa izatea). Froga daiteke, bestalde, Maritxu Barriola andereñoak —diru mordoxka baten trukean— eskaini zion misalaren itzulpena 1947az geroztik eta, beraz, Donibane Lohizunen egin zuela: Intxaustik dakarren Barriolaren lekukotasun baten

bezala borobilduta, honela hitz egiten dio bere arrebari *Quito-n arrebarekin* liburuan: «Bi urtez bizi izan natxin Bidarrain [...]» (111 or.).

<sup>34</sup>Aipatu liburuxka hori bidaltzeak berak ere badu, seguruenik, esan gurarik. Beherago ikusiko dugun bezala (37 or. 51 oh.), Orixek leku batetik bestera aldatu behar zenean bukatuta zituen gauzak kasuan kasuko lagunari bidali ohi zizkion: hemen, *Lati-izkuntzaren joskera* Oiartzabali bidaltzea bera etxe aldekata baten seinaleztat har daitekeelakoan nago. Honelako kasu gehiago —eta argiagoak— ikusi ahal izango ditugu.

<sup>35</sup>Datu hau «La dichosa ortografía» izeneko artikuluko post-data-ren barruan dagoen P. Lafitteri zuzendutako gutunetik atera daiteke (*Gernika*, 11 [1950eko apiril-ekaina], 41-44, 44 or. [= IG, III, 869-872, 871 or.]); «1949garreneko azilaren lenetik honat ez dut nik ikhusi eskual agerkari bat bera ere. Buenos Aires-a ethorri naizalarik, hemen ediren dut delako ene artikululu hori». A.M. Labaienek ere «udazkenean edo negu-hasieran» kokatzen du itsasoratzeara (apud Intxausti [1979, 134 or. 21 oh.]). Hortaz, badirudi 1949ko azaroaren hasierara aurreratu behar dela Iztuetak [1991, 116 or.] suposatzen duen data.

<sup>36</sup>1949ko gutun hauetakoa da Oiartzabali martxoaren 9an bidali ziona: «Adiskide aundi: emen nago Belgikatik noiz deituko nauten, pasaportea ukana baitut» (gutun hau bai PIA-n bai OE-n dago [971-972 or.], Oiartzabali bidalitakoaren kopia bidali ziolako baita Mokoroari ere, honentzako 1949ko martxoaren 11koan diotson bezala: «Or bialtzen dizut, erenegun Oiartzabal jaunari bialdu nion oarkizun ori [...]» [PIA]; OE-n '1949ko martxoaren 10ekoa' bezala agertzen da, eta PIAkoaren makinazko testuak, izan ere, horrela dio, baina hilaren egunari dagokien zenbakia eskuz zuzenduta dago «9» irakur dadin, Mokoroarentzako eskutitzean dioenarekin bat etorriaraziz); itzuli beharko dugu, beherago (39 or. 61 oh.), Belgikako kontu honetara. 1948aren uztailekoa Irizarrek [2002, 117 or.] aipatzen du: «El 28 de julio de 1948, Ormaechea escribió, desde San Juan de Luz, a Julio de Urquijo una larga carta [...]». Julio me dio inmediatamente la carta [...]» (eta, hortaz, ez dago Urkixoren paperen artean).

<sup>37</sup>1944ko udazkenetik 1947ko udarara bi urte baino gehiago daudelako eta, gainera, Bidarrain pasatutakoa bi urte eskas izan zirela dirudielako, Orixek berak, honetaz hitz egitean, batean 'bi urte' eta bestean 'urte eta erdi' aipatzen baitu —ikus gorago 33 or. 33 oh.—. Ala 'urte eta erdi' hutsa da eta 'bi urte eta erdi' idatzi nahi zuen Orixek?

<sup>38</sup>Metafisikazko paperei dagokienez, gogora 1944ko azaroan daudela datatuta, gorago esan den bezala: beraz, Bidarrain eginak badira, hara heldu bezain laster egindakoak —eta azkar egindakoak gainera— izan beharko zuten. Artikulua, bestalde, *Gernika* aldizkariaren lehenengo garaikoa da: *Gernika*, I [1945eko urri-azaroa], 15-19 or. [= IG, III, 831-834 or.].

arabera, 1947an agindu zitzaion lan hori;<sup>39</sup> eta gorago emandako Leizaolaren lekukotasun garrantzitsu hartatik ere misala 1946ko iraila baino geroago agindu zitzaiola ateratzen da.<sup>40</sup> Beraz, misalaren itzulpena, gutxi gorabehera, 1948an zehar kokatu behar da —seguruenik 1947ko udazken aldera hasi eta 1948. urtearekin batera bukatu—: 1949aren martxoko *imprimatur* darama (nahiz eta 1950eko laugarren hiruhilabetekoan argitaratu, oso lan zaila izanik bikain inprimatu zutelako) eta Orixek berak esanda dakigu hamahiru edo hamalau hilabetea egin zuela.<sup>41</sup> Eta are esango nuke —honen frogarik egon ez arren— Bidarraitik Donibanera joateak berak —1947ko udaran, esan bezala— zer ikusi izan zuela Barriolaren eskaintzarekin.

Itzul gaitetzen orain hasieran aipatu dugun Ibiñagabeitiaren lekukotasun hartara: haren arabera, 1947ko udaran Telesforo Monzon Orixerekin egonda zegoen eta «bukatuxe» omen zuen ja honek *Aitorkizunen* itzulpena. Bidarraiko urte hauetan beste ezertan baino gehiago *Aitorkizunen* itzulketan aritu zela frogatu daitekeelakoan nago: Ibiñagabeitiari esker heldu zaigun datuarengatik, berehala emango ditugun —eta, zati batean, *Aitorkizunen* testuari berari aterako dizkiogun— beste

<sup>39</sup>«[Misala] M. Barriolak enkargaturik (1947) egindako lana da; 1949an bukatuta zegoen [...]» (Intxausti [1979, 120 or. oh. eta 134 or. 17 oh.]). Bestalde, Iztuetak [1991, 112-113 or. eta 80 oh.] jasotako Barriola beraren beste lekukotasun baten arabera ere, itzulpena 1948. urtean bukatu zuen eta, nolana ere, 1949rako bukatuta zeukan: lekukotasun honek ez digu ezer esaten eskaintzaren datari buruz, baina bat dator honen gainean ditugun beste datu guztiakin eta honengatik, neurri batean behintzat, berretsi egiten du; itzulpenaren amaitze datari dagokionez ere ezin dugu inongo zalantzarik izan: Iztuetak jasotako datu hau Intxaustik ere [1979, 134 or.] badakar —betiere, esan bezala, Barriolak emandako datetan oinarriturik— eta nahikoa da gogoratzea *imprimatur* martxoan eman zitzaiola, hau da, martxoa baino lehenago egon beharko zuela eskuizkribuak apezpikutegian —ikus, hemen bertan, 34-35 or. eta 41 oh.—. Honetaz gain, Ibiñagabeitiak [1965, 107 or.] Donibane Lohizunen itzuli zuela dio («[...] sinistu ere ez diteken epe laburrean. Goizetik asi eta arrats-beltzera, eten gabe ekiten zion lan oni, arterik artezke [...]»).

<sup>40</sup>Iztuetaren ustez [1991, 112 or.] Orixek Bétharram-eko lanpostua Maritxu Barriolak misalaren itzulpena eskaini zionean utzi zuen. Iztuetaren uste hau Leizaolaren lekukotasun baten irakurketa gure ustez oker baten ondorio da: lekukotasun horren arabera, misala itzultzeko a s m o a eta, orobat, lan hau Orixeri agintzeko ideia, nonbait, Leizaolak, Azpiakuz eta Barriolak izandako elkarrizketa batean sortu zen, hain zuzen ere Leizaola oraindik Parisa joan gabe zegoen garaian izandako elkarrizketa batean, hau da, 1944ko udazkena baino lehenago. Baina hortik ez dago jarraitu beharrik, inola ere, misala itzultzeko p r o p o s a m e n a seguituan egin zitzaionik Orixeri: eta Iztuetaren ondorio honen kontra daude, argi eta garbi, gorago ekarri diren lekukotasun eta datuak. Badugu gainera beste datu bat, orain arte aipatu direnak bezain zehatza ez bada ere, Iztuetaren hipotesiaren aurka. Orixek Ameriketara joan ahal izan bazen —gauza ezaguna da eta berak diosku behin baino gehiagotan— misalaren itzulpenaren trukean jasotako diruari esker izan zen. Badakigu Orixek dirua hartu zuenetik Ameriketara joateko txartela erosi zuen arte denbora gutxi pasatu zela: «[...] se me pagó el mismo día del contrato [...] en francos franceses. No queriendo yo meterlos en el banco, pues pronto había de tener necesidad de sacarlos por mi proyecto casi decidido de venir a América [...]. Cuando poco después fui a levantar definitivamente mi depósito [...]» (1954ko maiatzaren 8an L. Segura aitari egindako gutuna, PIA eta apud Iztueta [1991, 201 or.]). Honen argitan, ez dirudi Orixek dirua Bétharram-eko lana agindu huts batengatik utzi izana. Berriz, aita Segura delakoari egindako gutun honetatik ateratzen den susmoarekin bat dator lehen aipatutako datu eta lekukotasunek derrigortzen diguten kronologia: 1947aren bigarren erdian-edo egin zela, alegia, hitzarmen edo dena delako hura.

<sup>41</sup>Halaxe dioitso Mokoroari 1949ko martxoaren 11an egindako gutunean (PIA): «Presaka egiñerazi didate (amalau ilabete eskasetan), bafian ez dut lèr egin»; eta gauza bertsua Mokoroa berari 1951ko apirilaren 29an egindakoan (PIA): «amairu ilabetetan egindako lan ori: egiñalak egiñik dago; baña presa ematen zidaten beti, ta neronek ere zuzendu nezazken uts bat baño geiago». Merezi du gogoratzea *imprimatur* Clément Mathieu apezpikuarena dela; *nihil obstat* «Martinus de Oartzabal, censor» dago sinatuta eta argitaratzaileak «Garikoitz-tar laguntzaileak» izan ziren.

arrazoi batzuegatik eta baita Marie-Hélène Gastigard andreak Paulo Iztuetarekin izandako elkarrizketan emandako lekukotasun berez oker batengatik ere.<sup>42</sup> Hona zer dioten Orixek —1945-1947 urteetan, nire ustez— Bidarrain zeraman bizimoduaz hitz egiten ari direla:<sup>43</sup>

— [M.-H. Gastigard] Orain hobeto ikusten dut, hartaz mintzatzean, monje baten bizimodua egiten zuela: goizeko meza, korrika, estudioa, gelan beti ikasten edo idazten. Egiten zuen denbora hartan itzulpen bat.

— [P. Iztueta] Misala agian?

— [M.-H. Gastigard] Ez, ez, nire iduriko, Virgilio edo Ovidio. Uste dut Virgilio zela, baina ez dakit honen zein obra.

Marie-Hélène Gastigard-ek ondo daki —espresuki erantzuten diolako ezetz Iztuetari— bere oroitzapen lausotu horretan dagoen liburua ez dela misala eta, halaber, seguru egon gaitzeko Gastigard andreak oso ondo dakiela —orain eta, oraindik hobeto agian, Orixe tratatu zuen denboran— misal bat zer den; Virgilio datorkio gogora baina guk badakigu ezin dela izan (itzuli zuen Orixek Virgilioren *Georgiketako* pasarte labur bat, baina 1919an argitaratu zen)<sup>44</sup> eta oraindik gutxiago —Orixek entzun balu!— Ovidio;<sup>45</sup> argi dago Gastigard andreak buruan duena latin idazle ospetsu bat dela, eta eman dezakeen baino errazagoa da Virgilio eta Agustín nahastea, biak baitira latindarrak, biak nonbait ospetsuenak nor bere alorrean —bata literatura paganoan, bestea kristau literaturan—, biak orduko Gastigard andereñoa bezalako gazte batentzat oihartzun berdin samarrak sor zitzaizketenak...

Bidarraitik, beraz, Donibane Lohizuna jo zuen, seguruenik 1947ko udara aldean. Donibanen egindako bigarren egonaldia honetan aukera izan zuen berriz —aurreko hamar urteetan ez bezala<sup>46</sup>— bere lanak argitaratzeko: *Eusko-Jakintza* 1947an hasi zen argitaratzen

<sup>42</sup>Iztueta [1991, 167-172 or.]. Elkarrizketa zinez hunkigarri honek, duen balio sentimentalaz landa, oso datu eta iritzi garrantzitsuak dakartzat Orixeri buruz eta baita honen obrari berari buruz ere.

<sup>43</sup>Segurutzat jo daiteke Marie-Hélène Gastigard urte horietaz ari dela mintzatzen, elkarrizketa, batik-bat hasieran, nahasi samarra bada ere: baina urte horietaz ari da, hau da 1945-1947 urteez, Bidarrain bi urte pasatutakoan zuzenean Donibane Lohizuna joan zela dioelako argi eta garbi. («[Pl.] Eta zuk zenbat denbora egin duzu berarekin? [M.-H.G.] Nik uste, bi urte egin ditut Bidarrain. Eta gero, behar bait nuen bizi ere, *passante* gisa toki bat atxeman nuen Donibane-Lohitzuna eta hara joan nintzen. Eta justuki urte hartan bera ere Donibanera joan zen. Ez dakit zertarako joan zen Donibanera»; Iztueta [1991, 167-172 or., 170 or.]).

<sup>44</sup>Ikus honetaz Ruiz Arzalluz [1992, xlvii or. eta 43 oh.] eta [1995, 693 or. eta 45 oh.].

<sup>45</sup>Ibiñagabeitiak Ovidioren *Maita-bidea* itzuli zuela jakin zuzenean hartu zuen haserrealdiaz —hasita zegoen argitalpena geldiarazteko modukoa izan zen— ikus Arrieta [1994].

<sup>46</sup>Izan ere, gutxienez behin ageriki eta Isidoro Fagoagari bidalitako bi gutunetan, Orixe kexatu egin zen bere idazle bizitzan zehar gainean izan zituen jauntxoengatik eta, zehazki, berrogeigarrenetako hamarkadan Lafittek jarri bide zion zentsura zorrotzagatik. Hona zer dioen «Lizardi Ameriketara» izenburuko artikulu mamitsuan (EG, 1950 [7-8], 6-8, 8 or. [= IG, III, 425-428, 427-428 or.]): «Gero, matxinada aldiain, anka egin bearra izan genuen Prantzi aldera. An ere Yauntxoepen egon naiz, ni beñiñpein. Amar urteetan euskeraz zer argitaratu zan, artikulu bat atera zuten; baña nere izenik ez, yakiña, atek itxi baitzizkidaten an ere, ezer argitaratzeko. [...] Nik ez dut beintzat aukera aundirik ukan nere lanak argitara emateko. Eskerrak azken ontan, Labaien eta Lekuona yaunari, eta Garikoiztar neskatxeri». (Labaien eta Lekuona aipatzen ditu hemen orduantxe lagundu ziotelako *Euskaldunak* argitaratzen: ikus, honen gainean, 58-59 or. eta bertako 36-38 oh.). Askok uler zezaketen, aipamen garbirik egin ez arren, Lafitteri buruz ari zela eta artikulu honako hau dela: P. Lafitte, «La langue basque de 1939 à 1947», *Gernika. Eusko-Jakintza*, 1 (1947), 9-18 or. (*Gernika. Eusko-Jakintza* zen, hasieran, ja 1947ko 5-6. liburuxkatik aurrera *Eusko-Jakintza* izena eramango zuen aldizkariaren izenburua). Isidoro Fagoagari 1950eko abenduaren 6an bidali zion eskutitz izena —hau da, EG-ko artikuluaren sasoi bertuan egindako batean— eta, orain bai, Lafitteren izena espresuki aipatuz, honek berrogeigarrenetako hamarkadan ezarri bide zuen «dictadura literaria» bati buruz hitz egiten du, «[dictadura

—laguntzaileen zerrendan ere bazegoelarik— eta *Gernika* ere, 1945eko udazkenean 55 orrialdeko zenbaki bakar bat atera bazuen ere (gorago aipatutako Orixeren «El genio de un pueblo...» zekarrena), 1948aren lehenengo hilabeteetan hasi zen berriz kaleratzen (nahiz eta Orixe 1949ko uztail-iraileko zenbakira arte ez agertu aldizkari haren orrialdeetan). Horrela, garai honetakoak dira (esan bezala, Bidarraiko azken hilabeteetakoak edo Donibaneko lehendabizikoetakoak) *Eusko-Jakintzan* agertu ziren Lafonen tesiaren, Lafitteren gramatikaren eta Monzonen *Gudarien eginak* liburuaren iruzkinak<sup>47</sup> eta, beharbada pixka bat geroagokoak, «Mintzaera bakarra, giza-enda bakarra» artikulua, Julio de Urquijo jaunari egin zitzaion omenaldirako egin zuen «Ser, estar, haber», eta seguruenik Telesforo Monzonen mandatua izango zen *Leoi-kumea* liburuxka.<sup>48</sup> Donibaneko egonaldi honetakoak da baita ere, beherago frogatuko den legez, *Aitorkizunen* X. liburua. Eta, dudarik gabe Donibane Lohizunetik joanda Bidarrain egin zuen 1949ko udara-udazken aldeko aipatu oporraldi moduko hartakoak dira —aipatu da gorago— *Gernika* aldizkarira bidali zituen «Las expresiones y la expresión», «La primera Academia vasca» eta «Errores de vascólogos nuestros».<sup>49</sup> Azken artikulua hau —hobeto esateko, azken artikulua honen bigarren zatia— zekarren zenbaki berean «La dichosa ortografía» argitaratu zen; akaberak honela dio: «Buenos Aires, 17 de enero de 1950».<sup>50</sup>

Orixek pardel arina eraman ohi zuen: etxea aldatu behar izaten zuenean, paperak lagunei bidaltzen zizkien edo ezagunen etxeetan uzten zituen.<sup>51</sup> Izan ere, arestian azertu ditugun datuei geroago ikusi ahal izango ditugun beste batzuen argitan begiratzen badiegu, ondorioztatu dezakegu, batetik, Ameriketara joan baino lehenago X, 36, 58 paragraforaino heldu zela itzulketan; bigarrenik,

literaria] que me echó al cesto mis artículos euskéricos acerca de Bergson e impidió la publicación de otros trabajos que tenía preparados»; 1951ko apirilaren 7ko beste gutun batean ere mintzagai bera du (biak AB).

<sup>47</sup>R. Lafon, *Le système du verbe basque au XVI<sup>e</sup> siècle*, Bordele, Université de Bordeaux, 1943, 2 lib., *Gernika. Eusko-Jakintza*, 1 (1947), 165-170 or. [= IG, III, 835-838 or.]; P. Lafitte, *Grammaire basque. (Navarro-labourdin littéraire)*, Baiona, Librairie Le Livre, 1944, *Gernika. Eusko-Jakintza*, 1 (1947), 477-486 or. [= IG, III, 838-845 or.]; eta Monzon-Olasoneko T., *Gudarien eginak*, Miarritze, Imprimerie Moderne, 1947, EJ, 1 (1947), 700-702 or. (ez dago jasota IG edizioan). Lafitteren gramatikari egindako iruzkina bereziki interesgarria da, ondo erakusten duelako zein ziren garai hartan Orixek hizkuntzari buruz zituen iritzia; are interesgarriago egiten du Lafitteren erantzunak: P. Lafitte, «N. Ormaetxea jaun olerkariari ihardespena», EJ, 1 (1947), 703-705 or.

<sup>48</sup>«Mintzaera bakarra, giza-enda bakarra», EJ, 2 (1948), 151-160 or. [= IG, III, 845-852 or.]; «Ser, estar, haber. (Alcance de dos afirmaciones)», *Homenaje a don Julio de Urquijo e Ybarra*, Donostia, RSVAR, 1949, I, 153-159 or. [= IG, III, 852-856 or.]; *Leoi-kumea*, Paris, Arts et métiers graphiques, 1948 [= IG, I, 699-704 or. eta, *Lehoikumea* izenburuarekin, Bilbo, Ediciones Mensajero, 1991].

<sup>49</sup>Ikus 33 or. 32 oh. *Euskaldunak* ere sasoi honetantxe inprimatu zen —1949 eta 1950 urteetan zehar—, baina ezin izan zen haren inprimaketaz arduratu; horrela kontatzen zuen gertaera hura «Versos a la antigua» izeneko artikuluan (*Gernika*, 16 [1951ko uztail-iraila], 41-42 or. [= IG, III, 431-432, 431 or.]): «No pude confrontar la copia que me enviaron a San Juan de Luz con mi original, ni atender a la corrección de pruebas de imprenta [...]; baina ikus beste fiabardura batzuk 59 or. 36 oh.

<sup>50</sup>Ikus 34 or. 35 oh.

<sup>51</sup>Nola ibili zen, Ameriketara baino lehenago, zituen paper guztiak lagunei-eta bidaltzen —haiek gorde zitzaizkien alegia— ondo erakusten du Mokoroarentzako 1949ko martxoaren 11ko kartaren bukaerak: «Or bialtzen dizut [...] oarkizun ori. Gorde ezazu zerekin, gogo baduzu. Ni puskatzeko asmoetan bezala nengon, liburuak eta paperak ere etxera bialduak baitituz» (PIA); Oiarzabalentzako hau ere lekukotasun argia da (Quito-tik bertatik, 1950eko ekainaren 9koa [OE, 935 or.]): «Bitartean nere 'notak' eta liburu-gaiak an egon bearko dute etzanik, Ziburun, Orixen, Donostian». Eta abar: hamaika bider aipatzen ditu, garai honetako kartetan, han edo hemen uzitako —edo bidean diren, edo eskatuta dituen— 'notak', paperak, liburuak, etab. (Ikus, orobat, 34 or. 34 oh.).

itzulitakoa bere lagun A.M. Labaieni bidali ziola edo, nolahi den ere, helduarazi egin ziola; eta, hirugarrenik, Iparraldean egindako lana bi alditan egin zuela, eskuizkribu banatan alegia (lehenengoan I-IX liburua eta bigarrenean ordurako itzulita zuen Xgarren liburuaren zatia), eta bi alditan ere bidali ziola Labaieni. Ameriketara alde egin baino lehenago X, 36, 58 paragraforainokoa zuela itzulita,<sup>52</sup> hiru lekukotasunek dioskute. Itzulpena egiteko erabili zituen eredu azterketak erakusten digu, zati batean Orixek berak diotenaren kontra, X, 35, 57 paragraforainokoa egiteko —eta lehenengo bost liburua itzultzeko izan zuen edizio elebakarraz landa— Trabucco-ren edizioa erabili zuela, eta X, 36, 59 paragrafotik aurrera, berriz, Vega-rena izan zuela mahai gainean —pasarte batzuetarako izan ezik, beharbada—; eta inongo zalantzarik gabe dakigu, bestalde, El Salvadorren ez zuela izan Trabucco-ren edizioa.<sup>53</sup> Ereduen azterketa honek dioena bete-betean berresten du segituan aipatuko dugun Mokoroaren txostenak: txosten honek Orixek Iparraldean itzulitakoaren gainean bakarrik dihardu, eta ez dakar X, 35, 56 paragrafotik harantzagoko aipurik. Eta, hirugarrenik, bi froga hauek erakutsi digutena erabateko modu batean zehaztera dator Orixek Lazkaon idatzarazi zuen behatzizkribuan X, 36, 58 paragrafoan dagoen huts esanguratsu bat: izan ere, behin betiko zen bigarren eta azken idatzaldi honetan bi bider dago itzulita aipatu paragrafoa, eta ez da egiantzekoa —aipatu ditugun beste bi lekukotasunak izanik— huts hau Lazkaon bertan sortua izatea.<sup>54</sup> Ezin ukatuzko seinalea, beraz, esandako paragrafoaren bi itzulpen horien bitartean eten zela itzulketak, hots, X, 36, 58 paragrafoa itzulitakoa: lehen ikusi ditugun datuen argitan ezin da dudarik izan eten hori dela Donibane Lohizunetik El Salvadorra doan bidaldiari dagokiona.<sup>55</sup> Itzulpenaren eskuizkribua —ordura arte egindakoa alegia— Labaienek zeukala Orixek Oizartabali El Salvadorretik egindako gutun bati esker jakin ahal dugu (1953ko maiatzaren 14koa): «Itzulia [sc. Iparraldean zegoenean itzuli zuena] Labaienek dauka Donostian».<sup>56</sup> Bi alditan egin zuelakoa —eta aldi bakoitzean lehen esandako zatia— bi bidetatik irits dezakegu: aipatu dugun Mokoroaren txostenetik eta I-IX liburuen lehenengo idatzaldia duen eta Lazkaoko beneditarren etxean gorde den behatzizkributik. Orixek Ameriketatik etorri zenean —1954ko azaroaren 24an heldu zen Bilboko portura<sup>57</sup>— aita J.M. Mokoroa *Aitorkizunen* behatzizkribua jorratzen ibili zen eta azterketa honen ondorioa Mokoroak Orixeri bidalitako zazpi orrialdeko txosten bat izan zen;<sup>58</sup> paper hauetan Mokoroak *Aitorkizunen* itzulpenaren pasarte, esaldi eta hitz asko aipatzen ditu eta ia-ia beti ematen ditu Orixeren eskuizkribuaren orrialdea eta Agustinen jatorrizkoaren erreferentzia; txosten honetan, bada, I-IX liburuetako pasarteek zenbaketa bakarra dute,

<sup>52</sup>Hau da, lehendabiziko hamar liburua ia-ia osorik, hamargarren liburua X, 43, 70 buruarekin bukatzen baita.

<sup>53</sup>Orixek bere itzulpena egiteko erabili zituen san Agustinen edizioez ikus II erans.; honi buruzko Orixeren beraren lekukotasun gutxi gorabeherakoak —okerrak, esan dugun bezala, lehenengo bost liburuei dagokienez— 44-47 or. irakur daitezke.

<sup>54</sup>1956ko edizioaz arduratu zen Lekuona ordea konturatu egin zen: ikus, honetaz, 210-211 or.

<sup>55</sup>Izan dezagun kontuan *Aitorkizunek* hamahiru liburu dituztela, baina liburu hauek oso luzera ezberdina dutela: esaterako, guztira 423 orrialde dituen Orixeren itzulpenean (hau da, 1956an argitaraturako edizioan) 120 orrialde betetzen dituzte azken hiru liburuek (eta 58 hamargarrenak).

<sup>56</sup>OE, 944-945 or.

<sup>57</sup>Honi buruzko xehetasunak beherago, 47 or.

<sup>58</sup>Ikus 48-49 or. eta III erans.

1etik 125era alegia, baina Xgarren liburuko aipuek zenbaketa berri bat dute, hau da, 1etik 16ra.<sup>59</sup> Lazkaon gorde den behatzizkribuak I-IX liburua bakarrik izateak, jakina, Mokoroaren txostenak begien bistan ipini digun datua berresten du.<sup>60</sup> Orrien zenbaketa bikoitz honek honako hau bakarrik esan nahi dezake: Orixek, hamargarren liburua itzultzen hasi zenean, ez zeukala I-IX liburuei zegokien itzulpenaren eskuizkribua; eta, Orixeren urte haietako bizimodua ezagututa, ez dirudi arriskutsuegia denik ondorio hau ateratzea: bi zenbaketa horien bitartean, hau da I-IX liburuei dagokien itzulketaren eta X. liburua aipatu zatiari dagokionaren artean, etxe aldaketa bat izan zela. Etxe aldaketa bat baina ez eredu aldaketa bat, bai IX. liburua bai X.aren gehiena Trabucco-ren ediziotik baitaude itzulita, II eranskinean behar den patxadaz ikusiko dugun legez.

Datu eta ondorio hauek atal honetan zehar berreraiki dugun kronologiaren argitan ulertzen saiatuz gero, honelako zerbait gertatu zela pentsatu behar genuke: Orixek, misala itzultzeko eskaintza onartu zuenean, konturatu zen *Aitorkizunek* puska batean itxaron beharko zutela eta, ordura arte egindako lana txukun uzteko asmoarekin, itzultzen ari zen IX. liburua bukatu zuen eta han utzi zuen lana. Agian Bidarraitik Donibanera aldatzean emango zion Labaieni I-IX liburuen eskuizkribua — Oiertzabali 1947ko ekainaren 19an *Lati-izkuntzaren joskera* Bidarraitik bidali zion bezala—, edo agian Ameriketara joatea erabaki zuenean —joan baino askoz lehenagotik zuelako erabakita—. <sup>61</sup> Nolanahi ere, lehenengo bidalketa hura egin eta gero, dela misala espero baino azkarrago itzuli zuelako dela itsasoratzeo baimena uste baino beranduago heldu zitzaielako —bi gauza hauek gertatu zirela bai baitakigu—, izan zuen astirik *Aitorkizunen* itzulpenarekin jarraitzeko, eta X. liburua itzultzen hasi zen: oraingo honetan ezin izan zuen liburu oso bat eginda utzi, eta ordua ailegatu zenean eskuizkribua zegoen bezala helduarazi zion gainerakoaren zaindari zeukan Labaien adiskideari.<sup>62</sup>

<sup>59</sup>Hau da, Xgarren liburua testua zuen behatzizkribuak 16 edo 17 orrialde izango zituen, X, 36, 58 paragrafoarainoko testua bakarrik baldin bazuen. Ikus, honetarako gutzitako, III erans.

<sup>60</sup>Guk Ca-alter deitu dugun Lazkaoko behatzizkribu honen gainean ikus 68-69 or.

<sup>61</sup>1949ko hasieran Ameriketara joateko erabakia hartu ez ezik txartela erosteko urratsak ere emanak zituen; ezin baitira bestela ulertu Orixek Oiertzabali Donibanetik zuzendutako hitz hauek: «Adiskide aundi: emen nago Belgikatik noiz deituko nauten, pasaportea ukana baitut» (OE, 971 or.; baina ikus 34 or. 36 oh.); Belgikatik deitu beharko zuten hangoa izango zelako itsasontziaren jabea zen enpresa edota, agian, handik atera beharko zuela pentsatuko zuelako hasieran). Gauza berbera, hau da, Ameriketara joatea itsasoratu baino ia-ia urte bete lehenago zeukala erabakita, berresten du 35 or. 40 oh. emandako 1954ko maiatzaren 8ko Segurarentzakoaren pasarteak.

<sup>62</sup>Lazkaoko testuaren X, 3, 3 eta X, 19, 28 paragrafoetan ere era honetako errepikapenak gertatu ziren: hauek ere, lehenengo idatzalditik baletoz —eta oso egiantzekoa da horrela izatea—, erakutsiko lukete hamargarren liburua aldika bezala itzuli behar izan zuela Orixek. Ikus, guzti honetaz, 199 eta 210-211 or. eta 249 or. 184 oh., hurrenez hurren.

## II

### Ameriketetan

Iparraldean emandako urteetakoa ez bezala, Orixeren Ameriketako bizitza xehe samar ezagutzen dugu, batik bat Zaitegi eta Oiarzabali esker gorde zaizkigun gutunengatik eta Iztueta egin duen berreraiketarengatik.<sup>1</sup> Gorago zehaztu ahal izan dugun bezala, badirudi 1949ko azaroaren 1ean-edo itsasoratu zela Orixe Bordelen: Argentinan eta, batez ere, Quito-n zituen senitartekoak ikustera joan omen zen. Argentinan 1950eko maiatzaren 9ra arte izan zen: familiakoak eta lagunak ikusteaz gain, izan zuen astia poesia eta bestelako lan zerbait idazteko.<sup>2</sup> Orixe Argentinan dagoela, Jokin Zaitegi EG-ren lehenengo zerbakia inprimatzen ari da: urtarrilean —urtarrileko datarekin behinik behin— kaleratzen da ja lehendabiziko zerbakia baina oraindik ere, noski, bere gustuko idazleen bila dabil.<sup>3</sup> Jakin du

---

<sup>1</sup>Iztueta [1991, 115-128 or.] eta, EG-ren ingurukoei buruz, baita Iztueta [2001] ere.

<sup>2</sup>Argentinan idatzitakoak dira, zalantzarik gabe, *Gernika* aldizkarira bidaltzen dituen zerbait artikulu: «La dichosa ortografía», *Gernika*, 11 [1950eko apiril-ekaina], 41-44 or. [= IG, III, 869-872 or.], daraman post-data-tik jakin daitekeenez (ikus 34 or. 35 oh.); «Gizabidea», *ib.* 12 [1950eko uztail-iraila], 6-8 or. [= IG, III, 111-114 or.], artikulua testuan bertan egiten diren aipamen zerbaitengatik; eta seguruenik baita «Euskera antiguo y moderno», *ib.* 12 [1950eko uztail-iraila], 35-40 or. [= IG, III, 872-875 or.] ere (ez ordea, Iztueta [1991, 116 or.] dioenaren kontra, «Errores de vascólogos nuestros»; hau bi zatitan argitaratu zen *Gernika* aldizkarian, bigarrena Argentinako hilabeteetakoa den «La dichosa ortografía» agertu zen zerbaki berean, baina seguruenik Orixe osorik bidali zuen Bidarraitik, han baitago datatua: «Bidarray, otoño de 1949»; ikus 33 or. 32 oh.); berriaz, «Espuru» ezizenez sinatutako «Siñets-begiak» artikulua, *ib.* 13 [1950eko urri-abendua], 20-21 or. [= IG, III, 1.209-1.210 or.], ja Guatemalatik bidalitakoa da: «Guatemala. Buruilla. 1950». «La sintaxis primitiva en la lengua española», *EJ*, 4 (1950), 85-92 or. [= IG, III, 876-882 or.] artikulua dena, seguruenik, Mokoroari 1950eko urtarrilaren 26an —Argentinako Avellaneda-tik— egiten dion gutunean [PIA] aipatzen dituen 'orriak': «Or bialtzen ditzudan orri oiek iduki ezazu zerekin. Beste kopia Barandiarani bialdu diot *Eusko-Jakintza-rako*»; artikulua hau, funtsean, Buenos Aires-ko 'Laurak Bat' elkartearen emandako hitzaldia da: ikus, honen inguruan, Zaitegiri 1950eko apirilaren 29an egiten dion gutuna (AB), hitzaldiaren testua bera —«Uno de los eslabones perdidos de la fraternidad universal»: IG, III, 883-894 or.—, eta Iztueta [1991, 116 or.]). Oraindik Argentinan zegoela EG-n argitaratu zitueni buruz ikus hurrengo oharra.

<sup>3</sup>Baina badirudi lehendabiziko zerbaki hau 1949ko azaroaren 16an atera zela inprimategitik: Velez de Mendizabal [1981, 89 or.]. Orixe hasierako garai honetan EG-rekin izan zituen hartu-emanak ere argigarriak dira oso. Lehendabiziko zerbakian —1950eko urtarrilekoan— ez zuen parte hartu, zalantzarik gabe Zaitegik ezin izan ziolako oraindik horren berri jakinarazi. (Bestalde, lehenengo zerbaki hau, ia-ia osorik, Zaitegik bakarrik idatzitakoa da. Hona nola hitz egiten zion Orixe Fagoagari, oraindik Avellaneda-tik, 1950eko maiatzaren 6an [AB]: «[...] el primer número de su revista, casi todo redactado por él mismo bajo diferentes pseudónimos [...]). Bigarren zerbakian —1950eko otsailekoan— Orixeren bi gauza ageri ziren, baina biak oso aspaldi egin eta argitaratutakoak: «Yainkoagan bat», noski *Barne-muinetan* (Zarautz, Itzaropena, 1934, 124-139 or.) liburuaren azken zatia (EG, 1950 [2], 3-4 or. [= IG, I, 415-448, 445-448 or.]), eta «Muga-itx edo artikulua euskeraz»,



Orixe Argentinan dela: hasieran, besterik gabe, bere laguntza eskatzen dio —misala EG-n dohain iragartzearen truke—; gero ordea, agian Orixeren egoera ahula ikusita eta hura ere Ameriketara zegoela kontuan harturik, eskaintza hau luzatzen dio Orixeri: aldizkari berriko idazkaria izatea —«lankideen nagusi», hau da, aldizkariak zekartzan lan guztien arduraduna, nonbait— etxe, janari eta hileko ehun dolarren trukean.<sup>4</sup> Orixek, aspalditik nora jo ez zekiela zebilelarik eta misalaren itzulpenarekin irabazitako dirua etxera bueltatzeko txartela erosi baino lehenago ja gastatuta zuelarik, pozik onartu zion.<sup>5</sup> Esan bezala, 1950eko maiatzaren 9an Quito-rantz abiatzen da Buenos Aires-tik: 25ean heltzen da eta, arrebarekin luzeago egoten uzten ez diotenez gero, alde egiten du berehala Zaitegirengana eta, gutxi gorabehera, 1950eko ekainaren 15ean Guatemalan da. Orixek aldizkariako idazkari jartzea ez da ideia ona izan eta Zaitegik, berandu baino lehen, Orixerentzat ezin hobea den irtenbide bat aurkitu du: berak oso adiskide duen sendi aberats baten etxean egotea, El Salvadorreko Zaragoza herrixkan (zehazki, Zaragoza honetatik hiru bat kilometrora zegoen Miramar izeneko baserri batean), trukean batere lan egin beharrik gabe. «Toki zoragarria au lanerako. Bakartasuna, ixiltasuna, pakea» diotso on Martin Oartzabali iritsi berria denean.<sup>6</sup> 1950eko abenduaren 12an heldu zen hara, Guatemalan sei hilabete egin ondoren, eta bertan geldituko da —gutxi

795-797 or.)). Hurrengo zembakian —1950eko martxo-apirilekoan— lehendabiziko aldiz 'lankideen' izenak jasotzen dituen orrialde bat dago eta hor agertzen da Orixeren izena, ondoan «Argentinan» irakur daitekeelarik; eta hemen bai atera ziren Orixek Argentinan egindako bertso batzuk, «Berraondoko meza» izenburuarekin (EG, 1950 [3-4], 5-6 or. [= IG, I, 519-522 or.]), eta honela daude sinatuta: «Berraondotik (Bahía Blanca), Argentinan» (badakigu, bestalde, bertso hauek Zaitegiri 1950eko otsailaren 17an bidalitako gutun batekin batera joan zirela [AB], gutun honetan bertan baitaude idatzita). Laugarren alean, maiatz-ekainekoan, berriz errepikatzen da lankideen zerrenda baina orain, zuzendariaren izenaren azpi-azpian, honako hau irakurtzen da: «Lankideen nagusi: Ormaetxeatar Nikola (Orixe), Guatemalan» (EG, 1950 [5-6]). Orixeren laguntza, bere egoera berriaren arabera, ugaldtu egiten da: «Zaitegi jauna» eta «Euskal-aditza. Sarrera» (8-9 or. eta 40-45 or., hurrenez hurren [= IG, III, 423-424 or. eta 895-902 or.]), biak Argentinatik bidalitakoak (1950eko apirilaren 29ko gutun batean dienez [AB]); «J.S. Bach-i» bertsoak (4-5 or. [= IG, I, 523-525 or.]), Argentinara heldu berria zenean eginak, 1972ko edizioan J.I. Goikoetxeak dioen bezala (*Euskaldunak poema eta olerki guztiak...*, 518 or.); eta, honetarako daturik ez dugun arren, Argentinakoa ere izan behar duen «Olabideren Itun zarra» izenburua daraman ohar txoa (46 or. [= IG, III, 425 or.]). Eta hurrengo zembakia egiten denerako (7-8, 1950, uztail-abuztukoak) Orixek ja Guatemalan da, EG-n jo eta ke lanean: inongo zalantzarik gabe Guatemalan idatzitakoa da geroago ere aipatu beharko den «Lizardi Ameriketara» (6-8 or. [= IG, III, 425-428 or.]), zembaki honetatik gainerako guztiak seguruenik eta, noski, hemendik aurrerakoak, El Salvadorra joan arte.

<sup>4</sup>«Bestalde, [Andima Ibiñagabeitiak] egunero bidaltzen zidan OPE (Oficina de prensa de Euzkadi) izeneko eta honen bitartez jakin nuen Orixek Argentinan zegoela. Idatzi egin nion Orixeri idazlan-eske, nere aldetik bere misalerako zabalkundea hutsen aginduz, baita diru apurren bat ere idazlan bakoitzaren ordain. Gerorago, Ander Mirena Irujoren bidez, aldizkariaren idazkaritza eskaini nion» (apud Velez de Mendizabal [1981, 95 or.]). Ikus orobat Iztueta [1991, 119 or.] eta Ugalde [1977, 14 or.].

<sup>5</sup>Eskaintzari buruzko lehenengo aipamena, guganaino heldu diren gutunetan, Avellaneda-tik egindako 1950eko apirilaren 29ko batekoa da: «Zuregana joate ortaz, esan nizuna, au da, alde aldera: pozik joan nintekela» (AB eta apud Iztueta [1991, 119 or.]); argi dago, beraz, lehenago egin zutela honi buruzko solas garrantzitsua. Gutun honetan bertan Orixek dituen diru arazoak aipatzen dizkio Zaitegiri: horregatik joan beharko du Quito-ra «legorrez», esaterako (nahiz eta gero horrela ez gertatu: ikus OE, 935 or.), eta Quito-tik Guatemalara iristeko ere Zaitegiri eskatu behar dio dirua (Quito-tik bidalitako 1950eko maiatzaren 26ko gutun batean [AB]); honetarako gutzirikoa ikus Iztueta [1991, 119 or.]. (Ez dirudi lagundu dezakeenik eskaintzaren data zehazten Ibiñagabeitiak Zaitegiri 1950eko otsailaren 20an Paristik bidalitako gutun batean egiten duen aipamen batek, lehendabizi egindako eskaintzari buruzkoa izan baitaiteke: «Orixek eskuratuko al duzu [...]». Hurrengo berria, hau bai bigarren eskaintzari buruzkoa, apirilaren 23koa da ja: «Pozik irakurri ditut Orixen berriak. Orra nola eskuratu zaizun [...]» [biak AB eta Ibiñagabeitia, *Gutunak...*, 33 eta 35 or.]).

<sup>6</sup>OE, 938 or.

gorabehera— 1954ko urriaren 25era arte, berriz Euskal Herrira itzultzeko itsasoratzen den egunera arte alegia.

Ameriketako urte hauetan guztietan zehar beti izan zituen gogoan oraindik eginkizun ziren *Aitorkizunak*. Zaitegirenean gelditzeko erabakia hartzen duenean, bukatu gabe utzi duen itzulpen honekin gogoratzen da eta lan honen —eta beste batzuen— atzerabide bat izango dela uste du. Honela ulertu behar dela uste baitut Oiartzabali Quito-tik idazten diona:

Bitartean nere notak eta liburu-gaiak an egon bearko dute etzanik, Ziburun, Orixen, Donostin. S. Agustin ere bai. Oraindio gazte nagola iduri zait, eta gero ere badukedala asti lan aiek biribiltzeko.<sup>7</sup>

Baina aldatu egingo du iritzia hau eta, izan ere, egiantzekoa da bere onetik ateratzen omen zuten Guatemalako lan amorragarri haietatik ihes egiteko eta El Salvadorreko lasaitasunera joateko erabakiarekin zer ikusirik izatea *Aitorkizunen* itzulpen bukatu gabeak —agian honen aitzakiak—. Zaitegik behintzat horrela kontatzen zuen:

Sei hilabete egin zituen nerekin [sc. Guatemalan], eta gero hark gehiago maite zuen lan bat egitera bideratu nuen: El Salvador-ko nere lagun batzuen etxean San Agustín-en aitormenak idazten jarri zen.<sup>8</sup>

Nolanahi ere, *Aitorkizunen* itzulpena geroko utzi eta presa gehiago duten edota gustukoago dituen lanei ekiten die: alde batetik, jakina, EG-n eta, inoiz, *Gernika*-n argitaratzen dituen artikulu eta poesia ugari samarrak; beste alde batetik, eta batik bat, gogo lasaiagoa eskatzen zuten beste egiteko batzuk. Guatemalako lanetatik libre gelditzen denean eta El Salvadorra heldu bezain laster —1950eko abenduaren bigarren erdian edo, beranduenera, 1951ko lehenengo egunetan— hasten da *Quito-n arrebarekin* idazten:<sup>9</sup> nahitaez ‘bazter lanak’ tartekatuz —baita hain bazterrekoak ez zirenak ere—, 1952ko udaran-edo amaitzen du. *Quito-n arrebarekin* oraindik esku artean duela, beste bi lan luze burutzen ditu: *Euskaldunak*

<sup>7</sup>Quito-tik Argentinako Rosario-ra, 1950eko ekainaren 9ko gutuna (OE, 935 or.).

<sup>8</sup>Ugalde [1977, 14 or.]. Intxaustik [1979, 127 or. eta 22 oh.] hau guztia berresten duen Martin Ugalderean lekukotasun bat dakar: «hori egin behar dut nik, hori da nire egitekoa» esaten omen zion behin eta berriz, *Aitorkizunak* zirela-eta, Orixek Zaitegiri.

<sup>9</sup>Azkenean *Quito-n arrebarekin* izenburua izango zuen liburua nola mamitu zen jakiteko, nola zituen idatzita gero liburuan txertatu ziren atal batzuk, nola bidali zizkioten horietako zenbait Ameriketara, etab., ikus Iztueta [1991, 1.109-1.116 eta batik bat 1.157-1.159 or.]. Oiartzabali eta Mokoroari egindako gutunekin oraindik xeheago zehaztu daiteke lan honen historia. Hasiera data, esan bezala, 1950eko abenduaren bigarren hamabostaldian edo, gehienera, 1951ko lehenengo egunetan jarri behar da: 1950eko abenduaren 10ean, oraindik Guatemalatik, on Martin Oiartzabali esaten dionez, hasteke dago baina hasteko irrikan («Ni Salvador-a yoan banendi [...]. An sendi bat dugu oso adiskidea. Ara eraman nai naute, beraien landaetxe batera [Itsas-begi edo Miramar]. Bakartasun artan asi ninteke nere lan aundia egiten»; OE, 935-936, 936 or.); 1951ko urtarrilaren 17rako ja «[pernua] idazten ari da (Zaitegirentzako gutuna, AB eta apud Iztueta [1991, 1.157 or.]); kontuan izan behar da, bestela kronologia hau hankaz gora geldituko bailitzateke, aipatu liburuaren 1.143 orrialdean «1951-xii-6» datarekin aipatzen den Zaitegirentzako gutuna ez dela abendukoa, apirilekoa baizik, hau da ‘1951-iv-6’: nahasmendu larriak ekar ditzakeen huts txikia da). Bukaera data zailagoa da zehazten, Akesosok argitaratu zuen Oiartzabalekiko gutuneriak 1951ko azarotik 1952ko azarorako guztiak falta dituelako. Zaitegiri egindako 1952ko ekainaren 9ko gutun batean irakur daiteke liburu honi buruzko azken aipamena: «Salmuetan poliki ari naiz. Zerua ere aurreratzen asia» (AB). Hortik aurrera ez du berriz aipatzen baina bai beste lan batzuk: pentsatzekoa da udara hartan bukatuko zuela.

poemaren erdal itzulpena eta salmoen euskarazkoa.<sup>10</sup> Poemaren itzulpena 1951ko udaberri eta udaran zehar kokatu ahal dugu, gutxi gorabehera —apiriletik uztaileira—, eta *Salmutegia* 1952ko maiatzetik azarora. (Honetaz gain, zati batean behintzat *Quito-n arrebarekin* idazten ari zela, honekin oso estu lotuta dagoen *El trato con Dios* ondu zuen erdaraz eta 1952ko apirillean bukatu).<sup>11</sup>

*Quito-n arrebarekin* eta *El trato con Dios* bukatuta edo bukatzeaz dituenean —eta *Salmutegia* arin bukatzeko itxaropena—, badirudi arnasa hartu eta gerora begira jartzen dela:

*El trato con Dios* bukaeran dut oraintxe. Urrena Salmuekin asi bearke. Oiek eta «Zerua» bukatu ezkerok, banindoake —extera ezin— Belloc-a??? Zaragoza txiki ontan ez nago gaizki; bañan au ez da nere biziera, ez Meza ta ez Bezpera. Etxe artan adiskideak ba ditut, eta gela bat pozik emango omen lidakete. Biblioteca ederra daukate, ta Elizako Gurasoen idatziak biurtzen asiko nintzake, lenbizi S. Agustiniñen *Iainkoari Gorespenak* edo *Confesiones* bukatu rik. Baña... sosik ez arañio ioateko ta an egoteko.<sup>12</sup>

Hortaz, ez ditu bistatik galdu *Aitorkizunak*. *Salmutegia* oraindik ere bukatu gabe duelarik, izan ere, *Aitorkizunekin* sartzeko asmoa du. Honela idazten dio Oiertzabali 1952ko azaroaren 7an:

Oraindik ez ditut bukatu Daviden Eresiak [...]. Oiek aurten bukatuko al ditut, baldin bait ere! Datorren urtean, Iainkoak nai badu, S. Agustin bukatu bearke;<sup>13</sup>

eta gauza berbera errepikatzen dio handik gutxira, 1953ko Errege egunean: «Esan nizun

<sup>10</sup>Merezi du oinarriko datu pare bat ematea honen inguruan, ez baitituz inon jasota ikusi. Apirilean zehar hasi zen itzulpen honetan, Zaiteregintzako 1951ko apirilaren 6ko gutunean (AB) oraindik ez dela hasi esaten baitu («*Quid plura?* Poema gaztelaniz ipintzen asi bearke dutala [...]») eta Mokoroarentzako 1951ko apirilaren 29koan (PIA) honako hau baitituz: «Orain ontan poema erdaraz ipintzen ari naiz, ingelesera biurtu nai ote duten edo Zaiteregik adierazi dit [...]». Lenengo bi kantuak lau egunetan biurtu ditut». (1951ko maiatzaren 22an egindako gutun batean datu gehiago ematen dizkio Martin Oiertzabali: «Ni orain Poema gaztelaraz ipintzen ari naiz, Zaiteregik esanik. Ba omen du adiskide bat ipar-amerikarra ta ari emango omen dio ingelesera biurtzeko, balio baldin badu. Ez letorke gaizki» [OE, 939 or.]). Handik gutxira, B. Amezagak karta egiten dio esanez *Euskaldunak* erdarara itzultzen ari dela, Montevideo-ko Unibertsitateko Letretako Fakultateko dekanok aginduta: Orixek ez egiteko diotso baina Amezagak egin egin behar omen du (OE, 939-940 or.). Mokoroarentzako 1951ko uztailearen 21eko gutunean (PIA) lana bukatuta dagoelako berria ematen dio: «Nere itzulkerat bukatua det». Amezagaren berri gehiagorik ez bide zen egon: «Amezagak ez du geiago txintakorik atera. Nik ez diot bialdu kopiarik, eta berak ere ez dit bialdu lenengo zatiaren itzulpena. Bi kopia Zaiteregik eraman zitidan Cincinnati-ko Unibersidadeko irakasle batentzat. Izketan asia da arekin. Etxe orrek urrurik atera omen lezazke bai euskera ta bereiz erdera. Irabazia erdi bana eskatuko omen dio. Ez litzake makala» (OE, 940-941, 941 or.). Eta hemendik aurrera ere ez da aipamen gehiago. Erdal itzulpenari ipinitako hitzaurreak («Prólogo a la versión castellana de *Euskaldunak*: *Euskaldunak poema eta olerki guztiak*...», xlv-xlv or.), izan ere, 1951ko data darama: «El Salvador (Centro América), 1951».

<sup>11</sup>Honen gainean ikus Iztueta [1990] eta [1991, 1.157-1.159 or.]. Bukaera data Zaiteregintzako 1952ko apirilaren 4ko gutunari esker dakigu (AB).

<sup>12</sup>Zaiteregiri, 1952ko apirilaren 4ko gutuna (AB). Europara itzultzeko asmo hau ez da gauzatzen, ezaguna den legez, 1954ko urriara arte; 1952ko saio honi buruz ikus baita ere Iztueta [1991, 123-124 or.].

<sup>13</sup>OE, 942 or. Baliteke 1952ko apirilean hasi izana salmoekin eta ez, esan dugun bezala, maiatzean (baina ez ekainean, Iztuetak [1991, 1.157 or.] dioenaren kontra). Honi buruzko lehenabiziko lekukotasun zehatza aipatu apirilaren 4ko gutunean dago; egun batzuk geroago, apirilaren 21ean, honela diotso (AB): «M. Barriolari irureun dolar eskatu ditiot Salmuen orde. An ikaratuko dira ala ere. Labaien eskuetan utzi dut auzia» (eskaera honen inguruan merezi du Intxaustik [1979, 134 or. 14 oh.] jasotako Barriolaren beraren lekukotasuna ikustea); maiatzean ja —orain ez da zalantzarik: honengatik goian emandako data— bete-betean ari da, *Quito-n arrebarekin* bukatu gabe badauka

lengoan S. Agustinen *Confessiones* itzultzen bukatu nai nukela aurten». <sup>14</sup>

Salmoak 1952ko azaroan bukatuta —Ameriketan egindako azken lan luzea—, *Aitorkizunek* dute lehentasuna, 1953ko hasieratik bertatik, Orixeren asmoetan. Ja otsailaren 3an honela egiten dio on Martin Oiartzabali: «S. Agustiñen azkeneko iru liburuen bikia bialduko dizut. Oraindik asteko nago». <sup>15</sup> Baina bost egun geroago, otsail honen beronen 8an, ‘kaskarreko’ bat dela-eta, makal gelditzen da eta ‘opor urtea’ hartzea erabakitzen du (baita, seguruenik, EG-k ere opor urtea egin zuela aprobetxatuz, urte hartan, izan ere, ez baitzen argitaratu). <sup>16</sup> Hala eta guztiz ere *Aitorkizunei* buruzko asmoa sendoa zen eta 1953ko maiatzaren 14rako hasi da Orixe *Aitorkizunen* latin testu baten bila:

‘Trabuco’ [sic] (*Confessiones*) utzi ote nizun? Emen ezin arkitu latinez liburua txikian. Seminarioan *Migne* dute baiñan ezin ekarri. Itzulia Labaienek dauka Donostin. Ez dakit Trabuco [sic] ara [sc. Donostiara] bialdu banun ere. <sup>17</sup>

Oiartzabalek eta Labaienek —kontu honen berririk dakarren gutunik ez dugu— ezetz erantzungo zioten, handik aurrera ere bila ikusten baitugu Orixe. Zaitegi ere bila jarri bide du eta azkenean lortu egingo duela dirudi:

---

ere: «Salmuetan gogor ari naiz. “Zerua” ez dut asi oraindik, bañan egun gutxiko lana nuke asi ezker. Buruan daukat guzia. Zer parrak egin bear dituzun!» (gutunak ez du datarik baina bai Zaitegik eskuz egindako ohar hau: «1952garreneko orrilaren 17garrenean yaso nun» [AB]); Oiartzabalentzako 1952ko azaroaren 7koa (OE, 942 or.) eskribitzen duenean amaitzeaz dago: «Oraindik ez ditut bukatu Daviden Eresiak, aurrera badoaz ere. Azkeneko amarrak palta. Eta gero 17 *Cantica Breviarium Romani*. Oiek aurten bukatuko al ditut, baldin bait ere!» (eta baita Mokoroarentzako 1952ko azaroaren 13koan [PIA] ere: «Bukaeran ditut»); eta, izan ere, azaroaren 18an Mamemeri egindako batean bukatu egin dituela esaten dio (AB eta apud Iztueta [1991, 123 or.]). Hemendik aurrera, 1952ko abenduaren 4rako bidali dio ja Labaien eskuizkribua —honen eskuetan utzia baitzuen kontua Maritxu Barriolarekin tratatzeko—, eta Gabonetarako baita Barriolari berari ere (Zaitegiri, 1952ko abenduaren 4ko gutuna [AB], eta baita OE, 943 or. ere); azkenik, 1953ko ekainaren erdi aldean heltzen zaizkio itzulpenaren trukean eskatutako diruak (eta pixka bat gehiago ere bai, antza: ikus Zaitegirentzako 1953ko ekainaren 20koa [AB] eta Intxausti [1979, 134 or. 14 oh.]). Jakina, Salmoen itzulpen hau ez zen argitaratu askoz geroago arte: hasieran *imprimatur* ez ziotelako ematen (1954ko hasieran, agian 1953ko bukaeran, eman zioten: ikus OE, 949-950 or.), gero argitaletxearen arazoengatik (Mitxelena [1954]); azkenean, 1968an kaleratu zen (nahiz eta 1967ko datarekin).

<sup>14</sup>OE, 942-943 or.

<sup>15</sup>OE, 943 or. Noski, «iru liburuen bikia» horrekin zera esan nahi du, itzultzeko falta zaizkion azken hiru liburuen itzulpenaren aldaki bat bidaliko diola —itzul ditzanean, jakina—. Badirudi, bestalde, hauxe zela, nonbait, hilabete horietako gaia, otsailaren 15ean ere horrela baitio: «Larrakoetxea laterandarrak *Confessiones* itzuliak omen. Orren berri galdegiozu A. Beobideri» (OE, 943-944, 944 or.).

<sup>16</sup>Horrela kontatzen du pasadizoaz 1953ko maiatzaren 14ko gutun batean: «Esana dizut, noski, otsailaren 8garrenean egundoko kazkarrekoa artu nula basi-gelan erorita. Illabetezko zorabioak ukan nitun. Urrera artatik edo gripe tzar batek artu nindun. Lenbiziko bi egunetan belarrietako min aundia; irugarrenetik aurrera gorri aundia bietatik [...]. Lanerako gogo aundirik ez oraindik. Bestela osasunez oso ederki» (OE, 944-945, 945 or.). Nahitaez, beraz, opor aldia hartu behar izan du, batik bat —kasu azken aditzaren denboraldiari— urtearen lehendabiziko erdian: «Adiskide aundi: lanik ez egiteko diagodazu, ongi ez banago. Orintxe ongi nagola esan dezaket, baiña, zuk bezala gauzak patxadaz artuz, urte au opor-urte artzea erabaki nun» (Oiartzabalentzako 1953ko abuztuaren 5eko gutuna: OE, 946-947, 946 or.). Ohar bedi *Euskal-izkera* izenburuarekin 1952. urteko akaberatik aurrera EG-n argitaratu ziren zatiaik aspaldi eginak zirela: 1941-1942 urteetan, Orixe eta Oiartzabal Saubion-en ziren garaian; hauen guztien moldaketa bat 1963an argitaratu zen, erdaraz, *El lenguaje vasco* liburuan.

<sup>17</sup>OE, 944-945, 945 or. Trabucco, gorago ikusi den bezala (37-39 or. baina ikus, oro har, II erans.), Orixe Iparraldean itzuli zituen *Aitorkizunen* azken liburuetarako erabili zuen edizioaren arduraduna da. Ezin dugu segurur jakin nor den gutun hauetan Trabucco deitura gaizki idazten duena, Orixe ala Akesolo, ez baititugu gutun hauen eskuizkribuak ikusi —eta ez dirudi apropos dagoenik horrela idatzita, txantxetan alegia—. Orixe aipatzen duen Migne honi buruz ikus II erans. 373-374 or. eta bertako 16 oh.

*Confesiones* ez baiña *Confesiones* (latiñez) bear nuke. Zaude: D. Iñaki egunean arkitu genun Iesulagunen liburutegi batean, eta emango didatela iduri zaida.<sup>18</sup>

Harritzekoa bada ere, gure hurrengo lekukotasuna iristen zaigu ia-ia bukatuta dituenan falta zitzaizkion hiru liburuak, honela idazten baitio, 1954ko urtarrilaren 26an, aita Santi Onaindiari:

A[ita] agurgarri ta adiskide on: lengo astean itz emona neukon neure burua [sic], ez nebala eskutiztik egingo S. Agustiñen *Aitorkizunak* amaitu arte. Azkenengo iardunean diñardut (XIIgarrenean [sic]) eta ointxe beste lau eguneko lana.<sup>19</sup>

Eta, izan ere, handik hiru egunera, urtarrilaren 29ko gutun batean, ematen dio berri ona Oiartzabali:

Beste berri bat, zuretzat oso ona: atzo amaitu nitula S. Agustiñen *Aitorkizunak*. Orain itxedon egin bear, liburua itzuli bearra baitut. Aita Aranguren Azpeitiarrak utzi dit BAC-ren argitaraldia, baiñan aien Bibliotekako arauak oso zorrotzak dira. Ez da gutxi *ad mensem* ere, eta gaiñera liburua etxetik atera.<sup>20</sup>

Itzulpena bukatutzat jotzen badu ere ez bide dago erabat bukatuta, oraindik 'itxaron' egin behar baitu liburua itzuli behar duelako —eta ez beste arrazoi batengatik—. Agian bukatu duena lan gordinena da nonbait, gutun bereko beste pasarte batean honako hau baitio:

Orain liburua nonai kokkatzen dutalarik, oso zailla ta egiña dirudit euskeraz esateko, baiña nolabait ioan da. Iorratu bearra baduke argitara baiño len.

Ez dio, beraz, ezer bidaltzen. Handik hilabete eta erdira, martxoaren 19an, igortzen dio:

Or doatzu *Aitorkizunen* amaia. Dudatxo batzuk badauzkat, kopia liburutik [sic] gabe atera baitut eskuzko zirriborroetatik.<sup>21</sup>

'Amaia' —pentsatzekoa da— obra osoari edo obra osoaren itzulpenari dagokionez: XI, XII, XIII liburuak *Aitorkizunen* amaia direlako edo hiru liburu hauen itzulpenarekin lehendik egiña zuena burutzen duelako. Oraingo honetan, itzulpena oraindik erabat bukatutzat jotzen ez badu ere, eta berriz ere libururik gabe egon arren, ez bide du ja 'itxaron beharrik' ikusten. Orain duena 'dudatxo' batzuk baizik ez dira, ez, inondik ere, itzulpena inori erakutsi gabe uzteko modukoak. Badi rudi guzti honetatik ondorio hauek atera behar ditugula: 1954ko urtarrilaren 29 hartatik

<sup>18</sup>1953ko abuztuaren 5eko gutuna: OE, 946-947, 947 or.

<sup>19</sup>Onaindia [1974, 28 or.]. Onaindiarena nahiz Orixerena berarena, «XIIgarrenean» hutsa da, *Aitorkizunen* azken liburua XIIIgarrena baita; bestalde, argi dago hutsa hor dagoela eta ez azken liburuaekin ari delakoan: oraindik lau eguneko lana duela esaten duelako eta, honetaz gain, Oiartzabalentzako 1954ko urtarrilaren 29ko gutuna dugulako, beherago ikus daitekeen bezala, non itzulpena bukatu egin duela baitio.

<sup>20</sup>OE, 949-950, 950 or.

<sup>21</sup>OE, 951-952, 951 or.

aurreraz atera zuela liburu hura jesulagunen liburutegitik —eta berriz, seguruenik, *ad mensum*— eta liburuaz aurrean zuelarik zuzendu edo gehitu zuela zuzendu edo gehitu beharrekoa —otsailean zehar, gutxi gorabehera—; eta liburuaz jesulagunen liburutegira itzuli ondoren bakarrik jo zuela makinaz eskuz egindakoa: ‘kopia’, hau da, aldaki garbia (makinazkoa, Oartzabali bidali diona), ‘libururik gabe’ egin duelako. Makinaz jo zuelakoa ere segurutzat jo daiteke, bestela ezin baitzion ‘kopia’ bat bidali Oartzabali —eta beste bat, antza denez, ‘Donostiara’, segituan ikusiko dugun bezala—. (Ikus, honi guztiari buruz, II erans. dioguna ere).

Oartzabali igorri eta egun batzuk geroago, martxoaren 26an, Zaitegiri idazten dio (AB):

Liburuetaz itzezin dezagun. Nere S. Agustin Donostin dago (X liburu), beste irurak aste banatan bota nitun. Lenik, ibilian ibilian ni ara ioan bearko. Maritxu Barriolak esaten ditidanekin, kolokan iari naiz. Mamemeri galdegin diot zer iduri zaion. Ortaz, an bertatik bertara zainduko nuke argitaratze ori.

Bagenekien lehenengo hamar liburuak Labaienek zituela; bagenekien, orobat, martxoaren 19rako bukatuta zegoela gainerakoa; orain ikusten dugu martxoaren lehenengo asteetan-edo, makinaz jo ahala seguruenik, bidali zituela hiru liburu itzuli berriak.<sup>22</sup> Nora ordea? Esango genuke Donostiara, Labaienen etxera hauek ere —gogora lehengo «Labaienek dauka Donostin» hura (38 or.), Iparraldean egindakoari buruz ari zela—; ez —edo ez nahitaez behintzat— Maritxu Barriolari, honi buruzko aipamena, agidanean, beste auzi batek ekarri baitio lumara Orixeri.<sup>23</sup>

Eta noiz egin zuen 1954ko urtarrilaren 29an gutxi gorabehera bukatutzat jotzen zuen eta martxoaren erdi aldean zuzenduta eta garbian ipinita zeukan itzulpena? 1953. urteko san Inazio eguna ospatzeko jesulagunen etxeren batera joan zen eta, bide batez

<sup>22</sup>Ez da egiantzekoa hemen aipatzen diren hiru bidalketa hauek eta Oartzabalentzakoak berbera izatea. Izan ere, ez dugu inongo arrazoirik pentsatzeko Oartzabali igorritakoa hiru alditan bidali zionik: 1954ko martxoaren 19ko gutunean ez du hiru bidalketarik aipatzen; eta 1954ko apirilaren 12ko batean honako hau diotso: «Nere S. Agustin noizbait iritxiko al zaizu. “Impresos” antzean igorri nizun, eta zertifikatzerik ez dute emen ontzat artzen» (OE, 952 or.); batez ere bigarren aipamen honi dagokionez, pentsatzekoa da hiru alditan bidali izan balio aipatuko zukeela.

<sup>23</sup>Maritxu Barriolaren aipamena beste zerbaitek ekarri duelakoan nago, egun edo aste gutxi batzuk lehenago egin zion proposamen batek alegia: «Orain Maritxu Barriolak Donostian lan egiteko aukera ipinten dit, eguarterean, atsaldean nere esku gelditzen naizala. *Breviarium totum* nai luke. Kopia aterako omen ditidate. Gure etxeandrea [sc. Mameme] New Orleans'en da alaba zaitzen gaixoetxean, eta gaur bertan galdetzen diot zer iduri zaion. Zuk ioateko diozu, noski. Labaienek ere bai. Ikusiko» (1954ko martxoaren 19ko aipatu gutuna); testuan emandako aipuak (Zaitegirentzako eskutitzekoak alegia), izan ere, horrela jarraitzen du: «Bosteun arpede oiek MB-k [sic] bilatuko ditu. Nik bi iloba apaizgai baditut eta Donostiko Seminarioko euskalzaleak badakizu nerekin dauzkadala. Zuk liburuetan lagunduko bazenu, MB-ri ederki letorkio, bera ere beste aldera eralgizun aundiak egiten ari baita. *Breviarium* etzait iduri beste munduko lana. An asi bearko. Ez daukat gria aundirik ioateko baiñan an geiago egin nezakela. Emen eguneroko Mezarik ere ez. Neronek bakarrik Euskalerrian argitarala aña liburu emango dudala nago. Lenbizi, asteko, Sta. Teresa ta S.J. de la Cruz eman nezazke, zatirik ederrenak itzez itz eta gaiñerakoa laburtuz eta euskerari egokituz. Kikeron-en aburuko naiz ontan: itzuli ez-baiñan egokitu. Gero, Elizako Gurasoak, lenbizi, ustez, *De virginitate et virginibus*, Anburusi gurenarena: *Aingerutasuna* = ‘la virtud angelical’. Urrena S. Bernardo etc. etc. Gure gaztedia ezkerretara doa, ta iaureskuntzari eutsi bear diogu. *Misale*, *Breviarium* eta oiekien zerbaitek egiña duket: egunero irakurriko naute, beintzat; baiñan ez naiz alki ortara. Berri berriki asi nai dut ezer egin ez banu bezala, autsi edo puskatu, al-bait, gaiñerako idazle guziak apurtu arte. Jainkoa lagun, biba zârra!!!».

—edota alderantziz—, bertako bibliotekan *Confessiones* bilatu eta aurkitu zuen, Oiartzabali abuztuaren 5eko gutunean esaten zionez (ikus, gorago, 44-45 or.). Hauxe da dugun data *post quem* bakarra, hortik aurrera eta hurrengo urteko urtarrilaren bukaerara arte, harrigarria bada ere, bere gutunek ez baitigute txintik ere esaten honen gainean. Beraz, itzulketaren lan gordinena bi data hauen bitartean kokatzea besterik ez dugu, eta itzulpena benetan bukatutzat jotzea 1954ko martxoaren erdialdean.<sup>24</sup>

*Aitorkizunen* testua postara bota eta, 1954. honetan, artikulu gutxi batzuez gain, ezin izan zuen lan luzerik hartu: hiru hilabeteen zehar gutxienez hezueri gogor batek jo zuen, Zaitegiren lan zenbait zuzentzen ere eman zuen denbora eta, azkenik, Europara itzultzeko paperak-eta biltzen ibili behar izan zuen.<sup>25</sup> Dakigun bezala, urriaren 25ean itsasoratuko zen seguruenik, azaroaren 24an Bilboko portuan lehorreratzeko. Hori baino lehenago Guatemalara joan zen, Zaitegi eta Ibiñagabeitiari agur esatera.<sup>26</sup> Itsasontzian aspalditik ondo pentsatuta eta, neurri batean, eginda zuen *Jainkoaren bila* liburuaren sarrera eta lehendabiziko atala idatzi zituen.<sup>27</sup>

<sup>24</sup>Ez dirudi 1954ko urtarrilaren 29ko *ad mensem* harekin hilabeteen egin zuela ulertu daitekeenik, *ad mensem* hori azken hilabeteari dagokiona izan daitekeelako. Gogoratu beharra dago —ikus 38 or. 55 oh.— azken hiru liburu hauek ia-ia *Aitorkizunen* heren bat betetzen dutela, eta *Aitorkizunen* barruan ez direla, inondik ere, ulertzeko —edo itzultzeko— liburu arinenak. Merezki du Orixek berak azken hiru liburu horien itzulpenari irizten ziona ikustea, honela hitz egiten baitio, berriz ere bere lagun Oiartzabali, 1954ko irailaren 3ko gutun batean (OE, 952-954, 953 or.): «Onezkero irakurri dituzu *Aitorkizunetako* iru iardunak; amaikagarrena errexta ta polita, bestea ez ain errexak. Latinez eta españeraz ere illun gelditzen dira. Nik, beintzat, ditudanak egin ditut».

<sup>25</sup>Orixeren osasunak behin betiko beherakada nabarmena izan zuen hilabete hauetan. Alde honetatik oso adierazgarria da El Salvadorreko Zaragoza-tik Zaitegiri egindako 1954ko ekainaren 1eko gutuna (AB): hemendik aurrera oso kontuan hartu behar da osasun falta hau bere lanen aurrerabidea aztertzean. Gogoratu behar da, bestalde, 1954ko urte hau Miarritzeko batzar entzutetsu harena izan zela: gonbidatu zuten arren ez zuen ezer bidali baina bai egin zituen ez 1972ko edizioan ez idazlan guztienean —damurik— jasota ez dauden bertso bitxi batzuk; Zaitegirentzako 1954ko abuztuaren 16ko gutun batean daude (AB): «Ez nun ezer igorri Biarritzeko euskal-egunetara. Kopla bat egin bai, ta emen gorde. Badakizute, *22 août récital M. Ravel à S. J. de Luz*. Ravel txatxu ori! Onela zion nere ahapaldiak: “Leizaola ta Intxausti iaunak, / esker onik zuengana; / batzarrera nik ezin bialdu / eska didazuten lana. / Erdal-billeran obeki datoz / *Bolero* eta *Pavana*. / Otsegin beza nai dunak: ‘¡Viva / la Pepa edo la Juana!’».

<sup>26</sup>Bidaia honi buruz —eta Guatemalako lagunei egindako bisitaz— nahikoa da Iztueta [1991, 129-131 or.]; orobat ikus daitezke Labaien [1990, 55 or.] eta Irigoien [1976, 32 or.].

<sup>27</sup>Esan bezala, El Salvadorren ondutako *El trato con Dios* delakoaren zati osoak erabili zituen *Jainkoaren billa* idazteko. Itsasontziko lanari dagokionez, ikus zer dioen ja Tolosatik Zaitegiri egiten dion 1954ko azaroaren 30eko gutunean (AB): «Nere liburu berriaren gai ortatik ontzian egiñak ekarri ditut “Sarrera” eta “I Atala”. Liburuaren izena *Jainko-billa*». Bi zati hauek handik gutxira argitaratu ziren EG-n (1954 [11-12], 173-174 or.), ja *Jainkoaren billa* izenburuarekin. Baztertuta izan zuen lan hau denbora luzean: 1957ko udaberri aldean berriz heldu zion (Iztueta [1991, 142-143 or.]) eta 1958ko ekainean-edo bukatutzat jo zuen (OE, 967 or.). EG-n argitaratu zen bertsoian, «Sarrera» izenburua daraman zatiazen bigarren paragrafoak *Aitorkizunen* historiako interesgarria den aipamen bitxi bat dakar: «Badatozkit or-amenka nere irakurlerik idukiñak, eman detzadala lenbailen san Agustinen *Aitorkizunak*. Ain zuzen eun urtemuga dalata zein egoki letozken! Baiñan ez daukat alderdirik aiek argitaratzeko. [...] Argitaratzeari lotu ez nizaioken ezkerro, egiteari bederen lotu nakion, noizbait agertuko diran ustean» (173 or.). Urtemuga, noski, Agustinen jaiotzarena: 354. Zer esan nahi ote du hemen ordea *alderdi* horrek? Esango nuke ‘beta’, ‘modu’, ‘ahalbide’: alegia, oraindik ezinezko duela —eta ez, pentsa litekeen bezala, argitaletxea falta duela—. Paragrafo hau ez dago 1971ko edizioan, ezta honen gainean eginda dagoen idazlan guztienean ere.

### III

#### Lazkaoko beneditarren etxean

Euskal Herrira helduta Tolosara joan zen eta arrebaren etxean hilabete eta erdi egin zuen —erdi gaixorik, orain ere—. Ez zuen ordea han gelditzeko asmorik: ja El Salvadorretik hitz hartua zuen Lazkaoko beneditarren etxera joango zela, eta 1955eko urtarrilaren 7an bertan da.<sup>1</sup> Tolosako hilabete eta erdi honetan zehar bere aspaldiko adiskide Justo Mokoroa ere Tolosan da eta, dirudienez, sarri samar ikusten dute elkar.<sup>2</sup> Ezinbestean, hitz bi baino gehiago egingo zuten *Aitorkizun*en gainean,<sup>3</sup> eta Mokoroak itzulpen berria aztertzeari ekin zion abenduko egun haietan: ez itzulpen osoa —ordurako ja osorik egon arren—, orexarrak Iparraldean egin zituen zatiak bakarrik baizik.<sup>4</sup> Ez dakigu zergatik ez zituen ikusi gainerako hiru liburuak, XI-XIIIgarrenak alegia; eta, hauxe izan arren hipotesi egiantzekoena, ez dakigu seguru azken hiru liburu hauek ere Labaienek ote zituen: segurutzat jo dezakegun gauza bakarra da Mokoroak eskuen artean izan zuela Orixek Iparraldean ondutakoaren lehenengo aldakia —ez, beraz, orain Lazkaon dagoena—. <sup>5</sup> Orixek gaixorik zegoela aprobetxatuz edo, agian, bere arrebarenean zegoen bitartean lan horretan sartzeko asmorik ez zuelako, eraman egin zuen Mokoroak

---

<sup>1</sup>Bi hilabete hauetarako ikus Iztueta [1991, 129-134 or.]; kronologiari buruzko zalantzak sor ditzaketen huts batzuk itzuri dira aipatu orrialde hauetan zehar: 131 orrialdean, testuan aipatzen den azaroaren 14ko gutuna abenduaren 14koa da, *azaroa* ordez ere «arazoa» inprimatu dutelarik (12 oharrean ondo dago), eta 13 oharrean aipatzen den 1955eko urtarrilaren 10eko gutuna ez da Tolosan egina, Lazkaon baizik; 134 orrialdean, berriz, irakur daiteke «urtarrilaren 8an» joan zela Lazkaora, baina badirudi hau ere hutsa dela, hortxe aipatzen den 1955eko urtarrilaren 10eko gutunean «erenegun-aintzi iritxi nintzan Alkartegi ontara» irakur baitaiteke: beraz, 7an joango zen (hasieratik aurreikusita zuen bezalaxe, bestalde, Tolosan egindako 1954ko abenduaren 14ko gutun batean [AB] horrela baitio: «Itxoizute apur bat, gizagajook, ni Lazkaura ioan arte [Erregeak ondoan]»).

<sup>2</sup>Zaitzegiri Tolosatik egiten dizkion bi gutunetan ere (azaroaren 30ekoan eta abenduaren 14koan, biak AB) Mokoroarekin izandako solasaldiei buruz hitz egiten du. Bestalde, geroago aipatuko den 1955eko urtarrilaren 14ko gutuna ere Tolosara bidaltzen bide dio Lazkaotik: PIA eta apud Iztueta [1991, 135 or. 29 oh.].

<sup>3</sup>Egun haietan ondu zuen txostenean (ikus, beheerago, hemen bertan eta, batez ere, III erans.) honako hau esaten dio Mokoroak Orixeri: «Itzez naikoa esan nizun, baiña berriz esanak ez duke kalterik [...]» (III erans. 109 zenb.).

<sup>4</sup>Honi guztiari buruz ikus 37-39 or.

<sup>5</sup>Ikus, azken auzi honen inguruan, III erans. 390-392 or. Mokoroak Iparraldeko zatia bakarrik eduki ahal izanak —eta ez, berriz, El Salvadorrekoa— pentsarazi ahal digu Orixek 'aste banatan' bidalitako XI, XII eta XIII liburuen testua ez zela egon —sasoi hartan behintzat— Labaienen etxean. Baina ez da hau, noski, egin daitekeen hipotesi bakarra: orobat litekeena da, beste adibide bat baino ez ipintzearren, Mokoroak eskuetan eduki izana azken hiru liburu haiek baina astirik ez izatea —ikus ondorengo bi oharrak— testu nekagarri hari ere ekiteko. Gogora, honetaz guztiaz gain, 46 or. azaldutakoa.



eskuizkribua. Baina itzulpen hari buruz esan nahi zituenak idatzi ahal izan baino lehenago itzuli egin behar izan zion orijinala Orixeri, seguru baitakigu honen inguruan egin zuen txosten modukoa *Aitorkizunen* testua aurrean ez zuelarik eskribitu zuela:<sup>6</sup> itzuli egin beharko zion Orixek ja Lazkaora joan behar zuelako eta eskuizkribua berarekin eraman nahi zuelako, edota bera joan eta gero inork eraman behar zizkionak ondo bilduta utzi nahi zituelako.<sup>7</sup> Ez dakigu nola helduarazi zion Mokoroak txosten hura; Orixe 7an joan zen Tolosatik, eta 14ko gutun batean —Lazkaotik ja, beraz— honela diotso: «zure oarkizunak jaso nitun [...]»;<sup>8</sup> Mokoroaren paper hauek Lazkaoko beneditarren etxean daude gordeta.

1955eko urtarrilaren 14an Mokoroari egiten dion eskutitz hori biziki interesgarria da; merezi du osorik ematea:<sup>9</sup>

Lazkau'tik, 14-I-55

Aita Justo M. Mokoroari. Tolosara.

Agur Ibar: zure oarkizunak jaso nitun eta aietaz ondo baliatuko naiz. Nere xabarraldi asko arki diteke itzulpen ortan, baiña Trabuco'ren [sic] textoak aldakuntza aundiak ditu BAC'renarekin. Lenbiziko atalean lau lerro geiago dakartziti, ta beste aldakuntza batzutaz konturatzen naiz, aurrean ez daukadala ere. Lenbiziko liburuan arkitu ditut utsak eta aldakuntzak; urrengoetan ere arkituko, bear ba da, zuk baiñon ugariagoak. Eskerrik asko zurengatik, eta gauza errexegoetan [sic] arreta aundiagoa artzeko bidea eman didazulako.

«Baiña, arren, Orixe, irakurle *bizien* izenean eskatzen dizut: etzazu jarren, milla bider! elkortu zure lan bikain ori aditz-joku arrotz geiegirekin». —Arrazoi dezu. Gizagajoa! Zer penitentzi eragin dizudan! Ikusten zaitut zure gela-txokoan, eskuak buruan, ile-tiraka, *neoflexismo* oietako zenbaitekin oztupo egitean. Neroni ere lotsa ematen didanak ba-dira, ta pozik kenduko ditut.

Emen Salmoen kopia bat irrikitzen daude. Gaiñerako Itun Zarra kopietan atera genua, ba dute Oartzabal'ena. Jan-tokian irakurtzen ari dira orain «Egun'en idaztia» (Liber dierum seu Paralipomenon).

Goraintzi orkoeri ta memento:

Orixe

'Aurrean ez daukana', jakina, Trabucco-ren edizioa da. Baina lan berriaren hasiera honetan ereduaren arteko aldeari ematen dion garrantzia —hots, Iparraldean ondu zuen itzulpena egiteko erabili zuenaren eta orain mahai gainean duen BAC-eko edizioaren artekoari— ez da izango Orixek uste zuen bezainbatekoa. Gutun honetan aipatzen duen pasarteak behar

<sup>6</sup>Hala dioelako berak, txostenean bertan, behin baino gehiagotan (III erans.): «Ez det uste bear bezela aditu dezunik kapitulu onen lenengo erdia. Erderaz ipiñiko dizut, zure paperak aurrean banecuzka euskeraz adierazten aisago moldatuko nintzana» (22 zenb.); «[...] Zure paperak aurrean ez daukadala ez naiz oroitzen zergatik» (49 zenb.); «[...] Paperak emen ez daukadala ez naiz oroitzen zertara datorren oar au [sc. Mokoroak berak egindako ohar bat]» (72 zenb.); etab.

<sup>7</sup>Paper batzuk Tolosan utzi zituela badakigu: «Au nere burua! Zuendako artikulua eta *nota* guziak Tolosan utzirik etorri naiz. Etzi ekarriko ditidate» (Lazkaotik, «Zaitegi ta Andima adiskideeri» 1955eko urtarrilaren 10ean egindako gutuna, AB). Hau da, ez nahitaez ahaztu egin zitzaizola paper haiek Lazkaora eramatea: agian berarekin eraman behar zituen gauzekin batera jarri beharrean geroago eraman behar zizkionekin utzi zituela.

<sup>8</sup>PIA. Daitekeena da Mokoroak postaz bidali izana Lazkaora, eta daitekeena da orobat Orixeren Tolosako etxean utzi izana —esaterako, hura ez zegoen batean baino Lazkaora alde egin baino lehenago, eta handik aurrera elkar ikusi ez izana—: azken honen alde hitz egingo lukete, batetik, postaz bidaliez gero mintzagai ditugun paper hauekin batera joan beharko zukeen kartarik ez egoteak PIA-n eta, bestetik, Orixeren aipatu eskutitzeko «jaso nitun» hark.

<sup>9</sup>PIA; Iztuetak ere [1991, 135 or. 29 oh.] gutunaren gehiena dakar.

baino gehiago puztu zion arazoa: *Aitorkizunen* testuaren hasiera-hasieran (I, 2, 2), izan ere, huts larria du BAC-eko 1946ko edizioak, hots, Orixeren lehenengo idatzaldiak —eta, hortaz, hura egiteko ibili zuen ereduak— bazituen ‘lau lerro’ falta ditu (ikus, honetaz, 174, 180-181 eta 194 or.). Gainera, ereduaren kontu honek zer ikusi gutxi du Mokoroak bere txostenean nabarmentzen dizkion huts gehienekin.<sup>10</sup> Nolanahi den ere, Orixek arretaz irakurri zituen orri hauek eta baita hauen argitan itzulpena berrikusi ere, bere aldakian jaso ahala Mokoroaren oharra marra banarekin ezabatuz eta, inoiz, bere oharren bat edo beste Mokoroak idatzitakoari gehituz; izan ere, orriotan aipatzen diren huts guztiak zuzenduta agertzen dira Lazkaon ondutako testuan: hutsak diot, Mokoroak proposatzen dituen gainerako aldaketak ez baitzikio beti onartzen. (Ikus, honi buruzko xehetasun gehiago, III erans.).

Arestian aipatu dugun gutun horretatik ere Lazkaora heldu eta berehala *Aitorkizunen* itzulpena zuzentzen jardun zuela ondoriozta dezakegu; are gehiago, gogoz hasi zela lanean eta urtarilaren 14rako berrikusia zuela ja lehendabiziko liburua —edo, behinik behin, honen zati handiena—: «Lenbiziko liburuan arkitu ditut utsak eta aldakuntzak; urrengotetan ere arkituko bear bada, zuk baiñon ugariagoak» diotso Mokoroari. Gogoan dauka egina duen itzulpenak zuzendu beharra duela, «xabarraldi asko» dituela alegia, gutun honetan bertan dioen bezala; baina aspalditik zuen erabakita ondo orraztu gabe ezin zuela itzulpen hura argitaratu, eta halaxe zioen ja —esaterako— on Martin Oartzabali zuzendutako 1954ko urtarilaren 29ko eskutitz batean, lan gordinena bukatu berria zuenean: «Iorrratu bearra baduke argitara baiño len».<sup>11</sup> Zaitegirentzako otsailaren 15eko gutun batean (AB) honako asmo hau erakusten du:

Ni S. Agustiniekin ari naiz, batez ere. Opor-aldirako gertu nai nuke, berela Eliz-baimena eskatzeko. Zueri bialiko ditizuet atal bereizi batzuk noizean bein, A. Mokoroak aukeratuak. «Trabajo gigantesco» dala esan du. Nik bigarren eta azken-iorraldian eman-ala, kopia ateratzen ditidate.

‘Bigarren jorraldia’ da, izan ere, Lazkaokoa, bigarren idatzaldia alegia; eta nahikoa dirudi lekukotasun honek ondorioztatzeko lanaren hasiera honetan behintzat hark eskuz eskribitzen zuena norbaitek makinaz jotzen zuela: ezin da bestela ulertu «kopiak ateratzen ditidate» hori. Gero frogatuko dugu *Aitorkizunen* bigarren idatzaldi hau, osorik, Orixe ez zen norbaitek jo zuela makinaz (78-91 or.);<sup>12</sup> baina, aldi berean, ikusiko dugu I-V liburuen testua bakarrik idatzi zuela Orixek eskuz: gainerakoak, seguruenik, lehenengo idatzaldiaren

<sup>10</sup>Ereduen arteko aldeari ere egozten dio Orixek Mokoroak bere txostenean aipatzen duen beste huts bat (5 zenb.), baina arrazoirik gabe: «BAC'ek ez dakar», idatzi zuen, eskuz, Mokoroaren oharren ondoan; baina badakar: Orixek ez zuen aurkitu Mokoroak iruzkin haiek ontzeko erabili zuen edizioak beste paragrafo zenbaketa bat zuelako (ikus, honen guztiaren gainean, III erans. 389 or. 5 oh.). Ohar bedi, bestalde, *Aitorkizunen* hasierako liburuen lehenengo idatzaldia ez zuela egin Trabucco-ren ediziotik, hemen dioen bezala: ikus, honetaz, II erans.

<sup>11</sup>Ikus gorago 45 or.; Oartzabalentzako 1955eko urtarilaren 21eko gutun batean ere *Aitorkizunak* zuzentzen diharduela dio: «S. Agustiniñen Aitorkizunerri bigarren eskua (azkenekoa) ematen ari naiz. Ba dauka bearra. Xabarraldi asko xamar dauzka» (OE, 954-955, 955 or.); balio gutxiagokoa bada ere, badugu beste lekukotasun bat Zaitegik 1955eko martxoaren 27an Oartzabal berari Guatemalatik bidaltzen dion gutun batean: «Onezkerok badakizu: Orixe on eta bizkorra Lazkaun bizi da [...]. *Agustín gurenaren aitorkizunak* eta *Jaungoikoaren billa* idatzia antolatzen diardu» (OE, 955 or.).

<sup>12</sup>Eskuizkribu honen lehenengo aldakiari B-prior esan diogu, eta bigarrenari —hau da, kalkoarekin ateratakoari— B-alter: ikus 71-73 or.

orrietan zuzenduko zituen, eta bertatik kopiatuko zituen kopiagileak (91-95 or.).

Badirudi lana arin doala.<sup>13</sup> Eta ja martxoaren 28an honako hau idazten dio Andima Ibiñagabeitiari (AB):

S. Augustiñen [sic] Autorkizunetatik 8garren eta 9garren iarduna oso osorik bialduko neukez E. Gogoarako.

Ordurako zortzigarren eta bederatzigarren liburuak berrikusita edo aurki berrikusteko zituela esan nahi ote du honek? Ez nahitaez. Eskutitz hau idazten duen sasoi berberean ordea berriz heltzen dio gogor gaixotasunak eta, atzera Ibiñagabeitiari ekainaren 25ean egindako gutunean (AB) gezurrik ez badio, hiru hilabete eta erdian, ekainaren hasierara arte alegia, esateko moduko lanik egin gabe eduki du:

Udabarriko lelengo egunetik —iru illabete ta koxka— mikorik egin barik nago. Eskuz idazteko ukondorik eziñ arrimatu maira. Eskutitzik bere, Mameme-ri egin deutsodazanak. Eta kittu.

Dakigun bezala, EG-n ez zen *Aitorkizunen* atalik argitaratu.

J.M. Aranaldek dakarrenez, 1956ko «Erregenetarako eman zun [sc. *Aitorkizunen* eskuizkribua], bukatu rik, argitara zezaten».<sup>14</sup> Eta berri gehiagorik ez dugu 1956 honetako apirilera arte. Gure hurrengo lekukotasuna, izan ere, eliz-baimena eskatzeari dagokio, horrela baitiotso bere adiskide Oiartzabali 1956ko apirilaren 12ko gutun batean:

Ez dakit esan nizun, baiña Agustín gurenaren *Aitorkizunak* gotzaitegian da —Donostikoan— Eleiz-baimenaren eske. Urtearen azkenerako atera nai luke Pio Montoya iaunak.<sup>15</sup>

Izan ere, *imprimatur* 1956ko apirilaren 21ekoa da. Segituan ikusiko dugu Orixek ez zuela probak zuzentzerik izan: 1956ko irailaren 22an liburuaren bi ale jaso arte ez zuen testu hura berriz ikusiko.

Urte bete pasatu zen, beraz, Orixe *Aitorkizunak* zuzentzen hasi zenetik bukatutzat eman zituen arte; baina ez zuen urtea horretan bakarrik eman: Lazkaoko egonaldian —1955eko urtarrilaren 7tik 1956ko abuztuaren erdi aldera alegia—, *Aitorkizunak* berrikustez gain eta sarri egon arren gaixotasunak jota, *Officium parvum* eta Benito santuaren Erregelak itzuli

<sup>13</sup>Garai honetakoa da, hots, 1955eko urtarril-otsailekoa, K. Mitxelenak *Egan*-erako egin zion elkarrizketa (Mitxelena [1954]); zalantzarik gabe, oraindik *Aitorkizunak* zuzentzen zegoelako erantzuten dio honako hau: «[K.M.] Ze lan duzu eskuartean? Bat edo bat aurki agertzekotan omen da. Egia? [O.] Hala nahi, baina ezin, San Agustinen *Aitorkizunak*, behintzat». (Hara zer dioen, elkarrizketa bitxi honetaz eta honen garaiaz-eta, Mitxelenak berak: «Era un hombre muy agradable. Cuando lo conocí sufría mucho de reuma: no dejaba que le estrecharan la mano. Nos costó lo increíble hacerle la entrevista: creía que todo el fascismo internacional estaba detrás de él...»; in Ibarzabal [1977, 158 or.]). Elkarrizketaren lehentasuna ez zaio atxiki behar Orixek *Egan*-ekin edo Mitxelenarekin berarekin izan zezakeen inongo mesfidantzari, Iztuetak dioen bezala (Iztueta [1991, 132 or.]; ikus 57-58 or. eta bertako 29 eta 30 oh.), askoz arrazoi errazagoa baitu: Mitxelenak bete samar idatzitako paper txiki batean bidali zizkion galderak eta Orixek paper horretan bertan zeuden zuri urrietan idatzi zituen erantzunak. Aipatu paper hori (eta *interview* moduko honen inguruan Orixek Mitxelenari egindako eta hark honengandik jasotako karta batzuk) Koldo Mitxelena Kulturuneko liburutegian gorde dira.

<sup>14</sup>Aranalde [1965, 14 or.].

<sup>15</sup>OE, 962 or.

zituen eta baita beste lan txikiago batzuk egin ere;<sup>16</sup> eta Erregelari dagokionez behintzat seguru dakigu 1955ean —eta ez geroago— itzuli zuela.<sup>17</sup> Pentsatzekoa da, beraz, *Aitorkizunen* orrazketan hasita zegoenean aipatu beste lan hau edo hauek fortunatu zitzaizkiola eta 1955-1956ko Gabonak arte ezingo zuela *Aitorkizunen* itzulpena bukatu.

1956ko apirilaren 21a baino lehenago Orixeren *Aitorkizunak* Donostiako apezpikutegian dira. Handik pasatu izanaren arrastoa ere gorde egin da gure eskuizkribuan eta, izan ere, honako ohar hauek irakurri ahal dira lehenengo orriaren goiko aldean, lapitzez eginak (ikus IV irud.):

*Autor:* Nicolás Ormaetxea (Orixe)

*Obra:* Traducción al euskera de las *Confesiones* de San Agustín

*Residencia:* Monasterio Benedictino - Lazcano - (Beasain) - Guipúzcoa

Una vez censurada la traducción, vendrá a recogerla Nemesio Echaniz, Pbro. - Victor Pradera, 79 - 2º izqda. - San Sebastián<sup>18</sup>

Badirudi, beraz, on Nemesio Etxanizek ere lagundu egin zuela honetan. Lerro hauen azpian, eskuineko aldean, arkatzez egindako marra bikoitz batekin bereizita eta tinta beltzez, honako hau dago idatzita:

IMPRIMATUR

S. Sebastiani 21-4-1956

Dr Josephus Sudepu

Vca Gen

<sup>16</sup>Lazkaon emandako urte eta erdi honi buruz eta garai honetako lanei buruz ikus Iztueta [1991, 134-140 or.]. *Officium parvum* argitaratu gabe dago eta san Benitoren Erregela Lazkaoko beneditarrek berek argitaratu zuten 1980an (honen bi behatzizkribu gorde dira haien liburutegian: ikus, hauen gainean, 79 or. 33-34 oh. eta 99 or. 7 oh.); salmo batzuk ere berriz itzuli zituen Lazkaoko urte eta erdi hartan: ikus Baztarrika [1973]; eta egiantzekoa da oso *Jainkoaren billa* liburuaren zati batzuk ere —itsasontzian ez ezik— Lazkaon ere idatzi izana. Baliteke bi artikuluko hauek Lazkaon onduak edo, bederen, han birmoldatuak izatea: «Noizko-nongoak», EG, 1955 [1-2], 25-26 or. [= IG, III, 160-161 or.] eta «Izan, egon, gertatu», EG, 1955 [5-12], 110-111 or. [= IG, III, 161-164 or.]; berriz, zalantzarik gabe Lazkaon emandako hitzaldia da «Egiaren billa nondik asi» argitaragabea (orain IG, III, 165-169 or.), 1955eko Santo Tomas egunean hain zuzen ere. (Ez da dudarik Zaitegiren *Bidalien egiñak* [Zarautz, Itxaropena, 1955] liburuari egindako «Itz-aurrea», 1-7 or. [= IG, III, 1.301-1.306 or.], El Salvadorreko garaikoa dela, beste arrazoi batzuen artean aipatu egiten duelako inoiz bere gutunetan; orobat «Itzua katsueri argiaz mintzo», EG, 1954 [9-10], 149-150 or. [= IG, III, 1.126-1.129 or.], honako hau baitio (150 or. = 1.128 or.): «Lerro auek argitara orduko or naiteke gure txoko ortan, eta luzaroago iardungo»). Eta beharbada —ez da seguru— poesiaren bat edo beste. Bestalde, eta *Aitorkizunen* testuarekin zuzenean lotuta zeudelako gorago aipatu behar izan ditugun gaixoa-aldiez gain, oso kontuan hartzekoak dira sasoi honetako osasun faltari buruzko lekukotasunak; oso adierazgarria da, esaterako, Benito santuaren Erregelaren itzulpenari beneditarrek jarritako oharrean ematen zaiguna: «[...] aita Patxi Aizpurua idazmakina lanetarako lagun zuela, askotan gaixorik oean egon bearra izaten bait zuen eta oetik egiten itzulpen lana [...] sarritan gaixo zegoelako oetik egiten bait zuen itzulpen lana, kopista bat lagun zuela berak bapatean esana makinaz idatzeko» («Orixeren textuari zenbait oar eta zuzenketa», in *Erregela...*, 333 or. [= IG, II, 757 or.]); baina bi urte hauetako eskutitzetan oso ugari dira osasun faltari buruzko aipamenak; badakigu, esaterako, 1956ko otsaila eta martxo —gutxi gorabehera— ohean pasatu behar izan zituela: «Bi illabete terdi oian egin ditut oiñaze ta sukara», diotso Oiarzabali 1956ko apirilaren 12ko gutun batean (OE, 962 or.).

<sup>17</sup>Horrela esaten baitzaigu Erregelaren testuari beneditarrek ipini zioten aipatu oharrean: «[...] Benito santuaren Erregela au Nikolas Ormaetxea Orixek euskaratu da. Lazkaoko Beneditarren Erxean egin zuen 1955. urtean [...]» (*Erregela...*, 333 or. [= IG, II, 757 or.]). Honetaz gain, gaur beneditarren Lazkaoko etxeko liburuzaina den eta orduan honen gutziaren lekukoa izan zen Juan Joxe Agirrerren oroitzapen hau dugu: lehendabizi *Aitorkizunak* orrazten jardun zuen Orixek, eta Erregela geroago itzuli zuen.

<sup>18</sup>«Echaniz» eta «Victor» tilderek gabe.

Hitz hauen ezkerrean zigilu arrauzkara bat jarri da, ohiko tinta moretxoaz, inguruan honako letra hauek dituelarik:

OBISPADO DE SAN SEBASTIÁN - Vicaría General

eta, erdian, gurutze bat. Pixka bat beherago eta ezker aldean, hau ere tinta beltzez, beste hau irakur daiteke:

Nihil Obstat  
José Luis Ansorena

Azkenik, izenaren azpian ere marra bat, sinadura gisan nonbait.<sup>19</sup>

Argitaratzearen inguruko lan guztiak Antonio Maria Labaienen kontu geratu ziren: Lekuonak eta liburu honetaz arduratu zen inprimategiko langileak elkarri egindako kartetatik berehalakoan ondorioztatzen da Labaien zela lan hartan erantzulea; *Aitorkizunen* orijinalaren orrien artean gorde den —eta, dudarik gabe, inprimategitik datorren— ohar batek ere gauza bera salatzen du; Labaienek Mitxeleneri igorritako zenbait gutunek eta, era berean, Julio Urkixo Mintegiak erosi zituen *Aitorkizunen* aleei buruzko dokumentazioak hori bera erakusten dute; Orixeren orduko gutunerian ere haren izena agertzen da beti —eta ez beste inorena— *Aitorkizunen* inprimatzea-eta aipatzen diren guztietan; Labaienen paperen artean *Aitorkizunen* aurkibidea biltzeko erabili zen Lazkaoko beneditarren gutun-azal bat ageri da; eta, azkenik, nekez uler liteke, Labaienen parte-hartzea kontuan izan gabe, nola eman zitzaion Lekuonari *Aitorkizunen* eskuizkribua txukuntzeko mandatu. <sup>20</sup> Gogora dezagun, bestalde, Labaienek gorde ziola Iparraldean egindako lehenengo idatzaldiaren eskuizkribua (gutxienez: Ameriketara egindako zatiaz ezin izan dugu ondorio segururik atera), eta Orixeren beste lan batzuez ere hura arduratu zen.

Baina testuaren orrazketa eta probak zuzentzea Lekuonaren ardurapean egon ziren. Honetarako ere froga franko ditugu: Lekuonaren paperak —edo, behinik behin, paper asko— gordetzen dituen artxiboan aurkitu dugu Orixek inprimategira bidali zuela uste zuen orijinala; orijinal honek inongo zalantzarik gabe Lekuonaren eskuari atxiki behar zaizkion ehunka ohar eta zuzenketa ditu, eta ehunka berrikuntza hauek 1956an argitaratutako testuan ere badira; arestian ikusi dugun bezala, inprimategiko langile batek Lekuonari egindako hiru gutun gorde zaizkigu aipatu artxiboan; eta abar. Gure lan honen bigarren zatiko III-V kapituluetan (134-339 or.) eta V-VII eranskinetan saiatu gara Lekuonak Orixeren testuaren inguruan egin zuen lana berreraikitzen eta haren nondik norakoa ulertzen: honen guztiaren berri

<sup>19</sup>On Nemesiok *Aitorkizunen* argitaratzeaz arduratuko ziren Labaien eta Lekuonarekin sasoi hartan zituen harremanei buruz ikus Sodupe [1996, 107-109 or.]; ezin aproposagoa da, darabilgun auzi honetarako, aipatu liburuko 109. orrialdeko argazkia.

<sup>20</sup>Lekuonak eta inprimategiko langile ezezagun horrek elkarri egindako kartak osorik eman ditugu 54-55 or.; *Aitorkizunen* eskuizkribuaren orrien artean dagoen orritxoaz, Labaienek eta Mitxeleneri elkarri egindako gutunegi buruz eta Julio Urkixo Mintegiak erosi zituen 20 ale horien gainean ikus 55 or. 24 oh.; eta Labaienen paperen artean dagoen gutun-azalaren inguruan 314-315 or. Honetaz gain, ikus Iztueta [1991, 135-136 or.].

jakin nahi duenak jotzea du orrialde horietara. Esan dezagun bakarrik aldaketa asko — eta era askotakoak — jasan zituela Lekuonaren eskuetan *Aitorbizunen* testuak: huts asko zuzendu zituen baina baita ere, aldi berean, banalizazio ugari sartu; hutsik ez zuten hitz eta pasarteak ere maiz aldatu zituen: batzuetan, seguruenik, ilun irizten ziolako Orixerenari, beste batzuetan itzulpena hobetu beharrez, hau da, jatorrizko latinari leialago atxikitzeko; eta Orixeren hizkuntzaren aldakortasun eta xeblekeria zenbait ere araupean jartzen saiatu zen (ikuspuntu honetatik egindako aldaketa ikusgarri eta sistematikoenetakoa da — merezi du hemen aipatzea, Orixek espresuki eta agerian salatu baitzuen — testuan zeuden «nendun» guztiak —hots, ‘nuen’— «nuan» aldatzea). Eta liburuaren antolamendua ere itxuraldatu egin zen: esaterako, Orixek orrien barrenean jarritako hiztegi-oharrak kendu eta, hark gehitutako beste batzuekin, hiztegitxo batean bildu zituen liburuaren akaberan, etab.<sup>21</sup>

Ez dakigu Lekuonak hartu zituen lan hauek —edo lan hauetako batzuk— Orixeren eskuizkribua apezpikutegitik pasatu baino lehenago egin zituen ala handik itzulitakoan. Ez digute honetaz ezer garbirik esaten Itxaropena argitaletxeko langile ezezagun hark egindako eskutitzek —ez da, bestalde, gehien axola zaigun kontua—; bai ordea liburuaren historiako beste alderdi batzuen ganean, eta merezi du hirurak osorik ematea:<sup>22</sup>

Zarauz, 15 de junio de 1956

Muy Sr. mío:

Ya se están recibiendo las partidas de galeradas que se le envían para su corrección. Una vez efectuadas estas correcciones y comprobadas, se enviarán las páginas montadas al P. Sorarrain, quien las leerá antes de la tirada, siguiendo indicaciones del Sr. Labayen.

Conviene me devuelva los originales de las primeras páginas, para ir haciendo la portada interior, Nihil Obstat, Imprimatur, etc.

En la espera de sus gratas noticias, le saluda muy atentamente su affmo.s.s., q.e.s.m.

Zarauz, 2 de agosto de 1956

Muy Sr. mío:

Paso a corresponder a sus attas. cartas fecha 19 y 23 de julio ppsdo.

Con esta fecha y por correo aparte le envío dos juegos de páginas montadas de la obra AITORKIZUNAK, para que sean cotejadas por Vd. y el P. Mocoroa. También le envío pruebas de la portada interior, Nihil Obstat y Dedicatoria para su corrección y rápida devolución. Ya estamos componiendo los dos Índices que pronto le enviaré para su corrección.

Ya solo queda el pequeño vocabulario que aún no he recibido su original y la portada, para ultimar la obra.

En la espera de sus noticias le saluda muy atentamente su affmo.s.s., q.e.s.m.

Zarauz, 10 de agosto de 1956

Muy Sr. mío:

Acuso recibo a su attas. carta fecha 7 del cte. junto con las pruebas de los Índices corregidos, así

<sup>21</sup>Berriz, badirudi liburuaren akaberan gehitutako eranskin hauetako bat, «Gauza iakingarrienen arkibidea» izenekoa, Orixek egin zuela eta, jakina, Labaienen bidez heldu zela Lekuonaren eskuetara (ikus 306-315 or.).

<sup>22</sup>Dataren eta gutunaren hasieraren artean hartzailearen izena eta helbidea agertzen dira: «Sr. D. Manuel de Lecuona / Capellán de Berroxe / Andoain». Berdin hiru eskutitzetan.

como el original del pequeño vocabulario. Ayer le envié las pruebas de este vocabulario, rogándole la rápida devolución de las mismas una vez corregidas junto con las pruebas de las primeras páginas que aún no me ha devuelto.

Ya solo queda por hacer la fe de erratas. Hemos pensado que lo mejor es hacerlo en hoja aparte, que se colocará al final de la obra. De esta forma se puede terminar de manipular la edición sin esperar a preparar su original, y por otra parte es más manejable para consulta.

En la espera de sus gratas noticias, le saluda muy atentamente su affmo.s.s., q.e.s.m.

Demagun, hortaz, Orixeren eskuizkribua (Lekuonak bere ohar eta zuzenketa guztiak egin ondoren eta —ez dezagun ahantz— Lekuonak ere ondua zen «S. Augustin'en Aitorkuntzetan utsuneak» izeneko bi orriekin batera)<sup>23</sup> maiatzean joan zela inprimategira: zeren ekainaren 15eko gutun hau idatzi baino lehenago *Aitorkizunen* testu osoa jo behar izan baitute linotipian, hemendik ateratako galeradak —edo galerada batzuk— Lekuonari bidali, honek bere aldetik galerada horiek zuzendu eta zuzendutakoan berriz inprimategira itzuli... Hau da, denbora gutxi pasatu zen *imprimatur* lortu zenetik (apirilaren 21ean baitzegoen sinatuta): ezin eztabaidatuzko ondorioa ez bada ere, daitekeena da Lekuonak Orixeren orrietan egindako lana —edo lan honen zati bat behintzat— eskuizkribua apezpikuteigira bidali baino lehenago egin izana. Beste alde batetik, badakigu konposaketaren bukaera behintzat —beste kontu bat da inprimaketa bera— abuztuaren bigarren hamabostaldian kokatu behar dugula.<sup>24</sup>

Jakina, kronologia hau baino askoz munta handiagokoa den kontu bat uzten digute agerian aipatu karta hauek: Labaienen asmoa zela *Aitorkizunen* testua, Lekuonak orraztu ondoren, Sorarrain eta Mokoroari ere erakustea, hauek ere —pentsatzekoa da— Orixeren hizkuntza txukuntzen lagundu zezaten. Segurutzat jo dezakegu ez zela horrelakorik gertatu: Mokoroak ez zuela liburuaren probarik ikusi lasai asko atera ahal dugu *Aitorkizunak* argitaratutakoan hark eta Orixek elkarri egin zizkioten —eta segituan aztertuko ditugun— gutunetatik; Sorarraini ere ez zitziola ezer bidali berak esan zigun —genuen susmoa baieztatuz— 2001eko azaroaren 23an telefonotik izandako elkarrizketa batean. Labaienek Orixeren testua beste bi gizon hauei ere erakutsi nahi izatea esanguratsua da eta, azken batean, bat dator Lekuonaren eskuetan utzi izanarekin *Aitorkizunen* jorratze, osatze eta argitaratzea.

<sup>23</sup>Lekuonak Orixeren eskuizkribuan egindako ohar eta zuzenketa bigarren zatiko IIIgarren kapituluan aztertu dira (134-187 or.); «S. Augustin'en Aitorkuntzetan utsuneak» izeneko paperei buruz ikus IVgarren kapituluko 188-213 or.

<sup>24</sup>Gutun hauetatik 1956ko liburuaren eranskinen historiarako ere atera ahal diren ondorioak 305-339 or. aztertu ditugu. Bestalde, konposaketaren bukaera datarekin lotu behar da, zalantzarik gabe, Labaienek Mitxelena egindako eskutitz honetan dioena (1956ko abuztuaren 22koa, KMKL): «Aitorkizunak, S. Agustiñ-en Orixek egindako itzulpena ea [sc. ia] amaitua dago ta laister argitarako dugu ez bada sortzen eragozpenik». (Eta, karta berean, beherago: «Julio Urkixo»ren eta Euskaltzaindiaren itzal eta diru laguntza bearrean gaude ta gai ortaz zuekin mintza nai nuke lenbaitlen»). Honekin duke zer ikusi Julio Urkixo Mintegiak *Aitorkizunen* 20 ale erosi izanak; izan ere, gorde egin da, Mintegiaren artxiboan, erosketa horri dagokion ordainagiria: 1956ko urriaren 2ko data du, Labaienen izenean dago eta erakusten digu, honetaz guztiaz gain, 48 pezetan saldu zela liburua —960 pezeta guztira—. Badirudi, bestalde, 1.000 ale inprimatu zirela; Lekuonaren artxiboan dagoen *Aitorkizunen* orijinalaren orrien artean bada paper bat («83-3-3» signaturarekin), eskuz egina, honako hau dioena: «Sr. D. A.M. Labayen / 1.000 ej. libro Orixe / Papel Milla Olerki / Comp. cpo. 10 Linotype / Tamaño 8º de 50 x 70 / Enc. rústica / Cálculo de pagas.».

Agertzeaz zegoen liburuaren iragarpen gisa nonbait itzulpenaren zati bat *Egan* aldizkarian argitaratu zen —ez, beraz, *Aitorkizunen* liburu osorik, ezta EG-n ere, Orixek 1955eko hasieran pentsatzen zuen bezala (ikus 50-51 or.)—. <sup>25</sup> Oso testu labur batek ikusi zuen argia orduan, hamaikagarren liburuaren lehenengo lau paragrafoek (XI, 1, 1 - XI, 2, 4), hitz hauek zituztelarik sarrera gisa:

Nikolas Ormaetxea Orixek euskeratutako, argitaltzeaz dagon liburu bikañetik artzen ditugu emen dijoazen lerro oiek. Bitez irakurtzallearentzat ao-goxogarri.

Inongo zalantzarik gabe dakigu *Egan*-era joan zen zati hau Lekuonaren eskuetan zen eskuizkributik atera zela: testu honek Lekuonak ondua den «Utsuneak» dokumentuan sartu ziren aldaketa batzuk dituelako eta, honetaz gain, Lekuonak kopiatzen zituen testuetan —berariaz edo nahi gabe— egin ohi zituen aldaketa esanguratsu zenbait direlako bertan (ikus, honen guztiaren gainean, 298-305 or. eta VII erans.). Aldaketa hauetako batzuek, bestalde, kokatzen dute *Egan*-eko testua Lekuonak Orixeren itzulpenaren inguruan egin zituen lanen bukaera aldean: zehazki, 1956ko liburuaren probak zuzendu zituen garaian edo geroago (ikus 303 or.); eta, izan ere —ez da, jakina, ezeren frogara, baina bai gainerako datu guzkiekin bat datorren aztarrena—, dudarik gabe dakigu *Egan*-en zerbaki hau *Aitorkizunen* liburua konposatu ondoren inprimatu zela, 1956ko abuztu-irailean hain zuzen ere. <sup>26</sup> Dena den, ez zen Lekuonaren lehenengo asmoa izan aipatu lau paragrafo hauek ematea liburuaren iragarpen gisa; Orixeren behatzizkribuko 116. orrian, hamargarren liburuko seigarren kapituluaren parean, Lekuonak bere ohiko arkatz gorriarekin eskribitutako hitz hauek irakur daitezke:

Aukera EGAN'era

Nonbait, egokiagoak irudituko zitzaizkion, obra osoaren aurkezpen baterako, XIgarren liburuaren hasierako paragrafoak: seguruenik *Aitorkizunak* idazteko izan zituen arrazoiak aipatzen dituelako horietan san Agustinek.

Ez dakigu noren burutapena izan zen *Aitorkizunen* itzulpen berriaren iragarpena *Egan*-en argitaratzea, ezta Orixe jakinaren gainean egon zen ala ez. Baina, nolana den ere, ez gintuke harritu behar —axola zaigu azpimarratzea, inoiz kontrakoa esan izan baita— Orixek *Egan*-en argitaratu izanak: Orixek *Egan* aldizkariarekin eta, zehazki, Koldo Mitxelenaarekin izan zituen harremanak ezin hobeagoak izan ziren, baita Mitxelena —1956ko udara aldean— «*Euzko-gogoa* eta *Euskera*» izeneko artikulua argitaratu ondoren ere. <sup>27</sup> Izan ere, Euskal Herrira heldu bezain laster

<sup>25</sup>«Agustin donearen *Aitorkizunak*. Amaikagarren iarduna», *Egan*, 1956 [3-4], 18-19 or.

<sup>26</sup>Labaienek Mitxelena 1956ko abuztuaren 22an igortzen dion gutun batean *Egan*-en zerbaki horretaz galdegiten dio, hor argitaratzekoak baitira baita bere bi lan ere (*Petrikillo* antzerki lana eta «Llangollen-go Eisteddfodau-1955» izenburuko artikulua); biharamunean, hau da, abuztuaren 23an erantzuten dio Mitxelena eta honela diotso: «*Egan* berria inprentan da, bikoa [sc. 3-4 izan baitzen, hots, zerbaki bikoitza, *Egan*-en askotan bezala baina urte hartako lehenengo biak ez bezala, 1 eta 2 izan baitziren]. Or dijoa [sc. inprimategian dagoen zerbaki horretan alegia] zure Llangollen-ekikoa, eta baita *Petrikillo* ere». (Bi eskutitzak KMKL).

<sup>27</sup>Mitxelena [1956b]. Esana dugu gorago (51 or. 13 oh.) *Egan*-en argitaratu zen elkarrizketaren lehortsunak ez zuela, Orixeren orduko hezueriaz —edo noiznahiko axolagabekeriak— landara, inongo zergatik ezkurtirik;



prest egon zen Orixe hemengo aldizkarietan ezer ez argitaratzeko hartua zuen erabakiaren salbuespen bakarra *Egan*-ekin egiteko;<sup>28</sup> eta *Egan*-eko *factotum* zen Mitxelenari dagokionez, badakigu estimu handitan zutela elkar: kontentagaitza izan ohi zen —eta laudorioetan neurri zorrotza erabiltzen zuen— Orixe, 1960ko artikuluko batean, Koldo Mitxelena «oraingo aldiko idazlerik oberena» zela zioen, «geroak [...] gure gizaldiaren ondorengorik iatorrena aitortuko» duena, eta 1961eko beste batean ere (hots, Mitxelenak «Asaba zaarren baratza» artikulua kaleratu ondoren) egungo 'idazle bikainen' artean aipatzen du, Altuberekin batera bakarrik;<sup>29</sup> Mitxelenaren partetik, nahikoa dira Orixeri buruz hainbat tokitan argitaratu zituen iritziak: hauetz landara, oso adierazgarria da Orixeri proposatu izana, Julio Urkixo Mintegiaren izenean 1956ko apirilaren 26an idatzitako oso gutun serio batean, euskal literaturaren historia bat idaztea edo, hobeto esateko, 1927an argitaratu zuena birmoldatzea.<sup>30</sup> Testuinguru honetan koka liteke, beraz, *Egan*-en agertu izana aipatu *Aitorkizunen* aurrerapen bakar hura; baina, agian, azalpen errazagoa du *Egan*-eko zatiaren pasadizo honek: bai Labaienek bai Lekuonak *Egan*-en argitaratzen zuten eskuarki

nolanahi ere, ustezko lehortasun hori nekez izan daiteke «*Euzko-gogoa* eta *Euskera*» artikulua onorioa (Iztueta [1991, 132 or.]): ez bakarrik polemika hau urte bete-edo geroago gertatu zelako, ezpada ez dagoelako inongo arrazoirik pentsatzeko Orixe bat etorri behar zuenik nahitaez Zaitegiren jarrera eta argudioekin. (Zaitegi baitzen, inongo zalantzarik gabe eta Iztuetak uste duenaz beste [1991, 132 or. eta 2001, 87-88 or.], Mitxelenari aipatu artikulua eragin zion iruzkinaren egilea —hots, ja Miarritzeko EG-n [ilbeltza-otsaila, 1956, 115 or.] argitaratu zen 1956ko *Euskera* aldizkariaren lehenengo liburukiaren iruzkinarena—; idazkera-eta nahikoa ez balira, badakigu beste batzuetan ere erabili zuela Zaitegik «U.» ezizena, eta Jon Bilbaoren bibliografian ere haren izenaren pean aipatzen da ditxosozko iruzkina; honetaz gain, bistan da eztabaida honixe buruz diharduela Ibiñagabeitiak, Zaitegirentzako berarentzako 1957ko martxoaren 13ko gutun batean [AB eta Ibiñagabeitia, *Gutunak...*, 201 or.], honako hau dioenez: «*Egan*-en azken zenbakia ere ikusi dut, au ere arin xamar. Ala ere, Mitxelenak zuri buruzki idatzia osorik irakurri nizun. *Astindu ederra ematen dizu*, baiña baita ere zere burua zuritzeko akiakularik aski. Ageri du *zure Euskera aldizkariakiko iritxi laburrak* bazterrak inarrosi ditula —etzana gurea—; ikus, baita ere, Mitxelena [1972, 157 or.]: «Bada [idazlan] bat, haatik, *Euzko-Gogoa*-rekikoa, bide zuzenez edo zeharbidez Zaitegiren kontra doana. Zaitegi eta ni, leunkiro adieraz dezadan, ez genotzen beti bai [...]».

<sup>28</sup>Hemengo aldizkarietan ezer ez argitaratzeko asmo horren gainean Mitxelenari 1955eko urtarrilaren 15ean, Lazkaora heldu berria denean beraz, egiten dion gutun batean hitz egiten du: «Emengo aldizkarietan ezer idazteko asmorik ez nedukan —igarriko diozu zergatik— baiña Julio Urkixoren oroitzarrez —oso maite bainindun— asmo ortatik lekutu dezaket *Egan* ori, Labaieni ere adierazi nionez. Baiña betiere erderaz, euskerazko artikuluen eskubide bakarria Zaitegi iaunari emana baitaukat» (KMKL). (Badirudi —aipa dezagun bide batez— behin ez ziotela onartu Jon Etxaideri erantzunez bidalitako idazki bat: «*Yon Etxaide iaunari. Egan*'en ikutu ninduzun ezker, ara bialdu nendun zuri erantzuna, baiñan ango Arrezkari irukoitz iaunari gogortxu iruditu iako»; «Au, ori ta bestea», *Karmel*, 1960 [3], 190 or. [= IG, III, 989-990 or.]).

<sup>29</sup>«*Yakin*-i erantzuten. Iritzi-billa. (Orri ialkiari erantzuna)», *Yakin*, 11 (1960), 82-85 or. [= IG, III, 983-984, 984 or.] eta «*Yakin*-i eta...», *Yakin*, 15 (1961), 47 or. [= IG, III, 994 or.]. Ondorio berbera aterako genuke zati batean behintzat Mitxelenaren iritzi baten kontra idatzia den aipatu «Olabide, bai. L. Mitxelena jaunari» izeneko artikulutik ere (*Egan*, 1959 [5-6], 186-189 or. [= IG, III, 442-446 or.]), edo «Lizardi» izeneko (Oleri, 1963 [1-2], 106-114 or. [= IG, III, 460-464 or.]). Lekuko dira, orobat, diplomazia gehiegi erabiltzen ez zuen Orixe Mitxelenari egin zizkion eta gorde zaizkigun bi gutunak: 1955eko urtarrilaren 15ekoa eta 1956ko maiatzaren 5ekoa, biak KMKL. (Gogora, bestalde, Orixeren «Olabide bai [...]» artikulua Mitxelenak 1958an argitaratu zen Olabideren itzulpenari egin zion iruzkinari erantzuten diola, hots, Mitxelena [1959] delakoari; «Asaba zaarren baratza» artikuluan —Mitxelena [1960]— Orixeri buruz esaten denaz ikus, hemen bertan, 61-62 or. eta VI erans. 451-452 or.).

<sup>30</sup>Euskal literaturaren historiari buruzko proposamena, esan bezala, 1956ko apirilaren 26ko eskutitz batean egin zion Mitxelenak Orixeri; ezezkoa 1956ko maiatzaren 5ekoan eman zion Orixe: «[...] ez dut berriro eltze ortan buruntzalia sartu nai [...]» (biak KMKL). Mitxelenak Orixeri egindako eskaintza honen berria ez nuen inon jasota ikusi; kapitulu hau idatzita nuenean argitaratu da Iztueta [2002], eta hemen aipatzen dira, lehenengo aldiz, esandako eskutitzak. Oro har Mitxelena eta Orixeren arteko loturez ikus baita ere Pérez Gaztelu [1995, I, 287-398 or.].

eta, are gehiago, biak ziren *Egan*-eko laguntzaileetakoak.<sup>31</sup>

1956ko abuztuan, *Aitorkizunak* inprimategian daudelarik, Orixek alde egiten du beneditarren Lazkaoko etxetik eta berriz ere Tolosako arrebaren etxera jotzen du.<sup>32</sup> Bigarren egonaldia honetan denbora gutxi egingo du Tolosan, azaroan berriz alde egin beharko baitu, oraingoan Orexara.<sup>33</sup> Baina oraindik Tolosan dagoela kaleratuko da *Aitorkizunen* liburua: Tolosatik egiten dio-eta gutuna, 1956ko irailaren 23an, Mokoroa bere adiskideari, hartu berria duen liburuari buruz hitz eginez. Eskutitz honetan agertzen du Orixek norbaitek edo norbaitzuek bere eskuizkribuan 'eskua sartu' dutelako susmoa; honela esaten zion Orixek liburu honen ingurukoetarako aholkulari-edo zeukan Mokoroari:

S. Agustíñen bi ale atzo eman zizkidan Labaienek. Axalez poliki dago. Gaiñerakoan... eskua politiktxo sartu dutela, lenengo orrialdetik asita. Azkenean iztegia ere ipiñi dute. Zertzuk esanez! *Adargil*: ganado cosquilloso'; *lo-arma* (guk *lo-ariña* esaten deguna): 'lo-zorro'!!! Ez dit batere irakurtzeko gogorik ematen.<sup>34</sup>

Konturatu egin zen, beraz, ukitu egin ziotela *Aitorkizunen* testua ('lehenengo orrialdetik hasita...'), eta ez da harritzekoa horren xehetasun gehiago ez aipatzea Mokoroari, ez baitzuen irispidean bere behatzizkribua —lehenengo aldakia Lekuonak gorde zuen eta bigarrena Lazkaon gelditu zen—. Atentzioa eman zion berak ipinitako oin-oharrak ez eta, horien trukean, «Iztegitxo» delakoa egoteak, nahiz eta erabat desegokiak izan Mokoroari hiztegitxoaren kontra eman zizkion argudioak: «ganado cosquilloso», azken batean, Orixek hain maite zuen Azkuek dakarrena besterik ez da («ganado vacuno cosquilloso, bête bovine chatouilleuse»); eta delako «Iztegitxo» horrek «lo-arma» hitzari buruz dioena ez da Orixek esanarazten diona, kontrakoa baizik: «Lo-asma = dormitar (op. lozorro)», hau da, «opuesto a» edo antzeko zerbait.<sup>35</sup>

Ez zen, noski, horrelako zerbait egiten zioten lehenengo aldia eta, batez ere, ez zen

<sup>31</sup>Hots, biak agertzen ziren urte haietako *Egan*-ek azalaren barruko aldean «Colaboradores» deiturapean noizean behin ekartzen zuen zerrendan. (Lehenengo aldiz, oker ez banago, 1955eko 3-4 zenbakian; nolanañi den ere, bai Labaien bai Lekuona hasieratik agertzen ziren bertan).

<sup>32</sup>Lazkaotik Tolosara egindako etxe aldaketa berri honen gainean ikus Iztueta [1991, 139-140 or.] eta OE, 967-968 or.

<sup>33</sup>Beste etxe aldaketa honi buruz ere ikus Iztueta [1991, 140 or.].

<sup>34</sup>PIA; gutunaren zati hau Iztuetaren liburuan ere irakur daiteke (Iztueta [1991, 135 or.]), baina azken esaldia ulertezin egiten duen zorigaitzoko inprimatze huts bat itzuri da: «lo-arma» hitza ezabatu egin da eta badirudi honi jarraitzen zaion guztia goragoko «adargil» hari buruzkoa dela. Bestalde, liburua irailan kaleratu zela segurua izan arren, berezko interesa du A. Ibiñagabeitiaren lekukotasun honek (Ibiñagabeitiak 'Mamemeri' egindako gutuna, Caracas-tik, 1956ko urriaren 11a, AB; etzana gurea): «Por mis amigos he tenido también noticias de Orix. Parece que se encuentra bastante mal de salud. Ya sabe que dejó Lazkano y ahora está en su pueblo donde piensa permanecer. Pobre Orix! No sabe la pena que me da todo esto. Y yo no puedo ayudarle como quisiera. Quiera Dios que mi situación económica mejore para poder ayudar a ese bueno y grande de Orix. Todo se andará. Sé que acaba de publicar las Confesiones de San Agustín. Las espero de un momento a otro». (Izan ere, liburua A. Irigoienek bidaliko zion, beste batzuekin batera eta beste askotan bezala: ikus Irigoienek 1956ko abenduaren 8an Ibiñagabeitiari egindako gutuna, AB). Bai karta honetan bai hurrengoetan maiz samar azaleratuko diren liburuen argitalpenaren inguruko diru-arazoei buruz ikus Iztueta [1991, 135-136 or.].

<sup>35</sup>Ikus, «adargil» hitzari buruz, 337 or. eta, «lo-arma» delakoaren gainean, 169 eta 334-337 or. Orixeren hitz hauek pentsarazi lezaketaren kontra («[...] guk *lo ariña* esaten deguna [...]»), erabili egin zuen «lo-arma» *Aitorkizunetan*: 133 or. = X, 34, 52 [287, 7]; ikus, honetaz, 136 or. eta, berriz ere, aipatu 169 or. Ikus beherago, 59 or. 37 oh., oharrak zirela-eta Labaienek eta Lekuonak ere prestatu zuten *Euskaldunak* poemaren edizioan gertatua.

lehenengo aldia Labaien eta Lekuona haren liburu baten inprimatzeaz arduratzen zirela: izan ere, beraiek argitaratu zuten, sei bat urte lehenago bakarrik —1949-1950garrenetan—, *Euskaldunak* poema.<sup>36</sup> Istorio honen xehetasunak ez ditugu ondo ezagutzen, bai ordea keXu agertu zela askotan Orixek edizioaren arduradunek behar baino gehiago sartu zutelako eskua: haren oharrak kendu eta berenak sartu zituztelako eta hizkuntzaren beraren ezaugarri zenbait ere ukitu zituztelako.<sup>37</sup> Orain *Aitorkizunen* testuaren historiari dakigunak egiantzekoago egiten ditu —gutxienez— Orixeren keXu haiek.<sup>38</sup> Misala ere ordukoa da; honetaz ez ziren Labaien eta Lekuona arduratu, baina liburu honen argitaratzeak ere antzeko arazoak erakusten dizkigu —neurri handi batean, zalantzarik gabe, garaikoak ziren arazoak—: Orixek berak kontatzen duenez, Maritxu Barriolak gipuzkoarrentzat ulergaitz ziren hitz batzuk aldatzea proposatu zion nonbait; amore eman zuen Orixek —seguruenik misalak bere beste liburuek ez bezalako irakurleak eta irakurketak izan behar zituelako— baina ez bere izena liburutik kendu zezaten eskatu gabe. Eta, hitz horien kasua alde bat, misalarekin ere susmoa izan zuen norbaitek ‘burruntzalia’ ez ote zuen sartu: baina honetan ere ezin izan zuen adibiderik aipatu.<sup>39</sup>

<sup>36</sup>*Euskaldunak* poemaren lehendabiziko edizioan Labaienek eta Lekuonak izan zuten eskuaz nahikoa da ikustea Orixeren beraren «Versos a la antigua» (*Gernika*, 16 [1951ko uztail-iraila], 41-42 or. [= IG, III, 431-432 or.]), Mokoroak 1980ko edizioari egindako hitzaurrea (*Euskaldunak*..., [xxi-xxii] or.: esanguratsua da izenik ez aipatzea hemen Mokoroak) eta Iztueta [1991, 743-744 or.]. Mokoroari idatzitako zenbait gutunek ere honi guztiari buruzko argitasun franko ematen dituzte; esaterako, aipatu «Versos a la antigua» artikuluan idatzitakoa (batik bat 41 or. = 431 or.: ikus, gehien axola zaigun pasarte, 37 or. 49 oh.) zehazten du 1951ko martxoaren 9an, ja El Salvadorretik, diotsonak (PIA): «Nik utzitako kopia ere etzidaten bialdu; beste bat, askok puskaka egiña. Itzuliz-aurrera irakurri bearra izan nun, bezaz. Gero pruebarik ere etzidaten bialdu. [...] Poema [sc. inprimatutako liburua] bialdu zidan Labaienek, baña Guatemalan utzi nun, irakurri gabe, jakiña. Ez nezaken uste oinbeste uts zeukakenik. Zure lana irixten zaidalarik, zuzenduz irakurriko det». Ulertzeko zein ikuspuntutatik begiratzen zion Orixek —halabeharrez— Labaienek eta Lekuonak garai berri honetan ematen zioten laguntzari ikus, orobat, 36 or. 46 oh.; *Euskaldunak* poemaren testuari egin zizkioten aldaketen gainean ikus hurrengo oharra.

<sup>37</sup>Hara nola kontatzen dion Mokoroari oharretan gertatua (1951ko uztailaren 21koa, PIA): «Zer nota nolabaitekoak! Nereak ez argitaratu ta berenak ipiñi»; Mokoroa berari 1951ko urriaren 27an egindakoan (PIA) zalantza izpi bat agertzen du, orain gaitzesten dituen ohar horietako baten bat ez ote daitekeen berea izan: «Mitiñik geiena bai al dakizu zerk eman didan? Nota aldrebes oiek. Nereak kendu, asko beintzat, eta berenak ipiñi. Oin euskera gutxi ote nekín nik ordu artan?»; eta hemen ere adibideak ezer gutxi argitzen digu, ez baita espero genukeen motakoa: «Nik Apokalipsis ia buruz dakit, eta Cartusianoen *lerma* “Stat crux dum volvitur orbis” angoa dala esatea!!!». Ikus baita ere 1951ko apirilaren 29ko eskutitza (PIA) eta Mokoroak berak poemaren 1980ko edizioari ipinitako hitzaurrean dioena (*Euskaldunak*..., 1980, [xxi-xxii] or.). Baina ohar bedi ondo grafia kontuak ere aipatzen dituela Orixek (1951ko uztailaren 21eko kartan): «Neke ederra artu zuten bezala guziak bezela ipintzen eta olakoetan!».

<sup>38</sup>Azpimarratzeko modukoa da Labaienen eta Lekuonaren arteko lankidetzua hau: arestian ikusi bezala, *Euskaldunak* eta *Aitorkizunak* argitaratzeko; Gero-ren edizioa ere (hots, Itxaropena etxeak Lekuonaren izenarekin bakarrik 1954an argitaratu zuena eta, bide batez ezan dezagun, ezaugarri material asko komun dituzena *Aitorkizunen* edizioarekin) elkarren artean prestatu bide zuten: hala dio Lekuonak berak 1970eko maiatzaren 10eko *Zeruko argia*-n (7 or.): «Orain amasei urte, Labayen [sic] jaunak eta biok argitaldutarako Axular'en Gerori [...]». Hona Orixerekin zer ikusi duen beste adibide bat: Orixek Ameriketara gelditzeko erabakia hartzen duenean eta, Guatemalatik, bere zenbait idatzi bidaltzeko eskatzen dionean Labaieni (1950eko udarari buruz ari gara hitz egiten), Labaien zain egingo da harik eta Lekuona Calahorra-tik etorri arte; orduan bakarrik joango dira —Labaien eta Lekuona alegia, elkarrekin— Orexako etxera, Lekuonak Lasarteko komentura eramango ditu Orixeren paperak, eta han miatu eta aztertu egingo ditu eta berak erabakiko du zer dagokion Orixek eskatutakoari (ikus Labaienek Orixeri 1950eko abuztuaren 26an eta urriaren 6an egindako gutunak [AB]).

<sup>39</sup>Misala oraindik inprimatu gabe zegoenean, 1950eko urtarrilaren 26an, kontaktu zion pasadizoa Txilen zegoen Mokoroari Argentinako Avellaneda-tik egindako gutun batean (PIA): «Maritxu Barriolak eta, itz eta esatera zerrenda bat ipiñi zidaten, Gipuzkoarako obe zitekela. Obe bearrez ala egin nun; baña burruntzalia pixka

Badirudi irailaren 23ko gutun hura jaso eta berehala karta luze bat («Zure karta luzeak ariora merezi zun erantzuna, baiña [...]») egin ziola Mokoroak Orixeri, zeren eta orexarrak 1956ko irailaren 30ean bidalitako beste bat baitugu, eta honetan Mokoroak egindako galdera batzuei erantzuten die. Hona zer diotson azken eskutitz honetan guri axola zaigun gaiaren inguruan:

Gaztelu'ko iloba seminarista'k esan didanez, Aitorkizun-etan ez omen dute eskua asko sartu.<sup>40</sup>

Eta handik gutxira, seguruenik ja liburua eskuratutakoan, Mokoroak *Aitorkizunen* eskuizkribuaz galdegingo zion Orixeri, honela erantzuten baitio honek ja Orixetik bidalitako karta batean:

Aitorkizunen originala? Ni ez naiz beintzat ausartzen ezer eskatzera masoikide oieri.<sup>41</sup>

Inongo dudarik gabe, bost bat urte lehenago *Euskaldunak* poemarekin egin zuen lana egiteko asmoa zuen Mokoroak: hutsak zuzendu eta, kasu honetan, inork sartutako aldaketak nabarmendu.<sup>42</sup> Orixeren orijinala ezin izan zuen eskuratu, baina badakigu hala eta guztiz ere jorratu egin zuela *Aitorkizunen* testua: Mokoroak zuen —eta orain, zoritxarrez, galduta bide dagoen— *Aitorkizunen* alea, izan ere, oharrez josia dago.<sup>43</sup>

Handik bi edo hiru urtera bakarrik —eta hizpidea, berez, beste kontu batek ematen ziola— harrotu zuen Orixek auzi hau *Yakin* aldizkarian 1959garren urtean argitaratutako artikulua batean: «*Mea culpa* eta “Quos ego!”».<sup>44</sup> Artikulua, berez, «Anizetxe iaunari» zuzendutako gutun bat da: hots, zalantzarik gabe, on Nemesio Etxanizi.<sup>45</sup>

---

bat sartzen zutelako, nik alegiñak egin nitun liburua nere izenik gabe argitara zedin. Ortara ere etziran etziten, eta nere izenean aterako da. *Dolendum!*». Inoiz esan ez diolakoan, berriz kontaktzen dio ja El Salvadorretik egiten dion 1951ko apirilaren 29ko gutun batean (PIA). Liburua lehenengo aldiz ikusi bezain laster, 1951ko uztailaren 21ean, honako hau diotso Mokoroa bere lagun minari (PIA): «Misala ikusi det noizbait. *Dibujo* oietan sartzeko aña ez dakit, baiña *Resurrexit* ori, Jaunaren *caricatura* zikin bat iduritzen zait. Nere utsak ere baditu an emenka, zalapartan jardunarenak; eta oraindi zirikatu egiten ninduten len bai len egin nenzan! Garikoiztar neskatx orrek burrunztalia politikxo ere sartu dula nago. Esan nion nere izenik ez ipintzeko, baiña bera atera zan nagusi. Zenbait gauza, tarrapataka ere, nik idatzi ditudanik sinestea neke egiten zait. Belarri-mingarri zaizkit. Jainkoak bizi ba nau, nik egingo det nere gustoko Misala» (pentsatzekoa da *resurrexit* delakoaren marrazkia 418 orrialdekoa dela).

<sup>40</sup>PIA eta apud Iztueta [1991, 135 or.], baita paragrafoaren hasieran aipatu esaldia ere; Gazteluko iloba hori J.M. Aranalde da.

<sup>41</sup>Ez dakigu ez noiz ez nondik egina den gutun hau, baina segurutzat jo dezakegu Orixen idatzia dela eta, hortaz, aipatu 1956ko irailaren 30ekoa baino geroagokoa. (Orixen egina izan behar du Orixen datatuta dauden beste eskutitzak eskribitzeko erabili zuen makina berean dagoelako jota, inongo zalantzarik gabe). Orixek hemen darabilen doinua —«masoikide» hitzetik hasita— ezin da ondo ulertu ez badugu kontuan hartzen liburua inprimaketaren alderdi ekonomikoak areagotu egin zuela Orixeren nahigabea: ikus, gorago, 58 or. 34 oh.

<sup>42</sup>Ikus III erans. 389 or. 3 oharren bigarren zatia.

<sup>43</sup>Mokoroaren alea, haren beste paper eta liburu batzuekin batera, Labairu Ikastegiaren liburutegian dago orain: eskuetan izan nuen 1999garrenean, baina polikiago aztertzeraz joan nintzen hurrengo batean ez zuten berriz aurkitu ahal izan; gaur ere galdutzat jotzen dute bertako liburuzainek.

<sup>44</sup>*Yakin*, 9 (1959), 89-93 or. [= IG, III, 978-980 or.].

<sup>45</sup>Ez dut uste frogatu beharra dagoenik 'Anizetxe' hori Etxaniz baino ezin dela izan: bi izenok elkarrekin duten kideetasuna alde bat utzita ere, artikuluan bertan aipatzen da gutunaren hartzaileak 'hogei bat' urte lehenago 'muga-hitzari' buruzko galdeketa bat egin ziola Orixeri; zeharka aipatutako kontu hau, inongo dudarik gabe, on Nemesiok 'Artiz'tar Xabier' ezizen —orain bai— ezagunarekin *El dia*-n (1933ko apirilaren 9koan) argitaratu zuen «Orixeri» izeneko artikulua da: Orixek, bere aldetik, «Muga-itx edo artikulua euskeraz. (Artiz'tar Xabier'i)»

Honek —baita Mokoroak ere, Orixek bertan dioenez— Orixeri leporatu bide dio «nun» eta «zun» euskara idatzian sartu izanaren errua, eta hemendik izenburuko *mea culpa* hura; baina —segitzen du Orixek— ez da gehiago horretarako arrazoirik izango: hemendik aurrera *nuen* adizkiaren aldaera guztien ‘ama’ dena erabiliko du, «nendun» alegia, eta hizkuntzari buruz zituen iritzietatik abiatuta forma honen defentsa bat egiten du.<sup>46</sup> Esan bezala, adizki xeblere honen alde emandako argudioek ematen diote hizpidea honela jarraitzeko:

Garai da «quos ego!» esaten asteko. Nork sartu ote du burruntzalia nere eltzean, esaterako, San Augustiñen Aitorkizunetan, nik *nendun* ezarri-toki guzietan *nuan* ipinteko? Noren baimenez egin dute ori? Ez nindagon, bada, urruti irart-okerrak zuzentzeko, bialdu nai ukan ba’litudate. Ez batere erakutsi ere. Beste zenbait gauzatxo ere ukitu ditidate. Bat edo bat ari da, nere iatorrizkoa ta argitara emana bekaldeetzen. Misalean... egia esan, baimena eskatu zidaten Garikoiztarrak aien itz eta esaera zerrenda bat nereen ordeztu ipiñi nenzan. Gogortu nintzan politikxo ere ezezkoan, eta izenik ez nendun eman nai liburu ortarako; baiñan, azkenean, pakearengatik, txuri egin nendun. Au *mea culpa* da; ez aiena.

Ez al didate nere euskera egiten utziko? Zer jauntxokeri da ori? Nik ez diot iñori agindu nere antzera egin dezan. Egin baldin ba’dute, ta ez gutxik, diotenez, oiek atera naute jauntxo; ez nik nere burua egin dudalako. Euskaldun Agurgarri batek onela idatzi zidan Ameriketara, euskera lardaskazale batzuk beren Akademiarekin gure buruzki nabarmen asi ziranean: «Venga usted y dicte». Ez dut olakorik egiñen, baiña nere euskera, bai. Eta irar-legerik baldin ba’da, urrengoan auzitara deituko dut olakorik egiten didana.

Segitzen du berak aspalditik aldeztu zituen —eta *Aitorkizunetan* inon baino tinkoago erabili zituen— *izan* aditzaren adizki batzuk azaltzen eta, artikulua azken aldean, honela dio:<sup>47</sup>

Aztu zizaidan, Anizetxe iauna, zurekin asi ninzala. Iainkoak eman dezaidala bizia «mea culpa» eta «quos ego!» esateko. Sartu dezatela burruntzalia, eskubide dute, nik argitara emandakoan, iorratu nai ba’naute; oraindik argitara gabean, begira sartu!

«Quos ego...!» *Eneidatiko* hitzak dira (I, 135): Junok, etsai dituen troiarren bidaia oztopatzearen, Eolori eskatu dio ekaitz bat sortu dezan eta Eneasen itsasontziak hondora ditzan; Eolok amore ematen du eta, ontzidi osoa urperatzeko dagoenean, Neptuno gertatuaz konturatzen da eta hitz hauekin —eta beste batzuekin— mehatxatzen ditu haizeak, hots, ‘harrapatzen bazaituztet’ edo, Orixek itzultzen duen bezala (horrela, bide batez, ustez jatorragoak ziren *izan* aditzaren aipatu adizkien berri emanez), «etorten banizaizue!».

Orixeren artikuluxka honek *izan* zuen oihartzuna: Mitxelenak abiapuntu hartuko du (Orixek ere auzitara dakar ‘Adiskide Berri’ mintzagai dugun artikuluan), «Asaba zaarren baratza» garrantzitsuan, «nendun» adizkia bezala —eta, errenteriarrek aipatzen du honen

izenekoarekin erantzun zion, handik egun batzuetara, *El dia*-tik bertatik (1933ko apirilaren 16koan). Bi-biak EG-n berrinprimatu ziren (1950 [2], 14-16 or.), eta Orixeren erantzuna baita, noski, hemen ere: IG, III, 795-797 or. Ez dut aurkitu, azkoitiarraren obran, «nun» adizkiari buruzko auzia aipatzen duen idatzirik, ez *Yakin*-eko orrialdeetan ez beste inon: daitekeena da, aldiz, ahoz izandako eztabaida bati erantzutea Orixeren artikulua honek, hau da, ez nahitaez argitaratutako zerbaiti; eta ‘Anizetxe’ ez litzateke izango Etxanizek erabilitako izen bat, ezpada on Nemesioren izena ezkatutzearen Orixek asmatuko zuen ezizena.

<sup>46</sup>Orixeren ideia hauei buruz eta «nendun» adizkiaren inguruko kontuetarako ikus VI erans.

<sup>47</sup>*izan*-en adizki hauei buruz ere ikus VI erans. (zehazki 448 or.).

izena, Azkueren ildotik— berreraikitako edo, Orixek zioenez, berreskuratutako formek hizkuntza batuan izan lezaketen tokiaren aurka jarduteko.<sup>48</sup> *Aitorkizunen* testuan egin zizkioten aldaketan kontua, berriz, ez da inoiz gehiago agertuko Orixeren lanetan —ezta, dakidalarik, inorenetan—: agian, hain zuzen ere, bazekielako ordurako Lekuona izan zela ‘burruntzalia’ sartu zuena.<sup>49</sup> Badugu on Joan Inazio Otaegiren ezin pagatuzko lekukotasun bat, Paulo Iztuetak egindako elkarrizketa batean ([1991, 1.027 or.]):

«*Aitorkizunak* liburuaren gainean zer dakizu?», galdetu nion Orixera bisitatzera joaten zitaion Joan Inazio Otaegi solaskideari. Hauxe erantzun zidan: «Liburu hau, uste dut, Manuel Lekuonak pixka bat orraztu egin zuela. Behar bada, oso-oso euskara zailean eginga zegoelako eta herriak ezingo zuelako ulertu. Uste dut, uste dut... Berari entzunda dakit hori. Orixek min hori agertu zidan. Manuel Lekuonak guzti hori Orixerekin kontatu gabe egin zuen. Egun batean galdetu nion: “zer esaten didazu Lekuonaz?” Eta esan zidan: “Un talento aprovechado”».

Lekuonak liburu hura oso euskara zailean egoteagatik ukitu zuelakoa, agian, Orixek Otaegiri kontatutakoaren zatia izango zen eta, aldi berean, ez litzateke harritzekoa Orixeri *Aitorkizunen* argitaratzean parte izan zuen norbaitek —Labaienek, esango nuke— zurbide gisa erantzundakoa izatea. Eta, neurri batean —baina neurri batean bakarrik—, egia zen.

Orixek hoberenetakotzat zituen *Aitorkizunak* bere idatzietan: agidanean, hemen aurkeztu zuen bere bizi guztian zehar oldoztu eta mamitu zuen euskara jasoaren eredurik borobil eta osoena. Argitaratu zenean inor gutxik hitz egin zuen, idatziz behintzat, liburuaren gainean; hainbestetan aipatu behar izan dugun —eta oraindik ere hainbestetan aipatu beharko dugun— Mitxelena iruzkina alde bat uzten badugu,<sup>50</sup> liburuari egin zitzaizkion gutxietan nekez aurkitu ahal da ezer Orixek bertan darabilen hizkuntzari buruz: Zaitetik lau zapabost orrialde bete zituen liburu berria zela-eta ja Miarritzen inprimatzen zen EG-n baina, sarrera gisa egindako laudorio bat edo beste kenduta, ez zuen ezer ere esan Orixeren lanaz; zer edo zer aipatu zuen Garrigak urrutiko BIAEV-etik egin zion iruzkin laburrean; eta ezer gutxi, halaberharrez, izenik gabe agertu zen *Zeruko Argia*-koan.<sup>51</sup> Baina bere burua ezkortzat zuen Orixek besterik espero zuen. 1960an argitaratu zuen —eta «Erria eta populua» izenburu esanguratsua zeraman— artikulu labur batean honela zioen: «Askozaz geiago irakurriko dabe Abade Iaunak nire S. Agustin, populuak *Santa Krutz Apaiza* baiño»; Oartzabali 1954ko

<sup>48</sup>Honetarako ere ikus VI erans.

<sup>49</sup>Hala izatekotan ere ezingo genuke zehaztu noiztik zekien Orixek Lekuona izan zela *Aitorkizunen* testua ukitu zuena. Otaegik Orixan bakarrik bisitatu bazuen Orixek —Iztuetaren hitzetatik atera genezakeen bezala—, ondorioztatu behar genuke bazekiela horren berri «*Mea culpa...*» idatzi zuenean, 1956ko udazkenean 1958ko udara arte bakarrik egon baitzen Orixan (ikus Iztueta [1991, 141-145 or.]). Esan bezala, daitekeena ez ezik egiantzekoa da oso gauzak horrela gertatu izana: ez ordea segurua.

<sup>50</sup>Mitxelena, *Egan*-eko iruzkin trinkoaz gain ([1956a]), ohar labur —baina ez hutsal— bat atera zuen BAP-en ([1956c]).

<sup>51</sup>Zaitegi [1956], Garriga [1957] eta *Zeruko argia*, 35, 1957ko urtarrila, 190 or.; *Yakin* aldizkarian ere (1, 1956, 94 or.) liburuaren berri baino ez zen eman («Iritz-epaia? Ezin eman irakurri gabe; gañera onen bearr[k] ere ez. Orixena duzu. Epaiturik dago»). Aipamen berezia merezi du Ibiñagabeitiak [1965] *Omenaldi* delakoan argitaratu zuen artikuluak. Lekuonaren paperen artean (ikus 71 or.) bada makinaz jotako Rikardo Arregiren lan bat —inoiz argitaratu ez dena: ikus Torrealdei [1996]— *Aitorkizunei* buruzkoa: «La traducción en Orixe» («48-2-1» signatura du aipatu artxiboan); zalantzarik gabe oso gazterik idatzitako lana da.

urtarrilaren 29an egindako gutun batean, itzulpenaren lehenengo idatzaldia bukatutakoan, honako hau esaten zuen: «X, XI, XII, XIIIgarren iardunetan gure apaizek zerua zabalik ikusiko dute pilosopi-gaiak eta Iainkoazkoak adierazteko»; eta bere libururik hoberenaz galdetzen zion Zeletari hauxe erantzun zion: «Euskerari begiratuta, *Aitorkizunak*. Ori aztertuko dute, geienik, euskera sakonago ikasi nai dutenak».<sup>52</sup> Badirudi gauzak, oro har behintzat, ez zirela ibili Orixek espero zuen bezala: baina agian ez da hain erraza izango —ez baita toki honetakoa— *Aitorkizunen* eragina aztertzea.<sup>53</sup>

<sup>52</sup>*Karmel*, 1960 [10], 60 or. [= IG, III, 988-989, 988 or.]; OE, 949-950 or.; eta Garmendia [1965, 54 or.].

<sup>53</sup>Daitekeena da hasiera batean eta zenbait euskaltzaleren artean bestela gertatu izana; hara, esaterako, Azurmendik [1976, 161-162 or.] bere buruaz eta bere inguruko giroaz dioena: «Eta 50. azken urte eta 60. lehenengoetan, hazaldi berriak ekin zionean, *Aitorkizunak* ia gazteon eskuliburu eta testu antzekoa bilakatu zen, 'euskara ikasteko' [...]. Hura irakurtzen eta lantzen genuen, geure neke guztien soluzio bila. Irakurri bai, "eta oso begiratuki, luma eskuan, irizle zorrotz eran", Orixek berak esango zukeenez. Hobe, akaso: ikasle saiatu eran irakurtzen genuela esatea. [...] Liburu honek sekulako bultzada eman zion euskal literaturari. Euskarari. [...] *Aitorkizunak* "Sesamo, ireki!" baten moduan, zabal-zabalik utzi zituen jakintzarako atea. Hazaldi berria handik sartu zen. Epe berri baten hasera da, hortakoz». Ez dakit zenbatak esan lezaketen antzekorik; nolana ere, Azurmendik berak aitortzen du «arrakasta indartsu baina laburrekoa» izan zela liburu hura. Ez daude, beraz, ikuspegi honen buruzki Lino Akesolo zenaren beste hitz hauek [1986, 592 or.]: «Nik ez dakit geroak, obeto esateko euskaldun irakurleok, zor jakon autorpen onik egin deusagun. Bear bada, gure labea ez dago olango opillearako naiko bero. Or gabiltz geure eztenak zorrotzen, batean zer dogu Orixeren alde eta bestean zer dogu Orixeren kontra, azkenean ez alde ez aurka egiteko, ez otz ez bero gelditzeko, izenaren beraren inguruan ixilla egitez».





## II

### TESTUAREN IBILBIDEA



# I

## C-tik B-ra

Aurreko atalean azaldu eta aztertu ditugun testuaz kanpotiko datuek erakutsi digute Orixek *Aitorkizunen* itzulpenaren bi idatzaldi ondu zituela: lehendabizikoa (C) Iparraldean eta El Salvadorren, berrogeigarrenetan eta 1953-1954etan hurrenez hurren; bigarrena (B) beneditarren Lazkaoko etxean, 1955garren urtean zehar.<sup>1</sup> Ikusi dugu, orobat, lehenengo idatzaldiaren zati luze bat —I-IX liburuen testua; ez, berriz, X-XIII liburuen— gorde zaigula Ca-alter deitu dugun behatzizkribuan, eta bigarren idatzaldia osorik iritsi dela gudanaino B-prior eta B-alter izeneko behatzizkribu bikietan.<sup>2</sup> Bi idatzaldien arteko aldea, oro har, txikia da: I-V liburuei dagokienez esan genezake —apika— Lazkaokoa testu berri bat dela, hau da, ez noizean behingo ezabatze edo gehiketa batzuen bidez zuzendutako bertsio soil bat; VI-IX liburuetan (ja Trabucco-ren edizio elebidunetik itzuli ahal izan zituenetan hain justu: ikus II erans.) bi testuen arteko aldaerak nabarmenki bakanago eta txikiagoak dira; eta X-XIII liburu luze eta korapilatsuen testuari buruz hipotesiak baino ezin dira egin, lehenengo idatzaldiaren testua falta baitugu, arestian ikusi dugun bezala.<sup>3</sup> Esana dugu orobat (ikus 11 or.) Orixeren azken nahia islatzen duen B testua dugula hemen, aldi berean, abiapuntu eta jomuga; baina honen ikerketan C testuak ere berebiziko garrantzia du: alde bat utzita *Aitorkizunen* historian argitu ditzakeen testuaz kanpoko xehetasunak,

---

<sup>1</sup>C eta B laburduren esanahi zehatzaz ikus beheago 73 or. 18 oh. A, berriz, Zarauzko Itzaropena etxeak 1956an argitaratutako testuari esan diogu; berez, esan behar genuke A testua bi lekukotasunen bidez heldu zaigula: aipatu 1956ko testua eta Orixeren idazlan guztien edizioan egin zen inprimaketa (IG, II, 211-387 or.); baina nonbait baldin bada azken hamarkada hauetako filologia pasqualitarrenak ere *codex descriptus* gisa gustura sailkatuko lukeen testu bat haxe da eta, hortaz, ez dugu gehiago kontuan izango hemendik aurrera: A diogunean Zarauzko inprimakia bakarrik adierazten dugu.

<sup>2</sup>Ohar bedi *behatzizkribu* hitza (hots, 'makinez jotako izkribua') testuaren nolakotasun hori azpimarratu nahi izan dugunean erabili dugula batez ere: baina *eskuizkribu* kontzeptuak berdin adieraz dezake eskuz zein makinaz eskribitutako testu bat, eta liburu honetan zehar ere bi adiera hauetan aurkituko ahal da. (Ikus, honetaz, 136 or.).

<sup>3</sup>Idatzaldien gainean hitz egiten dugunean adierazi nahi ditugu momentu desberdinetan eta, neurri batean behintzat, irizpide berrien arabera sistematikoki edo, behinik behin, sistematikoa izan nahi duen asmoarekin zuzendutako testu osoak, kontuan izanik idatzaldi batek, bere barnean, maila apalagoko beste berrikuspen batzuk —beste bertsio batzuk— har ditzakeela, hau da, aurreko edo hurrengo idatzaldietan erabilitakoak baino irizpide ez hain berritzaileen arabera egindako beste bertsio batzuk edota sistematikoak ez baina noizbehinkako zuzenketak pairatu dituzten bertsioak. (Ikus honetaz Stussi [2000] eta bertan aipatzen diren lanak). Ez dira hemengoak egoera honek testua finkatzerakoan jar ditzakeen arazo korapilatsuak: ikus honetaz gure edizioa.

askotan, eta era askotako kontuetan, C-k B-k baino lekukotasun hobeago bat eskainiko du; zeren, pentsa litekeenaren kontra, zeharka baino ez baitzaigu axola —orain eta hemen, esan gabe doa— z e r g a t i k aldatu zuen Orixek, C-tik B-ra, esaldi hau edo hura: C-k z e r dioen, berriz, munta handikoa izango da.

### 1. *Aitorkizunen* bi idatzaldiak

Badakigu —aurreko atalean iritsi eta hemengo honetan berretsiko ditugun ondorioei eskerrak— *Aitorkizunen* lehenengo idatzaldia hiru eskuizkributan egin zuela Orixek: lehendabizikoak (Ca-k) I-IX liburuak hartzen ditu; bigarrenak (cb-k) Xgarren liburuaren gehiena izango zuen; eta hirugarrenak (cc-k), azkenik, XI-XIII liburu luze eta korapilatsuak kabituko zituen. Hiru hauetako lehenengorako bi lekukotasun ditugu: batetik, Ca-alter izendatu duguna, hots, kalkoaren bidez egindako ca-prior behatzizkribuaren kopia bat, eta bestetik —askoz garrantzi gutxiagokoa, noski— Mokoroak bere txostenean ca-prior-etik aipatu zituen hitz eta pasarteek osatzen dutena; bigarreneko aipatu Mokoroaren paperetako pasarte urriak besterik ez dugu; eta hirugarreneko, damurik, ezta hori ere, Mokoroak ere ez baitzuen azken hiru liburuen testu zaharra eskuetan izan. (Mokoroak aurrean izan zuena ca-prior izan zela, eta ez Ca-alter, III erans. erakusten dugu; ikus, aipatu eranskinean ere, txostenaren beraren edizioa eta haren inguruko beste zenbait argibide).<sup>4</sup>

Ca-alter behatzizkribua Lazkaoko beneditarren etxeko liburutegian dago: esan bezala, kalko baten bidez ateratako kopia da, makinaz eta —salbuespen batekin— alde bakar batetik jotako [I]+123 orri ditu (bataz beste 267 x 210 mm. luze-zabalean),<sup>5</sup> eta josi eta azaleztatuta dago zalantzarik gabe Orixe hil eta askoz geroago. Izenburu-orria badu ([I]r) eta bertan honako hau irakur daiteke:

<sup>4</sup>Gogora ditzagun hiru eskuizkribu hauei buruz lehenengo atalean zehar eta hemengo honetan bertan atera ditugun ondorio nagusiak: ca-prior eta cb Iparraldetik bidaliko zizkion Orixek Labaieni; cb-k 16-18 orri izango zituen eta, seguru asko, X, 1, 1 paragrafotik hasita X, 36, 58 paragraforaino bakarrik iritsiko zen; cc, berriz, El Salvadorretik bidali zuen —ez dakigu nori, seguruenik Labaieni hau ere— eta, esan bezala, XI-XIII liburuen itzulpena izango zuen. Berez, cc izendatu duguna hiru eskuizkribuk osatzen zuten, bai baitakigu XI, XII eta XIIIgarren liburuei eskuizkribu bana zegokiela eta, izan ere, hiru alditan bidali zituela Orixek, dirudienez, makinaz jorzen bukatu ahala: hortaz, banaka ere izenda genitzake hirurak, baina nago arrazoi gehiago daudela cc izendapen bakarraren alde eta, horrela, laburdura bakar horren bidez izendatuko ditugu hemendik aurrera. Ohar bedi cb eta cc eskuizkribuetarako ez dugula lehenengo aldakiaren eta gainerakoen arteko bereizketarik egiten, ez baitakigu horrelakorik zenik ere; eta erreparatu, azkenik, letra larriarekin —ohi bezala— gorde zaizkigun eskuizkribuak izendatzen ditugula eta letra xehearekin, berriz, ez ditugunak —azken batean hipotesia baino ez direnak alegia—.

<sup>5</sup>Ca-alter-en azken orriak «125» zenbakia darama, baina 23 eta 25. orrien artean jauzi bat gertatu da zenbaketan (hots, ez da 24. orririk) eta, bestalde, 49 eta 50 orrialdeak ez daude orri banatan ezpada orri bakar baten alde banatan. (Hau da, «49» zenbakia duen orrialdea kopiatu eta gero kopiagileak, beste orri berri bat ipini beharrea —betiere bigarren aldakiari buruz ari garelarik—, 49.aren kopia ateratzeko erabili duen berbera jarri du, baina beste aldetik; 49. orrialdearen beheko zurian Orixek —haren eskua baita— «gibelean» idatzi du; orriaren bigarren aldeak, esan bezala, «50» zenbakia du, eta orrialde honen barrenean ere «gibelean» hitza dago eskribituta baina, oraingo honetan, makinaz). Ca-alter-eko orriak josterakoan ere —ez da harritzekoa— beste huts bat gertatu zen: «50» zenbakia daraman aldea aurreko aldea balitz bezala ipini zuten eta «49» daramana, berriz, atzeko aldean.

IAINKOARI  
Augustin sailduaren  
GORESPENAK.

Orixe.

Honen atzeko aldean ([I]v) orri txikiago bat itsatsi da, zabalera idatzita (135 x 210 mm.): «Iainkoari Gorespenak» du izenburu gisa eta, honen azpian eta azalpen gehiagorik gabe, testuaren 1. orritik 39.era egin beharreko hogeit aldaketa dakartza.<sup>6</sup> Bigarrenean, hots Iean (eskuz zenbatua dago, hemendik aurrerakoak ez bezala), berriz agertzen da obraren izenburuaren bertsio laburra:

IAINKOARI GORESPENAK.

eta ondoren, lerro bakar bateko hutsunearekin eta bertan hasten den lehenengo liburuaren batera aipamenik gabe, testua bera dator, lehendabiziko kapituluari dagokion «I» zenbakia lerroaren beraren barnean —hots, hasieran— ipinita: «I. Aundi zira, Iauna, guzia goresgarri; aundi Zure indarra [...]». (Ikus, lehenengo hiru orrialde hauek, I-III irud.). Gainerako orriak makinaz zenbatuta daude.<sup>7</sup> Esan bezala, azken orriak «125» zenbakia du eta testua honela amaitzen da: «Onela, amak eskatzen didan azken-otoitza ene otoitz soila baiño ioriago ditekete, aitorpen aukeraziko duten aunitz otoitzen bitartez». Eskuizkribu osoan den ohar bakarrari buruz ikus IV eranskina.

Ez dut uste jakin daitekeenik C testua eredu batetik —esaterako, eskuz egindako lehenengo bertsio batetik— kopiatua den ala ez: nago baiezkoa dela hipotesi egiantzekoena, baina mintzagai dugun testua itzulpena izanik eta egileak berak idatzia —segituan ikusiko dugun bezala—, bertan dauden jauziek eta hutsek ez digute uzten erabateko ondorioarik ateratzen puntu honetaz.<sup>8</sup> Aldiz, frogatu egin daiteke **O r i x e k b e r a k e s k r i b i t u**

<sup>6</sup>Ez da, berez, huts-zerrenda bat, hizkera edo hizkuntza aldatu nahi duten zuzenketak baizik, zalantzarik gabe Orixek berak egindakoak. Bertan zerrendarutako zuzenketa batzuk —ez ordea guztiak— testuan dagokien tokian txertatu dituzte Orixerena ez diren bi eskuk: ikus, behe-rago, 70 or. 10 oh. Aipatzeko modukoa da aldaketa hauetako asko morfologiari dagozkiola: «eragiten nauzu C : naragizu [I]v» (ad [1] or. = I, 1, 1 [9, 10]) eta «egiten zieten C : zegieten [I]v» (ad 7 or. = I, 9, 14 [21, 9]); «nengolako C : nindagolako [I]v» (ad 25 or. = III, 1, 1 [53, 14]) eta «neragiten C : ninderagiten [I]v» (ad 27 or. = III, 4, 8 [59, 1]); eta, esanguratsuen (honetaz ikus 70-71 or., 77 or. 29 oh. eta, batez ere, VI erans.). «nun C : nendun [I]v» (ad 7 or. = I, 9, 15 [21, 20]), baina aldaketa hau «beti» egiteko abisuarekin —ikus II irud.—. Gainerakoak estiloari edo itzulpenari berari dagozkie.

<sup>7</sup>24. orriari gertatutako hutsaz gain (ikus 68 or. 5 oh.), 91.a izan behar zukeen orriari «92» zenbakia ipini zitzaion eta 92.a izan behar zukeenari «93», baina arin erreparatu zitzaion bi oker hauei, 93.a izan behar lukeen orriak, izan ere, «93» zenbakia baitarama, eta horrela ondorengo guztietan. (Bestalde, 91.a eta 92.a izan behar zuketenen zenbaki okerrak ere —«92» eta «93», hurrenez hurren— eskuz zuzendu dira). Honetaz landa, 120. orriari moztu egin zaio, beheko aldetik, 5 bat zentimetroko zati bat, IX, 10, 24 paragrafoari zegokiokkeen itzulpena eraruz (ikus, Mokoroaren txostenean —III erans.—, 6 zenb.).

<sup>8</sup>Izan ere, testua itzulpena izaki litekeena litzatekeelako C-n ditugun jauziak idazlearen begiek jatorrizko testuan bertan egindako jauzien ondorioak izatea, hau da, itzulpena zuzenean makinaz idatzia izatea eta idatzitako hori gure behatizkribua bera izatea. Nolanahi den ere, eta esan bezala, esango nuke badirela eredu baten alde —seguruenik eskuz eskribitutako zirriborro baten alde— hitz egiten duten kasuak. Hona hemen bi adibide. «Nola dei egin, siñesten ez dugunari? **Billa zaitzadan, Iauna**: Edota, nola siñetsi [...] Billa zaitzadan, Iauna, dei eginiez [...]» (C, I. or.; eskuz urratua); «Quomodo autem invocabunt, in quem non crediderunt? Aut quomodo credunt [...]

zuela makinaz behatzizkribu hau: horrela erakusten digute makinaz egindako zuzenketen nolakotasunak eta, orobat —bigarren maila batean bada ere, *argumentum ex silentio* baino ezin baita izan—, makinaz jotako testuan ez dauden huts mota zenbaitek.<sup>9</sup> Azkenik, arrazoi ugari eta pisuak ditugu pentsatzeko *ca-prior* izan zela, eta ez *Ca-alter*, Orixek bere itzulpena orrazteko eta, azkenean, bigarren idatzaldira abiatzeko erabili zuen testua. Batetik, *Ca-alter*-eko testuan ez direlako jaso ez *B-n* onartu ziren [I]v orrialdeko zuzenketa batzuk ez Mokoroak iradoki zizkion —eta, berriz ere, Orixek ontzat eman zituen— aldaketak, eta nekez izan zitekeen beste bide errazago eta naturalago bat haiek guztiak jasotzeko —eta *B-k* duda izpirik gabe erakusten digu jaso egin zirela— *C-ko* testuan txertatzea baino, banan-banan eta zein bere tokian. Bestetik, pentsaezina delako Orixek bertsio berri bat egin izana *VI-IX* liburuentzat, hauetan oso txikia baita —*I-V* liburuetan ez bezala— *C-ren* eta *B-ren* arteko aldea eta, beraz, egin ziren aldaketa gutxi haiek *C-ko* testu zaharraren gainean egingo zirelako: *C-alter-en* ordea ez dago hauen aztarnarik. (Bestelako arrazoiak ere baditugu pentsatzeko *VI-IX* liburuen *B-ko* testua *C-tik* kopiatu zela zuzenean, *C-n* bertan egindako zuzenketak jasoz —eta ez, alegia, bien bitartean izan zitekeen testu berri batetik, *I-V* liburuetan bezala—: baina zuzenketa horiek ez dira ageri *Ca-alter-en* eta, hortaz, pentsatzekoa da *ca-prior-en* egingo zirela. Ikus, beherago, 93-94 or.).

Axola zaigu egiaztatzea *Ca-alter-en* dauden Orixeren oharra makinazko testuaren beraren garaikideak direla.<sup>10</sup> Argi baino argiago erakusten dute —adibide bat baino ez aipatzearren— *nuen* adizkiaren inguruan egindakoek. *I-II* liburuetan zehar «nun» bakarrik erabiltzen du Orixek makinazko testuan: horietako askotan, eskuz, era guztietako azentuak ipini ditu («nùn», «nún», «nûn», «nũn», etab. irakur dadin) eta

Quaeram te, Domine, invocans te [...] (I, 1, 1). «Alare zertako goretsi nai nendun, ez zaldizain iaio bat bezala, edo errian begiko duten eiztari bat bezala? Ez nuke nai komerilari bezala goretsi nindezaten baizik eta gizon buru-iantzi bat bezala, edo nerau gorestea nai nuken bezala. Ez nuke nai komerilari bezala goretsi nindezaten, neronek aiek goretsi ta maita netzaken bezala» (C, 44 or.; makinaz urratua); «Sed tamen cur non sicut auriga nobilis, sicut venator studiis popularibus diffamatus, sed longe aliter et graviter et ita, quemadmodum et me laudari vellem? Non autem vellem ita laudari et amari me ut histriones, quamquam eos et ipse laudarem et amarem, sed eligens latere quam ita notus esse et vel haberi odio quam sic amari» (IV, 14, 22).

<sup>9</sup>Hau da, makinaz eginda dauden eta, beren nolakotasunarengatik berarengatik, egilearenak bakarrik izan daitezkeen zuzenketek erakusten dute testuaren kopiagilea testuaren egilea bera dela; bestela esanda: makinaz eskribitutako zuzenketak testua makinaz jo duen berberak idatziak izan ohi direnez gero —orria, behin makinatik aterata, ez delako berriz sartzen aldaketak egiteko—, zuzenketa horiek egileak bakarrik egin ditzakeenetakoak badira ondorioztatu behar da testuaren kopiagilea egilea bera dela. Hona hemen *C-ko* testuan dauden era honetako zuzenketa ugarietako gutxi batzuk (ohar bedi >> ikurrek kabitzen dutena lerroartean dagoela, noski makinaz eskribituta): «Txikia al da Zu maite ez izatea >ukaitea?<» (2 or. = I, 5, 5 [13, 9-10]); «gure nairik >guk naia< egiten ez zutelako?» (5 or. = I, 7, 11 [18, 4]); «Nork [...] nire itzalak ikertzen ditunak baizik >ezik?<» (22 or. = II, 8, 16 [50, 4-6]); «egokitasuna besterik zala, ots, besteri zegokiona >zeribait dagokiona<» (43 or. = IV, 13, 20 [92, 11-12]); «zure morroi zintzoa >serbitzari< zintzoa» (60 or. = V, 13, 23 [121, 11]); «katea arrastan >lorrean< nenkarren» (74 or. = VI, 12, 21 [147, 4]); «Zure >Zuk eman< legea» (87 or. = VII, 13, 19 [172, 19-20]); «aitortu>tzen< bear dizut >diot< Zure errukiari» (123 or. = IX, 12, 32 [237, 10]). Bestalde, eta esan bezala, *C-n* ez dut irakurtze-hutsik aurkitu: ikus, honetaz, 80 or. eta bertako 36 oh.; s eta z letrak trukitzeagatik sortutako hutsen balioaz ikus 83-85 or., eta *C-n* dauden era honetako hutsei buruz, 84 or. 43 oh.

<sup>10</sup>*Ca-alter*-eko ohar gehien-gehienak Orixerenak dira: batzuk bere ohiko tinta beltzarekin daude eginda eta beste batzuk arkatzez (alde bat uzten baditugu kalkoa ipinita egindakoak, hemen ere bai baitaude horrelakoak: ikus 98 or. 6 oh.). Beste bi esku —oso oker ez banago— ibili dira bertatik, baina ohar gutxi egin dituzte: bata, Orixe zenbaitetan bezala, lapitzez aritu da, eta bestea boligrafo urdin batez; bi hauen ohar gehienak [I]v orrialdeko zuzenketak sartzekoak dira —guztiak sartu ez bazituzten ere: ikus gorago 69 or. 6 oh.—, baina badira bestelako

«nun» baten gaineko lerroartean «nenun» oharra idatzi du (7 or. = I, 9, 15 [21, 20]; «nenun» *sic*, ez «nendun»); III. liburutik aurrera, berriz, «nun» eta «nendun» bakarrik erabiltzen ditu makinazko testuan, hau da, B-n bezalaxe, eta ez dugu gehiago eskuz gehitutako azentu haiek bezalako xeblekeriarik ikusiko («nendun» formaren aldeko oharren bat bakarrik). Bistan da, hortaz, I-II liburuetak ohar horiek guztiak —«nenun» proposatzen duenak eta «nun» horiei gehitutako azentuek alegia— nahitaez izan behar dutela III. liburuaren hasiera bera baino lehenagokoak, hau da, ezin eztabaidatuzkoa da ohar haiek ezin izan zituela egin ja III. liburua makinaz idazten hasia zenean. (Ikus, guzti honetaz, VI erans.). Ez dugu inongo arrazoirik ondorio hau Orixeren Ca-alter-eko gainerako oharretara ez hedatzeko: aitzitik, ohar gehienen nolakotasunak berak —makinaz egindako hutsen zuzenketak etab.— horrexen alde hitz egingo luke, zerbaiten alde egitekotan, eta ezerk ez, berriz, kontra.

Istoriaoa, agidanean, honela berreraiki daiteke. C-ko orriak makinaz idatzi ahala Orixek zuzendu egiten zituen, bai orijinala bai kalkoaren bidez ateratako kopia —edo kopiak—: ikusi berria dugu Ca-alter-era aldatu ziren oharrak testuaren beraren garaikideak direla. Momentu jakin batetik aurrera ordea Orixek ez zuen ja ikusi ca-prior-en egiten zituen zuzenketak eta aldaketak Ca-alter-era kopiatzeko beharrik: zalantzarik gabe deliberatua zelako ja bigarren idatzaldi bat egitera eta, bestalde, segurtasun osoa zuelako bigarren idatzaldi hura egingo zuela aurrean zuen ca-prior oinarri hartuta; segurutzat joko nuke ca-prior-eko oharren bigarren aldi hau —Ca-alter-era aldatu ez zireneka alegia— Lazkaon kokatu behar dela. Eta, azkenik, Ca-alter bakarrik gorde izana —eta ez, alegia, cb eta cc— hipotesi honen aldeko beste argudio bat da: Ca-alter izan balitz B egiteko erabili zen testua, zer dela-eta ez ziren gorde X eta XI-XIII liburuak egiteko erabili zirenak, cb eta cc alegia? zalantzarik gabe, B ontzeko erabili ziren paperek —paper guztiak— beste fin bat izan zuten, eta Ca-alter guganaino heldu bada izan da beste nonbaitetik etorri zelako Lazkaora edo, bestela esanda, beste toki bat izan zuelako istorio honetan.

Bigarren idatzaldia, 1955garren urtean zehar beneditarren Lazkaoko etxean ondutakoa alegia, behatzizkribu baten bi aldaki osoren bidez heldu zaigu: B-prior, idazmakinak zuzenean jo zituen orriez osatua, eta B-alter, kalko baten bidez ateratako kopia. Biek dituzte, bataz beste, 279 x 215 mm. luze-zabalean eta [I]+193 orri, noski alde bakar batetik idatziak.<sup>11</sup> B-prior on Manuel Lekuona zenak utzi zituen dokumentu zenbait biltzen dituen artxiboan

---

lauzpabost azalpen. Orixeren ohar batzuek makinaz jotzean egindako hutsak zuzendu nahi izan dituzte (baita kalkoak ondo jaso ez dituen lerro batzuen zatiak berridatzi); beste batzuek, besterik gabe, makinaz eskribitutako testua aldatu dute; eta gutxi batzuk, azkenik, Orixek bere buruarentzat egindako glosak dira (batez ere Olabideren izena aipatzen duten sei oharrak: nire ustez, Olabideren testura jotzeko abisuak dira, gero horrelakorik egingo ez bazuen ere).

<sup>11</sup>[I] eta 1-49 orrietan (hots, Mathieu-rentzako eskaintzan eta *Aitorkizunen* hasieratik IV, 14, 23 paragrafoaren erdiraino [94, 10]: «Gauzak [49 or.] | ez lirake [50 or.]» gainerakoetan baino zabalagoa da lerroen arteko zuria (ikus honek sortutako aldaera bitxi batzuk 220 or. 71 oh.). Eta, bestalde, honako orri hauetan zintaren aldaketa bat egiaztatu daiteke: 50. orriaren hasieran (IV, 14, 23 [94, 10]: «Gauzak [49 or.] | ez lirake [50 or.]»); 59. orriaren 9. lerroan (V, 9, 17 [116, 1]: «gomen zegien | egunoroko Meza»); 100. orriaren hasieran (IX, 1, 1 [211, 1]: «garbikiago. [99 or.] | BEDERATZIGARREN IARDUNA [100 or.]»); 110. orriko 9. lerroan (IX, 11, 27 [233, 18]: «bioz-miña | 27. Ez dut oroi»); 114. orriaren hasieran (X, 1, 1 [243, 1]: «otoitzen bitartez. [113 or.] | AMARGARREN IARDUNA [114 or.]»); eta 140. orriaren hasieran azkeneko aldiz (XI, 1, 1 [303, 1]: «dabiltzion». [139 or.] | AMAIKAGARREN IARDUNA [140 or.]»). Aipatu puntu hauetan egiaztatu ahal da zintaren aldaketa bat: daitekeena da, beraz, beste toki batzuetan ere gertatu izana.

dago («J-83-3-2» signatura du), Eusko Ikaskuntzak Donostian duen liburutegian: oso paper mehea du, beste aldaki bat edo beste aldaki batzuk atera nahi zirenean ohi zen bezala; orain —baina ez, agidanean, inprimategira joan zenean— ezkerreko ertzetik lau kortxetez josita dago, ez aurrean ez atzean inolako guarda-orririk gabe.<sup>12</sup> B-alter, Ca-alter bezala eta Orixeren garai hartako beste zenbait eskuizkribu bezala, beneditarren Lazkaoko liburutegian dago; josita eta azaleztatuta ere Ca-alter bezalaxe dago: zalantzarik gabe, bi behatzizkribuak Lazkaoko beneditarren liburutegikoak izanik eta biak, orobat, Orixeren ondarekoak, batera josi eta azaleztatuko ziren.<sup>13</sup> Lehenengo orrian, [I]ean alegia, ez dago makinaz idatzitako liburuaren izenbururik ez antzekorik: 1956ko edizioan —nahiz eta aldaketa askorekin— 5 eta 6. orrialdeetan dagoen Clement Mathieu apezpikuarentzako eskaintza dago bakarrik, orria osorik betetzen duelarik.<sup>14</sup> Behatzizkribuaren bigarren orrian, hau da Iean, obra osoaren izenburua dago, bi bider azpimarratua; eta, honen azpian, liburuaren aipamena —hots, ‘jardunarena’—, kapituluaren zenbakia eta honi dagokion izenburua (ikus, lehenengo bi orri hauek, IV-V irud.):

### AITORKIZUNAK

#### LEHENGO IARDUNA

##### I

<sup>12</sup>Badirudi liburuaren inprimatzea bukatutakoan bakarrik josi zela B-prior. 135. orrian (X, 36, 59 [292, 16-22]) honako hau dago makinaz idatzita: «Obendaria bere barneko gurarietan goretsi ez, eta okergillea onetsi ez-baiña, Zuk eman zenion doairen bategatik goretsia danean, eta au ere pozago baldin bada gorespen ortaz goretsia izateko daukan doaez baiño, au ere goresen du- l *te Zuk* ezaztean, eta goresle au obeago da goretsi au baiño»; «*te Zuk*» hitzak B-alter-en bakarrik irakur daitezke orain, orriaren ezkerreko zurian daudelako eskribituta (betiere makinaz) eta B-prior estuegi dago josita orrien alde hori ikusi ahal izateko, baina hala ere zuzen jaso dira A-ko testuan —eta bistan da jatorrizko irakurketa ez zela batere erraza asmatzen—. 136. orrian (X, 37, 60 [293, 11-12 eta 21-22]) era honetako bi kasu ditugu. Lehenengoan honela dio makinazko testuak: «Beste edozein azukalditan, ba-dut nere burua aztertzeiko almena; l *ontan ia* bateretz»; «*ontan ia*» B-alter-en bakarrik irakurri ahal da, hitz hauek ere ezkerreko zurian daudelako, baina hala eta guztiz ere zuzen jaso dira A-n. Bigarrenean hau da makinak idatzitakoa: «*edota l [gal]duki* ta basati, ezagun gaitun orok iguindu gaitzaken eran?»; «*duki*», aurreko bi adibideetan bezalaxe, B-alter-en bakarrik ikus dezakegu (eta «*gal*» m1-en gehiketa da: ikus 100 or.), baina A-n ondo kopiatu da guztia. Hipotesi honen aurka ditugun argudioak, agidanean, ahulagoak dira. 113. orrian (IX, 13, 36 [240, 9]) honako hau dago makinaz eskribituta: «*Zu- l re* gerizpetik»; «*re*» hau ere oso ezkerrean dago eta B-prior-en, orain, ez da ikusten; baina hemen, lehen aztertu ditugun hiru pasarteetan ez bezala, Lekuonak beste «*re*» bat gehitu zuen, bere ohiko arkatz gorriarekin, «*Zu-»* hitz zatiaren eskuinean (ikus 149 or.). Ondorioztatu ahal genuke Lekuonak ere ezin zuela ikusi ezkerreko zurian sartuta dagoen «*re*» hura eta, hortaz, josita zegoela ja ordurako B-prior; baina kasu hau —arestian ekarritaok ez bezala— esplikatu daiteke bestela ere: apika irakurtzen jarraitu baino lehenago egin zuen Lekuonak aipatu gehiketa edo, nire ustez egiantzekoago, erabat beharrezkoa ez zen oharra da, Lekuonaren beste ohar dezente bezala. Hurrengo argudioa bestelakoa da eta, orain darabilgun auzirako, balio gutxiagokoa nire ustez. 61. orrian ezkerreko ertzaren zuria ohi baino meharragoa da eta B-prior-en, orain, ezin dira irakurri —ez baldin bada liburuaren jostura behar baino gehiago bortxatzen— lerro gehienen hasierako letrak; orri honetako lerro baten hasieran (V, 13, 23 [121, 23]) testuinguruak erabat argi uzten ez duen hitz bat dago: «*baiña mintzo l* legunak atsegiten zidan»; eta pasarte hau kopiatu zuen inprimategiko langileak «*lagunak*» idatzi zuen A-n: hau ere izan liteke guk baztertu dugun hipotesiaren aldeko argudioa, baina hemen oso kontuan izan behar genuke «*lagunak*» *facilior* nabarmen baino nabarmenago dela.

<sup>13</sup>Ohar bedi, bestalde, 1-92 orriak eskribitzeko kalko beltz bat erabili dela eta 93-193 eta [I] orrietan, berriz, kalko more bat (ikus honetaz 75 or. 23 oh.); bestalde, 10. orria alderantziz josi da, hots, idatzitako aldea kontrako zentzuan jarri dute azaleztatzerakoan.

<sup>14</sup>Orri honetan bertan apezpikutegian idatzi zituzten oharrei buruz ikus gorago 52-53 or.



Jauna deituz bilatu, ta siñetsiz deitu.

Ondoren, lerro bakar bateko hutsunea utzita, testua bera hasten da, lehenengo lerroaren barnean paragrafoari dagokion zenbakia dagoelarik: «1. “Aundi zaitugu, Jauna, ta biziro goresgarri” (Ps. 144, 3); indarrean aundi [...]». Hemendik aurrerako orri guztiak jarraian zenbatuta daude, hutsik gabe; testuaren osagaiak orrialdean kokatzeko arauak (liburuen eta kapituluaren hasierei dagozkienak barne) berdin diraute, funtsean, behatzizkribu osoan zehar, paragrafoen zenbaketan dauden ezabatzeak aipatzeko modukoak badira ere; azkenik, lerroen arteko zuria gutxitu egiten da 50. orritik aurrera (ikus 71 or. 11 oh.). Eskuizkribua horrela bukatzen da: «Zuri eska, Zugan billa, Zurean io dezagun. Onela dugu arkituko, arkituko, onela zaigu idekiko»;<sup>15</sup> azpian, lerroaren erdian, puntuekin egindako edergailu bat; eta honen azpian, hau ere erdiratua eta letren artean ohi baino zuri zabalagoa utzita, honako hau: «U.I.O.G.D.» (XI irud.).<sup>16</sup>

B-prior da, inongo zalantzarik gabe, Orixek inprimategira bidaltzeko prestatu zuen orijinala: segituan ikusiko ahal dugun bezala, aldaki honetan jaso ziren testua makinaz jo zuenak egin zituen zuzenketak eta, batez ere, Orixek berak bere eskuz eskribitutako aldaketak; hauxe izan zen, orobat, gotzaitegitik pasatu zena; B-prior-eko orrietan daude *Aitorkizunen* argitaratzeaz arduratu zen Lekuonak egin zituen marka eta ohar askotarikoak; eta dudarik gabe dakigu B-prior izan zela, aipatu esku hauek guztiak egindako aldaketekin hornitua ja, Zarauzko inprimategiko langileek aurrean izan zutena 1956ko liburua egiterakoan. B-alter ere kontuan hartu beharrekoa litzateke baita honen eta B-prior-en makinazko testua berdin-berdinak balira ere:<sup>17</sup> batetik, B-prior-en jasotako ohar askoren beste lekukotasun bat delako —kopiatu egin baitziren, alegia, baita B-alter-era ere— eta, bestetik, B-prior Lazkaotik atera zenetik B-alter izan zelako Orixeren eskumenean gelditu zen aldakia eta, izan ere, bertan idatzi zituelako —seguruena liburuaren probetan sartzeko asmoarekin— handik aurrera egin zituen aldaketa gutxi batzuk. B-prior eta B-alter behatzizkribuetan dauden oharrei buruzko azalpen orokor bat 96-98 or. irakur daiteke.<sup>18</sup>

<sup>15</sup>B-ren azken esaldi honi buruz («arkituko, arkituko», etab.) ikus 157, 178 eta 208 or.

<sup>16</sup>Bistan da *subscriptio* hau jesulagunen «A.M.D.G.» famatuaren gisan egin zuela Orixek eta, agidanean, honako hau esan nahi du: «*Uasconice Interpretai Ormaetxea* [ad] *Gloriam Dei*», hau da, 'nik, Ormaetxeak, euskarara itzuli dut Jaungoikoaren aintzarako'. Hau bezain egiantzekoak dira funtsean honen baliokideak diren beste aldaera batzuk: «interpretai» dagoen tokian berdin samar egon liteke «interpretait», «interpretatus sum» edo «interpretatus est»; bestalde, noski, bai «Ormaetxea» bai «Orixek» izan daiteke. Azken letrak gauza bat baino gehiago ezkuta ditzake: «[ad] gloriam» ordez izan liteke «gloriae», edo baita «gratia» ere, hots, «Gratia Dei», 'Jaungoikoarengatik' edo.

<sup>17</sup>Zeren, izan ere, makinaz jotako testua ere desberdina baita bi aldaketan. Hau, askotan kontuan hartzen ez den arren, normala da idazmakinez ateratako kopien kasuetan, erraz gerta daitekeelako kalkoa eta bi paperak —edo jartzen diren guztiak— elkarren parean ondo jarrita ez egotea: horrela, batzuetan, idazmakinarean giltzek hitz bat —esaterako— jotzen dutenean, bigarren paperean bakarrik jasotzen da, zati horretan ez dagoelako lehenengo paperik (dezentetan gertatzen da, adibidez, eskuineko ertzean eta baita behekoan ere); beste batzuetan kontrako gertatzen da: zerbait lehenengo paperean bakarrik jaso da bigarrena gaizki kokatua zegoelako (hau sarriago gertatzen da, testua makinaz jotzen ari denak ezin duelako hain erraz ikusi bigarren papera bukatu den ala ez; baina, agidanean, bigarren kasu hau normalagozat jotzen dugu baita ere prest egoten garelako beti onartzeko kopia batek orijinalak baino txarragoa izan behar duela nahitaez).

<sup>18</sup>B, berez, ez da B-prior-en eta B-alter-en makinaz idatzita dagoen testua, ezpada kopiagileak bere idazmakinan jo zuen testua: izan ere, eta esan bezala, makinan jo zena eta paperean jota agertu zena ez baitira gauza bera, paperak ez duelako beti modu perfektu batean islatzen kopiagileak idatzi zuena —benetan idatzi

Lehenengo eta bigarren idatzaldien arteko aldea alderdi askotan da nabaria. Izenburua bera da desberdina: *Iainkoari Gorespenak* (edo *Iainkoari Augustin sainduaren Gorespenak*) C-n eta *Aitorkizunak* B-n.<sup>19</sup> Idatzaldi zaharreko izenburuarekin *confessio* eta *confiteor* hitzek san Agustinen garaiko kristau testuetan zuten eta san Agustinek berak bere liburu honen izenari espresuki ematen zion zentzua jaso nahi izan zuen Orixek —bazekien, beraz, honen guztiaren berri—;<sup>20</sup> bigarren idatzaldikoarekin, aldiz, oro har hitzari eta liburuaren izenburuari berari eman ohi zaien zentzu arruntari men egin dio. Ikusi dugu gorago (43-45 or.) *Iainkoari Gorespenak* izenburua 1952ko ekainaren 4an Zaitegiri egindako gutun batean agertzen dela oraindik eta *Aitorkizunak* Onaindiari zuzendutako 1954ko urtarrilaren 26ko karta batean ikus dezakegu lehenengo aldiz: hemendik aurrera hau bakarrik erabiliko du (edo *Aitorkizunak*, Ibiñagabeitia bizkaitarrarentzako 1955eko martxoaren 28ko eskutitz batean: ikus 51 or.).<sup>21</sup> Desberdina da, orobat, *Aitorkizunetan* dauden hamahiru liburuak

zuen, ez idatzi nahi izan zuena: orain ez gara horretaz ari—; hau da, B ez da, berez, izaera fisikoa duen testu baten izena, guk lekukotasun batetik edo batzuetatik abiatuta berreraiki behar dugun testu batena baizik. Ikusi dugu arestian (aurreko oharrean hain zuzen ere) zeinen erraz aldendu daitezkeen elkarrengandik, makinaz eskribitutako testuetan, kopiagileak idazmakinan jo duena eta paperak islatzen duena; baina hain da txikia, gure kasu honetan, jo zenaren eta B-prior-en eta B-alter-en idatzita gelditu zenaren arteko aldea, non lasai samar hitz egin baitezakegu eginez B —B-prior-en edota B-alter-en dagoen— makinaz eskribitutako testua bera balitz bezala eta, izan ere, zentzu honetan erabili beharko dugu askotan, hemendik aurrera, B laburdura. Esan gabe doa C-ri buruz ere gauza berbera esan behar genukeela baina, kasu honetan lekukotasun bakarra dugunez gero (esateko moduan behintzat, ezer gutxirako balio baitu Mokoroaren txostenak Ca-alter behatzikribuaren ondoan), ez dirudi hain beharrezko.

<sup>19</sup>C-n erabilitako izenburuaren bi bertsioei buruz ikus gorago 69 or. B-n, esan bezala, bigarren orrian bakarrik (1ean alegia, ez [I]ean) agertzen da izenburua, eta izenburuaren agerraldi bakar hori «Aitorkizunak» da, hots, san Agustinen izena izenburuaren barnean jaso gabe; litekeena da —batez ere C-k erakusten duen ohitura ikusita— izenburutzat jo ahal izatea Mathieu apezpikuarentzako eskaintzaren testuaren hasiera aldean aipatzen den «Augustiñ Gurenaren [Aitorkizunak]» osorik, Lekuonak 1956ko edizioaren azala egiterakoan ulertu bide zuen bezala: «Augustiñ [sic] Gurenaren Aitorkizunak». (Mathieu apezpikuarentzako eskaintzan irakurtzen den testuak honela dio zehazki: «Jauna: Zure eragin ninduzun emeki, obeki esan bultzatu ninduzun bortizki Augustiñ Gurenaren Aitorkizunen liburu gure izkuntzara biurtu nenzan»). Ez dakit noraino har litezkeen Lekuonaren aukeraren kontraktatzat Orixek bere guttunerian erakutsitako erabilerak; nire irispidean dauden eskuizkribuetan bi bider aipatzen ditu *Aitorkizunak* hemen dagokigun auzirako esanguratsua izan daitezkeen modu batean: «S. Agustiniñ *Iainkoari Gorespenak* edo *Confessiones*» (Zaitegirentzako 1952ko ekainaren 4ko gutunean: ikus gorago 43 or. 12 oh.) eta «San Agustiniñ «Aitorkizunak»» (Mitxelenak 1955eko otsailaren 8an bidalitako galdeketeraren gainean egindako erantzunetan: ikus 51 or. 13 oh.). Akesolok eta Onaindiak argitaratutako gutunak ere kontuan hartzen baditugu (ikus OE eta Onaindia [1974]), hau da, egiten baldin badugu hauek ipinitako etzanak eta komatxoak Orixeren jatorrizko paperetan ere badaudela, badirudi ondorio berberak atera behar genituzkeela: «S. Agustiniñ «Aitorkizunak»» (Onaindia [1974, 28 or.]), «S. Agustiniñ *Aitorkizunak*» (OE, 949-950, 950 or.), «Agustiniñ gurenaren *Aitorkizunak*» (OE, 962 or.). Eta berdin Orixek argitaratutako idatzietan egindako aipamenei dagokienez, hemen ere, noski, bitartekoek jarriarazitako etzanak eta azpimarratuak Orixeren eskuizkribuetatik kopiatuak direla pentsatu nahi baldin badugu: «san Agustinen *Aitorkizunak*» dio, adibidez, *Jainkoaren billa* liburuaren sarreran (EG-n argitaratutako bertsioan: ikus gorago 47 or. 27 oh.). Baina ohar bedi ondo —gorago ere esan dugu— adierazgarriak diratekeen kasuak bakarrik ekarri ditugula hona, hots, ez ditugula jaso laburtuak izateko aukera gehiago dituzten aipuak.

<sup>20</sup>Ikus, esaterako, Blaise [1986] s.v. ‘confessio’ (10. adiera) eta ‘confiteor’ (3-6 adierak); auziaren azalpen orokor bat Solignac [1992, 9-12 or.]; eta gure kasu honetarako bereziki interesgarriak diren zenbait oharkizun Tombeur [1997, 568 or.].

<sup>21</sup>Daitekeena da, bestalde, *Aitorkizunen* lehenengo liburuak itzultzen zegoenean izenburuarentzako beste ordain bat erabili izana Orixek (pentsatzekoa baita C-ren izenburu-orria lan hura —hots, lehenengo bederatzi edo hamar liburuak— bukatutakoan bakarrik egingo zuela): izan ere, *Aitorkizunen* testuan bertan behin baino gehiagotan aipatzen du san Agustinek —hala dirudi behintzat— idazten dagoen liburuaren izenburua bera, hots, *confessiones* hitza baina, esan bezala, liburuaren beraren izenari buruz ari delarik (I-IX liburuen testuari dagokienez, baina liburuaren izenburua islatzen bide duten kasuak bakarrik bilduz, honako pasarte hauetan:

—latinez *liber* beti, noski— izendatzeko eta elkarrengandik nabarmentzeko modua: Ca-k dituen bederatzia liburuetakoko bakoitzaren hasiera —lehendabizikoarena izan ezik: ikus 69 or. eta III irud.— dagokion erromatar zenbakiak eta «Atala» (II-IV liburuetan) edo «Iarduna» hitzek (V-IXetan) nabarmentzen dute,<sup>22</sup> eta batzuetan baita orri berri batean hasteak ere (III eta V-IX liburuetan); B-n, berriz, *jarduna* hitza bakarrik erabili zuen eta liburu bakoitza orri berri batean hasi zuen.

C-k ez zituen testu zenbait gehitu zitzaizkion B-ri: B-ren hasieran doan Clément Mathieu apezpikuarentzako eskaintza falta du C-k eta falta du, orobat, B-ko testua ixten duen «U.I.O.G.D.» *subscriptio* modukoa —biak jaso ziren, lehendabizikoaren kasuan Lekuonak egindako ohiko aldaketekin, 1956ko edizioan—.<sup>23</sup> Oin-ohar bakarra du C-k: pasarte bati eman zion itzulpen xelebrearen alderdi bat azaldu nahi izan zuen bertan Orixek eta ez da, inondik ere, hiztegi oharra; B-k, berriz, hiztegi ohar ugari ditu, eta —salbuespen bakar batekin— hiztegi oharrak soilik.<sup>24</sup> Azkenik, *Aitorkizunen* edizio eta itzulpen askotan kapituluek daramatzaten izenburu edo laburpen modukoak ere B-ko testuan bakarrik sartu ziren, C-koan ez baitzen horrelakorik: bixia da gehiketa garrantzitsu hau Lazkaoko berrikuspenean gertatu izana, zeren hau ontzeko erabili zuen BAC-eko edizioak ez baitu kapitulu izenbururik

«Accipe sacrificium confessionum mearum de manu linguae meae [...], V, 1, 1; [...] ridebunt me, si has confessiones meas legerint [...], V, 10, 20; «Accipe confessiones meas [...], IX, 8, 17; [...] quotquot haec legerint [...] per confessiones [...], IX, 13, 37). Honela itzuli zituen Orixek aipatu lau kasu hauetako agerraldiak, hurrenez hurren: «aitorpenen oparia» (C, 49 or., B, 53 or. [101, 5]), «aitortzapen auek» (C, 59 or., B, 60 or. [119, 7]), «aitortzapen» (C, 117 or., B, 106 or. [225, 20]) eta «aitorpen C : aitorkizun B» (C, 125 or., B, 113 or. [241, 2]). Bestalde, kontuan hartzeko modukoa izan daiteke X. liburuan ere «aitorpen» (114 or. = X, 2, 2 [244, 20] eta 116 or. = X, 4, 6 [247, 20]) eta «aitortzapen» (132 or. = X, 34, 51 [285, 24]) hitzak bakarrik erabili izana, baina XII eta XIII.etan (XI. can ez da agerraldi bat ere), hau da, zalantzarik gabe Orixek Ca-ren izenburu-orria idatzi ondoren ondutakoetan, «aitorkizun» eta «gorespen» bakarrik egotea (lehenengoa pasarte hauetan: 163 or. = XII, 16, 23 [356, 20]; 169 or. = XII, 26, 36 [368, 13]; 172 or. = XII, 30, 41 [374, 8]; 177 or. = XIII, 12, 13 [387, 22]; 186 or. = XIII, 24, 36 [408, 9]; bigarrena, berriz, honako hauetan: 167 or. = XII, 24, 33 [365, 10]; 178 or. = XIII, 14, 15 [390, 6]). Ez dirudi ausartegia izango litzatekeenik *o n d o r i o h a u a t e r a t z e a*: Orixeren hasierako asmoa —hau da, lehenengo idatzaldiaren I-IX, agian I-X liburuak itzultzen zegoeneko— izango zen «Aitorpenak» edo «Aitortzapenak» erabiltzea san Agustinen liburuaren izenburu gisa; Ca-ren izenburu-orriak daraman «Gorespenak» izenburuaz baliatzea I-IX (edo I-X) liburuen lehenengo idatzaldia bukatutakoan bakarrik erabakiko zuen; eta XI-XIII liburuen itzulpena amaitzeko zegoenean deliberatuko zen, betiko, «Aitorkizunak» izenburuaren alde, agian —baina ez nahitaz, *variatio* egiteko gogo batek eragindakoa ere izan baitaiteke— denboraldi batean (XI-XIII liburuak El Salvadorren itzultzen zegoen bitartean) zalantzan ibili ondoren «Gorespenak» eta «Aitorkizunak» izenburuen artean.

<sup>22</sup>Bosgarren liburuaren kasuan (C, 49 or.) «ATALA» dago makinaz idatzita, baina hau urratu eta arkatzez «IARDUNA» eskribitu du gainean Orixeren eskuak.

<sup>23</sup>«U.I.O.G.D.» delakoaren esanahiari buruz ikus gorago 73 or. 16 oh. Bestalde, bistan da Clément Mathieu apezpikuarentzako eskaintza —B-ko [I] orria, hau da, 1956ko edizioaren 5-6 orrialdeak— *Aitorkizunen* testu osoa makinaz jo ondoren bakarrik idatzi zuela Orixek; arrazoi asko ditugu horrela pentsatzeko: batetik, Orixek behatzizkribuaren 1. orritik aurrera egin zituen ohar gehien-gehienak B-alter-en jaso ziren, baina ez [I] orrian daudenak (ezta 39. orritik aurrerakoak: ikus honetaz 105-106 or.); bestetik, zerbait esan nahi du guk [I] zenbatu dugun orri hau behatzizkribuaren zenbaketarako kontuan hartu ez izanak, «1» zenbakia daraman orria hurrengoa baita, hau da, *Aitorkizunen* hasiera (izenburua eta I, 1, 1 paragrafoa eta I, 1, 2 paragrafoaren hasiera) duena; azkenik, badakigu Mathieu apezpikuarentzako eskaintzaren bigarren aldakia 93-193 orriena ateratzeko erabili zen kalko more berarekin atera zela, eta ez 1-92 orriena egiteko ipini zuten kalko beltzarekin (ikus gorago, 72 or. 13 oh.). Berriz, ez da zalantzarik apezpikuarentzako eskaintza hau makinaz jo duena behatzizkribuaren gainerakoa jo duen kopiagile berbera dela: eskaintzan ere begien bistakoak baitira behatzizkribu osoan zehar ikus daitezkeen ohitura grafikoak —eta huts motak— (ikus 78-91 or.).

<sup>24</sup>Ohar hauen guztien edizioa —bai C-koarena bai B-koena, hiztegi-oharra zein bestelakoena— IV eranskinetan du irakurleak.

eta, bestalde, ez dirudi Orixek izenburu moduko hauek inongo eredutatik hartu zituenik.<sup>25</sup> Testuaz kanpoko osagai batzuk ere gehitu zitzaizkion B-ri; testua paragrafoka antolatuko da edizio hoberenen arabera, eta *Aitorkizunetan* ugari baino ugariagoak diren Bibliatiko aipu asko, C-n —eta edizio askotan— ez bezala, komatxo bidez bereiziko dira eta baita horrela bereizitako aipu hauetako gehienei dagozkien erreferentziak emendatu ere;<sup>26</sup> bizpahiru osagai hauek B-n sartu izana badaiteke, kapitulu izenburuen gehitzea ez bezala, bigarren idatzaldi hau BAC-eko edizioaren arabera egin izanaren ondorioa, eta nabarmena da, bestalde, behin betiko idatzaldi honetan testu txukunago edota osoago bat emateko nahi batek eragin dituela.

C-tik B-ra gertatu diren aldaketa ikusgarrienetako bat hizkuntzari dagokio. *Aitorkizunetan* bi idatzaldiak ‘nafar-giputz antzera’ eginak badaude ere (Garmendia [1965, 54 or.]), begien bistan dago C-ko hizkuntzak —edo, hobeto esateko, ezagutzen dugun C-ren zatiarenak— sortaldeko kutsu nabarmena duela B-koaren ondoan: bestela esanda, C-tik B-ra mendebaleragotu egin da hizkera.<sup>27</sup> Zenbait alderditan behintzat sistematikoa izan nahi duen itxuraldatze honen zergatikoa, agidanean, bikoitza da: batetik, badirudi hizkuntza idatziari buruzko iritzi aldaketa bat gertatu dela, puntu batzuetan, bi idatzaldien artean (edo, beharbada, liburua berridaztean amore ematen joan dela hasierako iritzi haietako batzuetan); baina, bestetik —eta seguruenik batez ere—, ezin dugu ahaztu Orixe kameleoa zela: Iparraldean egon zenean baxenabartar eta lapurtar koloreko euskara bat erabili zuen —askotan behinik behin, sortze lanetan batik bat—, eta usain gipuzkoarragokoa Lazkaon, Tolosan eta Donostia aldean bizi izan zen urteetan. Aldaketa hauek grafian eta morfologian dira nabarmenak: C-n, esaterako, «oinaze», «oraino» edo «epaile» idazteko joera du eta B-n, berriz, «oiñaze», «oraiño» eta «epaille»; C-n, adibidez, «nire», «gira», «zira» edo «ortarik»

<sup>25</sup>Izenburu edo laburpen moduko hauek ez omen dira san Agustinenak: edizio batzuek badituzte eta beste batzuek ez eta, bestalde, horrelakoak dituzten edizioek ez dituzte guztiek izenburu edo laburpen berberak, saint-maur-tarren edizioek beste edozein ediziotako izenburuek baino arrakasta gehiago izan bazuten ere.

<sup>26</sup>*Aitorkizunetan* edizio askotan ez da paragrafokako antolamendurik —Trabucco-renean, esaterako— eta, hortaz, ez da inondik ere harritzekoa C-n ere horrelakorik ez izatea (ikus, honetaz, II erans.); edizio batzuetan beste zenbaketa bat ikus badaiteke ere (adibidez Wangnereck-enean, gure testuarekin nola edo hala lotuta dauden kasuak bakarrik aipatzearen), zabalduena da saint-maur-tarrek beren edizioaren testuari ezarritakoa: hauxe da, esaterako, BAC-eko edizioak dakarrena. Orixek B-ko testua —C-koa ez bezala, diogun berriz ere— aipatu moduan antolatu izana, inongo zalantzarik gabe, Lazkaoko berrikuspenean BAC-eko edizioa erabiltzearen ondorioetako bat da. Gauza bera esan daiteke Bibliatiko aipuen bereizketari eta hauei dagozkien erreferentzien emendatzeari buruz: *Aitorkizunetan* josita daude horrelako aipuez, hain josita non oso sarri san Agustinen testua bat eginda baitago Bibliatik datozen aipu hauekin eta, horrela, ez da beti nabarmena non bukatzen den san Agustinen eta non hasten den Bibliatikoa; izan ere, edizio eta itzulpen askotan ez dira grafikoki bereizten mintzagai ditugun aipuok —esate baterako Trabucco-renean— eta, bereizten direnean, gutxitan aurkituko dira haiek nabarmentzerakoan bat datozen bi edizio. Ez da, beraz, harritzekoa erreferentzia jakin bat edizio batean ematen baldin bada eta beste batean ez. C-ko testuan, gorago esan bezala, aipuak ez dira mugatu —eztabaidagarria izan litekeen salbuespenen bat gorabehera— eta hauei legezkiekeen erreferentziak ere, beraz, ez dira eman; B-koan, berriz, ez da dudarik bi osagai hauek BAC-eko edizioaren arabera daudela antolatuta: hori bai —eta ulertzekoa da—, zehaztasun gehiegirik gabe, ez baitira jaso BAC-eko edizioan dauden komatxo eta erreferentzia guztiak eta, gutxitan izan bada ere, lekuz aldatu baita BAC-ekoan ez dagoen komatxoren bat.

<sup>27</sup>Honetaz landara, *Aitorkizunetan* —lehendabiziko zein bigarren idatzaldiaren— hizkeraren alderdi garrantzitsu zenbait Azkueren gipuzkera osotuaren izpiritua argitan bakarrik uler daitezke, eta gauza bera esan genezake Orixeren garai honetako beste lan nagusi batzuen gainean. Ikus, honen guztiaren alderdi jakin batzuei buruz, VI erans.

idazten du eskuarki, eta B-n, aldiz, «nere», «gera», «zera» edo «ortatik».<sup>28</sup> Baina hiztegian eta syntaxian ere —nahiz eta maiztasun txikiagoan— ez dira falta era honetako aldaketak: «aunitz C : asko B», «aur C : ume B», «ardura C : askotan B» bezalakoak sarri ikus daitezke eta orobat, gutxiagotan bada ere, «len maita gauzak C : len maita zituen gauzak B», «gal litezke C : galdu litezke B» etab. Alabaina, eta esan bezala, joera besterik ez da —joera nabarmena ordea—, kontrako adibideak ere ez baitira falta: ez zaio harrigarri egingo Orixek era honetako kontuetan berariak praktikatzen zuen aldakortasuna eta izan ohi zuen axolagabekeria ezagutzen dituenari. Hizkuntzaren mendebaleratze orokor honetatik landara, badirudi areagotu egin dela, C-tik B-ra bidean alegia, Orixek jatorritzotzat zituen aldaerak erabiltzeko gogoia: honela ulertu behar da, zalantzarik gabe, «nendun» (hots, *nuen*) formaren aldeko jarrera —orain bai— erabatekoa, eta orobat, oso oker ez banago, «zagar», «zугur», «bigurri» eta antzekoak hobestekoa eta baita hain maiz agertzen ez diren beste hitz batzuen aldekoa ere: «nifedukan» (*nindukan*), «apaizpiku», «mihi» (eta ez C-ko «mî»), etab.<sup>29</sup> Eta litekeena da helburu orokor batekin ere lotu behar izatea ergatiboa eta absolutua pluralean bereizteko joera gero eta handiagoa —baina, nolana ere, kaotikoa— edo hitzen osagaiak elkarrengandik nabarmentzeko ahaleginak (askotan ikusi ahal baitira era honetako aldaketak: marratxoa erabiliz, hitz elkartuen osagaiak bananduta emanaz, etab.), azken puntu honetan kontrako adibideak bereziki ugari badira ere. C-tik B-ra gertatu diren beste aldaketa askok —betiere hizkuntzari berari buruz ari garelarik, ez estiloari edo itzulpenaren zuzentasunari— hitz edo arazo jakin zenbaiten inguruan momentuko apetek eta iritziek eragindakoak dirudite eta zaila da asmo orokorrigo baten mesedetan eginak diren ala ez esatea —batzuek behinik behin aipatu irizpide nagusiaren aurkako dirudite—: «diago C : diño B» eitekoak, esaterako; *ekidin* ustezko aditz laguntzailearen forma sinkopatuen aldekoak («dakididan C : dakidan B» —hots, *zaidan*—, etab.); jarrera garbizalexeago bat erakusten dutenak («pekatu C : oben B», «mendeku C : apen B», «poeta C : olerkari B», «protxu C : etekin B», «serbitzari C : mirabe B», «profeta C : igarle B», etab.); aditz zenbaiten adizki trinkoen kontrako joera, etab.<sup>30</sup>

Guztiarekin ere, itzulpena bera zuzendu beharrak bultzatzen zion Orixeri bigarren idatzaldi hau egitera: azken liburuen lehenengo idatzaldia eskribitzen zegoenean ere, oraindik El Salvadorren, testuak 'jorratu beharra' zuela ikusten zuen, eta bigarrena hasteko zenean, Lazkaon ja, aitortzen zuen 'xabarraldi asko' zeudela itzulpenean (45 eta 49 or.).

<sup>28</sup>Baina «gira C : gera B», «zira C : zera B» eta hauek bezalakoak hizkuntz ereduari buruz izandako aipatu iritzialdaketak eragindakotzat ere jo litezke; izan ere, hauek dira Orixek *izan* aditzarentzat proposatzen zituen formak edo, zehazkiago mintzatzeko, proposatu zituen formetakoak, eta C-tik B-ra bidean ere desagertu dira *izan*-en paradigma horretako beste adizki batzuk («nintzan C : nintzan B», «zizadan C : zitzaidan B», etab.). Hala eta guztiz ere, bi zergatiko hipotetiko hauek —hizkuntzaren mendebaleratzea eta aipatu eredu teorikoan atzera egitea—, bi izanik, badute zati bat komun. Ikus, berreraikitako *izan* horren adizkiak, VI erans. 448 or. 11 oh.

<sup>29</sup>Gorago aurreratu bezala, «nendun» adizkia C idazteari ekin eta handik gutxira hasi zen Orixek erabiltzen *Aitorkizunetan*: lehenengo agerraldia, izan ere, III, 1, 1 paragrafoan dago (C, 24 or.); hemendik aurrera ere erabiliko du «nun» forma (batez ere aurrizki edo atzizkia daramanean), baina «nendun» da maiztasunaren aldetik gailentzen dena. Ikus, auzi esanguratsu eta garrantzizko honi buruzko azalpen xeheago bat, VI erans. Honetaz landa, «zagar», «zугur», «bigurri», «mihi» eta antzeko kasuen gainean ikus V erans. eta, «nifedukan» bezalakoak buruz, ikus 121 or. eta 73 oh.

<sup>30</sup>Ikus, ustezko *ekidin* horren gainean, VI erans. Bestalde, ezin da esan adizki trinkoen kontrako jarrera sistematiko bat dagoenik C-tik B-ra, bigarren idatzaldiari ekiteko zegoenean Mokoroari esandakoak pentsarazi lezakeen bezala (ikus 49 or.): kendu dira, bai, bizpahiru dozena —agian xelebreenetakoak—, baina berriak ere sartu dira.

Orixek kezkatzen zutenak, beraz, itzulpenean berean egon litezkeen hutsak ziren, jatorrizko testu aldrebesarekiko edozein eratako hutsak alegia: Mokoroak bidalitako txostenaren zati handienak, esaterako, era honetako kontuez dihardu eta era honetakoak dira, hain zuzen ere, Orixek errazen onartu zizkionak.<sup>31</sup> Hauxe da bada bi idatzaldien arteko alde nagusia. Honetan guztian —hau ere esana dugu— eragin handia izan zuen BAC-eko edizioa mahai gainean eduki ahal izanak: edizio honetako testuaren eta, noizean behin, gaztelaniazko itzulpenaren arabera zuzendu, gehitu eta ezabatu ziren hitz eta perpaus asko.<sup>32</sup> Eta esan gabe doa mamiari zegozkion aldaketa hauekin batera idazkera hobetzea helburu zuten aldaketa asko eta asko sartu zirela C-tik B-ra: daitekeena da era honetakoak izatea egin ziren gehienak.

Hortaz, idatzaldi berria egiteko zergatikoa nagusia —Orixek aitortua eta testuaren historiak berretsia— oztupo betetako san Agustinen latin nekagarria zuzenago emateko gogoia izan zen; gero, ohi bezala, batzuetan berariaz eta beste batzuetan —seguruenik— oharkabean, itzulpenaren beste alderdi batzuk ere ukitu zituen: aldaketa hauetako batzuek testuaren txukuntasunari begiratzen zioten (paragrafokako antolamenduak, kapituluei ipinitako izenburu modukoak, Bibliatiko aipuentzako komatxo eta erreferentziak); beste zenbait, antza, idatzaldi zaharretik berrira doan denboraldian otu zitzaizkion edo, behinik behin, orduan bakarrik gauzatu zituen: Clément Mathieu apezpikuarentzako eskaintza, oinoharrak, akaberako *subscriptio*-a; eta beste batzuk, berriz, estiloarekiko eta hizkuntzarekiko berarekiko ardurak eragin zizkion (eta, horrela, orduko apetaren arabera aldatu zituen hainbat gauza: ilun edo zabar zeuden esaldiak, obraren izenbura bera, hitz askoren itxura, dezentetan baita lexikoa ere, etab.). Ez dut uste bestela izan zitekeenik. Baina, nolahi ere, zeharka bakarrik zaigu axola C-tik B-ra egindako aldaketen zergatikoa: ez gara *Aitorkizunen* genesiaren inguruan ari, hau da, ez gaude idazlearen hizkuntz sormena ikertzen, ezpada —apalkiago— Orixek behin betikotzat jotako testuaren historia berreraikitzen saiatzen; eta C-ren garrantzia, orain eta hemen, B-ko testuak nola behar zukeen erakusteko duen ahalmenean datza, ia-ia orrialde bakoitzean egiaztatu beharko dugun ahalmenean hain zuzen ere.

## 2. B-ren kopiagilea

Axola zaigu jakitea nork jo zuen makinaz B-ko testua: *Aitorkizunen* historiarako izan dezakeen garrantzia alde batera utzita, honen argitan bakarrik ulertu ahal izango ditugulako testu honek —eta, zehazki, B-prior-ekoak— izango dituen gorabehera garrantzitsu zenbait eta, bestetik, honen inguruan iritsiko ahal ditugun ondorioek nahitaez baldintzatuko dutelako B-ren autoritatea. Ikusi dugu lehendabiziko atalean (50 or.) nola ematen zion Orixek Zaitegiri esku artean zituen lanen berri 1955eko otsailaren 15ean Lazkaotik

<sup>31</sup>Bi multzotan sailkatu ahal dira Mokoroak bere txostenean egin zituen proposamenak: jatorrizko testua —Mokoroaren ustez— oker ulertzetik sortu diren hutsei buruzkoak, ezabatzeak barne; eta Orixeren idazkerari dagozkionak —dela itzulpenaren ulergarritasunagatik, dela hizkuntzagatik beragatik—, hemen ere huts mekanikoak eta zenbait adizkiri buruzko iritziak barne direlarik. Ikus III erans. eta, zehazki, 389 or.

<sup>32</sup>*Aitorkizunen* azken hiru liburuetan aldaketok, seguruenik, gutxiagotu egingo ziren, hiru liburu haiek ere —edo, bederen, haien zati handiena— BAC-eko edizioaren argitan itzuli baitziren eta ez, lehenengo lau liburuetan bezala, testu elebarkar batetik edo, gainerako seiak bezala, Trabucco-rena bezalako itzulpen baten laguntzarekin.

bidalitako gutun batean:

Ni S. Agustiñekin ari naiz, batez ere. Opor-aldirako gertu nai nuke, berela Eliz-baimena eskatzeko. [...] Nik bigarren eta azken-iorraldian eman-ala, kopiak ateratzen ditidate.

Adierazpen honek, zerbait frogatzekotan, frogatuko luke 1955eko otsailaren 15era arte eskribitutako testua Orixe ez zen kopiagile batek idatzi zuela, baina ez du inongo baliorik 1955eko otsailaren 16tik aurrera jotako orriei buruz. Abia gaitezen, behar den bezala, testuaz kanpotiko datuetatik testuen ezaugarri fisikoetara eta, hauetatik, azkenik, testuaren barneko irizpideetara.

*Aitorkizunen* bigarren idatzaldi honen gauzatze materialari buruz gogoeta egiterakoan, testuaz kanpotiko datuek —edo, nahiago bada, urte hauetako Orixeren biografiak— behartu egiten gaituzte, nahi eta nahi ez, begiak ipintzera Orixek urte hartan berean eta Lazkaon bertan itzuli zuen —eta, hau ere, ondo dokumentatuta dugun— san Benitoren Erregelari.<sup>33</sup> Eta, izan ere, nahikoa da Erregelaren bigarren behatzizkribua eta *Aitorkizunen* bigarren idatzaldiarena bekaldetzea berehalakoan konturatzeko biak jo direla makina berean eta, batez ere, kopiagile berberak jo dituela biak.<sup>34</sup> Hala salatzen dute bi testuok eskribitu dituenaren ohitura xeble zenbaitek —hain zuzen ere, kopiagile batek hasitako lan batekin jarraitu behar lukeen beste kopiagile batek antzeratuko ez lituzkeen ohitura batzuek—: batik bat, galdera eta harridura markaren aurrean eta, orobat, bi puntuen eta puntu eta komaren aurrean (baita, batzuetan, komaren aurrean ere) hutsune bat uztekoak;

Ez nuke ordea eskua sutan jarriko zeren eta, egia badirudi El Salvadorren ere BAC izan zuela, orobat ematen baitu ezin izan zuela etxean eduki nahi hainbat denboran (ikus 45-46 or. eta II erans.) eta, bestalde, azken hiru liburuen hizkuntzaren zailtasuna aurreko liburuena baino askoz handiagoa da.

<sup>33</sup>Gorago esan bezala (51-52 or.), Orixek egindako Erregelaren itzulpena Lazkaoko beneditarrek argitaratu zuten 1980an. Elkarren osagarriak diren bi behatzizkribu gorde dira Lazkaoko liburutegian: lehendabizikoak Erregelaren XXXVI-LXXXIII atalak ditu eta, zenbakirik ez duen hasierako orri batez gain, 23tik 46ra zenbatutako orriak (267 x 215 mm. luze-zabalean); bigarrenak I-XXXV atalak eta 1-50 bezala zenbatutako orriak (137 x 225 mm. neurrikoak, hau da, zabalean dago idatzita). Lehenengo behatzizkribuaren [I] orriari bigarren behatzizkribuaren orrien tamainako beste orri bat itsatsi zaio (berez, 120 mm. ditu garaieran eta, zabaleran, moztuta dago itsatsi zaien orrien neurriari) eta bertan honako hau irakur daiteke, inongo zalantzarik gabe Orixeren eskuak idatzia: «*Aita Benito Gurenaren erregela* / Aita Beneditar Joxe Mari Aizpuruak lagun / Orixe'k itzulia. / Lazkau'n 1955'garen [sic] urtean; [I] orriaren atzeko aldean Isidor Baztarrikaren ohar bat dago: «*Oharra*: Liburu au Orixe-ren textu originala da. Zati bat bere makinaz idatzia eta bestea bere eskuz» eta, oharraren azpian, «Isidor» sinadura gisan azpimarratua. Izan ere, 23-41 orriak makinaz jota daude; 42 orriaren lehenengo herena ere makinaz jo da, baina hemendik aurrerako guztia Orixeren eskuz dago eskribituta. Dударik gabe, lehenengo behatzizkribua lehenengo idatzaldi baten azken zatia da, eta bigarren behatzizkribua, berriz, bigarren idatzaldi baten —hots, kopia garbi baten— lehenengo zatia. Bi behatzizkribu hauen bestelako ezaugarri batzuez ikus hurrengo oharra eta 99 or. 7 oh.

<sup>34</sup>Erregelaren bigarren behatzizkribua aipatu dugu, eta ez lehenengoa, bigarrean ikus daitezkeelako ondoena hemen axola zaizkigun kopiagilearen ohiturak (ikus, adibidez, XIV-XV irud.). Lehenengoa bigarrena baino askoz nahasiago, zabarrago eta zikinagoa da, seguruenik beste makina —zalantzarik gabe txarrago— batean lan egin behar izan zuelako Aizpuruak eta, agian batez ere, zati askotan behintzat Orixek diktatzen ziona eskribitu behar izaten zuelako makinan (ez baitugu inongo arrazoirik zalantzan jartzeko Lazkaoko beneditarren ahoko tradizioak dioena: ikus 52 or. 16 oh.). Baina ez da dudarik bai lehenengoa bai bigarrena Aizpuruak idatzi zituela: horrela pentsarazten digute (eta pasadizo honi buruzko aipatu lekukotasunez beste), I-XXXV atalak dituen zatia dagokionez, orain lehenengo behatzizkribuari josi zaion baina Orixek bigarrenaren neurrietan egin zuen izenburu-orriak (ikus aurreko oharra) eta, XXXVI-LXXXIII atalak dituenari dagokionez, Orixek berak makinaz jotako testua bukatzen den tokian (42 or.) eskuz idatzi zuen *subscriptio*-ak: «Aquí se rajó mi pinche» (horrela esaten baitzion, txantxetan, Aizpuru aitari).

aipuen erreferentzietan ematen diren bi numeroen artean hutsunerik ez lagatzekoak; eta zero zenbakia idazterakoan *o* xehea erabiltzekoak.<sup>35</sup> Duda izpi txikiena ere ez dugu on Jose Maria Aizpuruak jo zuela makinaz Erregelaren testua: onartu egin beharko dugu, hortaz, *Aitorkizunen* bigarren idatzaldi hau ere aita Aizpuruak eskribitu zuela.

Baina, B-ko testuaren kopiagilea aita Aizpurua izan zela frogatutzat jo badezakegu ere, merezi du aztertzea —hauxe baita, azken batean, honetan guztian gehien axola zaiguna— Orixe ez zen kopiagile bat izan zela erakutsi ahal duten testuaren barneko ezaugarriak (zeren eta arestian erabili dugun kopiagilearen ohiturei buruzko irizpidea ere testuaz kanpotikoa baita). Gauza ezaguna da egileak ez direla kopiagile onak izaten eta, izan ere, kopiagileek egin ohi dituzten huts mota guztiak egin ditzakete, sarriago gainera eskuarki; baina bada huts mota bat —eta, esateko moduan, bakarra— zeinetan ezberdin jokatu ohi baitute kopiagileek eta egileek: *i r a k u r t z e - h u t s a k*.<sup>36</sup> Orixerena ezin izan den esku bat salatzen duten era honetako hamaika huts daude B-ren testuan, zein baino zein frogagarriagoa. Honako hau, esaterako, irakurtze-hutsa baino gehiago da:

[...] et in illa contemnebaris a me, a me, filio eius [...] eta ala *erezten* zindun Zu aren [sc.  
(II, 3, 7) Monikaren] seme onek (B, 20 or. [41, 28-42, 1]);

«erezten» Orixek eskuz zuzendua dago, lerroen arteko zurian *z* idatzita dagoelarik *r*-aren gainean eta *z*-ren gainean *s*, «ezesten» irakur dadin (ikus 110 or.); «erezten» hitzak ordea ohar-deia darama eta oharrak honako hau dio: «*eretsi*: aintzat ez artu» (ikus IV erans.); zaila zatekeen Orixek «erezten» idaztea «ezesten» baten ordeaz, baina erabat ezinezkoa da oharrean ere «eretsi» ipini izana. Beste hau ere antzekoa da:

<sup>35</sup>Adibidez: «Ezaguteko deitzen ote zaitugu?» (1 or. = I, 1, 1 [9, 17]); «[...] berrikerontzi baitira!» (3 or. = I, 4, 4 [12, 23-24]); «Zerorrek naragizu Zu goxoki gorestera; izan ere Zuretzat egin gaituzu [...]» (1 or. = I, 1, 1 [9, 10-11]); «Idazu, launa [Jauna B], bi auetan zer dan lenik iakitea ta ezagutea: Zuri dei egitea, ala Zu gorestea» (1 or. = I, 1, 1 [9, 13-14]); etab. (Komari dagokionez, kapituluaren izenburuetan bakarrik uzten du hutsune bat ezkerreko aldetik: «launa [Jauna B] deituz bilatu, ta sinetsiz deitu» [1 or. = I, 1, iz. <9, 3>]). Numeroen arteko hutsune eza ere, esan bezala, askotan ikusi ahal da, eta beti, berriz, zero zenbakia egiteko aipatu modua: «Ps. 18,13» (2 or. = I, 5, 6 [13, 23-24]); «Ps. 101,28» (5 or. = I, 6, 10 [16, 27]); noski, 'bat' zenbakia ele letra xehearen bidez egiten da beti); etab. Ezin eztabaidatuzkoa da hauexek direla kopiagilearen ohiturak (nahikoa da —eta ez dakit nola eman litekeen honen guztiaren froga, behatzizkribuaren beraren faksimil oso bat eman ezean— V-VI irudiei begiratzea), baina honek ez du esan nahi, noski, salbuespenik gabeko arauak direnik: batetik, aipatu ditugun arauak edo ezaugarriak kopiagileak arretaz eskribitzen duenean bakarrik betetzen dituelako, hau da, zabarrago-edo ari denean huts egiten du (B-n bertan ikus daiteke hau noizean behin, eta oso modu nabarmenean, lehen esan dugunez, Erregelaren lehenengo behatzizkribuan); bestetik, ezaugarri hauetako bat edo beste ondo finkatu gabe ikus ditzakegu oraindik *Aitorkizunen* testuaren hasieran: adibidez —eta hauxe da, aipatu ditudanetan, kasu markagarriena—, erreferentzietako bi zenbakien arteko hutsune ezari dagokiona behatzizkribuaren 3. orrian bakarrik hasten da, eta ondorengoetan ere salbuespenak daude oraindik.

<sup>36</sup>Hau da, egileek ere egiten dituzte irakurtze-hutsak, baina kopiagile aruntek baino gutxiago —eta, pentsatzekoa da, arinago—. Egileek mekanikoak ez diren hutsak egin ohi dituztelako egiaztapena —eta ez gara ja irakutze-hutsei buruz bakarrik ari— harrigarria gertatzen da beti, baina testukritikari buruzko eskuliburu ezagunenetan ematen diren adibideak baino harrigarriagoak dira —hots, esanguratsua goak— Orixek berak *Aitorkizunen* testua zuzentzerakoan —esan nahi baita, ez bakarrik testu bat idazterakoan— egindako zenbait: esaterako, «izkutu B : ikaratu m2» eta ez, behar zuen bezala, «izutu» (37 or. = III, 11, 20 [71, 14]); edo —larrienak baino ez aipatzearren— «gogoen atean B : gogoen artean m2» eta ez «gogomatean» (60 or. = V, 10, 19 [118, 6-7]); eta, orobat, antzeman arren zuzendu ezin izan zituen hutsak: «iakintzea», «opro», «arreratu», etab. (ikus, hauei eta hauek bezalako beste batzuei buruz, 128-133 or.). Hau guztia, beraz, oso kontuan izan behar genuke



Nec iam ingemescebam orando ut subvenires mihi, sed [...] (VI, 3, 3)	Ez nizon oraino otoitzetan intzirinik egiten, <i>lagun zenkididan</i> ; aldiz ene gogoa [...] (C, 63 or.)	Ez nizon oraiño otoitzetan intzirinik egiten <i>zintzaidan, lagun</i> ; aldiz, ene gogoa [...] (B, 64 or. [128, 19-20]).
--	---	--

Argi dago B-koa «Ez nizon oraiño otoitzetan intzirinik egiten, zintzaidan lagun» ulertu behar dela, Lekuonak gero zuzenduko zuen bezala: Orixek, aditz laguntzailea aldatzeaz gain —C-tik B-ra askotan bezala—, partizipioaren ezkerrera pasatu nahi izan zuen, baina B kopiatu zuenak pentsatu zuen «zintzaidan» hori «egiten» aditzaren laguntzailea dela, eta hortik abiatuta, ezinbestean, «lagun» bokatibo gisa ulertu behar izan zuen. Hots, eta berriz ere, egileak nekez egin dezakeen hutsa. Bosgarren liburuan hiru aldiz agertzen da *egari* aditza, hau da, 'supritu', Orixek berak azaltzen duen legez (ikus IV erans.): kopiagileak ez du ulertu eta, banalizazio bat eginez, «egarri» kopiatu du hiruretan —ez ahantz erre 'gangarduna' erabiltzen duela Orixek—:

Sed etiam talis infirmitas in fidei cunabulis a caritate matre <i>sustinetur</i> [...] (V, 5, 9)	Gaitz au ere siñestearen seaskan ama maitasunak <i>egari</i> oi du (C, 52 or.)	Gaitz au ere, ama maitasunak <i>egarri</i> oi du siñestearen seaskan (B, 55 or. [108, 3-4]);
[...] quales multos loquaces <i>passus eram</i> [...] (V, 7, 12)	olakorik aski <i>egaririk</i> bainago (C, 54 or.)	olakorik aski <i>egarririk</i> bainago (B, 57 or. [111, 3-4]);
Ergo quos mores cum studerem meos esse nolui, eos cum docerem cogebar <i>perpeti</i> alienos [...] (V, 8, 14)	Nik ikasletan maite ez nitun oiturak, irakasletan <i>egari</i> -bearra nedukan (C, 55 or.)	Nik ikasletan maite ez nitun oiturak, iokasletan [sic] <i>egari</i> -bearra nedukan (B, 57 or. [113, 3-4]).

Ez dirudi egileak hau bezalako huts bat egin dezakeenik. Beste horrenbeste esan daiteke, beldurrik gabe, honako huts honen gainean:

[...] Omnipotens, « <i>qui facis mirabilia solus</i> » (IV, 15, 24)	Guzia al duzun eta «bakarrik arrigarriri <i>diarduzun</i> Jauna» (C, 45 or.)	[...] guzia al duzun eta «bakarrik arrigarriri <i>biar duzun</i> Jauna» (B, 50 or. [95, 1-2]).
---	--	--

Hau da, jatorrizko «diarduzun» adizkia «biar duzun» bihurtu da: nekez egotziko ahal genioke Orixeri, eta are gutxiago kontuan hartzen badugu —beharrezkoa ez bada ere— ez duela inoiz erabiltzen «biar» *behar* hitzaren aldaera bezala. (Huts berbera gertatu da XII, 18, 27 paragrafoan, betiere B-ko testuan: ikus 239 eta 281 or.). Era bertsukoak dira —iruzkindu beharrik ez dute, berez hitz egiten baitute klaru asko— zerrendatxo honetakoak:

[...] <i>appetitus adipiscendi</i> alicuius illorum bonorum [...] aut metus amittendi (II, 5, 11)	[...] gauzaño orien <i>ukan</i> -naia edo galdu-bildurra (C, 19 or.)	[...] gauzaño orien <i>ukari</i> -naia edo galdu-bildurra (B, 22 or. [45, 8-9]);
---	--	--

—eta hona iritsi nahi genuen— irakurtze-hutsak erabili nahi baldin baditugu frogatzeko kopiagilea egilea ez zen norbait izan zela: baina, guztiarekin ere, ondoren datozen adibideak nahikoa argiak eta, beraz, frogagarriak direlakoan nago. (Egileen hutsei buruzko azalpen sistematiko on bat —orain axola zaizkigun auziaren aurpegi batzuk kontuan hartzen dituena— hemen aurkitu ahal da: Roncaglia [1975, 34-44 eta 51-52 or.]; baina ikus baita ere, 131 or. 102 oh., Timpanaro-ren aipua).

[...] nec <i>animalia</i> nec corporalia per os considerantium ea [...] (V, 1, 1)	[...] <i>ihize</i> ta mukulu, aieri so dagiegunen agoz (C, 49 or.)	[...] <i>ihire</i> ta mukulu, aieri so dagiegunen agoz (B, 53 or. [101, 17]);
[...] quamquam quomodo se haberet spiritalis substantia, ne quidem <i>tenuiter</i> atque in aenigmate suspicabar (VI, 3, 4)	gogakia zer zanik ez bainun den <i>gutienik</i> eta urrundik ere iduritara (C, 64 or.)	gogakia zer zanik ez bainun den <i>guztienik</i> eta urrundik ere iduritara (B, 65 or. [130, 8-10]); <sup>37</sup>
Sed si <i>minus noti</i> sunt populis, minus de illis gaudent etiam qui noverunt eos (VIII, 4, 9)	Errrian <i>ezagungabego</i> ba dira, dazagutzenak aietaz gutiago pozten dira (C, 97 or.)	Errrian <i>ezagungabeko</i> ba dira, dazagutzenak aietaz guttiago pozten dira (B, 91 or. [190, 23-24]); <sup>38</sup>
[...] <i>exaudires</i> eos, cum clamarent ad te (IX, 4, 9)	eta Zu'ri deika <i>entzunen</i> zenituke (C, 113 or.)	eta «Zu'ri deika» <i>entzuten</i> zenituke (B, 103 or. [219, 12-13]).

Orain arte ikusitako adibide hauek guztiak I-IX liburuetatik daude hartuta, hauetan ikus daitekeelako garbien eta erosoena —testuaren beste lekukotasun bat dugulako— hutsaren nondik norakoa. Baina ez dugu beharrezko aurreko idatzaldi bat ezagutzea egilearena ezin izan daitekeen huts bati antzemateko. Eta, bestalde, 1956ko edizioaren testua ere badugu (A): sarri samar ikusi beharko dugun bezala, A-k, askotan, B-k baino irakurketa hobekoak ditu —berriz ere, *recentiores non deteriores*—. Hona hemen adibide batzuk:

tactus dicit: «si corpulentum non est, non <i>contractavi</i> , si non <i>contractavi</i> , non indicavi» (X, 10, 17)	«mukulurik ez ba du», diago ukimenak, «ez dut <i>eskutatu</i> , ta <i>eskutatu</i> ez ba dut ez dut sumarazi» (B, 120 or.)	«mukulurik ez ba du», diago ukimenak, «ez dut <i>eskukatu</i> ; ta <i>eskukatu</i> ez ba dut, ez dut sumarazi» (A, 257, 18-19);
(X, 16, iz.)	<i>Auztea</i> (aztutzea) nola dago oroimenean? (B, 122 or.)	<i>Anztea</i> (aztutzea) nola dago oroimenean? (A, 263, 9);
[...] cum <i>oblivionem</i> nomino [...] (X, 16, 24)	<i>Auztea</i> aipatzean [...] (B, 122 or.)	<i>Anztea</i> aipatzean [...] (A, 263, 10);
[...] in quo sunt omnes thesauri <i>sapientiae</i> et scientiae absconditi (XI, 2, 4)	Arengan baitaude gorderik <i>Zu gurtze</i> ta iakite iturri guziak (B, 141 or.)	Arengan baitaude gorderik <i>zugurtze</i> ta iakite iturri guziak (A, 306, 12-13);

<sup>37</sup>Hutsa bereziki sinesgaitza da Orixerengan, «guzi» erabiltzen baitu —ez «guzti»—, ia-ia inoiz huts egin gabe.

<sup>38</sup>Orixeren hizkeraren ezaugarrietakoa da «-ago» normalaren ordez «-go» erabiltzea. Hona hemen adibide batzuk —*Aitorkizunetan* dauden guztiak jasotzeko inongo asmorik gabe—: «errukarrigo» (I, 13, 21 [26, 12]), «gaiztagabego» (II, 6, 13 [47, 13-14]), «urrikarrigo» (III, 2, 3 [55, 19]; VI, 16, 26 [151, 5-6]), «doatsugo» (III, 8, 16 [67, 11]; V, 4, 7 [106, 13 eta 15]), «norgeigoka» (IV, 1, 1 [75, 12]; IV, 2, 3 [77, 5-6]), «izkutugo» (V, 5, 8 [107, 12]), «zoragarrigo» (V, 6, 10 [109, 1]), «siñesgarrigo» (VI, 5, 8 [133, 24]), «agurgarrigo» (VI, 5, 8 [133, 24]), «maitego» (VI, 10, 16 [142, 12]), «aundigo» (VII, 1, 2 [155, 7]; VIII, 4, 9 [191, 17]), «arrigarrigo» (IX, 6, 14 [223, 4]), «gutxigo» (X, 37, 61 [294, 22]; XIII, 1, 1 [378, 2]), «luzarogo» (XI, 23, 29 [327, 8]), «ugarigo» (XII, 27, 37 [369, 12]), «adimentsugo» (XIII, 24, 36 [408, 8]), etab. Mitxelenak [1959, 118 or.] 'gipuzkera laburtua' deitu zuenaren ezaugarrietakoa da.

[...] unde fieret alterum caelum et terra visibilis atque composita et aqua <i>speciosa</i> et quidquid deinceps in constitutione huius mundi [...] factum commemoratur [...] (XII, 12, 15)	artatik beste zerua ta ikuskaria ta ur <i>eiten duna</i> eta gero izadi ontan gertatzen dan oro (B, 160 or.)	artatik beste zerua ta <...> ikuskaria ta ur <i>eitenduna</i> eta gero izadi ontan gertatzen dan oro (A, 350, 14-15);
Quis deinde sic acutum cernat animo, ut sine labore magno dinoscere valeat, quomodo sit prior sonus quam cantus, ideo quia cantus est <i>formatus sonus</i> [...] (XII, 29, 40)	Ostera zein ain buru ernai neke aundi gabe bereizteko soñua nola dan lenago kanta baiño, kantua <i>soñua eiten duna</i> baita [...] (B, 171 or.)	Ostera, zein ain buru-ernai, neke aundi gabe bereizteko soñua nola dan lenago kanta baiño, kantua <i>soñu eiteduna</i> baita [...] (A, 372, 19-21);
[...] quid [...] mihi obest, si aliud ego sensero, quam sensit alius eum <i>sensisse</i> , qui scripsit? (XII, 18, 27)	zerk eragozten dit, idatzi zunak <i>biar dula</i> uste dunetik nik ostera iriztea? (B, 164-165 or.)	zerk eragozten dit, idatzi zunak <i>diardula</i> uste dunetik nik ostera iriztea? (A, 359, 2-3);
ut et quod utcumque vivit et quod beate vivit, non <i>deberet</i> nisi gratiae tuae (XIII, 3, 4)	Nola bait bizi danak eta doatsu bizi danak ez <i>bazaio</i> zor Zure graziari besteri (B, 174 or.)	Nolabait bizi danak eta doatsu bizi danak ez <i>bezaio</i> zor Zure graziari besteri (A, 380, 5-6).

Sinets bekik zerrenda hau nahi adina luza genezakeela: ez dut uste horren beharra dagoenik.

Badira bestelako aztarren batzuk Orixe ezin izan daitekeen kopiagile bat sumarazten digutenak: ikusgarriena —agian baita, gorago ikusitakoez landa, esanguratsuen edo seguruena ere— *s* eta *z* letrak nahasteagatik B-ko testuan sortu diren huts ugariak erakusten dute. Izan ere, nahikoa da beherago eman dudana era honetako hutsen zerrendari begiratzea berehalakoan ondorioztatuta ahal izateko B-ko testuaren kopiagileak ez zituela ondo bereizten —idazterakoan behintzat, euskaldun askok bezala— *s* eta *z* fonemak eta, oroimenak huts egiten zionean —hots, irakurri berria zuen eta idaztera zihoan pasartearen oroipenak—, bi letrak nahasteko arriskuan jartzen zela.<sup>39</sup> Oso sarri gertatzen den hutsa da (A testua jo zuten Zarauzko inprimategiko langileek ere askotan egin zuten), eta ez luke azalpen gehiagoren beharrik makinaz jotako testu baten aurrean ez bagina. Auzia, berez, hutsen zergatikoa da. Huts guztiak *s* eta *z* fonemak behar bezala ez bereizteagatik sortuak izan balira, **barne-diktaketan sortutako hutsak** izango lirakeke —barne-diktaketan sortuak eta, esan bezala, kopiagilearen hizkeraren aipatu ezaugarriak eragindakoak—,<sup>40</sup> baina makinaz jotako testu baten aurrean garez gero, ezin dugu kontuan ez hartu *s* eta *z* letrak elkarrengandik oso hurbil daudela idazmakinan, hau da, ezin dugu besterik gabe baztertu

<sup>39</sup>Esan gabe doa san Benitoren Erregelaren behatzizkribuan ere oso sarri trukatzan direla *s* eta *z* letrak; bigarren behatzizkribuaren lehenengo bost orrietan, esaterako, honako hauek ikus daitezke (makinaz zuzenduta daudenak kontuan hartu gabe): «saindu bear dira» (23 or.); «Sarrak eta aurrak» (ib.); «sarrekin eta aurrekin» (ib.); «esarri» (ib.); «auzartu» (24 or.); «zarrerazi» (25 or.; *sartuarazi* alegia); «zaisten» (ib.); «eskero» (ib.); «zalbatu» (26 or.); «arratzaldean» (ib.); «Atzaldeko» (ib.); «Arratz-otoitza» (ib.); «eskero» (ib.); «altsa» (ib.); hots: *alxa*; «bites» (ib.); «aztiz» (ib.); «aztiro» (ib.); «lusatuz» (27 or.); «aztiro» (ib.); «etsatea» (ib.); «auzartu» (ib.).

<sup>40</sup>Era honetako hutsak, hau da, barne-diktaketari egotzi behar zaizkion huts *i a - i a s i s t e m a t i k o a k*, hizkuntza askoren historian ikusi ahal dira: latinean —eta oso goizetik— *ae* eta *e* nahasteagatik, italieran

e s k r i b i t z e - h u t s a k egingo lituzkeen hipotesia: adibidez *a* eta *z* edo *i* eta *o* letrak trukatur —hauek ere elkarren ondoan baitaude idazmakinan— sortu diren huts ugari samarren antzera;<sup>41</sup> eta esan beharrik ez dago eskribitze-hutsak, batez ere —makinaz jotako testuetan gertatzen den bezala— inongo osagai psikologikorik ez dutenean, berdin-berdin egin ditzakeela egileak eta egilea ez den kopiagileak. Arrazoi asko daude ordea —eta hauetako edozein nahikoa izango litzateke bera bakarrik— lehenengo hipotesiaren alde eta bigarrenaren kontra: lehendabizi, *s* eta *z* letrak nahasteagatik sortu diren hutsak askoz ugariagoak direlako testu honetan bertan gertatu diren eskribitze-huts ugarietak baino, nahiz eta azken hauetan trukatu diren letrak *s* eta *z* baino maiztasun handiagokoak izan;<sup>42</sup> bigarrenez, aztergai dugun hutsa askoz sarriago gertatu delako B-ko testuan Orixek makinaz eskribitutakoetan baino —hau da, Orixek jotakoak direla seguru dakigun testuetan baino—;<sup>43</sup> hirugarrenik, B-prior-eko testua eskuz zuzentzerakoan oso jarrera desberdina izan zutelako, betiere era honetako hutsei dagokienez, kopiagileak eta Orixek, batari eta besteari egotzi ahal baitzaizkio, hurrenez hurren, m1 eta m2 izendatu ditugun bi eskuen zuzenketak: kopiagileak (m1-ek) ez du honelako huts bat ere zuzendu, eta Orixek (m2-k), berriz, 32 zuzendu ditu.<sup>44</sup> Esan gabe doa huts hauek guztiak B-ko testuaren antigrifoaren bidez esplikatuta nahi lituzkeen

kontsonante geminatuekin, frantses zaharrear *ai* eta *e* trukatur, gaztelanian *b* eta *v* letren artekoa, etab. Ikus, besterik gabe, Roncaglia [1975, 117-118 or.].

<sup>41</sup>Ohar bedi 'eskribitze-hutsak' bezala itzuli dudala *errori d'esecuzione manuale* edo *errori d'esecuzione materiale* deitu ohi direnen izena: ikus aipatutako Roncaglia [1975, 104 eta 116-118 or.].

<sup>42</sup>B-ko testuan sarrien gertatu diren eskribitze-hutsak (hau da, idazterakoan bakarrik sortu ahal izan diren hutsak alegia) dira, izan ere, *a* eta *z* edo *i* eta *o* letrak trukatzegatik sortutakoak: hau horrela izateko arrazoi —eta arrazoi mota— asko egon badaiteke ere, bistan da *a*, *i* eta *o* letrak maizago agertzen direla euskarazko testu batean *s* letra baino eta, hala ere, B-ko testuan ugariagoak dira askoz *s* eta *z* letren arteko nahasketa beste bi bikote haiena baino. (Adibidez, guztira 17.348 letra dituen *Aitorkizunen* pasarte batean honako proportzio hauek aurki ditzakegu: *a* letra 2.121 bider agertzen da; *i* letra 1.547; *o* letra 648; *s* letra 243; eta *z* letra 1.018). Hona hemen, bada, *a* eta *z* letrak trukatzegatik B-ko testuan sortu diren huts batzuk: «aeruan» eta ez «zeruan» (99 or. = VIII, 12, 29 [208, 9]), «zrgitsua» eta ez «argitsua» (170 or. = XII, 28, 39 [371, 27]), «egiz» eta ez «egia» (171 or. = XII, 29, 40 [372, 4]), «aintzoak» eta ez «zintzoak» (185 or. = XIII, 23, 34 [406, 20-21]), «zietan» eta ez «aietan» (123 or. = X, 17, 26 [265, 19]), «zintzinean» eta ez «aintzinean» (82 or. = VII, 9, 15 [169, 1]), «lepoz» eta ez «lepoa» (89 or. = VIII, 2, 3 [186, 20]), «zien» eta ez «aien» (108 or. = IX, 9, 19 [228, 21]), «biotz-oiua» eta ez «biotz-oiuz» (134 or. = X, 35, 57 [290, 26]), «zeruz» eta ez «zeruan» (191 or. = XIII, 32, 47 [418, 23]). Eta hona hemen *i* eta *o* letrak nahastetik etorritako zenbait: «neurrorra» eta ez «neurrira» (153 or. = XI, 27, 36 [333, 19]), «eragizten» eta ez «eragotzen» (164 or. = XII, 18, 27 [359, 1]), «sirkari» eta ez «sorkari» (170 or. = XII, 28, 39 [371, 23]), «bereozten» eta ez «bereizten» (86 or. = VII, 19, 25 [179, 7]), «obeko» eta ez «obeki» (132 or. = X, 33, 50 [285, 2]), «itsegín» eta ez «otsegín» (141 or. = XI, 2, 3 [305, 9]), «altziratur» eta ez «altzoratur» (184 or. = XIII, 22, 32 [404, 11]).

<sup>43</sup>Argudio hau, paradoxa iruditzen arren, ez da berez aurrekoa bezain frogagarria, kopiagileak bere lanean ipintzen duen arreta ere aldatu egin daitekeelako ez bakarrik momentu batetik beste batera, ezpada baita garai batetik beste batera ere. Nolanahi ere, hauek dira C-n —segurutzat jo baitzakegu Orixek eskribitutakoa dela— aurkitu ahal izan ditudan guztiak: «ontas» (12 or. = I, 17, 27 [31, 17]), «asi» (37 or. = IV, 4, 7 [80, 6]), «creverat»), «edertazunean» (47 or. = IV, 16, 29 [98, 2]), «ioan-etorrietas» (52 or. = V, 5, 8 [107, 16]), «naguziari» (60 or. = V, 13, 23 [121, 5]), «aztunagoaz» (67 or. = VI, 6, 9 [135, 6]), «ardietzi» (67 or. = VI, 6, 9 [135, 8]), «naguzi» (83 or. = VII, 7, 11 [165, 14]), «zintzos» (93 or. = VIII, 1, 2 [184, 12]), «uzuz» (100 or. = VIII, 6, 14 [195, 20]) eta «atza» (109 or. = IX, 1, 1 [212, 11]). Azpimarratu beharra dago gehienak Ca-alter-en bertan daudela zuzenduta: 5 m a k i n a z —ohar bedi ondo— eta 2 eskuz; zuzendu gabe daude —baina bai apika, ez dezagun ahanztz, ca-prior-en— «asi», «edertazunean», «aztunagoa» eta «atza».

<sup>44</sup>Ikus honetaz, beheerago, 85-87 or. Ez ditut kontuan hartu —eta askotxo dira— B-ko testuan makinaz zuzenduta daudenak, hutsaren nolakotasunari dagokionez zuzendu gabe gelditu direnak bezain adierazgarriak badira ere; hutsa egin eta berehalakoan zuzendu izanak esan nahi duen gauza bakarra da kopiagileak berriz irakurri zuela erduan, kasu hauetan, kopiatutako pasartea —azken batean, arreta gehiago ipini zuela bere burua zuzentzen—, baina lehenengo hutsaren zergatikoa —eta hauxe da hemen esanguratsua— zuzendu gabeena bera

hipotesia —hau da, B-ko testuan dauden era honetako hutsak b-tik datozela aldeztu nahi lukeen hipotesia— arestian eman ditugun bigarren eta hirugarren argudioek ezetzatuko luketela eta, hauetaz gain, baita laugarren batek ere: Orixek eskuz idatzitako testuetan (b ere eskuz idatzia baitzen: ikus 91-93 or.) horrelako hutsik ez egoteak. Hona hemen, bada, B-ko testuan *s* eta *z* letrak nahasteagatik sortutako hutsen zerrenda:<sup>45</sup>

	C	B	A
I or. [5, 18]		azi	asi [m2]
I or. [6, 4]		ikaskiñen	ikazkiñen [m2]
1 or. = I, 1, 1 [10, 1]	naski	nazki	naski [m2]
3 or. = I, 5, 5 [13, 15]	naiz	nais	naiz [m2]
9 or. = I, 10, 16 [22, 14]	zuten	suten	zuten [m2]
10 or. = I, 11, 18 [24, 12]	esaten	ezaten	esaten
10 or. = I, 12, 19 [25, 8]	lotsagarria	lotzagarria	lotsagarria
11 or. = I, 13, 21 [26, 14]	baitzegin	baitsegin	baitzegin [m2]
11 or. = I, 13, 21 [26, 21]	lotsatu	lotzatu	lotsatu [m2]
12 or. = I, 13, 22 [27, 15]	letraz	letras	letraz [m2]
13 or. = I, 15, 24 [29, 13]	atsegiñezko	atsegiñesko	atsegiñezko [m2]
15 or. = I, 18, 28 [32, 18]	izkera	iskera	izkera [m2]
15 or. = I, 18, 28 [33, 6]	zan	san	zan [m2]
20 or. = II, 3, 5 [40, 22]	itzez	itsez	itzez [m2]
20 or. = II, 3, 7 [41, 28]	ezesten	erezten	ezesten [m2]
21 or. = II, 3, 8 [42, 26]	uskeriak	uzkeriak	uskeriak
24 or. = II, 6, 14 [48, 15]	nagusiagandik	naguziagandik	nagusiagandik [m2]
26 or. = II, 9, 17 [51, 9]	adiskidego	adizkidego	adizkidego
29 or. = III, 3, 5 [56, 23-24]	izketatzeko	isketatzeko	izketatzeko [m2]
30 or. = III, 4, 8 [59, 6]	iankozkoari	iainkozkoari	iainkozkoari [m2]
34 or. = III, 7, 13 [64, 26]		basterrean	bazterrean [m2]
36 or. = III, 10, 18 [69, 22]	atzemana	atsemana	atzemana [m2]
37 or. = III, 10, 18 [70, 5]	eskaturik	ezkaturik	eskaturik
45 or. = IV, 8, 13 [85, 14-15]	bestelako	beztelako	bestelako [m2]
49 or. = IV, 14, 21 [93, 5]	goresten	gorezten	goresten [m2]
49 or. = IV, 14, 21 [93, 5]	siriar	ziriar	siriar [m2]
49 or. = IV, 14, 21 [93, 11]	goresten	gorezten	goresten [m2]
50 or. = IV, 15, 26 [96, 11]	iakintsu	iakintzu	iakintsu [m2]
51 or. = IV, 15, 26 [96, 19]	atzerritu	atserritu	atzerritu
51 or. = IV, 16, 29 [98, 8]		zendoa	sendoa

da. Guztiarekin ere, nago ondoren datorren zerrendakoeekin nahikoa dela.

<sup>45</sup>Ondoko zerrendan *s* eta *z* letrak bakarrik trukatu dituzten hutsak hartu ditut kontuan: esaterako, ez ditut jaso «atsegiten B : etzegiten m2A» (10 or. = I, 12, 19 [25, 5]; C-n ez dago ordetzorik) edo «azter C : aspertu BA» (C, 124 or., B, 112 or. = IX, 13, 34 [239, 1]) bezalako kasuak. Kanpoan utzi ditut, orobat, C-k ere B-k duen huts berbera duenean: «asi CBA» (C, 37 or., B, 42 or. = IV, 4, 7 [80 6]; «creverat»), «atza CB : atsa m2A» (C, 109 or., B, 100 or. = IX, 1, 1 [212, 11]), etab. Berez, era honetako kasuetan C-k eta B-k huts bera izateak ez du nahitaz esan nahi b-k ere huts hori zuenik baina, guztiarekin ere, nahiago izan dut aipatu kasuak zerrendan ez sartu. Ezkerreko zutabeen C-ko testuaren irakurketa eman dut begien bistakoa denean B-ko irakurketa okerrari dagokiola, hots, argi dagoenean bi pasarteek, axola zaigun hitzari dagokionez behintzat, testu bera dakartela; eskuineko zutabeen A-ko irakurketa dago —ez beti zuzena—: B-prior-etik ibili diren eskuetako bati zor bazaio adierazi egin dut («m3» eta «m5» laburduren esanahiari buruz ikus 96 or.; «Oz»-ri buruz ikus 288 or.).

56 or. = V, 6, 10 [109, 10]	baiesten	baiezten	baiezten
56 or. = V, 6, 10 [109, 16-17]	izketa	isketa	izketa [m2]
56 or. = V, 6, 11 [109, 24]	uztea	ustea	ustea [m2]
56 or. = V, 6, 11 [109, 25]	gisa	giza	gisa [m2]
58 or. = V, 8, 14 [113, 9]		irakazbide	irakazbide
58 or. = V, 8, 15 [114, 7-8]	eskutzen	ezkatzen	eskutzen [m2]
58 or. = V, 9, 16 [115, 5]	suntsitua	suntzitua	suntsitua [m2]
59 or. = V, 10, 19 [117, 23-24]	etxenagusiari	etxenaguziari	etxenagusiari [m5]
61 or. = V, 12, 22 [120, 17]	gutiesten	gutxiezten	gutxiesten
62 or. = V, 14, 24 [123, 3]	iakintsuak	iakintzuan [sic]	iakintsuak
62 or. = V, 14, 24 [123, 5]	ba nenkusan	ba'nekuzan	ba'nekusan
67 or. = VI, 6, 9 [134, 24]	kezka	keska	kezka
67 or. = VI, 6, 9 [135, 17]	kezka	keska	kezka
67 or. = VI, 6, 10 [136, 5]	kezkak	keskak	kezkak
71 or. = VI, 11, 18 [144, 9]	gauzetaz	gauzetaz	gauzetan
71 or. = VI, 11, 18 [144, 24]	giza-gorputzez	gisa-gorputzez	giza-gorputzez
71 or. = VI, 11, 18 [145, 6]	kezka	keska	kezka
78 or. = VII, 5, 7 [159, 24]	kezka	keska	kezka [m3]
80 or. = VII, 7, 11 [164, 16]	siñes	siñez	siñes
81 or. = VII, 9, 13 [166, 17]	aundigosez	aundigozez	aundigozez
83 or. = VII, 11, 17 [171, 4]	nenkusan	nenkuzan	nenkuzan [.s. Oz] <sup>46</sup>
83 or. = VII, 12, 18 [172, 4]	utsa	utza	utsa [m3]
85 or. = VII, 17, 23 [176, 6]	ikus-eziñak	ikus-esiñak	ikus-eziñak
91 or. = VIII, 4, 9 [190, 19]	laister	laizter	laister [m2]
93 or. = VIII, 6, 14 [195, 28]	ez	es	ez [m2]
94 or. = VIII, 6, 15 [196, 27]	laister	laizter	laister
94 or. = VIII, 7, 16 [198, 7]	eragotzi	eragotsi	eragotzi [m2]
100 or. = IX, 1, 1 [212, 3]	uztea	ustea	ustea [m3; .z. Oz] <sup>47</sup>
100 or. = IX, 1, 1 [212, 11]	atza	atza	atsa [m2]
111 or. = IX, 12, 29 [235, 11]	agortzeraiño	agortseraiño	agortzeraiño [m3]
111 or. = IX, 12, 32 [237, 14]	Anburusi	Anburuzi	Amburuzi
112 or. = IX, 13, 35 [239, 15]	zorduneri	sorduneri	zorduneri [m3]
115 or. = X, 3, 4 [246, 1]		etziz	etsiz
115 or. = X, 3, 4 [246, 10]		ezazu	esazu [m3]
115 or. = X, 4, 5 [247, 11]		gaitzetsi	gaitzetsi
129 or. = X, 29, iz. [277, 20]		ezkatzen	eskatzen
132 or. = X, 33, 49 [284, 18]		mais	maiz [m3]
137 or. = X, 40, 65 [297, 5]		erakutziz	erakutsiz [m3]
138 or. = X, 41, 66 [298, 14]		irritzetan	irritsetan
138 or. = X, 42, 67 [300, 1]		oben-zaria	oben-saria
139 or. = X, 43, 68 [300, 10]		zintzo-zaria	zintzo-saria
139 or. = X, 43, 69 [300, 23]		usteko	uzteko [m3]
140 or. = XI, 1, 1 [303, 6]		ezanok	esanak [m3]
140 or. = XI, 2, 3 [304, 18]		Ba-dakuzazu	Ba-dakusazu [m3]
140 or. = XI, 2, 3 [304, 19-20]		serbitsua	serbitzua [m3]
140 or. = XI, 2, 3 [305, 3-4]		dakuztenen	dakusten en [m3]

<sup>46</sup>«nenkusan» Oz.<sup>47</sup>«uztea» Oz.

141 or. = XI, 2, 3 [305, 12]	ausnartzera <sup>48</sup>	aunartzera
141 or. = XI, 3, 5 [307, 9]	nezaioke	nesaioke [m3]
142 or. = XI, 5, 7 [309, 1]	eguratzean	eguratsean
143 or. = XI, 8, 10 [311, 11]	azten	asten [m3]
143 or. = XI, 8, 10 [311, 13]	dakuzanean	dakusanean
153 or. = XI, 27, 35 [332, 20]	sotzigarrena [sic]	zortzigarrena
154 or. = XI, 28, 38 [335, 3]	eginkisun	eginkizun [m3]
154 or. = XI, 30, 40 [336, 15]	bezate	besate
157 or. = XII, 6, 6 [342, 13]	irakatzi	irakatsi
159 or. = XII, 10, 10 [347, 8]	Zutan	sutan <sup>49</sup>
162 or. = XII, 15, 19 [353, 19]	esarri	ezarri [m3]
164 or. = XII, 17, 24 [357, 12]	etzitzen	etsitzen
164 or. = XII, 18, 27 [358, 19-20]	nâsi asteko	nâsiazteko [m3]
168 or. = XII, 25, 35 [367, 24]	ba'leza	ba'lesa
172 or. = XII, 30, 41 [374, 17]	siñez	siñez <sup>50</sup>
172 or. = XII, 32, 43 [376, 14]	azti	asti [m3]
173 or. = XIII, 2, 2 [378, 13]	sor	zor [m3]
173 or. = XIII, 2, 3 [379, 5]	ozîñ	osiñ [m3]
174 or. = XIII, 2, 3 [379, 17]	ozîñ	osin [m3]
175 or. = XIII, 6, iz. [382, 2]	arnaza	arnasa [m3]
175 or. = XIII, 6, 7 [382, 3]	ezaidazu	esaidazu [m3]
175 or. = XIII, 7, 8 [383, 13]	lazerka	lasterka [m3]
176 or. = XIII, 8, 9 [383, 21]	ozîñ	osiñ [m3]
178 or. = XIII, 13, 14 [389, 4]	ozîña	osiña [m3]
178 or. = XIII, 13, 14 [389, 20]	ozîña	osiña [m3]
178 or. = XIII, 14, 15 [390, 7]	ozîñ	osiñ [m3]
181 or. = XIII, 18, 23 [397, 9]	ezne	esne
182 or. = XIII, 19, 24 [397, 18]	ikusi	ikuzi
182 or. = XIII, 19, 24 [397, 20]	Ikazazute	Ikasazute [m3]
182 or. = XIII, 19, 24 [398, 3]	bezaio	besaio
182 or. = XIII, 19, 25 [399, 4]	lezaken	lesaken
182 or. = XIII, 20, 26 [399, 18]	narrasti	narrazti
182 or. = XIII, 20, 26 [399, 20]	zagarakiak	sagarakiak [m3]
187 or. = XIII, 24, 37 [409, 26]	ezanik	esanik
188 or. = XIII, 26, 39 [411, 22]	azpertz	aspertz
189 or. = XIII, 28, 43 [414, 17]	sortzigarrena	zortzigarrena [m3]
189 or. = XIII, 28, 43 [414, 20]	diñozku	diñosku
189 or. = XIII, 29, 44 [415, 4]	sortzitan	zortzitan [m3]
189 or. = XIII, 29, 44 [415, 10]	dioztazu	diostazu
189 or. = XIII, 29, 44 [415, 15]	autziz	autsiz [m3]
190 or. = XIII, 31, 46 [417, 17]	dakisagunak	dakizagunak [m3]
193 or. = XIII, 37, 52 [423, 3]	dagisuz	dagisuz

<sup>48</sup>Hau ere B-ren kopiagilearen hustzat joko ahal genuke, Orixek «aunartzu» idatzi ohi baitzuen: «aunartzzen» CB (III, 6, 11 [63, 12]), nahiz eta «ausnartzzen» A), «aunartzzen» CB (VI, 3, 3 [129, 2]), «aunartzuz» CB (VII, 6, 10 [163, 18-19]), «aunzarream» B (X, 14, 22 [261, 16]), «aunartzeko» B (XI, 2, 2 [304, 9]).

<sup>49</sup>«aestuans».

<sup>50</sup>«credamus».

Orixe ezin izan daitekeen kopiagile baten alde ere hitz egiten duela dirudi grafari dagokion auzi batek: C-n, garai hartako Orixeren izkribu gehienetan bezala, *j* letarrak ez da, *i* bakarrik baizik (eta oso salbuespen gutxi daude honetan);<sup>51</sup> B-n, berriz, I-III liburuetan *j* letrarekin idatzita agertzen dira, ia-ia hutsik gabe,<sup>52</sup> *Aitorkizunetan* etengabe errepikatzen diren «Jaun», «Jainko» eta «Jaungoiko» hitzak, baina hitz hauek bakarrik: hots, baldin eta C-ko «Iaun», «Iainko» eta «Iaungoiko» guztiak «Jaun», «Jainko» eta «Jaungoiko» bihurtu badira B-ra bidean, ez da antzekorik gertatu ehunka ere agertzen diren «iabe», «iagon», «iakin», «ian», «iarki», «iarrai», «iende», «ietxi», «io», «ioan», «iosteta», etab. bezalakoekin.<sup>53</sup> Baina, esan legez, I-III liburuetan bakarrik gertatzen da: IV. liburutik aurrera *j* letra duten hitzak —direnak direla— benetako salbuespenak dira, C-n bezala, esaterako.<sup>54</sup>

<sup>51</sup>Hiru besterik ez ditut aurkitu: «ez-jakiñari» (15 or. = I, 20, 31 [35, 23]), «jakin-naiaren» (20 or. = II, 6, 13 [47, 9-10]), «jainkoazunuen» (88 or. = VII, 14, 20 [174, 3]).

<sup>52</sup>*Jaun, Jainko eta Jaungoiko* hitzen agerraldiak, guztira, 150etik gora dira B-ko I-III liburuetan; lau kasutan bakarrik agertzen dira *i* batez idatzita —I-III liburuei dagokienez—: bi aldiz (15, 3 eta 4) Mathieu apezpikuari egindako eskaintzan (gogora eskaintza hau *Aitorkizunetan* testua bera eskribitu ondoren bakarrik egin zuela Orixek: ikus gorago 75 or. 23 oh.) eta I, 16, 26 [30, 28] eta I, 20, iz. [35, 12] paragrafoetan.

<sup>53</sup>Eta, xehetasunetara joez gero, datuak gardenagoak eta esanguratsuagoak dira oraindik. Esan bezala, *j* letrarekin sistematikoki idatzi diren hitzak *Jaun, Jainko eta Jaungoiko* dira; baina badira, hauetaz gain —eta betiere I-III liburuez ari garelarik—, *j* letrarekin eskribitu diren izen berezi zenbait: «Jerem.» laburdura (I, 2, 2 [10, 22]), «Jesukristo» (I, 11, 17 [23, 7]; III, 6, 10 [61, 1]), «Jesus» (I, 11, 17 [23, 19]) eta «Jakob» (III, 7, 13 [64, 15]). (Beste hiru izen berezi ere agertzen dira B-n, I-III liburuetan, *j* batez idatzita, baina hauek ez dira C-n dagoen zerbaiten aldaketa, B-n bertan sartutakoak baizik: «Jac.» [31 or. = III, 6, 10 <61, 16>] eta bi aldiz «Job» [24 or. = II, 6, 14 <48, 16>; 30 or. = III, 4, 8 <58, 24>]; bada, baita ere, «Iupiter» nahiz «Jupiter» irakur daitekeen bat [13 or. = I, 16, 25 <30, 2>]; dirudienez, *i* eta *j* lettrak bata bestearen gainean daude idatzita). Esan bezala, hitz arrunt gehien-gehienetan *i* erabili da; oso salbuespen gutxi aurkitu ditut: «JAUDUNA» irakur daiteke (18 or.) bigarren liburuen izenburuan («JARDUNA» izan behar luke, noski; C-k «ATALA» dakar, *jarduna* ez baita erabiliko bosgarren liburura arte: ikus 75 or.); «Ioan C : Joan B» (C, 25 or., B, 27 or. = III, 1, 1 [53, 6]); bi aldiz «Janari C : Janari B» (C, 25 or., B, 27 or. = III, 1, 1 [53, 13]; C, 29 or., B, 31 or. = III, 6, 10 [61, 17]); «Iakingale C : Jakin gabe B [m2-k gale zuzenduta]» (C, 27 or., B, 30 or. = III, 4, 8 [58, 24]). Ohar bedi salbuespen guztiak larrian idatzitako letrei dagozkiela, eta *jainko* hitza, hitz arrunt gisa erabili izan denean, *i* letrarekin idatzi dela beti: «iainkoeri» (baita «Iainkoenak» bat ere), «iainkozkoak», «iainkoen» (guztiak 13 or. = I, 16, 25 [30, 7, 8, 9 eta 11]) eta «iainkosa» (14 or. = I, 17, 27 [32, 1]); hala eta guztiz ere, ez dut uste hau denik hemen darabilgun auziaren zergatikoa.

<sup>54</sup>Hauek dira B-n jotaz idatzita agertzen diren hitzak IV. liburutik aurrera: «jardunen» (50 or. = IV, 14, 23 [94, 16]), «Jaun» (50 or. = IV, 15, 24 [95, 2]; 53 or. = V, 1, 1 [101, 5]; 53 or. = V, 2, 2 [102, 24]; 54 or. = V, 3, 3 [103, 23]; 56 or. = V, 6, 10 [109, 11]; 56 or. = V, 6, 11 [110, 7]), «Jaungoiko» (53 or. = V, 1, iz. [101, 3]; 114 or. = X, 1, iz. [243, 3]; 114 or. = X, 2, iz. [244, 4]; azken bietan, agian, *j* eta *i* bata bestearen gainean jota), «Jesukristo» (86 or. = VII, 19, iz. [178, 2]; 100 or. = IX, 1, 1 [212, 1]), «Jo.» (87 or. = VII, 21, 27 [181, 19]); agian *j* eta *i* bata bestearen gainean jota), auzi honekin zer ikusirik ez duen «iajiterik» (88 or. = VIII, 1, 2 [184, 27]; «iakiterik» A), «Jesus» (103 or. = IX, 4, 9 [218, 28]), «Justina» (105 or. = IX, 7, iz. [223, 20]), hemen sartzen ez den «zegojienak» (111 or. = IX, 12, 31 [236, 11]; «zegokienak» CA), «Jainko» (114 or. = X, 2, iz. [244, 2]; 137 or. = X, 40, iz. [297, 2]), «Job» (178 or. = XIII, 14, 15 [390, 4]). Hitz hauek guztiak *i*-rekin agertzen dira C-n, C-n ordezkorik dutenean noski; baina kontuan izan beharko litzateke B-ko jotadun hitz hauetako asko edo kapituluaren izenburuetan edo aipuen erreferentzietan daudela, hau da, C-tik ez datozen testuetan: ez genuke baztertu behar hauetako batzuk behintzat Orixek berak jotaz idatziak izatea. A-n, berriz, honako kasu hauek bakarrik aurkitu ditut: «Jupiter» (I, 16, 25 [30, 2]), «Job» (II, 6, 14 [48, 16]; III, 4, 8 [58, 24]; XIII, 14, 15 [390, 4]), «jakin» (III, 4, 8 [58, 24]), «Jac.» (III, 6, 10 [61, 16]), «jardunen» (IV, 14, 23 [94, 16]), «jabe» (V, 4, 7 [106, 116]), «Birjiñagandik» (V, 10, 20 [119, 3]), «Ebanjelioa» (VIII, 10, 24 [204, 15-16]; VIII, 12, 29 [208, 6]; IX, 5, 13 [222, 5-6]; XI, 8, 10 [311, 15]; XIII, 20, 27 [400, 17-18]; XIII, 22, 32 [404, 10]) eta «Jesukristo» (IX, 1, 1 [212, 1]). Erraz ikus daitekeenez (ikus aurreko oharra eta honen beronen lehenengo zatia), guztiak datoz B-tik, hau da, guztiak dira B-ko jotak kentzeko A-n egin diren ahaleginetan itzuritakoak, salbu eta «jabe» (B-tik A-ra egindako aldaketatiko bat baita), «Birjiñagandik» (B-n «Birkiñagandik» baita) eta «Ebanjelioa» (B-n beti «Ebangelioa»).



Orain ez gaude ordea, *s* eta *z* letren kasuan bezala, Orixek ezin egingo zukeen hizkuntzazko huts baten aurrean: C-n —eta C-ren garaiko izkribuetan— *j* letra erabili ez bazuen ere, erabili zuen, adibidez, *b* idatzi zuen sasoiko zenbait testutan —funtsean, san Benitoren Erregelaren itzulpenean eta Lazkaon ondu zituen *Jainkoaren billa* liburuaren zatietan—. Ohar bedi ondo, hortaz, auzia ez dela C-n *i* letrarekin idatzita zegoena B-n *j* batekin agertzea, *h o n a k o h a u b a i z i k*: hitz jakin eta oso markatu batzuk bakarrik idatzi direla *j* letrarekin, gainerakoak C-n zeuden bezala gelditu diren bitartean (edo, agian hobe, gainerakoak C-koa bezalako sistema baten arabera idatzi diren bitartean). Ez dirudi, beraz, B-ko testuaren I-III liburuetan islatzen den *j* letraren erabilera xelebrea Orixek hizkuntzaren zenbait alderditan izan ohi zuen axolagabekeriari edota —hobe— aldakortasunari *b a k a r r i k* egotzi ahal zaionik: ez dut behintzat horrelakorik aurkitu lehen aipatutako lanetan, hauetan bai «Jaun», «Jainko» eta «Jaungoiko» hitzak bai «jan», «joan» edo «jabe» bezalakoak, guztiak *j* letrarekin idatzi baitira.<sup>55</sup> *Aitorkizunen* bigarren idatzalditik hain hurbil dauden bi testu hauen kasua ez da ez froga ez argudioa, adibidea baizik: eta erakusten du sinesgaitza dela B-ko testuaren *j* horiek *g u z t i a k* Orixeri leporatu behar izatea. Egin ditugun nabarmenduak ez dira alferrikakoak: san Benitoren Erregelaren eta *Jainkoaren billa* liburuaren aipatu zatien eskuizkribuen ondoan jarri behar da Mokoroaren txostenean Orixek eskuz idatzi duen «Jauna» bat (ikus III erans. 1 zenb.); baina baita ere B-prior-eko 18. orrian Orixeren eskuz ere idatzitako «Jaungoikoa» bat (ikus, beherago, 118 or.).<sup>56</sup> Seguruenik, B-ko testuaren I-III liburuetako *j* bat baino gehiago b-tik etorri da: baina susmagarria da oso —eta honetarako balio du, esan dezagun berriz ere, aipatu bi testuen lekukotasunak— ez, esan bezala, agerraldien kopurua, ezpada batzuen eta besteen arteko banaketa gardenean dagoen sistematikotasun erabatekoa.

*Aitorkizunen* historiari buruz ditugun testuaz kanpotiko datu seguruak mahai gainean ipinita, B-ko testuaren I-III liburuetako aipatu egoera xelebrea modu bakar honetan uler daitekeelakoan nago: B-ko testua makinaz jo zuenak (*j* oraingo gipuzkoar gehienek modura ahoskatzeaz gain eta *s* eta *z* —idazterakoan behinik behin— nekez bereizteaz landa) ez zuen euskaraz irakurtzeko edo idazteko ohiturarik, egin zituen hutsen kopuruak eta, batez ere, nolakotasunak argi eta garbi erakusten duten bezala; *Aitorkizunen* testua, zati handi batean, ulertezin egingo zitzaion eta ia-ia hizkuntza arrotz batean balego bezala kopiatuko zuen; baina zerbait baldin bazekien, zerbait baldin bazuen errotua bere ohitura murriz hartan, zen «Jaun» eta «Jaungoiko» —eta, beraz, «Jainko»— esan eta idazten dela. Badakigu ez zuela inoiz Orixeren testua zuzentzeko borondaterik edo gaitasunik erakutsi, ez kopiatzerakoan ez

<sup>55</sup>Axola zaigu azpimarratzea san Benitoren Erregela eta *Jainkoaren billa* adibide ezin hobeagoak direla: esan bezala, kronologiarengatik (biak Lazkaon, hau da, 1955ean eta, agian, 1956ko lehenengo sei hilabetekoan ondu zituelako: ikus 51-52 or.); ukitzen dituzten gaiengatik eta, hortaz, bertan erabiltzen den hiztegiarengatik (*Jaun*, *Jainko*, *Jaungoiko* hitzak, esaterako, etengabe agertzen dira); eta baita ere bi liburu horiek *j* letrarekin eta, oro har, gipuzkoar kolore batekin idatzi nahi izan zituelako.

<sup>56</sup>Hemen —*s* eta *z* letren auzian ez bezala— ez dira aintzat hartzekoak Orixek (zehazki m2-k) B-prior-en zuzendu dituen 40 jotak («Jauna B : launa m2», etab.), zeren honek ez baitu esan nahi B-n daudenak b-tik —hots, Orixeren eskuizkributik— ez datozenik: esan nahi duen bakarra da Orixek ez zuela *j* erabili nahi izan *Aitorkizunen* bigarren idatzaldian, eta hori bagenekien.

kopiatutakoa bere arkatzarekin txukuntzerakoan (ikus 98-105 or.): kopiatu besterik ez zuen egin nahi izan, ezin zuen berezko irizpiderik izan —grafiari buruz, esaterako—, eta, jakina, aurrean zuen eruditik aldendu zen bakoitzean izan zen banalizazioak egiteko («egarri» ulertu du «egari» zioen tokian, «biar duzun» eta ez «diarduzun», «eiten duna» kopiatu du ereduak «eiteduna» zekarren lekuan, etab.) edo, oraindik esanguratsuagoa dena, inongo zentzurik ez duten irakurtze-hutsak egiteko (ezer esan nahi ez duen «ukari-naia» kopiatu du «ukan-naia» ulertu ez duelako, «ihire» eta ez «ihize», «auztea» eta ez «anztea»...): seinalea, arestian esan dugun bezala, Orixeren testua kopiatzen zuena —neurri batean behintzat— hizkuntza arrotz batean balego bezala. Aurrean zuen antigrafoan «Jaun» (edo «Jainko» edo «Jaungoiko») ikusten zuenean eta «Jaun» kopiatu (edo «Jainko» edo «Jaungoiko»), beste banalizazio bat gehiago egiten zuen: arraro egiten zitzaiona ezaguna zuenarekin ordezkutzen zuen, seguruenik konturatzeke. IV. liburuaren hasieratik aurrera ja jakinaren gainean dago «Jaun», «Jainko» eta «Jaungoiko» ere, «ian», «ioan» eta «iabe» bezala, *i* letrarekin idatzi behar dituela, eta hemendik aurrera puntu honetan egongo diren hutsak, orain arte ez bezala, salbuespenak izango dira: zalantzarik gabe —*Aitorkizunen* historiari buruz ditugun testuaz kanpotiko datuak kontuan hartuta, berriz ere—, Orixek berak zuzenduko zion kopiagileari joera-edo hura. Gorago aztertu ditugun irakurtze-hutsetan eta *s* eta *z* letrak nahastetik sortutakoetan ez bezala, *j* letrari buruzko auzi honetan ez dugu froga segururik baina, agidanean, aldeztu dugun hipotesi hau da ditugun datu guztiak errazena esplikatzeko dituen; nolana ere, abantaila bat dugu hemen: oker baldin bageunde, hau da, onartu behar bagenu *j* letraren erabilera xeble hau Orixeri bakarrik egotzi behar zaiola, frogatuko genukeen gauza bakarra izango litzateke egoera hau b-tik datorrela eta B-ren kopiagileak antigrafoan zuena kopiatu besterik ez zuela egin, baina ez, inondik ere, B-ko testua Orixek jo zuenik makinaz; B-ko testua Orixe ez zen kopiagile batek eskribitu zuelakoa ezin eztabaidatuzko modu batean frogatua gelditu baita gorago.<sup>57</sup>

Orain artekoa ez da B-ren kopiagileak egin dituen hutsen tipologia bat: aitzitik, frogatu nahi nuen ezinezkoa zela gure kopiagile hau Orixe izatea, eta horren arabera aukeratu ditut adibideak; nolana ere, nago hauek direla, ikuspuntu orokorrago batetik begiratuta ere, B-ren kopiagileari leporatu dakizkiokkeen hutsik interesgarrienak. Azaldu ditugun argudioek

<sup>57</sup>Arestian aztertu ditugunen ondoan bigarren mailakoa bada ere, aipatzeko modukoa da egilea ez den kopiagile baten alde hitz egiten duen beste argudio klasiko bat: alegia, makinaz egindako zuzenketetan falta izatea egileari egotz dakizkiokkeenak. Izan ere, askotan gertatu da, B-ko testuan, idatzitako hitz bat edo pasarte bat kopiagileak urratu izana —betiere, noski, makinaz— eta ondoan edo gainean (hots, lerroartean) urratutakoari dagokion hitz edo pasarte zuzena idatzi izana, baita ere makinaz; urratu hauek irakur daitezkeen neurrian, badirudi zuzentzat jotako irakurketak ez direla egile batek bakarrik egin dezakeen iritzi aldatze baten ondorioak, ezpada gorago ikusi ditugunak bezalako huts mekanikoei dagozkienak. (Jauziek ekarritako era honetako hutsak, batzuetan, nahasgarriak izan daitezke: esaterako, «nor otezkuan gelditu Zure mirabe gomenerako egin bear dala», baina lerro bat beheago «Zure mirabe oriek» irakur daiteke [36 or. = III, 9, 17 <69, 7-8 eta 10>], etab.). Badira ordea lehenengo begi kolpe batean kontrakoa pentsarazi lezaketen kasu —gutxi— batzuk; adibidez: «Olakoz bete da nere bizia, eta ez dut Zure urrikoa beste itzaropiderik, ta Zure urriki txit aundia beste ta Zure urriki txit aundia beste itzaropenik ez dut» (134 or. = X, 35, 57 [290, 22-23]); «Eragaitz daudenean [gaudenean B], ezinegenez daude; era onez dute atsedean. Maitea dut nik azta, ark narama noranai noala: Nere miña maita-gríña; ark naroa noranai ba'noa» (176 or. = XIII, 9, 10 [385, 13-15]); «Aztertu ere dezagun dugu [...]» (191 or. = XIII, 34, 49 [420, 11]); baina hauek, agidanean, urratuak dituen antigrafo bat salatzen dute, ez besterik. Egoera honen ondoan bereziki esanguratsu bihurtzen da C-n auzi honi dagokionez ikus daitekeena: 69-70 or. 8-9 oh.; adibide ona da, orobat, 189 or. 2 oh.

berretsi egin digute Orixek Zaitegiri 1955eko otsailaren 15eko gutun hartan (ikus 79 or.) ziotsona —hobeto esateko, ziotsonaren alderdi bat, segituan ikusiko ahal dugunez—; bai baitzegoen berretsi beharra: ibili dugun bideak berez duen interesa alde batera lagata ere —eta ez dut uste txikiena denik—, ohar bedi ondo testu barneko argudioek bakarrik frogatu dezaketela testuari dagokiona, eta inoiz ez —behin baino gehiagotan ikusiko ahal dugun orrialde hauetan zehar— testuaz kanpotiko datuek.

### 3. C-ren eta B-ren arteko eskuizkribu galdua: b

Ez da zalantzarik, hortaz, Orixe ez zen kopiagile batek eskribitu zuela B-ko testua; era berean, badirudi behartuta gaudela onartzeraz zenbait zatitan gorde ez zaigun testu bat izan zela C-ren eta B-ren artean. Alde bat utzita behin baino gehiagotan aipatu behar izan dugun Zaitegirentzako 1955eko otsailaren 15eko gutunak dakarren lekukotasun garrantzitsua (ikus, honen balioaz, 79 or.), honako arrazoi hauek ditugu b honekin jokatu behar izateko: batetik, hasierako liburuetan C-tik B-ra bidean egin ziren berrikuntzak ezin zirelako ca-prior-eko ertz eta lerroarteetan sartu; bigarrenik, eta berriz ere lehenengo liburuei dagokienez, B-ren kopiagileak egindako huts askok eskuz eskribitutako eredu bat salatzen dutelako eta, hain justu, C-tik B-ra aldatu ez ziren esaldietan (hau da, idatzaldi berria ca-prior-eko orrietan egin izan balitz ukitu beharra ez zuketen esaldietan, alegia); hirugarrenik —eta honi eskerrak aurreko biek hain garbi erakusten ez duten muga bat ikusiko ahal dugularik—, I-V liburuetakoko B testuan ez delako gorde VI-IX liburuetan gorde egin den —eta segituan aztertuko dugun— C-ko testuaren ezaugarri esanguratsu bat.

Hasierako liburuetan egindako aldaketan tamaina eta ugartasunari buruzko argudioa mintzagai dugun hipotesiaren aztarren nabarmena da: izan ere, hauxek dira —alde handiarekin gainera— Orixek 'bigarren jorraldian' gehien aldatu zituen liburuak eta, hortaz, paper berri baten premia zutenak. Baina, oso kontuan hartzeko modukoa bada ere, argudio ahula da, ezin baitu berez ezer frogatu: litekeena litzateke, esaterako —eta ez da zentzugabeko hipotesia: ikus 79 or. 34 oh.—, zenbait pasartetarako behintzat ahoz diktatu izana Orixek testu berria B-ren kopiagileari; bestalde, argudio hau ez da erraz azaltzen, nola edo hala neurtu egin beharko genituzkeelako liburu bakoitzean egindako aldaketak eta, batez ere, erakutsi egin beharko liratekeelako hemengo orrialde hauetan neurketa horren emaitzak; eta, azkenik, ez da ezinbestekoa: batetik, nahikoa izan behar lukeelako egiaztatzeak C-tik B-ra egin ziren aldaketak, testuan aurrera egin ahala, gero eta gutxiago eta gero eta azalekoagoak izan zirela —ohi bezala, bestalde— eta, bestetik, ondoko bi arrazoiek frogaindar —gutxienez— handiago batekin erakusten dutelako aldeztu nahi dugun hipotesia.

Izan ere, badirudi B-ren kopiagileak sarri egin izana eskuz eskribitutako antigrafo bat salatzen duten hutsak eta, aldi berean, huts hauek C-tik B-ra aldatu ez ziren —edo apenas aldatu ez ziren— esaldietan egotea (hots, C-tik B-ra egindako aldaketak C-ko testuan bertan idatzitako gehiketa edo zuzenketen bidez egin izan balira ukitu behar ez ziratekeen esaldietan egotea) nahikoa dela frogatutzat jotzeko, batetik, beste testu bat izan zela C-ren eta B-ren artean eta, bestetik, noski, testu hura eskuz eskribituta zegoela. Gauza ezaguna da soil-soilik grafikoak diren hutsak bakanak izan ohi direla, beti

izaten baitira tartean bestelako arrazoiak; baina honek ez du esan nahi huts horietan soilik grafikoa den osagai bat ez dagoenik. Esan bezala, B-ko testuan badira eskuz idatzitako eredu bat —eta, zenbait kasutan, beharbada, Orixeren beraren eskua— argi eta garbi salatzen duten hutsak: hauetako batzuk ikusi ditugu gorago —noski beste helburu bat genuelarik— eta beste batzuk, aldiz, ez ditugu orain arte aipatu. Sarri samar gertatzen den hutsa da *r* eta *z* letrak nahastetik sortutakoa: idazkera askotan dira elkarren oso antzekoak eta hala da baita —bereziki apika— Orixerenean ere. Ikusi ditugu ja era honetako bi adibide:

[...] et in illa <i>contemnebaris</i> a me, a me, filio eius [...] (II, 3, 7)	eta ala <i>ezesten</i> zindun aren [sc. Monikaren] seme onek (C, 17 or.)	eta ala <i>erezten</i> zindun Zu aren seme onek (B, 20 or. [41, 28-42, 1]);
---	--	---

[...] nec <i>animalia</i> nec corporalia per os considerantium ea [...] (V, 1, 1)	[...] <i>ibize</i> ta mukulu, aieri so dagiegunen agoz (C, 49 or.)	[...] <i>ihire</i> ta mukulu, aieri so dagiegunen agoz (B, 53 or. [101, 17]).
---	--	---

Baina badira beste batzuk ere:

[...] nec amatur quicquam <i>salubrius</i> quam illa prae cunctis formosa et luminosa veritas tua (II, 6, 13)	Ez da maitatzen ezer <i>protxuzago</i> Zure egi argi ua baño (C, 20 or.)	Ez da maitatzen ezer <i>protxurako</i> Zure egi argi ua baño (B, 24 or. [47, 8-9]);
---	--	---

Viluit mihi repente omnis <i>vana</i> spes [...] (III, 4, 7)	Lengo itxaropen <i>zoroak</i> bat-batean kaxkartu zitidan [...] (C, 27 or.)	Lengo itxarokizun <i>zozoak</i> bat-batean kaxkartu zitidan [...] (B, 30 or. [58, 13-14]).
--	---	--

Orobat, erraz nahasten dira, gehienon idazkeran, *n* eta *r* letrak:

[...] <i>appetitus adipiscendi</i> alicuius illorum bonorum [...] aut metus amittendi (II, 5, 11)	[...] gauzaño orien <i>ukan</i> -naia edo galdu-bildurra (C, 19 or.)	[...] gauzaño orien <i>ukari</i> -naia edo galdu-bildurra (B, 22 or. [45, 8-9]);
---	--	--

eta era berekoa da beste hau:

Itaque cum <i>de caelo</i> ac stellis et de solis ac lunae motibus falsa dixisse deprehenderetur [...] (V, 5, 8)	Beraz, <i>ortzi</i> , izar, eguzki-ilargien ioan-etorrietaz utsetan atzeman zutenean [...] (C, 52 or.)	Beraz, <i>ontzi</i> , izar, eguzki-illargien ioan-etorrietaz utsetan atzeman zutenean [...] (B, 55 or. [107, 15-16]),
--	--	---

hemen, berriz, nabarmena izanik *facilior* bat gurutzatu dela idazkerak abiadan ipinitako hutsarekin (eta bigarren huts bat ere bada pasarte honetan, baina hemen axola ez zaiguna, eskribitze-huts soila baita eta, zehazki, idazmakinak eragindakoa: «ioan-etorrietaz C : ioan-etorrietaz B»). Ugarienetakoak dirateke *n* eta *u* letrak nahastetik sortuak; batzuk bakarrik aldatuko ditugu hona:<sup>58</sup>

<sup>58</sup>Ez da istorio honetakoa gorago ere aipatu behar izan dugun «auzte» hutsa («anztea» baten orde, noski),

et computrui coram oculis tuis placens <i>mibi</i> (II, 1, 1)	usteldu nintzan neure <i>buruari</i> atsegiñez (C, 15 or.)	usteldu nintzan nere <i>burnari</i> atsegiñez (B, 18 or. [37, 14- 15]);
[...] aut cum <i>diruptis</i> limitibus humanae societatis laetantur audaces (III, 8, 16)	[...] edota gizarteko mugak <i>autsirik</i> , lotsagabeki aufatzen dira (C, 32 or.)	[...] edota gizarteko mugak <i>antzirik</i> , lotsagabeki aupatzen dira (B, 35 or. [67, 28-68, 1]);
[...] quemadmodum et <i>me</i> laudari vellem [...] (IV, 14, 22)	[...] <i>nerau</i> gorestea nai nuken bezala [...] (C, 44 or.)	[...] <i>neran</i> gorestea nai nuken bezala [...] (B, 49 or. [93, 17]);
Vanitas est enim mundana ista etiam nota <i>profiteri</i> (V, 5, 8)	Aizekeri da zer-iakin orietaz <i>anpatzea</i> (C, 52 or.)	Aizekeri da zer-iakiñ orietaz <i>aupatzea</i> (B, 55 or. [107, 9- 10]);

«buruari : burnari» grafikoa da soilik, ez esaldiak ez hitzak ez baitute inongo zailtasunik (huts honek kopiagilearen lan egiteko modu mekanikoaz ere hitz egiten digu); «autsirik : antzirik» hutsari dagokionez ohar bedi A-n jarraitu egin duela hutsaren bizitzak: «antzirik». Hauek bezain ohikoak dira, eskuzko idazkera batean, *a* eta *u* letrak nahastetik sortuak:

Verum autem totum ego eram et adversus me impietas mea me <i>diviserat</i> (V, 10, 18)	Guzia nerau nintzan ordea, ta nire aurka nire gaiztakeriak <i>zaitu</i> nindun (C, 57 or.)	Guzia nerau nintzan, ordea, ta nere aurka nere gaiztakeriak <i>zutitu</i> nindun (B, 59 or. [117, 7-9]),
--	--	---

non testuinguruak miragarriro lagundu baitio hutsari.

Badirudi, beraz, onartu beharra dugula B-ren kopiagileak eskuz idatzitako testu bat —edo testu zati multzo bat— izan zuela bere begien aurrean. Ezin dugu kontuan ez hartu ez dugula era honetako huts argirik aurkitu VI-IX liburuetan: honi gehitzen badiogu C-tik B-ra bidean egindako aldaketen tamaina eta kopuruari buruzko argudioak erakusten ziguna, hots, I-V liburuetan itxuraldatu zela gehienbat *Aitorkizunen* testua, nabarmendu egiten zaigu lehenengo bost liburu horiek hipotesi honetan duten tokia. Baina, gorago aurreratu bezala, hirugarren argudioak utziko digu aipatu dugun muga lausotu samar hau —batetik I-V liburuak eta bestetik VI-IX liburuak bereizten dituen— garbiago marrazten.

Axola handikoa da egiaztatu ahal izatea I-V liburuen B-ko testuan ez direla gorde C-koan zeuden paragrafoak: hau da, alde batera uzten baditugu kapituluaren eta saint-maur-tarren paragrafoen bereizketari dagozkion paragrafo zatiketak (hauek guztiak derrigor gorde behar baitziren B-n, BAC-eko testuaren antolamenduari jarraitzeko erabakiaren ondorioz: ikus 75-

kapitulu baten izenburuan baitago eta, esan dugun bezala, kapituluaren izenburu guztiak berriak dira B-n, hau da, ez zeuden C-ko makinazko testuan eta, beraz, guztiak sartuko ziren —edo sar zitezkeen— eskuz: «Auztea (aztuztea) nola dago oroimenean?» (B, 122 or. = X, 16, iz. [263, 9]; A-n, aldiz, zuzenduta agertzen da: «Anztea»). Paragrafo honen lehenengo hitza ere horixe bera da eta huts berbera egin du, horretan ere, kopiagileak: «Auztea» (B, 122 or. = X, 16, 24 [263, 10]; A-k, berriz ere, «Anztea»); daitekeena da izenburuan egindako hutsak eragina eduki izana bigarren honetan baina, nolahi ere, ez dakigu zein zen zati honen C testua. Gogora bedi gure hipotesia, ezinbestean, I-IX liburuetara mugatzen dela.

76 or.), ez dira gorde dauden gainerakoak; zehazki, I-V liburuen C-ko testuan 18 paragrafo daude bat ez datozenak ez kapituluaren ez saint-maur-tarren paragrafoen zatiketarekin: hauetakoa bat ere ez da mantendu B-ko testuan.<sup>59</sup> Berriz, VI-IX liburuetan era bereko 93 paragrafo daude: guztiak, 16 izan ezik, mantendu dira B-ko testuan.<sup>60</sup> Alabaina, batek pentsa lezake daitekeena dela C-tik B-ra gorde diren paragrafo hauek gorde izana BAC-eko edizioan diren paragrafoekin bat etortzeagatik, hau da, horiek guztiak mantendu izana izan litekeela BAC-eko edizioa eredu gisa erabiltzearen beste ondorio bat; inondik ere ez: BAC-eko latinezko testuan ez dago saint-maur-tarrenez landa beste paragraforik, eta gaztelaniazkoan asko badaude ere —C-n baino askoz gehiago— B-ko testuan dauden guztiak —salbuespenik gabe— C-n daudenak baino ez dira, hots, ez da era honetako paragrafo berririk sartu.

Zalantza izpirik gabe jo dezakegu frogatuztat Orixek gorde ez zaigun ca-prior behatzizkributik —eta ez Lazkaon dagoen Ca-alter-etik— abiatuta egin zuela *Aitorkizunen* bigarren idatzaldia; I-V liburuetarako testu berri bat idatzi zuela, hau da, orri zurietan eskribitu zuela, eskuz, aipatu lehenengo bost liburuentzako testu berri bat: hauxe da guk b izendatu duguna eta hauxe zuen buruan Orixek Zaitegiri harako «nik bigarren eta azkeniorraldian eman-ala, kopiak ateratzen ditidate» hura esan zionean; VI-IX liburuen bigarren idatzaldia, berriz, ca-prior-eko orrietan egindako zuzenketa eta aldaketen bidez egin zuela, hots, eskuizkribu berri eta oso bat sortu gabe —zeren eta daitekeena baita, noski, VI-IX liburuen zenbait zatitarako testu berri bat egin izana Orixek —. Beherago frogatuko dugu (ikus II erans.) *Aitorkizunen* I-IV liburua eta Vgarrenaren hasiera edizio zahar eta elebakar batetik itzuli behar izan zituela Orixek: korapiloz jositako testua da —honetan aritu diren itzultzaile ez nolana hiko askoren lekukotasunak bil genitzake— eta ez zen lan erraza izango; ahal izan zuen bezain laster Trabucco-ren edizio elebiduna lortu zuen eta harekin jarraitu

<sup>59</sup>Hona hemen (ohar bedi lehenengo zenbakia C-ko orriari dagokiola; mintzagai dugun paragrafoa —hots, B-n gorde ez dena— hemen ematen dugun paragrafoaren b a r n e a n dago): 4 or. = I, 6, 9; 10 or. = I, 13, 22; 20 or. = II, 6, 13; 22 or. = II, 9, 17; 25 or. = III, 1, 1; 25 or. = III, 2, 3; 28 or. = III, 6, 10; 29 or. = III, 6, 10; 31 or. = III, 7, 13; 42 or. = IV, 12, 18; 53 or. = V, 6, 10; 56 or. = V, 8, 15 (bis); 56 or. = V, 9, 16; 58 or. = V, 10, 18; 58 or. = V, 10, 20; 59 or. = V, 10, 20; 60 or. = V, 13, 23.

<sup>60</sup>Hauek dira C-tik B-ra gorde direnak: 62 or. = VI, 1, 1; 63 or. = VI, 2, 2 (bis); 63 or. = VI, 3, 3; 64 or. = VI, 3, 3; 65 or. = VI, 4, 6; 66 or. = VI, 5, 7; 67 or. = VI, 6, 9; 68 or. = VI, 6, 10; 68 or. = VI, 7, 12; 69 or. = VI, 7, 12; 69 or. = VI, 8, 13; 70 or. = VI, 9, 14; 71 or. = VI, 9, 15; 71 or. = VI, 10, 16; 72 or. = VI, 10, 16 (bis); 73 or. = VI, 11, 18; 73 or. = VI, 11, 19 (bis); 74 or. = VI, 12, 21 (bis); 74 or. = VI, 12, 22; 75 or. = VI, 14, 24 (bis); 77 or. = VII, 1, 1; 78 or. = VII, 2, 3; 79 or. = VII, 3, 5 (bis); 80 or. = VII, 5, 7; 81 or. = VII, 5, 7; 81 or. = VII, 6, 8; 82 or. = VII, 6, 8; 83 or. = VII, 6, 10; 83 or. = VII, 7, 11; 85 or. = VII, 9, 15; 86 or. = VII, 10, 16; 89 or. = VII, 17, 23; 90 or. = VII, 19, 25 (bis); 91 or. = VII, 20, 26; 92 or. = VII, 21, 27; 93 or. = VIII, 1, 1 (bis); 97 or. = VIII, 3, 8; 97 or. = VIII, 4, 9; 101 or. = VIII, 6, 15; 102 or. = VIII, 7, 18; 102 or. = VIII, 8, 19 (bis); 103 or. = VIII, 8, 19; 103 or. = VIII, 9, 21; 104 or. = VIII, 9, 21; 105 or. = VIII, 10, 24 (bis); 107 or. = VIII, 12, 29; 108 or. = VIII, 12, 30; 109 or. = IX, 1, 1; 109 or. = IX, 2, 2; 110 or. = IX, 2, 3; 110 or. = IX, 2, 4 (bis); 111 or. = IX, 3, 5; 111 or. = IX, 3, 6 (bis); 112 or. = IX, 4, 7 (bis); 115 or. = IX, 6, 14; 116 or. = IX, 6, 14; 117 or. = IX, 8, 17 (bis); 118 or. = IX, 8, 18 (bis); 119 or. = IX, 9, 19; 120 or. = IX, 9, 21; 122 or. = IX, 11, 28; 124 or. = IX, 12, 33. Eta hauek, berriz, gorde ez direnak: 66 or. = VI, 5, 8; 66 or. = VI, 5, 8; 75 or. = VI, 13, 23; 76 or. = VI, 15, 25; 76 or. = VI, 16, 26; 77 or. = VII, 2, 2; 86 or. = VII, 10, 16; 87 or. = VII, 12, 18; 88 or. = VII, 15, 21; 92 or. = VII, 21, 27; 94 or. = VIII, 1, 2; 104 or. = VIII, 10, 22; 106 or. = VIII, 11, 27; 114 or. = IX, 4, 11; 122 or. = IX, 11, 28; 123 or. = IX, 12, 30. Baina oso kontuan izan behar da gorde ez diren 16 hauetakoa gehien-gehienako oso hurbil daudela ezkerreko ertzetik, hau da, ez daudela apenas sakatuta: bestela esanda, ozta-ozta ikus daitekeela paragrafo berriak direla eta, hortaz, erraz ulertzen dela B-ren kopiagilea horietaz ez konturatu izana.

zion lanari: seguru dakigu aldaketa hau bosgarren liburuaren hasiera edo erdi aldera gertatu zela. Ez dut uste bi gertakizun hauek —I-V liburuetarako bakarrik egin izanak b zirriborroa eta I-V liburuak edizio elebakar batetik itzulitako bakarrak izateak— elkarrekin zer ikusirik ez dutenik.

## II

Orixe —eta testuaren kopiagilea— B zuzentzen: B-prior (eta B-alter)

Ikusi dugu, hortaz, *Aitorbizunen* bigarren idatzaldia B deitu dugun testuan gauzatu zela eta B-prior eta B-alter izendatu ditugun behatzizkribu bikien bidez heldu dela, zuzenean eta osorik, guganaino; eta aurreratu dugu, orobat, B-ko testua ohar anitzek aldatua agertzen dela bai B-prior-en bai B-alter-en. B-prior bidali zen inprimategira: bertan daude testuaren kopiagileak eskribitutako zuzenketak, Orixek berak bere eskuz idatzitakoak eta inprimategira bidean on Manuel Lekuonak egindako ohar ugari. B-alter, berriz, ez zen inoiz Lazkaoko liburutegitik atera: axola bide zitzaion Orixeri B-prior-eko testuari egin zitzaizkion aldaketa guztien kopia gordetzea, eta inprimategira joan behar zuen aldakian egindako zuzenketa eta gehiketak B-alter-eko orrietan jasotzen —edo jasoarazten— hasi zen; aldaketa haietako batzuk bakarrik kopiatu ziren baina, beste alde batetik, B-prior eskuetan ez zuenetik bururatu zitzaizkion ohar berriak B-alter-i emendatu zizkion: B-prior berrikustean harrapatu ez zuen hutsen bat edo beste B-alter-en zuzendu zuen eta baita ere han utzitako hutsuneren bat bete, seguruenik Orixek inoiz ikusiko ez zituen probetan sartzeko asmoarekin.

Irizpide material eta paleografikoetan oinarrituta, honela sailkatu daitezke B-prior-eko orrietan zehar dauden oharrak: lehendabizi, bi aldakien artean kalkoa ipinita —eta, seguruenik, paperak oraindik idazmakinatik atera gabe— arkatzez egindako zuzenketak (m1); bigarrenik, B-alter-en ere —baina oraingo honetan kalkorik gabe— kopiatu diren lapitzez egindako ohar gutxi batzuk (m1bis); hirugarrenik, B-prior-eko 35. orrian tinta gorritz eskribitutakoak (m1ter); laugarrenik, Orixek berak ohiko tinta beltzez egin dituen era askotako zuzenketa eta gehiketak (m2); bosgarrenik, on Manuel Lekuonak arkatz gorri-urdin batekin (mutur bat gorria eta bestea urdina dituzten —edo, bederen, zituzten— haietako batekin, pentsatzen dut) idatzitako oharrak (m3); seigarrenik, B-alter-en kopiatu ez ziren lapitzezko zuzenketa gutxi batzuk (m4); eta, zazpigarrenik eta azkenik, tinta urdin bat baino gehiagoren bidez marraztu ziren glosa zenbait (m5 eta m5bis). Alde bat utzi ditugu, noski, [I] orrian apezpikutegian idatzitakoak (hauetaz ikus 52-53 or.). Eskuak izendatzeko erabili ditugun zenbakiak, gutxi gorabehera, benetan izan zen hurrenkera adierazten dute: bistan da —eta honen froga gehiago ere emango dira— m1 m2 baino lehenago ibili zela B-prior-eko testua zuzentzen; m2, jakina, m3 baino lehenago; m1 guztiak (m1, m1bis eta m1ter), inongo zalantzarik gabe, B-prior Lazkaotik atera baino lehenago; m3 aurreko guztien ondoren eta, zenbait oharri dagokionez behintzat —hau ere beherago ikusiko ahal da—, m5 eta m5bis baino lehenago. Gutxi gorabehera bakarrik ordea: ezin baitugu segurtatu m1bis eta m1ter deitu ditugun eskuen ohar guzti-guztiak m2 baino lehenagokoak izan zirenik; eta alferrik



litzateke iritzi bat eduki nahi izatea m<sup>4</sup>-ren kronologia erlatiboari buruz.

Hauxe da, esan bezala, irizpide materialak eta paleografikoak erakusten diguten ikuspegia; hauen bidez ez dago, agidanean, harantzago joaterik, ez behintzat iritzien alorrera sartu nahi ez badugu: batetik, oharrak deitu ditugun asko marrak eta urratuak direlako —eta, beraz, ez dute beti aukera ematen jakin ahal izateko bertatik ibilitako beste esku batek eginak izan daitezkeen ala ez—, eta zenbait eskuren kasuan letra solte gutxi batzuk besterik ez dugulako; bestetik, ohar gehienak ez ohiko modu batean marraztu direlako (batzuk paperak oraindik idazmakinarean gurdian zeudenean eskribitu dira, beste batzuk makinak egindako letrak antzeratu nahiez, etab.) eta, horrela, oso erraza da, nahiz eta pertsona berak idatziak izan, antz handirik ez izatea elkarren artean; azkenik, eta begien bistan dauden arrazoiengatik, gaurko gizakien idazmoldeak ez direlako izaten iraganekoenak bezain erregularrak eta, beraz, arriskutsuagoa da irizpide paleografikoen bidez bakarrik atxikitzea eskribitzaile honi edo hari hemen aztergai ditugun ohar solte hauek bezalako testu laburrak.<sup>1</sup>

B-alter-eko orrietako ohar gehienak, esan bezala, B-prior-ekoen ispilua dira eta honako hau da, nire ustez, horiek sailkatzeko modurik errazena: lehendabizi, bi aldakien artean jarritako kalkoaren bidez kopiatu direnak, hau da, B-prior-i buruz hitz egiterakoan m<sup>1</sup> eskuari atxikitutako guztiak eta, noski, berberak eta berdinak (m<sup>1</sup>);<sup>2</sup> bigarrenik, B-prior-eko m<sup>1</sup>bis-ek, B-prior-en egin dituenak kopiatuz, B-alter-en idatzi dituenak (103-104 or. zerrenda) gehi seguruenik esku honi beroni atxiki behar zaizkion beste lau ohar, guztiak arkatzez eginak (m<sup>1</sup>bis);<sup>3</sup> hirugarrenik, B-prior-eko m<sup>1</sup>ter-ek, m<sup>2</sup>-k B-prior-en bertan tinta beltzez egin dituen oharrak kopiatzeko asmoz, B-alter-eko 1-38 orrietan tinta gorritz marraztu dituenak (107-112 or. zerrenda) eta, hauekin batera, esku honek beronek tinta mota berarekin idatzi dituen beste hiru ohar berri (m<sup>1</sup>ter);<sup>4</sup> eta, azkenik, Orixek berak, bere ohiko tinta beltzez, B-

<sup>1</sup>Azken puntu honi dagokionez badirudi, gainera, uste izaten den baino zuhurtsasun gehiagorekin jokatu beharra dagoela: hala aholkatzen dute azken urteotan azaleratu diren paleografo ospetsu zenbaiten hutsegite erraldoiek. (Ohar bedi, bide batez, 'paleografiko' adjektiboa erabiltzen dudala —beste askok bezala, bestalde— hitzaren etimologiari begiratu gabe: 'grafiko' izenondoa nahasgarria izango litzateke testuinguru honetan, irakurleak pentsa bailezake, esaterako, VII eranskinean duen adiera izango lukeela hemen ere).

<sup>2</sup>Eztabaidagarria izan daiteke, agian, hauek ere B-alter-eko ohartzat jo behar ote diren ala ez baina, nolana ere, guztiz komenigarria iritzi diogu hauekin ere sail berezi bat egiteari, bi behatzizkribu bikietatik ibilitako eskuen izendapenean horrela lor daitezkeen —eta benetan dagoen— simetria ez haustearren.

<sup>3</sup>Ez baita zalantzarik B-prior-eko m<sup>1</sup>bis eta B-alter-eko m<sup>1</sup>bis esku bera direla: aipatu bi irizpideengatik ez ezik baita oharrak testuan kokatzeko moduagatik ere. Aipatu lau ohar berriak hauek dira: «edertasunak B-pr : edertasuna B-alt : edertasunak m<sup>1</sup>bis» (50 or. = IV, 15, 24 [95, 2]), non, bistan denez, B-alter-en ez baitzen kalkatu B-prior-en badagoen *k* letra; 100 eta 140 orrien goiko eskuin aldeko izkinan «3» bana idatzi ditu (140 orrikoa azpimarratuta): aipatzeko modukoa da 100. orrian IX. liburua hasten dela eta 140. can XI.a; azkenik, 105 orrian makinaz egindako huts nabarmen bat ezabatu nahi izan du m<sup>1</sup>bis-ek: orri horretan dagoen IX, 6 kapitulari dagokion zerbaki erromatarraren ondoan baina eskubirago behar ez zen makinaz jotako «I» bat (zeina makinaz urratua baitago, hau da, B-prior-en ere urratuta agertzen da).

<sup>4</sup>Hirurak daude m<sup>2</sup>-ren zuzenketa asko jaso diren orrietan. Lehenena hau da: «utsago da nardatuago B : utsago ta nardatuago m<sup>1</sup>ter» (27 or. = III, 1, 1 [51, 14]). Bigarrena m<sup>1</sup>ter-ek berak egindako m<sup>2</sup>-ren zuzenketa baten kopia baten ondo-ondoan dago; B-ko testuak honela dio: «Entzulea kupitzea deitzen dute, ez[,] laguntzea» (27 or. = III, 2, 2 [54, 22-23]); m<sup>2</sup>-k «laguntzera» zuzendu du B-prior-en eta m<sup>1</sup>ter-ek, B-alter-en eta ohiko tinta gorriarekin, m<sup>2</sup>-ren zuzenketa jasotzeaz gain «kupitzea B : kupitzera m<sup>1</sup>ter» zuzenketa ere egin du. Hirugarrena, azkenik, honako hau da: «Jainkoa B : Jainkoa m<sup>1</sup>ter» (33 or. = III, 7, 12 [63, 19]); eta hau ere, aurrekoa bezala, m<sup>2</sup>-k orri horretan bertan egindako —eta m<sup>1</sup>ter-ek B-alter-en jasotako— beste zuzenketa batzuen berdin-berdina da (ikus, 112 or., B-ko 33 orri honetan hiru bider egindako «Jainko B : Jainko m<sup>2</sup>» zuzenketa).

prior-etik aldatu dituen hiru ohar (113, 114 eta 118 or.), *ex novo* sartu dituen sei ohar berri eta 128 eta 135 orrien bitartean gehitu dituen paragrafo zenbaki zenbait (m2).<sup>5</sup>

B-prior-eko egoeraren deskribapen hau da aipatu bi irizpideen arabera irits daitekeen aseptikoena: komeni zaigu, beraz, egoera honetatik abiatzea behar diren zehaztapen eta hipotesiak egiterakoan. Badirudi, izan ere, bereizi ditugun zortzi eskuei ez dagokiela ohargile bana: egiantzekoa da oso, esaterako, m1, m1bis eta m1ter izendatu ditugunak pertsona bakarra izatea —B-ko testua makinaz jo zuen kopiagilea bera—; eta, alderantziz, litekeena da zenbaki bakar baten barnean esku bat baino gehiago egotea: nago, adibidez, m4 deiturarekin sailkatu ditugun oharretan bi esku daudela (bat, oker ez banago, B-ren kopiagilearena, berriz ere). Behar da ordea zorrotz bereizi segurutzat jo daitekeena eta hipotesia besterik ez dena. Nolanahi ere den, orain axola zaigu aipatu sailkapen honekin lotuta dauden honako bi baieztapen hauek gogoan izatea: batetik, m1, m1bis eta m1ter izeneko eskuen ohar-edo guztiak B-prior Lazkaoko beneditarren etxetik atera baino lehenago egin zirela, hau da, *Aitorkizunen* testua oraindik Orixeren zaintzapean zegoenean eta, beraz, Orixeren oniritziarekin sartu zirela testuan; bestetik, Orixe B-alter-*ez* baliatu zela —berak nahi baino neurri txikiago batean izan bazen ere, seguruenik— B-prior-eko testuan egindako zuzenketa eta gehiketen kopia bat izateko eta, orobat, B-prior-ek bere eskuetatik alde egin ondoren otutzen zitzaizkion aldaketak jasotzeko, agian, gorago ere esan dugun bezala, liburuaren probak ikusiko zituelakoan.

## 1. m1, m1bis, m1ter eta B-ren kopiagilea

Hortaz, m1 deiturapean bildu ditugu bi behatzizkribu biki hauetako orrien artean kalkoa ipinita zegoen bitartean egin ziren ohar guztiak: B-prior-en lapitzez daude eta bertan lapitzez eginda dauden gainerako oharretatik —guk m1bis eta m4 izenekin sailkatu ditugunetatik alegia— bereizi ahal dira B-alter-ek erakusten digulako, ezin eztabaidatuzko moduan erakutsi ere, esan bezala eskribitu zirela. Seguruenik bi aldakiak oraindik idazmakinarene gurdian sartuta zeudenean egin ziren eta, hau horrela izan bazen, nahitaez ondorioztatu behar genuke testua makinaz jo zuen kopiagileak berak —aita Jose Maria Aizpuruak— idatzi zituela.<sup>6</sup> Ohar hauek paperak idazmakinatik atera baino lehenago egin zirela pentsarazten digu B-alter-en ere berdin-berdin kokatuta egoteak (izan ere, behin aldakiak makinatik atera eta gero zerbait gehitzen baldin bada, gehituak ez dira beti —ezta hurrik eman ere— parean gelditzen lehenengo eta gainerako kopietan), eta baita ere baieztatzeak paperak

<sup>5</sup>Hona hemen sei ohar berri horiek: «ots B-pr : ot B-alt : ots m2» (11 or. = I, 13, 22 [27, 12]; berriz ere, B-prior-etik B-alter-era kalkatu ez den letra bat da); «gorezkizunak B : goreskizunak m2» (42 or. = IV, 4, 8 [80, 22]); 56. orrian, V, 6 kapituluak behar duen «VI» zenbakia (B-prior-en Lekuonak gehitu zuen); 87. orrian, VII, 21 kapituluak falta duen izenburua («Kristo biotzez umil eta samur»; Lekuonak, noski, beste konponbide bat bilatu behar izan zuen: ikus 225 or. eta 248 or. 183 oh.); «biotzak B : biotzik m2» (163 or. = XII, 15, 22 [355, 11]) oker, agidanean; eta «baiztan B : baitzan m2» (191 or. = XIII, 33, 48 [420, 7]). Hauetaz gain, X. liburuaren testuan falta ziren 39-58 paragrafoen zenbakiak gehitu ditu, banan-banan (128-135 or.), eta 47.ean baita testuaren barnean paragrafo berria egiteko marka ere.

<sup>6</sup>C-ren kopiagileak ere —Orixek berak, oso oker ez banago— ohitura hau berau zuen (ikus 70 or. 10 oh.): litekeena da zuzenketa egiteko modu hau Orixe iradoki izana B-ren kopiagileari, baina litekeena da, orobat, gauza zabaldua izatea garai hartan; Erregelaren eskuizkribuei buruz ikus hurrengo oharra.

idazmakinatik atera ondoren errazago eta garbiagoa izaten dela zuzenketak eskuz koptatzea aldaki guztietan kalkoaren bidez egiten ibiltzea baino. Honetaz gain, zalantzarik gabe dakigu m1-en oharrak m2-renak baino lehenago egin zirela, askotan m2-k m1-ek marraztutako marren edo letren gainean berridatzi baitu (ikus beherago, 107-113 or., m2-k egindako zuzenketen zerrendan, «m1» abisua daramaten oharrak).<sup>7</sup>

Hau guztia, noski, ohar hauen egiletasun materialari dagokio, baina segituan ikusiko dugu zuzenketen nolakotasunak berak, gehienetan behintzat, kopiagilea salatzen duela. Nolanahi den ere, bereizketa hau —egilearen eta egilea ez denaren artekoa alegia— zati batean bakarrik onartu daiteke hau bezalako kasu batean, zeren nabarmena baita egilea eta egilea ez zen hura elkarren ondoan zeudela azken hau B-ko testua eskribitzen zegoenean: horrela pentsarazten digute testuaz kanpotiko datuek eta, batez ere, horrela izan zela erakusten digu testuaren antolamenduari dagozkion m1-ek egindako gehiketen kokapenak berak, berehala azalduko dugun bezala. Ikus ditzagun ordea, beste ezer baino lehenago, gorago definitutako ohar hauek:

	B	m1	A
2 or. [oin-oharra]	(1)		
4 or. = I, 6, 7 [15, 7]	edoskitzen	edoskitzen <sup>(2)</sup>	
4 or. = I, 6, 8 [15, 12]	baitara nintzan	b. nintzan <sup>(3)</sup>	
5 or. = I, 6, 10 [16, 25]	iragan biderik	iraganbiderik	iraganbiderik
6 or. = I, 7, 11 [17, 20]	azkurria	azkurria <sup>(1)</sup>	
6 or. = I, 7, 11 [17, 22]	akar	akar <sup>(2)</sup>	
6 or. = I, 7, 11 [18, 6]	azbegiak	azbegiak <sup>(3)</sup>	
7 or. = I, 8, 13 [19, 22]	eta, ezin	eta ezin	eta ezin
12 or. = I, 14, 23 [28, 7]	Gr[e]zikko	Gr[e]zi'ko	Greziko
12 or. = I, 14, 23 [28, 14]	gogo emanez	gogomanez	gogomanez
16 or. = I, 19, 30 [34, 8]	u a	ua	ua
20 or. = II, 3, 5 [40, 22]	bio zgarbi	biozgarbi	biozgarbi

<sup>7</sup>Erregelaren eskuizkribuek antzeko egoera bat erakusten dute. (Antzekoa diogu, eta ez berdina, Erregelaren testua ez dugulako *Aitorkizunena* bezain ondo dokumentatuta, ez baitzaigu inoiz gorde orri beraren aldaki bat baino gehiago: bigarren behatzizkriburako, izan ere, kalkoarekin egindako aldaki bat baizik ez dugu eta lehenengo behatzizkriburako, berriz, lehenengo kopia soil-soilik. Erregelaren bi behatzizkribuei buruz ikus 79 or. 33 oh.). Bigarren behatzizkribuak bi gauza hauek erakusten dizkigu: batetik, han ere bi modutara egin zirela zuzenketak, batzuk kalkoa bi aldakien artean jarrita eta beste batzuk, lapitzez, banan-banan bi aldakietan (lapitzez baitaude kalkoarekin ateratako kopia den gure eskuizkribu bakarrean, m1bis-enak B-alter-en dauden bezala); bestetik, bi zuzenketa sail hauek, oro har, B-prior-eko m1-ek eta m1bis-ek egindakoen oso antzekoak direla: elkarrekin eskribitutako hitzak bereiztekoak, liburu haren testuaren zenbaketa sistemari dagozkionak, idazte-hutsak zuzentzekoak, etab. (Bada, eskuizkribu honen zuzenketetan, beste sail bat, boligrafo batekin egindako oharrek osatzen dutena: hauek guztiak geroagokoak dira, seguruenik beneditarrek itzulpen hau editatu zuten sasoikoa). Lehenengo behatzizkribuak berretsi egiten digu bigarrenak erakutsitakoak; boligrafoak egin dituzenez —eta nahitaez geroagokoak izan behar dutenez— landara, bi sail berezi behar dira hemen: batetik, Orixek bere betiko tinta beltzarekin egindako oharrak eta, bestetik, lapitzez egindako beste batzuk; tinta beltzarekin egindakoak B-prior-eko m2-k egindakoen eite berekoak dira eta lapitzez egindakoak, oro har (hemengo honetan askoz lan gehiago izan baitzuen: ikus 79 or. 34 oh.), m1 deitura duten B-prior-eko hiru eskuiek egindakoen itzurakoak. Honetaz gain, ezin ukatuzkoa da Erregelaren eskuizkribuan arkatzez aritu dena (lehenengo behatzizkribuari dagokionez behintzat, bigarrenean marraztoreen bat eta letra solte batzuk besterik ez baitago) *Aitorkizunena* B-prior eta B-alter-eko m1 ter bera dela (ikus, esaterako, aipatu bigarren zatiko 25, 36, 37, 38 edo 41 orrietako gehiketak).

23 or. = II, 6, 12 [46, 21]	besterik	beterik	beterik
23 or. = II, 6, 13 [47, 3]	agintza dun	agintzadun	agintzadun
25 or. = II, 7, 15 [49, 5]	ordeegitea	orde egitea	orde egitea
27 or. = III, 1, 1 [53, 15]	bere	beure	beure
28 or. = III, 2, 2 [55, 1]	ez bearretan	ezbearretan	ezbearretan
50 or. = IV, 15, 24 [95, 10]	Zintzo tasunean	Zintzotasunean	Zintzotasunean
51 or. = IV, 16, 29 [98, 7-8]	urri bizia	urri bizia <sup>(1)</sup>	
56 or. = V, 6, 11 [109, 21]	itz- l -egokiz	itz egokiz	itz-egokiz
69 or. = VI, 9, 14 [141, 1]	bildurrez, aldegin	bildurrez a.	bildurrez aldegin
72 or. = VI, 11, 20 [146, 3]	egunoro- l b.	egunoro b.	egunoro b. <sup>8</sup>
75 or. = VII, 1, 1 [153, 18]	alda bera	aldabera	aldabera
87 or. = VII, 21, 27 [182, 18]	Zukegiñeri	Zuk egiñeri	Zuk egiñeri
92 or. = VIII, 5, iz. [192, 3]	pixkabat	pixka bat	pixka bat
92 or. = VIII, 5, 12 [193, 20]	etaloak	eta loak	eta loak
94 or. = VIII, 7, 16 [198, 7]	egin eragotsi	egin, eragotsi	egin, eragotsi
99 or. = VIII, 12, 28 [207, 18-19]	errukarriak	errukariak	errukarriak <sup>9</sup>
103 or. = IX, 4, 9 [219, 7-8]	baitaratzenb.	baitaratzen b.	baitaratzen b.
111 or. = IX, 12, 30 [236, 5]	zidananima	zidan anima	zidan anima
112 or. = IX, 13, 34 [238, 17-18]	Adan'en gan	Adan'engan	Adan'engan
115 or. = X, 4, 5 [247, 12]	onean as-estu	o.; as-estu	onean as-estu
119 or. = X, 9, 16 [256, 9]	ez erraiñua	ez, erraiñua	ez erraiñua
120 or. = X, 10, 17 [257, 5]	mintzoerraiñuak	mintzo-e.	mintzo-e.
122 or. = X, 15, 23 [262, 17]	arren erraiñua	arren eraiñua	aren erraiñua <sup>10</sup>
125 or. = X, 21, 30 [270, 6]	alaizan	ala izan	ala izan
132 or. = X, 33, 49 [284, 19]	Zentzu-arazoinen	Z.-arrazoinen	Z.-arrazoinen <sup>11</sup>
135 or. = X, 36, 59 [292, 3]	akio'an	akio'an	akioan
136 or. = X, 37, 60 [293, 21-22]	edota l duki	edota gal- l duki	edota galduki
143 or. = XI, 6, 8 [309, 20]	ageri l ko	ageriko	ageriko
146 or. = XI, 13, 16 [316, 21]	iragaitean	iragaitean	iragaitean
146 or. = XI, 13, 16 [316, 22]	lea- l aldi	lenaldi	len aldi
146 or. = XI, 14, 17 [317, 21]	Biribildiagot	Biribil diagot	Biribil diagot
147 or. = XI, 15, 20 [319, 24]	ogeita- l lau	ogeita lau	ogeita lau
147 or. = XI, 15, 20 [319, 26-27]	bakarrax	bakarra	bakarra
148 or. = XI, 18, 24 [322, 19]	bera aiek	beraiek	beraiek
153 or. = XI, 27, 36 [333, 15-16]	dirauna ori	dirauna, ori	dirauna, ori
154 or. = XI, 28, 38 [334, 22]	dut	du	du
156 or. = XII, 3, 3 [341, 9]	mukulu gai	mukulugai	mukulugai
163 or. = XII, 15, 22 [355, 16]	ereez	ere ez	ere ez

<sup>8</sup>«berantzen».

<sup>9</sup>Ohar bedi ondo Orixek ez duela behin ere erabiltzen, B-ko testuan, «errukari» hitza eta bai, 19 aldiz, «errukari», baina m1-ek zuzendu duen hitz honi C-n dagokiona, jakina, «errukariak» da (C, 107 or.). Bestela esanda: m1-ek nekez izan zezakeen «errukari» aldaeraren aldeko iritzi iririk; «errukari» eskribitzean banalizazio bat egin zuen baina, ereduaren zuzenez gero, konturatu ahal izan zen eta zuzendu egin zuen. (Hitz honek C-tik B-ra izan zuen ibilbideaz ikus III erans. 406 or. 42 oh.).

<sup>10</sup>Nahastu egin da m1, bistan denez, zuzenketa hau egiterakoan: «bañian arren erraiñua gogoan ez banu [...]» dakar B-k («verum tamen nisi et imago eius inesset in memoria mea [...]»), hau da, 'haren errainua'; m1 «arren» hitzaren 'gangarra' urratzera joan da baina haren ondoan —eta, noski, zuzen— zegoen «erraiñua» hitzarena ezabatu du.

<sup>11</sup>Daithekena da 'gangarra' makinaz jota egotea, baina oso ahul, eta m1-ek makinak jotakoa nabarmendu izana.

163 or. = XII, 16, 23 [356, 4]	begietara iño	begietaraiño	begietaraiño
163 or. = XII, 16, 23 [356, 9]	zertxo ba#t	zertxoba#t	zertxobat
165 or. = XII, 19, 28 [360, 7]	eite dun	eitedun	eitedun
166 or. = XII, 21, 30 [362, 9]	izadiarenmukulu	izadiaren m.	izadiaren m.
167 or. = XII, 24, 33 [365, 14]	egidala	egi dala	egi dala
168 or. = XII, 25, 34 [366, 8]	diozun agogoeman	diozuna g.	diozuna g. <sup>12</sup>
169 or. = XII, 26, 36 [368, 23]	oro-   batetik	oro batetik	oro ore batetik <sup>13</sup>
170 or. = XII, 28, 39 [371, 11]	(Io8, 25)	(Io, 8, 25)	(Io, 8, 25)
170 or. = XII, 28, 39 [371, 22]	ausoillki	au soillki	au soillki
171 or. = XII, 29, 40 [372, 15-16]	Lau otan	Lauotan	Lauotan
172 or. = XII, 32, 43 [376, 15]	Au ta	Auta	Auta
173 or. = XIII, 1, 1 [377, 12]	itzulin nendin	itzuli nendin	itzuli nendin
175 or. = XIII, 6, 7 [382, 7]	zuan	zun	zuan
175 or. = XIII, 7, 8 [383, 5]	maitasun aren	maitasunaren	maitasun aren
178 or. = XIII, 13, 14 [389, 2]	audiago	au diago	au diago <sup>14</sup>
178 or. = XIII, 14, 15 [390, 5]	iaie-   egiten	iai egiten	iai egiten
180 or. = XIII, 16, 19 [393, 21]	naidu	nai du	nai du
181 or. = XIII, 18, 22 [396, 6-7]	bezateargi	bezate argi	bezate argi
185 or. = XIII, 23, 33 [405, 7]	(I Cor 2, 14   14)	(I Cor 2, 14)	(I Cor 2, 14)
187 or. = XIII, 24, 37 [409, 10]	bizi aldi	bizialdi	bizialdi
188 or. = XIII, 26, 39 [411, 22]	ua azpertu	ua, azpertu	ua, aspertu
190 or. = XIII, 30, 45 [416, 12]	ezmoxorro	ez moxorro	ez moxorro

Hauetaz landa, 175. orrian ere gure zerrenda honetan islatu ezin diren bi zuzenketa egin ditu m1-ek: XIII, 6, 7 [382, 7-8] paragrafoan, «zergatik azkenean Zure liburuak aipatu zun Zure Arnasa» esaldiaren zortzi hitzek zenbaki bana daramate gainean (1, 6, 2, 3, 4, 5, 7, 8), «zergatik Zure liburuak aipatu zun azkenean Zure arnasa» ordenan inprima daitezen, A-n inprimatu diren bezala; eta XIII, 7, 8 [383, 5] paragrafoan ere, «maitasunaren gain gainekoa ezaguera» esaldiaren hiru hitzek («gain gainekoa» hitzek zenbaki bakarra baitute) zenbaki bana daramate gainean (1, 3, 2), «maitasunaren ezaguera gain-gainekoa» ordenan inprimatzeko, kasu honetan ere A-n inprimatu diren bezala.

Begien bistako dirudi m1-ek egindako ohar gehien-gehienak —guztiak ez esatearren— bi eratakoak bakarrik direla: testuaren antolamenduari dagozkion hutsak konpondu nahi izan dituztenak batetik eta, bestetik, eskribitze-hutsak zuzentzeko egindakoak. Lehenengo motakoak dira oin-oharrek falta zituzten deiak testuan sartu dituzten bospasei gehiketak (4, 6 eta 51. orrietan), oker ipinitako beste oin-ohar baten zenbakia ezabatu duen marra (2. orrian) eta baita ere hitzen hurrenkera berrantolatze asmoarekin jarri diren zenbakitxoak (bi bider, esan bezala, 175. orrian). Zuzenketa hauek ezer gutxi dioskute ohargileari buruz: daitekeena da —eta oso egiantzekoa, kontuan hartzen badugu C-n ez zegoela horrelakorik eta b eskuizkribua zela— oin-oharrak eta hauei dagozkien deiak eta zenbakiak ilun samar antolatuta egotea antigrafoan; baina gauza segurua da zuzendu behar izan ziren oin-ohar hauek kopiagileak B kopiatu ahala sartzen zituela egileak (edo kopiagileari sartzeko eskatzen

<sup>12</sup>«diozuna gogoeman» m1A.

<sup>13</sup>m1-ek marratxoa kenduarazi du; «ore» hitza B-prior-etik A-ra bidean gehitu da: ikus 240 or.

<sup>14</sup>Bi hitz hauek izan zuten biziaz ikus beherago 156 eta 163 or.

ziola: ez dezagun ahantz segurtasun osoa dugula, batetik, B eskribitu zenean Orixe bertan zegoela eta, bestetik, B ez zela kopiatu erabat bukatuta zegoen eredu batetik ezpada egileak eredu hura 'eman ahala': adibidez, 6. orrian 1, 2 eta 3 oin-oharren deiak eskuz gehitu ditu m1-ek, baina 4.arena makinaz egina dago eta orobat orri horretako oin-ohar guztiak. 175. orriko zuzenketei dagokienez, daitekeena da ereduaren ere horrela egotea baina kopiagileari ahaztu izana B-ko testua zenbakitxoaren arabera antolatzea edota, berriz ere, egilearen azken momentuko iradokizun bat izatea.<sup>15</sup>

Interesgarriagoa da egiaztatzea m1-ek egindako gainerako ohar gehienek huts mekanikoak zuzentzen dituztela: honelakoak dira bereizita egon behar luketen bi hitz elkartu egin dituzten gehienak edo, alderantziz, elkartuta egon behar luketenak bereizi egin dituztenak («bio zgarbi B : biozgarbi m1» [20 or.], «Zukegiñeri B : Zuk egiñeri m1» [87 or.], «alaizan B : ala izan m1» [125 or.], etab.); eta baita gehiketa bat edo ezabatze bat egitetik sortu diren hutsak ere, nabarmena baita hauetako gehienetan gertatutako gehiketak eta ezabatzeak mekanikoki egindakoak direla («eta, ezin B : eta ezin m1» [7 or.], «iragaitaean B : iragaitaean m1» [146 or.], «onean as-estu B : onean; as-estu m1» [115 or.], «erriñua B : erriñua m1» [122 or.], etab.).<sup>16</sup> Gauzak izan zitezkeen bestelakoak: esaterako, m1-ek ez du, oro har, irakurtze-hutsik zuzentzen; m2-k, berriz, eurrez: «arotan B : orotan m2» (2 or.), «amiltasunaren B : umiltasunaren m2» (9 or.), «siñesten B : siñestez m2» (20 or.), «erezten B : ezesten m2» (20 or.), etab. Alabaina, huts mekanikoak ez dira —ez behintzat nahitaez— bestelakoak baino nabarmenagoak, hau da, ez zaie nahitaez bestelakoei baino errazago antzematen: «arotan», «amiltasunean» edo «erezten» ez dira askoz zailagoak harrapatzen «gogo emanetz», «errukarriak» edo «audiago» baino.<sup>17</sup> Orduan, hutsak zuzendu behar dituen ohargilearentzat alderik ez badago —ez nahitaez edo ez beti, diogun berriz ere— era honetako hutsen eta bestelako hutsen artean, zer esan nahi ote du ohargile batek

<sup>15</sup>Orixek askotan erabiltzen zuen sistema hau hitzen ordena aldatzeko: C-n, esaterako, horrelako asko daude, eta orobat san Benitoren Erregelaren eskuizkribuan. Pare bat aldiz m a k i n a z eskribitu ditu zenbakitxo hauek B-ren kopiagileak: «dutan idatzi» hitzek 2 eta 1 zenbakiak daramatzate gainean, hurrenez hurren, eta A-n, noski, «idatzi dutan» argitaratu da (172 or. = XII, 32, 43 [376, 13]); «ixuriz bizi ere» hitzen gainean ere 1, 3 eta 2 zenbakiak daude eta A-n, kasu honetan ere, «ixuriz ere bizi» inprimatu da (174 or. = XIII, 4, 5 [381, 1]). Daitekeena da B-ren kopiagilea ez konturatzea (B-n dauden era honetako lehenengoak baitira) zenbakitxoek zer esan nahi zuten, eta daitekeena da, orobat, zenbakitxoei berandu erreparatzea.

<sup>16</sup>Honek ez du esan nahi, noski, huts mekaniko hauetako batzuek osagai psikologikorik izan ahal ez dutenik; hala da, esaterako, honako kasu hauetan: «iragan biderik B : iraganbiderik m1» (5 or.), «gogo emanetz B : gogoemanetz m1» (12 or.), «agintza dun B : agintzadun m1» (23 or.), etab.; edo, noiz edo noiz, puntuazio marka baten inguruan sortutako hutsetan; edo, azkenik, «beterik B : beterik m1» (23 or.), «errukarriak B : errukariak m1» (99 or.) edo «zuan B : zun m1» (175 or.) bezalakoetan. Eta ez dezagun ahantz daitekeena dela hemen aipatutako huts hauetako batzuen zuzenketan egileak berak parte eduki izana.

<sup>17</sup>Izan ere, hiru adibide hauek diruditen baino askoz esanguratsuagoak dira: B-ren kopiagileak —Orixek hemen darabilen euskara mota honetan ohitura gutxi zuen gizonak, gorago ikusi dugun bezala— hiru huts hauek zuzendu ahal izan ditu, baina ez Lekuona ez Orixe bera ez dira gauza izan *gogoeman* aditzarekin gertatutako beste huts bat —honen oso antzekoa— zuzentzeko (ikus, kasu xeblete eta benetan eder honetarako, 129-130 or.); «errukarriak B : errukariak m1» ez zegoen zuzentzerik, ez baldin bada ereduaren beraren argitan, zeren ez baita berez hutsa edo, hobeto esateko, ezinezkoa delako —eredua falta bada, diodan berriz ere— hutsa dela jakitea (ikus, gorago, 100 or. 9 oh. eta, diodanaren frogagisa, III erans. 406 or. 42 oh.); eta oso bixia da egiaztatzea ahal izatea m1-ek hain erraz zuzendu duen «audiago» honen aurrean Lekuonak, lehenengo momentu batean behintzat, «aundiago» banalizazioa egin zuela (ikus, lehen ere iradoki bezala, 156 eta 163 or.). Ez zen, beraz, erraza huts hauei igartzen.

huts mekanikoak —funtsean eskribitze-hutsak— bakarrik zuzendu izanak? Bestela esanda, noren portaera izan daiteke desberdina eskribitze-hutsen eta bestelako en aurrean? Huts horiek egin dituenarena: idazmakinan behar ez zen giltza jotzen dugunean, batzuetan behinik behin, konturatu egiten gara; berriz, «orotan» idatzita dagoen tokian «arotan» irakurri badugu nekezago konturatuko gara huts bat egiten ari garela. Badirudi, hortaz, m1-ek zuzendu dituen hutsen nolakotasunak berak ere kopiagilearen egiletasunaren alde hitz egiten duela.

Beraz, zuzendu diren hutsen nolakotasuna hain adierazgarria baldin bada, hau bezain adierazgarria izango da zuzendu ez diren hutsena. Esan dugu zerbait irakurtze-hutsen gainean eta, bestalde, B-ko testuak gutxitan ikusiko dugun gardentasun batekin jartzen digu begien aurrean barne diktaketan sortutako huts sail oso bati dagokion kasu bat: kopiagileak, izan ere, askotan nahastu ditu s eta z letrak eta oso huts nabarmenak egin ditu («nais», «suten», «ezaten», etab.). Orain ordea honako hau egiazta dezakegu: m1 ez dela gauza izan s eta z nahasteagatik sortu diren huts hauetako guztietako bat ere zuzentzeko (konparazio batera, bai m2-k bai m3-k era honetako dozenaka huts markatu dituzte: ikus, batarentzako zein bestearantzako, 85-87 or. zerrenda). Ez da erraza, testu honen historiarena bezalako epe labur batean, fortunatzea, batetik, mota honetako hutsak hain sarri eta hain sakon egiten dituen kopiagile bat eta, bestetik, mota honetako hutsak —diren bezain larriak izanik— ikusten ez dituen zuzentzaile bat: nekez sahiestu daitekeen hipotesia da biak, B-ren kopiagilea eta m1 alegia, pertsona berbera direla.<sup>18</sup>

Hipotesi honen argitan begien bistako bihurtzen zaigu m1-ek testuaren antolamenduaren inguruan egindako oharren zergatikoa —ohar hauek, lehenengo begi kolpe batean, arestian aztertu ditugunak ez bezalakoak baitira— eta, aldi berean, testuaren antolamenduari buruzko ohar haiek m1-ek eginak izatea hipotesi honen aldeko beste argudio bat bihurtzen da: zeren eta bai testuaren antolamenduari dagozkion oharrek bai idazte-hutsak zuzendu nahi izan dituztenek B - ko testua materialki bukatzea izan baitute helburu, hau da, makinaz jotzean eskribitu ez dena osatu nahi izan dute —edo sobera eskribitu dena ezabatu—.

Nago m1-en ohar hauen oso antzekoak direla m1bis deiturapean sailkatu ditugunak, hots, B-prior-en arkatzez marraztuta dauden eta, aldi berean, B-alter-en ere arkatzez eginda agertzen direnak, hots, B-prior-etik B-alter-era kopiatu —ez kalkatu— diren lapitzezko ohar guztiak:

	B	m1bis	A
80 or. = VII, 8, 12 [166, 5]	13	12	12
93 or. = VIII, 6, 15 [196, 3]	z#	zan	zan
121 or. = X, 14, 22 [261, 20]	20	22	22
128 or. = X, 28, 39 [277, 17]	gudu.	gudu?	gudu?

<sup>18</sup>Egin ez diren ohar motei buruzko atal honetan aipatzeko modukoa da, orobat, hutsak ez direnak ere hobetu nahi dituen oharrik ez egotea: erka bitez, besterik gabe, m1-en oharrak m2-k eta m3-k egindakoeekin. Jakina, m1-ek egindakoen artean horrelakorik ez izateak ez du ezer frogatzen, baina bada zerbaiten aztarrena; nolana ere, frogatuko lukeena ohargilearen jarrera edo asmoa izango litzateke, ez besterik: esan bezala, Orixek ez ezik Lekuonak ere egin zituen horrelako zuzenketak, eta erruz egin ere.

132 or. = X, 33, 49 [284, 19]	otsi etsian	etsi etsian	etsi etsian
132 or. = X, 34, 52 [286, 14]	tobia	Tobia	Tobia
138 or. = X, 42, 67 [299, 23]	orse	orde	orde
145 or. = XI, 13, 15 [316, 10]	Edora	Edota	Edota

Alegia, m1bis-en zuzenketak m1-ek egindakoen antzekoak dira bai beren nolakotasunarengatik bai ohargileak erakutsitako helburuarengatik. Lehenengoari dagokionez, hemen ere testuaren antolamendua ukitzen duten zuzenketak daude («13 B : 12 m1bis» [80 or.] eta «20 B : 22 m1bis» [121 or.]) eta, batez ere, *i d a z t e - h u t s n a b a r m e n b a i n o n a b a r m e n a g o a k* zuzendu nahi izan dituztenak: ohar bedi *s* eta *d* elkarren ondoan daudela idazmakinan (ezin baita beste zergatikorik izan «orse B : orde m1bis» [138 or.] hutsaren jatorrian) eta orobat gertatzen dela *r* eta *t* letrekin («Edora B : Edota m1bis» [145 or.]); «otsi B : etsi m1bis» (132 or.) hutsari dagokionez ere nago zer ikusi izan duela letra hauen giltzek makinan duten kokapen simetrikoak. Gainerako hirurak ere idazte-hutsak direla bistan da. Berriz, ohargilearen helburuari dagokionez, hemen ere —m1-en kasuan bezala alegia— bi aldakiak zuzendu nahi izan ditu batera, hots, bai B-prior bai B-alter eta, bestalde, merezi du aipatzea m1bis-en zuzenketak dauden orrietan ez dagoela inoiz m1-en zuzenketa bat ere; ez dakit estatistikak adierazgarritzat joko lukeen elkar osagarritasun hau, baina kontuan hartzeko modukoa irizten diot. Batek esango luke B-ren kopiagileak, ezin bazuen huts bat zuzendu paperak oraindik idazmakinarean gurdian zeudenean —hutsa zegoen lerroa pasatua zuelako, esaterako—, aldakiak makinatik atera arte itxaroten zuela eta hutsa zuzentzen zuela bi aldaketako bakoitzean, lehendabizi batean eta ondoren bestean, hau da, aldakiak behin makinatik aterata hutsak zuzentzeko dagoen modurik erosoenean. Daitekeena da, beraz, m1 eta m1bis izendatu ditugun eskuak, biak izatea B-ren kopiagilearenak; eta segurua da —axola zaigu berriz gogoratzea— bien zuzenketak Orixeren zaintzapean egin zirela.

Azkenik, ezin ukatuzkoa da m1ter zaion eskuak B-prior-eko 35. orrian tinta gorritz egin dituen aldaketak —guztiak testuaren antolamenduaren inguruan— m1-ek eta m1bis-ek egin dituzten batzuen eitekoak direla:<sup>19</sup>

	B	m1ter
35 or. = III, 8, 16 [67, 16-17]	sorterro	sorterro <sup>(5)</sup>
35 or. = III, 8, 16 [68, 3]	iagole <sup>(5)</sup>	iagole <sup>(6)</sup>
35 or. = III, 8, 16 [oin-oharra]	(3) sorterro	(5) sorterro
35 or. = III, 8, 16 [oin-oharra]	(4) Apen	(3) Apen

<sup>19</sup>Ohar bedi baita ere —m1, m1bis eta m1ter esku berbera direlako hipotesiaren alde baileudeke bi datuok— 35. orri honetan ez dagoela ez m1-en ez m1bis-en oharririk eta, bestalde, m2-k m1-en zuzenketak errepikatu dituenean (sei kasu dira: ikus, m2-ri buruzko zerrendan, taketen artean «m1» abisua duten oharrak) m1ter-ek ez dituela behin ere m2-ren zuzenketa hauek B-alter-en jaso. Gainera, naturala da kopiagilea bera arduratzea hark kopiatutako testuan ondo jaso gabe gelditu ziren oharren deiak eta abarrak osatzeaz, B-ko testuan —seguruenik jo eta berehala— lehendabiziko zuzenketa bat egiteaz —idazmakinarenean garaiko ohituretan ia-ia derrigorrekoa—, eta berak ateratako B-ren bigarren aldakia (B-alter) eguneratzeaz lehenengo aldakian (B-prior-en) egiten ziren zuzenketekin. Arkatza erabili izanak ere testuaren egilea ez den norbait salatzen duelakoan nago (ez ahantz Erregelaren eskuizkribuan ere gauza berbera gertatu dela); eta hau berretsi besterik ez du egiten tinta gorritz eskribitu dituenak testuaren antolamenduari edo osatzeari dagozkion gehiketak izateak.



35 or. = III, 8, 16 [oin-oharra]  
 35 or. = III, 8, 16 [oin-oharra]

(5) Buruzki

(4) Buruzki

(6) iagole = zaitzaile

Hauek ere, m1bis-enak bezala, esku berak tinta mota berarekin kopiatu ditu B-alter-en. Bistan da, bestalde, aldaketa hauek sortu direla kopiagilea orria eskribitzen zegoen bitartean: esaterako, ohargileak «sorterro» hitzari eskuz jarri dion deia «apentzen» hitzarena makinaz jo eta gero ipini dio —hobeto esateko, ipintzea erabaki du—, baina orri honetako oin-oharrak idatzi baino lehenago, hemen «sorterro = iturburu» azalpenak «3» zenbakia baitu (ikus VI irud.). Argi dago, beraz, hauek ere Orixeren zuzendaritzapean eginak direla. Bestalde, ia-ia segurutzat jo genezake —batez ere B-alter-ek ematen dizkigun lekukotasunengatik— m1ter eta m1 esku bera direla; horrela pentsarazten digute bataren eta bestearen eskribitzeko moduaren ezaugarri batzuek: elkarrengandik bereizita dauden bi letra lotzeko moduak, komak urratzekoak, bi letren artean tartekatatu den *u* letraren formak, etab.<sup>20</sup>

Ez da zalantzarik B-prior-eko m1ter hau B-alter-eko m1ter bera dela, hau da, B-prior-eko 35. orrian tinta gorria erabili duen esku hau dela m2-k —Orixek alegia— B-prior-en zehar egin dituen ohar gehien-gehienak B-alter-en kopiatu dituenak, tinta gorri berarekin, 1. orritik 38.era. Bestalde, berbera den B-prior eta B-alter-eko m1ter hau, inolako dudarik gabe, san Benitoren Erregelaren lehenengo eskuizkribuan ere agertzen den esku bat da: makinazko testua lapitzez zuzentzen eta osatzen —hots, m1, m1bis eta m1ter-ek B-prior-en izan duten papera antzezten— ibili den eskua, hain zuzen ere. Eta arestian ikusi dugu bai B-prior-etik bai B-alter-etik ibili den m1ter, batetik, eta kalkoa bi aldakien artean ipinita lan egin duen m1, bestetik, esku bera direla seguruenik. Oso egiantzekoa da, beraz, m1, m1bis eta m1ter —hirurak— esku bera izatea, aldi desberdinetan lan egin duen esku bat alegia, eta esku bakar hori B-ren kopiagilearena berarena izatea; eta, nolana den ere, gauza segurua da —eta hauxe da gehien axola zaiguna— hiru eskuak direla Lazkaoko garaikoak eta hirurak gidatu dituela Orixek.

## 2. m2: Orix

B-prior-eko testuan zehar tinta beltzez eskribitu diren oharrek Orixek eginak dira: nahikoa genuke, froga gisa, irizpide paleografikoa, baina baditugu —beherago ikusiko

<sup>72</sup>Azken kontzeptu honi buruz, hots, 'grafia morfologikoa' delakoaz —eta antzekoez— ikus orain Mujika [2002, 17-23 or.].

<sup>73</sup>C-tik B-ra bidean, izan ere, hiru bider gertatu da aldaketa bera (beti VIII liburuan): «nindukan C : niñedukan B» (C, 93 or., B, 88 or. = VIII, 1, 2 [184, 14]), «mindukan C : niñedukan B» (ib. = id. [184, 18]) eta «nindukan C : niñedukan B» (C, 102 or., B, 95 or. = VIII, 7, 18 [199, 12]) —baina ohar bedi VIII, 1, 2 paragrafoko lehenengo agerraldia «nendukan» dela C-ren makinazko testuan eta Orixeren eskuak «nindukan» irakur dadin aldatu duela—. (Lekuonak ere, zalantzarik gabe Orixeren aldaketa hauei jarraituz, 3 bider egin du aldaketa hau: VI, 12, 22 [147, 10 eta 147, 28] eta VIII, 12, 28 [207, 18]; ikus, hauetaz, 238 eta 241 or.). Horrela, A-ko testuan 5 «nindukan» gelditzen dira oraindik: V, 11, 21 [119, 23]; VI, 7, 11 [136, 21]; VI, 11, 20 [146, 12-13]; VIII, 8, 19 [200, 14]; X, 27, 38 [276, 12].

Hauen guztien zergatikoaz eta *Aitorkizunen* testuaren historian duten tokiaz ikus V eranskina. Ergatibo plurala bereiztea helburu duen aldaketa hau ere, C-tik B-ra bidean —eta baita C-ren beraren barnean— egindako hainbaten jaraipena izateaz gain, aurreko zuzenketak eragin dizkion nahi edo iritzi berberari atxiki behar diogu:<sup>74</sup>

99 or. = VIII, 12, 29 [208, 19]      laiñoak [lainoak C]    laiñoek      laiñoek

Eta, azkenik, C-tik B-ra bidean ere areagotu egin zaion grafia morfologikoaren aldeko joeraren adibidea da honako hau:

42 or. = IV, 4, 8 [80, 22]      bapanakatu [= C]    batbanakatu      bat-banakatu  
49 or. = IV, 14, 22 [93, 28]    bapanatuak [= C]    batbanatuak      batbanatuak

Baina ikus dezagun, merezi du-eta, *Aitorkizunetan* dauden item guztien bilakaera, m2-ren zuzenketak ere kontuan izanik:

	C	B	m2	A
I, 12, 19 [25, 9]	bat-banakatuak	bat-banatuak		bat-banatuak
I, 13, 20 [26, 1]		bat-banatu		bat-banatu
IV, 4, 8 [80, 22]	bapanakatu	bapanakatu	batbanakatu	bat-banakatu
IV, 14, 22 [93, 28]	bapanatuak	bapanatuak	batbanatuak	batbanatuak
IV, 14, 22 [94, 2]	bapana	bapana		bapana
V, 3, 3 [104, 2]	bapanatzean	bat-   -banatzean		bat-banatzean
V, 4, 7 [106, 13]	bapanatu	batbanatu		batbanatu
V, 4, 7 [106, 19]	bapana	batbana		batbana
X, 15, 23 [263, 1]		bapanatzeko		bapanatzeko
X, 40, 65 [297, 16]		batbanatuz		batbanatuz
XII, 8, 8 [346, 3]		batbanatu		batbanatu
XII, 17, 24 [357, 8]		batbanatzeko		batbanatzeko
XIII, 29, 44 [415, 12]		batbanatzean		batbanatzean

Badirudi, beraz, zuzenketak hauetako batzuek behintzat zer ikusi dutela Orixek sasoi hartan aldeztu zuen hizkuntza eredu-edo batekin, baina orain axola zaiguna da egiaztatzea horien helburua izan zela, esan bezala, C-tik B-ra bidean zeharoan bukatu gabe gelditu zen —eta sistematikoa izan nahi zuen— itxuraldaketa bat burutzea.

B-ko testuari egindako era honetako beste berrikuntza batzuk hizkuntzaren itxurari

<sup>74</sup>Hona hemen, adibide gisa bakarrik, C-tik B-ra bidean gertatu diren era honetako bospasei aldaketa: «aundiak C : aundiak B» (I, 8, 13 [19, 18]); «olakotsuak C : olakotsuak B» (I, 9, 15 [21, 23]); «liburuak C : liburuak B» (IV, 16, 30 [98, 18] eta V, 7, 12 [110, 21]); «sainduak C : sainduak B» (VI, 4, 6 [131, 13]). Baina, esan bezala, C-ren barnean ere ez dira falta: esaterako, «ezurrak [oro esan bezate]» (C, 109 or. = IX, 1, 1 [211, 9-10]) hitzaren gainean, makinaz, e bat gehitu da (eta «ezurrek» da, izan ere, B-k dakarrena: «omnia ossa mea dicant»), eta gauza bera gertatu da «zurikatzaileak [makurtzen gaituten bezala]» (C, 118 or. = IX, 8, 18 [227, 18-19]) hitzean («zurikatzaileek» B). Oro har C-tik B-ra egindako aldaketen gainean ikus 76-77 or.; Lekuonak honetan izandako jarrerari buruz eta B-tik A-ra gertatutako aldaketei dagokienez, 296 or.

buruzko momentuko iritziek eta apetek eragindakoak dira edo, zenbaitetan, nola edo halako erregulartasun bat lortzeko asmoarekin sartutakoak; hauetako bat edo beste, agian, aurreko atalean ere —hots, C-tik B-ra bidean saiatutako aldaketa sistematikoa burutzea helburu zuten aldaketen gainekoan ere— sailka genitzakeen, baina badirudi errazago uler daitezkeela hemen:

40 or. = IV, 3, 4 [78, 13]	odol ta [= C]	odol eta	odol eta
54 or. = V, 3, 3 [104, 1]	zatzaie [zakidie C]	zakie	zakie <sup>75</sup>
58 or. = V, 8, 15 [114, 17]	Evaren [= C]	Ebaren	Ebaren
88 or. = VIII, 1, 2 [184, 23]	iasanbearrez [= C]	iasan bearrez	iasan bearrez
89 or. = VIII, 2, 3 [186, 12]	iainkoaizunen [= C]	iainko aizunen	iainkoaizunen
90 or. = VIII, 3, 6 [188, 19]	itxaropided. [= C] <sup>76</sup>	itxaropide dunaz	itxaropide dunaz
96 or. = VIII, 8, 20 [201, 2]	bai ta [= C]	bai eta	bai ta
96 or. = VIII, 9, iz. [201, 12]	Nai, ta	Nai, eta	Nai, ta <sup>77</sup>
96 or. = VIII, 9, 21 [201, 22]	au eta [= C]	au, ta	au eta
96 or. = VIII, 9, 21 [202, 23]	b# lu [ba lu C]	ba'lu	balu
96 or. = VIII, 9, 21 [201, 23]	bailezake [= C]	bai'lezake	bailezake
101 or. = IX, 3, 5 [214, 23]	baíño [= C]	baíñon	baíño

Merezi du arreta pixka batekin aztertzea zerrenda honetako «eta > ta» eta «ta > eta» aldaketak. Orixe, bere garaiko eta giroko beste asko bezala, saiatzen zen bokalaren ondoren «ta» eta kontsonantearen ondoren —edo esaldi hasieran— «eta» erabiltzen.<sup>78</sup> *Aitorkizunetan*, izan ere, horixe da joera:

	konts. ond.	bok. ond.	guztira
ta	54	1.451	1.505
eta	1.652	278	1.930

Gainera, bokal baten ondoren agertzen diren 278 «eta» horietako 204 puntuazio ikur baten eskuinean daude (86 puntuazio indartsu baten ondoren eta 118 koma baten ondoren).<sup>79</sup>

<sup>75</sup>Hau da, lehendabizi, C-n zegoen *ekidin* ustezko laguntzailearen sinkopatu gabeko adizki bat («zakidie»), B-ra bidean, Orixe birmoldatutako *izan*-en paradigmaren dagokion ordainarekin ordezkatu da («zatzaie»); ondoren, B-ko makinazko testuan dagoen *izan*-en aipatu adizkiaren ordez *ekidin*-en adizki —oraingo honetan sinkopatu— bat («zakie») sartu nahi izan du m2-k. (Adizkia, noski, *zatzaizkie* da: «Aundi zera, Jauna [...]; aundizuak urrundani dituzu ezagutzen, baiña damutueri zakie urbiltzen»; «magnus es, Domine [...]; excelsa autem a longe agnoscis, nec propinquas nisi obritis corde»). Hemengo hau m2-k proposatu duen era honetako aldaketa bakarra da, baina ez dut uste eraginik izan duenik Mokoroaren txostenean nabarmendutako adizkietako bat izateak (ikus III erans. 117 zenb.); aldiz, adizki honek C-tik B-ra pairatu duen aldaketa mota berbera sarri samar gertatu da, hau da, askotan ordezkatu da —C-tik B-ra bidean, ohar bedi ondo— *ekidin* bat *izan* batekin edo, oraindik maizago, *ekidin*-en adizki osoak *ekidin*-en beraren adizki sinkopatuekin, gorago ere (77 or.) esan dugun bezala. Baina ustezko *ekidin* honi buruz ikus, oro har, VI erans.

<sup>76</sup>C-k dakarrena, berez, «itxaropide#dunaz» da, eta urratuaren gainean marra bat egin da goitik behera: litekeena da marra hau gaizki ulertu izana eta hemendik sortu izana m2-ren zuzenketa.

<sup>77</sup>Honek ez du ordezkorik C-n.

<sup>78</sup>Bereizketa honetaz ikus OEH, s.v., eta Azkueren hiztegia, s.v. Hona nola azaltzen duten kontua, Orixe eta Oiarzabalek, *El lenguaje vasco* liburuan (63 or.): «Conjunción copulativa es *ta* [...]. Si va tras palabra terminada en consonante decimos *eta* [...]. Tras consonante sonora es frecuente decir *da* en vez de *ta* [...]».

<sup>79</sup>Ez dut uste ezer berririk ekarriko lukeenik Orixeren *usu*-a askoz gehiago zehaztu nahi izateak. Ezin

Ikus ditzagun berriz goiko zerrendan jaso diren era honetako lau aldaketak:

40 or. = IV, 3, 4 [78, 13]	odol ta [= C]	odol eta	odol eta
96 or. = VIII, 8, 20 [201, 2]	bai ta [= C]	bai eta	bai ta
96 or. = VIII, 9, iz. [201, 12]	Nai, ta	Nai, eta	Nai, ta
96 or. = VIII, 9, 21 [201, 22]	au eta [= C]	au, ta	au eta

Lehenena eta azkena bete-betean sartzen dira aipatu sistemaren barnean: «odol ta» eta «au eta» arauaren kontrakoak ziren eta, m2-k sartutako aldaketei eskerrak, arauaren araberrakoak dira. Gainerako bi kasuak —ohar bedi biak orri berean daudela, bata bestea baino zortzi lerro beherago— ez dira hain begi bistakoak; «ai» diptongoaren ondoren ere «ta» erabili ohi du Orixek, baina salbuespenak bereziki ugariak dira, batez ere bi hitzen artean koma dagoenean: 28 bider dago «ta» bat «ai» diptongoaren ondoren eta 3 bider, berriz, «eta»; bi hitzen artean koma dagoenan, 7 bider dago «ta» eta 7 bider, aldiz, «eta».<sup>80</sup> Bistan da, beraz, halako eufoni irizpide lausotu eta aldakor samar batek —oso Orixeren gustukoak— eragin dizkiola bi zuzenketa hauek, biak —axola du kontuan izateak—, esan bezala, elkarrengandik oso hurbil. Dena den, ez dirudi Orixek arreta handia ipini zuenik bereizketa honetan: lau bider —eta, diogun berriz ere, bi orritan— bakarrik ukitu baitzuen testua horretarako.<sup>81</sup>

Nago zergatiko berberak eragin duela «baño B : baiño m2» proposamena: izan ere, badirudi Orixek joera duela *Aitorkezunetan* «baiñan» eta «baiño» bokalaren aurrean ipintzeko, eta «baña» eta «baiño» kontsonantearen aitzinean. Hona hemen B-ko testuaren datuak:<sup>82</sup>

	konts. aur.	bok. aur.	[punt. g.	punt.]	guztira
baña	7	0			7
baña	219	28			247
bañan	1	4			5
bañan	15	158			173
baño	5	2	[0	2]	7

eztabaidatuzkoa da Orixek aipatu hiru aruak (bokalaren ondoren «ta»; edozein kontsonanteren ondoren —eta ez, Azkuek nahi zuen bezala, *p*, *t*, *k* kontsonanteen ondoren bakarrik— «eta»; eta esaldi hasieran ere «eta» —baina baita, noizean behin, «ta» ere—) kontuan izan zituela eta, aparteko arreta ipini ez bazuen ere, bete nahi izan zituela. Hemendik aurrera joera orokorrak baino ezin dira egiaztatu: esaterako, argi dago «ta» errazago agertzen dela kontsonante baten ondoren kontsonante hori igurzkaria baldin bada (eta oraindik errazago «ez» hitza bada); edo —berehalaxe ikusiko dugun bezala— puntuazio ahul baten ondoren ere sarri dagoela «eta» bat bokal baten eskuinean; etab.

<sup>80</sup>Baina kontuan izan goiko zenbakiak ematerakoan («28» eta lehenengo «7») m2-k zuzendutako «bai ta» eta «Nai, ta» sartu ditugula «ta» dutenen multzoan eta ez, beraz, «eta» dutenengan.

<sup>81</sup>C-ko datuak B-koen antzekoak dira: «ta» 705 aldiz agertzen da eta hauetatik 34 kontsonante baten ondoren (34 hauetatik 24, berriz, *z* baten eskuinean); «eta» 1.052 bider aurki dezakegu eta hauetatik 240 bokal baten ondoren (240 hauetatik 34 puntuazio indartsu baten ondoren dira eta 173 koma baten ondoren). Lekuonak puntu honetan izan zuen jarrerari buruz ikus 268-270 or.

<sup>82</sup>Ohar bedi «baño» eta «baiño» aldaerak bokal baten aurrean agertzen direnean kontuan hartzen dugula *baino* hitzaren eta ondoren datorrenaren artean puntuazioa dagoen ala ez («punt. g.» = 'puntuaziorik gabe'; «punt.» = 'puntuazioarekin'): bai baitirudi ez dela gauza bera. (Bereizketa hau ez da beharrezkoa *baina* hitzaren kasuan, hau, *baino ez* bezala, ondoren jarraitzen zaionarekin joan ohi delako —hala da behintzat Orixeren erabileran—; «bañon» eta «baiño» aldaeren kasuan, bestalde, ez du ematen puntuazioa kontuan izateak ezer alda dezakeenik: nolnahi den ere, ez da puntuazioa duen item bat ere).

baño	164	88	[39	49]	252
bañon	0	2			2
bañon	3	25			28

C-renak hauen oso antzekoak dira. Bestalde, «eta» eta «ta» aldaeren kasuan bezala, Orixek ez bide zuen arreta geihegizkorik jarri arau hauen salbuespenak zuzentzen: m2-ren ohar hau da, izan ere, *baino* edo *baino* hitzen bukaerako *n* letrari dagokion proposamen bakarra.<sup>83</sup>

Azkenik, interesgarria da —besterik ez bada Lekuonak honetan izan zuen jarrerarekin alderatu ahal izateko— marratxoaren eta apostrofoaren erabilerari dagozkion aldaketak zerrendatzea:

7 or. = I, 8, 13 [20, 2]	zer gauza	zer-gauza <sup>84</sup>	zer-gauza
30 or. = III, 4, 8 [58, 24]	Jakin gabe	Jakin-gale <sup>85</sup>	Jakin gale
32 or. = III, 6, 11 [62, 28-63, 1]	ezagu argiz	ezagu-argiz [= C]	ezagu-argiz
35 or. = III, 8, 16 [68, 7]	oin billurrez	oin-billurrez <sup>86</sup>	oin-billurrez
41 or. = IV, 3, 5 [78, 25]	Lagun abar	Lagun-abar <sup>87</sup>	Lagun-abar
50 or. = IV, 15, 24 [95, 15]	zer gauza	zer-gauza <sup>88</sup>	zer gauza
19 or. = II, 3, 5 [40, 7]	Kartago`ra	Kartago`ra [= C]	Kartago`ra
19 or. = II, 3, 5 [40, 12]	ba`ledio	ba`ledio <sup>89</sup>	ba`ledio
60 or. = V, 10, 19 [117, 28]	Erroan	Erroma`n [= C]	Erroma`n
89 or. = VIII, 2, 3 [186, 13]	Erroma#ko	Erroma`ko <sup>90</sup>	Erroma`ko
96 or. = VIII, 9, 21 [201, 23]	b# lu	ba`lu <sup>91</sup>	balu
96 or. = VIII, 9, 21 [201, 23]	bailezake [= C]	bailezake	bailezake
96 or. = VIII, 9, 21 [202, 4]	ba liza [= C]	ba`litz	ba liza

Hemen axola zaiguna da egiaztatzea m2, zerbaiten alde egotekotan —zeren oharren kopurua txikia baita era hauetako zuzenketak jasan zitzaizketen hitzen kopuruaren ondoan—, hitzen osagaiak marratxoarekin eta apostrofoarekin bereiztearen alde zegoela. Esana dugu Orixek

<sup>83</sup>B-tik A-ra «baño B : baiñan A» bat dago (129 or. = X, 30, 41 [278, 14]: ikus 233 or.): ez da zalantzarik, noski, Lekuonak *baino* > *baino* aldatu nahi izan zuela (izan ere, «bañan» erabili ohi zuen, hau da, *n*-dun aldaera —*baino* hitzari dagokionez ordea *n* gabea—; ikus honetaz 184 or.). Bestalde, kontuan hartzeko modukoa da C-tik B-ra dezentetan egin zirela bukaerako *n* hau gehitzeko edo kentzeko aldaketak, eta beti aipatu arauen arabera.

<sup>84</sup>Honek ez du ordezkorik C-n, baina ikus, batetik, zerrendatxo honetan bertan, IV, 15, 24 paragrafoko kasua (nahiz eta paragrafo berean, m2-k zuzendutakoaren ondo-ondoan, «zer gauza» bat egon) eta, bestetik eta agian esanguratsuago, esanahi berbera duten «zer-dan» eta «zer-izan» ugariak, guzti-guztiak marratxoarekin («zer-dan»: VII, 4, 6 [158, 23]; VII, 12, 18 [172, 6] bis; XII, 15, 18 [352, 15]; XII, 17, 25 [357, 23]; «zer-izan»: VII, 2, 3 [155, 22-23, 156, 4 eta 156, 5]; VII, 3, 4 [157, 1]; VII, 4, 6 [158, 14]; VII, 7, 11 [164, 16-17]; VII, 9, 15 [168, 23-24]; VII, 12, 18 [172, 7]; VII, 14, 20 [173, 23]; VII, 16, 22 [175, 11 eta 175, 11-12]; XII, 15, iz. [352, 10]; XII, 15, 18 [352, 14]).

<sup>85</sup>C-k «Iakingale» dakar; noski, marratxoari dagokion aldaketagatik bakarrik dago hemen kasu hau, «gabe > gale» benetako zuzenketa baita.

<sup>86</sup>«Oin- l -billurrez» C.

<sup>87</sup>C-k ez du ordezkorik.

<sup>88</sup>«zer- l gauza» C.

<sup>89</sup>C-k honela dio: «[...] idatzi ok irakur ba letzate».

<sup>90</sup>«Erromako» C.

<sup>91</sup>«ba lu» C.

axolagabe samarra zela koritu hauetan.<sup>92</sup>

Munta handikoa da jakitea nolakoa izan zen Orixek B-ko testuaren hutsak zuzentzean izan zuen jardunbidea: besteak beste, honek argudio garrantzitsu bat emango digulako Orixeri atxikitzeko bestela nekez lepora geniezazkiokeen ohar zenbait eta, beste alde batetik, honi esker —baina aldi berean, noski, baita gorde zaigun testuaren aurreko idatzaldiari esker ere— *errores auctoris*-tzat jo ahal izango ditugulako bestela, agian, jatorrizko irakurketa gisa —ez irakurketa zuzen gisa— ulertu behar genituzkeen zuzenketa oker batzuk, bide batez erakutsiz testuaz kanpotiko datuak eta testuaren aldaera genetikoak erabakigarriak izan daitezkeela —eta, hortaz, ahal den guztietan kontuan hartu beharrekoak— *voluntas auctoris* definitzerakoan.

Kasu bakar baterako (III, 4, 7) froga dezakegu m2-k eredura jo zuela —b-ra edo, agian, C-ra— B-ko testua zuzentzeko:

Liburu arek iakin-mina eragiten du. Ark asmo-aldarazi *nindun*; *nire otoitz, opa, naikari, Zugana aldarazi* zitidan, Iauna. (C, 27 or.)

Liburu arek iakin-miña sortuazten du. Ark asmo-aldarazi zitidan, Jauna. (B, 30 or. [58, 11-13])

Liburu arek iakin-miña sortuazten du. Ark asmo-aldarazi *nindun*. *Nere otoitz, opa, naikari Zugana aldarazi* zitidan, Iauna. (m2),<sup>93</sup>

hau da, *saut du même au même* batek («aldarazi [...] aldarazi») eragindako ohiko ezabatze bat zuzentzeko. Bistan da m2-k, ezabatze hau zuzendu duen moduan zuzentzeko, puntu honetan behintzat C-ren berdin-berdina izango zen b (agian, esan bezala, C bera) eduki behar izan duela bere aurrean: zeren eta m2-k harrapatu zuen hutsa zuzentzeko itzulpenaren jatorrizkora jo izan balu ere ezinezkoa izango bailitzaiguke onartzea —Aristeasék *Septuaginta* direlakoei buruz kontatzen duen mirakulu famatua bezalakoean sinistu ezean behintzat— itzulpen berria eta lehengoa bat etor zitezkeela elkarrekin hemen bat datozen bezala.

Ezin da frogatu, noski, eredura gehiagotan jo ez zuenik, baina aipatu kasuan bakarrik egiazta dezakegu aurreko bertsio bat erabili zuela B-ko testua zuzentzeko;<sup>94</sup> egia da ordea m2-k zuzendutako hutsen artean badirela normahik zuzendu ezin lituzkeenak —ez berez

<sup>92</sup>Hona zer ziotson Mokoroari 1935eko apirilaren 12an Oreatik egindako karta batean (PIA), hark *Euskaldunak* poemaren testuari buruz egindako txosten bati erantzunez: «Manu'k ala Manuk? Errekalde'n ala Errekalden?» Euskaltzaindiak ez zun ontzat eman apostrofo ori, oker ez ba nago. Nai duzuna. «Ba leki ala baleki? Ba dakit ala ba-dakit?» Nik beti bereiz eta berdin erabiliko nituke, azentua berdin berdina ematen baitiegu, gurean beintzat. Baina... or kopon». Badirudi ordea —ez baitago argi, agidanean— hartu zuela erabaki bat Euskaltzaindiak: Azkuek [1928, 63-64 or.] aurkeztu zuen arazoa, lehenengo aldiz oker ez banago —esan nahi baita Euskaltzaindian—; Altubek [1928, 75-76 or.], ohi bezala, modurik arrazoizkoenean azaldu zuen Azkuek zabar samar aurkeztutakoa; eta, handik bi urtera (baina 1927ko azaroaren 25eko datarekin), honako hau irakur daiteke *Euskeran*, 11 (1930) zenbakiko «Euskaltzaindiaren batzar-agiriak» atalean (47 or.): «Euskaltzaindiak deritza, ez dala arbatxo ori [apostrofoa alegia] *declinacion*-an jarri bear». Badirudi arau orokorra dela, hots, izen bereziak ere kabitzen dituen («Bilbo'ko» adibidea ere aipatu egiten baita bertan), baina —esaterako— handik aurrerako 'batzar-agiri' guztietan, aurrekoetan bezalaxe, «Donostia'n» eta «Bilbo'n» irakurri ahal da beti, inoiz huts egin gabe. (Azkue eta Altuberen lan hauei buruz ikus V erans.)

<sup>93</sup>Orixeren gehiketa honek B-alter-en dituen aldaera txikiei buruz ikus gorago 118 or. 60 oh.; A-n ere m2-ren testua jaso da (bakarrik «naikari» eta «Zugana» hitzen artean koma bat gehiturik).

<sup>94</sup>Ez dugu inongo arrazoirik pentsatzeko II, 2 kapituluaren izenburua (ikus gorago 118 or.) b-tik B-ra bidean ezabatu zenik: C-tik B-ra gertatu diren ezabatzeak ere asko dira, baina ez dut uste behin ere froga daitekeenik b-n sortuak direla.

zailak direlako, ezpada ezin zaielako igarri hutsak direnik— baina, seguruenik, m2-k pasarte hauetan —eta hauetan bakarrik— jarritako arreta berezia besterik ez dute erakusten.<sup>95</sup> Merezi du gutxienez bat edo beste hona ekartzea:

Et quid propius auribus tuis, si cor confitens et vita ex fide est? (II, 3, 5)	Eta zer urbilago Zure belarriak baiño, <i>siñestez</i> aitortzen zaitun biotzarentzat? (C, 17 or.)	Eta zer urbillago Zure belarritik, <i>siñesten</i> aitortzen zaitun biotza baiño, siñesterik datorren bizia baiño? (B, 20 or. [40, 15-17])	Eta zer urbillago Zure belarritik, <i>siñestez</i> aitortzen zaitun biotza baiño, siñesteretik datorren bizia baiño? (m2); <sup>96</sup>
An hoc ibi dulce est, quod speramus exaudire te? Recte istud in precibus, quia desiderium perveniendi habent. (IV, 5, 10)	Entzunen gaituzun itxaropena al zaigu goxo? Bai naski otoitzetan, Zugana <i>eldu naia</i> baitute. (C, 39 or.)	Entzunen gaituzun itxaropena al zaigu goxo? Bai, naski, otoitzetan, Zugana <i>eldu-nai</i> baitute. (B, 43 or. [82, 16-17])	Entzunen gaituzun itxaropena al zaigu goxo? Bai, naski, otoitzetan, Zugana <i>eldu-naia</i> baitute. (m2);

<sup>95</sup>Ondoren aipatzen diren hutsek («siñesten», «eldu-nai», neurri txikiago batean «izanez»), ezinbestean, *error separativus* delakoaren kontzeptua dakarte gogora: ezin zaielako erraz igarri eta, hortaz, zuzenduta agertzeak jarrera edo egoera berezi bat erakusten dutelako zuzentzailearengan —benetako *error separativus* bat eskuizkribu jakin batean ez agertzeak frogatzen duen bezala eskuizkribu hori ezin izan dela etorri aipatu hutsa duen batetik—. Hemen, zuzenketen egileari bakarrik begiratzen badiogu, ez dugu horrelakoren beharrik: huts hauek tinta beltzez idatzita egoteak Orixeren egiletasuna salatzen du ezin eztabaidatuzko modu batean; baina, ikuspegi orokorrago batetik begiratu ez gero, interesgarria da egiaztatzea zuzenketen nolakotasunak berak ere Orixeren egiletasunaren alde hitz egingo lukeela: ez —diogun berriz ere— berez zuzentzen zailak direlako, ezpada ezin zaielako igarri hutsak direnik; huts zail asko zuzendu zituen Lekuonak, eta huts ez hain zail batzuk zuzendu gabe utzi behar izan zituen —haietan erreparatu arren!— Orixek berak (ikus, hemen bertan, 128-133 or.). Dena den, egia da *errores separativi* direlakoan froga-indarra zaila dela neurtzen; gakoa dago Maas laborzaleak bere definizioari gehitu zion azalpentxoan: «We can prove that a witness (B) is independent of another witness (A) by finding in A as against B an error so constituted that our knowledge of the state of conjectural criticism in the period between A and B enables us to feel confident that it cannot have been removed by conjecture during that period» (Maas [1967, 42 or.]); argiago mintzatzen da Roncaglia maisua [1975, 145 or.]: «Si intende poi che tale facilità ad essere corretti ed eliminati per congettura dovrà essere valutata caso per caso, non solo in rapporto alle intrinseche qualità degli errori in questione, ma anche in rapporto alle condizioni generali della cultura e alle capacità di critica testuale dei copisti nel periodo intercorso tra le testimonianze considerate: tale valutazione implica perciò un doppio giudizio interpretativo e storico, ancor più delicato di quello richiesto per riconoscere e convalidare errori congiuntivi». (Hala eta guztiz ere ikus, huts hauen balioa neurtzeko zailtasunaz eta ematen zaien balioaren ondorio arriskutsuez, Avalue [2002, 45-47 or.]; kontzeptuak hizkuntza modernoetan idatzitako testuen transmisioa aztertzerakoan izan dezakeen —baina, esan dezagun berriz ere, guri hemen ez dagokigun— balio murriztaz ikus Rico [inprimategian]). Honen guztiaren adibide ezin hobe da Orixeren eta Lekuonaren ohar hauek: *mutatis mutandis*, esan bezala, batez ere ez garelako kopia soilekin ari, baina baita ere itzulpen baten aurrean gaudelako. (Aldea, dena den, ez da eman lezakeen bezain handia: esana dugu ja —eta segituan ikusiko dugu behar den patxadaz— behin baino gehiagotan egilea ez dela gauza izan antzeman dituen huts batzuk zuzentzeko, baina bai, berriz, egilea ez den Lekuona).

<sup>96</sup>Nabarmendutakoaz landa beste bi gauza zuzendu ditu m2-k pasarte honetan: «siñesterik B : siñestetik m2» eta «d#torren B : datorren m2» (azken hau zuzenduta eman dugu baita B-ko testua jasotzen duen zutabearen ere).

<p>Quid est autem, quod me movit, domine Deus meus, ut ad Hierium, Romanae urbis oratore, scriberem illos libros? Quem non noveram facie, sed amaveram hominem ex doctrinae fama, quae illi clara erat et quaedam verba eius audieram, et placuerant mihi. (IV, 14, 21)</p>	<p>Zerk eragin ote nindun, ene Iainko Iauna, iardun aiek Erroma'ko mintzalari ari eskeintzera? ez bainendun aurpegiz ezagun, maite ordea irakasle aundi <i>izenez</i>, eta aren zenbait esaera agoz ago zebiltzanak atsegiten baitzidaten. (C, 44 or.)</p>	<p>Zerk ote ninderagin, ene Iainko Iauna, iardun aiek Erromako Hieri mintzalariari eskeintzera? ez bainendun aurpegiz ezagun, maite, ordea, irakasle aundi <i>izanez</i>, eta aren zenbait esaera agoz ago zebiltzanak atsegiten baitzidaten. (B, 49 or. [92, 20-93, 4])</p>	<p>Zerk ote ninderagin, ene Iainko Iauna, iardun aiek Erromako Hieri mintzalariari eskeintzera? ez bainendun aurpegiz ezagun, maite, ordea, irakasle aundi <i>izenez</i>, eta aren zenbait esaera agoz ago zebiltzanak atsegiten baitzidaten. (2m).</p>
---	--	--	---

Ez dago, agidanean, adibide hauek azaldu beharrik.<sup>97</sup>

Baina hauen ondoan —eta zuzendu edo, bada ere, markatu gabe gelditu ziren huts ugariak alde batera utzita— badira m2-k, hau da, Orixek nabarmenki g a i z k i z u z e n d u t a k o h u t s a k :

<p>[...] quod tam vicina interpretationis falsitate turbata non est et tam cito vidit quod videndum fuit [...] (III, 11, 20)</p>	<p>Gure ama erneak berela ikusi zun, <i>izutu</i> gabe, itz oriek nâsi zitezkel, ta berela bereizi zitun (C, 34 or.)</p>	<p>Gure ama ernaiak berela ikusi zun, <i>izkutu</i> gabe itz oriek nâsi zitezkel, ta berela bereizi zitun (B, 37 or. [71, 14-15])</p>	<p>Gure ama ernaiak berela ikusi zun, <i>ikaratu</i> gabe itz oriek nâsi zitezkel, ta berela bereizi zitun (m2);</p>
<p>Et quoniam cum de Deo meo cogitare vellem, cogitare nisi moles corporum non noveram —neque enim videbatur mihi esse quicquam, quod tale non esset— ea maxima et prope sola causa erat inevitabilis erroris mei. (V, 10, 19)</p>	<p>Eta Iainkoa <i>gogomatean</i>, mukulukia besterik ezin asma nenzan —ez bainendun uste bestelakorik ezer zanik— eta ori zane uts ezin-itzurien etorburu iakiñena ta ia bakarra. (C, 58 or.)</p>	<p>Eta Iainkoa <i>gogoen atean</i>, mukulukia besterik ezin asma nenzan —ez bainun uste bestelakorik ezer zanik— eta ori zane uts eziñ-itzurien etorburu iakiñena ta ia bakarra. (B, 60 or. [118, 6-9])</p>	<p>Eta Iainkoa <i>gogoen artean</i>, mukulukia besterik ezin asma nenzan —ez bainun uste bestelakorik ezer zanik— eta ori zane uts eziñ-itzurien etorburu iakiñena ta ia bakarra. (m2);</p>

<sup>97</sup>Ez dakit noraino jar litezkeen aipatu ditugunen parean B-ren huts eta m2-ren zuzenketa hauek: «egunak B : eguna m2» (5 or. = I, 6, 10 [16, 27]), «etzai#u B : etzazu m2 [etzazu A : eitzazu Oz]» (9 or. = I, 10, 16 [23, 1]), «bataio B : bataioa m2» (9 or. = I, 11, 17 [23, 14] eta 10 or. = I, 11, 18 [24, 7]), «gaiztagabegoa B : gaiztagabego m2» (24 or. = II, 6, 13 [47, 13-14]), «iasaiten B : iasaiten m2» (27 or. = III, 2, 2 [54, 20]), «nindagolako B : nindagola 2m» (37 or. = III, 11, 19 [71, 3]). Guzzi-guztietan, jakina, C-k m2-k bezala irakurtzen du (azken kasuan «nindagola» ekarri beharrean «nengola» dakar C-k, baina hemen auzitan dagoena atzizkia da eta, bestalde, «nindagon» bezalako formen aldeko joera bat izan da C-tik B-ra). Adibide polita da «Ps. B : Prov. m2» (68 or. = VI, 7, 12 [138, 2-3]); hemen gogoratu behar da 95 oh. aipatu behar izan dugun Maas-en harako «the state of conjectural criticism in the period between A and B» hura: salmoak ia-ia buruz jakingo zituen Orixeren kasuan (itzuliak zituen ordurako: ikus gorago 43 or. eta baita 52 or. 16 oh. ere) ezin dugu, inondik ere, *error separativus* gisa —hau da, gure kasu berezi baino bereziago honetan, *error separativus* bati parekatu lekiokoen zernahi gisa— sailkatu.



[...] si omnia concurrent in unum articulum temporis [...] (VIII, 10, 24)	[...] azkenik, nai- ukaite <i>oriek</i> oro une berean gerta ba lediz [...] (C, 105 or.)	[...] azkenik, nai- ukaite <i>ariek</i> oro une berean gerta ba lediz [...] (B, 97 or. [204, 8-9])	[...] azkenik, nai- ukaite <i>aiek</i> oro une berean gerta ba lediz [...] (m2);
Dominus Deus eorum me dedit eis. (VIII, 11, 27).	Aien Iainko Iau[nak] aieri <i>emana nakiek</i> [...] (C, 106 or.) <sup>98</sup>	Aien Iainko Iaunak <i>emananizaiok</i> [...]» (B, 98 or. [206, 20- 21])	Aien Iainko Iaunak <i>emanan izaiok</i> [...]» (m2);

Lehendabizikoak («izutu C : izutu B : ikaratu m2») ez du azalpen luzerik behar: bistan da zein izan den B-ko testuaren kopiagileak egin duen hutsa eta bistan da, orobat, nola zuzendu duen m2-k pasartearen zentzuaren arabera; m2-k B-ko testua aldatzeko zuen gogo falta nabarmena kontuan izanik, ez dirudi ausartegi pentsatzeak «izutu» zuzenduko zukeela baldin eta bururatu izan balitzaio hauxe zela jatorrizko irakurketa. (Eta —izan dezagun hau ere kontuan— hemen ez dugu zalantzarik Orixek dela «ikaratu» proposatzen arī dena: hitz osoa idatzi du B-ko «izutu» okerraren gainean eta ez da dudarik haren letra dela).

Bigarrena («gogoematean C : gogoen atean B : gogoen artean m2») oraindik esanguratsua da eta, agian, testukritikarientzako orritsa den *Aitorkizunen* testuaren historia honetan aurkitu daitekeen kasurik bitxiena eta, aldi berean, argiena. Harrigarri begitandu dakiguke —ikus 80 or. 36 oh.— Orixek hutsari igarri izana baina irakurketa zuzenarekin asmatu ahal ez izatea, batez ere kontuan hartzen badugu *gogoeman* aditza askotan erabiltzen duela *Aitorkizunetan* (beti ‘pentsatu’, ‘irudikatu’ adieran): harrigarria baina erakusgarria, egileek beren testuak zuzentzeko duten gaitasunari dagokionez.<sup>99</sup> Hau bezain harrigarria da ordea Lekuonak huts honen historian izan zuen parte zeren, ondorengo kapituluetan ikusiko ahal dugunez, ez ohiko arreta ipini baitzuen *Aitorkizunen* testua zuzentzen: makinazko testuaren hutsari igarri ez ezik Orixeren beraren zuzenketa ere gaitzetsi egin zuen Lekuonak, baina hala eta guztiz ere ez zuen irakurketa zuzenarekin asmatu. B-prior-eko 60. orrian dagoena Orixeren zuzenketa besterik ez da, hau da, ez dago Lekuonaren ez oharririk ez markaririk: arkatz gorri-urdirarekin marraztutako oharrak eta markak egin zitueneko garaian ontzat emango zuen Orixeren zuzenketa edo agian —egiantzeko iruditzen ez zaidan arren— ez zion zuzenketari erreparatuko; horrela, A-ko

<sup>98</sup>C-k honela dakar: «[...] Aien Iainko Iau- l aieri [...]»; bistan da lerro zatiketak sortu duela guk testuan berreraiki dugun ezabatzea.

<sup>99</sup>*Aitorkizunetan*, izan ere, 37 aldiz erabili du Orixek aditz hau —hemengo hau ere kontuan sartuz—: beti «gogoeman» idatzita, behin izan ezik («gogo emaiten»: VI, 7, 12 [138, 7-8]). Bestalde, bistan da b-n «gogoematean» besterik ezin zela egon eta h u t s a n o l a s o r t u d e n ere argi baino argiago dago: B-ren kopiagileak, ohi bezala, idazte-huts bat egin du eta idazmakinan *m* letraren ondo-ondoan dagoen *n*-a sakatu du, aldi berean hutsune bat sortu delarik behar ez zen toki batean, zalantzarik gabe *n* letraren giltza bete-betean jo ez duelako. Ohar bedi, honetaz gain, ezin dela inongo zalantzarik izan zuzenketa honen egiletasunari buruz; Orixek erabili zuen ohiko tinta beltzaz eskribituta egoteaz gain, oharraren alderdi paleografikoek ere haren eskua salatzen dute: bai lerroartean gehitutako *r* letra bai gehiketa non txertatu behar den adierazten duen marraztxoa, esaterako, 38. orriko «aspetzen B : aspetzten m2» zuzenketan dauden berdin-berdinak dira (gehiketak egiteko goitik beherako marra honi buruz ikus 185 or.; mintzagai dugun oharraren *r* letraren antzekoak dira, adibidez, 30. orriko gehiketa luzearen «Nere» eta «aldarazi» hitzetakoak edo, konparazio batera, arestian aipatu dugun 37. orriko «ikaratu» hitzarena).

testuan «gogoen atean» inprimatu zen, hau da, inprimategiko langileek ez zuten jaso Orixek eskuz gehitutako *r* hura eta B-ko makinazko testua bera kopiatu zuten. Azken orduan ordea, *Aitorkizunen* testua ja aldatzerik ez zegoenean alegia, pasarte hura begietaratu zitzaion Lekuonari eta hain iruditu zitzaion ezinezkoa non, esan bezala, Orixeren beraren zuzenketa ere gaitzetsi egin baitzuen eta 1956ko liburuaren 435-437 orrialdeetako «Okerrak zuzentze» delakoan (435 orrialdean zehazki) honako aldaketa hau iradoki baitzuen: «gogoen atean» ordeztu «gogora naiean». Lekuonak ere beste 36 aldiz irakurri zuen *gogoman* aditza hain ondo arakatu zuen *Aitorkizunen* testuan zehar, baina ez zitzaion bururatu «gogoen atean» ulertezin hark hain konponbide erraza izan zezakeenik: ezin eztabaidatuzkoa da ez zitzaiona bururatu, bestela ez baitzukeen «gogora naiean» bezalako irtenbide sofistikatu bat proposatuko. Huts gaizto honen historia ordea ez zen hemen bukatu: Mitxelena zorrotzak liburu honi egin zion iruzkinean inprimatze huts aldrebes batzuk aipatu zituen («irakurlearentzat irrixtakorrak izan daitezkealakoan, neretzat bezala») eta, hauen artean, honako hau:<sup>100</sup>

gogoen atean (gogomatean, 118 [or.]).

Nekez aurkituko da *error auctoris* hobegorik —hots, argiagorik, berariazkoagorik— eta nekez, orobat, filologoaren —onaren eta ez hain onaren— egitekoaren adibide gardenagorik.

Gauza bera gertatu da, berez, hirugarrenean («oriek C : ariek B : aiek m2»): ez da atal honetako gainerakoak bezain ikusgarria testuak berdin samar onartzen dituelako zuzenketa okerra eta irakurketa zuzena eta, bestalde, errazago gerta daitekeelako hemen egileak jakinaren gainean egindako aldaketa bat izatea.<sup>101</sup> Laugarrena ere («emana nakiok C : emanizaiok B : eman izaiok m2») adierazgarria da oso. B-ko testuan «emanizaiok» hitzaren letrak ez daude guztiak berdin jota: azken *n*-a beste letrak baino pixka bat beherago dago eta badirudi ohi baino zuri zabalago bat dagoela *n* horren eta hurrengo letraren artean. Bi marka egin ditu m2-k hitz honen gainean: batetik, antzeman daitekeela dirudien bereizketa hori berretsiz nonbait, marra bat egin du goitik behera «eman izaiok» bereiziz alegia; bestetik, gorago aipatu ditugun —eta segituan mintzagai izango ditugun— puntu beltz horietakoak ipini ditu «izaiok» hitzaren azpian. Utz ditzagun oraingoz puntutxo hauek. Nabarmena da «emana nizaiek» behar duela —adizki alokutiboa da eta adizki alokutiboez inguratuta dago—: «nizaio», «nizaie», etab. Orixek *izan* laguntzailearentzat proposatzen zituen forma ustez jatorretakoak dira (ohiko *natzaio*, *natzaie* eta abarren parekoak) eta nonahi irakur daitezke *Aitorkizunetan* (ikus, honen gainean, VI erans. 448 or. eta 11 oh.). Orixe, alabaina, ez da konturatu: zati batean, zalantzarik gabe, zentzua hartzeko oso beharrezkoa zen C-ko «aieri» hura ez delako jaso B-ko testuan; eta agian baita ere B-ko testuan dagoen —hots, hitzak «eman izaiok» zatitzen dituen— zuri zabalegi horrek itsutu egin duelako. Gero Lekuonaren eskua etorri da lapitz gorri-urdinarekin: lapitz urdinarekin «izaiok» hitza hartzen

<sup>100</sup>Mitxelena [1956a, 78 or.].

<sup>101</sup>A-n «oriek» irakur daiteke berriz: seguruenik konturatu egingo zelako Lekuona B-prior-en oraindik oso ondo irakur zitekeen «ariok» hark «oriek» baten usteltzea izan behar zuela (gainera, m2-k egindako marra eta ligatura oso ahulak dira). Orixek —esan beharra dago-eta— ez du inoiz «ariok» bezalakorik erabiltzen; hemen mintzagai dugun honetaz landa bada beste «ariok» bat *Aitorkizunetan* («arien aurka»: 76 or. = VII, 2, 3 [156, 9]): hau ere, jakina, C-ko «orien» baten usteltzea da (78 or.), baina honi ez bide zion inork begiratu.

duten bi marra egin ditu, biak goitik behera; seguruenik honen ondoren, beste marra bat egin du lapitz gorriarekin, hau ere goitik behera, baina honek «emana nizaiok» bereizi du eta horrelaxe inprimatu da A-n. Baina azken proba ontzat emandakoan hitzak duen beste huts batekin konturatu da eta «Okerrak zuzentze» delakoan (1956ko liburuaren 436 orrialdean) honako zuzenketa hau egin du —zuzen, azkenik ere—: ez «nizaiok», ezpada «nizaiiek». Hau da, azkenean, C-ko «nakiok».

Onartu beharra dugu, hortaz, zuzenketa hauek guztiak oker daudela, huts egin zuela Orixek hauek proposatzean, hustzat joko zituzkeela haietan ondo erreparatu izan balu, zeren bistan baitago hemen ez zuela bere testua aldatu nahi izan: C-ko irakurketak berreskuratu nahi zituen, eta ezin izan zuen. Bistan da, hortaz —eta gorago aurreratu bezala—, *errores auctoris* direla eta horrelakotzat jo behar direla *voluntas auctoris* delakoa zehaztu nahi dezagunean. Nahi eta nahi ez atera beharreko ondorioa da, beraz, Orixek ez zuela arreta handirik jarri —ahal izan— B-ko testua zuzentzean edo, bada ere, ez zuela arreta handirik jarri testuaren puntu jakin batetik aurrera: bai baitirudi lehenengo hiruzpalau liburuak arretatsuago irakurri zituela handik aurrerakoak baino —ohi den bezala eta segituan berretsi ahal izango dugun legez—. <sup>102</sup>

Izan ere, gaizki zuzendutako huts hauen ondoan aztertu behar dira **a n t z e m a n a r r e n z u z e n d u e z z i t u e n h u t s a k**: hiru galdera marka txikirekin nabarmendutako hitz bat eta puntu beltzez azpimarratutako beste bost hitz (gorago aipatu ditugu: 118 or.). Merezi du sei pasarte hauek beren testuinguruan ikustea:

[...] sed moleste habebam, quod in coetu audientium non sinerer ingerere illi et partiri cum eo curas quaestionum mearum conferendo familiariter et accipiendo ac reddendo sermonem. (V, 6, 11)

Gaitzi zekididan ordea, entzuleen billeran arengana sartzen ez uztea, nire auzien kezkek ari lagun-gisa elkarr-izketan ez *iaukitzea*. (C, 53 or.)

Gaitzi zitzaidan, ordea, entzuleen billeran arengana sartzen ez ustea, nere auzien kezkek ari lagun-giza elkarr-izketan ez *iakintzea*. (B, 56 or.)

Gaitzi zitzaidan, ordea, entzuleen billeran arengana sartzen ez ustea, nere auzien kezkek ari lagun-gisa elkarr-izketan ez *iaukitzea*. (A, 109, 23-25); <sup>103</sup>

<sup>102</sup>Esan dugu ja zerbait egileek egin ohi dituzten eta egin ohi ez dituzten hutsei buruz: ikus 80 or. 36 oh. eta, batez ere, bertan aipatzen den Roncaglia-ren eskuliburuan ematen diren adibideak. Egileak beren testuen zuzentzaile kaxkarrak izaten direla ere ezin eztabaidatuzkoa da, baina testukritikazko liburuetan ez zaie behar adina garrantzi ematen egiaztapen honen ondorioei. Timpanaro-k hemen axola zaigun kasutik hurbil dauden adibide batzuk ematen ditu: «[...] como ya hemos hecho constar, el lapsus se produce también en materias sobre las cuales estamos óptimamente preparados. [...] Ni siquiera plantea problemas —y lo sabe cualquier autor de artículos o de libros— el hecho de que Freud, cometiendo el lapsus [‘Amilkar’ idatzi beharrean ‘Asdrubal’ eskribitu zuen], “lo dejase pasar durante nada menos que tres lecturas de pruebas de imprenta” [Freud-en beraren hitzak dira hauek] [...]. Todos sabemos que el autor es el peor corrector de sus propias pruebas de imprenta, precisamente porque es el más interesado en su escrito y, al conocerlo ya perfectamente, se siente menos inclinado que cualquier otra persona a leer las pruebas de imprenta palabra a palabra. Ya he citado ejemplos de errores que han sobrevivido a repetidas correcciones de pruebas de imprenta [...], y me resultaría fácil citar otros [...]» (Timpanaro [1977, 179 or.]). Aipu honetan probak zuzentzeari buruz esaten dena berdin-berdin esan liteke Orixek B-prior-eko testuan egin zuena bezalako orrazketa bati buruz: baina guk mintzagai ditugun kasu hauek larriagoak dira, egileak antzeman egin dielako hutsei, baina ez da gauza izan behar bezala zuzentzeko.

<sup>103</sup>A-n ere mantendu den «ustea» hori, noski, hutsa da eta, C-n bezala, «uztea» behar du; B-ko «lagun-giza», berriz, zuzendu egin da A-ra heldu orduko.

Sic intellegebam me ipso experimento id quod legeram [...] (VIII, 5, 11)	Onela nenkusan nire baitan <i>gerta</i> irakurri nuna [...] (C, 98 or.)	Onela nenkusan nere baitan <i>gerta</i> irakurri nuna [...] (B, 92 or.)	Onela nenkusan nere baitan <i>gerta</i> irakurri nuna [...] (A, 193, 1-2);
Mecum erat Alypius otiosus ab opere iuris peritorum post assessionem tertiam, exspectans, quibus iterum consilia venderet (VIII, 6, 13)	Alipi nirekin zan, <i>opor</i> , irugarrenez aholku-emaile izanik aioan baitzegon urrena aholkuak nori saldu (C, 99 or.)	Alipi nerekin zan, <i>opro</i> , irugarrenez aholku-emaile izanik aioan baitzegon urrena aholkuak nori saldu (B, 93 or.)	Alipi nerekin zan, <i>opor</i> , irugarrenez aholku-emaile izanik aioan baitzegon urrena aholkuak nori saldu (A, 194, 20-22);
Dominus Deus eorum me dedit eis. (VIII, 11, 27).	Aien Iainko Iau[nak] aieri <i>emana nakiek</i> [...] (C, 106 or.)	Aien Iainko Iaunak <i>ema- l nanizaiok [emanan izaiok m2]</i> [...] (B, 98 or.)	Aien Iainko Iaunak <i>emana nizaiok [emana nizaiok Oz]</i> [...] (A, 206, 20-21);
Iam liber erat animus meus a curis mordacibus ambiendi et adquirendi et volutandi atque scalpendi scabiem libidinum (IX, 1, 1)	Orduko iarei zan ene anima opa eta ukan-kezkaen ausikietatik, lizun-atza iraultzizka <i>atzegitetik</i> . (C, 109 or.)	Orduko iare zan ene anima opa eta ukan-kezkaen ausikietatik, lizun-atza iraultzizka <i>atzegitetik</i> . (B, 100 or.)	Orduko iare zan ene anima opa eta ukan-kezkaen ausikietatik, lizun-atsa iraultzizka <i>atzegitetik</i> . (A, 212, 9-11);
[...] quid tunc egisti, Deus meus? Unde curasti? Unde sanasti? (IX, 8, 18)	Zer egin zenun ordun, ene Iainko? Nola <i>arretatu?</i> Nola sendarazi? (C, 118 or.)	Zer egin zenun ordun, en Iainko? Nola <i>arreratu?</i> Nola sendarazi? (B, 107 or.)	Zer egin zenun ordun, ene Iainko? Nola <i>arretatu?</i> Nola sendarazi? (A, 227, 9-10).

Esan bezala, «iakintzea» hitzaren ondoan hiru galdera marka txiki diruditenak daude; bigarren kasuan puntutxoak «gerta» hitzaren azken zatiari eta «gerta» eta «irakurri» hitzen arteko zuriari dagozkie, oker ez banago; «opro» hitza aipatu puntutxo beltzekin dago azpimarratuta eta, ondoren, Lekuonaren arkatzaren mutur gorriak gaizki kokatuta dauden bi letren ordena aldatzeko marka bat egin du eta mutur urdinak, berriz, «opor» idatzi du, osorik; «emananizaiok» irakurketari buruz ikus arestian azaldutakoa (130-131 or.); «atzegitetik» hitzaren *z* letraren gainean markatxo bat dago, gorritz eta urdinez egina —Lekuonarena, beraz—, hitz osoa nabarmentzen duten puntutxoez landara; eta «arreratu» hitzak, hemen aztergai ditugun guztiek dituzten puntu beltzez gain, on Manuelen arkatzaren mutur gorriaz egindako marka bat du.

Harrigarri baderitzogu ere, ezin ukatuzkoa da azpimarratuak eta galdera markak Orixek bere buruarentzat egindako deiak direla, berrikusi egin behar zituela ohartaraz ziezaioten ipinitakoak; hustzat jo zituen edo, bederen, susmagarri egin zitzaizkion pasarte horiek, baina ezin izan zituen momentuan zuzendu: ondo zuzendu ezin izan zituen bezala lehengo «izkutu», «gogoen atean» eta «ariek», esaterako. Lekuonak, berriz, «gogoen atean» hartan —eta beste batzuetan— ez bezala, asmatu egin zuen hemengo huts hauek guztiak zuzentzen, baita zuzendu behar ez zen «atzegitetik» ez zuzentzen ere: zalantzarik gabe, Orixek ipinitako

markek ere lagunduko zioten, besterik ez bada atentzioa jartzen kasu horietan. Oker zuzendutako eta zuzentzeke lagatako huts hauek derrigortzen gaituzte onartzera momentu jakin batetik aurrera Orixek ezin izan zuela behar adinako arreta ipini *Aitorkizunen* testua berrikustean: zeren eta, ditugun datuak kontuan hartuz gero, gaizki egindako zuzenketa hauek, galdera markak eta azpimarratzeko puntutxoak ezin baitizkiogu beste inori leporatu. Bestalde, zuzentzen ipini zuen arreta hirugarren edo laugarren liburutik aurrera gutxitu zela begien bistan dago: zer edo zergatik hasten dira Lekuonaren oharrak —esateko moduan— bosgarren liburutik aurrera, gutxi gorabehera. Nolanahi ere, zuzendu gabe gelditu ziren hutsetan izandako jarrera zuzen epaitzeko oso kontuan izan behar genuke testuaz kanpotiko lekukotasunek inongo zalantzarik gabe segurtatzen diguten datu bat: *Aitorkizunen* behatzizkribua Lazkaotik bidali zuenean Orixek ez zekiela liburuaren probarik ikusiko ez zuenik.

### III

#### Lekuonaren eskua B-prior-eko orrietan

Beraz, zuzenketa eta gehiketa hauekin guztiekin Orixek *Aitorkizunen* bigarren eta azken idatzaldia izan behar zukeena burutu zuen, hau da, argitara zedin nahi izan zuena edo, zehazkiago mintzatzeko, utzi zituen paperen artean nahi hartatik hurbilen dagoena: ez baitugu ahaztu behar Orixek, bere eskuizkribua inprimategira bidean jarri zuenean, oraindik probak ikustea espero zuela eta, zalantzarik gabe, haietan aldaketak egiteko asmoa zuela (ikus, batetik, 51-62 or. eta, bestetik, 98 eta 132-133 or.). Horrela gertatu ez izateaz gain, 1956ko irailean Zarauzko Itxaropena argitaletxeak kaleratu zuenak Lazkaotik atera zen testua berariaz aldatzen zuten ehunka aldaketa zituen: konturatu zen Orixe —noraino ez dakigun arren— ‘eskua sartu zutela’ bere liburuan eta ageriki eta idatziz gaitzetsi zituen *Aitorkizunen* testuan egin zizkioten aldaketak, izenburuan «Quos ego...!» aipu esanguratsua zeraman artikulu batean (60-61 or.). Orain badakigu, jakin, aldaketa ugari eta sakon haiek on Manuel Lekuonak egin zituela, nonbait Orixeren hizkera arautzeko eta itzulpena txukuntzeko asmoz (ikus, honen gainean, I erans. 362-363 or.). Axola zaigu Lekuonak Orixeren testuaren gainean egin zuen lana ahal den xeheena berreraikitzea: batez ere batari eta besteari zor zaiena elkarrengandik bereizi ahal izateko, baina baita berezko interesa duelako ere —*Aitorkizunen* historiaren kapitulu garrantzitsua izaki— eta, beste gauza askoren artean, testuaren beraren alderdi ilun anitz argitzen lagunduko digulako. Orixek egin zituen *Aitorkizunen* lehenengo idatzaldiari C eta bigarrenari B esan diegun bezala, Lekuonak egindako lanetik sortu zen *Aitorkizunen* testuari A esango diogu. Bertsiio hau 1956an argitaratutako testuan gauzatu zen, baina ondo samar ezagutzen dugun ibilbide baten emaitza da: Lekuonak B-prior-eko orrietan egin zituen —eta IIIgarren kapitulu honetan aztergai ditugun— oharrak eta markak ibilbide haren lehenengo pausoa dira, zeren beste mugarri batzuk ere bai baitira A-raino daraman bide labur baina malkartsuan —IVgarren eta Vgarren kapitulueteen arakatuko ditugun mugarriak, hain zuzen ere—. Daitekeena da lehenengo pauso honen ikerketa izatea garrantzitsuena: B-prior-eko orrietan Lekuona elkarriketan dagoelako Orixeren testuarekin eta Orixek berak testu honi egindako zuzenketekin, eta baita ere hemendik sortuko direlako —ohi bezala, modu nahasi eta, nolabait esateko, basati batean— gero zenbait irazkitatik pasatuta agertuko zaizkigun aldaketa, argiketa eta zuzenketa gehienak.

## 1. m3: arkatz gorri-urdina

Ez dugu denbora gehiegi emango frogatzen arkatz gorri-urdina erabili zuena eta guk m3 izendatu duguna (ikus gorago 96-97 or.) on Manuel Lekuonaren eskua dela. Batetik, ohar hauen guztien izaerak berak Orixe ezin izan daitekeen baina, aldi berean, *Aitorkizunen* 1956ko edizioarekin zer ikusi zuzena izan zuen norbaiten eskua salatzen du, berehalaxe ikusiko dugun bezala. Bestetik, testuaz kanpotiko datuek ematen duten oinarritik abiatuta, hots, Lekuonak *Aitorkizunen* edizioan izan zuen parteaz ditugun ezin ukatuzko lekukotasun ugari eta askotarikoak kontuan izanda —eta hauetan nabarmenena da B-prior haren paperen artean egotea bera—, m3 Lekuonaren eskua dela eta ez beste inorena begien bistako bihurtzen du haren garai honetako beste paper askotan lapitz berbera edo berdin bat, letra bera, eta oharrak eta zuzenketak egiteko sistema berbera erabili izanak: nahikoa da, adibide gisa —honelako hamaika baitira Lekuonaren artxiboan—, XVI irud.

Lekuonak B-prior-en egindako ohar gehienak bere buruarentzat egindako oharpenak dira, behin-behinekoak beraz eta «Utsuneak» izeneko dokumentua ontzerakoan, probak zuzentzerakoan edo 1956ko liburuaren eranskinak antolatzerakoan gogoragarri izan zitezten pentsatutakoak. Izan ere, m3-ren arkatz gorri-urdin hark egiten zuen marra oso lausotua da, halako moduan non askotan —arretaz idatzita dagoenean ere— ezin baita ongi irakurri eta, *de facto*, m3-k B-prior-en eskribitutako hitz asko ez dago leizerik ez baldin bada inprimategiko langileek eskumenean ez zituzten zenbait lanabesekin (esaterako, *Aitorkizunen* latin testu batekin edo, jakina, 1956ko edizioaren testuarekin berarekin). Bestalde, askotan erabili zuen arkatz gorri-urdina huts nabarmenik ez zuen hitz bat azpimarratzeko edo, oro har, ezer garbirik esan nahi ez zuen marka bat egiteko: hots, berak bakarrik uler zitzakeen oharpenak egiteko; eta 1956ko edizioaren testuari erreparatzen diogunean ikusten dugu horrela nabarmendutako hitz gehienei gero atentzioa hartu zitzaizela: batzuetan aldaketaren bat egin izan da, beste batzuk liburuaren akaberako hiztegitxoan jaso dira, etab.

Duten helburuaren arabera, m3-k B-prior-eko orrietan egindako ohar eta marka guztiak lau sailetan sailkatu daitezke: lehendabizi, hitz baten esanahia azaltzen dutenak edo azaldu behar litzatekeela adierazten dutenak (lehenengo kasuan, esaterako, «garerdiko» bezalako hitz bat azpimarratuz eta, hurbileko zuri batean, «florentem» idatziz; bigarren kasuan, berriz, argitu beharreko hitza azpimarratuz bakarrik, ordainik eman gabe: «zireun»); bigarrenik, bai hitz bat edo hitz baten letra bat edo letra batzuk espresuki zuzentzen duten oharrak —gainean edo lerroen artean letra bat edo hitz oso bat eskribituz— bai begien bistan bide dagoen modu batean zuzendu edo aldatu behar dela abisatzen dutenak (B-ko «zaitz» hitzaren *z* eta *a* letren artean, adibidez, *u* bat idatziz, «zuaitz» irakur dadin; edo B-ko «aintzakirik» hitzaren *n* letra markatuz, noski «aitzakirik» leitzeko); hirugarrenik, puntuazioa kanbiatzen dutenak (puntuazio markak, komatxoak barne, sartuz edo ezabatuz); eta, laugarrenik, esaldi edo pasarte oso bat nabarmentzen dutenak —dela testu zati bat azpimarratuz, dela orriaren ertzean marka bat eginez, dela bi hitzen artean edo paragrafo baten hasieran edo bukaeran goitik beherako marra bat idatziz— baina, orain artekoetan ez bezala, nola aldatu behar den edo zergatik nabarmendu den inondik ere agerian ez dagoelarik. Batzuetan, hitzak —edo testu zatiak— ondoren izan duen bilakaerak bakarrik esaten digu lau multzo hauetako zeinetan sailkatu behar den Lekuonak egindako oharra: konparazio batera, ikusten baldin badugu B-prior-en azpimarratuta dagoen «zietan» hitza gero 1956ko liburuaren akaberako

«Iztegitxoa» delakoan agertzen dela, arrazoizkoa da ondorioztatzea esanahia argitu behar zela iritzi ziolako azpimarratu zuela. Beste batzuetan —gutxitan— zalantzazkoa da lau multzo hauetako zeinetan sartu behar litzatekeen m3-ren marka bat edo, gauza bera dena, zein helbururekin nabarmendu zuen Lekuonak letra, hitz edo pasarte bat: B-priorren azpimarratuta agertzen den «ilaurri», demagun, «iñaurri» bezala dago inprimatua 1956ko liburuaren testuan eta, aldi berean, liburuaren bukaerako hiztegitxoan jaso da. Baina ikusiko dugu sailkapen hau —Lekuonak Orixeren testuaren gainean egin zuen lanaren nondik norakoa ezagutzeko ezinbestekoa izateaz gain— azalpen labur honek eman dezakeen baino gardenagoa dela eta zeharoan bat datorrela *Aitorkizunen* testuaren historiako gainerako datuekin. Ditutzen helburu eta ondorioengatik elkarren oso desberdinak direnez gero, m3-k idatzitako marka eta oharrak aipatu sailetan bananduta eman eta aztertuko ditugu.<sup>1</sup>

#### a. Hiztegia

Agian ja 1956ko edizioaren akaberran inprimaraziko zuen hiztegitxoarekin pentsatzen (bai baitzuen ohitura: gogora nola eginarazi zuen, bi urte lehenago, era eta izen bereko «Iztegitxoa» bat Itxaropena argitaletxearentzat ere prestatu zuen *Gero*-ren edizioan),<sup>2</sup> Lekuonak azpimarratu egin zituen zailtzat edo, nonbait, argitu beharrekoztat zituen hitz batzuk, eta gehienetan —ez beti— azpimarratutako hitzaren ordain bat ipini zuen orriaren zuri batean, normalean gaztelaniaz edo latinez, inoiz baita euskaraz ere. Ondorengo zerrendaren ezkerreko zutabeen Lekuonak aipatu asmo honekin markatutako hitz guztiak jaso dira, eta eskuinekoan hitz horietako bakoitzarentzat emandako ordaina, halakorik denean:<sup>3</sup>

<sup>1</sup>Ez ditugu inongo zerrendatan jaso puntuazioari dagozkion m3-ren 300etik gorako proposamenak: aipuen komatxoei eta antzeko txikikeriei dagozkienak —eta gehienak dira era honetakoak— erabat hutsalak dira; puntuazioari berari dagozkionak, bestalde, nabarmenak dira eta, hortaz, ez dute erakusten —bestelako oharrek ez bezala— kontuan hartzeko moduko jarrerarik edo nahirik *Aitorkizunen* testuarekiko (gauza ezaguna da Orixek ez zuela batere arretarik jartzen auzi hauetan). Bildu ditugu ordea —146-157 or. zerrendan— galdera eta harridura ikurrei dagozkien proposamen guztiak. Hona jaso ez diren aldaketa horien adibide adierazgarri batzuk: «Billa B : «Billa m3» (\*1 or. = I, 1, 1 [9, 19]); «(Ps. 34, 10) Nor B : (Ps. 34, 10). Nor m3» (100 or. = IX, 1, 1 [211, 12]); «baitiño: “zeruen B : baitiño: “Zeruen m3» (156 or. = XII, 2, 2 [340, 7]); edo, aipatu bigarren multzokoak: «erdeiñatuz baiña B : erdeiñatuz, baiña m3» (61 or. = V, 13, 23 [121, 23]); «zabaldu, betieran B : zabaldu; betieran m3» (145 or. = XI, 11, 13 [314, 13]); «eskolatu aitortzen zaitun B : eskolatu, aitortzen zaitun m3» (156 or. = XII, 3, 3 [341, 8]); etab. B-tik A-ra bidean egindako era bereko zuzenketak —hauek bezain hutsalak eta hauek bezain nabarmenak, gehien-gehienak behinik behin— ehunka izango dira: haiek ere, noski, jasotzeke utziko ditugu.

<sup>2</sup>Mitxelena egin zuen aipatu «Iztegitxoa» (*Gero*... iv. argitaratua Euskaltzaindiko Lekuona apaizak prestatua eta aitzin-solastua, Zarautz, Itxaropena, 1954, 463-469 or.); ikus, liburuaren osagaiak antolatzen moduarengatik eta alderdi materialaren beraren aldetik *Aitorkizunen* 1956ko edizioarekin hain antz handia duen *Gero* honetarako, 59 or. 38 oh.

<sup>3</sup>Oso argi egoten da, oro har, zein hitzi dagokion glosa bakoitza: horregatik ez naiz luzatu azaltzen orrialdearen zein tokitan dauden idatzita Lekuonaren oharrak. Jeneralean orriaren ertzetan eta paragrafoen arteko zurietan egoten dira, baina batzuetan baita lerroartean ere. Arkatz urdinarekin idatzitakoek izartxo bat daramate. Glosarik ez duten hitz zenbaitekin ordea, eta testuan iragarri dugun bezala, izan daiteke zalantzazkoa, batzuetan, Lekuonak hitz hori azpimarratzeko izan duen arrazoa: azpimarratu ote duen esanahia argitu behar dela iritzien diolako ala susmoa duelako hitzak hutsen bat duela. Era honetako kasuak ez dira asko: nolana ere, zalantza txikiena ere izan daitekeen guztietan arazoaren berri eman dugu. («Oz» laburduraz ikus 288 or.).



	B	m3
42 or. = IV, 4, 7 [80, 6]	garendiko	florentem
43 or. = IV, 4, 9 [81, 28]	Auk	ten
43 or. = IV, 5, 10 [82, 14-15]	mingulin	queja
45 or. = IV, 8, 13 [86, 5]	axekatzekak	nugari, broma <sup>4</sup>
*45 or. = IV, 9, 14 [86, 17]	obenduru	reo
48 or. = IV, 12, 19 [91, 9]	erraldoi	gigas
51 or. = IV, 16, 28 [97, 23]	zireun	
51 or. = IV, 16, 29 [98, 2]	kaizu	magnitudo
53 or. = V, 2, 2 [102, 13-14]	inarrausiak	vexari, castigar
54 or. = V, 3, 3 [103, 20-21]	bekaldetzen	comparar
54 or. = V, 3, 4 [104, 14]	Arrandi	soberbia
54 or. = V, 3, 4 [104, 22]	iresle	devorador
56 or. = V, 6, 10 [109, 7]	txiratzen [txeratzten m3] <sup>5</sup>	acariciar
60 or. = V, 10, 19 [117, 28]	nabastarreak	familiaritas
60 or. = V, 10, 20 [118, 14]	iasak	pietas
61 or. = V, 12, 22 [120, 15]	[iraizeko on] puztagarriak	pasajeros <sup>6</sup>
64 or. = VI, 2, 2 [127, 17]	kurkañoaren	
64 or. = VI, 2, 2 [128, 10]	suar	fervens
71 or. = VI, 11, 18 [144, 9]	iraizeko	presente
75 or. = VII, 1, 2 [155, 1]	erasaten	penetrar
76 or. = VII, 3, 5 [157, 6]	idoki	sacar
77 or. = VII, 3, 5 [157, 25]	zafiltzen	?
83 or. = VII, 13, 19 [173, 6]	adargil	ganado
84 or. = VII, 14, 20 [174, 8]	aleun	inumerable [sic]
85 or. = VII, 17, 23 [176, 17]	oildu	apartar
85 or. = VII, 17, 23 [176, 19]	istatua	inundar
85 or. = VII, 17, 23 [177, 1]	usma	olfato
85 or. = VII, 18, 24 [177, 24]	eraiki	ex[...] <sup>7</sup>
86 or. = VII, 19, 25 [179, 1]	tinki	
86 or. = VII, 20, 26 [179, 24]	eskier	
87 or. = VII, 20, 26 [180, 16]	mordindua	
87 or. = VII, 21, 27 [181, 5-6]	illarraindu	
87 or. = VII, 21, 27 [181, 14]	atzilotzen	
87 or. = VII, 21, 27 [181, 19]	tinkatu	
87 or. = VII, 21, 27 [182, 7]	kordokatuko	
88 or. = VIII, 1, 2 [184, 24]	irenak	eunuco
*89 or. = VIII, 2, 4 [187, 4]	berariz	burlar
89 or. = VIII, 2, 4 [187, 7]	izai	cedro
93 or. = VIII, 6, 13 [194, 19]	auengarri	
93 or. = VIII, 6, 13 [194, 21]	aioan	
93 or. = VIII, 6, 13 [195, 2]	goxo ta mana	
93 or. = VIII, 6, 13 [195, 2]	sari-zun	

<sup>4</sup>Ez da argi ikusten: daitekeena da «bromear» ipintzea.

<sup>5</sup>Baina ikus, beherago, 146 or. eta bertako 33 oh. eta 334-336 or.

<sup>6</sup>Honetaz ikus, atal honetan bertan, 145 or.

<sup>7</sup>Ez da ondo irakurtzen.

95 or. = VIII, 7, 17 [198, 23]	aiertzen	
95 or. = VIII, 7, 18 [199, 13]	irotzen	
104 or. = IX, 4, 12 [221, 5]	lasterrna <sup>8</sup>	prontitud
107 or. = IX, 8, 18 [227, 1]	uztaka [uztarka OzC] <sup>9</sup>	
107 or. = IX, 8, 18 [227, 10]	arreratu [arretatu AC] <sup>10</sup>	curar
107 or. = IX, 8, 18 [227, 25]	uger	profundo
108 or. = IX, 9, 21 [229, 27]	korrokatu	vomitar
109 or. = IX, 10, 25 [232, 25]	txirdillen	inferior
112 or. = IX, 12, 33 [238, 1]	ilaurri [iñaurri AC] <sup>11</sup>	
112 or. = IX, 12, 33 [238, 10]	nausa	reírse
113 or. = IX, 13, 37 [241, 1]	ioiago [ioriago OzC] <sup>12</sup>	rico
115 or. = X, 4, 5 [247, 11-12]	asaska	desahogarse
115 or. = X, 4, 5 [247, 12]	as-estu	apurar
117 or. = X, 6, 9 [250, 8-9]	Uhats [...] uhatsak <sup>13</sup>	aire
118 or. = X, 8, 13 [254, 3]	edutu	formarse
120 or. = X, 12, 19 [259, 4]	berrein	innumerables
123 or. = X, 16, 25 [264, 6]	dendua	cimiento
123 or. = X, 17, 26 [265, 9]	aleun	inumerables [sic]
123 or. = X, 17, 26 [265, 19]	zietan <sup>14</sup>	
125 or. = X, 21, 30 [270, 12-13]	usnatu	
128 or. = X, 28, 39 [277, 7]	kukatzen	hallar <sup>15</sup>
129 or. = X, 30, 42 [279, 15]	gorbizi	rebelde
130 or. = X, 31, 44 [280, 19]	segarak	
131 or. = X, 32, 48 [283, 15]	entziten	aquietar
132 or. = X, 34, 52 [286, 21]	antzumatzuz	
133 or. = X, 34, 52 [287, 7]	lo-armarik	
133 or. = X, 35, 54 [288, 14]	ista	brillo
134 or. = X, 35, 56 [289, 26]	araotzen	
*135 or. = X, 36, 59 [291, 23]	xapaleri	
135 or. = X, 36, 59 [292, 5]	egitzi <sup>16</sup>	

<sup>8</sup>Gero, bistan denez, hustzat jo zuen, A-n «lasterra» agertzen baita: oker, «lasterka» behar baitu, C-k dakarren bezala; litekeena da hustzat jo izanak zer ikusia izatea glosa hau 1956ko liburuaren bukaerako «Iztegitxoa» delakoan jaso ez izatearekin.

<sup>9</sup>Ez da irakurtzen hitz honi dagokiola dirudien glosa.

<sup>10</sup>Hitz hau gorago aipatutako puntu beltzekin dago azpimarratuta (ikus 131-133 or.); B-tik A-ra bidean bakarrik zuzendu zen: ikus 254 or. Seguruenik, glosa hau Lekuonak hutsari igarri baino lehenagokoa da eta, hemen ere, hustzat jo izanak zer ikusia duke 1956ko liburuaren akaberako hiztegitxoa jaso ez izanarekin.

<sup>11</sup>Litekeena da m3-k hitz hau azpimarratu izana bai hiztegitxoan jasotzeko bai «ilaurri» hustzat zuelako: izan ere, jaso egin zuen 1956ko liburuaren bukaerako «Iztegitxoa» delakoan («iñaurri» formarekin) eta testuan ere zuzendu egin zuen.

<sup>12</sup>Hiztegitxoan ere zuzenduta agertzen da («iori»); ikus, honetaz, 293 eta 334-336 or.

<sup>13</sup>Biak daude azpimarratuta.

<sup>14</sup>Hitz honetan bi marka daude: batetik, hitz osoa dago azpimarratuta, m3-k esanahiaren aldetik argitu behar diren hitzei ipini ohi dien bezalako marra batekin eta, inongo zalantzarik gabe, kasu honetan ere asmo horrekin (gainera, 1956ko liburuaren «Iztegitxoa» delakoan jaso da: «zietan sartu = estimular»); bestetik, z letra zirkulu baten barruan sartuta dago (litekeena da zirkulu bat ez baina o bat edo a bat izatea, hots, «oietan» edo «aietan» irakurtzeko). Lehendabiziko markarengatik atal honetan jaso da, eta bigarrenarengatik beherago 150 or.; huts honek duen alderdi interesgarri bat 338 or. nabarmendu da. Beste batzuetan bezala, beraz, Lekuona dudan ibili zen, hutsa ote zen ala ezagutzen ez zuen hitza.

<sup>15</sup>Azalpen oker honi buruz ikus 140 or. 22 oh.

<sup>16</sup>Inongo zalantzarik gabe, «egotzi» behar luke: ezin dugu seguru jakin hitz hau 1956ko liburuaren hiztegitxoan

136 or. = X, 37, 60 [293, 4-11]	axukatzen, azukalditan	tentar
137 or. = X, 37, 62 [295, 14]	goitzarrenak	contumelia
140 or. = XI, 1, 1 [303, 20]	Berein	milla, asko
141 or. = XI, 2, 4 [306, 10]	semautsi	
142 or. = XI, 5, 7 [308, 13]	eita [eitea A]	forma
145 or. = XI, 12, 14 [315, 6]	beraizik	bromeando
145 or. = XI, 13, 15 [316, 9]	aleun, aleun	inumerables [sic]
147 or. = XI, 15, 18 [318, 17]	axekatuko	tentar <sup>17</sup>
148 or. = XI, 17, 22 [321, 4]	iaurri	gobernar
149 or. = XI, 20, 26 [324, 14]	atarra	reprehensión
151 or. = XI, 24, 31 [329, 7]	zora	moveise
152 or. = XI, 27, 34 [332, 13]	tarterik	espacio
153 or. = XI, 28, 37 [334, 7]	xurtzen	disminuir
154 or. = XI, 29, 39 [335, 17]	iraizeko	transitorio <sup>18</sup>
155 or. = XI, 31, 41 [337, 5]	iraitzi	arrojar
156 or. = XII, 3, 3 [341, 11]	mokorki	corpus
157 or. = XII, 4, 4 [341, 15-16]	soraioeri	muy tardos de inteligencia
160 or. = XII, 11, 13 [349, 10]	egarten	egari
161 or. = XII, 13, 16 [350, 24]	aizaroak	
161 or. = XII, 14, 17 [352, 1]	sorbatz	filo
162 or. = XII, 15, 19 [353, 18-19]	irotzen	
169 or. = XII, 26, 36 [369, 3]	edu	como
170 or. = XII, 28, 38 [371, 6]	erasanez	padecer
173 or. = XIII, 1, 1 [377, 10]	ixitu [isitu A] <sup>19</sup>	
174 or. = XIII, 4, 5 [380, 22]	iro	corromper
175 or. = XIII, 7, 8 [383, 11]	bixikoago	
178 or. = XIII, 13, 14 [389, 18]	ataizean	
181 or. = XIII, 18, 23 [397, 7-8]	maketsen	perfecto <sup>20</sup>
181 or. = XIII, 18, 23 [397, 11]	alki	contento
182 or. = XIII, 19, 24 [398, 11]	lapardiak	zarzal
182 or. = XIII, 19, 25 [398, 21]	auta	electa
182 or. = XIII, 19, 25 [399, 3]	eintsu	medida
183 or. = XIII, 20, 27 [400, 11]	bixikoak	diferentes
183 or. = XIII, 20, 28 [401, 1]	ein	

jasotzeko asmoarekin azpimarratu duen m3-k (jaso egin baitu: «egotzi = dejar, deponer») ala hutsa nabarmentzeko —nahiz eta A-n ere «egitzi» bezala agertu—. Ikus beherago 151 or. eta 332 or. 50 oh.

<sup>17</sup>Azalpen hau ere gaizki dago: ikus 140-141 or. 22 oh. bigarren zatia.

<sup>18</sup>Ikus beherago 145 or.

<sup>19</sup>Azpimarratzeko moduagatik ez dirudi zalantzan jar daitekeenik Lekuonak hitz hau nabarmendu duela esanahiari buruzko azalpen bat behar duela iritzia diolako, baina kontuan hartu behar da, orobat, A-n «isitu» bezala agertzen dela (ikus 241 or.) eta, aldi berean, ez dela jaso 1956ko libuaren hiztegitxoan.

<sup>20</sup>Azalpen oker honi buruz ikus, beherago, 143-144 or. Bestalde, «perfecto» hitzaren gainean «carnalibus» zuen idatzita Lekuonak, betiko arkatz gorriarekin, baina idatzi ondoren urratu egin zuen. Izan ere, «carnalibus» paragrafo honetako latin testuan agertzen da eta Lekuonak azpimarratu duen «maketsen» horretatik oso hurbil: «[...] non “potuit loqui quasi spiritalibus, sed quasi carnalibus”, ille, qui “sapientiam” loquitur inter perfectos [...]». Ez da harritzekoa lehenengo momentu batean Lekuonak pentsatu izana «carnalibus» (hots, «loqui [...] carnalibus») zela «maketsen artean [...] ari zan» esaldiaren jatorrizkoa (noski, «loquitur inter perfectos» da hari dagokiona). Litekeena da —143-144 or. diogunaz landa— «carnalibus» honekin izan zuen nahasteak ere zer ikusirik eduki izana «maketsen: perfecto» glosa okerraren sorrerarekin. (Ohar bedi, azkenik, garaiz konturatu zela hutsarekin edo, gutxienez, garaiz egin zitzaiola susmagarria, «makets» ez baitzuen sartu —ez gaizki baina, egia da, ezta ondo ere— 1956ko liburuaren akaberako hiztegitxoan).

183 or. = XIII, 21, 29 [401, 14]	gorbiziz	infiel
184 or. = XIII, 21, 31 [403, 11]	edu, edu	como
184 or. = XIII, 21, 31 [403, 17]	ataizerako	celo
185 or. = XIII, 23, 34 [406, 16]	zarralda	
185 or. = XIII, 23, 34 [406, 20]	aintzoak [zintzoak A] <sup>21</sup>	
185 or. = XIII, 23, 34 [406, 25]	xegunekin	
186 or. = XIII, 24, 35 [407, 22]	txartaketan	
187 or. = XIII, 24, 37 [409, 23]	antzi	habilidad
188 or. = XIII, 26, 39 [411, 24]	igatu	marchitarse
188 or. = XIII, 26, 41 [413, 11]	iragarlea	
190 or. = XIII, 30, 45 [416, 3]	soatzi	gustar

Nabarmena da hiztegiari dagozkion ohar hauek, neurri handi batean behintzat, Orixek orri barranean jarritakoen osagarri gisa —eta ja, agidanean, 1956ko edizioaren bukaeran ipini nahi zuen hiztegitxoarekin pentsatuz— egin zituela Lekuonak: 42. orrian bakarrik hasten badira da, zalantzarik gabe, askoz ugariagoak direlako horraino Orixeren oharrak hortik aurrera baino (ikus IV erans.). Behin-behinekoak direla ere —m3-k egindako ohar guztiak bezala— begien bistan dago, besterik ez bada batzuk markatu bakarrik egin dituelako. Baina, esan bezala, ez zen izan bere buruarentzat bakarrik egindako lana: beherago ikusiko dugu (328-331 or.) nola erabili zituen ohar hauek guztiak 1956ko liburuaren 425-433 orrialdeetan argitaratuarazi zuen «Iztegitxoa» delakoan. Honetaz landa, *en passant* bezala eginak diruditen ohar hauek orain gehiago axola zaizkigun beste kontu batzuk ere erakusten dizkigute: Lekuonak *Aitorkizunen* latinezko edizio bat eskumenean zuelarik egin zuela lan B-prior-en —geroago aztertuko ditugun beste alderdi batzuek ere bete-betean berretsiko diguten bezala—; hasieran erabili zuena, itxura guztien arabera, testu zahar bat zuen edizio —antza elebakar— bat izan zela eta gero, momentu jakin batetik aurrera, BAC-eko edizioarekin jarraitu zuela; eta, batez ere, B-prior-eko orrietan zehar ipinitako hiztegi ohar gehienak *Aitorkizunen* aipatu edizio hauen laguntzarekin bakarrik egin zituela eta, bereziki —aipatu momentu horretatik aurrera—, BAC-eko edizioaren gaztelaniazko itzulpenaren laguntzarekin (gero, 1956ko liburuaren bukaerako «Iztegitxoa» delakoa ontzeko, Azkueren hiztegiara ere jo arren, 336-338 or. ikusiko ahal dugun bezala).<sup>22</sup>

<sup>21</sup>Hitz honek ere bi marka ditu: batetik, hitz osoa dago azpimarratuta, esanahia argitzeko azalpen bat beharko balu bezala eta, bestetik, hitzaren hasierako *a* letra *z* irakur dadin zuzendu du arkatx gorriak (honengatik jaso da zuzenketa hau 156 or. ere); hemen, goragoko «zietan sartu» hartan ez bezala (ikus 138 or. 14 oh.), bistan da marka bat bestea baino lehenagokoa dela: nabarmena da, alegia, hitz osoa azpimarratu ondoren bakarrik konturatu dela hemen zegoen hutsarekin —eta, noski, honen arrastorik ez da 1956ko liburuaren hiztegitxoan—.

<sup>22</sup>Ohar gehienak esan dugu, ez guztiak, bai baitira batzuk Orixeren testuan bakarrik oinarrituta eginda diruditenak: batzuei, izan ere, azalpen okerra eman die Lekuonak, baina testuinguruak oso ondo onartzen duen —eta, inoiz, iradoki egiten duen— azalpena. Esaterako, «kukatzen: hallar» (128 or. = X, 28, 39 [277, 7]): *kukatu* hitza dezentetan erabiltzen du Orixek eta, *Aitorkizunetako* agerraldietan behintzat (V, 10, 20 [118, 12]; VIII, 7, 16 [197, 24]; X, 23, 34 [273, 18]; X, 28, 39 [277, 7]), beti uler daiteke 'ezkutatut' bezala (baita, agidanean, OEH-k, oraingo honetan jatorrizko testuari gehiegi begiratzeagatik, azaldu gabe uzten duen V, 10, 20 paragrafokoa —«[...] lur hartan kukatzen zala [...]»— eta 'kokatu' adierarekin berdintzen duen VIII, 7, 16 paragrafokoa —«[...] neraunen gibelaldean kukatu bainintzan [...]»— ere). Lekuonak «hallar» glosa X, 28, 39 paragrafoko agerraldiari ipini dionean ez du jatorrizkora jo nahi izan, zalantzarik gabe pentsatu duelako euskarazkoaren beraren testuinguruak argi askoa uzten duela hitzaren esanahia: «Ene min gaiztoek poz onakin dute

Lekuonak san Agustinen jatorrizko testu bat eskuetan zuelarik zuzendu eta osatu zuela Orixeren liburuaz aztarren askok erakusten dute eta ondorengo orrialdeetan zehar sarri egiaztatuko dugun ondorioa da: berriz, ezin da frogatu B-prior-eko orrietan egin zituen ohar hauek egiteko inongo hiztegiarik erabili zuenik (frogatu daitekeen bezala, esaterako eta arestian esan legez, 1956ko liburuaren akaberako «Iztegitxoa» delakoa ontzeko Azkuenera erabili zuela). Momentu jakin batetik aurrera BAC-eko edizioetako bat erabili zuela —eta baita zein edizio izan zen ere— berehalaxe eta, agidanean, ezin eztabaidatuzko modu batean erakutsiko dugu; baina badirudi ordura arte testu zahar bat zuen edizio elebakar bat erabili zuela; horrela pentsarazten digute bi aztarren hauek: batetik, Lekuonak «erraldoi» hitza (48 or. = IV, 12, 19 [91, 9]) «gigas» glosarekin azaltzeak, hots, Knöll baino lehenagoko edizio gehienek dakarten irakurketarekin, eta ez «gigans», bai BAC-ekoak bai gainerako edizio modernoek dioten bezala (ikus II erans); eta, bestetik, aipatu momentu jakin hori baino lehenagoko azalpen guztiak —geroagoko hainbat ez bezala— oso ondo etorri ahal direlako latin testutik bakarrik: bestela esanda, «mingulin = queja» (43 or. = IV, 5, 10 [82, 14-15]) bezalako azalpen bat egin ahal izateko nahikoa da Orixeren testuko hitz horri latin jatorrizkoan dagokion ordain soila, «conqueri» alegia, horixe baita *conqueror* aditzarentzat edonork emango lukeen —edo, bada ere, edonork eman lezakeen— itzulpena.<sup>23</sup> Ez da gauza bera gertatzen Lekuonaren glosa guztietan eta batzuek, gorago iragarri bezala, argi eta garbi erakusten dute Vega-k BAC-en argitaratutako edizioaren gaztelaniatik bakarrik etorri ahal direla: baina momentu jakin batetik aurrera bakarrik, ez lehenago.

Ikus ditzagun adibide argienak. 85. orrian (VII, 17, 23 [176, 19]) arkatz gorriak

---

burruka eta ez dakit gurenda nork duken. Ots, Iauna, erruki zakit! Ai ene! Ez dut *kukatzen* nere zauririk: sendagille zera, ni gaixo, Zu urrikaltsu, ni errukarri»; baina latina ez dator bat Lekuonaren «hallar» horrekin, bai ordea gorago —agerraldi guztiak kontuan izanik— proposatutako 'ezkutatu' adierarekin: «Contendunt maerores mei mali cum gaudiis bonis, et ex qua parte stet victoria nescio. Ei mihi! Domine, miserere mei! Ei mihi! Ecce vulnera mea non *abscondo*; medicus es, aeger sum; misericors es, miser sum» («no oculto mis llagas» Vega-k; «je ne cache pas mes plaies» Labriolle-k). Antzeko zerbaite gertatu da «axekatuko: tentar» glosan (147 or. = XI, 15, 18 [318, 17]). Hemen, oso oker ez banago, bederati orri gorago (139 or.) egindako «axukatzen, azukalditan: tentar» azalpena etorri zaio burura eta, testuinguruak —itxura batean behintzat— adiera hau onartzen zenez gero, bi hitzak nahastuz eta inora jo gabe errepikatu du buruan zuen esplikazioa, hots, «axekatuko: tentar». Baina ezin da zalantzarik izan hemen duen esanahia askoz gorago, hitzak *Aitorkizunetan* duen beste agerraldian, egin zuen —eta ahaztuta bide zuen— beste glosa batean emandako berbera duela: «axekatzeak: nugari, broma» (45 or. = IV, 8, 13 [86, 5]). XI, 15, 18 paragrafoko agerraldiaren testuingurua, izan ere, gardena da —eta gardenagoa egingo litzaziguke testu zati zabalago bat hartuez gero—: «Nere Iaun, nere Argi, emen ere Zure egjak ez du *axekatuko* gizona?»; «Domine meus, lux mea, nonne et hic veritas tua *deridebit* hominem?» («no se burlará» Vega-k; «ne va-t-elle pas [...] prendre l'homme en dérision?» Labriolle-k); eta orobat IV, 8, 13 paragrafokoa: «Liburu xoragarriak elkarrekin irakurteak, elkar *axekatzeak*, elkar xurikatzeak [...]»; «[...] simul legere libros dulciloquos, simul *nugari* et simul honestari [...]» («chancearnos» Vega-k; «les plaisanteries» Labriolle-k). Eta, izan ere, 1956ko liburuaren akaberako hiztegitxoan ondo jaso da, agian berariaz: «axekatu = bromear»; «axukatu = tentar». (Ez dut uste honekin guztiarekin zer ikusirik duenik hitz honek ba omen duen 'tentatu' adierak: ikus OEH-k s.v. dioena, *Aitorkizunetako* bi agerraldiak behar bezala sailkatu —testuingurua eta jatorrizkoa kontuan hartuz eta 1956ko liburuaren akaberako hiztegitxoari begiratu gabe—. Eta, era berean, beste kontu bat da *axekatu* eta *axukatu* hitzek, azken batean, jatorri bera duten ala ez).

<sup>23</sup>Lekuonak I, 2, 2 paragrafoaren bukaerako ezabatzea (ikus 49, 194 eta 208-209 or. eta III erans. 1 zenb.) salatu izanak ez du nahitaz testu zahar horren berorren alde hitz egiten: bakar-bakarrik Orixek erabili zuen 1946ko BAC-eko edizioaren kontra, zeren eta BAC-eko hurrengoek —bai 1951koak bai 1955ekoak— bai baitakarte 1946koak falta duen testua. Ikus, honen gainean, 143-144 or.

«istatua» azpimarratu du eta, hurbilen zuen zurian, «inundar» idatzi du.<sup>24</sup> Orixeren testuak eta san Agustinen latinak, hurrenez hurren, honela diote: «Ala arkitu zun animak zer argiz istatua zan [...]»; «[...] ut inveniret, quo lumine aspergeretur [...]». Latinezko *aspergo* 'ihinzatu' bezala itzultzea normala litzateke, hau da, aditz horren esanahia galdetuz gero askok emango luketen erantzuna da; «inundar» ordea ez da, inondik ere, ez *ihinzatu* ez *aspergo* hitzen begien bistako ordaina, baina hara nola dioen BAC-eko edizioaren gaztelaniazko itzulpenak: «[...] para ver de qué luz estaba *inundada* [...]».<sup>25</sup> 108. orrian (IX, 9, 21 [229, 27]) «korrokatu» hitzari honako glosa hau ipini dio Lekuonak: «vomitar» (eta 1956ko liburuaren «Iztegitxoa» delakoan berdin: «korrokatu = vomitar»). Aurrekoa baino adibide hobea da, azalpena gaizki baitago: *korrokatu* ez da 'botaka egin' (ikus OEH, s.v., non Orixeren adibide hau berau jasotzen baita baina, ezinbestean, argitu gabe). Ikus dezagun nola sortu den hutsa. Latinak honela dio: «[...] qualia solet *eructuare* turgens atque indigesta discordia»; *eructuare* (edo *eructare*), berez, 'ahotik bota' izaten da eta, hemendik, 'korroskada egin' ere izan daiteke: zalantzarik gabe, horrela ulertu nahi izan du Orixek; baina izan daiteke baita ere —eta askotan izaten da— 'botaka egin', eta adiera hau aukeratu zuen BAC-eko edizioaren itzulpenaren egileak: «[...] cuales suele *vomitar* una hinchada e indigesta discordia». Beraz, *eructare* izan daiteke bai 'korroskada egin' bai 'botaka egin', baina 'korroskada egin' ezin da izan 'botaka egin'; Orixe latinari jarraitu zaio eta Lekuona gaztelaniari: euskarazkoa gaztelaniazkoarekin berdindu nahi izatetik sortu da «korrokatu = vomitar» ezinezko hau.<sup>26</sup> 109. orrian (IX, 10, 25 [232, 25]) «txirdillen» hitza azpimarratu da eta glosa honekin argitu: «inferior» (berdin, berriz ere, 1956ko liburuaren bukaerako hiztegitxoan: «txirdil = inferior»). Orixerenak eta san Agustinenak, hurrenez hurren, honela diote: «[...] egoera au luza ba lekigu ta ikuskari txirdillen guzian [guziak A] itzali [...]»; «aliae visiones longe *imparis* generis». Funtsean, *txirdil* hitzak 'arbuigarria dena' adierazten du; Azkuek, esaterako, honela azaltzen du: «1. [...] desvergonzado, dévergondé. 2. [...] pingajo, loque. 3. [...] carpa, racimo que queda después de hecha la vendimia, grappille, petite grappe qui reste après la vendange». Latinen *impar* hori benetan modu askotara jaso zitekeen; BAC-eko edizioaren gaztelanian honela dator: «las demás visiones de índole muy *inferior*»; Lekuonaren glosa («txirdil = inferior») nekez sortu zitekeen aita Vega-ren itzulpenagatik izan ez balitz. 118. orrian (X, 8, 13 [254, 3]) *edutu* hitza agertzen da Orixeren testuan: «Oek nola *edutu* diran nork esan [...]»; Lekuonak glosa susmagarri honekin azaldu dio bere buruari: «formarse» (baina berdin 1956ko liburuaren hiztegitxoan). Hitza benetan bakana da: *Aitorkizunetan* hemen bakarrik agertzen da eta OEH-k ez dakar

<sup>24</sup>Ez da zalantzarik VII, 17, 23 paragrafoko «istatua» hau 1956ko edizioaren bukaeran dagoen hiztegitxoko «iztatu» eta «iiztatu» bera dela, hau da, *ihinzatu*: ikus, honetaz, 338-339 or. (eta baita 335 or. 54 oh.).

<sup>25</sup>Glosa honen beste alderdi bati buruz ikus 335 or. 54 oh.

<sup>26</sup>Honen antzekoa da —latinera edo gaztelaniara jo izanak sortutako huts bat erakusten duelako bakarrik, ez ordea Lekuonak BAC-eko gaztelaniazko testua erabili duenik frogatzen delako— 107. orriko «uger» hitzari emandako azalpena («profundo»); «munduko ibai uger au» (IX, 8, 18 [227, 25]) esaldian bakarrik agertzen da, *Aitorkizunetan*, «uger» hitza: «uger», hau da, *uber*, berez, 'arrea' da, eta ez dago arrazoirik, Orixeren testuari bakarrik begiratzen badiogu, hemen ere horrela ez denik pentsatzeko. Latinak «profunda torrentis» dio (eta Vega-ren itzulpenak «las cosas profundas del torrente») baina, hainbestetan bezala, Orixe ez du jatorrizkoa hitzez hitz itzuli, ezta hurrik eman ere: hiztegitxoaren egileak ordea bai jarraitu dio, latinari zein gaztelaniari, orpo orpo —eta ez da harriztekoa, pasarte nahasi samar jasota baitago—.

(bai ordea —garai eta giro honetako idazleentzat dezentetan gertatzen den bezala— Plazido Mujikarenak: «formar, dar forma, organizar, arreglar»). Latinezko testuak honela dio: «Quae quomodo *fabricatae* sint, quis dicit [...]»; hemendik abiatu izan balitz, *fabrikatu* edo honen sinonimo bat espero behar genukeen, baina kasualitate handia izango zitekeen sinonimo hori —benetan sinonimoa baldin bada— «formarse» izatea; jakina, BAC-eko edizioaren gaztelaniazko itzulpenak dioena da: «Pero ¿quién podrá decir cómo fueron *formadas* [...]?». 123. orrian (X, 16, 25 [264, 6]) pasarte hau dago: «Ez naiz ari zeruko zabaldiak edo izarren tartea neurtzen, ez lurraren *dendua* billatzen: ni naiz oroiketa, ni anima»;<sup>27</sup> Lekuonak «cimiento» idatzi du «dendua» hitzaren pare-parean. Latinak ezin izan dio bide eman horrelakorik pentsatzeko: «Neque enim nunc scrutamur plagas caeli aut siderum intervalla demetitur vel terrae *libramenta* quaerimus: ego sum, qui memini, ego animus»; *libramentum*, izan ere, «contrepois des machines de guerre, poids [...], action de balancer, de mettre en niveau, en équilibre, égalité de niveau, surface plane» da (Gaffiot-en arabera), eta horrela ulertu dute eskumenean ditudan *Aitorkizunen* itzultzaile guztiek: «les lois de l'équilibre terrestre» (Labriolle-k), «les lois de l'équilibre de la terre» (Labriolle-ri darraion Trabucco-k), edo «el equilibrio de la tierra» (Mier-ek), gutxi batzuk baino ez aipatzearren; BAC-eko edizioaren itzulpenaren egilea den Vega izan ezik: «Porque no exploramos ahora las regiones del cielo, ni medimos las distancias de los astros, ni buscamos *los cimientos* de la tierra; soy yo el que recuerdo, yo el alma».<sup>28</sup> 157. orriko glosak (XII, 4, 4 [341, 15-16]) hitzez hitz jaso du, ez BAC-eko edizioaren gaztelaniazko itzulpenean argitu beharreko euskal hitzari dagokion ordaina, ezpada hari dagokion hitz multzo oso bat; Lekuonaren glosak, izan ere, «soraioteri: muy tardos de inteligencia» dio eta, noski, holaxe dio baita Vega-ren gaztelaniazko itzulpenak ere: «Pues ¿cómo se habría de llamar y por qué sentido de algún modo se habría de insinuar a los *muy tardos de inteligencia* [...]?» (latinak, berriz, «sensu tardioribus» bakarrik dakar: «Quid ergo vocaretur, quo etiam *sensu tardioribus* utcumque insinuaretur [...]»). 190. orrian (XIII, 30, 45 [416, 3]) honela dio Orixek: «Ba-dantzut, launa, ta soatzi dut ezti-xorta bat Zure egi ortatik»; Lekuonaren arkatz gorri-urdinak glosa hau ipini du hitzaren gain-gainean: «gustar» (1956ko liburuaren bukaerako hiztegitxoan «soatsi = gustar, saborear»; «soatzi : soatsi» aldaerari buruz ikus 336 or.). Azkuerentzat *sohatsi* da «quitar la miel de una colmena, enlever le miel d'une ruche», eta *zohatsi* «despojar, dépouiller». Latinak dakarrena, berriz, hau da: «[...] et *elinxi* stillam dulcedinis [...]»; hots, *elingo*, 'miazkatu' («lécher», diote bai Gaffiot-ek bai Ernout-Meillet-ek). Nekez izango da kasualitatea, hemen ere, Vega-ren gaztelaniazko itzulpenean *gustar* hitzarekin egotea jasota: «[...] y he *gustado* una gota de la dulzura [...]».

Ezin ukatuzkoa da, hortaz, momentu jakin batetik aurrera Lekuonak BAC-eko edizio elebiduna izan zuela eskuen artean Orixeren testua irakurtzen zuen bitartean eta haren laguntzarekin bakarrik garbitu zituela fortunatzen zitzaizkion hiztegi arazoak. (Gero, 1956ko liburuaren «Iztegitxo»

<sup>27</sup>1956ko testuan «deudua» dago (264, 6), baina argi dago inprimategian egindako hutsa dela, liburuaren «Okerrak zuzentze» delakoan ja zuzenduta agertzen baita: ikus, dena den, 295 or.

<sup>28</sup>Baina 1956ko liburuaren hiztegitxoan «dendu = equilibrio» dago ja, zalantzarik gabe, Azkueren hiztegiara jo behar izan zuelako Lekuonak ordurako; honako hau aurkitu zuen bertan: «*dendun* [...] estabilidad, equilibrio: stabilité, équilibre». Ikus, honetaz, 337-338 or.

egiterakoan, jo zuen Azkueren hiztegia: baina, itxura guztien arabera, ez lehenago). Pentsatzekoa da BAC-ekoa aukeratu baldin bazuen ez zela izan Orixek azken idatzaldia ontzeko erabili zuena zelako: ez dut uste Lekuonak horren berri jakin zuenik; aldiz, bestelako arrazoi asko zituen edizio hura aukeratzeko: inguru hauetan salgai zegoen edizio elebidun bakarra zelako, entzute handia izan zuelako argitaratu zenetik eta, agian, ikusiko zuelako bat zetorrela —apika ordura arte erabili zuen edizio zaharra ez bezala— Orixeren testuaren paragrafoak antolamenduarekin. BAC-eko edizio hark ordea hiru inprimaketa izan zituen 1956ko urtea baino lehenago: lehenengoa —eta, inongo zalantzarik gabe, Orixek erabili zuena— 1946an, beste bat 1951n eta beste bat 1955ean. Jakin ote genezake hauetako zein ibili zuen Lekuonak Orixeren testua zuzentzean? Baiezkoan nago. Ikus dezagun Orixek honako esaldi honi eman zion itzulpen ezinezkoa:

[...] ille, qui «sapientiam» loquitur <>inter perfectos». (XIII, 18, 23)

[...] maketsen artean Zugurtasunez ari zan ua. (B, 181 or. [397, 7-8]).

Bistan da «maketsen artean» ezin dela izan «inter perfectos»: zerbait izatekotan «inter imperfectos» izan behar luke. Nik ezagutzen ditudan *Aitorkizunen* edizio guztietan eta edizio guztietako aparatuetan «inter perfectos» dio latin testuak eta, gainera, seguru dakigu Orixek XI-XIII liburuak —edo liburu hauetako zati gehienak behintzat— BAC-eko ediziotik itzuli zituela (ikus II erans.). Eta, hain zuzen ere, edizio honek beronek ematen digu korapilo honen giltza, Orixeren hutsaren zergatikoa bertako Vega-ren gaztelaniazko itzulpenean gertaturako lapsus batean baitago: «[...] aquel, digo, “que hablaba la sabiduría entre los imperfectos”». Bistan da, beraz, Orixek, pasarte honetan, gaztelaniazko testuari jarraitu zaiola eta ez —ohi bezala: ikus, honetarako ere, II erans.— jatorrizko latinari; Lekuonak ordea glosa hau ipini dio Orixeren testuko «maketsen» hitzari: «perfecto». Latin testuari bakarrik begiratu diolako gaztelaniazkoari batere kasurik egin gabe? Nekez sinets genezake horrelakorik, ikusi dugunean gaztelaniazko itzulpena izan zuela kontuan —momentu jakin batetik aurrera baina, inongo zalantzarik gabe, liburuaren akaberan dagoen zati hau zuzendu zuenean— bere glosak egiterakoan: sinestezina litzateke, batez ere hau bezalako azalpen susmagarri batean, bere ohituratik aldentzea eta latin testuaren parean zegoen espainolezkoari begiratu ere ez egitea. Honek guztiaren zergatikoa askoz errazagoa da: Lekuonak eskuetan izan zuena ez zen izan aipatu hutsa zekarren —eta Orixek erabili zuen— BAC-eko 1946ko edizioa, ezta huts berbera duen 1951koa, ezpada ja huts hori (eta, esaterako, I, 2, 2 paragrafoaren bukaerakoa: ikus 141 or. 23 oh.) zuzenduta duen 1955ekoa; izan ere, edizio honek mintzagai dugun pasarterako dakarren itzulpenak honela dio: «[...] aquel, digo, *que hablaba la sabiduría entre los perfectos*». Hortaz, L e k u o n a k , O r i x e k bezala, BAC-eko edizioa erabili zuen, baina ez hark izan zuen 1946ko lehenengo inprimaketa, askoz txukunago atera zen 1955ekoa baizik. Eta, oso oker ez banago, egiaztapen hau bat dator Lekuonak B-prior-eko testuaren orrazketaren hasieran *Aitorkizunen* beste edizio bat erabili zuelako hipotesiarekin; 1955eko edizioa, izan ere, «el día 27 de diciembre de 1955, fiesta de S. Juan Evangelista» bukatu zuten inprimatzen: ez da harritzekoa Lekuonaren eskuetara Orixeren itzulpenari buruzko lana hasita zuenean baino heldu ez izana eta, ordurarte, irispidean zuen edozein edizio zaharrekin moldatu behar izatea.



Noiz arte erabili zuen edizio zaharra eta noiztik aurrera BAC-ekoa ere zehaztu egin daiteke. Baldin eta B-prior-eko orrietan eskribitu zituen hiztegi oharrak ordenan egin bazituen, hau da, *Aitorkizunen* behatzizkribua sistematikoki hasieratik bukaeraraino irakurritz, alegia jauzirik egin gabe ez atzera ez aurrera, eredu aldaketa 48. eta 85. orrien artean ipini behar genuke, agian 48.aren eta 61.aren artean: izan ere, 48. orrian dugu gorago aipatu dugun «gigas» hura (ikus 141 or.) eta 85.ean «istatua: inundar» (ikus 141-142 or.). Litekeena da 61. orriko «puztagarriak: pasajeros» dioen glosak ja BAC-eko edizioa salatzea: «iraizeko on puztagarriak maitatuz» esaldian (61 or. = V, 12, 22 [120, 15]), izan ere, Lekuonak «puztagarriak» azpimarratu du eta, goragoko zuri batean, «pasajeros» glosatu du. Oker, agidanean, *puztagarri* hitzak ez baitu 'igarokorra' edo 'iragankorra' esan nahi, 'mesprezagarria' baizik: *iraizeko* da, noski, *pasajero*; baina hutsak iraun egin du, eta 1956ko liburuaren hiztegitxoan ere «puztagarri = efihero, pasajero» dago. Auzia da nondik atera duen Lekuonak «pasajeros» hori. Latinak «amando volatica ludibria temporum» dio: Orixeren itzulpena —orain dakusagu— libre samarra da eta, hortaz, jatorrizko latinak ez digu gehiegi laguntzen euskarazkoa argitzeko, Lekuonari ere gutxi lagunduko zion bezalaxe; ez da ezinezkoa Lekuonak, batetik, «volatica» itzuli izana «pasajeros» bezala eta, bestetik, pentsatu izana «volatica = pasajeros» ekuazioa «puztagarriak» hitzari zegokiola: ez da ezinezkoa, baina askoz errazago uler daiteke joko honetan BAC-ek dakarren gaztelaniazko itzulpena sartzen bada, hots, «amando unas burlas y engaños *pasajeros*».<sup>29</sup> Nolanahi ere, 61. orria baino lehenago ez dugu BAC-eko edizioaren aztarren garbirik; 61. eta 85. orrien artean ere ez dago, nire ustez, aintzat hartzeko moduko arrastorik; eta 85. orriko «istatua: inundar» segurutzat jo dezakegulakoan nago, zalantzarik gabe 61.ekoa baino seguruagotzat.<sup>30</sup> Hau guztia, esan bezala, baldin eta jauzirik —edo, bada ere, jauzi gehiegirik— egin ez bazuen hiztegi oharrak ipintzerakoan. Lekuonak hemendik aurrera emango dituen pauso guztiak BAC-eko edizioaren argitan bakarrik uler daitezke: batez ere —hauexek dira-eta munta handienekoak— behatzizkribua zuzendu ondoren baina inprimategira bidali baino lehenago ondu zuen «Utsuneak» izeneko dokumentuak (188-213 or.).

## b. Testua bera

Baina testua bera zuzentzea zen, noski, Lekuonak Orixeren *Aitorkizunetan* eskua sartzen hasteko izan zuen arrazoi nagusia. Hiztegiari eta puntuazioari dagozkion oharrak

<sup>29</sup>Honekin batera kontuan hartzeko modukoa da *iraizeko* hitza beherago bakarrik argitu izana Lekuonak, nahiz eta hemengo hau izan lehenengo agerraldia: 71. orrian (VI, 11, 18 [144, 9]) «iraizeko: presente» glosa ipiniko du, eta 1956ko edizioaren hiztegitxoan ere «iraizeko = presente, superficial» jasoko du. Eta «puztagarriak» azpimarratu izana —eta ez «iraizeko»— ezin dugu huts mekanikotzat jo, 1956ko liburuiko hiztegitxoan ere, esan bezala, «puztagarri = efihero, pasajero» errepikatu baitu.

<sup>30</sup>Izan ere, ez dirudi 61. orria baino lehenago BAC-eko edizioaren erabilera salatu ahal duen aztarren garbirik dagoenik, ez baitut uste kontuan hartu behar denik «iresle: devorador» (54 or. = V, 3, 4 [104, 22]) glosaren kasua, BAC-eko gaztelaniazko itzulpenak ere «devorador» ekarri arren (latinak «edax»). Eta orobat 61. eta 85. orrien artean, «idoki: sacar» glosak (76 or. = VII, 3, 5 [157, 6]) ezer gutxi esan dezake honetaz, gehiegi baillitazteke ondorioak ateratzea latinak «educere» eta Vega-ren gaztelaniak «apartar» (eta ez «sacar») diotelako; berdin samar gertatzen zaio (behar ez dugun lekukotasuna bada ere, paragrafo berean baitugu benetan frogagarria den «istatua: inundar»), baina kontrako zentzuan, «oildu: apartar» glosari (85 or. = VII, 17, 23 [176, 17]): latinak «abduxi» dio eta Vega-k «apartó».

bezala (ikus 140 or.), testua zuzentzen edo aldatzen dutenak ere berandu agertzen dira B-prior-eko orrietan, gutxi gorabehera 50. orriaren inguruan, lauzpabost salbuespen alde bat uzten baditugu: badirudi Lekuonak B-prior-en egin zituen zuzenketak, zati batean behintzat, Orixek berak bertan egindako zuzenketek baldintzatu zituztela, hau da, hauen osagarri gisa ulertu zituela nonbait, Orixek bere testuari egindako zuzenketak bakantzen direnean hasten baitira ugaritzen Lekuonarenak. Ordea zati batean bakarrik, esan bezala —honetan ere izango baitzuten eragina beste arrazoi arinago batzuek— eta, argi gera bedi, lehenengo momentuan eginak diruditen hiztegi, puntuazio eta testuari berari buruzko marka eta oharretan bakarrik: zeren eta m3-k nabarmendutako pasarteak (ikus beherago 173-179 or.), seguruenik pixka bat geroagokoak, ez baitira aipatu 50. orriaren inguruan hasten, behatzizkribuaren hasiera-hasieratik baizik; eta berdin, ja B-prior-etik kanpo, probetan egingo zituen aldaketak. Bistan da, bestalde, testua ukitzen duten B-prior-eko oharrak behin-behinekoak eta bere buruarentzakoak direla, hiztegi oharrei buruz hitz egin dugunean ere esan behar izan dugun bezala: asko, esaterako, ezingo lituzkete ulertu —hau da, ezingo lituzkete irakurri— inprimategiko langileek; beste batzuk bere buruari egindako galderak edo oharpenak dira —gutxienez, esanahi jakinik gabekoen multzoan sartu ditugun guztiak—; eta dezentetan ikusten dugu gero iritzia aldatu zuela eta berak ere ez zituela onartu B-prior jorratzean egindako proposamenak. Ikus ditzagun, beraz, eta puntuazioari dagozkion oharrak alde bat utzita, B-ko testua aldatzen duten edo aldatu beharra adierazten duten Lekuonaren proposamenak.<sup>31</sup>

	B	m3	A
*3 or. = I, 5, 5 [13, 5]	zatzait	<b>zatzait</b>	zakit
*3 or. = I, 5, 6 [13, 19]	Ba du	Ba-du	Ba-du
*3 or. = I, 5, 6 [13, 21]	besterik	besteri	besteri
*4 or. = I, 5, 6 [14, 3]	ps.	Ps.	Ps.
49 or. = IV, 14, 22 [93, 15]	edi	edo	edo
50 or. = IV, 15, 24 [95, 9]	gaorpuzgaberik	gorpu#gaberik	gorpuzgaberik <sup>32</sup>
*51 or. = IV, 16, 30 [98, 12]	linuruak	liburuak	liburuak
54 or. = V, 3, 3 [103, 15]	ikas-azkuri	ikas-azkurri	ikas-azkurri
54 or. = V, 3, 3 [103, 16]	aien	aien	aien [ain Oz]
54 or. = V, 3, 3 [103, 17]	zadaten	zidaten	zidaten
56 or. = V, 6, 10 [108, 23]	auindiagorik	aundiagorik	aundiagorik
56 or. = V, 6, 10 [109, 4]	zendelako	zendelako	zeudelako
56 or. = V, 6, 10 [109, 7]	txiratzen	txeratzen <sup>33</sup>	txoratzen
57 or. = V, 8, 14 [113, 4]	iokasletan	irakasletan	irakasletan
58 or. = V, 8, 15 [114, 2]	oroikari	oroikarri	oroikari

<sup>31</sup>Ohi bezala, erreferentziaren ezkerrean izartxo bat daramaten oharrak arkatzairen mutur urdinarekin egindakoak dira. Beltzean jarri ditut m3-k markatu besterik egin ez dituen letrak eta hitzak: hauak ere zerrenda honetan jaso beharra zegoen, letra eta hitz horiek nabarmendu izana bera B-prior-eko orrietan egindako lan aldi honi dagokiolako; berriz, B-prior-en markatutako hitz hauentzat gero gauzatu diren aldaketak (esaterako, «zatzait B : **zatzait** m3 : zakit A») B-prior-etik A-ra bidean egindakoei buruz hitz egiterakoan aztertuko dira, aldaketak berak beste lan aldi horri baitagozkio. («Oz» laburduraz ikus 288 or.).

<sup>32</sup>Ikus 113 or. 37 oh.

<sup>33</sup>Askotan bezala, m3-ren zuzenketa ez da erabat garbia: esango nuke *e* bat dela, baina daitekeena da *o* bat

62 or. = V, 14, 25 [123, 15]	uzten	uztea	uztea
68 or. = VI, 7, 12 [138, 6]	itxarikizun	itxarokizun	itxarokizun
69 or. = VI, 8, 13 [139, 18]	zama	zana	zana
69 or. = VI, 8, 13 [139, 20]	Erorikotik	Erorikotik?	Erorikotik
70 or. = VI, 10, 16 [142, 20]	zuten	uzten	uzten
71 or. = VI, 10, 17 [143, 19]	grñan	giñan	giñan
*71 or. = VI, 10, 17 [143, 25]	genen	genun	genen [genun Oz]
71 or. = VI, 11, 19 [145, 16]	gauza	gauzka	gauzka
72 or. = VI, 12, 21 [146, 19]	anfrea	andrea	andrea
72 or. = VI, 12, 22 [147, 10]	aintzat	aintzat	aintzat [aintzat Oz]
73 or. = VI, 14, 24 [149, 22]	brrindu	birrindu	birrindu
74 or. = VI, 14, 24 [150, 4]	Z   Zure	Zure	Zure
74 or. = VI, 15, 25 [150, 15]	Ni	Nik	Ni
74 or. = VI, 15, 25 [150, 15]	au	onek	au
74 or. = VI, 15, 25 [150, 19]	bestere andere	besteren andere	beste andere
74 or. = VI, 16, 26 [151, 9]	erio-   bildurrak	erio-   -bildurrak	erio-bidurrak
75 or. = VII, 1, 1 [154, 11]	urrez	urez	urez
*75 or. = VII, 1, 2 [155, 4]	lu-m#kulrik	lur-mukulurik	lur-mukulurik
76 or. = VII, 2, 3 [156, 4]	Bañan	Bañan	Bañan
78 or. = VII, 5, 7 [159, 24]	keska	keska	kezka
79 or. = VII, 6, 8 [161, 24]	mintzlari	mintzolari	mintzalari
79 or. = VII, 6, 8 [162, 2]	aholtu	aholku	aholku
79 or. = VII, 6, 8 [162, 9]	zuka	zula	zula
79 or. = VII, 6, 8 [162, 25]	elakr	elkar	elkar
79 or. = VII, 6, 8 [163, 2]	uztaria	uztarria	uztarria
79 or. = VII, 6, 9 [163, 9]	aitor eta aitor	iator eta iator	aitor eta iator
79 or. = VII, 6, 9 [163, 12]	eateko	esateko	esateko
79 or. = VII, 6, 9 [163, 13]	sirtua	sortua	sortua
79 or. = VII, 6, 10 [163, 25]	Gainera	Gaiñera	Gainera
79 or. = VII, 6, 10 [163, 27]	bait zuken	bait-zuken	bait zuken
80 or. = VII, 7, 11 [164, 22]	eta indarturik	eta indarturik	eta indarturik
81 or. = VII, 9, 13 [166, 17]	aundigozez	aundigosez	aundigozez
81 or. = VII, 9, 14 [168, 21]	biurtzendi-   ra	biurtzen di-   ra	biurtzen dira
82 or. = VII, 10, 16 [170, 7]	maitzasun	maitasan	maitasan
82 or. = VII, 10, 16 [170, 22]	arteqb	arteqb	artean
83 or. = VII, 11, 17 [171, 6]	Nere	Neri	Neri
83 or. = VII, 12, 18 [172, 4]	utza	utsa	utsa
83 or. = VII, 13, 19 [172, 21]	Oeke	Oek	Oek
83 or. = VII, 13, 19 [173, 6]	zaitz	zuaitz	zuaitz
84 or. = VII, 13, 19 [173, 9]	ere ere	ere	ere
84 or. = VII, 15, 21 [174, 17]	erev	ere	ere
84 or. = VII, 15, 21 [174, 21]	iragairekoak	iragaitekoak	iragaitekoak
84 or. = VII, 16, 22 [175, 12]	ziran	zeran	zeran
85 or. = VII, 17, 23 [176, 6]	ikus-esiñak	ikus-esiñak	ikus-eziñak

izatea, hain justu A-ko testuak dakarrena. 1956ko edizioaren akaberako hiztegitxoak «txeratzen» irakurketaren alde hitz egiten du, hitz hau jasotzen baitu («txeratu = acariciar») eta «txeratu» *hápax* da *Aitorkizunetan*, hau da, hemen bakarrik irakur daiteke. Bestalde, ulertzekoa litzateke «txoratzea» inprimategian sortutako *facilior* bat izatea; nahiz eta kontuan hartzeko modukoa izan C-k (53 or.) «xoratzen» irakurtzea. Ikus, guzti honetaz, 137 eta 334-337 or.

85 or. = VII, 17, 23 [176, 15]	artzeko	aritzeko	artzeko
88 or. = VIII, 1, 1 [183, 8]	laina	launa	launa
88 or. = VIII, 1, 1 [184, 1]	A#ssegina <sup>34</sup>	Atsegin	Atsegin
89 or. = VIII, 1, 2 [185, 12]	Txirlari	Txirlarri	Txirlari
*89 or. = VIII, 2, 3 [185, 17]	3	3	3
89 or. = VIII, 2, 3 [185, 18]	b#tzendukan[#=-a+i]	b#tzedukan	batzedukan
*89 or. = VIII, 2, 4 [186, 22]		4	
*90 or. = VIII, 2, 4 [187, 16]	berriaz	berriaz	berriz
91 or. = VIII, 3, 8 [189, 28]	zilegi	zilegi	zilegi
91 or. = VIII, 3, 8 [190, 3]	daraiño	darraio	darraiño
92 or. = VIII, 5, 10 [192, 10]	es- l la	eskola	eskola
93 or. = VIII, 6, 13 [194, 20]	opro	opro	opor <sup>35</sup>
97 or. = VIII, 10, 24 [203, 26]	elkarri aier	elkarri-aier	elkarri aier
98 or. = VIII, 11, 27 [206, 20]	ema- l nanizaiok	ema- l na nizaio <sup>36</sup>	emana nizaio <sup>37</sup>
*98 or. = VIII, 11, 27 [206, 20]	ema- l nanizaiok	ema- l nan izaiok	e. n. [e. n. Oz] <sup>37</sup>
*99 or. = VIII, 12, 28 [207, 14]	zurrustak	zurrustaka <sup>38</sup>	zurrustak
99 or. = VIII, 12, 29 [207, 24]	# [# = a + l]	#l	al
99 or. = VIII, 12, 29 [208, 9]	aeruan	zeruan	zeruan
99 or. = VIII, 12, 30 [209, 1]	ararura araura	araura	
100 or. = IX, 1, 1 [211, 14]	nai-ukaitea	nai-ukaiteak	nai-ukaitea
100 or. = IX, 1, 1 [212, 3]	ustea	uztea	ustea
100 or. = IX, 1, 1 [212, 11]	lizun-atsa <sup>39</sup>	lizun-atza	lizun-atsa
*100 or. = IX, 1, 1 [212, 11]	atzegitetik	atzegitetik <sup>40</sup>	atzegitetik
100 or. = IX, 2, 2 [212, 21]	mahasketa arorako	mahasketa-arorako	mahasketa a.
*101 or. = IX, 3, 5 [215, 9]	gendin	<b>gandin</b>	gandin
102 or. = IX, 3, 6 [215, 20]	egi billa	egi-billa	egi billa
102 or. = IX, 3, 6 [216, 6]	baitzira	baitzira	baitzira
103 or. = IX, 4, 8 [217, 27]	ain	<b>ain</b>	aien
103 or. = IX, 4, 8 [217, 28]	garde	garde	gorde
103 or. = IX, 4, 10 [219, 25]	berreiatzen	berreiatzen	berreiatzen
103 or. = IX, 4, 10 [219, 27]	nor	nork	nork
104 or. = IX, 4, 10 [220, 1]	baikira	baikera	baikera
105 or. = IX, 6, 14 [223, 1]	Ba, da	Ba-da	Ba-da
106 or. = IX, 7, 16 [225, 2]	antzi	ântzi	ântzi
106 or. = IX, 8, 17 [226, 4]	kristoren	kristoren	Kristo'ren

<sup>34</sup>«A#ssegina» B, «Atssegina» m2 (ikus 115 or.); m3-k s bat ezabatu du.

<sup>35</sup>Hitz honen azpian m2-k ipinitako puntu beltz batzuk daude: ikus 118 eta 131-132 or. Bestalde, m3-k hemen jaso dugun zuzenketa egin ondoren, m5-ek zuzenketa berbera errepikatu du (ikus beherago 183 or.).

<sup>36</sup>Bi hitz hauetan B-prior-etik ibili diren eskuiek egin dituzten zuzenketa eta markei buruz ikus 130-131 or. Ohar bedi bi bider jaso dugula hitz hau: lehenengoa arkatzenaren mutur gorriak egindako zuzenketa dagokio eta bigarrena mutur urdinak egindakoari. Baina honetarako guztirako ikus aipatu orrialdea.

<sup>37</sup>«emana nakiek» C; «emananizaiok» B; «emanan izaiok» m2; «emana nizaio<sup>37</sup>» m3; «emana nizaio<sup>37</sup>» A; «emana nizaio<sup>37</sup>» Oz.

<sup>38</sup>Honetaz gain, badirudi arkatzenaren beste marka bat ere badagoela.

<sup>39</sup>B-k «lizun-atza» dakar, baina m2-k «lizun-atsa» zuzendu du (ez lerroen arteko zurian ezpada makinaz jotako letraren gainean: ikus 117 or. 56 oh.): beraz, m3-k zuzendu duena —orain bai lerroen artean— m2-ren zuzenketa da.

<sup>40</sup>Lapitzaren bi muturrek marraztu dute zerbait z letraren gainean: seguruenik bigarrenak lehendabizikoarena ezeztatuz, A-ra bidean ez baita ezer aldatu; gogoratu, bestalde, hitz hau m2-k puntutxo beltzekin azpimarratutakoetakoa dela: ikus 118 eta 131-132 or.

106 or. = IX, 8, 17 [226, 8]	<b>zâkar</b>	<b>zâkar</b>	<b>zâr<sup>41</sup></b>
107 or. = IX, 8, 18 [227, 4]	itzirikian	itzirikian	itzirikian
107 or. = IX, 8, 18 [227, 9]	en	ene	ene
107 or. = IX, 9, 19 [228, 12]	nasten	nâsten	nâsten
108 or. = IX, 9, 19 [229, 3]	lo	io	io
108 or. = IX, 9, 20 [229, 8]	Amaiarreka	Amaiarreba	Amaiarreba
108 or. = IX, 9, 21 [229, 20]		21	
109 or. = IX, 10, 24 [231, 17]	gorpuzidirdai	gorpuzidirdai	gorputz-dirdai
109 or. = IX, 10, 25 [232, 12]		25	25
109 or. = IX, 10, 25 [232, 17]	gira	gera	gira
109 or. = IX, 10, 25 [232, 25]	guzian	guziak	guziak
109 or. = IX, 10, 26 [233, 4]		26	26
110 or. = IX, 11, 27 [234, 13]	senarrarearen	senarrarenaren	senarrarenaren
110 or. = IX, 11, 28 [234, 24]	lagun   giro	lagun-giro	lagunkiro
111 or. = IX, 12, 29 [235, 11]	agortseraiño	agortzeraiño	agortzeraiño
111 or. = IX, 12, 29 [235, 17]	biurturi	biurtueri	biurturi
111 or. = IX, 12, 31 [236, 11]	zegojienak	zegokienak	zegokienak
111 or. = IX, 12, 31 [236, 17]	belqrietan	belarrietan	belarrietan
112 or. = IX, 12, 33 [237, 27]	atraz	artaz	ataz
112 or. = IX, 13, 34 [238, 19]	zalare ere	zala ere	zala ere
112 or. = IX, 13, 34 [238, 20]	aren	arren	arren
112 or. = IX, 13, 35 [239, 15]	sorduneri	zorduneri	zorduneri
112 or. = IX, 13, 35 [239, 17]	auzitantan	auzitan	auzitan
113 or. = IX, 13, 36 [240, 9]	Zu-   re	Zure   re <sup>42</sup>	Zure
*113 or. = IX, 13, 37 [240, 26]	uratrek	uratrek	uritarrek
114 or. = X, 1, 1 [243, 4]	ezgule	ezagule	ezagule
114 or. = X, 1, 1 [243, 6]	sarzakio	sar zakio	sar zakio
114 or. = X, 1, 1 [243, 9]	eginbear ezago	eginbear-ezago	eginbear ezago
115 or. = X, 3, 4 [246, 10]	ezazu	esazu	esazu
115 or. = X, 3, 4 [246, 19]	gezurik	gezurrik	gezurrik
115 or. = X, 4, 5 [247, 12]	as-estu	as-estu <sup>43</sup>	as-estu
116 or. = X, 6, 8 [249, 13]	aintzakirik	aintzakirik	aitzakirik
116 or. = X, 6, 8 [249, 14]	Erru-   zaizunaz	Errudun zaizunaz	Erruki zaizunaz
116 or. = X, 6, 8 [249, 15]	elkorrentzat	elkorrentzat	elkorrentzat
117 or. = X, 6, 9 [250, 13]	ba'zirate	ba'zerate	ba'zerate
118 or. = X, 7, 11 [252, 10]	Ba dut	Ba-dut	Ba dut
118 or. = X, 8, 12 [253, 12]	oroimen aurretik	oroimen-aurretik	oroimen aurretik
118 or. = X, 8, 12 [253, 16]	iakiltzean	ialkitzean	ialkitzean
118 or. = X, 8, 13 [253, 27]	berqk	berqk	berak
118 or. = X, 8, 13 [254, 7]	nasten	nâsten	nasten
118 or. = X, 8, 13 [254, 14]	naierara	naierara	naierara
119 or. = X, 8, 15 [255, 7]	Nor	Nork	Nork
119 or. = X, 8, 15 [255, 15]	erai	erai	erai
119 or. = X, 8, 15 [255, 17]	ikustean	ikusten	ikusten
119 or. = X, 8, 15 [255, 23]	suma bidez	suma-bidez	suma-bidez

<sup>41</sup>Ikus honetaz, beherago, 181-182 or. eta, oro har, V erans.

<sup>42</sup>Ohar honi buruz ikus 72 or. 12 oh.

<sup>43</sup>Hots, marratxoa nabarmendu du m3-k.

119 or. = X, 9, iz. [256, 2]	aitor	iator	aitor
119 or. = X, 9, 16 [256, 5]	aitorrak	iatorrak	aitorrak [iat. Oz] <sup>44</sup>
120 or. = X, 10, 17 [258, 4]	ba lira	ba lizkit,	ba'lira
120 or. = X, 11, 18 [258, 18]	dita	dira	dira
120 or. = X, 11, 18 [258, 24]	erabiltea	erabiltzea	erabiltea
121 or. = X, 14, 21 [260, 19]	bezal	bezala	bezala
122 or. = X, 14, 22 [262, 2]	naigaben	naigabea	naigabea
122 or. = X, 15, 23 [262, 17]	arren	aren	aren <sup>45</sup>
122 or. = X, 15, 23 [262, 17]	erraiñua	erraiñua	erraiñua <sup>46</sup>
122 or. = X, 16, iz. [263, 9]	Auztea	Ânztea	Anztea
122 or. = X, 16, 24 [263, 10]	Auztea	Ânztea	Anztea
122 or. = X, 16, 24 [263, 15]	anztea	ânztea	ânztea
123 or. = X, 16, 25 [264, 6]	dendua	dendua	deudua
123 or. = X, 16, 25 [264, 17]	ezartean	ezarten	ezarten
123 or. = X, 16, 25 [264, 26]	ânzteal	ânzteak	ânzteak
123 or. = X, 17, 26 [265, 13]	konta#a#	konta#a#	kontaal <sup>47</sup>
123 or. = X, 17, 26 [265, 14]	guzienal	guzienak	guzien al
123 or. = X, 17, 26 [265, 19]	zietan	zietan	zietan <sup>48</sup>
123 or. = X, 17, 26 [265, 23]	argo	argi	argi
123 or. = X, 17, 26 [266, 2]	ba'zira	ba'zera	ba'zera
124 or. = X, 18, 27 [266, 14]	ba'le	ba'lu	ba'lu
124 or. = X, 18, 27 [266, 21]	dunean	danean	dunean
124 or. = X, 18, 27 [266, 22]	oroiteti	oroitetik	oroitetik
124 or. = X, 19, 28 [267, 12]	Antzia	Ântzia	Aantzia
125 or. = X, 20, 29 [268, 19]	unanrz	ukanez	ukanez
125 or. = X, 20, 29 [268, 24]	iakiñ iakiña	iakiñ-iakiña	iakin-iakiña
125 or. = X, 21, 30 [270, 6]	mintzlari	mintzalari	mintzalari
125 or. = X, 21, 30 [270, 14]	ezagua [...] zaio	ezagua gogora zaio	ezagua itsatsi z.
126 or. = X, 21, 31 [271, 1]	ba	bai	bai
126 or. = X, 22, 32 [271, 19]	dutr	dute	dute
128 or. = X, 27, 38 [276, 11]	liraken	ez liraken	liraken [ez l. Oz] <sup>49</sup>
129 or. = X, 29, 40 [278, 1]	emaniez	emanez	emanik
129 or. = X, 30, 41 [278, 12]		41	41
129 or. = X, 30, 41 [278, 17]	erraiñual	erraiñuak	erraiñuak

<sup>44</sup>«iatorrak» Oz.

<sup>45</sup>Hemen m1-ek gaizki egindako zuzenketa bat zuzendu du m3-k: ikus 100 or.

<sup>46</sup>Kasu bera dugu hau: ikus, berriz ere, 100 or.

<sup>47</sup>B-k dakarrena, berez, «kontal» da, baina azken /-a makinaz urratua dago eta lehenengo /-aren gainean marratxo bat dago, makinaz hau ere: hala eta guztiz ere, eta goiko zerrendan # ikurra erabili badugu ere, oso argi ikusten da bi kasuetan /bana dagoela. B-prior-en egindako zuzenketa garbi irakurtzen ez bada ere, seguru dakigu m3-k nahi zuen irakurketa «kontaal» zela, hau da, segurutzat jo dezakegu «kontaal» ez zela izan Lekuonaren zuzenketa iluna oker ulertzetik inprimategian sortutako irakurketa berri bat (zeren pentsa baikenezake m3-ren zuzenketa lehenengo /-a urratzen duen marratxoari zegokiola, ez /-ari berari): izan ere, lerro berean —eta, oraingo honetan, inongo urratirik gabe— agertzen den «kontala» bat ere («[...] ezin konta#a# artzulo ezin kontala mota gauzez beteak [...]») «kontaal» bezala agertzen da A-n (ikus, beherago, 231 or.). Hemen aztergai dugun kasuari ere dagokionez —hau da, «konta#a#» delakoari ere dagokionez—, argi dago testuinguruak 'konta ahala' eskatzen duela, hots, hau ere «kontala» irakurri behar zela: aipatu dugun lerro bereko beste «kontala» hark berretsi besterik ez du egiten esaldiaren gramatikak dioskuna.

<sup>48</sup>Honetaz ikus 138 or. 14 oh. eta, beherago, 337-338 or.

<sup>49</sup>«ez liraken» Oz.

129 or. = X, 30, 41 [278, 18]	esani	esnai	esnai
129 or. = X, 30, 41 [278, 20]	zenbat	zenbait	zenbat
129 or. = X, 30, 41 [278, 24]	dago	dagon	dago
129 or. = X, 30, 42 [279, 10]		42	42
130 or. = X, 31, 45 [281, 20]	bien	bein	biek
130 or. = X, 31, 45 [281, 27]	girala	gerala	gerala
131 or. = X, 31, 46 [282, 18]	Noer'i	Noe'ri	Noe'ri
132 or. = X, 33, 49 [284, 18]	mais	maiz	maiz
132 or. = X, 34, 52 [286, 18]	Iakobe	Iakobe'k	Iakobe'k
132 or. = X, 34, 52 [286, 20]	Oisepengandiko	Iosepengandiko	Iosepengandiko
133 or. = X, 34, 52 [287, 7]	lo-armarik	lo-asmarik	lo-armarik
133 or. = X, 35, 54 [288, 13]	ezagutu	ezagutu	ezagutu
134 or. = X, 35, 56 [289, 16]	irrikuz	irriskuz	irrikuz
135 or. = X, 36, 59 [292, 5]	egitzi	<b>egitzi</b> <sup>50</sup>	egitzi
136 or. = X, 37, 60 [293, 14]	galgatzea	galgatzer	galgatzer
137 or. = X, 40, 65 [297, 5]	erakutziz	erakutsiz	erakutsiz
138 or. = X, 41, 66 [298, 19]	nainun ukan	nai nun ukan	nai ukan
138 or. = X, 42, 67 [299, 20]	arrokiriz	arrokeriz	arrokeriz
139 or. = X, 43, 69 [300, 23]	usteko	uzteko	uzteko
139 or. = X, 43, 69 [300, 24]	guragatik	guregatik	guregatik
139 or. = X, 43, 69 [301, 7]	Askota ta	Asko ta	Asko ta
139 or. = X, 43, 69 [301, 7]	uandi	aundi	aundi
139 or. = X, 43, 69 [301, 7]	dora	dira	dira
140 or. = XI, 1, iz. [303, 3]	bziz	<b>bziz</b>	bizi
140 or. = XI, 1, 1 [303, 6]	ezanok	esanok	esanok
140 or. = XI, 1, 1 [303, 17]	gogz	gogoz	gogoz
140 or. = XI, 1, 1 [303, 18]	errulior	errukior	errukior
140 or. = XI, 1, 1 [304, 2]	Zuri	Zure	Zure
140 or. = XI, 2, 3 [304, 17]	nerkiko	nerkiko	nerkiko
140 or. = XI, 2, 3 [304, 18]	Ba-dakuzazu	Ba-dakusazu	Ba-dakuzazu
140 or. = XI, 2, 3 [304, 19]	serbitsua	serbitzua	serbitzua
140 or. = XI, 2, 3 [304, 20]	Zure	Zure	Zuri
140 or. = XI, 2, 3 [305, 3]	dakuztenen	dakustenen	dakustenen
141 or. = XI, 2, 3 [305, 9]	alperik	alperrik	alperrik
141 or. = XI, 2, 4 [306, 2]	mamaia	mamia	mamia
141 or. = XI, 2, 4 [306, 13]	Zu gurtze	Zu-gurtze	zugurtze
141 or. = XI, 3, 5 [307, 4]	aer	zer	zer
141 or. = XI, 3, 5 [307, 9]	nezaioke	nesaioke	nesaioke
142 or. = XI, 3, 5 [307, 12]	Otsegin	Otsein	Otsein
142 or. = XI, 4, 6 [307, 24]	bera	beraz	beraz
142 or. = XI, 5, 7 [308, 11]	nolabit	nolabait	nolabit
142 or. = XI, 5, 7 [308, 13]	eita	eitea	eitea
142 or. = XI, 5, 7 [308, 15]	auen	auk	auk
142 or. = XI, 5, 7 [308, 17]	Zun	Zuk	Zuk
142 or. = XI, 5, 7 [308, 18]	zentszua	zentszua	zentszua
142 or. = XI, 5, 7 [309, 6]	izatea9	izatea?	[egiteko]?

<sup>50</sup>Ikus gorago 138 or. eta bertako 16 oh. eta, beherago, 332 or. 50 oh.: aipatu azken lekuan azaltzen dugun hipotesiarengatik jaso dugu hemengo zerranda honetan ere.

142 or. = XI, 5, 7 [309, 6]	Zera	Zer	Zer
142 or. = XI, 5, 7 [309, 6]	baizik.	baizik?	baizik?
143 or. = XI, 6, iz. [309, 11]	iteze	itzez[e]?	itzez
143 or. = XI, 6, 8 [310, 11]	zenun.	zenun?	zenun?
143 or. = XI, 7, iz. [310, 13]	lekrik	lekurik	lekurik
143 or. = XI, 7, 9 [311, 3]	esab	esan	esan
143 or. = XI, 8, 10 [311, 11]	azten	asten	asten
143 or. = XI, 8, 10 [311, 11]	bukatzen.	bukatzen?	bukatzen.
143 or. = XI, 8, 10 [311, 13]	baita asten	baita ezer asten	baita asten
144 or. = XI, 8, 10 [311, 24]	daramatzi	garamatzi	garamatzi
144 or. = XI, 8, 10 [312, 3]	Orregatik asiera	Orregatik da asiera	Eta asiera da
144 or. = XI, 9, 11 [312, 12]	arriagrriro	arriagrriro	arriagrriro
144 or. = XI, 9, 11 [312, 13]	adierazi.	adierazi?	adierazi?
144 or. = XI, 9, 11 [312, 22]	ustel   keritik	ustelkeritik	ustelkeritik
144 or. = XI, 9, 11 [312, 24]	nera	nera	nera
*144 or. = XI, 9, 11 [313, 2]	bada	<b>bada</b>	bada
144 or. = XI, 9, 11 [313, 6]	zerum lurrak	zeru-lurrak	zeru-lurrak
144 or. = XI, 10, 12 [313, 11]	zeru-lurrol	zeru-lurrok	zeru-lurrok
145 or. = XI, 11, 13 [314, 8]	geldi erazi	geldierazi	geldierazi
145 or. = XI, 12, 14 [315, 9]	erantzuten	erantzuten	erantzuten
145 or. = XI, 12, 14 [315, 16]	baizik 9	baizik?	baizik?
145 or. = XI, 12, 14 [315, 17]	bezala:	bezala!	bezala!
146 or. = XI, 13, 15 [316, 12]	aldiguzien	aldi guzien	aldi guzien
146 or. = XI, 13, 16 [316, 24]	di##	dira	dira
146 or. = XI, 13, 16 [317, 4]	egunoro	egun oro	egunoro
146 or. = XI, 13, 16 [317, 5]	eez	ez	ez
146 or. = XI, 14, 17 [317, 16]	erez	errez	errez
146 or. = XI, 14, 17 [317, 21]	galdegin da	galdeginda	galdeginda
146 or. = XI, 14, 17 [318, 1]	izan,	izan?	izan?
146 or. = XI, 15, 18 [318, 9]	dugu laburra	dugu ta aldi laburra	dugu ta laburra
147 or. = XI, 15, 19 [319, 19]	baiziñ	baizik	baizik
147 or. = XI, 15, 19 [319, 20]	bestean lenago	besteak lenago	besteak lena
147 or. = XI, 15, 20 [319, 26]	bakarrax	bakarra	bakarra <sup>51</sup>
147 or. = XI, 15, 20 [319, 28]	une txorik	unetxorik	unetxorik
147 or. = XI, 15, 20 [320, 8]	Oraidik	Oraindik	Oraindik
148 or. = XI, 18, 24 [322, 20]	oarain	orain	orain
149 or. = XI, 21, 27 [325, 12]	duzenik	dunetik	duzenik
150 or. = XI, 22, 28 [326, 3]	aoietaz	aietaz	oietaz
150 or. = XI, 22, 28 [326, 12]	dituzu dituzu	dituzu	dituzu
150 or. = XI, 23, iz. [326, 21]	Aldiz	Aldia	Aldia
151 or. = XI, 25, 32 [329, 23]	naizal	naizala	naizala
151 or. = XI, 25, 32 [330, 2]	gezurik	gezurrik	gezurrik
152 or. = XI, 26, 33 [330, 19]	luzeez	luzeen	luzeen
152 or. = XI, 26, 33 [330, 20]	eta luzeena	eta elezati luzeena	eta luzeena
152 or. = XI, 26, 33 [331, 9]	alako	alako	alako
153 or. = XI, 27, 35 [333, 4]	negurtzeko Non	negurtzeko? N.	negurtzeko? N.
153 or. = XI, 27, 35 [333, 7]	zenztu	zentzu	zentzu

<sup>51</sup>m3-k egindako ezabatze marka m1-en baten gainean dago: ikus 100 or.



153 or. = XI, 27, 36 [333, 19]	neurrorra	neurrira	neurrira
153 or. = XI, 28, 37 [334, 16]	oi dalako. Alare	oi dalako? A.	[oi dalako? A.]
154 or. = XI, 28, 38 [335, 3]	eginkisun	eginkizun	eginkizun
154 or. = XI, 30, 40 [336, 16]	naoizaldi	noizaldi	noizaldi
155 or. = XI, 31, 41 [337, 7]	baldil	baldin	baldin
155 or. = XI, 31, 41 [337, 20]	zer-lurrak	zeru-lurrak	zeru-lurrak
155 or. = XI, 31, 41 [337, 20]	ezaguru	ezagutu	ezagutu
155 or. = XI, 31, 41 [338, 2]	di- l	dira	dira
156 or. = XII, 1, 1 [339, 5]	li- l ru	liburu	liburu
156 or. = XII, 1, 1 [339, 11]	atuko	atuko	atuko
156 or. = XII, 2, 2 [340, 10]	Mukulu mordo	Mukulu-mordo	Mukulu-mordo
156 or. = XII, 3, 3 [340, 20]	osin barrena	osin-barrena	osin-barrena
156 or. = XII, 3, 3 [341, 2]	argirik eza	argirik-eza	argirik-eza
156 or. = XII, 3, 3 [341, 4]	argirik eza	argirik-eza	argirik-eza
157 or. = XII, 4, 4 [341, 20]	ikus eziña	ikus-eziña	ikus eziña
157 or. = XII, 6, iz. [342, 11]	gabia	gabea	gabea
157 or. = XII, 6, 6 [342, 16]	itzuzi	itsusi	itsusi
158 or. = XII, 8, iz. [345, 2]	ikus-egiña	ikus-egiña <sup>52</sup>	ikus-eziña
159 or. = XII, 9, 9 [346, 11]	adi duna	adiduna	adiduna
159 or. = XII, 9, 9 [346, 13]	efoite	efoite	egoite
159 or. = XII, 11, 11 [347, 19]	pozenki	ozenki	ozenki
159 or. = XII, 11, 11 [347, 21]	zirkiñak	zirkiñek	zirkiñek
159 or. = XII, 11, 11 [348, 7]	soillikmez	soillik ez	soilla, ez
*160 or. = XII, 11, 12 [348, 21]	Orrengatik.	Orrengatik!	Orrengatik.
*160 or. = XII, 11, 12 [348, 27]	uaen	auen	auen
160 or. = XII, 11, 13 [348, 28]	duk	dun	dun
160 or. = XII, 11, 13 [349, 3]	dizun	dizu	dizun
160 or. = XII, 12, 15 [350, 10]	za	zan	zan
160 or. = XII, 12, 15 [350, 11]	osiñ gaiñean	osiñ-gaiñean	osiñ-gaiñean
162 or. = XII, 15, 19 [353, 6]	Etaua	Eta ua	Eta au
162 or. = XII, 15, 19 [353, 12]	Aragandik	Aragandik <sup>53</sup>	Argandik
162 or. = XII, 15, 19 [353, 14]	agindu-la	aginduta	agindu ala
162 or. = XII, 15, 19 [353, 19]	esarri	ezarri	ezarri
163 or. = XII, 15, 22 [355, 6]	Aua	Au	Au
163 or. = XII, 16, 23 [356, 15]	Agi	Egi	Egi
163 or. = XII, 16, 23 [356, 16]	dirala diotenekin	dirala ez diotenekin	dirala diotenekin
163 or. = XII, 16, 23 [356, 17]	Moise's	Moise	Moise
164 or. = XII, 17, 24 [357, 4]	adi duna	adiduna	adiduna
164 or. = XII, 17, 24 [357, 9]	ondozkalotuz	ondozka lotuz	ondozkatzuz
164 or. = XII, 17, 25 [357, 18]	aratatik	artatik	artatik
164 or. = XII, 17, 25 [357, 24]	ezer ezetik	ezer-ezetik	ezer-ezetik
164 or. = XII, 17, 25 [357, 28]	oraindikeitegabear	oraindik e.	oraindik e.
164 or. = XII, 17, 25 [358, 3]	osiñ gaiñean	osiñ-gaiñean <sup>54</sup>	osiñ gaiñean
164 or. = XII, 18, 27 [358, 19]	nási asteko	násiazteko	násiazteko
164 or. = XII, 18, 27 [359, 1]	eragizten	eragozten	eragozten

<sup>52</sup>Badirudi z bat dela m3-k marraztu duena.

<sup>53</sup>Litekeena da «Aregandik» izatea m3-k proposatutakoa.

<sup>54</sup>Beraz, zuzenketa hau ez da jaso A-n, baina hurrengo lerroan dagoen —eta B-prior-en inongo markarik

165 or. = XII, 19, 28 [359, 20]	atuz	artuz	artuz
165 or. = XII, 19, 28 [359, 21]	alda eziñari	alda-eziñari	alda-eziñari
165 or. = XII, 20, 29 [360, 11]	Moises	Moise	Moise
165 or. = XII, 20, 29 [360, 11]	otsegiña	otseña	otseña
165 or. = XII, 20, 29 [360, 24]	diona	dionak	dionak
165 or. = XII, 20, 29 [361, 2]	agin	egin	egin
165 or. = XII, 20, 29 [361, 3]	Aratatic	Artatik	Artatik
166 or. = XII, 21, 30 [361, 15]	mukulukik	mukulukik	mukulukiak
166 or. = XII, 21, 30 [361, 19]	oraidio	oraindio	oraindio
166 or. = XII, 21, 30 [361, 20]	zer	zeru	zeru
166 or. = XII, 21, 30 [361, 21]	mukulu dun	mukuludun	mukuludun
166 or. = XII, 21, 30 [362, 3]	ezil	ezin	ezin
166 or. = XII, 21, 30 [362, 5]	mukulu duna	mukuluduna	mukuluduna
166 or. = XII, 22, 31 [362, 22]	lainkoakm	lainkoak	lainkoak
166 or. = XII, 22, 31 [363, 4]	urria o	urriago	urriago
166 or. = XII, 22, 31 [363, 9]	lainko#m[#= a + k]	Iainko#k	Iainkoak
167 or. = XII, 22, 31 [363, 14]	Edora	Edota	Edota
167 or. = XII, 22, 31 [363, 22]	baitagi	baitagio	baitago
167 or. = XII, 22, 31 [363, 23]	iatorri-liburuak	Iatorri-liburuak	Iatorri-liburuak
167 or. = XII, 22, 31 [363, 24]	dimen	dimen	adimen
167 or. = XII, 22, 31 [363, 27]	iatorri-liburuan	Iatorri-liburuan	Iatorri-liburuan
167 or. = XII, 22, 31 [364, 1]	egial	egiak	egiak
167 or. = XII, 23, iz. [364, 6]	etzun	etzun	etzun
167 or. = XII, 23, 32 [364, 13]	otsegin	otsein	otsein
167 or. = XII, 24, 33 [365, 9]	otsegin	otsein	otsein
167 or. = XII, 24, 33 [365, 11]	alda eziñean	alda-eziñean	alda-eziñean
168 or. = XII, 24, 33 [365, 17]	zein	zein	zein
168 or. = XII, 25, 34 [366, 7]	nondikm	nondik	nondik
168 or. = XII, 25, 34 [366, 13]	mi	bi	bi
168 or. = XII, 25, 35 [367, 23]	asmatunun	asmatu nun	asmatu nun
169 or. = XII, 25, 35 [368, 7]	baiztitun	baiztitun	baiztitun
169 or. = XII, 27, 37 [369, 14]	zabalduzdoana	zabalduz doanak	zabalduz doanak
169 or. = XII, 27, 37 [369, 19]	iraku	irakur	irakur
169 or. = XII, 27, 37 [369, 21]	zarteko	zarreko	zarteko
170 or. = XII, 28, 38 [371, 4]	zidan	zidan	ziran
170 or. = XII, 28, 38 [371, 5]	naizZure	naiz Zure	naiz Zure
170 or. = XII, 28, 39 [371, 10]	a da	da	da
170 or. = XII, 28, 39 [371, 13]	onela	onela	onela
170 or. = XII, 28, 39 [371, 23]	sirkari	sorkari	sorkari
170 or. = XII, 28, 39 [371, 27]	zrgitsua	zrgitsua	argitsua
171 or. = XII, 29, 40 [372, 4]	egiz	egia <sup>55</sup>	egiz
171 or. = XII, 29, 40 [372, 11]	esate##	esatea	esatea
171 or. = XII, 29, 40 [372, 14]	igaliari	igaleari <sup>56</sup>	igaliari

ez duen— beste «osiñ gaiñean» bat «osiñ-gaiñean» bezala agertzen da A-n (ikus 239 or.): seguruenik, m3-k nabarmendutakoa zuzentzen ari zelakoan zuzenduko zuen bigarrena. (Testuak honela dio: «[...] “lur ikus-eziña ta antolagabea ta osiñ gaiñean [osiñ-gaiñean m3, osiñ gaiñean A] illuna”, baiña bitara: lur ikus-eziñ ta antolagabea mukulugai ditela eitea artu baiño len; osiñ gaiñean [osiñ-gaiñean A] illuna, berriz, gogogai [...].»)

<sup>55</sup>Ez dago argi m3-k «egia» proposatu ote duen: litekeena da hitzaren azken letra bakarrik nabarmendu nahi izana.

<sup>56</sup>Ez dut uste zalantzan jar daitekeenik *e* bat dela m3-k idatzi duena: zuzenketa, hainbestetan bezala, erabat

171 or. = XII, 29, 40 [372, 18]	alda eziñik	alda-eziñik	alda-eziñik
171 or. = XII, 29, 40 [373, 10]	kantaera	kantaera	kantaera
171 or. = XII, 29, 40 [373, 23]	deritxagulako	deritxagulako	deritzagulako
172 or. = XII, 31, 42 [375, 9]	iaino	lainko	lainko
172 or. = XII, 31, 42 [375, 15]	enelainko	ene lainko	ene lainko
*172 or. = XII, 32, 43 [376, 14]	azti	asti	asti
172 or. = XII, 32, 43 [376, 16]	aize-   manduzun	aize-   man duzun	aizeman duzun
*173 or. = XIII, 1, 1 [377, 6 pr.]	ântzik	ântzi	antzi
173 or. = XIII, 2, 2 [378, 12]	erev	ere	ere
173 or. = XIII, 2, 2 [378, 13]	sor	zor	zor
*173 or. = XIII, 2, 2 [378, 13]	zituten	zenien	zenien
173 or. = XIII, 2, 2 [378, 14]	lurrek	lurrek	lurrei
*173 or. = XIII, 2, 2 [378, 14]	zizuten	zenien	zenien
*173 or. = XIII, 2, 2 [37, 15]	mukulukiak	mukulukiak <sup>57</sup>	mukulukiak
*173 or. = XIII, 2, 2 [378, 16]	berev	bere <sup>58</sup>	bere
*173 or. = XIII, 2, 2 [378, 17]	asiak	asiak	asiak
*173 or. = XIII, 2, 2 [378, 17]	eitegabeak	eitegabeak	eitegabeak
*173 or. = XIII, 2, 2 [378, 18]	oso urrun	oso urrun zitezen	oso urrun
*173 or. = XIII, 2, 3 [379, 5]	osiñ	osiñ	osiñ
*173 or. = XIII, 2, 3 [379, 8]	berdiñ.	berdiñ?	berdiñ?
*174 or. = XIII, 2, 3 [379, 17]	osiñ	osiñ	osin
174 or. = XIII, 3, 4 [380, 1]	oalko	olako	alako
174 or. = XIII, 3, 4 [380, 5]	Nola bait	Nolabait	Nolabait
174 or. = XIII, 4, 5 [380, 22]	alda eziña	alda-eziña	alda eziña
175 or. = XIII, 5, 6 [381, 15]	ba'lita	ba'lita	ba'litza
175 or. = XIII, 6, iz. [382, 2]	arnaza	arnasa	arnasa
175 or. = XIII, 6, 7 [382, 3]	ezaidazu	esaidazu	esaidazu
175 or. = XIII, 6, 7 [382, 3]	daukatv	daukat	daukat
175 or. = XIII, 7, 8 [383, 13]	lazterka	lasterka	lazterka
176 or. = XIII, 8, 9 [383, 21]	osiñ	osiñ	osiñ
*176 or. = XIII, 8, 9 [384, 11]	zaitut bada	zaitut <b>bada</b>	zaitut
*176 or. = XIII, 8, 9 [384, 16]	ugaritasunn	ugaritasun	ugaritasun
176 or. = XIII, 9, 10 [384, 22]	eramanak. Tokian	eramanak? T.	eramanak? T.
176 or. = XIII, 9, 10 [384, 24-1]	bqi	bai	bai
176 or. = XIII, 9, 10 [385, 2]	arengatil	arengatik	arengatik
176 or. = XIII, 9, 10 [385, 5]	Gurev	Gure	Gure
176 or. = XIII, 9, 10 [385, 7]	xapaltasunae. <sup>59</sup>	xapaltasuna e.	xapaltasuna e.
176 or. = XIII, 9, 10 [385, 13]	gaudenean	<b>gaudenean</b>	daudenean
176 or. = XIII, 9, 10 [385, 15]	maita grifia	maita-grifia	maita-grifia
177 or. = XIII, 10, 11 [386, 10]	ezinitzalira	ezinitzalira	eziniñtzalira
177 or. = XIII, 11, 12 [386, 16]	ulertuko du. Zein	ulertuko du? Z.	ulertuko du? Z.
177 or. = XIII, 11, 12 [386, 17 t.]	Aratz	Artaz	Artaz

gardena ez bada ere, ezin liteke besterik izan eta, gainera, lerro berean beste «igalea» bat dago («[...] noizaldiz lorea igaliari [igaleari m3] bezala autatuz, igalea loreari bezala [...]»). Baina ikus honetaz, beherago, 163 or. 71 oh. bigarren zatia.

<sup>57</sup>Lapitzaren bi muturrek, gorriak eta urdinak, egin dute zuzenketa hau.

<sup>58</sup>Gauza bera hemen.

<sup>59</sup>«xapaltasunaerilkitzen» B, «xapaltasuna erilkitzen» m3; A-k, berriz, «xapaltasuna eraikitzen» dakar (ikus 259 or.).

177 or. = XIII, 12, 13 [387, 23]	Guren, G., Gure,	Guren, G., Guren, <sup>60</sup>	Guren, Guren,
177 or. = XIII, 12, 13 [388, 1]	izeneqn	izeneqn	izenean
177 or. = XIII, 12, 13 [388, 3]	gu re	gure	gure
177 or. = XIII, 12, 13 [388, 4]	ikus eziña	ikus-eziña	ikus-eziña
177 or. = XIII, 12, 13 [388, 7]	ggaiñ	gaiñ	gaiñ
178 or. = XIII, 13, 14 [389, 2]	audiago <sup>61</sup>	aundiago	au diago
178 or. = XIII, 13, 14 [389, 4]	ozிña	osiña	osiña
178 or. = XIII, 13, 14 [389, 20]	ozிña	osiña	osiña
178 or. = XIII, 14, 15 [390, 4]	lasaxeogo	lasaxeogo	lasaxeago
178 or. = XIII, 14, 15 [390, 7]	ozிñ	osiñ	osin
178 or. = XIII, 14, 15 [390, 8]	oraidik	oraindik	oraindik
178 or. = XIII, 14, 15 [390, 11]	argi ontzi	argi-ontzi	argi-ontzi
178 or. = XIII, 14, 15 [390, 16]	deza##	dezaño	dezan
179 or. = XIII, 14, 15 [391, 7]	geren-ontzi	gerren-ontzi	geren-ontzi
179 or. = XIII, 15, 16 [391, 11]	idazto	idazti	idazti
179 or. = XIII, 15, 16 [391, 14]	zenidun	zenidun	zenigun
179 or. = XIII, 15, 16 [391, 15]	il da	il-da	il da
179 or. = XIII, 15, 16 [391, 20]	giñagotik	giñagotik	gaiñagotik
179 or. = XIII, 15, 16 [391, 21]	baitzegan	baitzegan	baitzegan
179 or. = XIII, 15, 17 [392, 3]	Bikaidu	Bikaidu	Bikaidu
179 or. = XIII, 15, 17 [392, 4]	au rren	aurren	aurren
180 or. = XIII, 17, 20 [394, 12]	zekizula	zekigula	zekizula
180 or. = XIII, 17, 21 [395, 3]	arrikaltzen	arrikaltzen	urrikaltzen
181 or. = XIII, 18, 22 [395, 14]	zerutik	so beza zerutik	begira beza z. <sup>62</sup>
181 or. = XIII, 18, 23 [396, 28]	ba#tuz	banatuz	banatuz
181 or. = XIII, 18, 23 [397, 4]	Zu-   tasunaren	Zugurtasunaren	Zugurtasunaren
182 or. = XIII, 19, 24 [397, 20]	Ikazazute	Ikazazute	Ikazazute [.s. Oz] <sup>63</sup>
182 or. = XIII, 19, 24 [397, 21]	ume zurtzari	umezurtzari	umezurtzari
182 or. = XIII, 19, 25 [398, 21]	ena	enda	enda
182 or. = XIII, 19, 25 [399, 3]	aien	aiek	aiek
182 or. = XIII, 20, 26 [399, 17]	zeratu	zerate	zerate
182 or. = XIII, 20, 26 [399, 20]	zagarakiak	sagarakiak	sagarakiak
183 or. = XIII, 20, 28 [400, 27]	sartueik	sarturik	sarturik
183 or. = XIII, 20, 28 [401, 1]	biziez	bizi ez	bizi ez
184 or. = XIII, 21, 30 [402, 23]	(Rom 12, 2)	<b>(Rom 12, 2)</b>	(Rom 12, 2)
185 or. = XIII, 23, 34 [406, 20]	aintzoak	zintzoak	aintzoak [zin. Oz]
185 or. = XIII, 23, 34 [407, 1]	ball lediz	ba'lediz	ba'lediz
186 or. = XIII, 24, 35 [407, 20]	ugaldi	ugaldi	ugaldu
*186 or. = XIII, 24, 35 [407, 23]	arki ba'neza	arki ez ba'neza <sup>64</sup>	arki ba'neza
186 or. = XIII, 24, 35 [407, 24]	zugatzer	zugatzer	zugatzeri
*186 or. = XIII, 24, 36 [408, 4]	Aperik	Alperrik	Alperrik
*186 or. = XIII, 24, 36 [408, 8]	adimnetsugoeak	adimentsugoeak	adimentsugoeak

<sup>60</sup>Hots: «Guren, Guren, Gure» B; «Guren, Guren, Guren» m3; «Guren, Guren» A.

<sup>61</sup>Baina m1-ek egindako marra bat dago, goitik behera, «au diago» irakur dadin: ikus 101 or.

<sup>62</sup>Hau da, A-k «begira beza zerutik» dakar. Arkatz gorriak idatzitako bi hitz hauek berriz idatzi ditu, lerroen arteko zurian, m5-ek (ikus 183 eta 186 or.); ondoren, «Utsuneak» izeneko dokumentuan, beste aldaketa batzuk pairatuko dituzte (ikus 205 or. 43 zenb.).

<sup>63</sup>«Ikazazute» Oz.

<sup>64</sup>Lapitz gorriak «ez» gehitu du, baina arkatx urdinak —ondoren, noski— urratu egin du.

187 or. = XIII, 24, 37 [409, 13]	bito	biotz	biotz
187 or. = XIII, 25, 38 [410, 6]	en	ene	ene
187 or. = XIII, 25, 38 [410, 9]	argutuz	argutuz	argituz
188 or. = XIII, 26, 39 [411, 18]	bialdi	bidali	biali
188 or. = XIII, 26, 39 [411, 22]	negenako	nigenako	niganako
188 or. = XIII, 26, 39 [412, 3]	bearaldik	bearraldik	bearraldik
188 or. = XIII, 26, 41 [413, 13]	bat otx	bat ur otx	bat ur otx
189 or. = XIII, 28, 43 [414, 17]	sortzigarrena	zortzigarrena	zortzigarrena
189 or. = XIII, 29, 44 [415, 4]	sortzitan	zortzitan	sortzitan [z. Oz]
189 or. = XIII, 29, 44 [415, 15]	autziz	autsiz	autsiz
189 or. = XIII, 29, 44 [415, 15]	idaztiaek	idaztiaek	idaztiak
190 or. = XIII, 30, 45 [416, 10]	etzitesan	etzitesan	etzitezan
190 or. = XIII, 30, 45 [416, 13]	batekernarazi	batek ernarazi	batek ernarazi
*190 or. = XIII, 31, 46 [417, 11]	gogoa	gogoak	gogoak
190 or. = XIII, 31, 46 [417, 17]	dakisagunak	dakisagunak	dakizagunak
191 or. = XIII, 32, 47 [418, 15]	Zur	Zuri	Zuri
191 or. = XIII, 32, 47 [419, 5]	autemeaten	autematen	autematen
191 or. = XIII, 33, 48 [420, 7]	baiztan	baiztan	baiztan
193 or. = XIII, 38, 53 [423, 22]	dugu arkituko	dugu artuko	dugu artuko <sup>65</sup>

Axola zaigu jakitea m3-ren ohar hauek guztiak nahi gabe gertatutako hutsen zuzenketak diren —edo, hobeto esateko, m3-k nahi gabe egindako huztaz zituenen zuzenketak— ala horrelakoekin batera beste helburu batekin egindako aldaketak ere badiren. Hau da, m3-k ohar hauek egitean izan zuen asmoa da orain axola zaiguna eta, hortaz, mintzagai izango duguna ez da horrenbeste izango zein irakurketa den hutsa eta zein ez, ezpada zein zuen huztaz m3-k eta zein ez. Eta, izan ere, badira lehenengo begi kolpe batean behintzat Orixeren hizkuntza edo itzulpena hobetzeko asmoarekin eginak diruditen aldaketak. Aurrera dezagun arestian eman dugun zerrendako 400 bat oharretatik oso gutxirengatik susma daitekeela era honetako helburu bat; eta susmagarri egiten zaizkigun gutxi hauetako batzuk hutsen zuzenketatzat jo behar direla, m3-ren asmoetan behinik behin —hauxe da-eta orain axola zaiguna—. Ikus dezagun:

Quid non mali aut facta mea aut, si non facta, dicta mea aut, si non dicta, <i>voluntas</i> mea fuit? (IX, 1, 1)	Zer gaiztorik etziran nik egiñak ezperen esanak, edo esanak ezperen ene <i>nai- ukaitea!</i> (B, 100 or.)	Zer gaiztorik etziran nik egiñak ezperen esanak, edo esanak ezperen ene <i>nai- ukaiteak!</i> (m3)	Zer gaiztorik etziran nik egiñak ezperen esanak, edo esanak ezperen ene <i>nai- ukaitea!</i> (A, 211, 12-14);
[...] sed tam remota et retrusa quasi in cavis abditioribus, ut, nisi admonente aliquo <i>eruerentur</i> , ea fortasse cogitare non possem? (X, 10, 17)	Ain zeuden ordea urrun eta gorde zoko sakonetan, norbaitek iragarriz atera ez <i>ba lira</i> ez baintun irauliko. (B, 120. or.)	Ain zeuden ordea urrun eta gorde zoko sakonetan, norbaitek iragarriz atera ez <i>ba lizkit</i> , ez baintun irauliko. (m3)	Ain zeuden ordea urrun eta gorde zoko sakonetan, norbaitek iragarriz atera ez <i>ba'lira</i> ez baintun irauliko. (A, 258, 3-5);

<sup>65</sup>Honetaz ikus beherago 178 or.

<p>Utrumque video, sed quomodo id eloquar nescio, nisi quia omne, quod esse incipit et esse desinit, tunc esse incipit et tunc desinit, quando debuisse incipere vel desinere in aeterna ratione cognoscitur, ubi nec incipit aliquid nec desinit. (XI, 8, 10)</p>	<p>Nolabait ba-dakit baiña nol[a] esan ez dakit onela ezik: asiera ta bukaera dun edozer, noiz azten da eta noiz bukatzen. Asi bear edo buka bear zula Iainkoaren ezaguerak ala dakuzanean, artan ez baita asten, ez bukatzen. (B, 143 or.)</p>	<p>Nolabait ba-dakit baiña nol[a] esan ez dakit onela ezik: asiera ta bukaera dun edozer, noiz azten da eta noiz bukatzen. Asi bear edo buka bear zula Iainkoaren ezaguerak ala dakuzanean, artan ez baita <i>ezer</i> asten, ez bukatzen. (m3)</p>	<p>Nolabait ba-dakit baiña nola esan ez dakit onela ezik: asiera ta bukaera dun edozer, noiz asten da eta noiz bukatzen. Asi bear edo buka bear zula Iainkoaren ezaguerak ala dakusanean artan ez baita asten, ez bukatzen. (A, 311, 9-13);</p>
<p>Et ideo principium, quia, nisi maneret [...] (XI, 8, 10)</p>	<p>Orregatik asiera. Iraun ez ba'leza [...] (B, 144 or.)</p>	<p>Orregatik <i>da</i> asiera. Iraun ez ba'leza [...] (m3)</p>	<p><i>Eta asiera da</i>. Iraun ez ba'leza [...] (A, 312, 3);</p>
<p>Et tamen dicimus longum tempus et breve tempus [...] (XI, 15, 18)</p>	<p>Alare aldi luzea esaten dugu laburra [...] (B, 146 or.)</p>	<p>Alare aldi luzea esaten dugu <i>ta aldi</i> laburra [...] (m3)</p>	<p>Alare aldi luzea esaten dugu <i>ta</i> laburra [...] (A, 318, 9);</p>
<p>Ita metimur spatia carminum spatii versuum, et spatia versuum spatii pedom, et spatia pedom spatii syllabarum, et spatia longarum spatii brevium [...] (XI, 26, 33)</p>	<p>Ola negurtzen ditugu olerki luzeak neurtitz luzeez [sic] bidez, eta neurtitzen luzea oiñen irautez, oiñena elezatienez eta luzeena laburrenez [...] (B, 152 or.)</p>	<p>Ola negurtzen ditugu olerki luzeak neurtitz luzeez [sic] bidez, eta neurtitzen luzea oiñen irautez, oiñena elezatienez eta <i>elezati</i> luzeena laburrenez [...] (m3)</p>	<p>Ola negurtzen ditugu olerki luzeak neurtitz luzeen bidez, eta neurtitzen luzea oiñen irautez, oiñena elezatienez, eta luzeena laburrenez [...] (A, 330, 18-20);</p>
<p>Quid enim te promeruit «caelum et terra», quae fecisti «in principio»? Dicant, quid te promeruerunt spiritalis corporalisque natura, quas fecisti in sapientia tua, ut inde penderent etiam inchoata et informia quaeque in genere suo vel spiritali vel corporali, euntia in immoderationem et in longiquam dissimilitudinem tuam [...] (XIII, 2,2)</p>	<p>Ze sor zituten bada, asieran egin zenitun zeru-lurrek, esan bezate ze zor zizuten Zure Zugurtasunez egin zenitun sorkari, gogaki eta mukulukiak, bakoitza berev einean Aren mende, gogaki naiz mukuluki, asiak eta eitegabeak ere eragabe Zure antzetik oso urrun: (B, 173 or.)</p>	<p>[*] <i>Ze zor zenien</i> bada, asieran egin zenitun <i>zeru-lurrei</i>, esan bezate ze zor <i>zenien</i> Zure Zugurtasunez egin zenitun sorkari, gogaki eta <i>mukuluki</i>, bakoitza <i>bere</i> einean Aren mende, gogaki naiz mukuluki, <i>asi</i> eta <i>eitegabe</i> ere eragabe Zure antzetik oso urrun <i>zitezen</i>: (m3)</p>	<p><i>Ze zor zenien</i>, bada, asieran egin zenitun zeru-lurrei? esan bezate, ze zor zenien? Zure Zugurtasunez egin zenitun sorkari, gogaki eta mukulukiak, bakoitza bere einean Zugurtasun Aren mende, gogaki naiz mukuluki, asiak eta eitegabeak ere, eragabe Zure antzetik oso urrun: (A, 378, 13-18);</p>

[...] oriatur de «terra veritas», et «iustitia de caelo» respiciat [...]	[...] sortu bedi lurretik egia ta zuzentasunak zerutik (B, 181 or.)	[...] sortu bedi lurretik egia ta zuzentasunak <i>so beza</i> zerutik (m3)	[...] «sortu bedi lurretik egia ta zuzentasunak <i>begira beza</i> zerutik» (A, 395, 13-14).
--	---	--	--

Lehendabiziko kasuan («nai-ukaiteak») argi dago halako analogia batek bultzatzen diola Lekuonari Orixeren testua aldatzera: zaila da ordea erabakitzea hustzat jo duen «nai-ukaitea» —esaldia arinegi irakurriaz— ala berariaz egindako aldaketa den. (Beharrik ez bagenuen ere, C-ren lekukotasuna dugu honetarako: «Zer gaiztorik etziran nik egiñak, edo egiñak ezperen esanak, edo esanak ezperen ene *nai-ukaitea!*»; C, 109 or.). Bigarrenari dagokionez («ba lira B : ba lizkit m3»), ez da egiantzeko Lekuonak jatorrizko «ba lira» hustzat, hau da, ezinezkotzat jo izana; aldiriz, badirudi m3-ren zuzenketa idazkerari bakarrik begiratzen diola: nolana ere, damutu egin zaio —agian ahaztu— A-ra bidean. Hirugarrenean («ez baita ezer asten») argi dago Lekuonak latinera jo duela eta latinaren arabera zuzendu duela Orixerena: hemen ere zaila da erabakitzea Lekuonak pentsatu ote zuen euskarazko testuak ere «aliquid» haren ordain bat derrigor behar zuela ala komeni egiten zitzaizola bakarrik, argitasunaren —agian jatorrizkoarekiko leialtasunaren— mesedetan. Nik esango nuke Orixeren testuak, berez, ez duela ezer falta: beste kontu bat da esaldia, dagoen-dagoenean, bestela ere uler daitekeen, baina ez du inongo *indice de faut* erakusten —sintaxi traketsa eta esanahi iluna ez baitira, hemen behintzat, inongo hutsaren aztarrena—; bestalde, aldaketa hau A-ko testuan mantendu ez izanak ez du, agidanean, ez bataren ez bestearen alde hitz egiten. Orobat seigarrena («elezati»). Laugarren kasua, berriz, oso argia da: nekez pentsa daiteke Lekuonak «Orregatik asiera» esaldia onartezina dela uste zezakeenik; eta, hemen bai, aldaketa honek gero A-n izan zuen bilakaerak berariaz egindako aldaketa baten aurrean gaudela diosku. Bosgarrena («aldi luzea [...] ta aldi laburra»), berriz, huts baten zuzenketatzat jo behar delakoan nago, Orixeren testuan huts bat baitago: berdin da ezabatze bat izan den ala *error auctoris* bat, eta berdin da, orobat, Lekuonak gehiago edo gutxiago asmatu duen testua sendatzerakoan (eta, hemen ere, A-n egin duen murrizketak sendatu besterik ez zuela nahi erakusten du). Nabarmena da zazpigarrenean Orixeren itzulpena zuzendu nahi izan duela Lekuonak: ez testua, itzulpena baizik (hasierako «zituten», noski, «zizuten» zuzendu behar zen, baina gainerakoek —betiere hemen axola zaigun ikuspuntutik begiratuta— ez zuten ukitu beharrik). Azkenik, zortzigarrenari dagokionez («so beza»), daitekeena da Lekuonak hustzat jo izana, nahiz eta hipotesi hau ez izan beharrezkoa, beheago (186 or.) ikusiko ahal dugun bezala.

Demagun susmagarri egin zaizkigun zortzi hauetatik bizpahiruri buruz bakarrik esan daitekeela hutsak zirela Lekuonarentzat; edo, hobeto, demagun ezin dugula horrelakorik esan ezta zortzi horietako bati buruz ere: horrela izanda ere ondorioztatu behar genuke B-prior-en gainean lan egin zuen bitartean —eta geroago ez bezala— oso gutxitan saiatu zela Lekuona *Aitorkizunen* testua hobetzen, hots, jatorrizko latinera hurbilagotzen edota idazkera bera zuzentzen. Baina ez —ez behintzat nahitaez— Orixeren testua hobetzeko asmoa geroago —alegia, «Utsuneak» izeneko paperak prestatu zituenean eta 1956ko liburuaren probak zuzentzerakoan— sortu zitzaizolako: B-prior-en bertan daude geroago aldatzeko asmoarekin nabarmendu bide zituen pasarteak (ikus,

beherago, 173-179 or.) edo, beste era bateko kontuak badira ere, puntuazioa ukitzen duten aldaketak (gogora 136 or. 1 oh. azalduko). Seguruenik, horrela antolatuko zituelako Lekuonak lanaren aldiak.

Ezin zen berdina izan Lekuonak hizkuntzaren itxurari dagozkion aldaketetan izan zuen jarrera (kontzeptuari buruz ikus I erans.): hauetan, arestian aztertu ditugunetan ez bezala, aldaketa ugari egin zituen. Hona hemen:

	B	m3	A
79 or. = VII, 6, 10 [163, 25] 91 or. = VIII, 3, 8 [189, 28]	Gainera zillegi	Gaiñera zillegi	Gainera zillegi
84 or. = VII, 16, 22 [175, 12] 102 or. = IX, 3, 6 [216, 6] 104 or. = IX, 4, 10 [220, 1] 109 or. = IX, 10, 25 [232, 17] 117 or. = X, 6, 9 [250, 13] 123 or. = X, 17, 26 [266, 2] 130 or. = X, 31, 45 [281, 27]	ziran baitzira baikira gira ba'zirate ba'zira girala	zeran baitzira baikera gera ba'zerate ba'zera gerala	zeran baitzira baikera gira ba'zerate ba'zera gerala
106 or. = IX, 7, 16 [225, 2] 107 or. = IX, 9, 19 [228, 12] 118 or. = X, 8, 13 [254, 7] 122 or. = X, 16, iz [263, 9] 122 or. = X, 16, 24 [263, 10] 122 or. = X, 16, 24 [263, 15] 124 or. = X, 19, 28 [267, 12]	antzi nasten nasten Auztea Auztea anztea Antzia	ântzi nâsten nâsten Ânztea Ânztea ânztea Ântzia	ântzi nâsten nâsten Anztea Anztea ânztea Aantzia
*3 or. = I, 5, 6 [13, 19] 74 or. = VI, 16, 26 [151, 9] 79 or. = VII, 6, 10 [163, 27] 97 or. = VIII, 10, 24 [203, 26] 100 or. = IX, 2, 2 [212, 21] 102 or. = IX, 3, 6 [215, 20] 105 or. = IX, 6, 14 [223, 1] 110 or. = IX, 11, 28 [234, 24] 114 or. = X, 1, 1 [243, 9] 115 or. = X, 4, 5 [247, 12] 118 or. = X, 7, 11 [252, 10] 118 or. = X, 8, 12 [253, 12] 119 or. = X, 8, 15 [255, 23] 124 or. = X, 20, 29 [268, 24] 144 or. = XI, 9, 11 [313, 6] 156 or. = XII, 2, 2 [340, 10] 156 or. = XII, 3, 3 [340, 20] 156 or. = XII, 3, 3 [341, 2]	Ba du erio-   bildurrak bait zuken elkarri aier mahasketa arorako egi billa Ba, da lagun   giro eginbear ezago as-estu Ba dut oroimen aurretik suma bidez iakiñ iakiña zerum lurrak Mukulu mordo osin barrena argirik eza	Ba-du erio-   -bildurrak bait-zuken elkarri-aier mahasketa-arorako egi-billa Ba-da lagun-giro eginbear-ezago as-estu Ba-dut oroimen-aurretik suma-bidez iakiñ-iakiña zeru-lurrak Mukulu-mordo osin-barrena argirik-eza	Ba-du erio-bildurrak bait zuken <sup>66</sup> elkarri aier mahasketa a. egi billa Ba-da lagunkiro eginbear ezago as-estu Ba dut oroimen aurretik suma-bidez iakin-iakiña zeru-lurrak Mukulu-mordo osin-barrena argirik-eza

<sup>66</sup>Ikus, honi buruz, 190-193 or. eta 191 or. 6 oh.



156 or. = XII, 3, 3 [341, 4]	argirik eza	argirik-eza	argirik-eza
157 or. = XII, 4, 4 [341, 20]	ikus eziña	ikus-eziña	ikus eziña
160 or. = XII, 12, 15 [350, 11]	osiñ gaiñean	osiñ-gaiñean	osiñ-gaiñean
164 or. = XII, 17, 25 [357, 24]	ezer ezetik	ezer-ezetik	ezer-ezetik
164 or. = XII, 17, 25 [358, 3]	osiñ gaiñean	osiñ-gaiñean	osiñ gaiñean
165 or. = XII, 19, 28 [359, 21]	alda eziñari	alda-eziñari	alda-eziñari
167 or. = XII, 24, 33 [365, 11]	alda eziñean	alda-eziñean	alda-eziñean
171 or. = XII, 29, 40 [372, 18]	alda eziñik	alda-eziñik	alda-eziñik
174 or. = XIII, 4, 5 [380, 22]	alda eziña	alda-eziña	alda eziña
176 or. = XIII, 9, 10 [385, 4]	maita griña	maita-griña	maita-griña
177 or. = XIII, 12, 13 [388, 4]	ikus eziña	ikus-eziña	ikus-eziña
178 or. = XIII, 14, 15 [390, 11]	argi ontzi	argi-ontzi	argi-ontzi
179 or. = XIII, 15, 16 [391, 15]	il da	il-da	il da

Zerrenda honetako aldaketa esanguratsuenek erakusten dizkigute ja Lekuonak auzi honetan izango duen jarreraren ezaugarri nagusiak: proposatu dituen aldaerak bat datoz B-ko testuan nagusi diren grafiekin edota Orixek B-prior-en bertan egindako zuzenketekin; «oiñaze», «zera» eta «ântzi» dira, izan ere, grafia erabilienak *Aitorkizunen* bigarren idatzaldi honetan (C-tik B-ra gertatutako era honetako aldaketei buruz ikus 76-77 or.; m2-k egindakoen gainean, 119-126 or.). Inongo zalantzarik gabe, Lekuonak grafia puntu hauetan ikusi zuen aniztasuna bateratu nahi izan zuen eta *bateratu*, *hain* zuzen ere, testuak eskaintzen zituen aukeretako bat hobetsiz: «gaiñera» edo «gera», esaterako, B-ko testuan gehien erabiltzen diren aldaerak direlako nabarmen; «antzi : ântzi» kasuan, berriz, ez da begien bistakoa zein den bietan Orixek sarrien darabilena eta, seguruenik, m2-k azentu zirkunflexuaren alde egin dituen oharrak ikusteak izan zuen eragina Lekuonaren erabakian. (Marratxoa sartzeko eta kentzeko izan dituen zalantzak ulertzekoak dira: horregatik hitz egin dugu aldaketa esanguratsueni buruz).<sup>67</sup> Esan genezake, noski, Lekuonak aldeztu zituen aldaketa hauek bat zetozela bere hizkuntz ereduarekin, hau da, Lekuonak «gera» idatzi ohi zuela eta ez «gira», etab.: baina Lekuonak ez zuen «gaiñera» edo «nâsi» erabiltzen, eta hala ere aldaera hauen alde egin zuen argi eta garbi *Aitorkizunen* testuan (ikus V erans. 424-425 or. eta bertako 8 oh. eta VII erans. 469-470 or.). Izan bedi ordea kontuan ez duela berdin jokatu grafia puntu guztietan eta, orobat, besterik izango direla *ex novo* sartuko dituen hitz eta pasarteak. (Ikus, honen guztiaren gainean, VII erans.).

Aipatu jarrera honen adibide ezin hobea dira m3-k *otsein* hitzaren agerraldietan proposatutako aldaketak:

142 or. = XI, 3, 5 [307, 12]	Otsegin	Otsein	Otsein
165 or. = XII, 20, 29 [360, 11]	otsegiña	otseña	otseña

<sup>67</sup>Hala eta guztiz ere, Orixek espero zitekeen baino erregularragoa izan zen marratxoaren erabilera, eta badirudi zenbaitetan behintzat haren erabilera antzeztzen saiatu zela Lekuona: «bildur» hitzarekin egindako hitz elkartu guztiek-edo marratxoa dute *Aitorkizunetan*, eta berdin «aro», «ezago», «nekez», «bidez», «mordo», «barrena», «eziña», «griña» eta «ontzi» hitzekin egindakoek; «billa», «eza» eta «gaiñean» hitzekin eraturakoak bietara erabili ditu Orixek *Aitorkizunetan*, hots, batzuetan marratxoarekin eta beste batzuetan marratxorik gabe. (Ez da adierazgarria, hiru aldiz bakarrik agertzen baita *iunctura* hau *Aitorkizunetan*, «elkarri aier»; guztiarekin ere, Orixek ez du marratxorik erabiltzen: «elkarri aier» [VIII, 10, 24 <203, 26 eta 204, 19-20>] eta «elkarren aier» [VIII, 11, 26 <206, 3>]. Orobat aipatu ez ditudan gainerakoetan).

167 or. = XII, 23, 32 [364, 13]	otsegin	otsein	otsein
167 or. = XII, 24, 33 [365, 9]	otsegin	otsein	otsein

Orixek *hots egin* beti «otsegin» idazten du *Aitorkizunetan* (behin —agian ohikoa ez den adiera bat duelako— «ots egin»), baina *otsein* hitza batzuetan «otsein» (edo «otseñ») eta beste batzuetan «otsegin» (edo «otsegiñ»): 7 aldiz «otsegin» eta 20 aldiz «otsein». <sup>68</sup> Hemen ere, beraz, bi aukera ematen ditu Orixek hitz bakarrarentzat baina, aldi berean, bistan da «otsein» aldaeraren aldeko joera erakusten duela argi eta garbi eta, bestalde, aldaera hori bera da zabalduea eta aproposena —*hots egin* aditzarekin nahasten ez delako alegia—. <sup>69</sup> Egoera bera da eta Lekuonak berdin jokatu du: lehendabizi, m3-k gorago zerrendatutako laurak zuzendu ditu; eta ondoren, zalantzarik gabe liburuaren probetan, lau hauei gehitu dizkie B-prior-eko orrietan lan egitean itzuri zitzaizkion gainerako hirurak (ikus 264 or.), halako moduan non A-n ez baita *otsein* esan nahi duen «otsegin» bat ere gelditu. Hortaz, Orixek ematen zion —eta, oraingoan ere, askorekin zabalduea zegoen eta, bestelako argudioengatik ere, arrazoizkoena zen— aukerari helduz, Lekuonak arautu egin du bestela nahasgarri gerta zitekeen hitz baten aldaera. <sup>70</sup>

Honaino m3-k hustzat jo ez zituen —eta, hortaz, testua hobetzeko asmoz ukitu zituen— hitzetan egindako aldaketak; gainerako guztiak m3-k hustzat jo dituen irakurketentzat proposatutako *coniecturae* dira. Hauetako gehienak, ohi bezala, begien bistakoak dira; ez, noski, guztiak: egiazatu ahal izango dugu m3-k egindako zuzenketa asko testuaren irakurketa arretatsu baten ondorio direla —eta, noski, *acumen* ez nolana hiko baten zitua—. Izan ere, Lekuonak Orixeren behatzikribuaren gainean egin zuen lana ez zen, inondik ere, azalekoa izan, eta ja B-prior-etik kanpo egin zituen beste zuzenketa eta gehiketa batzuek ere —beherago ikusiko ditugu— berretsi egingo dute m3-ri zor zaion epai hau. Baina m3-ren *coniecturae* hauetako bakoitzaren zailtasuna alde batera utzita —nahikoa baita, honetaz jabetzeko, goiko zerrendari begiratu bat ematea— badira haietan pixka batean pausatzea merezi dutenak; zeren, esate baterako, m 3 - k e g i n d a k o z u z e n k e t a b a t z u k g a i z k i b a i t a u d e :

<sup>68</sup>Hona hemen aipatu 20 «otsein» (edo «otseñ») horiek: 113 or. = IX, 13, 37 [240, 19 <alt.>]; 159 or. = XII, 9, 9 [346, 8]; 167 or. = XII, 23, 32 [364, 21]; 168 or. = XII, 25, 34 [366, 16]; 169 or. = XII, 25, 35 [368, 2]; 169 or. = XII, 26, 36 [368, 16]; 169 or. = XII, 26, 36 [368, 18]; 169 or. = XII, 26, 36 [369, 6]; 171 or. = XII, 30, 41 [374, 6]; 172 or. = XII, 30, 41 [374, 16]; 172 or. = XII, 32, 43 [376, 18]; 181 or. = XIII, 18, 23 [397, 6]; 183 or. = XIII, 20, 28 [400, 25]; 183 or. = XIII, 21, 29 [401, 18]; 184 or. = XIII, 21, 30 [402, 12]; 184 or. = XIII, 22, 32 [404, 10]; 186 or. = XIII, 24, 36 [408, 6]; 188 or. = XIII, 26, 39 [411, 16]; 189 or. = XII, 27, 42 [414, 1]; 189 or. = XIII, 29, 44 [415, 14]; eta hauek, berriz, *g-dun* 7 «otsegin» (edo «otsegiñ»): 113 or. = IX, 13, 37 [240, 19 <pr.>]; 142 or. = XI, 3, 5 [307, 12]; 162 or. = XII, 15, 20 [354, 4]; 163 or. = XII, 15, 22 [355, 5]; 165 or. = XII, 20, 29 [360, 11]; 167 or. = XII, 23, 32 [364, 13]; 167 or. = XII, 24, 33 [365, 9].

<sup>69</sup>Hemen ez dugu m2-k egindako zuzenketarik, ez baldin badugu horrelakorik jo nahi makinaz zuzenduta dagoen 169 or. = XII, 26, 36 [368, 18] paragrafokoa: izan ere, kopiagileak «otsegin» eskribitu du lehenengo eta, ondoren, *g* urratu du —betiere, esan bezala, makinaz— «otsein» irakur dadin.

<sup>70</sup>Ikus, *otsein* hitzaren eta honen antzeko beste batzuen aldaerek *Aitorkizunen* testuaren historian izan duten bilakaerari buruz, V erans. Bai «otsegin» bai eranskin horretan aipatzen diren beste zenbait hitzen *g-dun* aldaerak, oro har behintzat, *Aitorkizunen* bigarren idatzaldian hasi zen Orixe erabiltzen; baina hemen gehien axola zaiguna da egiaztatzea B-ko testuan zehar ere nabarmena dela «otsein» formaren aldeko joera: XII, 24 kapituluraino bietara agertzen da, nahasian, baina XII, 25 kapitulutik aurrera (eta 17 agerraldi dira) «otsein» bakarrik erabiliko du (eta, hemen bai, oso esanguratsua da makinaz zuzendutako XII, 26, 36 paragrafoko aipatu «otsegin» hura —ikus aurreko oharra—). Baina honi guztiari buruzko xehetasunak ikus, esan bezala, V erans.

58 or. = V, 8, 15 [114, 2]	oroikari	oroikarri	oroikari
74 or. = VI, 15, 25 [150, 19]	bestere andere	besteren andere	beste andere
85 or. = VII, 17, 23 [176, 15]	artzeko	aritzeko	artzeko
107 or. = IX, 8, 18 [227, 4]	itzirikian	itxirikian	itxirikian
119 or. = X, 9, iz. [256, 2]	aitor	iator	aitor
119 or. = X, 9, 16 [256, 5]	aitorrak	iatorrak	aitorrak [iat. Oz]
124 or. = X, 18, 27 [266, 21]	dunean	danean	dunean
129 or. = X, 30, 41 [278, 20]	zenbat	zenbait	zenbat
129 or. = X, 30, 41 [278, 24]	dago	dagon	dago
130 or. = X, 31, 45 [281, 20]	bien	bein	biek
133 or. = X, 34, 52 [287, 7]	lo-armarik	lo-asmarik	lo-armarik
160 or. = XII, 11, 13 [349, 3]	dizun	dizu	dizun
162 or. = XII, 15, 19 [353, 14]	agindu-la	aginduta	agindu ala
167 or. = XII, 22, 31 [363, 22]	baitagi	baitagio	baitago
169 or. = XII, 27, 37 [369, 21]	zarteko	zarreko	zarteko
178 or. = XIII, 13, 14 [389, 2]	audiago	aundiago	au diago
180 or. = XIII, 17, 20 [394, 12]	zekizula	zekigula	zekizula
186 or. = XIII, 24, 35 [407, 23]	arki ba'neza	arki ez ba'neza	arki ba'neza
188 or. = XIII, 26, 39 [411, 18]	bialdi	bidali	biali

Baina ez diezaiogun begira oraindik eskuineko zutabeari.<sup>71</sup>

I-IX liburuetarako C-ren lekukotasuna dugu m3-ren *coniecturae* epaitzen laguntzeko: laguntzeko, C-k ere, edozein autografok bezalaxe, hutsak izan baititzake. Lehenengo kasuan, dirudienez, banalizazio bat egin du Lekuonak, *-kari* eta *-gari* / *-karri* atzizkiak nahastuz: Orixek askotan erabiltzen du *-kari* eta, bigarren mailako argudioa bada ere, C-k ere «oroikari» dakar.<sup>72</sup> Ikus ditzagun ordea ondorengo bi kasuak beren testuinguruan:

At ego infelix nec feminae imitator, dilationis impatiens, tamquam post biennium	Ni, errukari au, andere aren antzik ez bainun, eskatu neskatxa bi urtera artuko nula luzetetsirik, [...], nire oitura tzarrekin	Ni, errukarri au, andere aren antzik ez bainun, eskatu nendun neskatxa bi urtera artuko nula luzetetsirik, [...], nere	Nik, errukarri onek, andere aren antzik ez bainun, eskatu nendun neskatxa bi urtera artuko nula luzetetsirik, [...], nere oitura
--	--	---	---

<sup>71</sup>Ez dakit noraino sartu behar genukeen oker egindako zuzenketa hauekin batera B-ko 145. orriko «erantzuten B : erantzunen m3 : erantzuten A» (XI, 12, 14 [315, 9]). Honela dio B-k: «Ez dut erantzunen auzi zailla itzuri naiez Urliak berazik erantzun omen zuna: «Gauza sakonak aztertzen ditutenentzat ipernua antolatzen». Ikustea bat da, irri egitea bi. Ez dut ori erantzuten» (azken hitzari dagozkio, noski, gorago emandako aldaerak). Lekuonaren zuzenketa zergatikoa begien bistan dago eta bere alde du, ez horrenbeste latin testua, pasartearen zentzua bera baizik: «respondeo non illud, quod quidam respondisse perhibetur ioculariter eludens quaestionis violentiam. «Alta —inquit— scrutantibus gehennas parabat». Aliud est videre, aliud ridere. Haec non respondeo»; ez dirudi ordea (eta —zuzenketa hau A-n jaso ez izana ere hutsa ez baldin bada— Lekuonari ere horrela iruditu zaio azkenean) nahikoa denik testua zuzentzeko. Orobat, zalantzazkoa izan daiteke atal honetan sartu behar ote den «igaliari B : igaleari m3 : igaliari A» (171 or. = XII, 29, 40 [372, 14]; ikus gorago 154 or. eta bertako 56 oh.). Orixek «igali» erabiltzen du *Aitorkizunetan*: 13 agerralditatik 12 «igali» dira eta bat «igale»; baina salbuespen hau m3-k zuzendu duen «igaliari» dagoen lerro berebean dago (XII, 29, 40 [372, 14-15]); alegia, m3 B-ko testuaren lekukotasun bat antzeratu nahiez aritu da. (Bestelakoa da A-ko testuan «igale» bezala agertzen den bat [V, 6, 10 <109, 18>]: B-n «igal#» irakurtzen da, non # = e + i baita; m2-k «igali» zuzendu du —ikus 114 or. eta bertako 40 oh.—, noski C-k dakarren bezala, baina hala eta guztiz ere A-n «igale» inprimatu da. Bitxia da kasu honetan ere —V, 6, 10 [109, 19]— «igali» bat egotea lerro bat beharago).

<sup>72</sup>Argudioa, izan ere, bigarren mailakoa da: ikus bestela C-tik B-ra gertatu den «errukari > errukarri» aldaketa ia-ia sistematikoa (100 or. 9 oh.). Baina «errukari» eta «errukarri» hitz bera dira, ez ordea —ez behintzat nahitaez—

accepturus eam quam petebam, [...], procuravi <i>aliam</i> , non utique coniugem [...] (VI, 15, 25)	<i>beste</i> andere bat bildu nendun, ez naski emaztea [...] (C, 76 or.)	oitura txarrekin <i>bestere</i> andere bat bildu nendun, ez naski emaztea [...] (B, 74. or. [150, 15-20])	txarrekin <i>besteren</i> andere bat bildu nendun, ez naski emaztea [...] (m3); <sup>73</sup>
Atque ita gradatim a corporibus ad sentientem per corpus animam atque inde ad eius interiorem vim, cui sensus corporis exteriora nuntiaret, et quousque possunt bestiae, atque inde rursus <i>ad ratiocinantem</i> potentiam, ad quam refertur iudicandum, quod sumitur a sensibus corporis [...] (VII, 17, 23)	Onela, maillaka, mukulukitik zentzudunera nentorren; ontatik, animaren barneko indarrera, gorpuz-leioen bidez baitu landakoen berri. Ontatik berriz, ondorioka <i>artzeko</i> ahalera —mailla ontan baitago irizpidea— zentzuetatik asirik. (C, 89. or.)	Onela, maillaka, mukulukitik zentzudunera nentorren; ontatik, animaren barneko indarrera, gorpuz- leioen bidez baitu landakoen berri. Ontatik berriz, ondorioka <i>artzeko</i> ahalera —mailla ontan baitago irizpidea— zentzuetatik asirik. (B, 85. or. [176, 12-16])	Onela, maillaka, mukulukitik zentzudunera nentorren; zentzudunera animaren barneko indarrera, gorpuz-leioen bidez baitu landakoen berri. Ontatik berriz, ondorioka <i>artzeko</i> ahalera —mailla ontan baitago irizpidea— zentzuetatik asirik. (m3). <sup>74</sup>

Bi pasarte hauetako lehendabizikoan B-ko testua bera da nahikoa m3-ren *coniectura* gaitzesteko: «ez naski emaztea» hitzek argi erakusten dute ezin dela «besteren emaztea» izan. Jatorrizko testua ere badugu, eta berretsi egiten digu erabat euskal testuak berak zioskuna; C-k ere «bestere» irakurri izan balu ez genukeen inongo zalantzarik izango «beste» zuzentzeko.<sup>75</sup> Bigarreanean egindako zuzenketa ez zen beharrezkoa: ikus, bestela, OEH-k s.v. dakartzan adibideak, eta C-k ere «ondorioka artzeko» izateak B-ren irakurketaren alde hitz egiten du. (Errazago onar liteke «ondorioka» horren ordez «ondorioak» proposatzea: *facilior* da, noski).

Nago m3-k laugarrenean egin duen zuzenketa halako etimologia baten ondorioa dela:

Itaque ad illud modicum cotidianum cotidiana modica addendo [...] in eam consuetudinem	Baiña xorta ari egunoro xortak eratzikiz [...] ardo-kotxo ia osoak <i>itzirikian</i> edaten ikasi zun. (C, 118. or.)	Baiña xorta ari egunoro xortak eratzikiz [...] ardo-kotxo ia osoak <i>itzirikian</i> edaten ikasi zun. (B, 107. or. [227, 1-4])	Baiña xorta ari egunoro xortak eratzikiz [...] ardo- kotxo ia osoak <i>itxirikian</i> edaten ikasi zun. (m3),
---	--	--	--

«oroikari» eta «oroikarri»: ikus, honen gainean, Seguiolak [1987, 215 or.] dakarren lekukotasuna.

<sup>73</sup>Goiko zerrendan ere ikus daitekeenez, aldaera ugari daude pasarte honetan m3-k proposatutakoaren eta A-n inprimatutakoaren artean; hona hemen A-ko testua: «Ni, errukarri au, andere aren antzik ez bainun, eskatu nuan neskatxa bi urtera artuko nula luzetetsirik, [...], nere oitura txarrekin *beste* andere bat bildu nuan, ez naski emaztea [...]».

<sup>74</sup>Hona A-ren testua: «Onela, maillaka, mukulukitik zentzudunera nentorren; ontatik, animaren barneko indarrera, gorpuz-leioen bidez baitu landakoen berri. Ontatik berriz, ondorioka *artzeko* ahalera —mailla ontan baitago irizpidea— zentzuetatik asirik».

<sup>75</sup>Aldiz, C-k «besteren» ekarri izan balu, orduan bai, ezingo genuke erabakirik hartu irizpide zenbait

lapsa erat, ut prope  
iam plenos mero  
caliculos *inhianter*  
hauriret. (IX, 8, 18)

eta, oraingo honetan, A-n ere «itxirikian» mantendu da. Bistan da m3-k 'itxi-irekian' irakurri behar dela pentsatu duela, hots, 'en un abrir y cerrar [de ojos]', nonbait. Nik ez dakit *itxi-irekian* euskara garbia den ala ez: OEH-k hiru agerraldi dakartza, horietatik bi Orixerenak hain zuzen (bestea Zaitegirena), eta 'inmediatamente, rápidamente' esan nahi omen du guztietan. Baina ez da begien bistakoa, ezta hurrik eman ere, Orixeren bi adibide horiek —horrela idatzita badaude ere, hots, *tx* banarekin— esanahi hori dutenik. Bat *Mireio*-koa da: «Ainbesteko grazia [sc. Mireirena] ur-kotxoan ikusi ba ziñute, *itxirikian* edan zentzaketen»;<sup>76</sup> OEH-ren arabera, «toute à la fois» itzultzen du hemen «itxirikian» honek; Orixek berea egiteko erabili zuen gaztelaniazko itzulpenean honela irakurtzen da aipatu esaldiari dagokiona: «¡Si dentro de un vaso de agua hubieseis visto tanta gracia, toda de un sorbo os la habríais bebido!».<sup>77</sup> *Euskaldunak* poemako beste adibideari dagokionez orobat: «Ni iltzen naizen egunean, / ez egin nigarrrik aurrean. / Ezker eskuinetati / zagi zatoak jarri, / ardo ori *itxi-idikian* / edan dezadan zeruian»;<sup>78</sup> eta honela dio Orixek berak egindako itzulpenak: «[...] para que de ese vino beba yo a tragos en el cielo». Esku artean dugun pasartean «inhianter» itzuli nahi du: *Aitorkizunen* liburu hau itzuli zuenean aurrean zuen Trabucco-ren frantseseko itzulpenak (ikus II erans.) «vider d'un trait» dakar. Hemen, *Mireio* eta *Euskaldunak* liburuetako agerraldietan ez bezala, «itxirikian» idatzi du: hogeitau urte pasatu dira «itxirikian» eta «itxi-idikian» idatzi zuenetik eta, agian batez ere, bitartean Iparraldean bizi izan da denbora luze samarrean. Beste alde batetik, Azkuek *itziki* eta *itxiki* jasotzen ditu ('trago, sorbo, gorgée') eta *itzikika* ('a tragos, par gorgées' edo 'hartándose, se rassasiant'); eta —benetan gauza adierazgarria— on Plazido Mujikak, *itziki* hitzaz gainera, honako hau ere badakar: «*itziriki* (c): 'sorbido, sorbo'»; badakigu Mujikak oso kontuan izan zituela Orixeren *Aitorkizunak* bere hiztegia egiteko, baina hitz hau ezin izan zuen

finkatu arte; baina horrela izanda ere horrek ez gintuke behartuko, inondik ere, «besteren» aldaera besterik gabe onartzera.

<sup>76</sup>N. Ormaetxea Orixek, *Mistral'en Mireio euskeraz*, Bilbo, Verdes-Atxirika, 1930, 7. or.

<sup>77</sup>F. Mistral, *Mireya*, traducción de Celestino Barallat y Falguera, Buenos Aires, Espasa-Calpe, 1948, 18. or. (baina lehenengo edizioa 1863koa da eta handik aurrera ere askotan berrinprimatu zen: ikus behegera, ohar honetan bertan). Orixek gaztelaniazko itzulpen honetatik itzuli zuela Orixeren beraren lekukotasun batetik atera dezakegu: «*Mireio* presakatxo itzulia dut, ia zalapartan (idatzi beintzat). Ez dut adierazi nai, gogoan ongi erabili bage egindako lana dudarik, baina orraztuagoa atera ziteken. [...] Zuk bezala proventzerazkoa ta frantsesa izan ba nitu, ez neri olakorik gertatuko. Adiskide batek, Oyarzabal'ek, esan neri urtearen erdi aldera Mistral'en eun urtegarrena zala ta Mireio euskerara itzultzeko. Euskaltzaindiaren batzarrean Donostian nintzala esan zidan eta andik Bilbaora iristean Lauaxetarekin ontaz itzegin eta beronek eman zidan catalan baten gaztelerazko itzulpena. Nik besterik ez dut ikusi» (Orexatik 1933ko maiatzaren 5ean «Argarate, Zaitegi et reliquis» egindako gutuna: apud Altuna [1990b, 151-152, 151 or.]). 1930ean *Mireio*ren gaztelaniazko hiru itzulpen ziren: bat aipatu Barallat-ena (1. edizioa 1863an), beste bat Lorenzo Riber-ena (1. edizioa 1919an) eta hirugarren bat Luis A. Romero-rena (1. edizioa 1924an); hiru hauek Orixeren euskarazko testuarekin erkatuez gero ondorioztatzen da Barallat-ena izan zuela eredu: hauxe da, bestalde, edizio gehienak izan zituena eta ondoena zabaldu zena garai hartan. (Ikus, honi guztiari buruz, Palau [1956, IX, 423-424 or.]).

<sup>78</sup>*Euskaldunak poema eta olerki guziak*, 109. or.; bai 1950eko edizioak bai Mokoroarenak testu bera dakarte hemen.

liburu honetatik atera, 1956ko edizioan irakur daitekeena «itxirikian» baita, hau da, *tx* batekin.<sup>79</sup> Seguruenik 'itxi-irekian' eta, oro har, *tx* duten aldaerak etimologia baten ondorio dira nonbait, poligenetikoki sortutako etimologia batena alegia, eta horregatik zuzendu zuen Lekuonak Orixek «itxirikian» idatzi zuena;<sup>80</sup> baina arrazoi bat baino gehiago dugu pentsatzeko oraingo honetan —*Mireio* eta *Euskaldunak* liburuen garaian ez bezala— Orixek «itxirikian» idatzi nahi izan zuela; eta arrazoi horietan ez dira ahulenak B eta —Lekuonak ezagutu ez zuen— C-ren lekukotasunak.

Gainerakoentzat ez dugu C-ren lekukotasuna, baina hala eta guztiz ere begien bistan dago m3-ren *coniecturae* oker daudela. Esate baterako, hamar aldiz erabiltzen du Orixek *aitor* hitza *artes liberales* edo honekin lotutako kontzepturen bat itzultzeko ('ikaskizun aitorrak', 'gai aitorrak', 'aitor eskolatu', etab.); m3-k hamar hauetako hiru aldatu ditu, bat zuzen baina beste biak, banalizazio bana eginez, oker:

79 or. = VII, 6, 9 [163, 9]	aitor eta aitor	iator eta iator	aitor eta iator
119 or. = X, 9, iz. [256, 2]	aitor	iator	aitor
119 or. = X, 9, 16 [256, 5]	aitorrak	iatorrak	aitorrak [iat. Oz];

eta B-prior-etik A-ra bidean beste bi aldatu ditu: VIII, 2, 3 eta XI, 23, 30 paragrafoetan (ikus 226 eta 237 or.).<sup>81</sup> Baina litekeena da Lekuonak berariaz egin izana *aitor* hitzaren inguruko aldaketa hauek, hau da, litekeena da Lekuonak hustzat jo ez izana «aitor» gisako irakurketak. Argiagoa da, Lekuonaren asmoari dagokionez, beste zuzenketa hau:

Et semper ita fit, cum aliquid perditum quaerimus et <i>invenimus</i> . (X, 18, 27)	Ola gertatzen da beti galdu-billa ibilki arkitzen <i>dunean</i> . (B, 124. or.)	Ola gertatzen da beti galdu-billa ibilki arkitzen <i>danean</i> . (m3)	Ola gertatzen da beti, galdu-billa ibilki, arkitzen <i>dunean</i> . (A, 266, 20-21).
---	--	--	---

<sup>79</sup>Baina «itxirikian» ere badakar, eta Lekuonak ematen bide zion esanahiarekin: «*itxirikian* (G): 'en un abrir y cerrar de ojos'».

<sup>80</sup>Bai hitzaren itxurari bai esanahiari dagokionez, eta badirudi horrela ulertu behar dela OEH-k aipatzen duen Zaitegiren lekukotasuna (*Oidipu bakaldun*, in J. Zaitegi, *Sopokel'en antzerkiak*, Mexiko, Pizkunde, 1946, 79 or.): «Itxirikian, esku-makillaz yo ta atzeraka gurditik-bera zerraldo irauli nun: guziak il nitun», hau da, *syntómo:s* (OR, 810), «en peu de temps», Bailly-rentzat.

<sup>81</sup>«Klase oneko lurrari 'aitor oneko lurra' esaten baitiog, klase oneko idazleari 'aitor oneko idazle', ots 'idazle aitor' esaio, eta *clasi/sicismus*'i 'aitortasuna'. Batez ere antzinakoeri esaten zaie 'aitor oneko' [...]» («Antze ta eder», EG, 1955 [5-12], 101-104, 103 or. [= IG, III, 154 or.]). Baina egia da Orixek ere baliokidetzat ematen zituela nonbait «aitor» eta «iator»: ikus, aipatu EG-ko orrialdean, Ibiñagabeitiaren oharra (idazlan guztien edizioan jaso ez dena) eta baita ere «Krutwig yauna euskeraz», EG, 1950 [11-12], 49-52, 52 or. [= IG, III, 917-920, 920 or.]: «Klassikoek: [...] Idazle aitor, naiz yator». (Baina ikus Mitxelena [1977, 178 or.]). *Aitorkezunetan* honako paragrafo hauetan erabiltzen du *aitor* hitza aipatu adieran: 54 or. = V, 3, 3 [103, 18]; 56 or. = V, 6, iz. [108, 17-18]; 56 or. = V, 6, 11 [109, 28]; 79 or. = VII, 6, 8 [161, 24]; 79 or. = VII, 6, 9 [163, 9]; 81 or. = VII, 9, 14 [168, 15]; 89 or. = VIII, 2, 3 [186, 7]; 119 or. = X, 9, iz. [256, 2]; 119 or. = X, 9, 16 [256, 5]; 150 or. = XI, 23, 30 [327, 14]. Ohar bedi Lekuonak ez duela ezer zuzendu bosgarren eta zazpigarren liburuetako agerraldietan, ez badugu kontuan hartzen VII, 6, 9 paragrafoa («aitor eta aitor eskolatuak B : aitor eta iator eskolatuak A»), hemen bietako batek «aitor» izan behar baitzuen ezinbestean eta besteak «iator»; esan bezala, hamargarren liburukoak aldatu ditu m3-k, nahiz eta bietako bat ere ez iritsi A-ko testura (X, 9, iz. akaberako aurkibidean bakarrik jaso da —456 or.— eta X, 9, 16 «Okerrak zuzentze» delakoan).

Jakina, irakurketa zuzena «dugunean» da eta m3-ren «danean» ez ezik B-ko «duncan» ere hutsa da: «dugunean» behar du, ez horrenbeste jatorrizko latinean ere horrela delako, ezpada Orixeren testuak, dagoen bezala (hots, «duncan» horrekin), *indice de faut* nabarmen bat erakusten duelako.<sup>82</sup> Hurrengo bi zuzenketek asko esaten digute m3-ren lan egiteko moduz eta, agian batez ere, B-prior-eko zuzenketak egitean izan zuen asmoaz:

Et tantum valet imaginis illius illius in anima mea, in carne mea [...] (X, 30, 41)	Eta nere animan eta aragian lillurak <i>zenbat</i> indar du. (B, 129. or.)	Eta nere animan eta aragian lillurak <i>zenbait</i> indar du. (m3)	Eta nere animan eta aragian lillurak <i>zenbat</i> indar du. (A, 278, 20-21);
Et tamen tantum interest inter me ipsum et me ipsum intra momentum, quo hinc ad soporem transeo vel huc inde retranseo! (X, 30, 41)	Alare nigandik nigana ernai egonetik lotara <i>zenbat</i> tarte <i>dago</i> une batean! (B, 129. or.)	Alare nigandik nigana ernai egonetik lotara <i>zenbat</i> tarte <i>dagon</i> une batean! (m3)	Alare nigandik nigana, ernai egonetik lotara <i>zenbat</i> tarte <i>dago</i> une batean! (A, 278, 23-24).

Bi esaldiak elkarrengandik oso hurbil daude (B-n, esaterako, lerro bakarra dago bien artean) eta bi zuzenketak, elkarren ezberdinak badira ere, arrazoi bakarrak eragin dizkio m3-ri: *zenbat* hitzari dagokion adizkia atzizkirik gabe egoteak. Ezin da dudarik izan m3-k, behegaro ikusiko ditugun beste kasu batzuetan bezala, hizkuntzazko *error auctoris* baten aurrean zegoela pentsatu zuela; baina ez da horrela, harridurazko esaldiak (eta biak dira harridurazkoak, lehendabizikoak harridura markarik ez badarama ere) aditzari inongo atzizkirik itsatsi gabe ere egin daitezkeelako —zenbait gramatkarik diotena diotela— edo, bada ere, Orixek —egungo euskaldun jator askok bezala— horrela egiten dituelako beti, inoiz huts egin gabe, *Aitorkizunetan*. Ikus bestela *zenbat* hitzarekin *Aitorkizunen* testuan dauden harridurazko esaldi guztiak.<sup>83</sup>

Zure egun ortan *zenbat* gure ta gurasoen egun igaro *dira*, ta ortatik artu dute neurria, ta ontatik artuko

<sup>82</sup>Izan ere, Orixeren testuarekin berarekin nahikoa da horretaz jabetzeko: «Emazte bat, drama [sc. drakma] galdu ta su-argiz ari zan billa. Aren oroiterik ukan ez ba'lu etzun arkituko. Arkitutakoan, nondik zekiken ua ote zan, artaz oroi ezik? Galdu ta arkitu aunitz dut gogoan. Orrela dakit, zerbaiten billa ibillian "au al da? ori al da?" neri galdegitean, nai nuna agertu arte "ez da" esaten nula. Zer zan gogoan ukan ez ba'nu, eskeñirik ere ez nezaken artu, ez bainun ezagutuko. Ola gertatzen da beti, galdu-billa ibilki, arkitzen du[gu]nean».

<sup>83</sup>Hots, zerrenda honetatik kanpo gelditu dira: galde-perpau osagarriak, hauek —esan gabe doa— beti daramatelako atzizkia (V, 3, 4 [104, 11]; V, 4, 7 [106, 11-12]; VI, 11, 20 [146, 10]; VII, 6, 8 [161, 22-23]; VII, 9, 13 [167, 1-2]; X, 9, 16 [256, 8]; X, 35, 57 [290, 5]; XI, 24, 31 [329, 8]; XI, 26, 33 [330, 13]; XI, 27, 34 [332, 5]; XI, 31, 41 [337, 13]), hauen artean sartzen direlarik *horra* edo *hara* batekin hasten direnak («[...] orra *zenbat* itzuri *ditudan* [...]», X, 35, 56 [289, 17]); «Ara lainkoa ta urkoa maitatze soilla *zenbat* izkutuz eta *zenbat* izkuntzaz eta izkuntza berean *zenbat* aldetara adierazten *dan* gorpuz-bidez», XIII, 24, 36 [408, 18-20]); aditza lehenaldian dutenak (III, 1, iz. [53, 4]; III, 3, 5 [56, 18]; VII, 7, 11 [165, 3-4]; VIII, 4, 9 [191, 14]; X, 34, 53 [287, 8-9]; XII, 32, 43 [376, 13-14]); agerian aditzik ez duten esaldiak (IV, 13, 20 [92, 15]; IV, 16, 28 [97, 21]; V, 3, 4 [104, 8]; IX, 6, 14 [223, 13-14]); eta *zenbat* funtzio metalinguistikoa agertzen den kasu bat («*Zenbat* diogunean [...]» XI, 24, 31 [329, 3]).

dute nolabait igaro diran oriek bezala [bezela A], nolabait diraken oriek ere. (I, 6, 10 [16, 27-17, 2]);

*Zenbat* [Zenbait BA] areago men egin bear *diogu* sorkari guzien Errege dan Iainkoari [Jainkoari B], ez-mezean egon gabe, agintzen ditunetan. [ditunetan? A] (III, 8, 15 [67, 3-5]);<sup>84</sup>

Baiñan aien aldean *zenbat* aundiago *da* aiek egin zituna, gure Iainkoa, eta ez du aldegiten, ez baitu urrengorik. (IV, 11, 17 [89, 14-16]);

*Zenbat* olako *dakar* barnean ene oroimenak len arkiturik, esan dutana, eskura bezala. (X, 11, 18 [258, 15-16]);

Eta nere animan eta aragian lillurak *zenbat* indar *du*. (X, 30, 41 [278, 20-21]);

Alare nigandik nigana ernai egonetik lotara *zenbat* tarte *dago* une batean! (X, 30, 41 [278, 23-24]);

*Zenbat* amarruz ari *zait* ordea etsaia siñale bat eskatzeko Zuri, morroi xume nauzun oni! (X, 35, 56 [289, 24-26]);

*Zenbat gaituzu* maitatu, Aita on, «Zure Seme bakarrari ez baitiozu barkatu, baiña gu gaiztoongatik duzu emana!». *Zenbat gaituzu* maitatu [...] (X, 43, 69 [300, 18-20]).

Ez dakit zergatik ez ziren jaso A-ko testuan aipatu bi zuzenketak («zenbait» eta «dagon» alegia): agian X. liburuko ondorengo kapituluetan dauden beste bi kasuak irakurtzean konturatu egin zelako Orixeren erabilera zein zen eta, liburuaren probak zuzentzerakoan, ez zituen sartu nahi izan.<sup>85</sup> Horrela balitz, bi zuzenketa hauen gorabeherek lehen ere behin baino gehiagotan aipatu behar izan dugun ondorio bat berretsiko lukete: m3-ren asmo nagusia —eta, zenbait kontutan, baita geroagoko Lekuonarena ere— Orixeren testua zuzentzea besterik ez zela izan.

X, 31, 45 paragrafoan egindako aldaketa oker dagoela euskal testuak berak diosku argi eta garbi:

Ebrius nūqum fui,  
sed ebriosos a te factos  
sobrios ego novi. Ergo  
a te factum est, ut hoc  
non essent qui nūqum  
fuerunt, a quo factum est,  
ut hoc non semper essent  
qui fuerunt, a quo  
etiam factum est,  
ut scirent *utrique*,  
a quo factum est.  
(X, 31, 45)

Ez naiz mozkor izan  
iñoiz; baiñan ezagutu  
ditut mozkorrek Zuk  
gartxu egiñak. Zuk  
egin duzu, beraz,  
iñoiz izan ez ziranak  
ez izatea, Zuk egin,  
ziranak beti ez izatea,  
Zuk egin ere, ori nork  
egin dun *bien* iakitea.  
(B, 130 or.)

Ez naiz mozkor izan  
iñoiz; baiñan ezagutu  
ditut mozkorrek Zuk  
gartxu egiñak. Zuk  
egin duzu, beraz, iñoiz  
izan ez ziranak ez  
izatea, Zuk egin, ere,  
ori nork egin dun *bein*  
iakitea.  
(m3)

Ez naiz mozkor izan  
iñoiz; baiñan ezagutu  
ditut mozkorrek Zuk  
gartxu egiñak. Zuk  
egin duzu, beraz, iñoiz  
izan ez ziranak ez izatea,  
Zuk egin, ziranak beti  
ez izatea, Zuk egin ere,  
ori nork egin dun *biek*  
iakitea. (A, 281, 16-20).

<sup>84</sup>B-k eta A-k, izan ere, «zenbait» dakarte, baina bistan da hutsa dela: gainera C-k ere «zenbat» irakurtzen du; eta harridurazko esaldia da, A-k galdera ikurra ipini badu ere —ez ordea B-k, ezta C-k ere—.

<sup>85</sup>Ez legoke nahitaz hipotesi honen kontra B-prior-etik A-ra bidean egin den «zaude BC : zauden A» (32 or.= III, 6, 10 [62, 9]) aldaketa («Zeñi urrun zaude [zauden A] [...]»); ikus 218 or.



Seguruenik, «bein» proposatu zuenean ez zion oraindik begiratu jatorrizko latinari. Aspaldiko laguna dugu (ikus 58 or.) X, 34, 52 paragrafoko «lo-armarik B : lo-smarik m3 : lo-armarik A»: azpimarratzeko modukoa da m3-k egindako zuzenketa hau A-ko testuan ez baina 1956ko liburuaren «Iztegitxoa» delakoan jaso zela (hau da, «lo-asma» eta ez «lo-arma»; ikus honetaz 334 eta 336 or.); bestalde, «lo-arma» ondo dokumentatuta dugu Orixerengan: OEH-k dakartzan agerraldiez gain, ikusi dugu gorago (58 or.) Mokoroari 1956ko irailaren 23an Tolosatik egiten dion gutunean, hiztegitxoan jasotakoari buruz ari bada ere, «lo-arma» aipatzen duela (Orexan «lo ariña» esaten dutela gehituz), agian «lo-asma» aldatu diotela konturatu ere egin gabe. XII, 11, 13 paragrafokoa pasarte aldrebes samar bat gaizki ulertzetik sortu da; latinak garden bihurtuko du Orixeren testua —puntuazio zuzen batek ere bihurtuko zukeen bezala—:

Unde intellegat anima, cuius peregrinatio longinqua facta est, si iam sitit tibi, si iam factae sunt «ei lacrimae» suae «panis, dum dicitur ei per singulos dies: ubi est Deus tuus?»; si iam petit a te «unam, et hanc requirit, ut inhabitet in domo tua per omnes dies vitae» suae. (XII, 11, 13)

Ikus beza emen atzerrialdi luzea egin duk animak Zu egarri zaitun, bere malkoak ogi biurtu zaizkion «non da zure lainkoa» esaten diotela; Zu'ri gauza bakarra eskatzen *dizun* eta au eskatzen, ots, Zure etxean bizi izatea bere bizialdi guzian. (B, 160 or.)

Ikus beza emen atzerrialdi luzea egin duk animak Zu egarri zaitun, bere malkoak ogi biurtu zaizkion «non da zure lainkoa» esaten diotela; Zu'ri gauza bakarra eskatzen *dizu* eta au eskatzen, ots, Zure etxean bizi izatea bere bizialdi guzian. (m3)

Ikus beza, emen, atzerrialdi luzea egin dun animak, «Zu egarri zaitun, bere malkoak ogi biurtu zaizkion “non da zure lainkoa” esaten diotela; Zu'ri gauza bakarra eskatzen *dizun*, eta au eskatzen, ots, Zure etxean bizi izatea bere bizialdi guzian». (A, 348, 28-349, 4),

eta A-n, jatorrizko latinari begiratu ondoren —eta komatxoak ere berrantolatutakoan—, B-n zegoen bezalaxe gelditu da. XII, 15, 19 paragrafoan proposatutakoa onartezina da euskal testuaren beraren sintaxiaren aldetik:

[...] sed in eius solius veracissima contemplatione requiescat, quoniam tu, Deus, diligenti te, *quantum praecipis*, ostendis ei te et sufficis ei, et ideo non declinat a te nec a se? (XII, 15, 19)

[...] aldiz, Ari begiratu txit egiazkoan atsedeten duna, Zu, Iauna, Zuk *agindu-la* maite zaitunari agertzen baitzakio ta aski zakio, ta orregatik ez dala saiesten ez Zugandik, ez beregandik? (B, 162 or.)

[...] aldiz, Ari begiratu txit egiazkoan atsedeten duna, Zu, Iauna, Zuk *aginduta* maite zaitunari agertzen baitzakio ta aski zakio, ta orregatik ez dala saiesten, ez Zugandik, ez beregandik? (m3)

[...] aldiz, Ari begiratu txit egiazkoan atsedeten duna, Zu, Iauna, Zuk *agindu ala* maite zaitunari agertzen baitzakio ta aski zakio, ta orregatik ez dala saiesten ez Zugandik, ez beregandik? (A, 353, 13-16).

Aldiz, daitekeena da XII, 22, 31 benetako hutsa ez izatea: egia da B-prior-en, m3-ren oharraren ondoren, «baitagio» irakurtzen dela, baina agian *o* letra idazterakoan asmatu ez duelako da; nolana ere, kasua begien bistakoa da:

[...] quid respondebitur de aquis, quae super firmamentum sunt, quia neque informes tam honorabilem sedem accipere meruissent nec <i>scriptum est</i> , qua voce formatae sint? (XII, 22, 31)	[...] zer erantzun ortzi gaiñean dauden uretaz, eitegabe izanik ez baitzuten ain deduzko tokirik artuko, ta ez <i>baitagi</i> idatzirik ere, zer itzez eitea artu zuten? (B, 167 or.)	[...] zer erantzun ortzi gaiñean dauden uretaz, eitegabe izanik ez baitzuten ain deduzko tokirik artuko, ta ez <i>baitagio</i> idatzirik ere, zer itzez eitea artu zuten? (m3)	[...] zer erantzun, ortzi gaiñean dauden uretaz, eitegabe izanik ez baitzuten ain deduzko tokirik artuko, ta ez <i>baitago</i> idatzirik ere, zer itzez eitea artu zuten? (A, 363, 20-22).
---	---	--	--

Bestalde, nabarmena da XII, 27, 37 paragrafokoa testuinguruak eragindako *facilior* bat dela:

Alii enim cum haec verba legunt vel audiunt, cogitant Deum quasi hominem aut quasi aliquam mole immensa praeditam potestatem novo quodam et <i>repentino</i> placito extra se ipsam tamquam locis distantibus fecisse caelum et terram [...] (XII, 27, 37)	Zenbaitek, au iraku edo entzutean, Iainkoa giza-antzeko iduritara dute edo mukulu aundi antzeko âl izate bat, asmo berri ta <i>zarteko</i> batez, berez landa, toki urrunetan egin zitula zeru-lurrak [...] (B, 169 or.)	Zenbaitek, au irakur edo entzutean, Iainkoa giza-antzeko iduritara dute edo mukulu aundi antzeko âl izate bat, asmo berri ta <i>zarreko</i> batez, berez landa, toki urrunetan egin zitula zeru-lurrak [...] (m3)	Zenbaitek au irakur edo entzutean, Iainkoa giza-antzeko iduritara dute edo mukulu-aundi antzeko âl izate bat eta asmo berri ta <i>zarteko</i> batez, berez landa, toki urrunetan egin zitula zeru-lurrak [...] (A, 369, 18-22),
--	--	---	---

bistan delarik «berri» horrek zer ikusi handia izan duela «zarteko B : zarreko m3» aldaketan; baina jatorrizko testuak ere ez du zalantzarik uzten: «[...] novo quodam et *repentino* placito [...]». Beste banalizazio bat dugu —garaiz zuzendua— XIII, 13, 14: testuinguruaren beharrik ere ez da. XIII, 17, 20 paragrafokoari dagokionez latin ereduak izan genitzakeen zalantza guztiak uxatzen ditu eta agian horixe bera gertatu zitzaion Lekuonari ere:

Quis, Domine, nisi tu, qui dixisti, ut congregarentur «aquae in congregationem unam» et appareret «arida» sitiens <i>tibi</i> [...]? (XIII, 17, 20)	Nork esan zun Iauna, Zuk ezik, bildu zitezela urak biltegi batean, ta ager <i>zekizula</i> legorra [...]? (B, 180 or.)	Nork esan zun, Iauna, Zuk ezik, bildu zitezela urak biltegi batean, ta ager <i>zekigula</i> legorra [...]? (m3)	Nork esan zun Iauna, Zuk ezik, «bildu zitezela urak biltegi batera eta ager <i>zekizula</i> legorra»? (A, 394, 11-12).
---	--	---	--

Honen antzekoa da XIII, 24, 35 paragrafoa: B-k ekarri izan balu m3-k proposatutako irakurketa ezingo genukeen zuzendu latin testuaren lekukotasunarengatik bakarrik;<sup>86</sup> baina kontrakoa

<sup>86</sup>Hauxe gertatzen zaigu, esaterako, m3-k XII, 16, 23 paragrafoan egin duen —baina A-raino iritsi ez den—

gertatu da bietan, hau da, irakurketa berria da (m3-rena) jatorrizkoarekin bat ez datorrena:

Item dicerem ad ea rerum genera pertinere benedictionem hanc, quae gignendo ex semet ipsis propagantur, si <i>eam</i> <i>reperirem</i> in arbustis et fructetis et in pecoribus terrae. (XIII, 24, 35)	Esan ere nezake, onespide au berenez ernalduz ugaltzen diranengatik, dala, txartaketan eta arnari dunetan eta abereetan arki ba'neza. (B, 186 or.)	Esan ere nezake, onespide au berenez ernalduz ugaltzen diranengatik, dala, txartaketan eta arnari dunetan eta abereetan arki <i>ez</i> ba'neza. (m3) <sup>87</sup>	Esan ere nezake, onespide au berenez ernalduz ugaltzen diranengatik, dala, txartaketan eta arnari dunetan eta abereetan arki ba'neza. (A, 407, 21-23).
--	---	--	---

Azkenik, XIII, 26, 39 paragrafokoa (eta hau A-ra ere pasatu egin da) benetan *coniectura* aldrebesa da; B-ren «bialdi» ezinezkoaren ordeztu, hau bezalako testuinguru argi batean bi aukera besterik ez dago: «bialdu» edo, agian, «bidali»; Orixek «bialdu» erabiltzen du beti: ezin da, beraz, zalantzarik izan.<sup>88</sup>

Hortaz, zenbaitetan huts egin du m3-k Orixeren testua zuzentzean, baina huts hauetatik gutxiak iraun du A-raino; behin baino gehiagotan esan dugu: m3-rena behin-behineko lana zen eta Lekuonaren *acumen*-a eta hizkuntzaren ezaguera —arantzez betetako testu baten aurrean— ez ziren nolana hikoak. Aipatzeko modukoak dira, bukatzeko, Orixeren *h i z k u n t z a z k o h u t s z e n b a i t e n* gainean egindako zuzenketak:

74 or. = VI, 15, 25 [150, 15]	Ni	Nik	Ni
74 or. = VI, 15, 25 [150, 15]	au	onek	au
103 or. = IX, 4, 10 [219, 27]	nor	nork	nork
119 or. = X, 8, 15 [255, 7]	Nor	Nork	Nork
132 or. = X, 34, 52 [286, 18]	Iakobe	Iakobe'k	Iakobe'k
165 or. = XII, 20, 29 [360, 24]	diona	dionak	dionak
169 or. = XII, 27, 37 [369, 14]	doana	doanak	doanak
*190 or. = XIII, 31, 46 [417, 11]	gogoa	gogoa	gogoa

«Nik» eta «onek» —biek perpauz beraren subjektua osatzen dute— A-n jaso ez diren bakarrak dira: agian B-prior-etik A-ra bidean gertatu den huts baten ondorioz, agian esaldiaren barnean dagoen «bainintzan» adizki bati eutsiz ontzat eman nahi izan dituelako Lekuonak.<sup>89</sup>

zuzenketaren kasuan: «dirala diotenekin B : dirala ez diotenekin m3» (ikus beherago 172 oh.); nabarmena da esaldiak ezezkia izan behar lukeela, baina ez dugu inongo *indice de faut*.

<sup>87</sup>Gogora bedi arkatx urdinak ezabatu egin duela gorriak proposatutakoa, lehen (156 or.) esan dugun bezala.

<sup>88</sup>Hamahiru aldiz erabiltzen du «bialdu» *Aitorkizunetan*; hauetaz gain, auzi hau garbitzeko balio ez duten beste forma batzuk ere bai: «bialazu» (XII, 27, 37 [370, 12]; XIII, 21, 29 [401, 18]), «bialtzea» (I, 12, iz. [24, 22]; IX, 1, 1 [212, 4]) eta «bialtzen» (V, 13, iz. [121, 2-3]).

<sup>89</sup>«Ni [Nik m3], erukarri au [onek m3], andere aren antzik ez bainun, eskatu nendun neskatxa bi urtera artuko nula luzetetsirik, — ezkontzaren ez baiño lizunkeriaren menpeko bainintzan, — nere oitura txarrekin bestere [beste CA] andere bat bildu nendun, ez naski emaztea, arekin ene animako gaitza osorik edo aundiagorik azteko ta luzarazteko bezala, ezkontzara arteo».

Atal berezi bat osatzen dute —ikusiko dugu merezi dutela aipatzea— *e z a b a t z e* baten ondorio diren hutsen zuzenketek. Hauetako batzuek ezabatzearen aztarren fisiko bat erakusten dute, dela lerroa moztean gertatu direlako dela *lacuna* bat —hitzaren oinarritzko zentzuan— dagoelako:

92 or. = VIII, 5, 10 [192, 10]	es- l la	eskola	eskola
116 or. = X, 6, 8 [249, 14]	Erru- l zaizunaz	Errudun zaizunaz	Erruki zaizunaz
125 or. = X, 21, 30 [270, 14]	ezagua ... zaio	ezagua gogora zaio	ezagua itsatsi zaio

eta adierazgarria da —itzuliko gara honetara— bi ezabatze luzeenetan iritzi aldaketak gertatu izana B-prior-etik A-ra bidean. Ondorengo biek ez dute aztarren fisikorik erakusten baina hala eta guztiz ere igarri egin zien m3-k:

163 or. = XII, 16, 23 [356, 16]	dirala diotenekin	dirala ez diotenekin	dirala diotenekin
188 or. = XIII, 26, 41 [413, 13]	bat otx	bat ur otx	bat ur otx

Lehenengo kasuan euskal testua bera nahikoa da ikusteko esaldiak ezezkoa izan behar lukeela:

Cum his autem, qui cuncta illa, quae vera sunt, falsa esse <i>non</i> dicunt honorantes et in culmine sequendae auctoritatis nobiscum constituentes illam per sanctum Moysen editam sanctam Scripturam tuam, et tamen nobis aliquid contradicunt, ita loquor. (XII, 16, 23)	Agi diran aiek oro gezur dirala diotenekin, eta nik bezala Moise's sailduak egindako Zure Idazti ua goستن eta aginpide aren gafiñean ipinten dutenekin, onela iardunen dut, zertxobait [zertxobait m1] ostera baldin ba'desate. (B, 163 or.)	Egi diran aiek oro gezur dirala <i>ez</i> diotenekin, eta nik bezala Moise sailduak egindako Zure Idazti ua goستن eta aginpide aren gafiñean ipinten dutenekin, onela iardunen dut, zertxobait ostera baldin ba'desate. (m3)	Egi diran aiek oro gezur dirala diotenekin, eta nik bezala Moise sailduak egindako Zure Idazti ua goستن eta aginpide aren gafiñean ipinten dut, zertxobait ostera baldin ba'dezate. (A, 356, 15-19).
---	--	--	--

Harrigarria da m3-ren zuzenketa hau A-n jaso ez izana: beste huts baten ondorioa delakoan nago, bestela ikusi ditugun eta —batez ere— ikusiko ditugun beste kasu askok eta askok Lekuonarengan erakusten dituztenak ez bezalako irizpide bat erakutsiko lukeelako. Bigarren zuzenketa begien bistakoa da B-ko testua arreta pixka batekin irakurtzen duen edonorentzat, lerro batzuk gorago esaldi berbera agertzen baita:

Nec solum ait: «qui calicem aquae frigidae potum dederit uni ex minimis meis», sed addidit: «tantum in nomine discipuli», et sic adiunxit: «Amen dico vobis, non	Ez diago are « <i>antoxin bat ur otx</i> txikien auetako bati ematen diona» baiñan «ikasle izenean» bakarrean. Au eratziki zun gero: «zinzifnez esan ez du bere saria galduko».	Ez diago are « <i>antoxin bat ur otx</i> txikien auetako bati ematen diona» baiñan «ikasle izenean» bakarrean. Au eratziki zun gero: «zinzifnez esan, ez du bere saria galduko».	Ez diago are « <i>antoxin bat ur otx</i> , txikien auetako bati ematen diona» bakarrik «ikasle izenean» baizik. Au eratziki zun gero: «zin zifnez esan, ez du bere saria galduko». Emaria au da: iragarlea
--	---	--	--

<p>perdet mercedem suam». Datum est suscipere prophetam, suscipere iustum, porrigere <i>calicem aquae frigidae</i> discipulo; fructus autem «in nomine prophetae, in nomine iusti, in nomine discipuli» hoc facere. (XIII, 26, 41).</p>	<p>Emaria au da: iragarlea atostea, zintzoa atostea, zintzoa etxean artzea, ikasleari <i>antoxin bat otx</i> ematea; zitua berriz, «iragarle izenean, zintzo izenean, ikasle izenean» au egitea. (B, 188 or.)</p>	<p>Emaria au da: iragarlea atostea, zintzoa atostea, zintzoa etxean artzea, ikasleari <i>antoxin bat ur otx</i> ematea; zitua berriz, «iragarle izenean, zintzo izenean, ikasle izenean» au egitea.</p>	<p>atostea, zintzoa atostea, zintzoa etxean artzea, ikasleari <i>antoxin bat ur otx</i> ematea; zitua, berriz, «iragarle-izenean, zintzo-izenean, ikasle-izenean» au egitea. (A, 413, 8-14).</p>
---	---	---	--

Lekuonak B-prior-en egindako oharrak Orixeren testura egin zuen lehenengo hurbilketaren zitua dira eta, aldi berean, baita *Aitorkizunen* inguruan ondoren saiatuko zituen lan guztien iragarpena ere: hiztegi oharretan 1956ko liburuaren hiztegitxoaren hasiera dago; testuan egindako zuzenketa eta aldaketa gehienak —puntuazioari dagozkionak barne— A-n ere jaso egingo dira, eta guztiak dira, nolahi den ere, geroago egingo dituenen modukoak: batetik hutsak zuzentzekoak, bestetik grafiaren eta morfologiaren berezitasun zenbait arautzekoak —gehienetan Orixek berak eskaintzen zuen aukeratik irten gabe—; eta, zati handi batean, B-prior-etik A-ra bidean sartuko dituen aldaketa eta gehiketa nagusiagoak ere B-prior-en nabarmendutako pasarteek-eta iragartzen dituzte.

### c. Nabarmendutako pasarteak

Aurreko atalean aztertu ditugun ohar gehienetan m3-k proposamen jakin bat egin du B-ko testuaren hitz jakin baten kontra: batzuetan espresuki, irakurketa berria arkatz gorri-urdinarekin idatziz; beste batzuetan —normalean begien bistakoa zelako— hitzak behar bide zuen zuzenketa zehaztu gabe.<sup>90</sup> Badira ordea, gorago iragarri bezala (135 or.), testu zati handiagoei dagozkien eta, aldi berean, inongo proposamenik egiten ez duten m3-ren marka anitz: orain —B-prior-eko orrietan egindako lanari buruz ari garenez gero— ez zaigu axola nolako aldaketak ekarriko dituzten esaldiak edo pasarteak azpimarratu besterik egiten ez duten marka hauek, baina axola zaigu aurreratzea aldaketak ekarriko dituztela. Hona hemen m3-k B-prior-eko testuan nabarmendutako pasarteak:<sup>91</sup>

Et laudare te vult homo, aliqua portio creaturae tuae? et homo circumferens mortalitatem suam, circumferens testimonium peccati sui [...] (I, 1, 1)

[...] goretsi nai zaitu sorkari duzun **gizontto onek?** ¶ bere obenaren aitorra inguruan deraman onek? (B, 1 or.)

[...] goretsi nai zaitu *Zure* sorkari duzun gizontto onek? *ilkor izanaz gainera* bere obenaren aitorra inguruan deraman onek? (A, 9, 6-8);

<sup>90</sup>Sail berezia osatzen dute, lehen esan bezala, azalpen lexiko baten beharra adierazten duten marka soil gutxiak: ikus, hauen gainean, 136 or. eta 136 or. 3 oh.

<sup>91</sup>Erdiko zutabearen pasarteetan B-ko testua jaso da: beltzez nabarmendu ditugu m3-k azpimarratutako edo nola edo hala markatutako letrak eta hitzak; paragrafoaren ikurra ipini dugun tokietan m3-k goitik behera

Et quomodo invocabo Deum meum, Deum et Dominum meum? (I, 2, 2)	<b>Eta nola dei dezaket ¶</b> ene Jaun eta Jaungoikoa? (B, 1 or.)	Eta nola dei dezaket <i>ene Iauna</i> , ene laun eta laungoikoa? (A, 10, 9-10);
«[...] in quo omnia»? (Ier. 23, 24). Etiam sic, domine, etiam sic [...] (I, 2, 2)	«[...] <b>Zugan baitira oro?</b> » (Jerem. 23, 24). (B, 2 or.)	Zugan baitira oro? (Ierem. 23, 24). <i>Baiki, launa, baiki</i> [...] <i>Zerorrek esana bait-da</i> : « <i>Nik betetzen det zerua eta lurra</i> ». (A, 10, 22-11, 2);
Et susceperunt me consolationes miserationum tuarum, sicut audivi a parentibus carnis meae, ex quo et in qua me formasti in tempore, non enim ego memini. (I, 6, 7)	Eta Zure errukiaren atsegiñek iaso ninduten — <b>gurasoek esana dakit</b> — aldian gatzatu ninduzunetik, ez bainaiz <b>oroitzen</b> . (B, 4 or.)	Eta Zure errukiaren atsegiñek iaso <i>omen</i> -ninduten —gurasoek esana dakit, aldian, <i>batengandik bestearengan</i> gatzatu <i>bait-ninduzu</i> [bait-ninduzun Oz]; <i>aiek-esana</i> , ez bainaiz oroitzen—. (A, 14, 15-18);
Tu etiam mihi dabas nolle amplius, quam dabas, et nutrientibus me dare mihi velle quod eis dabas [...] (I, 6, 7)	[*] Zuk ematen zenidan, are, <b>Zuk emana</b> baiño geiago ez nai izatea, eta azi ninduteneri, <b>Zuk emana neri eman-naia</b> ; (B, 4 or.) <sup>92</sup>	Zuk ematen zenidan, are, Zuk emana baiño geiago <i>nik</i> ez nai izatea, eta azi ninduteneri, Zuk emana <i>berak</i> neri eman-naia; (A, 14, 22-15, 1);
Quod licet probes, cum ferri aequo animo eadem ipsa non possunt, quando in aliquo annosiore deprehenduntur. (I, 7, 11)	Eta ala bear, <b>zârragoren batek</b> begi onez ezin eraman ba'ditu ere. (B, 6 or.) <sup>93</sup>	Eta ala bear, zârragoren <i>batengan</i> begi onez ezin eraman <i>ba'ditugu</i> ere. (A, 18, 17-18);
Et tamen peccabam, domine Deus meus, ordinator et creator rerum omnium naturalium, peccatorum autem tantum ordinator [...] (I, 10, 16)	Alare gaizki egiten nendun, Jauna, — <b>sortuzko gauza guzien ¶ antolatzaile</b> , ez, ordea obenen agintzaile— (B, 9 or.)	Alare gaizki egiten <i>nuan</i> , Iauna, —sortuzko gauza guzien <i>egille ta</i> antolatzaile, ez, ordea obenen agintzaile— (A, 22, 9-11);
[...] noverat eos iam illa mater et terram potius unde postea formarer, quam ipsam iam effigiem committere volebat. (I, 11, 18)	[...] gure <b>amak ezagutzen zitun</b> , eta gero moldatzeko zan lur au ere bai; lur ontan ezarri nai baitzun Zure iduria. ¶ (B, 10 or.)	[...] gure amak ezagutzen zitun, eta <i>naiago izan zuan</i> , gero moldatzeko zan lur au <i>oldar aiei egotzi, lur ontan ezartzeko zan iduria bera baño</i> . (A, 24, 17-20);

egindako marra bat dago. Eskuineko zutabeoketan A-ko testua eman dugu: etzanean jarri ditugu gertatu diren gehiketak edo, oro har, aldaketak. Beti bezala, izartxo bat daraman testua (erdiko zutabea) arkatz urdinak ukitutakoa da (izartxoak takenen artean badago, urdinez eta gorritz dago markatua pasarte hori).

<sup>92</sup>Lehenengo «Zuk emana» arkatz urdinak azpimarratu du.

<sup>93</sup>Honetaz gain, goitik beherako marra batek «batek» hitzaren *e* letra ezabatu du (agian *ek* letrak).

<p>Quid autem mirum, quod in vanitates ita ferebar et a te, Deus meus, ibam foras [...] (I, 18, 28)</p>	<p>Arrigarri al da, Jauna, <b>ni aizekeri oek</b> eramanik eta Zugandik alde-egiñik [...] (B, 15 or.)</p>	<p>Arrigarri al da, launa, ni aizekeri oek <i>eramatea</i> eta Zugandik <i>alde-egitera</i> [alde-egitea Oz], [...] (A, 32, 15-16);</p>
<p>[...] et huius harenae palaestra erat illa [...] (I, 19, 30)</p>	<p>[...] ta <b>olako iarduntokia</b> zan ua; (B, 16 or.)</p>	<p>[...] ta olako iarduntokia <i>nintzan</i> ua; (A, 34, 8);</p>
<p>At ista omnia Dei mei dona sunt, non mihi ego dedi haec: et bona sunt et haec omnia ego. Bonus ergo est [...] (I, 20, 31)</p>	<p>Oek oro <b>nere Jainkoak emanak ditut</b>; ez dira on nere buruari eman nitiolako, ta oriek oro ¶ ni naiz. Beraz, [...] (B, 17 or.)</p>	<p>Oek oro nere Iainkoak emanak ditut; ez <i>nik nere buruari</i>; ta oriek <i>oro onak dira</i>, eta oro ni naiz. Beraz, [...] (A, 35, 24-36, 2);</p>
<p>[...] praedicta est tamen causa: «ne per otium —inquit— torpesceret manus aut animus». Quare id quoque? Cur ita? Ut scilicet illa exercitatione scelerum capta urbe honores, imperia, divitias adsequeretur et careret metu legum et difficultate rerum propter inopiam rei familiaris et conscientiam scelerum. Nec ipse igitur [...] (II, 5, 11)</p>	<p>[...] <b>ark ere emana</b> zun beure arrazoia: [«]Ori ere, zergatik? Zertako? Gaiztakeri aiek egiñez Erromaz iabeturik, izena, agintea, ondasunak ukaiteko; lege-bildurra <b>egozteko</b>; irabaziaren nekeagatik, diru eskasiz, gaiztakeria ezaguteagatik. Beraz [...] (B, 23 or.)</p>	<p>[...] ark ere emana zun beure arrazoia: «<i>Geldi egonez, eskuak eta biotza baldartu etzitezzen</i>». Ori ere, zergatik? Zertako? Gaiztakeri aiek egiñez Erromaz iabeturik, izena, agintea, ondasunak ukaiteko; <i>eta lege-bildurra ta diru eskasiz, eta gaiztakeri ezagunezko bizibidearen zailtasuna</i> egozteko. Beraz [...] (A, 45, 17-23);</p>
<p>Solus non facerem furtum illud, in quo me non libebat id quod furabar, sed quia furabar; quod me solum facere prorsus non liberet, nec facerem. O nimis inimica amicitia [...] (II, 9, 17)</p>	<p>Ez nendun lapurreta ua bakarrik egiñen, ez bainun atsegin lapurtu artaz, baiña <b>lapurtzen nulako</b>. ¶ Egitea neri bakarrari atsegiñ ematen ez zidanik, ez nezaken iñola egin. Adizkidego [...] (B, 26 or.)</p>	<p>Ez <i>nuan</i> lapurreta ua bakarrik egiñen, ez bainun atsegin lapurtu artaz, baiña lapurtzen nulako; <i>eta ori neronek bakarrik egitea, ez nuan atsegingo, eta ez egingo ere iñola</i>. Adizkidego [...] (A, 51, 5-9);</p>
<p>[...] in quibus vagatus sum praefidenti collo [...] (III, 3, 5)</p>	<p><b>Aiekin nindabillan</b>, burua <b>makur</b>, [...] (B, 29 or.)</p>	<p>Aiekin nindabillan, burua <i>zut</i>, [...] (A, 57, 2-3);</p>
<p>[...] aut in una domo videat aliquid tractari manibus a quoquam servo, quod facere non sinatur qui pocula ministrat, aut aliquid post praesepia fieri [...] (III, 7, 13)</p>	<p><b>Edota etxeren batean morroi bat ¶</b> au egiten ikusi, ta mai-mutillari ¶ uzten ez <b>diotelako</b>, edo ukullu-bazterrean [...] (B, 33 or.)</p>	<p>Edota etxeren batean morroi bat <i>zerbait eskuz ukitzen</i> ikusi, ta mai-mutillari <i>olakorik</i> uzten ez diotelako, edo ukullu-bazterrean [...] (A, 64, 24-26);</p>

Laudet te ex illis anima mea, «Deus, creator omnium» [...] (IV, 10, 15)	<b>Goretsi zaitza, ¶</b> Iauna, nere gogoak orietan [...] (B, 46 or.)	Goretsi zaitza, « <i>dan guztiaren Egille Iauna</i> », nere gogoak orietan [...] (A, 87, 21-22);
Et quid mihi proderat, quod annos natus ferme viginti, cum in manus meas venissent aristotelica quaedam, quas appellant decem categorias [...], legi eas solus et intellexi? (IV, 16, 28)	Zer balio zidan ogei urtetsuz Aristotel'en <b>izan maillak</b> eskuetan <b>ukaiteak, ¶</b> Zu aietan arki zitekkelakoan? (B, 51 or.)	Zer balio zidan ogei urtetsuz Aristotel'en 'izan-maillak' eskuetan ukaiteak, <i>eta irakurri ta aditzeak?</i> (A, 97, 11-13);
[...] cuius totus mundus divitiarum est et quasi nihil habens omnia possidet [...] (V, 4, 7)	[...] <b>mundu aberats guziarekin, eta ezer ukan</b> gabe guzia baitauka [...] (B, 55 or.)	[...] mundu aberats <i>guziaren jabe baita</i> , eta <i>ezer-ukan</i> gabe guzia baitauka [...] (A, 106, 16-17);
[...] dubitare stultum est, quin utique melior sit quam [...] neglegens tui, qui «omnia in mensura et numero et pondere disposuisti». (V, 4, 7)	[*] eta Zu <b>aldera utzi dagina baiño doatsugo</b> , naski, alakoa —zoro litzake otezkotan egotea ere— aztaz eta neurritz <b>¶</b> baitituzu oro ezarri. (B, 55 or.) <sup>94</sup>	eta Zu aldera utzi <i>zagizana</i> baiño <i>doatsugo</i> , naski, alakoa, —zoro litzake otezkotan egotea ere—, aztaz eta neurritz <i>Zuk</i> baitituzu oro ezarri. (A, 106, 19-106, 22);
[...] nullum diem praetermittentis oblationem ad altare tuum, bis die, mane et vespere, ad ecclesiam tuam sine ulla intermissione venientis, non ad vanas fabulas et aniles loquacitates, sed ut te audiret in tuis sermonibus [...] (V, 9, 17)	*[...] egunoroko Meza etzun <b>utsegin gabe</b> zetorren <b>Elizara</b> , ez ipui zoro edo atxoerri berriketa billa, baizik eta itzaldietan Zu entzutera [...] (B, 59 or.)	[...] egunoroko Meza etzun <i>utsegiten</i> ; <i>egunean bi aldiz, gau ta arratsalde</i> , zetorren Elizara, ez ipui zoro edo atxoerri berriketa billa, baizik eta itzaldietan Zu entzutera [...] (A, 116, 1-4);
[...] ex more potentiae suae [...] (VI, 10, 16)	Bere <b>¶</b> ain aundiz baliatuki [...] (B, 70 or.)	Bere ein aundiz baliatuki [...] (A, 142, 18);
Accipe confessiones meas et gratiarum actiones, Deus meus, de rebus innumerabilibus etiam in silentio. (IX, 8, 17)	Ar etzazu nere aitortzapen eta esker on, ene Iainko, ixildurik ere, ezin konta-ala gauzetaz. <b>Oriek ixil utxirik ere, ar etzazu, nere Iainko, nere aitortzapen eta esker on.</b> (B, 106 or.) <sup>95</sup>	Ar etzazu nere aitortzapen eta esker on, ene Iainko, ixildurik ere, ezin konta-ala gauzetaz. Oriek ixil <i>utxirik</i> ere, ar etzazu, nere Iainko, nere aitortzapen eta esker on. (A, 225, 19-22);

<sup>94</sup> «aldera» eta «utzi» hitzak urdinez daude azpimarratuta; gainerakoak gorritz.

<sup>95</sup> Oriek bi bider itzuli du esaldi berbera —puntu honetan lanari utzi eta, denboraldi baten ondoren, berriz ekin ziolako seinale—: baina badirudi m3-k ez duela ikusi hutsa non dagoen zeren, bigarren perpausa nabarmendu badu ere —seguruenik ez duelako horren ordezkorik aurkitu jatorrizko latinean—, ez baitu azkenean testua ukitu



«Avertat Deus hoc aut illud!». (X, 8, 14)

[...] quibus me perduxisti praedicare verbum, et sacramentum tuum dispensare populo tuo? (XI, 2, 2)

Nec manu tenebas aliquid, unde faceres caelum et terram; nam unde tibi hoc, quod tu non feceras, unde aliquid faceres? (XI, 5, 7)

Si ergo verbis sonantibus et praetereuntibus dixisti, ut fieret caelum et terra, atque ita fecisti caelum et terram, erat iam creatura corporalis ante caelum et terram, cuius motibus temporalibus temporaliter vox illa percurreret. Nullum autem corpus ante caelum et terram, aut si erat, id certe sine transitoria voce feceras, unde transitoriam vocem faceres, qua diceres ut fieret caelum et terra. Quidquid enim illud esset, unde talis vox fieret, nisi abs te factum esset, omnino non esset. Ut ergo fieret corpus, unde ista verba fierent, quo verbo a te dictum est? (XI, 6, 8)

Neque enim dicimus simpla et dupla et tripla et aequalia [...] (XI, 21, 27)

Item dixisti mihi voce forti in aurem interiorem, quod nec illa creatura tibi coaeterna est, cuius voluptas tu solus es teque perseverantissima castitate

«Ez beza ¶ Iainkoak au ez ori!». (B, 119 or.)

\*[...] orien bitartez **ekarri bainauzu** Zure itza ta ixilgordea erriari eragitera. (B, 140 or.)

\*Eskuan ere etzendukan ezer, **zeru-lurrak artatik egiteko**. **Nondik ¶** Zuri au, ¶ zerbait egiteko Zuk ez egin izatea? (B, 142 or.)<sup>96</sup>

\*Beraz, mintzo iragankorrez esan ba'zenun zeru-lurrak egin zitezela, ta ola zeru-lurrak egin, zeru-lur oriek baiño len ba-zan sorkari **mukulu** bat, aren igialdietatik mintzo ua aldizka iragan zedin. Baiña zeru-lurrak baiño len ez zan **mukulurik**; ezperen aldi gabeko mintzoz egin zenitun, aldiko mintzoa sortaraziz, zeru-lurrak zitezela esateko. Dana dala, mintzo aren sortzea Zuk egiña ez ba'zan ez zan ere. Beraz, itz auek mamitzeko **mukulu** gerta zedilla zer itzez esan zenun? (B, 143 or.)<sup>97</sup>

Ez baitugu esaten **bakun, bikun, irukun, berdin**, eta olakorik [...] (B, 149 or.)

\*Esan ere didazu ozenki ta belarrira, **Zu** atsegin zakion sorkari ua ere etzaizula betikide, ta garbitasun txit iraunkorreen Zu iastatuz,

«Ez beza Iainkoak au ez ori!». (A, 255, 2-3);

[...] orien bitartez ekarri bainauzu erriari Zure itza erakustera ta Zure Sakramentuak ematera. (A, 304, 5-7);

Eskuan ere etzendukan ezer, zeru-lurrak artatik egiteko. Nondik *zendukean* ezer *Zuk egin gabarik*, *Zuk andik* zerbait egiteko? (A, 309, 3-6);

Beraz, mintzo iragankorrez esan ba'zenun zeru-lurrak egin zitezela, ta ola zeru-lurrak egin, zeru-lur oriek baiño len ba-zan sorkari *gorputzki* bat, aren igialdietatik mintzo ua aldizka iragan zedin. Baiña zeru-lurrak baiño len ez zan *gorputzik*; ezperen aldi gabeko mintzoz egin zenitun, aldiko mintzoa sortaraziz, zeru-lurrak zitezela esateko. Dana dala, mintzo aren sortzea Zuk egiña ez ba'zan, ez zan ere. Beraz, itz auek mamitzeko *gorputza* gerta zedilla zer itzez esan zenun? (A, 310, 2-11);

Ez baitugu esaten bakun, bikun, irukun, berdin, eta olakorik [...] (A, 325, 13-14);

Esan ere didazu ozenki ta *barne-belarrira*, **Zu** atsegin zakion sorkari ua ere etzaizula betikide, ta garbitasun txit iraunkorreen Zu iastatuz, iñon eta iñoiz ez dula

(«utxirik B : utzirik A» aldaketaz landa); ez da harritzekoa, san Agustinen liburu honetan askotan izaten baitira era honetako errepikapenak.

<sup>96</sup>Galdera marka m3-k sartua da: ikus 151 or.

<sup>97</sup>Berdin hemen: ikus 152 or.

hauriens, mutabilitatem suam  
nusquam et nunquam exserit  
et te sibi semper praesente, ad  
quem toto affectu se tenet [...]  
(XII, 11, 12)

Amor illuc attollit nos et  
Spiritus tuus bonus «exaltat  
humilitatem» nostram «de  
portis mortis». (XIII, 9, 10)

[...] oriatur de «terra veritas»,  
et «iustitia de caelo» respiciat  
[...] (XIII, 18, 22)

[...] sic, sic accipietur, sic  
invenietur, sic aperietur.  
(XIII, 38, 53)

iñon eta iñoiz ez dula  
aldagaitzik, eta **Zu** beti  
berton zaitula, biotz osoz  
dago [...] (B, 160 or.)

Maiteak ara garamatzi,  
ta Zure Arnas onak gure  
xapaltasuna ¶ **erilkitzen**  
erioaren atekatik. (B, 176  
or.)

[\*] [...] «sortu bedi lurretik  
egia ta zuzentasunak ¶  
zerutik» [...] (B, 181 or.)

**Onela** ¶ **dugu** arkituko  
[artuko m3], arkituko,  
onela zaigu idekiko. (B,  
193 or.)<sup>98</sup>

aldagaitzik, eta Zu beti berton  
zaitula, biotz osoz dago [...] (A, 348,  
14-18);

Maiteak ara garamatzi, ta Zure  
Arnas onak «gure xapaltasuna  
*eraikitzen*du erioaren atekatik». (A,  
385, 5-7);

[...] «sortu bedi lurretik egia ta  
zuzentasunak *begira beza* zerutik»  
[...] (A, 395, 13-14);

Onela, *onela* dugu *artuko*, *onela*  
*dugu* arkituko, onela zaigu idekiko.  
(A, 423, 21-23).

Hauetaz gain badira marka orokorrak. Orriaren eskuineko ertzean egindako goitik beherako marra gorri batek paragrafo oso hauek hartu ditu: IV, 16, 28 (B, 51 or.); XI, 2, 2, XI, 2, 3 eta XI, 2, 4 (B, 140-141 or.); XI, 4, 6 eta XI, 5, 7 (B, 142 or.); XI, 14, 17 (B, 146 or.); XII, 1, 1 (B, 156 or.); eta XIII, 1, 1 (B, 173 or.). Baina paragrafo hauen A-ko testuan ez da horratik aldaketa berezirik nabaritzen. XIII, 3, 4 paragrafoaren azken lerroen ondoan (B, 174 or. [380, 5-9]) galdera marka bat ipini du eskuineko ertzean, baina hemen ere ez da aldaketa ikusgarririk gertatu A-ko testura bidean. V, 9, 17 paragrafoan (B, 59 or.) ohar bat dago aipatu paragrafoaren eta hurrengoaren artean —orriaren barrenean egon behar—: «[1] ukar = limosna»; arkatz gorriak ohar osoa azpimarratu du. Azkenik, arkatz urdinak X, 36, 58 paragrafoaren hasierako eta akaberako hitzak («Ez al da ori [...]» eta «[...] nintzanean») azpimarratu ditu (B, 135 or.): B-ko testuan zati honen bi itzulpen dira, eta arkatz urdinak nabarmendu duena ez da A-n jaso (ikus, honetaz, 37-39, 199 eta 210-211 or.).

Begien bistan dago marka hauek orain arte zerrendatu ditugun m3-ren ehunka zuzenketa eta gehiketak ez bezalakoak direla: orain ez baikara kopiaketan sortu diren hutsak zuzendu nahi dituzten *coniecturae* batzuen aurrean edo grafiaren eta morfologiaren auzizka batzuk nola edo hala bateratu nahi dituzten ukituei begira edo Orixeren hiztegia argitu nahi duten azalpenak aztertzen, *ezpada testuaren hizkuntza argiago egin eta itzulpena bera hobetu nahi duten proposamenen aitzinean*; m3-k egindako *coniecturae* zehatz haien artean ere baziren horrelako batzuk (ikus 157-159 or.), baina salbuespenak ziren: oraingo hauek lehen igarri bakarrik egin

<sup>98</sup>Esaldi honetan, gorago ikusi bezala (157 or.), m3-k *coniectura* zehatz bat egin du (B-ko lehenengo «arkituko» horren ordeaz «artuko» idatzi baitu) baina, honetaz gain, hemen jasotako markak ere egin egin ditu: oso kasu adierazgarria da, proposamen zehatza begien bistan zegoen huts bati dagokiolako, eta azpimarratutakoak, berriz, eredura jotzea eskatzen zuen.

zitekeen jarrera hartan egindako pauso bat aurrera dira, eta jarrera hori areagotu egingo da B-prior-etik A-ra bidean sartuko diren aldaketetan. Azpimarratu hauek, beraz, m3-ren ohar guztiak bezala, Lekuonak bere buruarentzat egindako gogoragarriak dira, hau da, aldatu beharreko pasarteak nabarmendu besterik ez dute egiten; ikusi ahal izan dugu ja pasarte hauek ez zirela alferrik markatu, gehien-gehienak aldatuta agertzen baitira A-ko testuan. Baina gehiago ere zehaztu dezakegu: aldaketa hauetako gehienek Lekuonak *Aitorkizunen* testuan egindako lanaren kapitulu esanguratsu bat osatzen dute edo, hobeto esateko, B-prior-eko orrietan egindako oharren eta 1956ko liburuaren proben artean kokatu behar den eta ondo dokumentatuta dugun kapitulu baten zatia dira. Aipatu dugu gorago «S. Augustin'en Aitorkuntzetan utsuneak» izeneko dokumentua: beherago frogatuko dugu (188-213 or.) bi orrialdeko dokumentu hau Lekuonak egina dela, B-prior zuzentzen hasi ondoren ondu zuela eta B-prior-ekin batera bidali zuela inprimategira bertan proposatzen zituen aldaketak B-prior-eko testuan txerta zitezten; Lekuonak dokumentu honetan zerrendatu zituen zuzenketak, batetik, nekez jaso zitezkeen B-prior-eko orrietan —arrazoi praktiko hutsengatik, hau da, zaila zelako, gehienetan behintzat, B-prior-eko ertzetan edo lerroartean sartzea— eta, bestetik, beste era batekoak ziren: oraingo hauen helburu nagusia ez zen ja *Aitorkizunen* transmisioan gertatutako okerrak zuzentzea, ezpada Orixeren sintaxia argitzea eta itzulpena hobetzea. Bada m3-k B-prior-en nabarmendu dituen —eta atal honetan zerrendatu ditugun— pasarte hauetako gehien-gehienak «Utsuneak» izeneko paperetan jaso dira eta, hemen bai, proposamen zehatz bana eman die Lekuonak. Are gehiago: ikusiko dugu Lekuona «Utsuneak» delakoa hasi zela antolatzen m3-k B-prior-en egindako marka hauen bidez nabarmendutako pasarteak aldatzeko, aipatu dokumentuak dituen bi orrietako lehenengoa B-prior-en azpimarratutako pasarteek bakarrik baitago osatua, inongo salbuespenik gabe;<sup>99</sup> eta bide honetatik sartu ziren A-ko testuan, gorago ikusi ahal izan dugun bezala («Utsuneak» dokumentuan jaso ez ziren pasarteei buruz ikus 259 or.). Hortaz, esanahiaren aldetik argitu beharreko hitzak markatzerakoan ja 1956ko liburuaren akaberan ipiniko zuen «Iztegitxo» harekin pentsatzen zegoen bezala, aztergai ditugun pasarteak azpimarratu zituenean Lekuonak buruan zituen ja Orixeren testuari egin gogo zizkion aldaketa sakonago hauek.

## 2. m4

Deitura honekin sailkatu ditugun oharrak dira lapitzez eta B-prior-en bakarrik —eta ez, alegia, B-alter-en— eskribitu direnak (ikus 96-97 or.): daitekeena da esku batek baino gehiagok eginak izatea baina, batetik, hau pentsatzeko izan ditzakegun arrazoiak bizpahiru

<sup>99</sup>Berriz, atal honetan aztertu ditugun pasarte guztiak jaso dira esandako dokumentuan, ondorengo salbuespenak izan ezik: B-ko 119 eta 149 orrietakoak, non ez baita, m3-k nabarmendu arren, inongo aldaketarik gertatu; eta B-ko 106, 160 eta 176 orrietakoak, hauetan guztietan ez baita, gainerakoetan bezala, itzulpena bera aldatu edo osatu eta, hortaz, ez zen dokumentu horretan jaso beharrik: 106. orrian huts mekaniko bat aldatu da («utzirik B : utzirik A»), 160.ean probetan ere erraz egin zitekeen aldaketa txiki bat egin da («belarrira B : barne-belarrira A»), eta 176.ean ere ustez behintzat huts mekanikoa den bat zuzendu da («erilkitzen B : eraikitzen A»).

kasutan bakarrik dira kontuan hartzeko modukoak eta, bestetik, ohar hauetako bakoitza ustez dagokion eskuari atxikita azalduz gero arretu egingo litzateke, agidanean, auziaren azalpena; erabili dugun irizpide seguruak, berriz, ez du galarazten aipatuko ditugun esku honen edo haren aldeko argudioak onartzea edo gaitzestea eta, nolana ere, kontuan izatea. Hona hemen:

	B	m4	A
3 or. = I, 4, 4 [12, 9]	zagar	zahar	zahar
13 or. [oin-oharra]	capa	<u>capa</u>	
15 or. = I, 18, 28 [32, 23]	osiñ   osiñ	osiñ	osiñ
24 or. [oin-oharra]	monstruo	<u>monstruo</u>	
54 or. = V, 3, 5 [105, 6]	tz	ta	ta
60 or. = V, 11, 21 [119, 22]	ets	eta	eta
67 or. = VI, 6, 9 [134, 15]	aueknik	auek nik	auek nik
86 or. = VII, 19, iz. [178, 3]	brzala	bezala	bezala
86 or. = VII, 19, 25 [178, 23]	Alipil	Alipik	Alipik
94 or. = VIII, 6, 15 [196, 24]	n#teken	naiteken	naiteke[k] <sup>100</sup>
121 or. = X, 12, 19 [259, 17]	ditumak	ditunak	ditunak
132 or. = X, 34, 51 [286, 12]	irakatzen	?	irrikatzen

Hauekin batera sailkatu behar da B-prior-eko 2. orrian —eta, jakina, lapitzez idatzita— dagoen gurutze bat: lehenengo liburuko bigarren eta hirugarren kapituluaren arteko zurian dago, hau da, pasarte luze samar bat falta den tokian hain justu, segituan ikusiko ahal dugun bezala.<sup>101</sup>

Egiantzekoa da hauetako batzuk B-ren kopiagilearenak izatea: hau da, m1bis-enak baina, oraingo kasu hauetan, ahaztu egingo zitzaien B-alter-en kopiatzea (ikus 103-104 or.). Izan daitezke horrelakoak «osiñ | osiñ B : osiñ m4», «tz B : ta m4», «ets B : eta m4» eta «aueknik B : auek nik m4»; baina izan daitezke baita m5-enak ere, hots, Lekuonarenak berarenak.<sup>102</sup> Orobat esan genezake «brzala B : bezala m4» eta «Alipil B : Alipik m4» zuzenketei buruz: baina hauek, aurrekoak ez bezala —oso oker ez banago—, Orixerenak ere izan litezke. Eta Orixerena delakoan nago (irizpide paleografikoarengatik eta hitz horretan berorretan tinta beltzak egin duen beste zuzenketarengatik) «n#teken B : naiteken m4».

Baina esango nuke gauzak askoz argiago daudela gehien axola zaizkigun oharretan. Egiantzekoa baino zerbait gehiago da 2. orriko gurutzea Lekuonarena izatea: ikusi dugu

<sup>100</sup>Daitেকেena da arkatzez egindakoaren zatiren bat tinta beltzez ere markatua egotea; hitzaren akaberako aldaketa m2-k egin du: ikus 116 or. eta bertako 52 oh.

<sup>101</sup>B-k falta duen pasartea zein den eta nola gehitu behar izan zuen Lekuonak 174 eta 194 or. ikus daitezke; zuzenketa horren historiaurreari buruz ikus 49-50 or., III erans. 1 zenb. eta, hemen bertan, 180-181 or.

<sup>102</sup>Lehenengo bieci dagokienez, ez dugu ez m1-ek ez m1bis-ek horrela —hots, makinaz jotako testuaren gainean eta modu horretan— zuzendutako a letraren beste adibiderik, baina badugu bat (hau ere Aizpuruak berak egina, seguruenik) Erregelaren lehenengo behatizkribuaren 32 orrian: «arrera». Alabaina, eta esan bezala, m5-ek ere berdinduzendutako beste a batzuk (ikus, beherago, 183 or. zerrendako «zdirazi B : adierazi m5» eta «tz B : ta m5»), eta hauek bezalakoak aurkitu ahal ditugu —m5-en zuzenketa hauei buruz hitz egitean gogorazi dugun bezala: 183-184 or.— baita Lekuonaren beste paper batzuetan ere.

gorago (49-50 or.) *Aitorkizunen* lehenengo idatzaldian itzulita agertzen zela mintzagai dugun pasarte hau baina, BAC-eko 1946ko edizioak —huts soil batengatik— ez dakarrenez, kendu egin zuela Orixek bigarrena ontzerakoan, pentsatuz BAC-ekoa zegoela zuzen eta lehenengo idatzaldiaren zati hura itzultzeko erabili zuena, berriz, oker; badakigu, bestalde, Lekuonak nabarmendu egin zituela B-prior-en hutsunearen ondoko hitzak (174 or.), eta «Utsuneak» izeneko dokumentuan, ezinbestean, itzulpen berri bat egin behar izan zuela aipatu hutsunea betetzearren (ikus 194 or. 3 zenb. eta, Lekuonak erabili zuen BAC-eko 1955eko edizioari buruz, 143-144 or.). Hortaz, hau da, gurutzea Lekuonak egina bada —eta hala dirudi, kopiagileari ere nekez leporatu baitakioke era honetako oharpen bat—, ondorioztatu behar genuke —bai baitzaigu axola momentu honetan, segituan ikusiko ahal dugun bezala— Lekuonak ere, agian bere lanaren hasieran bakarrik, lapitza erabili zuela.

Era berean, nago 3. orriko «zagar B : zahar m4» zuzenketarako ere Lekuonaren egiletasunaren aldeko hipotesia dela, egiantzekoena ez ezik aldeztu daitekeen bakarra. Lehendabizi, badirudi ezin dela m1bis-ena izan: B-prior-en idatzita dagoena *h* letra baino ez da (makina jotako «zagar» hitzaren *g*-aren gainean dagoen zurian, hau da, orriaren goiko ertzean, «zagar» bere orriaren lehenengo lerroan baitago), baina m1bis-en idazkerari erraz antzematen zaio —besterik dira, noski, orain arte aztertu behar izan ditugun markak, marrak eta antzerakoak— eta esango nuke letra bakar hori nahikoa dela m1bis-ena ez dela pentsatzeko; oharraren nolakotasunak berak ere, agian garbiago, m1bis-en egiletasunaren kontra hitz egiten du, gorago aipatu ditugun arrazoiengatik (104 or. eta, oro har, 98-105 or.). Bigarrenik, ez da batere egiantzekoa Orixerena izatea: ez dut uste irizpide paleografikoak, hemen —m1bis-en kasuan ez bezala—, ezertan lagundu dezakeenik, baina badira bestelako argudioak hipotesi hau bereziki sinesgaitz egiten dutenak. Ohar hau Orixerena izatera, bi helbururekin bakarrik egin zezakeen: edo «zagar» hitza azaltzeko —nori ordea?— edo *Aitorkizunetako* «zagar» guztiak «zahar» bihur zitzaten inprimategian. Bata zein bestea ulertezinak dira, liburu honen historiari buruz dakiguna dakigularik. Batetik, Orixek ez du inoiz inongo beharrik sentitu erabili dituen aldaera morfologikoak edo lexikoak azaltzeko (ikus, esaterako, «nendun», «diago», «otsegin», etab.), eta kasu honetan sentitu izan balu pentsatzekoa da azaldu nahi izan zituen hitzak azaldu zituen bezala azalduko zukeela hau ere, hots, orriaren oinean ohar bat ipiniz (eta inoiz ez zen berandu izango horretarako, behin baino gehiagotan ipini —edo ipiniarazi— baitzituena era honetako oharrak eskuz, hau da, makinazko testua erabat bukatuta zegoenean: ikus 104-105 or.). Hau bezain aldrebesa da ustezko bigarren helburu hori: alde bat uzten badugu Orixek ez duela inoiz, *Aitorkizunen* testu luzean zehar, horrelako aldaketa orokor eta sistematikorik egin nahi izan, ez da erraz ulertzen zergatik ezabatu nahiko zituen, momentu hartan hain justu, «zagar» formak eta, batik batik, zergatik ordezkatu nahiko zituen «zahar» formarekin; zeren eta «zagar» forma baita, hain zuzen ere, azken idatzaldi honen garaian aldeztu eta zabaldu nahi izan zuena, besteak beste «zahar» formaren kaltetan.<sup>103</sup> Eta, hirugarrenik, ditugun datuetatik abiatuta

<sup>103</sup>B-ko testua ontzerakoan «zahar» aldaera erabat baztertu bazuen ere, C-koan maiz samar erabili zuen Orixek (5 aldiz, guztiak IX. liburuan): izan ere, B-n ez dago «zahar» bat ere, ezpada «zâr», «zagar» eta «zâkar»; eta m2-k hitz honen inguruan egin zituen aldaketak ere ildo honetatik joan ziren (3 bider «zar B : zâr m2» eta 1 «zâkar B : zagar m2»). Berdin jokatu zuen —kontuan hartzeko modukoa da— aldaera berberak onartzen zituen *zuhur* hitzarekin: C-n 11 «zuhur» baldin bazeuden, B-n ez da hauetako bat ere geldituko (aldiz, 61 «zugur» izango dira bertan).

egin daitezkeen argudio guztiek Lekuonaren egiletasunaren alde hitz egiten dute: hemen ere irizpide paleografikoak ez digu mesede handirik egingo, baina lasai esan daiteke kontra behintzat ez dugula —nabarmenki zegoen bezala m1bis-en hipotesiaren kontra— eta, irizpide materialari dagokionez, ikusi dugu arestian arkatza ere erabili egin zuela Lekuonak (180-181 or.). Izan ere, bai bere buruarentzako azalpen huts gisa bai Orixeren testuan zerbait aldatzeko asmo lausotu samar baten gogoragarri gisa oso ondo uler daiteke ohar hau Lekuonarengan: askotan ikusi dugu, B-prior-eko orrietan zehar, hau bezalako oharrak egiten bere buruarentzat; eta «zagar» formaren aurka eta *h*-dun aldaera baten alde agertu izana bat dator zeharoan Lekuonak *Aitorkizunetan* erakutsitako jarrerarekin. Izan ere —ikus, honetaz, V erans.—, B-prior-en bertan «zâkar» bat nabarmendu du (gero «zâr» bihurtzeko), B-tik A-ra bidean hiru «zagar» ordezkatu ditu «zâr» eta «zaar» formekin eta, oro har, ez ohiko arreta bat jarri du Orixek darabiltzan *zahar* hitzaren aldaera xelebreenak bateratzen (bi «zar», esaterako, «zâr» egin ditu); eta, bestalde, *h*-dun grafiak ez dira arrotzak, inondik ere, Lekuonaren *usus*-ean: B-tik A-ra bidean «antzi B : ahantzi A» aldaketa egin du, «har» hitza sartu du *ex novo* eta, batez ere, zazpi aldiz ordezkatu du B-ko «zugar» bat «zuhur» aldaerarekin (eta ez dut uste azpimarratu beharra dagoenik zeinen hurbil diren elkarrengandik «zugar > zuhur» eta «zagar > zahar», aldaketak berak ez ezik aldatzen diren aldaeren ezaugarriak).<sup>104</sup> Azkenik, erraz ulertzen da Lekuonak hemengo «zagar» hau azaltzeko «zahar» aldaera aukeratu izana: hauxe delako «zagar» aldaeratik hurbilen dagoena, hots, ondoena esplikatzeko duena, «zâr» batek —esaterako— egingo lukeen baino hobeto alegia. (Besterik da hemen mintzagai dugun ohar hau *Aitorkizunen* testuan egin zuen lanaren hasiera ala bukaera aldean egin zuen Lekuonak: ikus V erans. 432 or.).

132. orriko «irakutzen» hitzaren gain-gainean marraztu den galdera-markari dagokionez ere ez dirudi m1bis-ena izan ahal denik: agian baita arrazoi paleografikoengatik ere, baina batik bat horrelako jarrera bat pentsaezina delako m1bis-engan. Hemen ere Lekuonaren aldeko hipotesia da egiantzekoena: horrela markatutako «irakutzen» hitza, geroago eta B-prior-en beste arrastorik utzi gabe, Lekuonak «irrikatzen» bezala aldatuko du, horrelaxe agertzen baita A-n (ikus 257 or.); ez da dudarik, bestalde, Lekuonaren *coniectura* hau zuzena dela:

Insinuat autem se ita  
vehementer, ut, si repente  
subtrahatur, cum desiderio  
requiratur; et si diu absit,  
contristat animum. (X, 34, 51)

Ain barna sartzen, zaigu ordea,  
betbetan kentzen ba digute,  
biziki *irakutzen* baitugu, ta  
luzaro etenean goibeltzen gaitu.  
(B, 132 or.)

Ain barna sartzen zaigu, ordea,  
betbetan kentzen ba'digute,  
biziki *irrikatzen* baitugu, ta  
luzaro goibeltzen gaitu. (A,  
286, 11-13).

Ez dezagun ahantz *r* 'gangardunaren' eremuan gaudela: beraz, hutsa letra bakar batean gertatuko zen, hots, *i* bat *a* bezala irakurriko zuen B-ren kopiagileak. Gainera, *irrika* hitza —izena zein aditza— askotan erabiltzen du Orixek: hogeï bider, zehazki, *Aitorkizunetan*.

Hortaz, ezin da argiagoa izan Orixek B ontzerakoan izan zuen irizpidea. Baina, guzti honetarako, ikus V erans.

<sup>104</sup> *Egan*-eko testuan ere (ikus 299-302 or.) «âl B : ahal E» eta «[zu]gurtze B : zuhurtze E» aldaketak geratu dira eta, bestalde, Lekuonaren beraren garai honetako izkribuetan ere maiz samar aurkitu ahal dira *h*-dun aldaerak eta baita, hauen artean, «zahar» ere. Ikus, honetaz, V erans., zehazki 428 or. eta 425 or. 8 oh.

## 3. m5 eta m5bis

Gorago iragarri bezala, badira B-prior-en tinta urdinez egindako hamabi zuzenketa eta gehiketa; irizpide materialaren arabera —eta guztiak tinta urdinez egon arren— bi multzotan sailkatu behar dira, bi lanabes desberdinek eginak baitira: batak 4. orriko oharra eskribitu du («nendun: nuen») eta besteak gainerako guztiak, ez baitut oinarri finkorik ikusten hauetan lanabes bat baino gehiago bereizteko; aipatu ohar bakarra idatzi duen eskuari m5bis esango diogu eta besteen egileari m5. Segituan ikusiko dugu bai irizpide materialak bai paleografikoak —baina baita bestelako irizpide batzuek ere— inongo zalantzarik gabe segurtatzen digutela m5 izendatu dugun eskua, berriz ere, Lekuonarena dela; m5bis-ek egindako oharraren egiletasuna hain begien bistakoa ez bada ere —eta hemendik, agian gehiegizko zuhurtasun batekin berriz ere, bi izendapenen arrazoia—, nago hau ere Lekuonarena baino ezin dela izan. Honetaz gain, ikusiko ahal dugu m5-en oharrak m3-k B-prior-en gainean egin zuen lan gehiena egin ondoren baina «Utsuneak» izeneko dokumentua ondu baino lehenago eskribitutakoak direla.

Ikus dezagun, ezer baino lehenago, zein diren m5-ek eta m5bis-ek (izartxoia duena) egindako 12 ohar horiek:

	B	m5, m5bis	A
*4 or. = I, 6, 8 [15, 10]	nendun	nuen <sup>105</sup>	nun
41 or. = IV, 3, 5 [79, 1]	zdierazi	adierazi	adierazi
41 or. = IV, 3, 5 [79, 5]	zetzakela-ta, aiek	z.-t., bañan a.	zetzakela-ta, a.
47 or. = IV, 11, 17 [89, 10]	tz	ta	ta
59 or. = V, 10, 19 [117, 23]	etxenaguziari	etxenagusiari	etxenagusiari
71 or. = VI, 11, 18 [144, 21]	bena	bana	bana
85 or. = VII, 17, 23 [176, 16]	nagan	nigan	nigan
93 or. = VIII, 6, 13 [194, 20]	opro	opor <sup>106</sup>	opor
110 or. = IX, 11, 27 [233, 19]	skarrak	sukarrak	sukarrak
128 or. = X, 27, 38 [276, 16]	naiazu pakesu	nauzu ta pakesu	nauzu ta pakea
175 or. = XIII, 6, 7 [382, 5]	amarengatik	amarengatik <sup>107</sup>	amarengatik
181 or. = XIII, 18, 22 [395, 14]	zerutik	so beza zerutik	begira beza z. <sup>108</sup>

Esan bezala, ez dut uste ez irizpide materialak ez irizpide paleografikoak ezer garbirik esan dezaketenik m5bis eskuaren jabeari buruz. Baina behatzizkribu honen historiari

<sup>105</sup>Ohar bedi —garrantzia du-eta— «nendun» urrututa bezala agertzen dela: «nendun» hitzaren lehenengo silabaren gainean marra urdin bat dago —oso marra argia— ezkerretik eskuinera, urrututa baino gehiago pintatuta balego bezala, eta bigarren silabak urradura mota normalago bat du, baita ere ezkerretik eskuinera. Hau da, ezin da inongo zalantzarik izan m5bis-ek «nuen» proposatzen duela B-ko «nendun» horren kontra.

<sup>106</sup>Gorago jaso bezala, m2-k puntutxo beltz batzuk ipini ditu hitz honen azpian (118 eta 131-133 or.) eta arkatx gorriak letren ordena aldatzeko marka bat egin du (148 or.).

<sup>107</sup>Arkatx gorriak «amarengatik» hitzaren lehenengo bi letrak zirkulu baten barruan sartu ditu; gainean, tinta urdinez, «am» irakur daiteke.

<sup>108</sup>Lapitzaren mutur gorriak «so beza» idatzi du (ikus gorago 156 or.), oso ilun ordea; pentsatzekoa da ondoren bakarrik etorriko ahal zela m5; eta «begira beza» irakurketa, azkenik, «Utsuneak» dokumentutik dator (ikus 205 or. 43 zenb.).

buruz dakiguna kontuan izanik, *nuen* adizkiaren aldaeren inguruan Lekuonak —eta ez beste inork— egin zituen aldaketek oso klaru hitz egiten dute, agidanean, honen beronen egiletasunaren alde: batetik, Lekuonak aldatu zituen, ez ohiko arreta batekin aldatu ere, *Aitorkizunetako* «nendun» guztiak, eta ez da ahaztu behar hemengo hau dela testuan agertzen den lehenengo; bestetik, «nendun» gehienak «nuan» adizkiaz ordezkatu bazituen ere, *Aitorkizunen* hasiera aldeko zati luze samar batean «nuen» forma erabili zuen Lekuonak Orixeren «nendun» direlakoan tokian. Ikus, honen guztiaren gainean, VI erans.

Berriz, m5 deiturarekin sailkatu ditugun gainerako oharrentzat bai irizpide materialak bai paleografikoak bai zuzenketen nolakotasunak berak hitz egiten digute Lekuonaren egiletasunaren alde. Lehenengo biei dagokionez, nahikoa izan daiteke, esaterako, 41. orriko «bañan» (VII irud.) XVII-XVIII irudietakoarekin erkatzea edo, oraindik hobeto, 181.eko «beza» (X irud.) XIX irudiko «bezela» hitzarekin;<sup>109</sup> orobat esan daiteke 41. eta 47. orrietako «zdierazi B : adierazi m5» (VII irud.) eta «tz B : ta m5» (VIII irud.) zuzenketetan marraztutako *a* letrari buruz: ikus, esaterako, XX irudiko «Orra» hitza; tintaren kalitatea ere —edo marra egiteko modua— oso zantzu garrantzitsua da hemen: XX-XXII irudietan ondo ikus daiteke lanabes berbera —hots, tinta ugari eta modu berean botatzen zuen lanabes bat— erabiltzen zuela Lekuonak paper haietan (baita «Utsuneak» izeneko dokumentuan ere: ikus 188-189 or.) edo, gauza bera dena, modu berean erabiltzen zituela horretarako zituen lanabesak.

Oharren nolakotasunak berak ere askotan berresten digu Lekuonaren egiletasuna. 41. orriko gehiketari dagokionez («bañan») bistan da hitzaren formak berak (hots, «bañan» izateak eta ez, esaterako, «baña[n]») zerbaiten alde hitz egitekotan Lekuonaren egiletasunaren alde hitz egiten duela: badakigu Orixek «baña(n)» zein «baña(n)» erabiltzen dituela *Aitorkizunetan*, baina askoz sarriago «baña(n)» (12 aldiz «baña[n]», 420 bat aldiz «baña[n]»);<sup>110</sup> Lekuonak, berriz, bere izkribuetan beti «baña(n)» idazteaz gain, «baña(n)»

<sup>109</sup>Hauxe da —181. orriko «beza» hitzarena alegia— Lekuonak normalean egiten duen *b* letraren forma; 41. orriko «bañan» horrena, esan bezala, noizean behin bakarrik agertzen zaigu, baina *ductus*-a Lekuonaren *b* normalaren *ductus*-aren oso antzekoa da edo, hobeto esateko, *b* normalaren *ductus*-aren bigarren zatia bera da (ikus, esaterako, XXI irudiko «bi», «zenbait», «bereziari» edo XXII irudiko «bularretako»).

<sup>110</sup>«Baña»: 27 or. = III, 2, 2 [54, 21]; 41 or. = IV, 3, 5 [79, 10] (baina berez «ba#a» da, eta badirudi  $\bar{n} = i + \bar{n}$  jo duela); 50 or. = IV, 14, 23 [94, 21]; 50 or. = IV, 15, 24 [95, 5 eta 7]; 51 or. = IV, 15, 26 [96, 18]; 51 or. = IV, 16, 30 [98, 20]. «Bañan»: 51 or. = IV, 16, iz. [97, 9]; 52 or. = IV, 16, 31 [99, 1-2]; 117 or. = X, 6, 10 [251, 14]; 124 or. = X, 18, 27 [267, 1]; 127 or. = X, 25, iz. [274, 14]. Bitxia da oso hainbeste «baña(n)» egotea laugarren liburuan, baina ez dut uste honek zer ikusirik izan dezakeenik mintzagai dugun m5-en oharren egiletasunarekin; zehazki, ez dut uste Orixeren egiletasunaren aldeko argudiotzat hartu behar denik: batetik, B-prior b idatzi eta dezentez geroago zuzendu zuelako Orixek (laugarren liburuko «baña[n]» hauek, noski, edo b-n sortuak dira —guztiak «baña[n]» edo «baina[n]» baitira C-n— edo B-ren kopiagileak egindako hutsak dira); bestetik, «baña(n)» horiek ja B-ko zentzu horrela idatzita ikusteak eraginik izan bazezakeen zuzentzaile edo ohargilearengan, berdin-berdin izan zezakeelako Orixerengan eta Lekuonarengan.

<sup>111</sup>Izan ere —behin baino gehiagotan aipatu behar izan dugu eta beherago aztertuko dugu xehe—, Lekuonak B-prior-eko orrietan iragarri ez zituen aldaketa eta gehiketa asko egin zituen *Aitorkizunen* probetan; gehiketa hauetan *baina* hitza dutenak lau dira (gehienak hemen atzergai dugun honen oso antzekoak, hots, *baina* bat sartzeko bakarrik egindakoak), hiru «bañan» eta «baña» bat: 84 or. = VII, 14, 20 [173, 22]; 171 or. = XII, 29, 40 [373, 23]; 173 or. = XIII, 2, 2 [378, 12] («baña»); eta 189 or. = XIII, 27, 42 [414, 4] (ikus beherago, hurrenez hurren, 247, 240, 241, 244 or.). Ez dut zerrenda honetan sartu 98 or. = VIII, 11, 27 [206, 26] paragrafoa (ikus 227 or.), ez baita benetako gehiketa: alegia, A-n irakur daitekeen «bañan» B-ko «bañan» bati dagokio eta, hortaz, segurutzat eman dezakegu A-ren inprimatzaileen hutsa dela; Lekuonak *ex novo* sartzten zituen hitzetan —askotan



erabili zuen *Aitorkizunen* testuaren probetan *ex novo* egin zituen gehiketetan.<sup>111</sup> Ordea oharraren zergatikoak salatzen du ondoena Lekuonaren egiletasuna:

<p>[...] <i>dicens ita se illa didicisse, ut eam professionem primis annis aetatis suae deferre voluisset, qua vitam degeret, et si Hippocraten intellexisset, et illas utique litteras potuisset intellegere: et tamen non ob aliam causam se postea illis relictis medicinam adsecutum, nisi quod eas falsissimas comperisset [...]</i> (IV, 3, 5)</p>	<p>Berak ere lenengo ikasurteetan ikasi omen zitun, lanbide artan bizimodua irabazi gogoz. Hipokrate ulertu ezker omen aiek ere uler zetzakela-ta; aiek utzirik sendagintzari ekin ziola, gezur uts zerizkiolako. (B, 41 or.)</p>	<p>Berak ere lenengo ikasurteetan ikasi omen zitun, lanbide artan bizimodua irabazi gogoz. Hipokrate ulertu ezker omen aiek ere uler zetzakela-ta; <i>bañan</i> aiek utzirik sendagintzari ekin ziola, gezur uts zerizkiolako. (m5)</p>	<p>Berak ere lenengo ikasurteetan ikasi omen zitun, lanbide artan bizimodua irabazi gogoz. Hipokrate ulertu ezker omen aiek ere uler zetzakela-ta, aiek utzirik sendagintzari ekin ziola, gezur uts zerizkiolako. (A, 79, 3-7).</p>
--	---	---	---

Ezin da esan gehitutako *baina* hori testuak —hots, esaldiaren gramatikak— ezinbestean behar duen gehigarria denik: jatorrizko testuari hobeto atxikitzeko sartu da edo, agian, esaldiaren arrazoibidea argiagoa egiteko. Izan dezagun kontuan zuzenketa bat baino gehiago egin duela ja Lekuonak helburu honekin eta, batez ere, egingo duela *Aitorkizunen* probetan; eta gogora dezagun, bestalde, m2-k egindakoetan ez zegoela honelako bat ere. Bada gainera beste arrazoi bat gehiketa hau Lekuonari atxikitzeko: «bañan» non kokatu behar zen adierazteko, azentu zirkunflexu baten antzeko marka bat egin du m5-ek lerroaren kaxaren azpian, puntu eta komaren eta «aiek» hitzaren artean. Aldiz, m2-k bi marka mota erabili ohi ditu honetarako —alde batera utzita, noski, hain ondo finkatuta ez dauden beste marrazki moduko batzuk—: sartu beharrekoa elkarren ondoan dauden bi letren artean sartu behar denean, goitik behera egindako marratxo bat egiten du kaxaren beheko aldean; gehiketa bi hitzen artean kokatzen denean, alderantziz ipinitako azentu zirkunflexu baten antzeko ikur bat ipini izan du kaxaren azpian,<sup>112</sup> baina inoiz ez zuzen jarritako azentu zirkunflexu bat. Eta m3-k ere bi marka mota egin ohi ditu: bata m2-k ere erabiltzen duen goitik beherako marratxoa eta egoera berdinetan; bestea, hain justu, zuzen ipinitako azentu zirkunflexuaren antzeko ikur bat kaxaren azpian, hots, gure «bañan» honentzat erabili dena bezalakoxea.<sup>113</sup>

B-ko 93. orrian «opro» dago makinaz idatzita: m2-k —gorago ikusi dugu— puntutxo

ikusiko dugu— bere *usus*-ari jarraitzeko joera zuen, kasu honetan «bañan» idazteko, baina, hitz jakin batzuk alde batera utzita, ez zituen Orixeren grafiak aldatu nahi izan. Ikus, hau bezalako beste kasu batzuk, 190-191 or. eta VII erans.

<sup>112</sup>Ikus, esaterako, «aberastasonak» (4 or. = I, 6, 7 [14, 21-22]), «egin beza» (11 or. = I, 13, 22 [27, 1]), «nere gizontxoan» (14 or. = I, 16, 26 [31, 2]), «doazale» (47 or. = IV, 11, 17 [89, 11]) —B-prior-etik ez iritezearren: Ca-alter-en eta san Benitoren Erregelaren eskuizkribuan ere ez dira falta—.

<sup>113</sup>Aipatu zirkunflexuaren antzeko ikurra, gutxienez, honako kasu hauetan agertzen da B-prior-eko orrietan zehar: «gauzka» (71 or. = VI, 11, 19 [145, 16]), «ez liraken» (128 or. = X, 27, 38 [276, 11]) eta «so beza» (181 or. = XIII, 18, 22 [395, 14]); «Utsuneak» dokumentuan ere ageri da (197 or. 15 zenb. eta XXIII irud.) eta baita *Aitorkizunen* historiarekin zer ikusirik ez duten Lekuonaren bestelako idatzietan ere.

batzuk ipini zituen hitzaren azpian, beste zenbaitetan ere egin zuen bezala, seguruenik bere buruari adierazteko polikiago ikusi beharreko pasarte zela (118 eta 131-133 or.). Horretaz gain, m5-ek tinta urdinez eskribitutako «opor» hitza irakur dezakegu «opro» okerraren gainean (hau da, «opro» hitzari dagokion lerroaren gaineko lerroartean) eta, bestalde, m3-k letren ordena trukatzeko erabili ohi duen ikurra dago —arkatzaren mutur gorriarekin egina— «opro» hitzaren kontsonanteetan (148 or.). Beraz, bi aldiz egin du zuzenketa bera zuzentzaile berak. Ez da harritzekoa: Lekuonak askotan egiten duen gauza da, B-prior-en eta baita B-prior-etik kanpo ere; arkatx gorri-urdina erabiltzeko ohituraren ondorioa da: koloredun arkatx honek egiten duen marra, behin baino gehiagotan esan behar izan dugun bezala, oso lausotua da, hau da, ez da erraz irakurtzen, eta batzuetan lapitz gorri-urdinak zuzendu duena tintadun lanabes batekin zehazteko beharra sortu izan zaio. (Erka bedi hemengo «opor» hau XX-XXIV irudietako hitzekin). Aztergai dugun kasuan, beraz, m3-k «opro» hitzaren letren ordena aldatzeko marka gorria egingo zuen eta ondoren, zuzenketa hura nahikoa argia ez zelakoan, behar zuen hitza letra guztiakin idaztea erabaki zuen, dela «Utsuneak» izeneko dokumentua prestatzen ari zenean dela beste edozein momentutan. Esan bezala, jarrera berbera ikus dezakegu m5-ek B-prior-en egindako beste zuzenketa batzuetan (esaterako, 175. orriko «amarengatik» eta 181.eko «so beza»: ikus, hemen bertan, hurrengo paragrafoan) eta baita ere Lekuonaren beste izkribu batzuetan.

Honen antzekoa da oso 181. orriko gehiketa; gorago ere aipatu behar izan badugu ere, komeni zaigu berriz aurrean jartzea:

[...] oriatur de «terra veritas», et «iustitia de caelo» respiciat [...] (XIII, 18, 22)	[...] sortu bedi lurretik egia ta zuzentasunak zerutik (B, 181 or.)	[...] sortu bedi lurretik egia ta zuzentasunak <i>so beza</i> zerutik (m3)	[...] «sortu bedi lurretik egia ta zuzentasunak <i>begira beza</i> zerutik» (A, 395, 13-14).
---	---	--	--

Ezin da esan B-ko testua, dagoen bezala, ezinezkoa denik, oso ondo uler baitaiteke *bedi* aditza hurbilen duen subjektuarekin bakarrik komunztatzen dela, hau da, «sortu bedi lurretik egia ta [sor bitez] zuzentasunak zerutik». Baina itzulpen batekin ari gara borrokan eta jatorrizko testuak garbi esaten digu hemen ezabatze bat gertatu dela: ia-ia ezinezkoa da ezabatze hori itzultze lanean gertatu izana (hots, Orixek «respiciat» kontuan hartu ez izana eta, orduan, B-ko testua benetan Orixek nahi izan zuena izatea), jatorrizkoaren argitan ezin baita onartu «zuzentasunak» hitza pluralean egotea edo, bestela esanda, nabarmena delako mintzagai dugun «zuzentasunak» honek ergatiboan egon behar duela. Hau da, pasarte honetan dagoen hutsari itzulpenaren jatorrizko testuari begiratu ez gero bakarrik antzeman diezaiokegu: eta badakigu m2-k ez zuela inoiz jatorrizko latin testura jo aurrean zuen euskarazko testuak ez bazuen huts nabarmen bat erakusten (eta hau ere ez da erabat seguru; jatorrizko testura diot, ez itzulpenaren aurreko bertsio batera). Hemen ere, B-prior-eko egoera 93. orriko «opor» zuzenketari buruz mintzatzean azaldu dugun berbera da: alde batetik m3-k, bere lapitz gorriarekin, ia-ia irakurtezinak diren «so beza» hitzak idatzi ditu; beste alde batetik, «so beza» dago eskribituta tinta urdinez (eta, 41. orriko «bañan» kasuan bezala, kaxaren azpian azentu zirkunflexu baten antzeko ikur bat dago gehiketaren kokapena adierazteko —ikus 185 or.—). Azalpena, nahitaez, 93. orriko oharrari eman diogun berbera izango da: m3-ren gehiketak izan behar du lehendabizikoa eta m5-enak hurrengoa. Hortaz, 93. eta 181. orrietako oharrek argi uzten dute m5 m3-ren ondoren

aritu zela; eta 181. orriko honek, gainera, erakusten digu m5 deiturapean sailkatutako oharrak «Utsuneak» idatzi baino lehenago egin zituela, zeren A-n inprimatu zen «begira beza» irakurketa «Utsuneak» izeneko dokumentuaren bidez sartu ziren zuzenketetako baita (ikus 205 or. 43 zenb.).

110. orriko zuzenketa begien bistakoa da eta ez du azalpen askoren beharrik. Ikus dezagun 128. orrikoa:

<p>Vocasti et clamasti et rupisti surditatem meam, coruscasti, splenduisti et fugasti caecitatem meam, fraglasti, et duxi spiritum et anhelu tibi, gustavi et esurio et sitio, <i>tetigisti me,</i> <i>et exarsi in pacem</i> <i>tuam.</i> (X, 27, 38)</p>	<p>Egin didazu dei ta oiu, ta nere sogortasuna autsi; argi ta dirdir egiñez aizatu duzu ene itsumena; ats egin duzu ta arnas artu dut, Zu zaitut arnasten; iastatu zaitut eta gose-egarri naiz; <i>ukitu naiazu</i> <i>pakesu darit.</i> (B, 128 or.)</p>	<p>Egin didazu dei ta oiu, ta nere sogortasuna autsi; argi ta dirdir egiñez aizatu duzu ene itsumena; ats egin duzu ta arnas artu dut, Zu zaitut arnasten; iastatu zaitut eta gose-egarri naiz; <i>ukitu nauzu ta</i> <i>pakesu darit.</i> (m5)</p>	<p>Egin didazu dei ta oiu, ta nere sogortasuna autsi; argi ta dirdir egiñez aizatu duzu ene itsumena; ats egin duzu ta arnas artu dut, Zu zaitut arnasten; iastatu zaitut eta gose-egarri naiz; <i>ukitu nauzu</i> <i>ta pakea darit.</i> (A, 276, 12- 16).</p>
--	---	---	---

Bi alderdi ditu m5-en ohar honek: batetik, «naiazu» hitzaren zuzenketa eta, bestetik, «ta» hitzaren gehiketa. Nahikoa da euskarazko testua irakurtzea huts bat dagoela ikusteko: pentsatzekoa da egiaztapen honetatik abiatuta jatorrizko latinera jo zuela Lekuonak eta, hemendik aurrera, m5-en zuzenketa begien bistakoa da. Bestalde, badirudi A-ko hutsa inprimategian bakarrik sortu ahal izan dela: «pakesu» (hau da, *bake-su*) ez da ulertu eta «pakea» bezala banalizatu da.

Berriz ere agertzen zaigu lapitz gorria tinta urdinaren ondoan 175. orriko oharrean:

<p>[...] et dic mihi, obsecro te per matrem caritatem [...] (XIII, 6, 7)</p>	<p>[...] otoi, maitasun amarengatik otoi [...] (B, 175 or.)</p>	<p>[...] otoi maitasun amarengatik otoi [...] (A, 382, 4-5).</p>
--	---	--

Alde batetik, esan bezala (183 or. 107 oh.), arkatx gorriak «amarengatik» hitzaren lehenengo bi letrak biribilki batean sartu ditu; beste alde batetik, m5-ek «am» idatzi du «amarengatik» hitzaren gainean dagoen zurian. Begien bistan dago Lekuonak ez duela «maitasun amarengatik» hori ulertu lehenengo irakurketan, eta pentsatu du —horregatik sartu ditu horiek bakarrik biribilkian— hitzaren hasierako letrak oker zeudela; gero, seguruenik ja jatorrizko testura jo duenean, konturatu da hitzen zentzuarekin («por la caridad mi madre» dakar Vega-k, «par la charité, notre mère» dio Labriolle-k) eta, zeuden-zeudenean utzi behar zirela adierazteko, «am» idatzi du tinta urdinez. Beste froga bat, besterik ez bada, m5, nahitaez, m3-ren ondoren bakarrik uler daitekeela.

## IV

### B-prior-etik 1956ko edizioaren testura

Aztertu ditugu on Manuel Lekuonak *Aitorkizunen* testuari B-prior-eko orrietan egin zizkion era guztietako ohar eta azpimarratuak. Lan hura ordea Orixeren testuaren inguruan egin gogo zuenaren hasiera baizik ez zen, handik aurrera ere segitu egin baitzuen *Aitorkizunak* jorratzen. Hurrengo pausoaren berri B-prior-ekin batera inprimategira joan ziren «S. Augustin'en Aitorkuntzetan utsuneak» izeneko paperek ematen digute: Orixeren itzulpenean jaso gabe gelditu ziren hitz eta pasarte batzuk gehitzea izan zen, hasiera batean behintzat, paper hauek ontzerakoan Lekuonak izan zuen asmoa (188-213 or.). *Aitorkizunen* testuak ondoren izan zituen aldaketa ugarietarako ez dugu lekukotasunik eta pentsatzekoa da irar-proben bidez sartu zituela, Lekuonak maiz egiten zuen bezala (213-287 or.). Hemendik aurrera, Orixeren testuari egin nahi izan zizkion azken ukituak 1956ko edizioaren beraren orrialdeetan inprimarazi zuen «Okerrak zuzentze» batean eman behar izan zituen (288-297 or.).

#### 1. «S. Augustin'en Aitorkuntzetan utsuneak» izeneko paperak

B-prior deitu dugun behatzizkribuaren (hots, orain «J-83-3-2» dokumentua denaren) orrien artean «J-83-3-3» signatura duten bi orri solte daude: dudarik gabe horrelaxe zeuden Lekuonaren paperak orain dauden artxibora iritsi zirenean. Alde bakar batetik daude idatzita, makinaz jota eta zenbatu gabe (guk I eta II esango diegu): XXIII-XXIV irudietan ikus daitezkeenez gero ez dago haien itxura fisikoaren azalpen askoren beharrik. Esana dugu dokumentu hau Orixek san Agustinen jatorrizkoa itzultzerakoan jaso gabe utzi zituen hitz eta pasarte batzuk gehitzeko asmoarekin ondu zuela Lekuonak, hau da, *Aitorkizunetan* zeuden hutsune haiek betetzeko, eta hemendik izena; aurrera dezagun ordea besterik ere egin zuela paper haietan, 208-213 or. ikusiko ahal dugun bezala.

Bi orri hauen alderdi materialak inongo zalantzarik gabe erakusten du Lekuonak idatziak direla. Lehenengo, dokumentu hau idazteko erabili den idazmakina Lekuonak garai honetantxe idatzi zituen beste lan batzuk jotzeko erabili zuen berbera delako (hauetako baten orrialde batzuk XX-XXII irudietan jaso dira: begira, esaterako, *a* letra nola dagoen behar lukeen baino pixka bat beherago, edo *n* letra behar baino gorago, tipoen eite orokorraz —eta bitxi samarraz— landara). Bigarrenik, bi orri hauetan dauden zuzenketa gutxiak ere Lekuonaren eskua salatzen dutelako argi eta

garbi: oker edo agian argiegi —hots, ahulegi— jotako «dago» baten gainean (201 or. 26 zenb.: «dago») eskuz idatzi den gbatek Lekuonaren idazkeraren berezitasun nabarmenenetako bat erakusten du (ikus aipatu XX-XXII irudietan eskuz idatzitako g letrak), alde batera utzita m5-ek bere ohar gehienetan erabili zuen tinta urdin berarekin dagoela eskribituta; «26» zenbakia ere gehitu da (197 or. 13 zenb.) m3-rena bezalako arkatx gorri batekin; eta, azkenik, egin behar izan duen gehiketa bat egiteko (lehendabizi «eta mutillari» idatzi du eta gero, betiere makinaz, «eta mai-mutillari», «mai-» bi lerroen arteko zurian joaz [197 or. 15 zenb.]) m5-i buruz hitz egitean aipatu behar izan ditugun azentu zirkunflexuaren antzeko marka haietako bat erabili du hemen ere (ikus 185 or. eta bertako 113 oh.). Hirugarrenik, gaitzetsitako hitzak urratzeko modu berbera ikus daitekeelako Lekuonaren beste izkribuetan: XVI, XX edo XXI irudietakoetan, adibidez.<sup>1</sup>

Baina alderdi materialak, jakina, egiletasun materiala besterik ez du frogatzen, daitekeena baita idazki hau beste baten kopia izatea: hipotesiaren egiantzekotasun falta alde bat lagata, aztarren ugari dira erakusten dutenak, batetik, «Utsuneak» izeneko dokumentua kopia ez baina orijinala dela eta, bestetik, Lekuonak eta ez Orixek —ez beste inork— ondua.<sup>2</sup> Alabaina, alferrik luzatuko ginatke aztarren hauetan, bai baititugu Lekuonaren egiletasuna eta, aldi berean, mintzagai ditugun paper hauek *Aitorkezunen* testuaren historian duten tokia ezin eztabaidatuzko modu batean erakusten dituztenak. Izan ere, eta gorago ere aurreratu behar izan dugun bezala, «Utsuneak» delako honen lehenengo orriko gehiketa eta aldaketa guzti-guztiak m3-k B-prior-en nabarmendutako pasarteei dagozkie. B-prior-eko azpimarratuen eta «Utsuneak» dokumentuko gehiketen arteko lotura hau begien bistakoa da (194-208 orrialdeetako zutabeetan ikus daitekeenez): m3-k lehendabizi azpimarratu edo, nola edo hala, markatu egin zituen B-prior-eko orrietan zuzendu ezin ziren pasarteak —arrazoi praktikoko hutsengatik— eta, ondoren, «Utsuneak» izenburua daramaten orrietan gauzatu eta zehaztu zituen egin nahi zituen zuzenketa haiek. Eta, orobat, «Utsuneak» hauetako gehiketa batzuk m3-k B-prior-en egindako oharretan oinarritu dira: ikus, beheago, 33, 34 eta 43 (eta, zati batean, 52) zenbakiak daramatzatenak. Baldin eta arkatx gorri-urdinarekin egindako B-prior-eko azpimarratuen egiletasunari buruz zalantzarik ez badugu, ez genuke izan behar «Utsuneak» paperen egileari buruz.

(Esan bezala, «Utsuneak» dokumentuaren lehenengo orriko gehiketa guzti-guztiak m3-k

<sup>1</sup>«I» eta «II» zenbakiak, esan bezala, «Utsuneak» dokumentuaren bi orriei dagozkie; «zenb.» laburdura (edo «zenbakia» aipamena bera), berriz, 194-208 orrialdeetan ematen dugun testu zatiketari.

<sup>2</sup>Urratu ugariak, idatzitakoaren antolamenduari dagozkion hutsek eta abarrek susmarazten digute —ohi bezala— «Utsuneak» ezin direla kopia izan —edo, nahiago bada, ezin direla kopia soila izan—: baina, oso oker ez banago, bide honetatik abiatuta ezingo genuke erabat frogatu paper hauek beste batzuen kopia direnik. Bestalde, kopia direla frogatu ahal izateak ez luke ezer ekarriko auzi honetara: gure kasuan, Lekuonak berak egindako jatorrizko testu baten kopia izan baitzitezkeen. Egiletasunari dagokionez, bistan da testuaz kanpotiko datuek *Aitorkezunen* historiari buruz dioskutenari begiratu ez gero bi hipotesi bakarrik hartu behar genituzkeela kontuan: edo Lekuona bera dela paper hauen egilea —hots, egilea eta eskribitzailea— edota Orixek eginak direla eta gero Lekuonak kopiatuak; Lekuonaren aldeko bi argudio garrantzitsuenak —batetik, m3-k B-prior-en egindako azpimarratuen eta «Utsuneak» delakoaren arteko lotura eta, bestetik, «Utsuneak» honen gehiketen hizkuntza— berehala aztertuko dira; Orixeren egiletasunaren kontrako argudioak ez dira falta: hoberenak —inondik ere ez bakarrik— testuaz kanpotiko datuek ematen dizkigutenak dira.

iragarri zituen B-prior-en; bigarren orrikoei dagokienez, berriz, 33, 34, 43 eta 52 zenbakiak daramatzaten aipatu pasarteek bakarrik erakusten dute B-prior-ekiko lotura bat. Hau da, B-ko 143 eta 145 orrien bitartean aldaketa bat egon da Lekuonaren lan egiteko moduan —lehenengo orriko azken gehiketa [24 zenb.] B-ko 143.ean baitago, eta bigarren orriko lehenengoa [25 zenb.] B-ko 145.ean—. Baina ez dut uste harantzago joan daitekeenik aldaketa honen zergatikoa aztertzerakoan: pentsa genezake, noski, 145 orritik aurrera azpimarratu beharrik ez badu dela *ja a r i del a k o* «*Utsuneak*» idazten, hau da, momentu hartan hasi zelako bi orriok idazten eta handik aurrera, beraz, B-prior zuzentzen zuen bitartean «*Utsuneak*» ontzen zihoalako —berriz, 145 orrira heldu arte «*Utsuneak*» asmo bat besterik ez ziratekeen, eta horregatik markatu behar zituen geroago bakarrik ukituko zituen pasarteak—. Baina ezingo genuke hipotesi hau aldeztu zenbait ñabardura egin gabe, 145 orritik aurrera B-prior-en egindako ohar bat gutxienez «*Utsuneak*» baino lehenagokoa delako: B-prior-en, izan ere, bai m3-k bai m5-ek «so beza» proposatu dute —ikus, behegero, 43 zenb.—, baina «*Utsuneak*» izeneko paperetan «begira beza» irakur daiteke, 1956ko edizioaren testuan bezalaxe. Orobat esan genezake beheko zerrendan 33 eta 34 zenbakiak daramatzaten pasartei buruz: «*Utsuneak*» delakoan jaso behar zituen kasuak ja ez baldin bazituen azpimarratu ere egin behar, zertarako idatzi zituen B-prior-eko 173 orrian bi «zenien» horiek? Noski, daitekeena ez ezik egiantzekoa da B-prior-eko ohar guztiak ez izatea ordenan eta orraztaldi bakar batean egindakoak eta, beraz, «so beza» oharraren edo bi «zenien» horien kasuek ez lukete nahitaz aipatu hipotesiaren kontra egon behar: egia da, baina, gauzak horrela, ez dugu oinarri sendorik gure hipotesia *null hypothesis* gisa aurkezteko).

«*Utsuneak*» izeneko paperetan *ex novo* sartutako gehiketen hizkuntzak, batetik, eta bertan kopiatu diren B-ko testu zatietan egindako aldaketek, bestetik, Lekuonaren egiletasunaren aldeko ezin eztabaidatuzko beste argudioa ematen digute. Izan ere, *b i o r r i* hauetan proposatzen diren pasarte berrietan nabarmenak dira Lekuonaren hizkuntzan ohikoak eta, aldi berean, Orixeren *usus*-aren erabat kontrakoak diren ezaugarriak. Esaterako, aztergai ditugun orriotan, «nuan» bat dago, hiru «zuan» (bi «zuan» eta «zuanaren» bat) eta «zituala» bat.<sup>3</sup> Dakigun bezala —ikus, honi guztiari buruz, VI erans.—, Orixek ez zuen behin ere «nuan» adizkia erabili *Aitorkizunen* testuan, baina 1956ko edizioan 255 «nuan» daude: guzti-guztiak dira Lekuonak probetan sartutakoak, dela Orixeren «nendun» bana ordezkatzeko dela testuari egindako beste aldaketa batzuekin batera *ex novo* sortuak. Berbera gertatzen da, funtsean, «zuan» eta «zituan» adizkiekin: Orixek beti «zun» eta «zitun» erabili du *Aitorkizunetan*; bost «zuan» eta «zituan» bat ditugu A-ko testuan: lau «*Utsuneak*» hauetan daudenak dira; bat, bai, B-prior-etik bertatik dator (164 or. = XII, 17, 24 [357, 1]), eta seguruenik kopiagilearen hutsa da; eta bestea ere —hauxe da, agian, daturik esanguratsuen— B-prior-etik dator baina m1-ek egindako zuzenketa bat ez delako jaso A-ko testuan, makinaz jotako «zuan» baten gainean «zun» zuzendu baitu (175 or. = XIII, 6, 7 [382, 7]: ikus gorago 101 or.). Orixek inoiz erabiltzen ez dituen beste bi adizki

<sup>3</sup>Hots: «nuan» (13 zenb.), «zuan» (8 eta 45 zenb.), «zuanaren» (45 zenb.) eta «zituala» (9 zenb.). Azken hau azpimarratu gabe agertzen da «*Utsuneak*» dokumentuan, hau da, B-tik kopiatua balitz bezala, baina ez da horrela, B-prior-en «nitula-ta» irakurtzen baita (zehazki, «nitula-ta» baina m2-k esan bezala zuzendua: ikus 109 or.); bai B-ko testua bai Lekuonaren oharra behegero ikus daitezke, 196 or.

ere agertzen dira «Utsuneak» dokumentuan: «zenduan» (zehazki «zenduana»: 44 zenb.) eta «zendukean» (23 zenb.); Orixek «zenun» erabiltzen du normalean (9 aldiz «zendun»), baina inoiz ez «zenduan», eta orobat «zendukean» horri dagokionez.<sup>4</sup> Oso adierazgarria da, orobat, *-Viñ-* eta *-Vñ-* grafiei dagokien hau: Orixerentzat *-Viñ-* grafia da ohikoa B testuan eta *-Vñ-* salbuespena; Lekuonak, berriz, *-Vñ-* erabiltzen zuen, inoiz huts egin gabe (ikus VII erans.). Horrela, eta betiere *ex novo* sartutako hitz eta pasarteei buruz ari garelarik, era honetako hiru kasu daude «Utsuneak» dokumentuan: bi «gañera» (1 eta 44 zenb.) eta «baño» bat (8 zenb.).<sup>5</sup> Aurrera dezagun gauza berbera gertatzen dela —ikus berriz ere VII erans.— Lekuonak eskribitutako testu guztietan (baita, beraz, «Utsuneak» honetan bertan, B-tik kopiatuak diren zatietan: ikus, beherago, 192 or.). Berdin-berdina da *bait* aurrizkiaren kasuan jazotakoa. Orixek hitz bakar batean idazten ditu *bait* eta honi dagokion adizkia, hau da, askotan erabiltzen badu ere, B-ko testuan zehar ez du inoiz marratxo bat ipini aurrizkia eta adizkia lotzeko. Berriz, delako «Utsuneak» honetan Lekuonak *ex novo* sartutako pasarteetan marratxodun bi *bait* dira, biak A-ra pasatutakoak: «bait-da» (3 zenb.) eta «bait-du» (45 zenb.); eta B-tik kopiatutako zatietan ere era honetako beste bi «bait» ikusiko ahal ditugu (ikus beherago 192 or.).<sup>6</sup> Orobat *edota* juntagailuari dagokionez: hau ere askotan erabiltzen du Orixek *Aitorkizunetan* (55 aldiz), baina beti «edota» idatzita; gure bi orri hauetan behin agertzen da «edo-ta» eskribituta (3 zenb.), eta Lekuonak probetan sartutako aldaketetan ere bi bider aurki dezakegu itxura horretan (X, 23, 33 eta XI, 24, 31: ikus 232 eta 237 or.). Gauza berbera dugu *baizik eta* juntagailuaren kasuan: Orixek, *Aitorkizunetan*, «baizik eta» idazten du beti, inoiz ez marratxoarekin, eta «Utsuneak» dokumentuan bi aldiz agertzen da «baizik-eta» (biak 45 zenbakian). Eta berdina gertatzen da hemen ageri den eta Orixek *Aitorkizunetan* inoiz erabiltzen ez duen «beerako» hitzarekin (36 zenb.): ikus, honen gainean ere, VII erans. Neke handirik gabe luza genezake zerrenda hau.<sup>7</sup>

<sup>4</sup>Berbera esan genezake *Aitorkizunetan* oso gutxitan baina «Utsuneak» dokumentuan 3 aldiz agertzen diren «det» paradigmako adizkiei buruz. Orixek, eta batez ere *Aitorkizunetan*, «dut» etab. erabiltzen du ia-ia bakarrik: 5 salbuespen daude B-ko testu osoan zehar («dezunari», 112 or. = IX, 13, 35 [239, 21]; «dedala», 150 or. = XI, 22, 28 [326, 15]; «dedana», 168 or. = XII, 25, 34 [366, 9]; «det», 187 or. = XIII, 25, 38 [410, 9]; «dezte», 188 or. = XIII, 26, 40 [412, 13]), eta oso egiantzekoa da hauetako batzuk, gutxienez, B-ren kopiagilearen hutsak izatea. Orain mintzagai ditugun bi orri hauetan, berriz, 3 horrelako agertzen dira: «det» (3 zenb.), «degu» (39 zenb.) eta «degula» (51 zenb.); geroago ikusiko dugu (243 or.) Lekuonak probetan sartutako aldaketa batean ere «baitezu» bat agertzen dela (185 or. = XIII, 23, 33 [405, 13]). Esan gabe doa Lekuonak «det» etab. erabiltzen zuela beti. Baina, honekin guztiarekin batera, kontuan hartu behar da 39 eta 51 zenbakietako «degu» eta «degula» ez zirela A-ra pasatu (ikus, hurrenez hurren, 275 eta 294-295 or.): lehendabizikoa «dugu» gisan agertzen da, zalantzarik gabe Lekuonak berak probetan aldarua —haren asmoa ez baitzen, hainbestetan esan behar izan dugun bezala, Orixeren hizkuntzaren ezaugarri hauek aldatzea—; bigarrena, A-ko testuan «degula» irakur badaiteke ere, liburuaren akaberako «Okerrak zuzentze» delakoan «dugula» proposatzen da horren ordez. Hauetaz gain, B-prior-eko «dezunari» ere «duzunari» bezala zuzendu du A-ra bidean (ikus, honetarako ere, 274-275 or.); eta mintzagai dugun «Utsuneak» dokumentuko 52. zenbakian idatzitako «degu» bat ere «dugu» gisan zuzendu du, makinaz (ikus 208 or. 46 oh.).

<sup>5</sup>Aldiz, B-ko testu osoan zehar «gañ» bakarra dago (179 or. = XIII, 15, 18 [392, 13]) —sari agertzen den hitz hau adibide gisa hartzearren—, baina Lekuonak B-tik A-ra bidean egindako aldaketa eta gehiketetan —esaterako— beste 5 «gañ» sortu dira (33 or. = III, 7, 12 [64, 8]; 158 or. = XII, 8, 8 [345, 8]; 169 or. = XII, 27, 37 [369, 22]; 175 or. = XIII, 7, 8 [383, 9 <pr.>]; 176 or. = XIII, 9, 10 [385, 12]). Honetaz landa, «baño» kasuari buruz ikus VII erans., eta *baina* hitzari buruz baita 184-185 or. ere.

<sup>6</sup>B-tik A-ra bidean sartutako aldaketetan ere era honetako esko dira: ikus, beherago, 215-252 or. Gogora bedi, bestalde, m3-k ere aldaketa hau berau egin zuela behin B-prior-eko: «bait zuken B : bait-zuken m3» (79 or. = VII, 6, 10 [163, 27]).

<sup>7</sup>Esaterako: «izandakuok» (41 zenb.) bezalakorik ez da *Aitorkizunetan* aurkituko; «nundik» (3 zenb.)

Lekuonak «Utsuneak» honetan egin nahi zituen gehiketak egin ahal izateko aipatu egin behar zituen, gehiago edo gutxiago, B-ko testuaren zati batzuk, gehiketa haiek non txertatu behar ziren adierazteko: B-prior-etik kopiaturako pasarte hauetan egindako aldaketek ere Lekuonaren eskua salatzen dute, ondo asko ezagutzen baititugu kopiatu besterik egin behar —agian nahi— ez zuenean sartu ohi zituen berrikuntzak (ikus VII erans.). Hona hemen, inongo galbahetatik pasatu gabe, B-prior-etik hartutako hitzetan ereduaren eta kopiaren artean dauden aldaera guztiak —*i eta j* letrei dagozkienak izan ezik—:

	B	Uts
4 zenb.	bainaiz	bait-naiz
6 zenb.	zârragoren	zaarragoren
6 zenb.	ba'ditu	baditugu
7 zenb.	antolatzaille	antolatzalle
9 zenb.	oek	oiek
10 zenb.	iarduntokia	iardun-tokia
12 zenb.	beure	bere
12 zenb.	ere,	ere
12 zenb.	diru eskasiz	diru-eskasiz
15 zenb.	batean	baten
15 zenb.	ikusi, ta	ikusi, eta
17 zenb.	izan maillak	izan-maillak
19 zenb.	doatsugo	doatsuago
19 zenb.	aztaz eta	aztaz ta
22 zenb.	Zure	zure
22 zenb.	Zure	zure
22 zenb.	ixilgordea	ixil-gordea
25 zenb.	zer<u>-lurrok	zeru-lurrak
25 zenb.	egin aurrean	egin-aurrean
29 zenb.	kantu	kantu,
29 zenb.	soiñu	soñu
33 zenb.	sor	zor
34 zenb.	Zure	zure
34 zenb.	Zugurtasunez	zugurtasunez
43 zenb.	egia	egia,
43 zenb.	zuzentasunak	Zuzentasunak
44 zenb.	zaitezte,	zaitezte
45 zenb.	bikaiña	bikaña
45 zenb.	iruren	Iruren
45 zenb.	batasuna	Batasuna
46 zenb.	Zure	zure
47 zenb.	ez-baiñan	ez-bañan
48 zenb.	baita	bait-da
50 zenb.	Zure	zure

normalean «nondik» da Orixerengan; «oiei» (8 zenb.) eta ez ohiko «oriei»; *Aitorkizunetan*, «-tu ezker» da beti, inoiz ez «-tuzker», bi orri hauetako «berrituzker» bezala (45 zenb.). Eta abar.



Hauetako asko ez dira adierazgarriak hemen axola zaigun auzirako; baina beste batzuk, VII eranskinean erakutsi dugun bezala, Lekuonak *Aitorkizunen* testuaren edozein zati kopiatzerakoan ia-ia sistematikoki egiten zituen aldaketetakoak dira: *-Viñ- > -Vñ-* edo *-Vill- > -Vll-* («soñu B : soñu Uts.», «bikañia B : bikañia Uts.», «ez-baiñan B : ez-bañan Uts.» eta, bestalde, «antolatzaile B : antolatzaile Uts.»);<sup>8</sup> Jaungoikoari zuzentzen zaion *zure* hitzaren hasieran Orixek idatzi ohi zuen letra larria xehe egiteko joera sistematikoa (hau da, «Zure B : zure Uts.», lau bider zerrenda honetan) eta, kontrako zentzuan —eta askoz sistematikotasun txikiago batekin—, zenbait hitzen hasierako letra xehea larri egitekoa («zuzentasunak B : Zuzentasunak Uts.», «iruren batasuna B : Iruren Batasuna Uts.»); hitz elkartuetan-eta marratxoak ipintzeko ohitura («iarduntokia B : iardun-tokia Uts.», «diru eskasiz B : diru-eskasiz Uts.», «izan maillak B : izan-maillak Uts.», «ixilgordea B : ixil-gordea Uts.», «egin aurrean B : egin-aurrean Uts.») eta, oso modu berezi batean eta Orixeren *usus-*aren kontra, *bait* aurrizkiaren eta bere adizkiaren artean, batarentzat eta bestearentzat forma betea berreskuratuz («bainaiz B : bait-naiz Uts.», «baita B : bait-da Uts.»; honetaz ikus, hemen, 191 or. eta bertako 6 oh.). Orobat esan genezake «zârragoren B : zaarragoren Uts.» aldaketaren gainean: Orixek ez du inoiz «zaar» aldaera erabili B-ko testuan; Lekuonak, berriz, behin baino gehiagotan *Aitorkizunen* inguruko izkribuetan: inoiz ez B-prior-eko orrietan, baina bai B-tik A-ra bidean egindako zenbait aldaketatan eta, batez ere, 1956ko liburuaren akaberako «Arkibidea» delakoan (ikus guzti honetaz V erans.).

Hortaz, «S. Augustin'en Aitorkuntzetan utsuneak» izeneko paper hauen azterketa materialak Lekuonak eskribituak zirela erakusten baldin bazigun argi eta garbi eta, beste alde batetik, m3-k B-prior-en markatutako pasarteetan eta bi orri hauetan proposatutako gehiketen arteko loturak —batez ere *Aitorkizunen* historiari buruz ditugun testuaz kanpotiko datuen argitan begiratuta— Lekuonaren egiletasunaren aldeko ezin eztabaidatuzko frogak ematen bazigun, dokumentu honetan egindako gehiketen eta aldaketen nolakotasunak berretsi egin dizkigu —erabat berretsi ere— Lekuonaren egiletasunaren alde geneuzkan argudioak. Baina, agian, honen guztiaren frogarik pisuena —eta alderdirik interesgarriena— da «S. Augustin'en Aitorkuntzetan utsuneak» hauek Lekuonak B-prior-en gainean egin zuen lanaren jarraipena izatea. Ikus dezagun.<sup>9</sup>

<sup>8</sup>Behin bakarrik mantendu du B-ko grafia («baiño»; 19 zenb.); *ex novo* sartutako hitzetan, berriz, inoiz ez du *-Viñ-* grafia erabili.

<sup>9</sup>Lehenengo zutabeen jatorrizko latina jaso da (ohi bezala, BAC-eko 1946ko edizioaren arabera, baina oso kontuan izanik 1955ekoarekin dituen aldaerak —ikus, honetaz, 143-144 or.—, esaterako 3 eta 49 zenbakietan); bigarrenean, B-prior-eko testua: m3-k egindako azpimarratuak beltean nabarmendu ditugu eta goitik beherako marrak paragrafoaren ikurrarekin eman ditugu (5 eta 20-24 zenbakietakoak arkatz urdinak egin ditu eta gainerako guztiak arkatz gorriak; B-prior-eko testuaren gainean eskuz eginda dauden zuzenketen berri oharretan ematen dugu); hirugarrenean, «Utsuneak» izeneko paperen testua; laugarrenean, azkenik, 1956ko edizioan inprimatutakoa. Ohar bedi «Utsuneak» dokumentuko testua ematerakoan honako aldaketa hauek egin ditugula: zenbakien arteko edota puntuazio-ikurren arteko zurieta dauden hutsak zuzenduta eman dira; *t* eta *l'* gangardunak, ohi bezala, *tt* eta *ll* bezala jaso dira; testu zati bakoitzaren hasieran «Utsuneak» delakoan ematen den erreferentzia —hots, B-prior-eko orriari buruzkoa— ezabatu egin da, bigarren zutabeen aurki baitaiteke. Hirugarren zutabeko azpimarratuak, jakina, Lekuonarenak berarenak dira: azpimarratu ditu aldatu edo gehitu egin nahi dituen hitzak, eta azpimarratu gabe utzi ditu azpimarratutakoak non txertatu behar diren jakiteko balio dutenak, hau da, hitzez hitz B-tik kopiatuak direnak —edo izan behar luketenak—. (Latin testuan etzanean eman ditut Lekuonak aldatu edo gehitu dituen hitzei eta pasartei dagozkien zatiak, zehaztu ahal direnean eta zehaztu ahal diren neurrian). «Utsuneak» dokumentuan makinaz urratuta agertzen diren letrak edo hitzak guk marra batez urratutako letren bidez eman ditugu, eta han eskuz urratuta agertzen direnak guk # ikurraren bidez

- |   |   |   |  |   |
|---|---|---|--|---|
| 1 | Et laudare te vult homo, aliqua portio creaturae tuae? <i>et homo circumferens mortalitatem suam, circumferens testimonium peccati sui [...]</i> (I, 1, 1)  | Eta, goretsi nai zaitu sorkari duzun <b>gizontto onek?</b> ¶ bere obenaren aitorra inguruan deraman onek? (B, 1 or.)                  | ...gizontto onek? <u>ilkor izanaz gañera,</u> bere obenaren aitorra... (Uts., I) <sup>10</sup>   | Eta, goretsi nai zaitu Zure sorkari duzun gizontto onek? ilkor izanaz gañera bere obenaren aitorra inguruan deraman onek? (A, 9, 6-8)   |
| 2 | Et quomodo invocabo <i>Deum meum</i> , Deum et Dominum meum? (I, 2, 2)  | <b>Eta nola dei dezaket</b> ¶ ene Jaun eta Jaungoikoa? (B, 1 or.)   | ...dezaket <u>ene</u> <u>launa,</u> ene laun eta laungoikoa? (Uts., I)   | Eta nola dei dezaket ene launa, ene laun eta laungoikoa? (A, 10, 9-10)  |
| 3 | An potius non essem, nisi essem in te, «ex quo omnia, per quem omnia, in quo omnia»? (Ier., 23, 24). [ <i>Etiam sic, domine, etiam sic. Quo te invoco, cum in te sim? Aut unde venias in me? Quo enim recedam extra caelum et terram, ut inde in me veniat deus meus, qui dixit: «Caelum et terram ego impleo»?</i> ] (I, 2, 2) | Obeki esan, ez nintzake Zugan ez ba'nintza «Zugandik, Zugatik, <b>Zugan baitira oro?</b> » (Jerem. 23, 24). ¶(B, 2 or.) <sup>11</sup> | 2 Ierem. 23, 24). <u>Baiki, launa, baiki.</u> <u>Nora dagizuket dei Zuri, nerau zugan egonik? edo-ta nundik zatozkiket? nora dagiket iges zeru ta lurretik at, nigana etor zaitezen nere laun ori? Zerorrek esana bait-da: Nik betetzen det zerua eta lurra.</u> (Uts., I) <sup>12</sup> | Obeki esan, ez nintzake Zugan ez ba'nintza; «Zugandik, Zugatik, Zugan baitira oro?» (Ierem. 23, 24). Baiki, launa, baiki. Nora dagizuket dei Zuri, nerau Zugan egonik? edo-ta nundik zatozkiket? nora dagiket iges zeru ta lurretik at, nigana etor zaitezen nere laun ori? Zerorrek esana bait-da: «Nik betetzen det zerua eta lurra». (A, 10, 20-11, 2) |

jaso ditugu. Eskuz egindako letra eta marka guztiak m5-ek erabili zuen tinta urdina bezalako batekin daude, honako salbuespen hauek izan ezik: 3.eko «Zerorrek... lurra» pasarteko hitzen azpiko marra tinta gorritz dago eginda, eta 13.eko «26» zenbakia arkatz gorri batekin —hau da, m3-k B-prior-eko orrietan erabili zuena bezalako batekin—.

<sup>10</sup>«gizontto» hitzaren *t*-aren 'gangarra' eskuz gehituta dago; orobat «gañera» hitzaren ondoko koma.

<sup>11</sup>B-n, berez, gurutze moduko bat dago, paragrafo honen eta hurrengoaren arteko zurian (ikus 180 or. eta bertako 101 oh.): hemen paragrafoaren ikurraren bidez islatu dugu. Orixek B ontzeko erabili zuen BAC-eko 1946ko edizioak ez zuen ezkerreko zutabearen taketen artean sartu dugun pasartea, bai ordea Lekuonak erabili zuen BAC-eko 1955ekoak: honen historiaz ikus 180-181 or.

<sup>12</sup>«Ierem.» laburduraren lehendabiziko *e* eskuz sartuta dago; «Baiki» hitzetik «nere laun ori» hitzetarainoko azpimarratua (dokumentu honetan azpimarratuta agertzen diren gainerako hitzak ez bezala) eskuz dago eta hitzak bereiziz egina («lurretik at» hitzen salbuespenarekin); gauza berbera gertatzen da «Zerorrek» hitzetik bukaeraraino, baina tinta gorri batekin (hemen ere «Nik betetzen» hitzek marra bakar batek azpimarratuak daude). Ikus, dena den, XXIII irud.

- |   |  |  |  |
|---|--|--|--|
| 4 Et susceperunt<br>me consolationes<br>miserationum<br>tuarum, sicut audiui<br>a parentibus carnis<br>meae, <i>ex quo et in<br/>qua</i> me formasti in<br>tempore, non enim<br>ego memini. (I, 6, 7) | Eta Zure errukiaren<br>atsegiñek iaso ninduten<br>— <b>gurasoek esana<br/>dakit</b> — aldian gatzatu<br>ninduzunetik, ez bainaiz<br><b>oroitzen</b> . (B, 4 or.)           | ...gurasoek esana<br>dakit, aldian,<br><u>batengandik</u><br><u>bestcarengan gatzatu</u><br><u>ninduzunek esana</u> ;<br>ez bait-naiz oroitzen.<br>(Uts., I) | Eta Zure errukiaren<br>atsegiñek iaso omen-<br>ninduten —gurasoek<br>esana dakit, aldian,<br>batengandik<br>bestcarengan gatzatu<br>bait-ninduzu<n>;<br>aiek-esana, ez bainaiz<br>oroitzen—. (A, 14,<br>15-18) |
| 5 Tu etiam mihi dabas<br>nolle amplius, quam<br>dabas, et nutrientibus<br>me dare mihi velle<br>quod eis dabas [...]<br>(I, 6, 7)   | Zuk ematen zenidan,<br>are, <b>Zuk emana</b> baiño<br>geiago ez nai izatea, eta<br>azi ninduteneri, <b>Zuk<br/>emana neri eman-naia</b><br>[...]. (B, 4 or.) <sup>13</sup> | ...Zuk emana <u>berak</u><br>neri eman-naia...<br>(Uts., I)  | Zuk ematen zenidan,<br>are, Zuk emana<br>baiño geiago nik ez<br>nai izatea, eta azi<br>ninduteneri, Zuk<br>emana berak neri<br>eman-naia [...] (A, 14,<br>22-15, 1)  |
| 6 Quod licet probes,<br>cum ferri aequo<br>animo eadem ipsa<br>non possunt, quando<br>in aliquo annosiore<br>deprehenduntur. (I,<br>7, 11)  | Eta ala bear, <b>zàrragoren<br/>batek</b> begi onez ezin<br>eraman ba'ditu ere. (B,<br>6 or.) <sup>14</sup>  | ...zaarragoren<br><u>batengan</u> begi<br>onez ezin eraman<br>baditugu ere. (Uts.,<br>I)   | Eta ala bear, zàrragoren<br>batengan begi onez<br>ezin eraman ba'ditugu<br>ere. (A, 18, 17-18)   |
| 7 [...] ordinator<br><i>et creator</i> rerum<br>omnium naturalium,<br>peccatorum autem<br>tantum ordinator [...]<br>(I, 10, 16)   | [...] <b>sortuzko gauza<br/>guzien ¶ antolatzaile</b> ,<br>ez, ordea obenen<br>agintzaile [...] (B, 9 or.)   | ...sortuzko gauza<br>guzien <u>egille ta</u><br>antolatzalle... (Uts.,<br>I)   | [...] sortuzko gauza<br>guzien egille ta<br>antolatzaille, ez, ordea<br>obenen agintzaile [...] (A, 22, 9-11)  |
| 8 Sed quot et quanti<br>fluctus impendere<br>temptationum post<br>pueritiam videbantur,<br>noverat eos iam illa<br>mater et terram potius<br>unde postea  | Baiña nere aurtzaro<br>ondoan ene gain zetozen<br>gr<i>ña-oidar guziak<br>gure <b>amak ezagutzen<br/>zitun</b> , eta gero<br>moldatzeko zan lur au<br>ere bai; lur ontan   | ...amak ezagutzen<br>zitun, eta <u>naiago</u><br><u>izan zuan</u> gero<br>moldatzeko zan   | Baiña nere aurtzaro<br>ondoan ene gain<br>zetozen grifa-oidar<br>guziak gure amak<br>ezagutzen zitun, eta<br>naiago izan zuan, gero<br>moldatzeko zan lur au   |

<sup>13</sup>Pasarte honen hasierako «Zuk emana» hitzen azpian dagoen marra urratu egin du, geroago, arkatx gorriak: hau da, argi dago huts egin duela bi hitz horiek azpimarratzean, hots, bigarren «Zuk emana» bakarrik nabarmendu nahi zuela —eta, izan ere, hori bakarrik aldatu du—.

<sup>14</sup>«batek» hitzean azpimarratuta dagoen bakarra *a* letra da eta, bestalde, *e* letraren gainean marra bat dago goitik behera; gutzia arkatx gorriak eginda.

- formarer, quam ipsam iam effigiem committere volebat. (I, 11, 18)
- ezarri nai baitzun Zure iduria. ¶ (B, 10 or.)
- lur au oldar oiei egotzi, lur ontan ezartzeko zan iduria bera baño. (Uts., I)
- oldar aiei egotzi, lur ontan ezartzeko zan iduria bera baño. (A, 24, 16-20)
- 9 Quid autem mirum, quod in vanitates ita ferebar et a te, Deus meus, ibam foras, quando mihi imitandi proponebantur homines, qui aliqua facta sua non mala si cum barbarismo aut soloecismo enuntiarent, reprehensi confundebantur, si autem libidines suas integris et rite consequentibus verbis copiose ornateque narrarent, laudati gloriabantur? (I, 18, 28)
- Arrigarri al da, Jauna, **ni aizekeri oek eramanik** eta Zugandik alde-<e>giñik, gertaberritzeko gizona itsusten bai luten, aren zenbait egille —ez gaizto— arrotz itzez eta izkera maketsez ialkitzen nitula-ta itsustea, ta aldiz aren lizunkeriak itz ugariz eta apaiñez ebakitzen nitulako biziki edertzea ¶ ? (B, 15 or.)<sup>15</sup>
- ...ni aizekeri oiek eramatea, eta Zugandik aldegitea, nik gertaberritzeko gizona itsusten ##### bazuten, bere zenbait egite ... izkera maketsez ialkitzen zituala-ta beste gabe ... biziki edertzen bazuten? (Uts., I)<sup>16</sup>
- Arrigarri al da, launa, ni aizekeri oek eramatea eta Zugandik alde-egite[r]a, nik gertaberritzeko gizona itsusten ba zuten, bere zenbait egite —ez gaizto— arrotz itzez eta izkera maketsez ialkitzen zituala-ta beste gabe, ta aldiz aren lizunkeriak itz ugariz eta apaiñez ebakitzen zitulako biziki edertzen bazuten? (A, 32, 15-20)
- 10 Horum ego puer morum in limine iacebam miser, et huius harenae palaestra erat illa [...] (I, 19, 30)
- Tzarkeri oen atekan etzana nindagon, aur doakabe, ta **olako iarduntokia zan** ua [...] (B, 16 or.)<sup>17</sup>
- ...olako iarduntokia zan nintzan ua... (Uts., I)<sup>18</sup>
- Tzarkeri oen atekan etzana nindagon, aur doakabe, ta olako iarduntokia nintzan ua [...] (A, 34, 7-8)
- 11 At ista omnia Dei mei dona sunt, non mihi ego dedi haec: et bona sunt et haec omnia ego. (I, 20, 31)
- Oek oro **nere Jainkoak emanak ditut**; ez dira on nere buruari eman nitiolako, ta oriek oro ¶ ni naiz. (B, 17 or.)
- ...nere lainkoak emanak ditut; ez ~~dira on~~ nik nere buruari; ta oriek oro onak dira, eta ##### oro ni naiz. (Uts., I)<sup>19</sup>
- Oek oro nere lainkoak emanak ditut; ez nik nere buruari; ta oriek oro onak dira, eta oro ni naiz. (A, 35, 24-36, 2)

<sup>15</sup>Berez, «eramanik» hitza ez dago azpimarratuta: goitik behera egindako marra bat dago *n* letraren gainean.

<sup>16</sup>«eramatea»: lehenengo «eramanik» idatzi du makinaz; ondoren, hitz bukaerako «nik» urratu eta gainean, hau ere makinaz, «tea» eskribitu du.

<sup>17</sup>«zan» ez dago azpimarratuta, baina marra bat du (*a* letraren gainean) goitik behera.

<sup>18</sup>«nintzan ua», betiere makinaz, «zan ua...» hitzen gainean idatzi da.

<sup>19</sup>Lehendabizi «ez dira on nere buruari» idatzi du; ondoren, «dira on» hitzak urratu eta, gainean eta makinaz, «nik» idatzi du.

- 12 [...] praedicta est tamen causa: «*ne per otium —inquit— torpesceret manus aut animus*». Quare id quoque? Cur ita? Ut scilicet illa exercitatione scelerum capta urbe honores, imperia, divitias adsequeretur et careret metu legum et difficultate rerum propter inopiam rei familiaris et conscientiam scelerum. (II, 5, 11)
- [...] **ark ere emana** zun beure arrazoia: «Ori ere, zergatik? Zertako? Gaiztakeri aiek egíñez Erromaz iabeturik, izena, agintea, ondasunak ukaiteko; lege-bildurra **egozteko**; irabaziaren nekeagatik, diru eskasiz, gaiztakeria ezaguteagatik. (B, 23 or.)
- ...ark ere emana zun bere arrazoia: «Geldi egonez, eskuak eta biotza baldartu etzitezzen». Ori ere zergatik? ... eta lege-bildurra, ta diru-eskasiz eta gaiztakeri ezagunezko bizibidearen zailtasuna egozteko. (Uts., I)<sup>20</sup>
- [...] ark ere emana zun beure arrazoia: «Geldi egonez, eskuak eta biotza baldartu etzitezzen». Ori ere, zergatik? Zertako? Gaiztakeri aiek egíñez Erromaz iabeturik, izena, agintea, ondasunak ukaiteko; eta lege-bildurra ta diru eskasiz, eta gaiztakeri ezagunezko bizibidearen zailtasuna egozteko. (A, 45, 17-23)
- 13 Solus non facerem furtum illud, in quo me non libebat id quod furabar, sed quia furabar; quod me solum facere prorsus non liberet, nec facerem. (II, 9, 17)
- Ez nendun lapurreta ua bakarrik egíñen, ez bainun atsegin lapurtu artaz, baiña **lapurtzen nulako**. † Egitea neri bakarrari atsegiñ ematen ez zidanik, ez nezaken iñola egin. (B, 26 or.)
- ...lapurtzen nulako; eta ori neronek bakarrik egitea, ez nuan atsegingo, eta ez egingo ere iñola. (Uts., I)<sup>21</sup>
- Ez nuan lapurreta ua bakarrik egíñen, ez bainun atsegin lapurtu artaz, baiña lapurtzen nulako; eta ori neronek bakarrik egitea, ez nuan atsegingo, eta ez egingo ere iñola. (A, 51, 5-9)
- 14 [...] in quibus vagatus sum *praeferenti* collo [...] (III, 3, 5)
- Aiekin nindabillan**, burua **makur** [...] (B, 29 or.)
- ...aiekin nindabillan, burua **makur** zut... (Uts., I)<sup>22</sup>
- Aiekin nindabillan, burua zut [...] (A, 57, 2-3)
- 15 [...] aut in una domo videat *aliquid tractari manibus* a quoquam servo, quod facere non sinatur qui pocula ministrat [...] (III, 7, 13)
- Edota etxeren batean morroi bat †** au egiten ikusi, ta mai-mutillari † uzten ez **diotelako** [...] (B, 33 or.)
- ...edota etxeren baten morroi bat zerbait eskuz ukitzen ikusi, eta mai-mutillari olakorik uzten ez diotelako... (Uts., I)<sup>23</sup>
- Edota etxeren batean morroi bat zerbait eskuz ukitzen ikusi, ta mai-mutillari olakorik uzten ez diotelako [...] (A, 64, 24-26)

<sup>20</sup>«bizibidearen» *sic*; litekeena da «lege-bildurra» hitzaren ondoren dagoen koma eskuz egina izatea.

<sup>21</sup>Testu zati honen hasieran dagoen erreferentzia, gainerako guztiak ez bezala, m3-rena bezalako arkatz gorri batekin dago eginda (hau da: lehenengo, «pag» letrak idatzi dira —makiniz—, ondoren ohiko puntutxoak eta gero testua; eskuz eskribitutako zenbakia puntutxoaren gainean ipini da).

<sup>22</sup>Lehendabizi «burua makur» idatzi du; ondoren eta gainean, oraingoan ere makinaz, «zut».

<sup>23</sup>«mai-mutillari» hitzaren «mai-» osagaiaren ondoren gehitu da: lehenengo «eta mutillari» eskribitu du eta ondoren, makinaz baita ere, «mai-» gehitu du gainean («eta» eta «mutillari» hitzen artean eskuz egindako marratxo

- |    |  |  |   |  |
|----|--|--|---|--|
| 16 | Laudet te ex illis anima mea, «Deus, creator omnium» [...] (IV, 10, 15)  | <b>Goretsi zaitza, ¶</b> launa, nere gogoak orietan [...] (B, 46 or.)  | ...Goretsi zaitza « <u>dan guziaren egille</u> launa, nere gogoak... (Uts., I)                                | Goretsi zaitza, «dan guziaren Egille launa», nere gogoak orietan [...] (A, 87, 21-22)  |
| 17 | Et quid mihi proderat, quod annos natus ferme viginti, cum in manus meas venissent aristotelica quaedam, quas appellant decem categorias [...], <i>legi eas solus et intellexi?</i> (IV, 16, 28) | Zer balio zidan ogei urtetsuz Aristotel'en <b>izan maillak</b> eskuetan <b>ukaiteak</b> , ¶ Zu aietan arki zitekelakoan? (B, 51 or.)             | ...«izan-maillak» eskuetan ukaiteak <u>ta irakurri ta aditzeak</u> ... (Uts., I) <sup>24</sup>                | Zer balio zidan ogei urtetsuz Aristotel'en «izan-maillak» eskuetan ukaiteak, eta irakurri ta aditzeak? (A, 97, 11-13)  |
| 18 | [...] sic fidelis homo, cuius totus mundus divitiarum est et quasi nihil habens omnia possidet [...] (V, 4, 7)   | [...] alaxe da doatsugo gizon zintzoa, <b>mundu aberats guziarekin</b> , eta ezer ukan gabe guzia baitauka [...] (B, 55 or.)                     | ...mundu aberats guziaren <u>jabe baita</u> , eta ezer ukan... (Uts., I)                                      | [...] alaxe da doatsugo gizon zintzoa, mundu aberats guziaren jabe baita, eta ezer-ukan gabe guzia baitauka [...] (A, 106, 15-17)  |
| 19 | [...] quin utique melior sit quam [...] negligens tui, qui «omnia in mensura et numero et pondere disposuisti». (V, 4, 7)  | [...] eta Zu <b>aldera utzi dagina baiño doatsugo</b> , naski, alakoa [...] aztaz eta neurritz ¶ baitituzu oro ezarri. (B, 55 or.) <sup>25</sup> | ...Zu aldera utzi <u>zagizana</u> baiño doatsugo ... aztaz ta neurritz <u>zuk</u> baitituzu ezarri. (Uts., I) | [...] eta Zu aldera utzi zagizana baiño doatsugo, naski, alakoa, —zoro litzake otezkoan egotea ere—, aztaz eta neurritz <u>Zuk</u> baitituzu oro ezarri. (A, 106, 19-22) |
| 20 | [...] frequentantis eleemosynas, obsequentis atque servientis sanctis tuis, nullum diem praetermittentis oblationem ad altare tuum, <i>bis die, mane et</i>                                      | Ukarra maiz zegin; Zure autatuerei gomen zegien; egunoroko Meza entzun <b>utsegin gabe</b> zetorren <b>Elizara</b> [...] (B, 59 or.)             | ...utsegin gabe <u>egunean bi aldiz, goiz eta arratsalde</u> , zetorren Elizara... (Uts., I)                  | Ukarra maiz zegin; Zure autatuerei gomen zegien; egunoroko Meza etzun utsegiten; egunean bi aldiz, gau ta arratsalde, zetorren Elizara [...] (A, 115, 28-116, 3)         |

bat eginez eta, kaxaren azpiko aldean, m5-i buruz hitz egitean ikusi ditugun azentu zirkunflexuaren antzeko ikur haietako bat ipiniz: ikus 189 or. eta 185 or. 113 oh.).

<sup>24</sup>Testu zatiazen bukaerako puntutxoak eskuz egin dira.

<sup>25</sup>«neurritz» eta «baitituzu» hitzen artean dagoena, berez, ez da goitik beherako marra bat, lerroaren kaxaren beheko aldean egindako marratxo moduko bat baizik: baina bistan da marratxo horrek bi hitzen arteko zuria markatu nahi duela, ez besterik.

*vespere, ad ecclesiam  
tuam sine ulla  
intermissione venientis*  
[...] (V, 9, 17)

- 21 Numquid etiam hoc inter contemnenda deputabimus, aut aliquid nos reducet in spem nisi nota misericordia tua, quoniam coepisti mutare nos? Et tu scis, quanta ex parte mutaveris, qui me primitus sanas a libidine vindicandi me, ut «propitius» fias etiam ceteris «omnibus iniquitatibus» meis et sanes «omnes languores» meos et redimas «de corruptione vitam meam» et corones me «in miseratione et misericordia» et saties «in bonis desiderium meum» (Ps. 102, 3), qui compressisti a timore tuo superbiam meam et mansuefecisti iugo tuo cervicem meam. Et nunc porto illud, et lene est mihi, quoniam sic promisisti et fecisti; et vere sic erat, et nesciebam, quando id subire metuebam. (X, 36, 58)

**Ez al da ori** axolatzeko aiña, edo, bein aldatzen asi nautzunez gero, bai al dut itxaropiderik Zure urrikia besterik? Zuk dakizu zenbat aldatu nautzun, lenik neure buruaren alde ateratzetik sendatu bainauzu. Beste makur guzietan alde zakit, ene miñak oro goxatzen dituzu, nere bizia ustelkeritik ateratzen, ni urrikiz koroatzen, nere naikaria onez asetzen. Nere aundinaia Zure bildurrez duzu emarazi nere lepoa zure uztarrarian ezi. Ba deramat orain eta arin zaida, Zuk agindu bezala egin baituzu. Ala zan eta nik ez iakin, eraman-bildur **nintzanean**. (B, 135 or.)<sup>26</sup>

(Zortzi errenkada kendu, Ez al da ori'tik eta ...eraman-bildur nintzanean arte (Uts., I)

<sup>26</sup>«emarazi» hitzaren ondoren koma bat gehitu du m3-k; eman dugun testua kapituluaren izenburuaren azpian badago ere, ez dago paragrafo zenbakirik.

- 22 [...] quibus me perduxisti  
*praedicare verbum, et sacramentum tuum dispensare populo tuo?* (XI, 2, 2)
- [...] orien bitartez **ekarri bainauzu** Zure itza ta ixilgordea erriari eragitera. (B, 140 or.)
- ...ekarri bainauzu erriari zure itza<sup>1</sup> erakustera ta zure Sakramentuak ematera (len «zure itza ta ixil-gordea erriari eragitera»). (Uts., I)<sup>27</sup>
- [...] orien bitartez ekarri bainauzu erriari Zure itza erakustera ta Zure Sakramentuak ematera. (A, 304, 5-7)
- 23 Nec manu tenebas aliquid, unde faceres caelum et terram; nam unde tibi hoc, quod tu non feceras, unde aliquid faceres? (XI, 5, 7)
- Eskuan ere etzendukan ezer, **zeru-lurrak artatik egiteko. Nondik ¶** Zuri au, ¶ zerbait egiteko Zuk ez egin izatea<?> (B, 142 or.)<sup>28</sup>
- ...zeru-lurrak artatik egiteko. Nondik zendukean ezer Zuk egin gaberik, Zuk andik zerbait egiteko?... (Uts.,I)
- Eskuan ere etzendukan ezer, zeru-lurrak artatik egiteko. Nondik zendukean ezer Zuk egin gaberik, Zuk andik zerbait egiteko? (A, 309, 3-6)
- 24 Si ergo verbis sonantibus et praetereuntibus dixisti, ut fieret caelum et terra, atque ita fecisti caelum et terram, erat iam *creatura corporalis* ante caelum et terram, cuius motibus temporalibus temporaliter vox illa percurreret. Nullum autem *corpus* ante caelum et terram, aut si erat, id certe sine transitoria voce feceras, unde transitoriam vocem faceres, qua diceres ut fieret caelum et terra. Quidquid enim illud esset, unde talis vox fieret, nisi abs te factum esset, omnino non esset. Ut ergo fieret *corpus*, unde ista verba fierent, quo verbo a te dictum est? (XI, 6, 8)
- Beraz, mintzo iragankorrez esan ba'zenun zeru-lurrak egin zitezela, ta ola zeru-lurrak egin, zeru-lur oriek baiño len ba-zan sorkari **mukulu** bat, aren igialdietatik mintzo ua aldizka iragan zedin. Baiña zeru-lurrak baiño len ez zan **mukulurik**; ezperen aldi gabeko mintzoz egin zenitun, aldiko mintzoa sortaraziz, zeru-lurrak zitezela esateko. Dana dala, mintzo aren sortzea Zuk egiña ez ba'zan ez zan ere. Beraz, itz auek mamitzeko **mukulu** gerta zedilla zer itzez esan zenun<?> (B, 143 or.)<sup>29</sup>
- ...gorputzki ... gorputzik ... gorputza (mukulu etab. ordez) (Uts., I)
- Beraz, mintzo iragankorrez esan ba'zenun zeru-lurrak egin zitezela, ta ola zeru-lurrak egin, zeru-lur oriek baiño len ba-zan sorkari gorpuzki bat, aren igialdietatik mintzo ua aldizka iragan zedin. Baiña zeru-lurrak baiño len ez zan gorpuzzik; ezperen aldi gabeko mintzoz egin zenitun, aldiko mintzoa sortaraziz, zeru-lurrak zitezela esateko. Dana dala, mintzo aren sortzea Zuk egiña ez ba'zan, ez zan ere. Beraz, itz auek mamitzeko gorpuzta gerta zedilla zer itzez esan zenun? (A, 310, 2-11)

<sup>27</sup>Aipua ixten duten komatxoak, parentesia ixten duen taketa eta azken puntua eskuz eginak dira.

<sup>28</sup>«izatea» hitzaren ondoren makinaz jota dagoena «9» zenbakia da: zalantzarik gabe, galdera-markaren ordeza dago, eta horrela ulertu du m3-k ere, galdera-marka bat egin baitu gainean.

<sup>29</sup>«Zuk egiña ez ba'zan» hitzen ondoren koma bat idatzi du arkatz gorriak; esaldiaren bukaeran, hots, «zenun» hitzaren ondoren dagoen puntuaren gainean, galdera-marka bat gehitu du.



- 25 Et utinam sic sciam, quidquid utiliter scire cupio, quemadmodum scio, quod nulla fiebat creatura, antequam fieret ulla creatura. (XI, 12, 14)
- Ai nekike onela nere onerako iakin gura nai <nukena> au dakidan bezala: zer<u>-lurrok egin aurrean ez zala sorkaririk egiten. (B, 145 or.)<sup>30</sup>
- ...zeru-lurrak egin aurrean ez zala sorkaririk egiten sorkariak egin aurrean. (Uts., II)
- Ai nekike onela nere onerako iakin gura nai <nuke(c)na> au dakidan bezala! ez zala sorkaririk egiten, sorkariak egin aurrean. (A, 315, 16-18)
- 26 Quis igitur negat futura nondum esse? Sed tamen iam est in animo exspectatio futurorum. Et quis negat praeterita iam non esse? Sed tamen est adhuc in animo memoria praeteritorum. Et quis negat praesens tempus carere spatio, quia in puncto praeterit? (XI, 28, 37)
- Nork ukatu beraz, gerokorik oraindik ez dala? Alare gogoan dago lengoen oroimena. Ta nork uka oraiñak tarterik ez dula, lipar batean iragan oi dalako <?> (B, 153 or.)<sup>31</sup>
- ...gerokorik oraindik ez dala? (Peitu da:) Alare gogoan dago gerokoen itxaropena. Ta nork uka, lengorik dagoneko ez dala? (Uts., II)<sup>32</sup>
- Nork ukatu, beraz, gerokorik oraindik ez dala? Alare gogoan dago gerokoen itxaropena. Ta nork uka lengorik dagoneko ez dala? Alare gogoan dago lengoen oroimena. Ta nork uka «oraiñak» tarterik ez dula, lipar batean iragan oi dalako? (A, 334, 11-16)
- 27 At ille, qui non aliter accipit: «in principio fecit», quam si diceretur: primo fecit, non habet quomodo veraciter *intellegat caelum et terram*, nisi materiam caeli et terrae intellegat [...] (XII, 29, 40)
- Baiñan «asieran egin zitun» 'lenik egin zitun' bestetara ulertzen ez dunak, ez dauka egiz zeru-lurren gaia ulertzen ez ba'du [...] (B, 171 or.)
- ...ez dauka egiz zeru-lurrak ulertzerik zeru-lurren gaia... (Uts., II)
- Baiñan «asieran egin zitun» *lenik egin zitun* bestetara ulertzen ez dunak, ez dauka egiz zeru-lurrak ulertzerik, zeru-lurren gaia ulertzen ez ba'du [...] (A, 372, 3-5)
- 28 Sic est prior materies quam id, quod ex ea fit; non ideo prior, quia ipsa efficit, cum potius fiat, nec prior *intervallo temporis*. (XII, 29, 40)
- Orrela gaia len da artatik egiña baiño; ez ordea, len ark egiten dulako egiña baita, obeki esan ez eta aurretik ere: (B, 171 or.)
- ...ez eta aurretik noizaldiz ere... (Uts., II)
- Orrela gaia len da, artatik egiña baiño; ez, ordea, len, ark egiten dulako, egiña baita, obeki esan; ez eta noizaldiz ere. (A, 372, 23-373, 1)

<sup>30</sup>«bezala» hitzaren ondoren makinaz dauden bi puntuen gainean harridura-marka gehitu du lapitz gorriak.

<sup>31</sup>Esaldi akaberako galdera-marka arkatx gorriak gehitutakoa da.

<sup>32</sup>«dago» hitzaren g-aren gainean (kasu honetan ez lerroaren kaxaren gainean, makinaz jotako letra bera berridatziz baizik) eskuz egindako g bat dago: honi buruz ikus gorago 189 or.

- |    |   |   |   |   |
|----|---|---|---|---|
| 29 | [...] et ideo cantus in sono suo vertitur, qui sonus eius materies eius est [...] (XII, 29, 40)   | [...] orregatik soifua an biurtzen da kantu ta soifū ori du gai [...] (B, 171 or.)  | ...da kantu, ta <u>kantuak</u> soñu ori du gai... (Uts., II)      | [...] orregatik soifua bera da kantu, ta kantuak soifū ori du gai [...] (A, 373, 8-9)                                 |
| 30 | Et ideo, sicut dicebam, prior materies sonandi quam forma cantandi: non <i>per faciendi potentiam</i> prior [...] (XII, 29, 40)             | Beraz, len niagona, soifū gaia lenik, kantaera gero, ez lenik egiteko gai dalako [...] (B, 171 or.) <sup>33</sup>               | ...egiteko gai <u>indardun</u> dalako (Uts., II)                  | Beraz, len niagona, soifū-gaia lenik, kantaera gero; ez lenik, egiteko indardun dalako [...] (A, 373, 10-11)          |
| 31 | Hoc exemplo qui potest intellegat materiam rerum primo factam et appellatam caelum et terram [...] (XII, 29, 40)                            | Adibide ontaz âl dunak uler beza gauzen gaia lenik egiña ta zeru[-] ta lur izendatua [...] (B, 171 or.)                         | ...uler beza <u>nola dan</u> gauzen gaia... (Uts., II)            | Adibide ontaz âldunak uler beza, nola dan gauzen gaia lenik egiña ta zeru ta lur izendatua [...] (A, 373, 17-19)      |
| 32 | [...] iamque in temporibus simul animadvertitur, nec tamen de illa narrari aliquid potest, nisi velut tempore prior sit [...] (XII, 29, 40) | Aldiekin batean autematen dugu; alare artaz ez diteke ezer esan noizean, len ez baitzan [...] (B, 171 or.)                      | ...ezer esan <u>ez diteken arren</u> noizean... (Uts., II)        | Aldiekin batean autematen dugu alare, artaz ezer esan ez diteken arren noizean, len ez baitzan [...] (A, 373, 21-23)  |
| 33 | Quid enim te promeruit «caelum et terra», quae fecisti «in principio»? (XIII, 2, 2)   | Ze sor zituten bada, asieran egin zenitun zeru-lurrek [...] (B, 173 or.) <sup>34</sup>  | ...Ze zor <u>zituten zenien</u> , bada... (Uts., II)              | Ze zor zenien, bada, asieran egin zenitun zeru-lurrei? (A, 378, 13-14)  |
| 34 | Dicant, quid te promeruerunt spiritalis corporalisque natura, quas fecisti in sapientia tua [...] (XIII, 2, 2)                              | [...] esan bezate ze zor zizuten Zure Zugurtasunez egin zenitun sorkari, gogaki eta mukulukiak [...] (B, 173 or.) <sup>35</sup> | ...ze zor <u>zizuten zenien</u> , zure zugurtasunez... (Uts., II) | [...] esan bezate, ze zor zenien? Zure Zugurtasunez egin zenitun sorkari, gogaki eta mukulukiak [...] (A, 378, 14-16) |

<sup>33</sup>«kantaera» hitzean, *r* letraren gainean, marra bat egin du goitik behera arkatz gorriak.

<sup>34</sup>«sor» hitzaren *s* letraren gainean *z* bat idatzi du lapitz gorriak, eta «zeru-lurrek» hitzaren *k* letra ere nabarmendu egin du; arkatz urdinak zerbait idatzi du «zituten» hitzaren gainean: «zenien», itxura guztien arabera (ikus 155 eta 158 or.).

<sup>35</sup>Lapitz urdinak «zenien» idatzi du makinaz jotako «zizuten» hitzaren gainean (ikus, honetarako ere, 155 eta 158 or.), eta «mukulukiak» hitzaren bukaerako *k* ere nabarmendu egin dute arkatzaren bi muturrek (ikus 155 or. eta bertako 57 oh.).

- 35 [...] et requiesceret in Spiritu tuo, qui superfertur incommutabiliter super omne mutabile. *Alioquin et ipsum «caelum caeli» tenebroso abyssus esset in se; «nunc autem lux est in Domino»* (Eph., 5, 8). Nam et in ipsa misera inquietudine [...] (XIII, 8, 9)
- [...] ta aldakor oroen gain aldagabe doan Zure Arnasagan atseden ez balu. Zure argiz erantzirik (B, 176 or.)
- ...(Peitu da) # Bestela «orain launagan argi dan zeruen zerua» ere, osin illun litzake bere baitan. Zure argiz erantzirik... (Uts., II)
- [...] ta aldakor oroen gain aldagabe doan Zure Arnasagan orok atseden ez balu. Bestela, «orain launagan argi dan zeruen l zerua» ere, osin illun litzake bere baitan. Zure argiz erantzirik [...] (A, 383, 24-384, 4)
- 36 Corpus pondere suo nititur ad locum suum. *Pondus non ad ima tantum est, sed ad locum suum.* Ignis sursum tendit, deorsum lapis. (XIII, 9, 10)
- Mukuluak bere aztaz, bere tokira du ioera. Suak ioera gora, arriak bera [...] (B, 176 or.)
- ...tokira du ioera. Azta ez da beerako bakarrik; bere tokirako baizik. Suak ioera gora... (Uts., II)
- Mukuluak bere aztaz, bere tokira du ioera. Azta ez da beerako bakarrik; bere tokirako baizik. Suak ioera gora, arriak bera [...] (A, 385, 8-10)
- 37 Dono tuo accendimur et sursum ferimur; inardescimus et imus, ascendimus «ascensiones in corde» et cantamus «canticum graduum» (Ps. 73, 6). (XIII, 9, 10)
- Zure doaiez goaz gora ta gora igoaz, sutzen gera ta bagoaz, igotzen ditugu biotzean eta zurubi-kanta kantatzen dugu. (B, 176 or.)
- ...igotzen ditu igoerak biotzean... (Uts., II)<sup>36</sup>
- Zure doaiez goaz gora ta gora igoaz; sutzen gera ta bagoaz; «igotzen ditugu igoerak biotzean, eta zurbil-kanta kantatzen dugu». (A, 385, 15-18)
- 38 Beata creatura, quae non novit aliud, cum esset ipsa aliud, nisi dono tuo, quod superfertur super omne mutabile, mox ut facta est, attolleretur nullo
- Sorkari doatsua besterik ezagu gabe, bera besterik dala, egin zuten orduko aldakor guzien gain doa Zure doaiez, aldiunerik gabe, Zuk deitu zenun artara
- ...besterik ezagu eztuna, bera beste#rako izanik, egin zuten orduko ... eraikia izan ez balitz. Zuk deituz: «Bedi argia... (Uts., II)
- Sorkari doatsua! besterik ezagu eztuna, bera besterako izanik, egin zuten orduko aldakor guzien gain dan Zure doaiez, aldiunerik

<sup>36</sup>«ditu» sic; hutsa da, noski (ikus A-ko testua).

- intervallo temporis in ea vocatione, qua dixisti: «Fiat lux», et fieret «lux». (XIII, 10, 11)      eraikia! Bedi argia, ta ba'zan argia. (B, 177 or.)      gabe, artara eraikia izan ez balitz Zuk deituz: «Bedi argia, ta sortu zan argia». (A, 386, 3-6)
- 39 [...] «in nomine tuo baptizati» sumus (I Cor., 1, 15), Pater et Fili et Spiritus Sancte, in nomine tuo *baptizamus*, Pater et Fili et Spiritus Sancte, quia et *apud nos* in Christo suo «fecit Deus caelum et terram», spirituales et carnales Ecclesiae suae [...] (XIII, 12, 13)      Zure izenean ukuziak gera, Aita eta Seme ta Gogo Guren Zure izene<a>n ukuziak, gureztat ere egin baitzitun bere Kristoagan zeru-lurrak, bere elizako gogakoi ta aragikoi [...] (B, 177 or.)      ...ukuzten degu; eta gure artean (gureztat)... (Uts., II)      «Zure izenean ukuziak gera», Aita eta Seme ta Gogo Guren; Zure izenean ukuzten dugu; eta gure artean ere egin baitzitun bere Kristogan «zeru-lurrak», bere elizako gogakoi ta aragikoi [...] (A, 387, 24-388, 3)
- 40 [...] «poenitentiam agite, appropinquavit enim regnum caelorum; *poenitentiam agite*: «fiat lux» (Matth., 3, 2) (XIII, 12, 13)      [...] damu zaitetzte, zeru-erria urbildu baita; damu zaitetzte; bedi argia. (B, 177 or.)      ...urbildu baita; «damu zaitetzte» «ezazute damu»... (Uts., II)      [...] «damu zaitetzte, zeru-erria urbildu baita»; «ezazute damu»; «bedi argia». (A, 388, 9-10)
- 41 [...] et conversi sumus ad te, et «facta est lux». *Et ecce fuimus* «*aliquando tenebrae, nunc autem lux in Domino*» (Eph., 5, 8) (XIII, 12, 13)      [...] eta Zugana itzuli giñan eta egin zan argia (B, 178 or.)<sup>37</sup>      ...«egin zan argia». (Paitu da:) Eta iñoiz illun izandakuok orain argi gera Jaunagan. (Uts., II)      [...] eta Zugana itzuli giñan eta «egin zan argia». Eta «iñoiz illun izandakuok, orain argi gera Jaunagan». (A, 388, 13-15)
- 42 [...] et illi zelat: «*amicus*» est enim «*sponsi*»; illi zelat, non sibi, quia «in voce cataractarum      [...] eta aren atazean dago, ez berean; berean ez-baiña Zure mintzoaren ur-      ...ataizean dago; senargaiaren adiskide baita, eta aren atazean dago; ez berean... (Uts.,      [...] eta aren atazean dago; senargaiaren adiskide baita, eta aren atazean dago, berean ez-baiña «Zure

<sup>37</sup>B-n ez dago punturik paragrafoaren azken hitza den «argia» honen ondoren.

- |    |   |  |   |  |
|----|---|--|---|--|
|    | tuarum», non in voce sua, «invocat» alteram «abyssum» (Ps., 41, 8) (XIII, 13, 14)   | iauzietan deitzen baitu beste oziña (Ps. 58, 8) [...] (B, 178 or.) <sup>38</sup>   | II)   | mintzoaren ur-iauzietan deitzen baitu beste oziña» (Ps. 58, 8) [...] (A, 389, 18-20)   |
| 43 | [...] oriatur de «terra veritas», et «iustitia de caelo» <i>respiciat</i> (Ps., 84, 12) (XIII, 18, 22)  | [...] sortu bedi lurretik egia ta zuzentasunak ¶ zerutik» (Ps. 84, 12) [...] (B, 181 or.) <sup>39</sup>  | ...lurretik egia, ta Zuzentasunak <u>begira beza</u> zerutik... (Uts., II)  | [...] «sortu bedi lurretik egia ta zuzentasunak begira beza zerutik» (Ps. 84, 12) [...] (A, 395, 13-14)  |
| 44 | «Nolite conformari huic saeculo», <i>consequetur illud, quod adiunxisti statim et dixisti:</i> «sed reformamini in novitate mentis vestrae» (Rom., 12, 2), non iam «secundum genus» [...] (XIII, 22, 32)  | [...] mundu ontako antzik ez artu, alda zaitezte, ordea, gogoa berrituz (Rom. 12, 12) ez zuen arira [...] (B, 184 or.)   | ...alda zaitezte ordea» (Rom. 12, 12), <u>iritxiko da oietaz gañera esan zenduana: «Alda zaitezte gogoberrituz,</u> ez zuen arira... (Uts., II)   | [...] «mundu ontako antzik ez artu, alda zaitezte, ordea» (Rom. 12, 12), iritxiko da oietaz gañera esan zenduana: «Alda zaitezte gogo berrituz, ez zuen arira» [...] (A, 404, 3-5)   |
| 45 | [...] «Reformamini —inquit— in novitate mentis vestrae» ad probandum vos, «quae sit voluntas Dei, quod bonum et perfectum» (Rom., 12,2). <i>Ideoque non dicis «fiat homo», sed «faciamus», nec dicis «secundum genus», sed «ad imaginem et similitudinem nostram». Mente quippe renovatus et conspiciens intellectam veritatem tuam homine demonstratore non indiget, ut suum</i> | [...] «alda zaitezte, esan zun, gogoa berrituz, lainkoaren gura on, atsegingarri ta bikaña ezaguteko» (Rom. 12, 2) eta gai egiten duzun Bakarraren Irutasuna edo iruren batasuna ikusteko. Beraz, zenbaitentzat esanik, eta gogakoi bihurturik, ebaz-bear oro ebazten du; bera, berriz, ez du iñork ebazten. (I Cor. 2, 15) (B, 184-185 or.) | ...(Rom. 12, 2 <u>Orregatik ez diozu «bedi gizona», baizik-eta «egigun gizona»; ezta, ez diozu «bere arian», baizik-eta «gure iduri eta antzera». Bein gogoa berrituzkero ta ulertutako zure egia begi-aurrean duala, ez bait-du gizon erakustalle bearrik «zure gura on, atsegingarri ta bikaña ezaguteko», eta gai egiten ### duzu Bakarraren Irutasuna edo Iruren Batasuna ikusteko.</u> | [...] «alda zaitezte, esan zun, gogoa berrituz, lainkoaren gura on, atsegingarri ta bikaña ezaguteko» (Rom. 12, 2). Orregatik ez diozu «bedi gizona», baizik-eta «egigun gizona»; eta ez diozu «bere arian», baizik-eta «gure iduri eta antzera». Bein gogoa berrituzkero ta ulertutako zure egia begi aurrean duala, ez bait-du gizon erakustalle bearrik «zure gura on, atsegingarri ta bikaña ezaguteko», eta gai egiten duzu Bakarraren Irutasuna edo Iruren |

<sup>38</sup>«ataizean» azpimarratuta dago, baina, seguruenik —eta hainbestetan bezala: ikus 139 or.—, hiztegi ohar bat behar duela adierazteko: izan ere, jaso egin da 1956ko edizioaren bukaerako «Iztegitxoa» delakoan (ikus 331 or.).

<sup>39</sup>B-prior-en «so beza» proposatu du tinta urdinak: ikus 183 eta 186-187 or.

*genus imitetur, sed te demonstrante probat ipse, «quae sit voluntas tua, quod bonum et beneplacitum et perfectum», et doces eum iam capacem videre trinitatem unitatis vel unitatem trinitatis. Ideoque pluraliter dicto: «faciamus hominem», singulariter tamen infertur et fecit Deus hominem et pluraliter dicto: «ad imaginem nostram», singulariter infertur: «ad imaginem Dei». Ita «homo renovatur in agnitionem Dei secundum imaginem eius, qui creavit eum» (Col., 3, 10), et spiritualis effectus «iudicat omnia», quae utique iudicanda sunt, ipse autem «a nemine iudicatur» (I Cor., 2, 15). (XIII, 22, 32)*

46 Volo etiam dicere, Domine Deus meus, quod me *consequens* tua Scriptura commonet [...] (XIII, 25, 38)

Esan nai ere dut, en<e> Iainko Iauna, Zure Idaztiak dagokala esaten didana [...] (B, 187 or.)

Eta orregatik, askoren izenean esan arren «egigun gizona», gero bakarki biurtzen duzu «eta egin zuan Iain##koak gizona»; eta askoren izenean esan arren «gure iduri eta antzera», bakarki biurtzen duzu «Iainkoaren idurira». Orrela «gizona berritzen da Iainkoaren ezaguerara, bera egin zuanaren irudiaren arauz» (Col. 3, 10); (Uts., II)<sup>40</sup>

Batasuna ikusteko. Eta orregatik, askoren izenean esan arren: «egigun gizona», gero bakarki biurtzen duzu «eta egin zuan Iainkoak gizona»; eta askoren izenean esan arren: «gure iduri eta antzera», bakarki biurtzen duzu «Iainkoaren idurira». Orrela, «gizona berritzen da Iainkoaren ezaguerara, bera egin zuanaren irudiaren arauz» (Col. 3, 10); eta gogakoi biurturik, ebazbear oro ebazten du; bera, berriz, ez du inork ebazten. (I Cor. 2, 15). (A, 404, 11-28)

...zure Idaztiak dagokala geroxeago esaten didana... (Uts., II)<sup>41</sup>

Esan nai ere dut, ene Iainko Iauna, Zure Idaztiak geroxeago esaten didana [...] (A, 410, 6-7)

<sup>40</sup>Pasarte honetan zuzenketa ugari egin dira eskuz: «egigun» hitzaren *i* letra —beste zerbait baitzegoen makinaz jota—; «gure iduri eta antzera» esaldiaren lehenengo agerraldiaren «eta»-ren *a* letra; «begi-aurrean», berez, honela dago —urratua ere eskuz dagoelarik—: «begi-aur#- | trean»; «eta gai egiten ##### duzu» zatian ere urratua eskuz dago; azkenik, «egin zuan Iainkoak gizona» esaldian, «Iain##koak» hitzaren bigarren *#*-a eskuz dago eta orobat testuan ere jaso den urratua.

<sup>41</sup>«dagokala» hitza, makinaz urratua egoteaz gain, eskuz ere urratua dago lehenengo lau letretan.

- 47 Nec solum ait: «qui calicem aquae frigidae potum dederit uni ex minimis meis», sed addidit: «tantum in nomine discipuli» hoc facere (Matth., 10, 41) [...] Nec interior Helias, sed exterior *pascetur*, qui posset etiam talis cibi egestate corrumpi. (XIII, 26, 41)
- Ez diago are «antoxin bat ur otx txikien auetako bati ematen diona» baiñan «ikasle izenean» bakarrean. [...] Elias barnekoia ez-baiñan agerikoa; ianari ua gabe akitu baitziteken. (B, 188 or.)
- ...ematen diona» bakarrrik, «ikasle izenean» baizik ... Elias barnekoia ez-baiñan, agerikoa alatzun zun; ianari... (Uts., II)
- Ez diago are «antoxin bat ur otx, txikien auetako bati ematen diona» bakarrik «ikasle izenean» baizik. [...] Elias barnekoia ez-baiñan, agerikoa alatzun zun; ianari ua gabe akitu baitziteken. (A, 413, 8-18)
- 48 [...] per quem videmus, quia bonum est, quiddid aliquo modo est: ab illo enim est, qui non aliquo modo est, sed est est. (XIII, 31, 46)
- Aren bidez ikusten dugu nolabait on danik on dala. Aragandik baita nolabait dana ez ezen izan ba-dana. (B, 190 or.)
- ...on dala; nolabait dan oro, izan ba-dan Arengandik bait-da. (Uts., II)
- Aren bidez ikusten dugu, nolabait dan oro on dala; nolabait dan oro, izan ba-dan Arengatik bait-da. (A, 418, 10-12)
- 49 Laudant te opera tua ut amemus te, et *amamus te* ut laudent te opera tua. [...] De nihilo enim a te, non de te facta sunt, non de aliqua non tua vel quae antea fuerit, sed de concreata, id est simul a te creata materia, quia eius informatem sine ulla temporis interpositione formasti. (XIII, 33, 48)
- Gora zaitzate Zuk egiñak; maita zaitzagun, eta maita zaitzagun, Zuk egiñak gora zaitzaten. [...] Zuk utsetik egiñak baitira, ez Zugandik. Zure ez'etik edo len zanetik ez-baiña, batean irazanetik, ots, Zuk gaiarekin batean irazanetik; aren eitegabea noiz-tarterik gabe antola baitzenun. (B, 191 or.)<sup>42</sup>
- ...eta maita zaitugu, Zuk egiñak gora zaitzaten ... irazaneko gaietik ... tarterik gabe eitetu baitzenun... (Uts., II)
- Gora zaituzte Zuk egiñak, maita zaitzagun; eta maita zaitugu, Zuk egiñak gora zaitzaten. [...] Zuk utsetik egiñak baitira, ez Zugandik. Zure ezetik edo len zanetik ez-baiña, batean irazanetik, ots, Zuk batean irazaneko gaietik aren eitegabea noiz-tarterik gabe eitetu baitzenun. (A, 419, 21-420, 4)

<sup>42</sup>Itxura guztien arabera, zati hau itzultzerakoan Orixek erabili zuen latin eredia ez zen ezkerreko zutabearen eman dugun BAC-ekoa izan, honako hau baizik: «*Laudent* te opera tua ut amemus te, et *amamus* te ut laudent te opera tua» (ikus II erans.); berriz, Lekuonak bere zuzenketa egitean aurrean izan zuena ezkerreko zutabekoa bezalakoa zen, zalantzarik gabe. Ikus, eredu desberdin bati zor zaion aldaketa honi buruz —eta pasarte honen hasieran bertan probetan gertatu zen era bereko beste aldaketa bati buruz—, 208-209 or.

- 50 [...] atque inde tibi soli mentem subditam et nullius auctoritatis humanae ad imitandum indigentem renovasti ad imaginem et similitudinem tuam [...] (XIII, 34, 49)
- Eta geroenik Zure Bakarraren eta ez giza-aginpidearen Zure iduri ta antzera berritu zenun<-> (B, 192 or.)
- ...zure Bakarraren mendeko eta ez giza-aginpidearen bearrekoa... (Uts., II)<sup>43</sup>
- Eta geroenik Zure Bakarraren mendeko eta ez giza-aginpidearen bearreko, Zure iduri ta antzera berritu zenun. (A, 421, 12-14)
- 51 [...] hoc praeoquatur nobis vox libri tui, quod et nos post opera nostra ideo «bona valde», quia tu nobis ea donasti, sabbato vitae aeternae requiescamus in te. (XIII, 36, 51)
- [...] au iragartean digu Zure Liburuaren mintzoak guk ere gure lanen ondotik —Zuk oso onak eman zenitugulako— betiko bizitzaren larunbatean atsedeen dezagun. (B, 192 or.)
- ...Zuk oso onak izatea eman zenitugulako -- atsedengo degula (dezagun). (Uts., II)
- [...] au iragartean digu Zure Liburuaren mintzoak, guk ere gure lanen ondotik —Zuk oso onak izatea eman zenitugulako— betiko bizitzaren larunbatean atsedengo dugula. (A, 422, 11-14)<sup>44</sup>
- 52 A te petatur, in te quaeratur, ad te pulsetur: sic, sic accipietur, sic invenietur, sic aperietur (Matth., 7, 8). (XIII, 38, 53)
- Zuri eska, Zugan billa, Zurean io dezagun. **Onela ¶ dugu** arkituko, onela zaigu idekiko. (B, 193 or.)<sup>45</sup>
- ...dezagun. Onela, onela dugu artuko, onela dugu arkituko... (Uts., II)<sup>46</sup>
- Zuri eska, Zugan billa, Zurean io dezagun. Onela, onela dugu artuko, onela dugu arkituko, onela zaigu idekiko. (A, 423, 21-23)

Lekuonak paper hauetan egin dituen zuzenketa guztiak Orixeren itzulpenean zeuden ezabatzeak betetzeko ez badira ere —izenburuak iragartzen zuen bezala, baldin eta *hutsunea* hitza orain behintzat hedatuena dagoen adieran ulertu behar bada eta ez, zentzu zabalago batean, edozein akats mota duen pasarte adierazteko—, gehien-gehienak itzulpen leialago bat egiteko proposatu ditu, hau da, euskarazko itzulpena jatorrizko latinera hurbilagotzeko. Batzuetan, izan ere, ezabatze soil bat bete da eta beste batzuetan —gehienetan, zalantzarik gabe— itzulpen oker bat zuzendu nahi izan da, jatorrizko testuaren hitz edo esaldiren bat jaso gabe egon edo ez egon.<sup>47</sup>

Orixeren itzulpena latinarekiko leialtasunaren aldetik zuzendu nahi duten gehiketa eta zuzenketa hauen artean badira aipamen berezia merezi duten batzuk. Batzuetan, esaterako,

<sup>43</sup>«bearre- l koa»: marratxoa eskuz dago.

<sup>44</sup>A-k «degula» dakar, baina liburuaren akaberako «Okerrak zuzentze» delakoak «dugula»: ikus 190-191 or. eta bertako 4 oh.

<sup>45</sup>Gogora lehenengo «arkituko» horretan «ki» letrak ezabatu dituela m3-k (157 or.).

<sup>46</sup>Ohar bedi lehenengo «dugu» idatzi zuela azpimarratutako «dugu» hitzaren tokian, eta ondoren, betiere makinaz, «dugu» jo zuela (honetaz ere ikus 190-191 or. 4 oh.).

<sup>47</sup>Ez da beti erraza egiaztatzen non gertatu den ezabatze soil bat eta non hitz bat edo pasarte bat kontuan hartu ez izatetik sortutako ulertze —eta, hortaz, itzultze— huts bat; hala eta guztiz ere, esan genezake honako kasu



Lekuonak eta Orixek erabili dituzten latin testuak ez datoz bat, eta hemendik sortu zaio Lekuonari Orixeren testua zuzendu beharra: horrela, 3. zenbakian Lekuonak gehitu duen pasartea ez zegoen Orixek B ontzeko erabili zuen BAC-eko 1946ko edizioan (ikus, honetaz, 194 or. 11 oh.); eta badirudi eredu desberdinak izan dituztela 49. zenbakiko testurako ere: B-ko «eta maita zaitzagun» edizio zahar askotan irakurtzen den «et amemus te» bati dagokio, eta Lekuonaren zuzenketa, «eta maita zaitugu» alegia, BAC-ekoak eta oraingo edizio gehienek dakarten «et amamus te» irakurketari.<sup>46</sup> Beste batzuetan Lekuonaren zuzenketa dago oker edo, gutxienez, ez du Orixerena ezertan hobetzen. Horrelakoa da, esaterako, 4. zenbakikoa:

Et susceperunt  
me consolationes  
miserationum  
tuarum, sicut audivi a  
parentibus carnis meae,  
*ex quo et in qua* me  
formasti in tempore,  
non enim ego memini.  
(I, 6, 7)

Eta Zure errukiaren  
atsegiñek iaso ninduten  
—**gurasoek esana**  
**dakit**— aldian gatzatu  
ninduzunetik, ez  
bainaz **oroitzen**. (B,  
4 or.)

...gurasoek esana dakit,  
aldian, **batengandik**  
**bestearengan gatzatu**  
**ninduzunetik esana**;  
ez bait-naiz oroitzen.  
(Uts., I; 4 zenb.)

Eta Zure errukiaren  
atsegiñek iaso omen-  
ninduten —gurasoek  
esana dakit, aldian,  
batengandik  
bestearengan gatzatu  
bait-ninduzu<n>;  
aiek-esana, ez bainaz  
oroitzen—. (A, 14,  
15-18),

«batengandik bestearengan gatzatu *ninduzunetik esana*» (etzana nirea) ez baitago Agustinen latinetik hurbilago; baina, hemen ere, zuzendu zen okerra A-ra iritsi baino lehenago (ikus 258 eta 289 or.). Ez zen inoiz zuzendu, berriz, 10. zenbakikoa:

Horum ego puer  
morum in limine  
iacebam miser, et huius  
harenae palaestra erat  
*illa* [...] (I, 19, 30)

Tzarkeri oen atekan  
etzana nindagon, aur  
doakabe, ta **olako**  
**iarduntokia zan** ua  
[...] (B, 16 or.)

...olako iardun-tokia  
**zan nintzan** ua... (Uts.,  
I; 10 zenb.)

Tzarkeri oen atekan  
etzana nindagon, aur  
doakabe, ta olako  
iarduntokia nintzan ua  
[...] (A, 34, 7-8),

eta zaila da hemen irudiztatzea zerk eraman zezakeen Lekuona era honetako itzulpen bat proposatzera. 46.ean, agidanean, ez du ulertu «dagokala» hitza:

Volo etiam dicere,  
Domine Deus meus,  
quod me *consequens* tua  
Scriptura commonet  
[...] (XIII, 25, 38)

Esan nai ere dut, en<e>  
Iainko Iauna, Zure  
Idaztiak dagokala esaten  
didana [...] (B, 187 or.)

...zure Idaztiak  
**dagokala geroxeago**  
esaten didana... (Uts.,  
II; 46 zenb.)

Esan nai ere dut, ene  
Iainko Iauna, Zure  
Idaztiak geroxeago  
esaten didana [...] (A,  
410, 6-7),

hauetan ezabatze soil bat dagoela: 1, 2, 3, 7, 16, agian 20, 26, 35, 36, 37, 41, 42, 43, 44, 45.aren zati batean, 52. Ezabatze hauetako asko —nahiz eta ez izan hau toki egokia Lekuonak «Utsuneak» dokumentuan zuzendu dituen hutsen jatorrian dauden arrazoiak aztertze—, ohi bezala, latinezko testua irakurtzean egindako *saut du même au même* banarengatik gertatu dira: horrela da, esaterako, 1, 2, 26, 36, 42, 45 eta 52 kasuetan, gutxienez.

<sup>46</sup>Eredu desberdinek sortutako zuzenketa baten aurrean gaudela berresten digu «Utsuneak» dokumentuan aipatu eta aldatu diren hitz horiek dauden esaldiaren hasierak —«Utsuneak» delakoan aipatzen ez den zati batek alegia— geroago, probetan, jasan duen beste aldaketa batek: «zaitzate B : zaituzte A» (245 or.). Berriz, ez dirudi eredu kontua denik 7 zenbakiko aldaketa: honi buruz ikus II erans.

hauxe delako, izan ere, hitz honen lehenengo agerraldia *Aitorkizunetan*; pixka bat beherago beste bi aldiz agertzen da, adiera berebean: «Orregatik diño dagokala: [...]» («Ideo secutus ait: [...]»; 188 or. = XIII, 26, 39 [412, 2]) eta «Entzun dagokana: [...]» («Quod sequitur audiam: [...]»; 188 or. = XIII, 26, 40 [412, 13]); baina Lekuonak ez ditu ukitu azken bi hauek. 48.aren kasuan gaizki zegoen esaldi bat gaizki utzi du, agian gaizkiago:

[...] per quem videmus, quia bonum est, quidquid aliquo modo est: ab illo enim est, qui non aliquo modo est, sed est est. (XIII, 31, 46)	Aren bidez ikusten dugu nolabait on danik on dala. Aragandik baita nolabait dana ez ezen izan ba-dana. (B, 190 or.)	...on dala; <u>nolabait dan oro, izan ba-dan Aragandik bait-da.</u> (Uts., II; 48 zenb.)	Aren bidez ikusten dugu, nolabait dan oro on dala; nolabait dan oro, izan ba-dan Aregatik bait-da. (A, 418, 10-12);
--	--	---	--

eta harrigarria da, latina, hemen, gardena baita; hara nola ematen duten Vega-k eta Labriollek: «[...] por el cual vemos que es bueno cuanto de algún modo es, porque procede de aquel que es, no de cualquier modo, sino ser por esencia»; «[...] et c'est par l'Esprit que nous voyons que tout ce qui existe d'une façon quelconque est bon, puisqu'il procède de Celui qui n'existe pas d'une façon quelconque, mais qui *est* absolument». Eztabaidagarria izan daiteke, azkenik, 51. kasuaren lehenengo zatia:

Gogora dezagun aldaketa hauek —edo hauetako gehienak— Lekuonak egin dituela, neurri handi batean bere *usus*-aren kontra, *Aitorkizunen* grafia Orixeren testuan bertan nagusi den aukeraren arabera bateratzeko: izan ere, *-Viñ-* multzoa duten kasu ugarietan («baña» edo «soiñu» bezalakoetan alegia) ikusi ahal dugu ez zela hau Lekuonaren usadioa, hark *-Vñ-* erabili ohi baitzuen (hots, «baña» erakoa). Ikus, honetaz, VII erans., batez ere 469-470 or.

Ekialdeko itxura nabarmenega zuten adizki arrunt batzuk aldatzen ere saiatu zen m3 B-prior-en: «ba'zirate B : ba'zerate m3», «ba'zira B : ba'zera m3», «girala B : gerala m3», etab. (Ikus, baita aldaketa hauen zergatikoei buruz ere, 160-161 or.). B-prior-etik A-ra bidean ere jarraitu egin zuen gelditzen ziren era honetako kasu gutxiak aldatzen eta, behin, B-prior-en nabarmendutako kasu batean aldaketa bera gauzatzen:

90 or. = VIII, 3, 6 [188, 21]

zira

zera

102 or. = IX, 3, 6 [216, 6]

baitzira [baitzira m3]

baitzira

133 or. = X, 35, 54 [288, 23]

girala

gerala

Gutxi dira, izan ere, baina —oker ez banago— B-prior-eko testuan ez zen era honetako bat ere gehiago m2-k eta m3-k proposatutako zuzenketak jaso ondoren (ikus, m2-ri dagokionez, 120 or.): litekeena da, jakina, hemengo hauetako bat edo beste inprimategiari egotzi beharreko *faciliores* izatea, baina *Aitorkizunen* hizkuntza korapilatsu samarrean ez da

<sup>200</sup>Hemen, *-in-* > *-iñ-* kasuan ez bezala, kontrako zentzuan egindako aldaketak ez dira zerrendatu ditugunak bezain esanguratsuak: izan ere, *ll* bi ikurrek osatzen dute (ez dezagun inoiz ahaztu *l* 'gangarduna' darabilela Orixek), *ñ* ez bezala, halako moduan non *ll* > *l* oso erraz izan baitaiteke ezabatze baten ondorioa eta ez berriaz egindako aldaketa bat. Ez dute, beraz, Lekuonaren jarrerari buruzko ondorioa deuseztatzen honako kasu hauek: «illezkor B : ilezkor A» (45 or. = IV, 8, 13 [85, 19]), «illik B : ilik A» (45 or. = IV, 8, 13 [86, 2]), «illunak B : ilunak A» (45 or. = IV, 9, 14 [86, 19]), «saltzaille B : saltzaile A» (104 or. = IX, 5, 13 [221, 22]), «billa B : bila A» (124 or. = X, 18, 27 [266, 23]) eta «soilki B : soilki A» (170 or. = XII, 28, 39 [371, 26]). Beste irizpide baten arabera neurtu behar da *-ill-* > *-il-* aldaketa (hain zuzen ere *-iñ-* > *-in-* aldaketa bezalaxe: ikus VII erans.): «maill B : mail A» (51 or. = IV, 16, 29 [98, 1]), «urbill B : urbil A» (115 or. = X, 4, 5 [247, 1]), «soill B : soil A» (160 or. = XII, 11, 14 [349, 17]), «biribill B : biribil A» (167 or. = XII, 24, 33 [365, 7]); eta agian hauekin batera sailkatu behar genuke, eta ez goiko zerrendan, «il-agiria B : ill-agiria A». Gogora dezagun aldaketa hau ere Orixen hasi zela egiten C-tik B-ra bidean eta B-prior-en bertan jarraitu: ikus 76 eta 119 or.; kasualitatea da, zalantzarik gabe, Lekuonak era honetako bat ere egin ez izana B-prior-en: gainerako testuetan egin zituenei buruz ikus VII erans.

hain hipotesi erraza.<sup>201</sup>

Inon baino nabarmenagoa da, agian, *Aitorkizunen* grafia Orixek eskaintako aukera nagusi edota onargarrienaren arabera arautu nahi izate hori zenbait hitzi gehitutako zirkunflexuan. Izan ere, bai B-ko testuan bai —seguruenik batez ere— m2-ren oharretan, zirkunflexuaren aldeko joera nabarmena da horrelakorik eraman zezateken hitzetan (ikus 121-122 or. eta, batik bat, V erans.). B-prior-eko orrietan ere Orixeren aukera honi jarraitu zion Lekuonak (ikus 161 or. eta, oraingoan ere, V erans.), eta hauen jarraipena bezala baino ezin dira ulertu B-prior-etik A-ra bidean egindako aldaketa hauek ere:

I or. [6, 7]	lênik	lenik
31 or. = III, 6, iz. [60, 17]	naste	nâste
35 or. = III, 8, 16 [67, 28]	antzirik	ântzirik
68 or. = VI, 7, 12 [138, 13]	ler	lêr
69 or. = VI, 8, 13 [139, 13]	al	âl
92 or. = VIII, 5, 10 [192, 21]	zar	zâr
92 or. = VIII, 5, 10 [192, 22]	zarra [zârra m2]	zarra
96 or. = VIII, 8, 20 [201, 5]	al	âl
97 or. = VIII, 10, 24 [204, 4]	al [âl m2]	al
97 or. = VIII, 10, 24 [204, 7]	al [âl m2]	al
98 or. = VIII, 11, 25 [205, 15]	zarragoak [zârragoak m2]	zarragoak
103 or. = IX, 4, 8 [217, 25]	al	âl
104 or. = IX, 4, 10 [220, 9]	zârra	zarra
106 or. = IX, 8, 17 [226, 8]	zâkar [zâkar m3]	zâr
106 or. = IX, 8, 17 [226, 10]	zâkar [zagar m2]	zâr
107 or. = IX, 8, 18 [226, 24]	Zagarragoen	Zârragoen
109 or. = IX, 10, 23 [231, 8]	antziz	ântziz
118 or. = X, 8, 13 [254, 7]	nasten [nâsten m3]	nasten
120 or. = X, 11, 18 [258, 11]	naste	nâste
121 or. = X, 14, 22 [261, 24]	nasten	nâsten
122 or. = X, 16, iz. [263, 9]	Auztea [Ânztea m3]	Anztea
122 or. = X, 16, 24 [263, 10]	Auztea [Ânztea m3]	Anztea
122 or. = X, 16, 24 [263, 21]	ântzi	ântzi
127 or. = X, 23, 34 [273, 12]	nasten	nâsten
127 or. = X, 24, 35 [274, 7]	antzi	ântzi
127 or. = X, 24, 35 [274, 9]	antzi	ântzi
128 or. = X, 27, 38 [276, 7]	zar	zâr
131 or. = X, 33, 49 [284, 6]	nasten	nâsten
134 or. = X, 35, 57 [290, 25]	nasten	nâsten
140 or. = XI, 1, 1 [303, 10]	aundi	âundi
173 or. = XIII, 1, 1 [377, 6 pr.]	ântzik [ântzi m3]	antzi
173 or. = XIII, 1, 1 [377, 6]	ântzi	antzi
173 or. = XIII, 1, 1 [378, 2]	âala	âla

<sup>201</sup>Hauen zergatikoa bera du, azken batean, B-prior-etik A-ra bidean ere egindako aldaketa honek: «nire B : nere A» (66 or. = VI, 5, 7 [132, 18]). Bakarra da, baina, hemen ere, ez ziren «nire» (edo «niri», etab.) asko gelditzen *Aitorkizunen* B-ko testuan; beste 6 bakarrik, guztiak A-raino iritsi direnak: 64 or. = VI, 2, 2 [128, 5 eta 128, 8]; 67 or. = VI, 6, 9 [134, 17]; 82 or. = VII, 10, 16 [169, 22]; 88 or. = VIII, 1, 1 [184, 4]; 134 or. = X, 35, 57 [290, 20]. Ikus, auzi honen gainean, 76-77 or.

Esan beharrik ez da (lehen ere ikusi behar izan dugu *-il-* > *-ill-* erako aldaketei buruz hitz egiterakoan: ikus 261 or. 200 oh.) gehitzeak ez duela ezabatzeak bezainbeste balio: «antzi > ântzi» bezalako kasu batean segurtasun osoa dugu, baita *a priori* ere, berariak egindako aldaketa dela; berriz, «ântzi > antzi» bezalako batean ezin da alde zurretik baztertu nahi gabe gertatutako ezabatze bat gertatu izan ahal dela. Ez da zalantzarik haxe —edo antzeko zerbait— jazo dela goiko zerrendan diren era honetako bizpahiru aldaketetan.<sup>202</sup> Badirudi, beraz, azentu zirkunflexua gehitzearen zergatikoa gorago aipatu duguna izan dela: hots, *Aitorkizunen* grafiak bateratzea Orixeren testuan nagusi den —eta B-prior-eko oharretan ere Orixek espresuki aldeztu nahi izan duen— aukeraren arabera. Adibidea, esan bezala, ezin hobea da, Lekuonak garaiko bere izkribuetan ez baitzuen azentu zirkunflexua erabiltzen (ikus, V eranskinean, 425 or. eta bertako 8 oh.). Horrela ulertzen dira, hain zuzen ere, Lekuonak beste modu batera aldatu dituen eite honetako kasu batzuk:

1 or. = I, 1, 1 [9, 13]	lenik	leenik
3 or. = I, 4, 4 [12, 10]	zagartzen	zaartzzen
20 or. = II, 3, 6 [41, 7]	Antzi	Ahantzi
124 or. = X, 19, 28 [267, 12]	Antzia [Ântzia m3]	Aantzia

bai bokal bikoitza bai hatxea, azentu zirkunflexua ez bezala, garaiko Lekuonaren ohituretan errotutako grafiak baitira.<sup>203</sup>

Berretsi egiten dute Lekuonaren jarrera hau (honengatik —eta azentu zirkunflexudun aldaera bat dagoelako tartean— aipatzen ditugu hemen, nahiz eta m3-k B-prior-en egindako oharretan ez egon hitz hau ukitzen duen oharrik) baina, aldi berean, norabide berri bat iragartzen dute jarrera horren berorren bilakaeran, *zuhur* hitzaren aldaerak direla-eta B-tik A-ra egindako aldaketek. B-ko testuan «zur» (3), «zûr» (2), «zuur» (1) eta «zugur» (61) erabili zituen Orixek;<sup>204</sup> bistan da «zugur» aldaera gailendu egiten dela gainerakoetan, ez bakarrik —alde nabarmena izan arren— maiztasunaren aldetik, ezpada Orixeren hizkeraren berezitasunetako bat delako (lehengo «zagar» hura bezalaxe). Hona hemen, egoera honetatik abiatuta, B-tik A-ra bidean gertatutakoa:

6 or. = I, 7, 11 [18, 3]	zugurrageokin	zuhurrageokin
68 or. = VI, 7, 12 [138, 2]	zurra	zugurra
71 or. = VI, 10, 17 [143, 17]	zurtauna	zugurtauna
139 or. = X, 43, 70 [301, 19]	zugurtze	zuhurtze

<sup>202</sup>Aipatu arau orokor horretaz gain, ezabatzeari lagundu dioten baldintza nabarmenak suertatu dira goiko zerrendako kasu gehienetan. Lehenengoan («lénik B : lenik A» I or. = esk. [6, 7]) zirkunflexua ez da ia-ia ikusten B-ko testuan, hain dago-eta *e* letratik hurbil. Orobat, inprimategian egindako hutsa da honako bi kasu hauetan gertatutakoa: «ântzik B : ântzi m3 : antzi [pr.] A» (173 or. = XIII, 1, 1 [377, 6]) eta «ântzi B : antzi [alt.] A» (173 or. = XIII, 1, 1 [377, 6]); biak lerro berean daude bai B-n bai A-n: lehenengo, «ântzik», hutsa da, «ântzi» behar baitu, m3-k zuzendu duen bezalaxe, baina zuzenketa hori jasotzerakoan —hainbestetan gertatzen den gauza— huts berri bat sortu da eta huts honek eragina izan du lerro berean dagoen beste «ântzi» horretan. Eta berbera ikus dezakegu bi bider errepikatu den huts honetan: «Auztea B : Ânztea m3 : Anztea A» (122 or. = X, 16, iz. [263, 9] eta 122 or. = X, 16, 24 [263, 10]); m3-k bi gauza zuzendu nahi izan ditu («u > n» eta «A > Â»), baina A-ko testuan bi zuzenketetako bat bakarra jaso da.

<sup>203</sup>Ikus, kasu gehiago eta honi buruzko xehetasunak, V erans. 424-428 or.

<sup>204</sup>Datu guztiak V eranskinean —eta bertako tauletan— ditu irakurleak.

143 or. = XI, 6, 8 [309, 20]	zugurrari	zuhurrari
144 or. = XI, 9, 11 [312, 16]	Zugurtasuna	Zuhurtasuna
144 or. = XI, 9, 11 [312, 16]	zugurtasuna	zuhurtasuna
144 or. = XI, 9, 11 [313, 5]	zugurtasunez	zuhurtasunez
145 or. = XI, 11, 13 [314, 5]	zugurtasun	zuhurtasun

Bi zuzenketa mota egin ditu, beraz, Lekuonak: «zur > zugur» eta «zugur > zuhur»; eta bietako batean zuzentzat jotzen dena zuzenkizun da bestean: ondorioztatu beharra dago, beraz, zuzenketa mota bat bestea baino lehenago egin dela eta, zehazki, «zur > zugur» lehenago izan dela «zugur > zuhur» baino.<sup>205</sup> Lehendabiziko zuzenketa-aldi horretan egindakoak lehen aipatu dugun jarrerak eragindakoak dira: Orixek eskaintzen zion aukera nagusi edo nabarmenenaren bidez arautu nahi izan du Lekuonak *Aitorkizunen* testua, aukera hori batere ohikoa ez izan arren eta, esan gabe doa, bere azturen kontrakoa erabat. Hauxe izan da, ikusi dugun bezala, bai B-prior-eko orrietan egindako zuzenketetan bai B-tik A-ra bidean gertatu diren aldaketa askotan antzeman ahal izan dugun portaera orokorra. Baina bigarren zuzenketa-aldian beste irizpide bat azaldu da: «zuhur» aldaera, izan ere, ez baitago B-ko testuan.

*Aitorkizunen* testuaren historian hain aldaketa esanguratsuak bildu dituen multzo honetatik hurbil dago *otsein* hitza eta, nola ez, honen aldaerek jasandako aldaketetan ere jarrera berbera sumatu ahal da. Ikusi dugu (161-162 or.) nola saiatu zen m3 «otsegin» (edo «otsegiñ») gisa agertzen ziren *otsein* hitzaren agerraldiak aldatzen, honetan ere Orixek berak ematen zion aukera nagusian oinarrituta, B-ko testuan «otsein» edo «otseñ» (19 aldiz) eta «otsegin» edo «otsegiñ» (7 aldiz) irakur baitaiteke. B-n ziren 7 «otsegin» hauetatik 4 «otsein» bihurtu zituen m3-k, hau da, 3 «otsegin» gelditu dira aldatu gabe; hirurak bihurtu dira «otsein» A-ra heldu orduko:

113 or. = IX, 13, 37 [240, 19]	otsegiñak	otseñak
162 or. = XII, 15, 20 [354, 4]	otsegin	otsein
163 or. = XII, 15, 22 [355, 5]	otsegi# [# = n + ñ?]	otseñ

Nekez aurki daiteke adibide hobearik ikusteko nola burutu den B-prior-etik A-ra bidean m3-k B-prior-en hasitako lana.<sup>206</sup>

Azkenik, m3-k egindako oharren artean bazen «erabiltea B : erabiltzea m3» (120 or. = X, 11, 18 [258, 24]; ikus 150 or.), hau ere, seguruenik, *Aitorkizunen* hizkuntzaren aniztasuna Orixek eskaintzen zuen aukera baten arabera arautzeko asmoarekin egina.<sup>207</sup> B-tik A-ra bidean ere egin dira era honetako bat edo beste:

<sup>205</sup>Hipotesi honen alde diren bestelako argudioak ere V eranskinean daude.

<sup>206</sup>Honi —eta hemen axola zaigun ikuspuntutik begiratuta honen berdinak beste batzuei— buruzko azalpen orokor bat V erans. 429-431 or. ikus daiteke.

<sup>207</sup>Pentsatzekoa da Orixek, puntu honetan ere, Azkueri jarraitu nahi ziola, nahiz eta ohiko sistema faltarekin; Azkuek, izan ere, uste zuen *-tze* atzizkia *-tu* batekin bukatzen ziren partizipioek bakarrrik eraman zezaketela: «que de *gortu* y *gogortu*, *sartu* y *zartu*, en vez de *gortutea* y *gogortutea*, *sartutea* y *zartutea* de muchos bizkainos, salgan *gortzea* y *gogortzea*, *sarizea* y *zartzea*, muy bien. Pero que de *ekarri*, *etorri*, *egarri* e *iragarri* en vez de *ekarten* y *etorten*, *igarteko* e *iragartearren* saquen *ekartzen* y *etortzen*, *igartzeko* e *iragartzearren*, no» (Azkue [1934-1935, 109 or.]); ohar bedi Azkueren azalpen hau «Solecismos verbales» izeneko kapituluari dagoela, arau-emailea izan nahi duen *Gipuzkera osotua* delakoan; noski, *Morfologia*-n ere esana zuen (Azkue [1923-1925, 71-72 or.]). Merez du



14 or. = I, 16, 26 [31, 8]	eskeinten	eskeintzen
40 or. = IV, 3, 4 [78, 7]	erabiltea	erabiltzea
57 or. = V, 7, 13 [111, 26]	eskeinten	eskeintzen
64 or. = VI, 2, 2 [127, 13]	ipinten	ipintzen
67 or. = VI, 6, iz. [134, 10]	emaiten	ematen
133 or. = X, 35, 54 [288, 13]	erabilten	erabiltzen

Eta, izan ere, «eskeinten» aldaeraren aldamenean «eskeintzen» ere irakur daiteke *Aitorkizunetan*; m3-k B-prior-en zuzendu nahi izan zuen «erabiltea» hura baino bi lerro gorago «erabiltzea» bat ikus daiteke; «emaite» mordoxka dago B-ko testuan baina «emate» ugariagoa da askoz; etab.<sup>208</sup> Ezin esan, hortaz, Lekuonaren irizpidea aldatu denik. Egia da ordea kontrako bi kasu ditugula:

93 or. = VIII, 6, 14 [195, 26]	Balditzen	Balditen
109 or. = IX, 10, 24 [231, 19]	oroitzeko	oroiteko ere

Daitekeena da «oroite» aldaeraren aldeko aldaketa X. liburuan diren dozenaka «oroite» adizkiek eragin izana («balditen», berriz, *hápa* da); baina daitekeena da, orobat, puntu honetara iritsitakoan iritzia aldatu izana eta Orixeren bereizgarritasun hori antzeratu nahi izatea Lekuonak: segituan ikusiko ditugu eite honetako beste zuzenketa batzuk.<sup>209</sup>

Orain arte, beraz, nola edo hala m3-k B-prior-eko orrietan egindako oharren jarraipentzat jo ahal diren aldaketak zerrendatu ditugu: axola zitzaigun, esan bezala, B-prior-en bertan izandako jarreraren eta B-prior-etik A-ra bidean sartutako aldaketen arteko lotura agerian uztea. Badira ordea m3-ren ohar horietan aurrekaririk ez izan arren antzeko zergatikoa batek eragindakoak diruditenak, hots, Orixeren aniztasun grafiko eta morfologikoa Orixek berak eskaintzen duen aukera baten arabera berdindu nahi izate batek sortuak. Hauetako batzuek argi eta garbi erakusten digute lehen sumatu baino egin ez dugun jarrera bat («zugur», etab.) eta geroago ere behin baino gehiagotan ikusiko duguna (adizkietan batez ere): zenbaitetan, alegia, Orixeren hizkeraren bereizgarritzat jo daitekeen aukeraren alde egin nahi izan duela Lekuonak. Nago horrela bakarrik uler daitezkeela, esaterako, honako aldaketa hauek:

---

aipatzea *-te* > *-tze* aldaketa Orixek C-tik B-ra bidean sarri samar egin zituenetako dela: hemen ere, hortaz, C-n azkuetarragoa —muturrekoagoa, oro har— agertzen da B-n baino; eta, berriz ere, Lekuona, jakin gabe, Orixek berak C-tik B-ra bidean saiaturako aldaketa bat osatzera etorri da.

<sup>208</sup>Honako datu hauek erabilgarriak izan daitezke: B-ko testuan 3 «erabilte» (gorago aipatutako biak eta m3-k aldatu nahi izan zuen bat —120 or. = X, 11, 18 [258, 24]: ikus 150 or.—) eta «erabiltze» 1 (120 or. = X, 11, 18 [258, 21]) dira (gogora bedi m3-k zuzendutakoa X, 11, 18 paragrafoko «erabiltzea» horren azpi-azpian dagoela eta ohar bedi, bestalde, X, 35, 54 paragrafokoa kopiatuak lehendabizi «erabiltzen» eskribitu zuela baina gero, betiere makinaz, «erabilten» zuzendu zuela); 2 «eskeinte» (testuan aipatutakoak) eta 8 «eskeintze» (29 or. = III, 3, 5 [56, 21]; 33 or. = III, 7, 12 [63, 21]; 39 or. = IV, 1, iz. [75, 5]; 39 or. = IV, 1, 1 [76, 3]; 49 or. = IV, 14, 21 [93, 1]; 112 or. = IX, 13, 36 [240, 1]); eta «ipinte», bai, B-n dagoen aditz honen aldaera bakarra da (gorago aipatu agerraldia eta honako hauek: 163 or. = XII, 16, 23 [356, 18]; 166 or. = XII, 22, 31 [363, 24-25]; 171 or. = XII, 29, 40 [373, 8]).

<sup>209</sup>Ohar gaitzean X, 35, 54 paragrafoko «erabilten B : erabiltzen A» alde bat utzita —zein izan baitaiteke inprimategian egindako banalizazio bat—, bi hauek direla zerrenda honetako azkenak.

69 or. = VI, 9, iz. [140, 8]	bere	beure
88 or. = VIII, 1, iz. [183, 3]	bere	beure
119 or. = X, 8, 15 [255, 15]	beren	beuren
23 or. = II, 5, 11 [45, 18]	bere [Uts.]	beure

Argi dago Lekuonak «beure» zuzendu duela Orixek «beure» erabiltzen duelako eta Orixeren bitxikeria horietako bat delako; eta baduke honekin zer ikusirik B-prior-eko 27. orrian, oso toki ikusgarrian, m2-k honako zuzenketa hau egin izanak: «bere B : beure m2» (27 or. = III, 1, 1 [53, 15]; ikus 111 or.).<sup>210</sup> Hau bezain argia da honako kasu hau:

72 or. = VI, 12, 22 [147, 10]	nindukan	niñedukan
73 or. = VI, 12, 22 [147, 28]	nindukan	ninedukan
99 or. = VIII, 12, 28 [207, 18]	nindukatela	ninedukatela

Bistan da «ninedukan» (edo «niñedukan») orixetarragoa dela —maiztasun gutxiagokoa izan arren— «nindukan» baino; eta, hemen ere, m2-ren bi zuzenketa ditugu tartean:<sup>211</sup>

92 or. = VIII, 5, 10	bainindukan	bainiñedukan [m2]	baininedukan
98 or. = VIII, 11, 26	nindukaten	niñedukaten [m2]	niñedukaten

Ez da, bestalde, kasualitatea izango Lekuonak egindako hiru zuzenketetako bat Orixeren bi hauetako batetik oso hurbil egotea, eta gainerako biak paragrafo berean. Adibide hau ere ezin adierazgarriagoa da:

52 or. = IV, 16, 30 [98, 22]	edukitzea	idukitzea
------------------------------	-----------	-----------

B-ko testuan, izan ere, 23 bider agertzen da «iduki», eta 8 aldiz «eduki».

Ondorengo kasuetan, aldiz, ez da arestian ekarri ditugunetan bezain garbi ikusten Lekuonaren aukeraren zergatikoa, baina badirudi xedea —testuaren aniztasun grafikoa arautzea alegia— lehengo berbera dela. Adibide esanguratsuenak baino ez aipatzearren (azken batean, 215-252 orrialdeetako zerrendan daude guztiak), Orixek noiz edo noiz erabiltzen duen «tipi» Lekuonak «ttipi» aldatu nahi izan du:

65 or. = VI, 3, 4 [130, 13]	tipi	ttipi
85 or. = VII, 18, 24 [177, 23]	tipiturik	ttipiturik
117 or. = X, 6, 10 [251, 5]	tipi	ttipi
117 or. = X, 6, 10 [251, 18]	tipiango	ttipiango
134 or. = X, 35, 57 [290, 18]	tipi	ttipi

B-ko testuan 7 «tipi», 7 «ttipi» eta 27 bat «txiki» daudelarik.<sup>212</sup> Gauza bera gertatu da «guti»

<sup>210</sup>Orixerentzat «beure» izango litzateke *bere*-ren forma zaharra —eta ez, zuzen baldin banago, indartua edo bihurkaria—; ikus N. Ormaechea, «Personales, posesivos, intensivos», *Euskera*, 15 (1934), 233-245 [= IG, III, 807-814, 812 or.].

<sup>211</sup>Ikus, m2-ren zuzenketa hauen gainean, 121 or. Aldaketa hau —Lekuonak jakin ezin bazuen ere— C-tik B-ra ere egina zuen Orixek; ikus, aipatu orrialdean, 73 oh.

<sup>212</sup>«tipi»: testuan aipatutakoak gehi 75 or. = VII, 1, 2 [155, 1] eta 117 or. = X, 6, 8 [250, 1]; «ttipi»: 75 or. =

aldaerarekin:

90 or. = VIII, 3, 6 [188, 20]	gutiago	guttiago
125 or. = X, 21, 30 [270, 15]	gutietsiz	guttietsiz
125 or. = X, 21, 31 [270, 23]	gutirekin	guttirekin
126 or. = X, 23, 33 [273, 3]	guti	gutti
129 or. = X, 29, 40 [278, 4]	gutiago	guttiago

B-n 14 «guti», 10 «gutti» eta 41 bat «gutxi» izanik.<sup>213</sup> Baina bai batean bai bestean kontuan izan behar genuke «tipi» eta «guti» zenbait —ez dut uste guztiak— «ttipi» eta «gutti» formen hutsak izan daitezkeela, hots, «gangarraren» ezabatzeaz sortuak.

Seguruenik atal honetan sailkatu behar da baita beste aldaketa hau ere:

121 or. = X, 14, 21 [260, 19]	ez-baiño	ez-baiña
122 or. = X, 15, 23 [263, 2]	ez baiño	ez baiña
122 or. = X, 16, 24 [263, 11]	ez baiño	ez baiña
122 or. = X, 16, 24 [264, 1]	ez baiño	ez baiña
123 or. = X, 16, 25 [264, 14]	ez baiño	ez baiña
123 or. = X, 16, 25 [264, 23]	ez-baiñ# [# = a + o]	ez-baiña
126 or. = X, 22, 32 [271, 14]	ez baiño	ez-baiña
128 or. = X, 26, 37 [276, 2]	ez baiño	ez-baiña

Orixek «ez baiña» erabiltzen du normalean (eta errüz: ehun bider baino gehiago *Aitorkizunetan*), baina baita «ez baiño» ere: guztira 21 «ez baiño» daude B-prior-eko testuan, hots, Lekuonak aldatutakoak eta beste 13;<sup>214</sup> ez dirudi, beraz, «ez baiño» hauek guztiak transmisio hustzat joko zituenik Lekuonak: beste hainbestetan bezala, hizkuntzaren itxura bateratzeko asmoarekin aldatuko zituen.<sup>215</sup>

VII, 1, 2 [155, 5, 6 eta 9 <bis>]; 80 or. = VII, 7, 11 [165, 15-16]; 83 or. = VII, 12, 18 [171, 17]; 87 or. = VII, 21, 27 [182, 17].

<sup>213</sup>«guti»: testuan aipatutako 5ak gehi A-raino iritsi diren beste 9 (37 or. = III, 11, 19 [70, 14]; 85 or. = VII, 17, 23 [176, 20]; 86 or. = VII, 19, 25 [178, 8]; 91 or. = VIII, 3, 7 [189, 26]; 95 or. = VIII, 7, 18 [199, 4]; 98 or. = VIII, 11, 25 [205, 12-13 eta 13]; 98 or. = VIII, 11, 26 [206, 2-3]; 118 or. = X, 8, 12 [253, 4]); «gutti»: 64 or. = VI, 3, 3 [129, 21]; 65 or. = VI, 3, 4 [130, 9]; 66 or. = VI, 5, 8 [133, 28]; 69 or. = VI, 8, 13 [139, 18]; 73 or. = VI, 12, 22 [148, 3]; 86 or. = VII, 19, 25 [178, 14]; 91 or. = VIII, 4, 9 [190, 23-24]; 100 or. = IX, 2, 2 [212, 21]; 129 or. = X, 30, 42 [279, 20]; 136 or. = X, 37, 60 [293, 19].

<sup>214</sup>A-raino iritsi direnak 12 dira: «atsegiña ez-baiño lainko-iasta» (64 or. = VI, 2, 2 [127, 17-18]); «ezkontzaren ez baiño lizunkeriaren» (74 or. = VI, 15, 25 [150, 17-18]); «aragi-begik ez baiño barrenak» (74 or. = VI, 16, 26 [151, 21]); «iakinez ez baiño alabearrez» (79 or. = VII, 6, 10 [164, 2]); «giza-gogotik ez baiño lainkoagandik» (81 or. = VII, 9, 14 [167, 17]); «dagieneri ez baiño derizkienari» (117 or. = X, 6, 10 [251, 10]); «Orien erraiñuak ez baiño beroriek» (119 or. = X, 9, 16 [256, 7]); «aien erraiñuak ez baiño berak» (120 or. = X, 10, 17 [257, 9]); «aren erraiñuaren erraiña ez baiño bera» (122 or. = X, 15, 23 [263, 4]); «izanez ez baiño erraiñuz» (122 or. = X, 15, 23 [263, 6]); «zikifiñari ez baiño irrisarenari» (131 or. = X, 31, 46 [282, 18]); «osasunerako[,] ez baiño ikusnai utserako» (134 or. = X, 35, 55 [289, 14]). Eta, hauetaz gain, B-prior-etik A-ra bidean Lekuonak ezabatu zuen pasarte batean dagoen hau (ikus gorago 248 or.): «iakín ez baiño irakin» (86 or. = VII, 20, 26).

<sup>215</sup>Gainera berak ere erabili zuen, noiz edo noiz, *ez baino* hau: «Galde oien erantzuna, Ebanjelioetan *ez baiño*, beste nunbait billatu bearko degu» («Prantzia'ko idazle katoliku batek [...], 67 or.; ikus erreferentzia osoa 270 or. 219 oh.). Bestalde, harrigarri samarra da «ez baiño» guztiak VI, VII eta X. liburukoak izatea. (Ez dut *ez-baino* hau inongo gramatikatan ikusi —*ez-baina*-ren banalizazioa ote da, hiztun askorengan *baino baina*-rena bezala?—; *ez-baina*-ri buruz ikus, esaterako, EGLU, IV, 213-214 or.).

Adierazgarriak dira, *gobat*, B-prior-etik A-ra bidean egindako «eta» eta «ta» aldaeren arteko bereizketari dagozkion aldaketa ugari samarrak. Ikusi dugu gorago m2-k ere egin zituela ohar batzuk «eta» zenbait «ta» bihurtzeko eta alderantziz (122-124 or.). Lekuona, honetan, Orixearen iritzi edo ohitura bertsukoa zen;<sup>216</sup> B-prior-eko orrietan ez zuen era honetako aldaketarik egin, baina *ex novo* sartutako *eta* guztiak arau hauen arabera dira: «dugu laburra B : dugu ta aldi laburra m3» (146 or. = XI, 15, 18 [318, 9]) eta «naiazu pakesu B : nauzu ta pakesu m5» (128 or. = X, 27, 38 [276, 16]), azken hau benetan Lekuonari egotzi behar baldin bazaio (ikus 183 or. eta hurrengoak). «Utsuneak» izeneko dokumentuan, berriz, zabar samar agertzen da: B-ko testuaren kopia soila diren zatietan egin dituen bi aldaketak, zerbait izatekotan, arauen kontrakoak dira («ikus, ta B : ikusi, eta Uts.» [197 or. 15 zenb.]; «aztaz eta B : aztaz ta Uts.» [198 or. 19 zenb.]; ikus 192 or.); eta gauza bera esan beharra dago *ex novo* sartutako pasarteetako buruz: 29 kasutatik 12 —hala dirudi behintzat— ez datoz bat aipatu arauekin.<sup>217</sup> Alabaina, egia da «Utsuneak» honetako oker asko —Lekuonak txertatutako testua txikia denean edo ereduari oso atxikia— ez direla bereziki esanguratsuak: esaterako, «eramanik eta B : eramatea, eta Uts.» (196 or. 9 zenb.) kasua arauen kontrakotzat jo dugu, baina bistan da ereduak eragina izan duela azken testuan. B-prior-etik A-ra bidean egindako aldaketa eta gehiketa gehienak, berriz, arauen arabera dira.<sup>218</sup>

	B	A
12 or. = I, 13, 22 [27, 25]	betea, Troia'ko	betea, ta Troia'ko
59 or. = V, 9, 17 [116, 2]	goiz eta [Uts.]	gau ta
84 or. = VII, 16, 22 [175, 6-7]	zaiola.	zaiola, ta
87 or. = VII, 21, iz. [180, 20-22]		duna ta
111 or. = IX, 12, 32 [237, 14]	ogeko	Eta ogeko
112 or. = IX, 12, 33 [237, 27]	atraz ta	autaz eta [artaz eta C]
118 or. = X, 8, 13 [254, 1]	erraiñuak gertu	erraiñuak; eta gertu
119 or. = X, 8, 15 [255, 22]	baizik, ta	baizik, eta [alt.]
124 or. = X, 19, 28 [267, 11]	dugu, eta	dugu, ta [pr.]
130 or. = X, 31, 45 [281, 14]	demaiguzu, ba	demaiguzu, ta
137 or. = X, 38, 63 [296, 4]	orretxegatik, ta	arretxegatik, eta
144 or. = XI, 8, 10 [312, 3]	Orregatik da asiera	Eta asiera da
160 or. = XII, 11, 12 [348, 23-24]	baiño. An Zure	baiño, ta an Zure
160 or. = XII, 12, 15 [350, 11]	za, ta [zan m3]	zan, eta
169 or. = XII, 26, 36 [369, 5]	dagolako. Eta	dagolako; ta

<sup>216</sup>Ikus, hemen bertan, 270 or. 219 oh., eta baita ere gutxi gorabehera behintzat Lekuonaren beraren —eta, ikusi dugun bezala, beste askoren— *usus*-a jasotzen duen liburuxka hau: Euskerazaintza, *Idaztarau batzuk. Euskera idatzia bateratzearen bila*, Tolosa, Librería Técnica de Difusión, 1982, 35 or.

<sup>217</sup>Bokal batez amaitzen den hitz bati «eta» aldaera jarraitzen bazaio baina bi hitzen artean puntuazio indartsua baldin badago, arauen arabera kotzat jo dugu; arauen kontrakotzat jo ditugunak honako hauek dira: «zerua eta» (3 zenb.); «eramatea, eta» (9 zenb.); «dira, eta» (11 zenb.); «atsegingo, eta» (13 zenb.); «ukaiteak ta» (17 zenb.); «baita, eta» (18 zenb.); «baita, eta» (42 zenb.); «iduri eta» (45 zenb.); «ezaguteko, eta» (45 zenb.); «duzu eta» (45 zenb.); «iduri eta» (45 zenb.); «mendeko eta» (50 zenb.). Ohar bedi 12etatik 6tan koma bat dagoela bi hitzen artean: litekeena da kontuan hartu beharreko datua izatea. Berriz, ez dugu kontuan izan «mukulu etab.» (24 zenb.), «etab.» aldatzen ez den zera delako. Ikus, aipatu testu zati guztiok, 194-208 orrialdeetan.

<sup>218</sup>Ez ditut kontuan hartu, hitz baten aldaketa baino zatiketa direlako, bi kasu hauek: «ezta B : ez ta A» (75 or. = VII, 1, 1 [154, 10]) eta «bizita B : bizi ta A» (112 or. = IX, 13, 35 [239, 8]).

169 or. = XII, 27, 37 [369, 21]	bat, asmo	bat eta asmo
170 or. = XII, 27, 37 [370, 2]	doazanak, aiek	doazanak, eta aiek
176 or. = XIII, 8, 9 [384, 11]	zaitut bada, ta gutxi	zaitut, eta, gutxi
181 or. = XIII, 18, 22 [395, 21]	goiz argia (Ib. 1, 8) ta	goiz-argia (Ib. I, 8); eta
181 or. = XIII, 18, 23 [396, 28]	ba#tuz, ta	banatuz, eta
184 or. = XIII, 22, 32 [404, 15]	gizona; ezta [Uts.]	gizona; eta
186 or. = XIII, 24, 35 [407, 15]	ez ta	ez eta
192 or. = XIII, 34, 49 [420, 22]	zenitun ta	zenitun; eta

Ez dira falta ordea arauen kontra egindakoak:

4 or. = I, 6, 7 [14, 21]	ariora, ta	ariora, eta
10 or. = I, 11, 17 [24, 3]	zion, zu	zion ta
24 or. = II, 6, 13 [47, 11]	lakiñ-eza ta	lakiñ-eza eta
61 or. = V, 12, 22 [120, 5]	bilduz, eta	bilduz, ta
95 or. = VIII, 8, 19 [199, 23]	iarraitzeko, edo	iarraitzeko, eta
131 or. = X, 31, 46 [282, 22-23]	ziona, aragiak	ziola, eta
166 or. = XII, 21, 30 [362, 6]	antolagabea-ta	antolagabea zan, ta
172 or. = XII, 32, 43 [376, 12]	Iaun eta	Iaun ta
175 or. = XIII, 5, 6 [381, 11-12]	berdiña ta	berdiñ ta
175 or. = XIII, 5, 6 [381, 12]	dugu zero-lur	dugu zeruen ta zero-lur
180 or. = XIII, 17, 20 [394, 12]	batean, ta	batera, eta
186 or. = XIII, 24, 36 [408, 20]	azitzen eta	azitzen dira eta

Dena den, segurutzat joko nuke azken hauetan ere, «Utsuneak» dokumentuko aldaketa okerretan gertatzen zen bezalaxe, eragina izan duela ereduak: esaterako, «antolagabea-ta B : antolagabea zan, ta A», «azitzen eta B : azitzen dira eta A» kasuetan; eta litekeena da, orobat, aldaketa oker hauetako bat baino gehiago inprimategiko langileei egotzi behar izatea. Esanguratsuagoak dira *Egan*-eko testuak puntu honi dagokionez erakusten dituen B-ko testuarekiko aldaerak (ikus, guztiak, 299-302 or.):

	B	Egan	A
303, 10	Iauna ta	Iauna, eta	Iauna ta
303, 17	utzi ta	utzi eta	utzi ta
304, 7	itza ta	erakustera eta	erakustera ta

Guztiak, bistan denez, mintzagai ditugun arauen kontrakoak. «Arkibidea» delakoan ere badira hemen axola zaizkigun bizpahiru kasu (ikus 316-324 or.):

	B	A	Ark
VII, 21		Arnasa	Arnasa; ta
VIII, 7	biurtu; au	biurtu; au	biurtu; ta
VIII, 9	Nai, ta [eta m2]	Nai, ta	Nai, eta

Lekuonaren jarrera, hortaz, ez zen erabatekoa izan: ez da zalantzarik arau hauek ezagutzen

eta erabiltzen zituela, baina egia da orobat —*Aitorkizunetako* kasu hauetan ereduak izan zuen eragina ahaztu gabe— axolagabe samarra izan zela haiek betetzen —Orixe baino axolagabeagoa, agidanean—. <sup>219</sup>

Merezi du patxada pixka batekin ikustea Lekuonak B-prior-etik A-ra bidean aldatu zituen adizkiak. Bizpahiru aldaketa «zira > zera» erakoak dira (gorago aztertu ditugu: 261 or.), hau da, Orixek C-tik B-ra egin zituen aldaketa askoren antzekoak eta, orobat, bai m2-k bai m3-k B-prior-eko orrietan proposatu zituztenak bezalakoak. Badira ordea beste era batekoak: batzuek, ohi bezala, oker daudela diruditen adizki batzuk zuzendu nahi izan dituzte; beste batzuekin, Lekuonak testu honen hainbat alderditan egin zuen bezala, Orixeren aniztasuna arautu nahi izan duela dirudi. Hauexek dira guztiak, esandako bizpahiru kasuak salbu:

3 or. = I, 5, 5 [13, 5]	zatzait [zatzait m3]	zakit
3 or. = I, 5, 5 [13, 7]	zakit	zakida
4 or. = I, 6, 8 [15, 16]	baitzan	baitzen
53 or. = V, 1, 1 [101, 9]	zaion	dakion
56 or. = V, 6, 10 [109, 4]	etzitzaizkidan	etzekizkidan
56 or. = V, 7, 12 [110, 20]	etziduridan	etzirudidan
106 or. = IX, 8, 17 [226, 4]	zatzaieken	zizaieken
110 or. = IX, 11, 27 [234, 5]	etzaitzeltela	etzaitzeltela
127 or. = X, 25, 36 [274, 20]	baitzindutan	baitzindutan
172 or. = XII, 30, 41 [374, 19]	zauzkala	zeukela

Has gaitezen lehendabizikoarekin. Badirudi «zatzait» hau nor morfema *zu* duen nor-nori-nork adizkia dela: «Nork erakarriko zatzait nere biotzera». Oso itzulpen librea da eta latinak, oraingo honetan, ez digu batere laguntzen: «Quis dabit mihi, ut venias in cor meum [...]»; baina ez da zalantzarik «erakarriko» horren objektu zuzena «Zu» dela, hots, Jaungoikoa, Harekin ari baita hizketan san Agustín. Ordea «zakit» nor-nori sailean bakarrik erabiltzen du Orixek (nor-nori sailerako bakarrik balio bide duen ustezko *ekidin* famatuaren forma sinkopatu gisan: ikus VI erans.), paragrafo honetan bertan —labur samarra izan arren— behin baino gehiagotan ikus daitekeen bezala: lerro bat behegera «Nor zakit?» («Quid mihi es?»); «Urrikal'zakit mintza nadin» («Miserere, ut loquar»), hau ere Lekuonak aldatuko dituenetako (ikus, hemen bertan, hurrengo paragrafoan); «asarre zakit» («ut [...] irascaris mihi»); «Esaidazu [...] zer zakidan» («Dic mihi [...] quid sis mihi»). Ondorioztatu beharko dugu, hortaz, huts egin zuela Lekuonak «zatzait» hura «zakit» batekin zuzendu nahi izatean: seguruenik nor-nori adizkitzat joko zuen eta hauetan Orixek sarrien erabiltzen duen

<sup>219</sup>Honako emaitza hauek ematen ditu, esaterako, 1956an argitaratu zen bost bat orrialdeko erakuskari batean egindako azterketak (M[anuel] L[e]kuona, «Prantzia'ko idazle katoliku batek galde bat egin du: 'Al zan egiazki asto ta idirik Belengo estalpean?'», *Egan*, 1956 [5-6], 66-70 or.): gutzira 32 «eta» daude, eta hauetatik 6 esaldi hasieran daude (inoiz ez dago kokapen honetan «ta» aldaera), 16 kontsonante baten ondoren, 8 puntuazio indartsu baten ondoren eta 2 koma baten ondoren; bestalde, 29 «ta» dira aipatu erakuskarian, eta hauetatik 22 bokal baten ondoren daude eta 7 kontsonante baten ondoren (baina, esan bezala, kontsonante hauek igurzakariak dira gehienetan). Bistan da, beraz, Lekuonak ere bete egiten zituela —inongo zalantzarik gabe— aipatu arauak baina, aldi berean, maiz samar uzten zituela alde bat arau hauek, zati batean zabarkeria hutsagatik baina beste zati batean, dudarik ez, kontuan hartzen zituelako —jakinarean gainean edo konturatu gabe— beste ñabardura batzuk (funtsean, puntuazioa eta hitzaren ezkerrean zihon kontsonantearen nolakotasuna).

aldaerarekin ordezkatu nahiko zuen; eta, honetaz gain, baliteke eragina izatea aipatu ditugun paragrafo horretako bertako beste «zakit» horiek edo, agian, honen berdina dela dirudien Orixek egindako zuzenketa batek («zatzai B : zakie m2 : zakie A» [54 or. = V, 3, 3 <104, 1>]; ikus 123 or. 75 oh.). Baina Lekuonak egin zuen hutsa Orixek berak zuen egina *Aitorkizunen* lehenengo idatzaldian: zeren eta, izan ere, C-k «zakidit» baitakar («Nork erakarriko zakidit», 2 or.), hau da, «zakit» adizkiaren forma beteak —betiere Orixek *ekidin* delakoari buruz aldeztu zuen teoriaren arabera— eta, *ekidin*-ekoa izaki, «zakidit» ezin da ergatiboa behar duen esaldi batean bizi; Mokoroak nabarmendu zuen, bere txostenean, Orixeren huts hau (ikus III erans. 8 zenb.), eta honako hau izan zen haren bilakaera, eratzun baten antzekoa alegia: «zakidit C : zaitzakit Mok. : zatzait B : zakit A».

Adizki bera du lehengai «zakit B : zakida A» aldaketak: «Urrikal'zakit [zakida A] mintza nadin», hau da, «Miserere, ut loquar»,<sup>220</sup> Zer alde dago, Orixeren erabileran, «zakit» eta «zakida» adizkien artean? Nago biak adizki bera direla: batean *-da* morfema zaharra gorde nahi izan du Orixek (oso berea duen jarrera batekin: gogora, esaterako, *ekidin* ustezko laguntzailea bera, «nendun» adizkia, hark proposatzen zituen *izan* aditzaren balizko forma jatorrak —ikus, honi guztiari buruz, VI erans.—) eta bestean, berriz, ohiko *-t* morfema erabili du.<sup>221</sup> Zergatik egin zuen orduan Lekuonak «zakit B : zakida A» aldaketa? Nire ustez, batetik, *Aitorkizunetako* «zakida» guztiak aginterakoak direlako —eta «zakit», berriz, bai aginterakoak bai indikatibokoak— eta, bestetik, aipatu aldaketa egin den tokitik hur «zakida» bat edo bi daudelako eta, aldi berean, inguru horietan diren «zakit» guztiak indikatibokoak direlako. Hauek dira «zakida» adizkiaren agerraldi guztiak:

[...] *ut dulcescas mihi* super omnes seductiones, quas sequebar, et amem te validissime et amplexer manum tuam totis praecordiis meis et eruas me ab omni temptatione usque in finem. (I, 15, 24)

«*Miserere mei: cura animam meam, quoniam peccavi tibi*» (IV, 3, 4)

Domine, *miserere mei* et exaudi desiderium meum. (XI, 2, 4)

Deus meus, *praeside mihi* et rege me. (XI, 17, 22)

Tu *me alloquere*, tu mihi sermocinare. (XII, 10, 10)

*Zakida* goxoago lillura aiek baiño [baño A]; zaitzadan maita gogotik; egiodan muñ Zure eskuari biotz osoz; atera nazazu azkeneraifio nere tentaldi guzietatik. (B, 13 or. [A, 29, 6-8]);

«*Urriki zakida*; senda ezazu anima au, Zuri egin baitizu oben». (B, 40 or. [A, 78, 5-6]);

*Erruki zakida*, launa, entzunazu nere guraria [...] (B, 141 or. [A, 305, 21]);

Ene launa, *zakida buru* ta iaurri nazazu. (B, 148 or. [A, 321, 3-4]);

*Mintza zakida* Zu; itz egidazu. (B, 159 or. [A, 347, 12]).

<sup>220</sup>BAC-en 1946, 1951 eta 1955eko edizioek «Miserere» dakarte: hutsa da, *miserere*-en adizki gisa —eta nabarmena da hemen adizki bat besterik ezin dela onartu— «miserere» ezinezkoa baita. Huts honek ezin izan du, hortaz, inongo eraginik izan B-prior-etik A-ra gertatutako aldaketa honetan. (Lekuonak erabili zuen BAC-en 1955eko edizioari buruz ikus 143-144 or.; Orixek bigarren idatzaldia ontzeko eskuen artean izan zuenari buruz ikus 49 or. eta II erans.).

<sup>221</sup>Orixek berak aipatzen ditu inoiz *-da* morfema duten adizkiak: esaterako, «zizait (zizaida [...])», hau da, *zatzizait* («Euskal aditza», EG, 1950 [5-6 eta 7-8], 42-45 eta 18-20 or [= IG, III, 895-904, 899 or.]). Gogora dezagun Azkuek ere aipatu egiten zuela noizean behin kontu hau: ikus, adibidez, Azkue [1923-1925, 547 or.].

Hauek, berriz, B-ko testuan dauden indikatiboko «zakit» guztiak:

Quid mihi es? (I, 5, 5)	Nor zakit? (B, 3 or. [A, 13, 7]);
[...] irascaris mihi [...] (I, 5, 5)	asarre zakit (B, 3 or. [A, 13, 8]);
Dic mihi [...] quid sis mihi. (I, 5, 5)	Esaidazu [...] zer zakidan (B, 3 or. [A, 13, 10-11]);
Et tu [...] irrides me [...] (I, 6, 7)	Zu ere [...] irriz ari zakit (B, 4 or. [A, 12]);
At illa nec similia erant [...] tibi, sicut nunc mihi locuta est [...] (III, 6, 10)	Aiek etziran Zure antzeko, orain mintzo zakidanaren antzeko (B, 32 or. [A, 61, 25-26]);
[...] et garriebam tibi [...] saluti meae, domino Deo meo. (IX, 1, 1)	Zuri nindagozun xintaka [...] osasun zakidan Iaun-goiko Iaun Orri (B, 100 or. [A, 11-13]);
Tibi suspiret peregrinatio mea [...] (XII, 15, 21)	Zu zakit asperen (B, 163 or. [A, 354, 25]). <sup>222</sup>

Eta honako hauek, azkenik, aginterako «zakit» guztiak —betiere B-ko testuari buruz ari garelarik—:

miserere mei (IX, 4, 8)	erruki zakit (B, 103 or. [A, 218, 9]);
miserere mei (X, 4, 5)	erruki zakit (B, 115 or. [A, 247, 17]);
miserere mei (X, 28, 39)	erruki zakit (B, 128 or. [A, 277, 5]);
miserere mei (X, 28, 39)	erruki zakit (B, 128 or. [A, 277, 7]);
misereberis (X, 31, 45)	erruki zakit (B, 130 or. [A, 281, 11]);
	Zu mintza zakit, Iauna. (B, 159 or. = XII, 10, iz. [A, 347, 2]);
Tu loquere [...] (XII, 16, 23)	Mintza zakit [...] (B, 163 or. [A, 356, 2]).

Hau da: Lekuonak pentsatu zuen «zakit» indikatiboa dela beti *Aitorkizunetan* eta «zakida», berriz, agintera; eta, izan ere, horixe da Orixeren erabilera lehenengo liburuetan —non, gainera, oso maiz agertzen baitira adizki hauek guztiak—: goiko tauletan ikusi dugu aginterako «zakit» guztiak *Aitorkizuneten* akaberako liburuetan daudela.

Ez dirudi «baitzan B : baitzen A» berariaz egindako aldaketa denik; hau da, hutsa dela ematen du: *Aitorkizunetan* beti «zan», «ziran» erabiltzen da (hemengo honetaz gain «zen» bakar bat dago *Aitorkizunetan*: «baitzen» [105 or. = IX, 6, 14 <222, 23>]), eta horixe bera da, noski, Lekuonaren ohitura. Hutsa da zalantzarik gabe —eta, seguruenik, baita huts baten

<sup>222</sup>Bistan da jatorrizko latinak, hemen, ez dituela gauzak gehiegi argitzen; hona hemen bi testuak osorik: «Zu zakit asperen nere bidez-bide ontan, eta esaiodan egin zindunari ni ere bere nazala Zuga, ni ere egifa bainau; «Tibi suspiret peregrinatio mea, et dico ei qui fecit te, ut possideat et me in te, quia fecit et me».



ondorioa ere— «etzaitzeltela CB : etzaitzekela A» berrikuntza: «“Ezarrazue nonai gorputz au, etzaitzeltela ontaz kezka”», hau da, «Ponite —inquit— hoc corpus ubicumque, nihil vos eius cura conturbet». <sup>223</sup> Harrigarri samarra da «zaion B : dakion A» aldaketa: batek esango luke Lekuonak Orixeren hizkuntzaren ezaugarri propioetako batekin ordezkatu nahi izan duela Orixerengan berarengan ere normalena den adizkia (ikus, berriz ere, *ekidin* laguntzailearen adizki hauei buruz, VI erans.). Aldiz, «baitzindutan B : baitzindudan A» aldaketak Orixeren arautik kanpo zegoen adizki bat zuzendu du edo, hobeto, morfema bat: izan ere, Orixek beti «zindudan» erabili du *Aitorkizunetan*, inoiz ez «zindutan» (ezta «zintudan» ere). Beraz, aldaketa honen oinarrian dagoen asmoa goragoko «zakit» eta «zakida» haietako berbera da, baina hemen helburua jo du, han ez bezala. <sup>224</sup> Honen antzekoa da, zati batean, «zauzkala B : zeukela A» aldaketa; baina bi gauza ezberdin zuzendu nahi izan dira hemen: batetik, Orixeren *usus*-a berreskuratu nahi izan da, Orixek ez baitu inoiz «zaukan» bezalakorik erabiltzen *Aitorkizunetan*, «zeukan» eta «zeuzkan» baizik; bestetik, B-ko adizkiaren nor morfema, *ad sensum* egindako komunztadura baten ondorioa seguruenik. <sup>225</sup> Baina ez Orixek ez, agidanean, Lekuonak ez dute inoiz «zeuken» bezalakorik erabiltzen: pentsatzekoa da, beraz, adizki horretan egin diren bi zuzenketein batera huts berri bat sortu dela. Bestelakoa da «etziduridan B : etzirudidan A»: Orixek «dirudi» eta «zirudien» formak erabiltzen ditu beti, <sup>226</sup> baina nori lehenengo pertsona (eta nor singularra) duen lehenaldirako «ziduridan» erabiltzen du bakarrik eta, gainera, oso maiz, 18 aldiz guztira; zalantzarik gabe, Lekuonak «dirudi» edo «zirudien» adizkien araura makurtu nahi izan du hemengo «etzirudidan» hau, seguruenik Orixeren *usus*-ari ondo erreparatu gabe.

Begien bistako dirudi «zatzaieken» ezinezkoa dela edo, behinik behin, ezinezkoa dela bere testuinguruak agintzen duen balioa izan behar baldin badu, hots, *zitzaeikeen*:

Sed non praeteribo quidquid mihi anima  
parturit de illa famula tua, quae me  
parturivit et carne, ut in hanc temporalem,  
et corde, ut in aeternam lucem nasceret.  
Non eius, sed tua dicam dona in eam.  
Neque enim se ipsa fecerat aut educaverat  
se ipsam: tu creasti eam, nec pater nec  
mater sciebat, qualis ex eis fieret. (IX, 8, 17)

Ez dut ixilduko, ordea, Zure neskame artaz ene animak  
erdi al dezakena, berak erdi bainindun aragiz mundu  
ontara, gogoz betiko argirako iaio-arazi nindezan.  
Ari Zuk emanak aipatuko ditut; ez baitzun beure  
burua egin, ez ongi azi ere; Zuk egin zenun. Aitamek  
etzekiten nolako gerta zatzaieken [zizaieken A]. (B, 106  
or.).

<sup>223</sup>B-ko testua nahikoa izango litzatekeen arren hor dugu C-ren lekukotasuna; ikus, gainera, B-ko bi adibide hauek: «etzaitela auzitan [auzitantan B, auzitan m3] sar [om. A] arekin», «ne intres cum ea in iudicium» (112 or. = IX, 13, 35 [239, 16-17]); «Etzaitzeltela mundu onen antzera bizi», «Nolite conformari huic saeculo» (184 or. = XIII, 21, 31 [403, 7-8]).

<sup>224</sup>Honek ez du esan nahi, noski, Lekuonak uste zuenik huts bat zuzentzen zegoela. Edo, beste ikuspuntu batetik begirata, ez dugu inongo arrazoirik pentsatzeko «baitzindutan» hutsa denik: honen beharrik ez badugu ere, behin baino gehiagotan agertzen zaizkigu C-n *-ta-* morfemadun adizkiak (esaterako, «etzindutan C : etzindudan B» [I, 13, 21 <26, 18>], etab.).

<sup>225</sup>«Siñez dezagun, Zure goi-argiz auek idaztean, auetan egi-argiz eta etekiñez garai dana zauzkala [zeukela A], batez ere, begien aurrean»; «[...] ut hoc eum te revelante, cum haec scriberet, attendisse credamus, quod in eis maxime et luce veritatis et fruge utilitatis excellit».

<sup>226</sup>Honako hauek dira *irudi* formaren araberakoak: «dirudi» edo «dirudit» (132 or. = X, 33, 50 [285, 2]; 167 or. = XII, 23, 32 [364, 9]; 180 or. = XIII, 16, 19 [393, 23]), «zirudien» (56 or. = V, 6, 10 [109, 7-8]), «zirudizkidan» (62 or. = V, 14, 25 [123, 12-13] eta 102 or. = IX, 3, 6 [216, 11-12]), «ziruditenak» (71 or. = VI, 11, 18 [144, 15]), «zirudigula» (109 or. = IX, 10, 26 [233, 6]).

Zeren «zatzaieken» horrek nor bigarren pertsona bat eskatu behar bailuke: ezeren frogaz ez bada ere, «zizaieken» dakar C-k. Bestalde, harrigarri samarra da Lekuonak «zizaieken» zuzentzea eta ez «zitzaieken»: «zizaieken», noski, Orixek *izan* laguntzailearentzat aldeztu zuen aditz joko ustez jatorraren araberako adizkia litzateke (ikus VI erans. 448 or. eta 11 oh.), baina B-ko testuan «zitzaieken» erakoak erabili zituen batik bat,<sup>227</sup> eta, honetaz gain, bistan da «zatzaieken» oso erraz izan daitekeela «zitzaieken» baten usteltzea; *Aitorkizun*en idatzaldi hau editatu behar lukeen edonork, agidanean, «zitzaieken» zuzenduko luke. (Dena den, *izan* jator horren aldeko beste aldaketa batzuk ikus daitezke beheragoko zerrendan). Honen antzekoa da «etzitzaizkidan B : etzekizkidan A» aldaketa; hemen, besterik gabe, aditz laguntzailea aldatu da: Orixek okertzat jotzen zuen —baina, arestian esan dugun bezala, oso sarri erabili zuen— adizki bat Orixek defendatzen zuen *ekidin* delakoaren adizki batekin ordezkatu du Lekuonak.<sup>228</sup>

Badira adizkietan egindako beste aldaketa batzuk: gehienak erregulartasunaren bila —normalean Orixek eskaintzen duen aukera baten arabera— egindakoak dira, baina gorago ikusitakoek baino interes gutxiago dute, haiek baino errazagoak, hots, nabarmenagoak baitira nonbait. Hauen artean ere badaude, noski, ondo zuzendutako hutsak eta baita ere, orobat, gaizki zuzendutakoak. Hona hemen:

41 or. = IV, 3, 5 [79, 16]	ez zala	etzala
50 or. = IV, 15, 25 [96, 3]	baidugu	baitugu
65 or. = VI, 3, 4 [130, 11]	ninzan	nintzan
66 or. = VI, 5, 8 [133, 28]	dekartz	dekartzi
75 or. = VII, 1, 2 [154, 19]	nenkusan	nekusan
77 or. = VII, 3, 5 [157, 25]	nenduten	ninduten
77 or. = VII, 4, 6 [158, 22]	dazaguzulako	dezaguzulako
84 or. = VII, 13, 19 [173, 10]	baitzatute	baitzaitute
87 or. = VII, 21, 27 [181, 17]	gazkio	gakio
87 or. = VII, 21, 27 [181, 20]	dagike	dagiko
87 or. = VII, 21, 27 [182, 17]	zitzaizkidan	zitzaizkidan
93 or. = VIII, 6, 15 [196, 5]	zitzaizgun [# = a + i]	zitzagun
103 or. = IX, 4, 8 [218, 8]	zindularik	zindularik
104 or. = IX, 4, 10 [220, 11]	zintzaidan	zitzaidan
107 or. = IX, 8, 18 [227, 20]	dagiezuna	degiezuna [dagiezuna Oz]
110 or. = IX, 11, 27 [233, 24]	duzue	duzute
112 or. = IX, 13, 35 [239, 11]	nazazu	nazazun
112 or. = IX, 13, 35 [239, 21]	dezunari	duzunari

<sup>227</sup>Lehenaldian agerraldi hauek bakarrik aurkitu ahal dira B-ko testuan: «baitzizaion» (64 or. = VI, 3, 3 [129, 22]), «etzizaiaela» (66 or. = VI, 5, 7 [133, 4]), «zizaiaen» (80 or. = VII, 7, 11 [165, 5-6]), «baitzizaidan» (104 or. = IX, 4, 12 [221, 13]), «zizaiona» (124 or. = X, 19, 28 [267, 16]), «zizaiaola» (131 or. = X, 31, 46 [282, 19]). Esana dugu (ikus 77 or. 28 oh. eta VI erans. 448 or.) *izan*-en ustezko adizki jator hauek gehienak C-tik B-ra bidean desagertu zirela eta *izan*-en ohiko adizkiekin ordezkatu.

<sup>228</sup>Gorago ikusi dugun bezala, «zitzaidan» da normalena, baina «zekidan» paradigmako 9 adizki daude *Aitorkizunetan*: «zekidala» (38 or. = III, 12, 21 [72, 24]), «zekizkidan» (52 or. = IV, 16, 30 [98, 21]), «etzekizkidan» (56 or. = V, 6, 10 [109, 4] eta 79 or. = VII, 6, 10 [163, 19]), «etzekidan» (95 or. = VIII, 8, 19 [200, 8]), «zekizkidan» (103 or. = IX, 4, 9 [218, 18] eta 105 or. = IX, 6, 14 [223, 17-18]), «zekizula» (180 or. = XIII, 17, 20 [394, 12]) eta «zekizkizunean» (189 or. = XIII, 29, 44 [415, 5-6]).

118 or. = X, 8, 12 [253, 7]	dutana	dutena
123 or. = X, 17, 26 [266, 1]	deritzon	deritzoen
129 or. = X, 30, 41 [279, 1]	naizaie	nizaie
168 or. = XII, 25, 35 [367, 13]	dasaiodan	desaiodan
170 or. = XII, 27, 37 [370, 7]	dakuszin	dakustzin
173 or. = XIII, 1, 1 [378, 5]	zatzadala	zaitzadala
177 or. = XIII, 12, 13 [388, 1]	degu [Uts.]	dugu

Hemengo «ninzan» hau, noski, Orixek defendatzen zuen *izan*-en aditz joko jator hartakoa da (ikus, VI erans. 448 or. 11 oh.): C-ko testua adizki horretaz josita dago baina, oker ez banago, «ninzan» hau da B-ra pasatu zen bakarra; «dekartz» adizkiaren *-tz* morfema *hápax* da B-ko testuan: «deramatzi» edo «nenkartzin» edo «dakustzin» bezalakoak, berriz, ugari samarrak dira (beste kontu bat da «dekar» forma ere *hápax* izatea, Orixek beti «dakar» erabiltzen baitu); «nekusan» bat baino gehiago dago *Aitorkizunetan*,<sup>229</sup> baina «nenkusan» da forma erabiliena; berdin «dezaguzulako» horri dagokionez: Orixek berdin samar erabiltzen ditu «dazagu» (11 aldiz) eta «dezagu» (6 aldiz);<sup>230</sup> «baitzaitute»-k («baitzaitue» C) zuzena dirudi eta orobat «gakio»-k; «dagiko»-k huts berria dirudi («Zer dagike gizon errukarriak?»; «Quid faciet miser homo?»; «zitzaitkidazan» adizkian («zizaidazan» C), noski, bi plural marka metatu dira: *hápax* da, baina seguruenik Orixek berariaz egina; «zitzagun» ere *hápax* da eta, agidanean, oker sortutako adizkia: «zitzagun», «zizaigun» edo agian «zizagun» behar bailuke, betiere Orixeren sistemen arabera (C-k «zizaigun» dakar hemen); «zindualarik» hutsa zen eta ondo zuzendu da; «zitzaidan» («zinzaidan» C) edo nahi gabe egindako hutsa da edo banalizazioa: «[...] an asi zintzaidan ezti agertzen [...]» («ibi mihi dulcescere coeperas»); «degiezuna», «Okerrak zuzentze» eranskinak ondo erakusten duenez, oker aldatutakoa da zeren eta, izan ere, Orixek beti «dagi» erabiltzen baitu; orobat «duzute»: agerraldi honetaz gain, «duzue» bakarra dago *Aitorkizunetan* (107 or. = IX, 8, 17 [226, 17], hots, hemendik gertu), eta litekeena da honek eragina izana Lekuonaren aldaketan (gainerako guzti-guztiak «duzute» dira —eta «dezute» bat—); «nazazun» huts berria da («Entzun nazazu»; «exaudi me»); «dezunari B : duzunari A» aldaketa eta Lekuonak berak «Utsuneak» delakoan sartutako «degu» baten zuzenketa den «degu Uts : dugu A» adibide ezin hobeak dira ikusteko nola saiatu zen Lekuona, zenbaitetan, Orixeren beraren araua berreskuratzen;<sup>231</sup> «dutena» huts berria delakoan nago, «dutana» baita Orixek erabiltzen duena (bestela, baina gutxitan, «dudana»: inoiz ez «dutena»); «deritzoen» Orixeren *usus*-aren kontrako zuzenketa da, adizkia *-o* batekin bukatzen denean ez baitu *-en* egiten, *-n* baizik: esaterako, «dagon», inoiz ez «dagoen», etab. (pentsatzekoa baita horixe dela aldaketaren arrazoia eta ez subjektuaren numeroarena);<sup>232</sup> «naizaie» *hápax* da eta «nizaie» Orixek aldeztzen zuen *izan*-en aditz joko jator hartakoa —ikus,

<sup>229</sup>«nekusakela» (50 or. = IV, 15, 24 [95, 10]), «banekusan» (62 or. = V, 14, 24 [123, 5]), «banekustzi» (83 or. = VII, 13, 19 [173, 2]).

<sup>230</sup>«dazagu»: 43 or. = IV, 6, 11 [83, 6]; 55 or. = V, 4, iz. [106, 2]; 68 or. = VI, 7, 12 [138, 18]; 77 or. = VII, 4, 6 [158, 22]; 82 or. = VII, 10, 16 [170, 5, 6 <pr.> eta 6 <alt.>]; 91 or. = VIII, 4, 9 [190, 23]; 116 or. = X, 5, 7 [248, 21]; 117 or. = X, 6, 9 [250, 25]; 136 or. = X, 37, 60 [293, 7]; «dezagu»: 82 or. = VII, 10, 16 [170, 5 eta 5-6]; 90 or. = VIII, 3, 6 [189, 7]; 121 or. = X, 12, 19 [259, 13]; 190 or. = XIII, 31, 46 [417, 9 eta 11].

<sup>231</sup>Ikus, «det» paradigmari buruz, 191 or. 4 oh.

<sup>232</sup>Testuingura oso argia da: «gainduko dut oroimen deritzon indar au ere»; «transibo et istam vim meam,

berriz ere, zein zen Lekuonaren asmoa—: baina daitekeena da «naizaie» jatorrizko irakurketa izatea; badirudi «desaiodan», goragoko «dezaguzulako» bezala, alferrikakoa dela, Orixek bai «dasa» bai «desa» erabiltzen baititu —lehenengo «desa» eta azken liburuetan «dasa»—;<sup>233</sup> «dakuszín» adizkiari dagokionez, ohar bedi *-tzi* morfema oso ondo dokumentatuta dugula *Aitorkizunetan*: ikus gorago «dekartzi» adizkiari buruz esandakoa; «zatzadala», lehenengo «zitzaizkidazan» hura bezala, hibridoa da eta, agian, nahi gabe sortua: C-n oraindik bizirik dirauen sistemaren araberrako «zazadala» formaren eta B-n erabat nagusi den «zaitzadala» adizkiaren artekoa alegia.

Adizkietan ikusi ditugun aldaketak ere —banalizazioak, huts berriak eta, batez ere, egilearen *usus*-aren barruan erregularitasun billa egindakoak—, beraz, hizkuntzaren itxurari dagozkion<sup>234</sup> gainerako aldaketa gehienetan erakutsitako jarrera beraren ondorioak dira: batzuetan forma normalena aukeratu du Lekuonak Orixeren aniztasunaren barnean eta horren arabera aldatu nahi izan ditu gainerakoak; beste batzuetan, berriz, Orixeren hizkuntzaren ezaugarri berezitat jo duen aldaera batekin ordezkatu nahi izan du Orixeren testuak zekarrena; dezentetan —batik-bat gehiketetan— axola gabe sartu du berak bere izkribuetan ohi zuena. Honetan guztian, eta banalizazioak falta ez badira ere, azpimarratzekoa da nola izan zuen kontuan Orixeren hizkera.

Hizkuntzaren itxurari dagozkion aldaketa hauek B-prior-etik A-ra bidean egin diren gehienak eta, neurri batean, garrantzitsuenak dira —grafiaren eta hizkuntzaren beraren alderdi orokorreko dagozkielako—. Alabaina, badira hauen guztien ondoan bazterrekotzat jo ahal diren osagaiak ukitzen dituzten beste aldaketa batzuk; interesgarrienak —esanguratsuenak alegia—, agidanean, **iz en berezietan egindakoak** dira:

13 or. = I, 16, 25 [29, 20]	Eva'ren	Eba'ren
68 or. = VI, 7, 11 [136, 17]	Nerbidi	Nebriidi
108 or. = IX, 9, 19 [229, 2]	Patirki	Partiki
97 or. = VIII, 10, 24 [204, 15]	Ebangelioa	Ebanjelioa
99 or. = VIII, 12, 29 [208, 6]	Ebangelioa	Ebanjelioa

quae memoria vocatur». Esaldi berbera agertzen da lerro batzuk gorago, paragrafo berean: «Gainduko dut oroimen deritzon ene indar au [...]». (Ez dut uste besterik aipatzeko beharra dagoenik: «[...] nere liburu bat, *Maisua* deritzona», 105 or. = IX, 6, 14 [223, 1]; «[...] bata citedun ta gogaki, zeru deritzona, bestea mukulugai eitegabear lur deritzona», 170 or. = XII, 28, 39 [371, 17-19]; etab.). Nolanahi ere, subjektua plurala denean Orixek *-te* erabiltzen du: «[...] ta poz au deritzote bizi doatsua [...]» (126 or. = X, 21, 31 [271, 4-5]).

<sup>233</sup>Hori baino okerragoa: aipatu «dasaiodan» hori aldatu du baina ez esaldi berean dauden «dasaiot» eta «dasaiodan» adizkiak; merezi du esaldia ekartzea: «Adizu, lainko, epaille txit on, Egia bera, adizu zer *dasaiodan* [desaiodan A] osterazale orri, adizu, Zure aurrean *dasaiot* eta legea iator darabilten anaien aurrean, maitasun asmoz. Adizu ta ikus zer *dasaiodan*, atsegijn ba'zaizu» (168 or. = XII, 25, 35 [367, 12-15]). Honako hauek dira, bestalde, *Aitorkizunetan* aurkitu ditudan *esan* aditzaren forma trinkoak: «desakete» (88 or. = VIII, 1, 1 [183, 12]), «desaiekete» (116 or. = X, 4, 6 [248, 7]), «desaidate» (116 or. = X, 6, 8 [249, 12-13]), «desagun» (146 or. = XI, 15, 18 [318, 14] eta 149 or. = XI, 20, 26 [324, 17]), «desakezute» (161 or. = XII, 15, 18 [352, 12]), «dasatenean» (168 or. = XII, 25, 34 [367, 1]), «dasaiodan» (168 or. = XII, 25, 35 [367, 15]; «desaiodan» A), «dasaiot» (168 or. = XII, 25, 35 [367, 13]) eta «dasaiodan» (168 or. = XII, 25, 35 [367, 15]). Nabarmena da *Aitorkizunetan* zehar gertatutako eboluzioa: lehenengo liburuetan «desa», eta gero «dasa».

<sup>234</sup>Hizkuntzaren itxurari dagozkion aldaketei buruz —eta beheago aipatzen diren edukari dagozkionen gainean— ikus I erans.

104 or. = IX, 5, 13 [222, 5]	Ebangelioa	Ebanjelioa
143 or. = XI, 8, 10 [311, 15]	Ebangelioan	Ebanjelioan
183 or. = XIII, 20, 27 [400, 17]	Ebangelioan	Ebanjelioan
184 or. = XIII, 22, 32 [404, 10]	Ebangeliorako	Ebanjeliorako
163 or. = XII, 16, 23 [356, 6]	Ierusalem	Ierusalen
163 or. = XII, 16, 23 [356, 7]	Ierusalem	Ierusalen [pr.]
163 or. = XII, 16, 23 [356, 7]	Ierusalem	Ierusalen [alt.]
176 or. = XIII, 9, 10 [385, 19]	Ierusalem'go	Ierusalen'go
64 or. = VI, 3, iz. [128, 16]	Anburusi	Amburusi
64 or. = VI, 3, 3 [128, 21]	Anburusi	Amburusi
65 or. = VI, 4, iz. [130, 18]	Anburusi	Amburusi
65 or. = VI, 4, 6 [131, 15]	Anburusi	Amburusi
71 or. = VI, 11, 18 [144, 18]	Anburusi	Amburusi
89 or. = VIII, 2, 3 [185, 17]	Anburusi	Amburusi
104 or. = IX, 5, iz. [221, 19]	Anburusi	Amburusi
104 or. = IX, 5, 13 [221, 25]	Anburusi	Amburusi
105 or. = IX, 7, 15 [224, 1]	Anburusi	Amburusi
106 or. = IX, 7, 16 [224, 16]	Anburusi	Amburusi
111 or. = IX, 12, 32 [237, 14]	Anburuzi	Amburuzi

Bi irizpide erabili ditu hauetan Lekuonak: batetik, euskal grafia eta ahoskera hobetsi ditu, Orixek batzuetan erabili duen grafia etimologikoaren kontra; bestetik —eta, hainbestetan bezala, Orixeren *usus*-ak beta ematen zionean—, Olabiderena dei genezakeen sistemaren alderdi zenbaiten kontra jokatu du. Bi irizpide hauek, esan gabe doa, ez daude nahitaez elkarren kontra. Lehenengoa honako kasu hauetan ikus dezakegu: «Eva B : Eba A», «Ebangelioa B : Ebanjelioa A» eta «Ierusalem B : Ierusalen A».<sup>235</sup> Bestalde, Orixek bai «Nerbidi» bai «Nebridi» erabiltzen du *Nebridius* izena emateko: interesgarria da egiaztatzea Lekuonak, behin bakarrik izan bada ere, «Nebridi» hobetsi duela.<sup>236</sup> «Patriki» izena (hots, *Patricius*) bi bider agertzen da B-ko testuan eta bietan itxura honekin (zerrendan bildutakoa

<sup>235</sup> *Eba* izena beste bi bider agertzen da *Aitorkizunetan*: kontuan hartzeko modukoa da bi hauetako batean (58 or. = V, 8, 15 [114, 17]) «Evaren» irakur daitekeela B-n eta m2-ren zuzenketa bat dagoela «Ebaren» gera dadin (beste agerraldian [178 or. = XIII, 13, 14 <389, 21>] «Eba» dago ja B-prior-en). *Ebangelio* izenaren agerraldi guztiak zerrendan jasotakoak dira: hau da, dauden guztiak zuzendu ahal izan ditu Lekuonak. *Jerusalem* izena, azkenik, beste bi bider agertzen da (113 or. = IX, 13, 37 [240, 25] eta 134 or. = X, 35, 56 [289, 27]) aldatu gabe. Bere idatzietan ere irizpide hau berau erabili ohi zuen Lekuonak.

<sup>236</sup> B-ko testuan 5 bider agertzen da «Nebridi» (41 or. = IV, 3, 6 [79, 23]; 70 or. = VI, 10, iz. [142, 5]; 74 or. = VI, 16, iz. [151, 2]; 74 or. = VI, 16, 26 [151, 11]; 101 or. = IX, 3, iz. [214, 18]) eta 12 bider «Nerbidi» (68 or. = VI, 7, 11 [136, 17]; 71 or. = VI, 10, 17 [143, 13]; 76 or. = VII, 2, 3 [155, 16]; 78 or. = VII, 6, 8 [161, 14]; 79 or. = VII, 6, 8 [162, 4]; 93 or. = VIII, 6, 13 [194, 23 eta 195, 1]; 93 or. = VIII, 6, 14 [195, 9]; 101 or. = IX, 3, 6 [215, 16]; 102 or. = IX, 3, 6 [215, 26-27 eta 216, 9]; 102 or. = IX, 4, 7 [217, 4]). Ohar bedi C-ko testuan bien arteko proportzioa handiagoa dela oraindik «Nerbidi» formaren alde: B-ko «Nerbidi» guztiak berdin-berdin daude C-n; berriz, B-ko bost «Nebridi» horietatik hiru kapituluaren izenburuetan daude —eta, dakigun bezala, kapituluaren izenburu guztiak B-n bakarrik sartu ziren: ikus 75 or.—, bat «Nerbidi» batetik dator (hots, «Nerbidi C : Nebridi B» VI, 16, 26) eta bestea, hau bai, «Nebridi» da baita C-ko testuan ere. Baina C-ren eta B-ren arteko desberdintasun hauek ezin izan dute eraginik izan Lekuonaren erabakian, Lekuonak ez baitzekien C-ren berririk. Zergatik aldatu zuen Lekuonak VI, 7, 11 paragrafokoa? Seguruenik haren inguruan —eta, batez ere, ordura arteko testuan— «Nebridi» zelako nagusi eta, hortaz, puntutxo honetan ere erregulartasunaren alde jokatzeko.

eta 113 or. = IX, 13, 37 [240, 21]); A-ra bidean bigarren agerraldia B-n zegoen bezalaxe gelditu da, baina lehenengoak gorago jasotako itxura xelebrea hartu du, hots, «Partiki»: litekeena da «Patriki» baten ordeztutako huts bat izatea. Interesgarriagoa da —bere sistematikotasunak ezin eztabaidatuzko egiten duelako— «Anburusi B : Amburusi A» aldaketa: honek (lehenago «Nerbidi B : Nebridi A» aldaketak bezala) kontuan hartzeko moduko datu bat emango digu «Gauza iakingarrienen arkibidea» delakoaren historiarako (ikus 308-314 or.).<sup>237</sup>

Honaino, bada, hizkuntzaren itxurari dagozkion aldaketa gehienei buruzkoa —hizkuntzaren itxurari dagozkionak, nahi baldin bada, adiera zabal samar batean, adizkien kasuan esaterako—. Hauena bezain argia da e d u k i a r i d a g o z k i o n e n n o n d i k n o r a k o a : B-tik A-ra bidean sartutako aldaketetan asko dira, ordura artekoetan baino gehiago alegia —ikus, mailakatzeko honen gainean, 212-213 or.—, jatorrizkoarekiko leialtasunak ez ezik Orixeren testuaren argitasunari eta estiloari berari buruzko iritzi batek eragindakoak. Adibide ezin hobea da Mathieu-rentzako eskaintzan dagoen hau:

Guk ezin eman dugu passif dalako ori, *oso*  
bakan baizik [...] (B, I or.)

Guk ezin eman dugu passif dalako ori, bakan baizik  
[...] (A, 6, 1-2).

Orixeren testuan ez dago nahitaez zuzendu beharrekorik, ezta gutxiago ere: gustu kontua da, estilo kontua alegia; eta Mathieu-rentzako eskaintzan, noski —horregatik genioen adibide ezin hobea zela—, e z d a g o j a t o r r i z k o l a t i n i k . Daitekeena da ez izatea berariaz egina, baina era honetako aldaketen zerrenda bat nahi adina luza genezake: ez dut uste merezi duenik, honen adibide ugari ikusi ditugulako ja gorago eta, oraingo honetan, orrialde asko behar genituzkeelako guztiak biltzeko. Ikusi ditzagun dena den lehenengo orrialdeetatik ateratako bospasei kasu, goiko zerrendetan ezkututzen diren guztien erakusgarri:

Tu etiam mihi dabas nolle  
amplius quam dabas [...] (I,  
6, 7)

Zuk ematen zenidan, are, Zuk  
emana baiño geiago ez nai izatea  
[...] (B, 4 or.)

Zuk ematen zenidan, are, Zuk  
emana baiño geiago *nik* ez nai  
izatea [...] (A, 14, 22-24);

Quid autem erat causae, cur  
graecas litteras oderam, quibus  
puerulus imbuebar, ne nunc  
quidem mihi satis exploratum  
est. (I, 13, 20)

Gaztetxorik *irakatsi zidaten*  
*Greziko* ele-ederra zergatik  
nendun iguin, ez dakit oso  
oraintxe ere. (B, 11 or.)

Gaztetxorik *eni* [ene A] *irakatsi*  
*Grezi'ko* ele-ederra, zergatik  
nuan iguin, ez dakit oso  
oraintxe ere. (A, 25, 21-22);

Et tamen ego, Deus meus, in  
cuius conspectu iam segura est  
recordatio mea, libenter haec  
didici et eis delectabar miser  
[...] (I, 16, 26)

Nik, alare, nere Iainko Zure  
aintzinean lasapidez oiek  
gogoratzean, pozik ikasi nitun  
olakoak eta atsegiñ artu aietan  
doakabe onek [...] (B, 14 or.)

Nik, alare, nere Iainko Zure  
aintzinean lasapidez oiek  
gogoratzean, pozik ikasi nitun  
olakoak eta atsegiñ artu *nun*  
aietan doakabe onek [...] (A,  
31, 9-11);

<sup>237</sup>Izen hau 17 aldiz agertzen da *Aitorkizunetan* (goiko zerrendan aipatzen diren 11 agerraldiak eta honako 6 hauek: 61 or. = V, 13, iz. [121, 3]; 61 or. = V, 13, 23 [121, 10]; 63 or. = VI, 1, iz. [125, 5]; 63 or. = VI, 1, 1 [126, 16]; 64 or. = VI, 2, 2 [128, 6]; 93 or. = VIII, 6, 15 [196, 4]). Lehenengo 5etan (hots, VI, 2, 2 paragrafoko

[...] saevire magis quam cedere libebat. (I, 19, 30)	[...] naiago nendun asarretu <i>amor eman</i> baiño. (B, 16 or.)	[...] naiago nuan asarretu <i>men egin</i> baiño. (A, 35, 1);
[...] sed exhalabantur nebulae de limosa concupiscentia carnis et scatebra pubertatis [...] (II, 2, 2)	[...] loikerietan eta gaztaroko likiskerietan <i>baiño</i> [...] (B, 18 or.)	[...] loikerietan eta gaztaroko likiskerietan <i>baizik</i> [...] (A, 37, 19-20);
Timor insolita et repentina exhorrescit rebus [...] (II, 6, 13)	Bildurra, <i>ez-ustekoak</i> eta <i>bat-batekoak</i> latz ikaritzen <i>du</i> [...] (B, 24 or.)	Bildurra, <i>ez-ustean</i> eta <i>bat-batean</i> latz ikaritzen <i>da</i> [...] (A, 47, 23-24);
[...] quod fallebamus eos, qui haec a nobis fieri non putabant et vehementer nolebant. (II, 9, 17)	[...] olakorik egiten ez genula uste zuten aiek engañatzen baikenitun, eta etzuten nai, naski, iñola. (B, 26 or.)	[...] olakorik egiten ez genula uste zuten aiek engañatzen baikenitun, eta <i>nai ere</i> etzuten nai, naski, iñola. (A, 50, 19-21).

Eta abar. Ia-ia estiloari —eta, batzuetan, argitasunari— bakarrik erreparatu dioten era honetako aldaketa hauen ondoan badira hizkuntzaren beraren ikuspuntutik onargarritasunaren edo, behintzat, eztabaidagarritasunaren muga dauden esaldiak argitu nahi dituzten aldaketak: kontuan hartzeko modukoa da oso ugari direla tipo honetakoak. Oraingoan ere hasierako orrialdeetatik hartutako adibide batzuk baino ez ditugu hona ekarriko:

Nam quis mihi dicat ista, non habeo; nec pater nec mater potuerunt nec aliorum experimentum nec memoria mea. (I, 6, 9)	Au esan dezaidakenik ez baitut, <i>ez amak, ez aitak, ez</i> besteren <i>sumak, ez ene oroiteak</i> . (B, 5 or.)	Au esan dezaidakenik ez baitut, <i>ez amarik, ez aitarik, ez</i> besteren <i>sumarik, ez ene oroiterik</i> . (A, 16, 8-10);
[...] et nemo miseratur pueros vel illos vel utrosque. (I, 9, 15)	Iñork ez du aurren <i>kupiderik edo aundienik edo bienik</i> . (B, 8 or.)	Iñork ez du aurren <i>kupiderik, ez aundienik, ez bienik</i> . (A, 21, 26-27);
[...] cui melior serviebat, quia et in hoc tibi utique id iubenti serviebat. (I, 11, 17)	eta ari obeki serbitzen <i>zion, zu ere</i> Zuk agindu zeniolako egiten baitzun. (B, 10 or.)	eta <i>ola</i> ari obeki serbitzen <i>zion ta baita Zuri ere</i> , Zuk agindu zeniolako egiten baitzun. (A, 24, 3-5);

agerraldira artekoetan, hau barne) «Amburusi» dago idatzita B-ko testuan eta gainerako guztietan, berriz, «Anburusi»: oso egiantzekoa da 5 «Amburusi» horiek guztiak B-ren kopiagilearen hutsa izatea, C-n —eta, esan bezala, B-n diren gainerako agerraldi guzti-guztietan— «Anburusi» irakurtzen baita beti. B-prior-etik A-ra bidean ez dira aldatu «Amburusi» eskribituta daudenak, eta dauden 12 «Anburusi» horietatik 11 —aipatu zerrendan jaso dugun bezala— «Amburusi» bezala aldatu dira (beraz, «Anburusi») bat itzuri zaio Lekuonari: VIII, 6, 15 paragrafokoa). Aldaketaren zergatikoa —hemen— gutxienezkoa da: daitekeena da lehenengo bost «Amburusi» horiek beta eman izana Lekuonari egin zituen aldaketak egiteko, baina badirudi izen berezietan gainerakoetan izan ez zuen jarrera bat izan zuela eta, izan ere, «Amburusi» bezalako grafiak haren *usus*-ekoak dira.

[...] turpis anima et dissiliens a firmamento tuo in exterminium, non dedecore aliquid, sed dedecus appetens. (II, 4, 9)	Anima lotsagarria, itsusia maitatuz, ez arek dakarren zerbait, beure ondamendirako Zugandik koloka doana! (B, 22 or.)	Anima lotsagarria, beure ondamendirako Zugandik koloka doana, itsusia maitatuz, ez arek dakarren zerbait. (A, 44, 7-9);
[...] quis dubitet esse faciendum, quando ea iusta est societas hominum, quae servit tibi? (III, 9, 17)	nor otezkoan gelditu Zure gomenerako egin bear <i>dala</i> , gizarte ua zintzo danean? (B, 36 or.)	nor otezkoan gelditu, Zure gomenerako egin bear <i>ote-dan</i> , gizarte ua zintzo danean? (A, 69, 7-8).
Eta ugari dira, orobat, jatorrizko latinarekiko leialtasunaren izenean egindako aldaketak; honako hauen eitekoak dira guztiak:		
Summe, optime, potentissime, <i>omnipotentissime</i> , misericordissime et iustissime [...] (I, 4, 4)	Garaiena, onena, dezakenena, urrikaltsuena ta zuzenena [...] (B, 2 or.)	Garaiena, onena, dezakenena, <i>guzti-dezakenena</i> , urrikaltsuena ta zuzenena [...] (A, 12, 6-7);
[...] colligens et non egens, portans et <i>implens</i> et protegens [...] (I, 4, 4)	[...] biltzen eta bearrik ez, eramaten, <i>berritzen</i> eta gerizatzen [...] (B, 3 or.)	[...] biltzen eta bearrik ez, eramaten, <i>betetzen</i> eta gerizatzen [...] (A, 12, 11-12);
Supererogatur tibi, ut debeas [...] (I, 4, 4)	Gaiñez <i>demaizute</i> , zordun <i>zaitezen</i> [...] (B, 3 or.)	Gaiñez <i>demaizugu</i> zordun <i>zaitzagun</i> [...] (A, 12, 18-19);
[...] sed hominibus flagitiosis divina tribuendo, ne flagitia flagitia putarentur [...] (I, 16, 25)	[...] baiña gizon tzarrerri iainkozkoak <i>egotzirik</i> , <i>tzarkeritzat</i> artu ez ditezen [...] (B, 13 or.)	[...] baiña gizon tzarrerri iainkozkoak <i>egotzirik tzarkeriak</i> <i>tzarkeritzat</i> artu ez ditezen [...] (A, 30, 9-10);
Quasi vero quemlibet <i>inimicum</i> hominem perniciosius sentiat quam ipsum odium quo in eum irritatur [...] (I, 18, 29)	Gizona galgarriago ba litzaio bezala arenganako gorrotoa baiño [...] (B, 15 or.)	Gizon <i>etsaia</i> galgarriago ba litzaio bezala arenganako gorrotoa baiño [...] (A, 33, 19-20).

Hots: sailkapen hau xeheagoa izan baliteke ere, betiere aipatu bi muturren artean ibiliko ginateke, estilo hutsezko zuzenketak batetik eta, bestetik, jatorrizko latinak eragindako aldaketak —inoiz ahaztu gabe bi irizpide hauek, itzulpen batean, hizkuntzaren zuzentasunarekin berarekin lotuta ager daitezkeela, hona ekarritako adibide gutxi hauetako baten batean ikusi ahal izan dugun bezala—.

B-prior-etik A-ra bidean egin diren gainerako aldaketak —alde batera uzten baditugu inprimategian sortuak diratekeen huts berriak— hutsen edo hutzat jotako en zuzenketak dira. Esana dugu Lekuonaren lana ez zela batera azalekoa izan eta hizkuntzaren ezagutza ez nolanhiko bat erakutsi zuela bertan: horrela, eta B-prior-



eko orrietan bezalaxe, B-prior-etik A-ra bidean sartu zituen aldaketetan *coniectura* on asko eta asko daude; aipa litezkeenetako batzuk baino ez dira honako hauek:

22 or. = II, 5, 11 [45, 8]	ukari-naia	ukan-naia
27 or. = III, 1, 1 [53, 9]	zana	izana
51 or. = IV, 15, 26 [96, 23]	baitari	baitarik
61 or. = V, 12, 22 [120, 10]	naiez	ianez
65 or. = VI, 3, 4 [130, 9]	guztienik	guttienik
66 or. = VI, 5, 7 [133, 10]	arretatik	arretarik
107 or. = IX, 8, 18 [227, 10]	arreratu	arretatu
111 or. = IX, 12, 31 [236, 10]	Gertatu	Gertatua
112 or. = IX, 12, 33 [238, 1]	ilaurri	iñaurri
118 or. = X, 8, 12 [253, 21]	oso	oro
120 or. = X, 10, 17 [257, 18]	eskutatu	eskukatu
120 or. = X, 10, 17 [257, 19]	eskutatu	eskukatu
122 or. = X, 15, 23 [262, 14]	airatzen	aipatzen [alt.]
128 or. = X, 27, 38 [276, 10]	aldartzen	oldartzen
131 or. = X, 33, 49 [284, 16]	erioko	arioko
133 or. = X, 34, 53 [287, 10]	ianetan	lanetan
142 or. = XI, 4, 6 [308, 1]	eder oriek	Eder Orrek
142 or. = XI, 4, 6 [308, 4]	eskerturik	esker Zuri
154 or. = XI, 30, 40 [336, 15]	bezate	besate
159 or. = XII, 10, 10 [347, 8]	Zutan	sutan
162 or. = XII, 15, 18 [352, 20]	gogoan	gogo au
164 or. = XII, 18, 27 [359, 2]	biar dula	diardula
168 or. = XII, 25, 35 [367, 24]	ba'leza	ba'lesa
171 or. = XII, 29, 40 [372, 21]	soiñua eiten duna	soiñu eiteduna
174 or. = XIII, 2, 3 [379, 9]	itxuririk	itsusirik
174 or. = XIII, 3, 4 [380, 6]	bazaio	bezaio
182 or. = XIII, 19, 24 [398, 3]	bezaio	besaio
182 or. = XIII, 19, 25 [399, 4]	lezaken	lesaken
184 or. = XIII, 21, 31 [403, 20]	azirik	ezirik
189 or. = XIII, 27, 42 [414, 7]	beleek	baleek

Orain eta hemen ordea gehiago axola zaizkigu Lekuonak oker zuzendutakoak; atal honetan ere adibide bereziki argi batzuk bakarrik emango ditugu:

I or. [5, 14]	Gaugoitik	Gaurkotik
3 or. = I, 5, 5 [13, 15]	atziko	atsiko
13 or. = I, 16, 26 [30, 18]	dituk	ditut
13 or. = I, 16, 26 [30, 19]	bearreko	bearrezko
14 or. = I, 16, 26 [30, 25]	urre-euria	urre-zuria
24 or. = II, 6, 13 [47, 21]	norgeigoka	norgeika
25 or. = II, 7, iz. [48, 20]	eroriko	erorika
35 or. = III, 8, 16 [67, 27]	itzez [= C]	itzez
35 or. = III, 8, 16 [68, 3]	bereiziz	bereizi
37 or. = III, 11, 20 [71, 9]	berela	bereala
41 or. = IV, 3, 5 [79, 3]	nendiela	nendiola
54 or. = V, 3, 5 [105, 15]	suntsikorren	suntzikorren

56 or. = V, 6, 10 [109, 10]	egin	egin
58 or. = V, 8, 15 [114, 6]	begiratz [ = C]	begiratu
61 or. = V, 13, 23 [121, 23]	legunak	lagunak
65 or. = VI, 3, 4 [130, 10]	Galdegiñez [ = C]	Galdegitez
67 or. = VI, 6, 9 [134, 16]	artatik [ = C]	artetik
71 or. = VI, 11, 18 [144, 9]	gauzetas [gauzetaz C]	gauzetan
74 or. = VI, 16, 26 [152, 1]	ausarta [ = C]	ausartu
75 or. = VII, 1, 1 [153, 7]	Begiz [ = C]	Begi
77 or. = VII, 4, 6 [158, 5]	aitortze# [# = a + n]	aitortzea
84 or. = VII, 13, 19 [173, 7]	egazti [ = C]	egazki
89 or. = VIII, 2, 3 [186, 7]	aitor [ = C]	iator
89 or. = VIII, 2, 3 [186, 9]	gurasoren [ = C]	gurasoen
93 or. = VIII, 6, 15 [196, 12]	zenbait Zure morroirekin	zenbait Zure morroiekin
98 or. = VIII, 11, 25 [205, 13]	ukitzear [ = C]	ukitzea
99 or. = VIII, 12, 29 [208, 3]	ieiki [ = C]	ieki
99 or. = VIII, 12, 30 [209, 11]	urtez [ = C]	urte
102 or. = IX, 4, 7 [217, 9]	ziztaz [ = C]	zintaz
103 or. = IX, 4, 8 [218, 13]	ba nintza	ba nintzan
104 or. = IX, 4, 12 [221, 5]	lasterrna	lasterra
105 or. = IX, 7, iz. [223, 20]	oitura	oituran
106 or. = IX, 8, 17 [226, 15]	egarriz [ = C]	edariz
109 or. = IX, 10, 25 [233, 2]	alda-berrituko	alde-berrituko
111 or. = IX, 12, 29 [235, 10]	ber#an [# = a + t]	berean
111 or. = IX, 12, 31 [236, 8]	kantatzen [ = C]	kantatzean
112 or. = IX, 13, 35 [239, 11]	nazazu [ = C]	nazazun
113 or. = IX, 13, 36 [240, 10]	amarruz [ = C]	amurruz
118 or. = X, 8, 12 [253, 25]	eta aren sabel	eta har aren sabel
119 or. = X, 8, 15 [255, 10]	idukitzeko	idukitzeke
125 or. = X, 21, 30 [270, 9]	sumakiz	sumakiz
125 or. = X, 21, 30 [270, 15]	iñoiz	iñori
134 or. = X, 35, 56 [289, 27]	orri	oi
141 or. = XI, 2, 3 [305, 17]	gora-mintzoa	gora-mintza
150 or. = XI, 23, 30 [327, 14]	aitorra	iatorra
153 or. = XI, 27, 35 [332, 19]	arena	arena
153 or. = XI, 27, 35 [332, 19]	bosgarrena	bosgarren
163 or. = XII, 15, 22 [355, 14]	aurren-urrenik	aurren-aurrenik
163 or. = XII, 16, 23 [356, 19]	ba'desate	ba'dezate
169 or. = XII, 26, 36 [369, 3]	edu eiotea	edu bezela eiotea
171 or. = XII, 30, iz. [374, 2]	bixikoak	bitxikoak
175 or. = XIII, 7, 8 [383, 7]	lorretik	zorretik
176 or. = XIII, 9, 10 [385, 17]	zurubi-kanta	zurbil-kanta
179 or. = XIII, 14, 15 [390, 22]	errukiro	errukiko
180 or. = XIII, 15, 18 [393, 12]	ua	au
180 or. = XIII, 17, 20 [394, 12]	batean	batera
182 or. = XIII, 19, 25 [399, 11]	iezute	iozute
183 or. = XIII, 21, 29 [401, 14]	gorbiziz	gorbizizi
190 or. = XIII, 31, 46 [417, 20]	ain	aien

Litekeena da hauetako batzuk inprimategian sortutako huts berriak izatea, baina bistan da

—hutsen nolakotasunarengatik berarengatik— gehien-gehienak Lekuonak berariaz egindako aldaketak direla. Pentsa liteke, orobat, zerrenda honetan jaso diren zenbait zuzenkizun ez izatea Lekuonak hustzat jotakoak eta bai, aldiz, bere ustez itxura normalago batean eman behar ziren hitz edo esapideak: hauetakoak izan litezke, esaterako, «Gurgoitik B : Gaurkotik A», «bearreko B : bearrezko A», «berela B : bereala A», etab. Honetarako Lekuonak Orixeren testua zuzentzean izandako jarrera bera beste irizpiderik ez dugu eta, honen arabera, ez dirudi —oro har behintzat— horrelakorik pentsatzeko arrazoiak dugunik: nolana ere, kasu hauen —eta hauek bezalako beste batzuen— azterketan zehar ahaztu behar ez den hipotesia da. Betiere ikuspuntu honetatik begiratuta, aipatzeko modukoa da —garden-gardena baita— «Gurgoitik B : Gaurkotik A» banalizazioa;<sup>238</sup> «dituk B : ditut A» aldaketak *ope ingenii*—hots, hemen, jatorrizkoari begiratu gabe— egindako zuzenketa dirudi:

[...] et saxa tua percutis et sonas dicens: «hinc verba <i>discuntur</i> , hinc adquiretur eloquentia rebus persuadendis sententiisque explicandis maxime necessaria». (I, 16, 26)	Ik, ibai, arkaitzarekin tupust egíñez, au otsegiten duk: «Emen ikasten <i>dituk</i> itzak, emen ukaiten duk mintza-antzea, gauzak adierazteko ta esanak argitzeko ain <i>bearreko</i> dana». (B, 13 or.)	Ik, ibai, arkaitzarekin tupust egíñez, au otsegiten duk: «Emen ikasten <i>ditut</i> itzak, emen ukaiten duk mintza-antzea, gauzak adierazteko ta esanak argitzeko ain <i>bearrezko</i> dana». (A, 30, 17-20),
--	--	---

non «bearrezko» ere banalizazioa baita, hizkera askotan *bearreko* bakarrik —eta inoiz ez *beharrezko*— erabiltzen delako; «urre-zuria» ere banalizazio kasu politenetakoa da:

[...] dum spectat [...] Iovem quo pacto Danaae misisse aiunt in gremium quondam <i>imbrem aureum</i> [...] (I, 16, 26)	zekusala «Iupiter nola bialdu omen zun <i>urre-auria</i> Danae'ren altzora [...]» (B, 14 or.)	zekusala «Iupiter, nola bialdu omen zun <i>urre-zuria</i> Danae'ren altzora [...]» (A, 30, 24-25),
--	---	--

baina kontuan izan behar da B-n gertatutako beste huts batek eragin duela —honek, lehenengo begi kolpe batean eman dezakeenaren kontra, hutsari buruz egin dugun epaia aldatzen ez badu ere—;<sup>239</sup> «norgeigoka» beste batzuetan ere erabili izan du Orixek *Aitorkizunetan* (39 or. = IV, 1, 1 [75, 12] eta 40 or. = IV, 2, 3 [77, 5-6]);<sup>240</sup> kasu bera da «eroriko B : erorika A»: testuinguruak —emen ez baitago jatorrizkorik— oso argi uzten du izena dela («Eskerrak Iainkoari eroriko oriek barkatu ditiolako [...]); eta *eroriko* hitza, izen gisan, oso ondo dokumentatuta dugu, *erorika* ez bezala;<sup>241</sup> bitxia da «itsez» zuzenketa, *difficilior* baita: litekeena da halabeharrez sortutakoa izatea (ez baita dudarik «itzez», hots, *hitzez* behar duela: «aut rei tenentur animo et *verbis* saevientes adversus te»); «bereala» ere

<sup>238</sup>«Gaurkotik» honi azpi-sarrera bat eman zaio OEH-n (s.v. 'gaurko', VIII, 441 or.): bertan aipatzen den adibide bakarra —noski— hemengo hau da; baina merezi du 'gurgoitik' sarrera ikustea.

<sup>239</sup>Izan ere, hiruzpalau lerro gorago huts berbera gertatu da baina, oraingo honetan, B-n bertan: «*urre-zuri*, altzo, lillura, zeruko iauretxe» dakarte bai B-k bai A-k (ikus erreferentziak testuan); ez, noski, C-k: «*urre-auri*, altzo, lillura, zeruko iauretxe» (C, 12 or.). Ezin da zalantzarik izan 'urre-auria' behar duela: «[...] *imbrem aureum*, et gremium, et fucum, et templa caeli [...]».

<sup>240</sup>Hemengo «norgeika» gaizto honek ere sarrera bat sortu du OEH-n: ikus s.v. 'norgehika' (non, berriz ere, *Aitorkizunetako* adibide hau bakarrik ematen baita); ikus, orobat, s.v. 'norgehiagoka'.

<sup>241</sup>Ikus gure kasu hau OEH-ko 'erorka' sarreraren barnean; ikus baita ere s.v. 'eroriko'.

banalizazioa da, Orixek askotan erabiltzen baitu «berela»; jatorrizkoari erreparatu gabe —eta, esanahiari dagokionez, banalizazio bat eginez— sortu da, agian inprimategian bertan,<sup>242</sup> «legunak B : lagunak A»:

[...] et verbis eius suspendebar intentus, rerum autem incuriosus et contemptor adstabam et delectabar <i>suavitate sermonis</i> [...] (V, 13, 23)	Aren agotik zintzilika nindagon, esanari iara eman gabe, ta are erdeiñatuz[,] baiña mintzo <i>legunak</i> atsegiten zidan. (B, 61 or.)	Aren agotik zintzilika nindagon, esanari iara eman gabe, ta are erdeiñatuz; baiña mintzo <i>lagunak</i> atsegiten zidan. (A, 121, 21-23);
---	--	---

kasu berbera dira «artatik B : artetik A» eta «gauzetas B [gauzetaz C] : gauzetan A»;<sup>243</sup> bi bider agertzen den «aitor B : iator A» aldaketari buruz ikus 166 or. eta bertako 81 oh.; «banintza», hots, *banintz*, askotan irakur daiteke *Aitorkizunetan*; «lasterra» irakurketari dagokionez ere, «lasterrna»-ren *n*-ak nahikoa izan behar luke pentsarazteko «lasterka» behar duela hemen (eta horixe dakar C-k: «lasterka»); benetan bitxia da halaberharrez sortu ezin izan den «eta aren sabel B : eta har aren sabel» aldaketa:

Haec omnia recipit recolenda, cum opus est, et retractanda grandis memoriae recessus et nescio qui secreti atque ineffabiles <i>sinus eius</i> [...] (X, 8, 13)	Bear dalarik guziak oro berritzen ditu ta iraultzen oroimenaren kolko aundi onek, eta <i>aren sabel</i> izkutu eziñ esan-alako onek [...] (B, 118 or.)	Bear dalarik guziak oro berritzen ditu ta iraultzen oroimenaren kolko aundi onek, eta <i>har aren sabel</i> izkutu eziñ esan-alako onek [...] (A, 253, 23-26),
--	--	---

pasarte honen inguruan harrik agertzen ez delarik; «mintza» forma, Orixerengan behinik behin, hitz elkartuen lehenengo osagaien bakarrik agertzen da; *ezan* laguntzailearen adizkiekin nahas zitezkeen —eta Orixek oso gustuko zituen— *esan* aditzaren adizki trinkoei arreta handia ipini zien Lekuonak (ikustea besterik ez dago, gorago, ondo zuzendutako hutsen zerrendakoak: «bezate B : besate A», «ba'leza B : ba'lesa A», «bezaio B : besaio A», «lezaken B : lesaken A»), baina hemengo «ba'desate B : ba'dezate A» hau, agidanean, gaizki dago:

[...] et tamen nobis aliquid <i>contradicunt</i> , ita loquor. (XII, 16, 23)	[...] onela iardunen dut, zertxobait ostera baldin <i>ba'desate</i> . (B, 163 or.)	[...] onela iardunen dut, zertxobat ostera baldin <i>ba'dezate</i> . (A, 356, 18-19);
--	--	---

«edu B : edu bezela A» kasua, oso oker ez banago, ez da lehenengo begi kolpe batean dirudiena, hots, gaizki gauzatu den banalizazio exegetiko bat:

[...] vellem ergo, si tunc ego essem quod ille et mihi	[...] nai nuke, beraz, ua ordun bezala ba'nintza ta Iatorri-Liburua idaztea	[...] nai nuke, beraz, ua ordun bezala ba'nintza ta Iatorri-
---	---	---

<sup>242</sup>Huts honen gainean ikus 72 or. 12 oh.

<sup>243</sup>«Erio-lika *artatik* [artetik A] atera bainauzu [...]»: «[...] quam de visco tam tenaci mortis exuisti»; «[...] irazeiko *gauzetas* [gauzetan A] atsartu nai [...]»: «[...] aviditate fruenti praesentibus fugientibus [...]».

abs te Geneseos liber scribendus adiungeretur, talem mihi eloquendi facultatem dari et eum texendi sermonis modum [...] (XII, 26, 36)	neri irauntsi ba'zenida arena bezalako itz-antzea neri ematea, ta iarduna <i>ark edu</i> eiotea. (B, 169 or.)	Liburua idaztea neri eraunzi ba'zenida, arena bezalako itz- antzea neri ematea, ta iarduna <i>ark edu bezala</i> eiotea [...] (A, 368, 24-369, 3);
---	--	--

izan ere, pentsa genezake Lekuonak *edu* ez ohikoaren ordez «bezala» (edo «bezela») arrunt bat ipini nahi izan duela baina, aldaketa gauzatzera —dela Lekuonaren beraren erruarengatik, dela inprimategiko langileenarengatik—, ez dela ezabatu ordezkatu behar zen hitza; Lekuonak egindako zuzenketetan horrelako kasuak falta ez badira ere (ikus, esaterako, idazkerari buruzko iritzi soilek eragindako aldaketetarako eman ditugun adibideak —278-279 or.—, «nendun > nuan» ez aipatzearren), aitortu behar da ez dela hau haren ohiko jarrera: eta, agidanean, «*edu* B : *edu bezela* A» aldaketa *Aitorkizuneten* testuan oso urruti ez dagoen beste pasarte batek sortu du —oker, noski—:

«Estote —inquit— sicut ego, quia et ego sicut vos» (Gal. 4, 12). (XIII, 21, 31)	Zaitetze, esan zun, ni <i>edu</i> , ni zuek <i>edu bezala</i> (Gal. 4, 12). (B, 184 or.)	Zaitetze, esan zun, ni <i>edu</i> , ni zuek <i>edu bezala</i> (Gal. 4, 12). (A, 403, 11-12),
---	--	--

non, esan gabe doa, «*ni zuek edu [naizen] bezala*» ulertu behar baita;<sup>244</sup>  
«bitxiko» *facilior* da, agian inprimategian sortua, «bixiko» hitza, beti forma honetan eta  
'askotariko, desberdin' adieran, sarri erabiltzen baitu Orixek *Aitorkizunetan*; «lorretik B :  
zorretik A» banalizazio nabarmena da:

Cui dicam, quomodo dicam <i>de pondere</i> cupiditatis in abruptum abyssum et de sublevatione caritatis per Spiritum tuum, qui «superferebatur super aquas»? (XIII, 7, 8)	Nori esan nola nik esan irritsen <i>lorretik</i> leize malkorrera, ta maitasunaren gaindegitik Zure arnasaren bidez gain-eramana zala? (B, 175 or.)	Nori esan, nola nik esan, irritsen <i>zorretik</i> leize malkorrera, ta maitasunaren gaindegitik Zure arnasaren bidez urgañean gain-eramana zala? (A, 383, 7-9);
---	---	---

«zurubi-kanta B : zurbil-kanta A» aldaketa ere, bistan denez, *facilior* da:

[...] ascendimus «ascensiones in corde» et cantamus « <i>canticum graduum</i> » [...] (XIII, 9, 10)	[...] igotzen ditugu biotzean eta <i>zurubi-kanta</i> kantatzen dugu [...] (B, 176 or.)	[...] igotzen ditugu igoerak biotzean, eta <i>zurbil-kanta</i> kantatzen dugu [...] (A, 385, 17-18),
---	--	---

eta baliteke hitzak B-n duen itxura grafikoak ere eragina eduki izana Lekuonaren huts

<sup>244</sup>XIII, 21, 31 paragrafoko pasarte zuzenak XII, 26, 36 paragrafoko zuzenketa okerra eragin izana egiantzekoago bihurtzen da kontuan hartzen badugu hauexek direla *Aitorkizunetan* agertzen diren «*edu*» guztiak (hots, XII, 26, 36 paragrafokoa eta XIII, 21, 31 paragrafoko biak), hirurak daudela —ez ohiko arreta bat erakutsiz haren partetik— Lekuonak azpimarratuta eta glosatuta («*como*» banarekin bi paragrafoetan: ikus 139 eta 140 or.) eta sarrera bat eman zaiola hitzari —agian Azkueren hiztegian begiratu ondoren— 1956ko liburuaren «Iztegitxoa» delakoan (ikus 331 eta 337 or.).

honetan (ikus 241 or. 170 oh.);<sup>245</sup> banalizazioa da, orobat, «gorbiz B : gorbizi A»:

[...] cum iam distincta sit terra fidelis ab aquis maris <i>infidelitate</i> amaris [...] (XIII, 21, 29)	[...] lur zintzoa bakandurik baitago itsas-ur <i>gorbiziz</i> samiñetik [...] (B, 183 or.)	[...] lur zintzoa bakandurik baitago itsas-ur <i>gorbizi</i> samiñetik [...] (A, 401, 14-15);
--	--	---

eta, azkenik, oso banalizazio adibide polita da —eta, aldi berean, harrapatzen batere ez erraza— «ain B : aien A»:

Sicut enim recte dictum est: «Non enim vos estis, qui loquimini», eis qui in Dei spiritu loquerentur, <i>sic recte</i> dicitur: «Non vos estis, qui scitis», eis qui in Dei spiritu sciunt. (XIII, 31, 46)	Bidez esan baitzaie Iainko- gogoz mintzo zireneri: «etzerate zuek mintzo zeratenak», <i>ain</i> bidez esana zaie Iainko gogoz da#iteneri: «etzerate zuek dakizutenak[»]. (B, 190 or.)	Bidez esan baitzaie Iainko- gogoz mintzo ziranei: «etzerate zuek, mintzo zeratenak», <i>aien</i> bidez esana zaie Iainko gogoz dakiteneri: «etzerate zuek dakizutenak[»]. (A, 417, 18- 21).
--	---	---

Hauek guztiak, esan bezala, adibideak baino ez dira: zerrenda hau ere, aurrekoak bezalaxe, dezente luza liteke. Nolanahi ere, sail honetan sartu behar lireratekeen gainerako kasu guztiak 215-252 orrialdeetako zerrendan daude eta, epaituta, gure edizioan: honetara jo dezake argibide gehiago nahi duenak.

Atal berezia osatzen dute *hizkuntzazko hutsen —edo horrelako-  
tza jotoakoen— zuzenketek*: atala bereizi beharra begien bistan dago eta atalaren mugak, orobat, zorrotz marraztu daitezke; baina oso kontuan eduki behar da atal honetan sar litezkeen kasu asko jo daitezkeela baita ere idazte edo transmisio hutsen zuzenketatzat —ondo edo gaizki eginda egoteak ez du honekin zer ikusirik— eta, hortaz, oso egiantzekoa dela 281 eta 281-282 orrialdeetako zerrendetako aldaketa batek baino gehiagok, berez, hemengo honetan egon behar izatea —ez dut uste, berriz, alderantzizko kasurik dagoenik—.

29 or. = III, 3, 6 [57, 7]	ni	nik
34 or. = III, 7, 14 [65, 23]	zeduzkan	zedukan
44 or. = IV, 7, 12 [84, 14]	animak	anima
59 or. = V, 10, 19 [117, 21]	egiak oro	egia oro
81 or. = VII, 9, 13 [167, 14]	zioteneri	ziotenari
82 or. = VII, 9, 15 [169, 14]	diotenek [= C]	diotanak [diotenek Oz]
89 or. = VIII, 2, 3 [186, 9]	gurasoren [= C]	gurasoen
93 or. = VIII, 6, 15 [196, 12]	zenbait Zure morroirekin	zenbait Zure morroiekin
123 or. = X, 16, 25 [264, 12]	Itxurik	Itxurarik
130 or. = X, 31, 44 [281, 1]	gorputza	gorputzak
130 or. = X, 31, 44 [281, 4]	osasuneko doaia	osasanaren doaia
131 or. = X, 32, 48 [283, 16]	Inor	Inork
134 or. = X, 35, 55 [289, 1]	atsegiña	atsegiñak <sup>246</sup>

<sup>245</sup>«igoerak» hitza «Utsuneak» delakoan egindako gehiketa da: ikus 203 or. 37 zenb.

<sup>246</sup>Baina kasu honetaz ikus 234 or. 147 oh.

140 or. = XI, 2, 3 [305, 1]	Gurenak	Gurena
141 or. = XI, 2, 4 [305, 27]	aiñakoa	aiñakoak
145 or. = XI, 11, 13 [314, 20]	gauz	gauza
165 or. = XII, 20, 29 [360, 24]	duguna	ditugunak
190 or. = XIII, 31, 46 [417, 17]	beste	bestek
191 or. = XIII, 32, 47 [419, 18]	dakusagu	dakusaguz

Bistan da «egiak oro B : egia oro A» gaizki egindako zuzenketa dela; ez dago argi «zioteneri B : ziotenari A» aldaketaren zergatikoa: *-eri* da Orixek datibo plurala egiteko gehienetan erabiltzen duen morfema eta hemen ez da zalantzarik testuinguruak datibo plurala eskatzen duela baina, bestalde, noiz edo noiz saiatu zen Lekuona Orixeren datibo plural hauetakoren bat aldatzen;<sup>247</sup> esan beharrik ez dago, azkenik, «gurasoen» eta «morroiekin», benetan Lekuonak berariaz egindako zuzenketak badira, gaizki zuzenduta daudela.<sup>248</sup>

Ez dakigu —esan dugu gorago— nola sartu zituen Lekuonak *Aitorkizunen* testuan B-prior-en eta A-ren arteko aldaera hauek: irar-probetan egin ote zuen, «Utsuneak» izeneko dokumentua bezalako *corrigenda* batzuen bidez, ala bi baliabideak batera erabiliaz; egiantzekoa da ordea —lehen aipatu ditugun arrazoiengatik— inprimatze proben bitartez bakarrik sartu izana. Bater a zein bestera izan, axola zaigu azpimarratzea, batetik, B-prior-en bertan egindako lanaren eta dokumentatuta ez dugun aldi honetakoaren arteko lotura nabarmena eta, bestetik, B-prior-etik A-ra bidean egindako zuzenketa eta aldaketa hauen ugaritasun eta askotarikotasuna. Izan ere, inprimategiko probek —baldin eta horrela sartu baziren berrikuntza hauek guztiak— ezartzen zizkieten murriztapen fisikoek ez zioten eragotzi Orixeren testua sakon samar aldatzen zuten aldaketak egitea (gogora, besterik gabe —baina ez bakarrik—, 245-252 orrialdeetan jasotakoak). Zeren kontuan hartzeko modukoa baita Lekuonak zuzenketa aldi honetan erakutsi zuen ardura: ez zuen nahikoa izan B-prior-eko orrietan eta «Utsuneak» izeneko paperetan egindako lanarekin eta, aukera izan zuen bitartean, ez ohiko arreta batekin saiatu zen hasitako lana burutzen; segituan aztertuko dugun «Okerrak zuzentze» delakoa Lekuonaren jarrera honen beste erakusgarri bat izango da.

<sup>247</sup>Hemengo kasu hauetan, esan bezala, B-ko «-eri» bana aldatu nahi izan du: «guzieri B : guziari A» (117 or. = X, 6, 10 [251, 14]), argi eta garbi plurala eskatzen duen testuinguru batean, eta «ziraner B : ziranei A» (190 or. = XIII, 31, 46 [417, 19]); «Aberaskieri B : Aberaskiari A» (136 or. = X, 37, 60 [293, 17]) korapilatsua da: inongo zalantzarik gabe pluralaren alde hitz egiten du esaldi osoak («Aberaskieri [Aberaskiari A] dagokionez —iru griña orien naiz biren, naiz guzien mendeko *dinala*— anima ezin oartu ba'ledi ukanez guttiesten *ditula*, utzi *ditezke* oarremateko»), baina «dagokionez» adizkia singular batekin komunztatzen da. Beste alde batetik ordea Lekuonak *Aitorkizunetan* berreraiki behar izan dituen datibo plural guztietan *-eri* forma erabili du: itxura guztien arabera ondo zuzenduta dagoen «Gaiztori B : Gaiztoeri A» (126 or. = X, 22, 32 [271, 14]) aldaeran; egiteko honetan jarri zuen arretaren lekuko den «atzerri B : atzarriari A» (153 or. = XI, 27, 35 [333, 7]) *coniectura* distiratsuan; oso erraz «guziari» bezala zuzendu zezakeen «guzieari B : guziari A» irakurketan (186 or. = XIII, 24, 37 [408, 27]); A-ra iritsi ez den baina zuzena den «biurturi B : biurteri m3 : biurturi A» (111 or. = IX, 12, 29 [235, 17]); eta, azkenik, bestelako arrazoiek eragindako —baina, hemen axola zaigunerako, ikusi ditugun gainerakoak bezain esanguratsua den— «zugatzer B : zugatzer m3 : zugatzeri A» (186 or. = XIII, 24, 35 [407, 24]). (Ez dut uste berariaz egindako zuzenketa denik «barrenari B : barrenai A» [131 or. = X, 33, 49 <284, 14>], nahiz eta jatorrizkoak horrelako zerbait pentsarazi ahal izan: «[...] ardentius sentio moveri animos nostros in flammam pietatis [...]).» Ohar bedi, azkenik, «-ai» dela Lekuonak datibo plurala egiteko bere izkribuetan sarrien erabiltzen duena.

<sup>248</sup>Kontrako kasu bat dugu «etsairen B : etsaiaren A» (90 or. = VIII, 3, 6 [188, 18]) aldaketan: zalantzarik gabe transmisio hutsa da, bistan baitago «etsaiaren» behar duela (eta horrelaxe dakar C-k ere).

## 3. «Okerrak zuzentze»

Liburuaren azken probak inprimategira itzuli ondoren ere jarraitu egin zuen Lekuonak *Aitorkizunen* testua zuzentzen: azken aldaketa hauek, beraz, *errata* zerrenda batean jaso behar izan zituen, 1956ko liburuaren 435-437 orrialdeetan inprimatu zen «Okerrak zuzentze» izeneko zerrendan hain zuzen ere («Oz»), liburuak daramatzan hiztegitxoaren (425-433 or.) eta bi aurkibideen (439-462 or.) bitartean. Honen beharrik ez bagenuen ere, testuaz kanpotiko datuek argi dioskute Lekuonak berak egin zuela zuzenketa zerrenda hau, honen gainean hitz egiten baitio inprimategiko langile batek 1956ko abuztuaren 10eko gutun batean; badakigu, orobat, «Okerrak zuzentze» hau liburu honetan egin zen azken lana izan zela, eman zitzaion kokapenak pentsarazi liezagukeenaren kontra. Datua ez da batere hutsala: zuzenketa zerrenda honen ondoren datozen bi aurkibideek, hurrengo kapituluan ikusiko dugun bezala, toki nabarmena dute *Aitorkizunen* historian, eta «Okerrak zuzentze» hau aurkibideak baino lehenago egoteak —edonongo ohituren aurka— hipotesi arriskutsuak sor zitezkeen. Baina, esan dugun legez, testuaz kanpotiko datu ezin eztabaidatuzkoak ditugu; honela dio inprimategiko langileak 1956ko abuztuaren 10ean egindako aipatu gutunean, Lekuonak eta inprimategiak elkarri egindakoetako azkenean hain zuzen ere:

Ya solo queda por hacer la fe de erratas. Hemos pensado que lo mejor es hacerlo en hoja aparte, que se colocará al final de la obra. De esta forma se puede terminar de manipular la edición sin esperar a preparar su original, y por otra parte es más manejable para consulta.

Ez dakigu zergatik egin ziren, azkenean, beste modu batera, hots, ez orri solte batean ez —gutunean ezer ez esan arren espero zitekeen bezala— liburuaren akaberan: badakigu ordea —eta hau da garrantzitsuena— erabaki honek ez zuela zer ikusirik izan ez aurkibideen egiletasunarekin ez hauen idazte-datarekin. (Inprimategiko langileak eta Lekuonak elkarri egindako eskutitzak 54-55 or. irakur daitezke osorik; 1956ko liburuaren eranskinetako buruzko azalpen orokor baterako ikus 305-306 or.).

Mintzagai dugun «Okerrak zuzentze» hau, 1956ko liburuaren gainerako eranskinak ez bezala, *Aitorkizunen* testuaren historiari berari dagokio zuzen-zuzenean, bertan ematen baitira Orixeren testuari egindako azken aldaketak; bestela esanda, eranskin honek *Aitorkizunen* testuaren bilakaeraren azken kapitulua osatzen du. Horregatik jardun dugu hemen honen gainean eta ez «1956ko edizioaren eranskinak» izenburua daraman atalean (305-339 or.). Atal honetan ikusiko dugu —eta kontuan hartu behar da gauzak bestela ere izan zitezkeela— Lekuona «Okerrak zuzentze» honetaz baliatu zela *Aitorkizunen* testuaren gainean ordura arte egin zuen lan askotarikoarekin jarraitzeko eta, beste alde batetik, zerrendako zuzenketa azterketa xeheak erakutsiko ahal digu Lekuonak B-prior-etik A-ra bidean egin nahi izan zituen —eta, aldi berean, gertatu ziren baina egin nahi izan ez zituen— aldaketa zenbaiten nondik norakoa.<sup>249</sup>

<sup>249</sup>Eskuineko zutabearen —esan gabe doa— Oz-k proposatzen dituen irakurketak bildu ditugu, hau da, Oz-ren egileak zuzentzat jotzen dituenak. Ohar bedi, bestalde, gure erreferentzietan ematen diren lerroen zenbakiak ez datozela bat, askotan, Oz-n irakur daitezkeenekin: Oz antolatu zuenak ez zituen kontuan hartu, orrialde bakoitzeko lerroak zenbatzean, kapituluen izenburuak (guk erabili dugun sistemari buruz ikus 16 or.). Bestalde



	B	A	Oz
2 or. = I, 4, 4 [12, 3]	otoitzen	otoitzen	otoizten
4 or. = I, 6, 7 [14, 17]		-ninduzu	-ninduzun
8 or. = I, 9, 15 [21, 17]	zitiguteen	zitiguteen	zitiguten
9 or. = I, 10, 16 [23, 1]	etzai#u [etzazu m2C]	etzazu	eitzazu
15 or. = I, 18, 28 [32, 16]	[aldegitea Uts.]	-egitera	-egitea
16 or. = I, 19, 30 [34, 15]	aurtz#i [aurtzai m2]	aurtazi	aurtzai
21 or. = II, 3, 8 [42, 20]	giñare	giñare	giñarre
31 or. = III, 6, 10 [61, 10]	Ori	Ori	Orri
42 or. = IV, 4, 9 [81, 20]	sortetxea	sortetxea	sortetxea
44 or. = IV, 7, 12 [84, 11]	iakitea	iakitzea	iakitea
50 or. = IV, 15, 26 [96, 8]	gogor	gogo	gogor
53 or. = V, 2, 2 [102, 8]	barne#eraíño	barnereraíño	barneneraíño
54 or. = V, 3, 3 [103, 14]	ont#ixkan	ontxixkan	ontzixkan
54 or. = V, 3, 3 [103, 16]	aien [aien m3]	aien	ain
59 or. = V, 10, 19 [117, 22]	etzi [atzi m2]	utzi	atzi
60 or. = V, 10, 19 [118, 6-7]	gogoen atean	gogoen atean	gogora n. <sup>250</sup>
62 or. = V, 14, 24 [122, 11]		nairik	nai-ta
62 or. = V, 14, 24 [122, 20]	askotan	azkotan	askotan
68 or. = VI, 7, 12 [137, 28]	maitatzekoa	maitatzekoa	maitatzeko <sup>251</sup>
71 or. = VI, 10, 17 [143, 25]	genen [genen m3]	genen	genun
72 or. = VI, 12, 22 [147, 10]	iantzat [aintzat m3]	aientzat	aintzat
76 or. = VII, 3, 5 [157, 4]	baiñan	baiñan	—baiñan
76 or. = VII, 3, 5 [157, 5]	argi	argi	argi—
77 or. = VII, 5, 7 [159, 15]	mugarik	mugatik	mugarik
82 or. = VII, 9, 15 [169, 14]	diotenek <sup>252</sup>	diotenak	diotenek
83 or. = VII, 11, 17 [171, 4]	nenkuzan	nenkuzan	nenkusan <sup>253</sup>
86 or. = VII, 19, 25 [178, 9]	Itz	Itz	Iten
90 or. = VIII, 3, 6 [189, 3]	txeko [etxeko m2]	txeko	etxeko
93 or. = VIII, 6, 14 [195, 10]	Pontian	Poztitian	Pontitian
94 or. = VIII, 7, 17 [198, 16]	gurikerieri	guzikieri	gurikieri <sup>254</sup>
96 or. = VIII, 8, 19 [200, 22]	iñarausia	iñarausi	iñarrausi <sup>255</sup>

—eta ohi bezala—, C-ren eta B-prior-etik ibilitako eskuen irakurketei buruzko xehetasunak zerrendan bertan zein orripeko oharretan bildu ditugu.

<sup>250</sup>«gogoeatean» C; «gogoen atean» B; «gogoen artean» m2; «gogoen atean» A; «gogora naiean» Oz; ikus honetaz 129-130 or.

<sup>251</sup>Ez da harritzekoa norbaitek «maitatzeko» irakurri izana, hitzaren akaberako *o* eta *a* letrak behar baino hurbilago baitaude elkarrengandik B-ko testuan. (Ohar bedi, bestalde, C-k ere «maitatzekoa» dakarrela.)

<sup>252</sup>B-n dagoena, berez, «dioten#k» da; badirudi # = a + e baina, nolnahi ere, urratuaren gainean eta lerroarte, betiere makinaz, beste *e* bat dago: hots, «diotenek».

<sup>253</sup>«nenkusan» C.

<sup>254</sup>A-k «guzikerieri» dakar, baina Oz-n zuzenkizun agertzen dena «guzikieri» da; zalantzarik gabe, Oz egitean sortutako huts berri bat da, eta huts honek beste huts bat ekarri du Oz-ko irakurketa zuzenen zerrendan: «gurikieri» ez baina «gurikerieri» behar bailuke, hots, «voluptatibus» (C-k ere «gurikerieri» dakar; «gurikeri[a]» hitza, bestalde, beste behin agertzen da *Aitorkizunetan*, hemen mintzagai dugun agerraldia baino pixka bat lehenago [90 or. = VIII, 3, 7 <189, 20>], hau ere «voluptates» itzultzeko). Bada beste huts bat —eta, gainera, ondorio berbera izan duena— «Okerrak zuzentze» honetan eta, hain justu, hurrengo sarreran: ikus, hortaz, gure hurrengo oharra.

<sup>255</sup>«iñarrausia» C; Oz-k «iñarausi» dakar A-ko testuari dagokion zutabeen: hutsa da, «iñarausia» baitakar A-k; eta ez da zalantzarik huts honek eskuineko zutabeen eman den irakurketa baldintzatu duela, «iñarrausia» behar

98 or. = VIII, 11, 27 [206, 20]	emananizaiok [e.n. m3] <sup>256</sup>	nizaiok	nizaiek
100 or. = IX, 1, 1 [212, 3]	ustea [uztea m3]	ustea	uztea
100 or. = IX, 2, 2 [212, 17]	-maisugoa	-maisugoa	-maisugoa
102 or. = IX, 4, 7 [217, 17]	osasungarriena [= C]	osasungarriena	.garrienak <sup>257</sup>
103 or. = IX, 4, 10 [219, 20]	diranak	niranak	diranak
104 or. = IX, 4, 10 [220, 9]	illik	illun	illik
106 or. = IX, 7, 16 [225, 3]	gingdoazan	gingdozan	gingdoazan
106 or. = IX, 8, 17 [226, 1]	gogoz	gogo	gogoz
107 or. = IX, 8, 18 [227, 1]	uztaka <sup>258</sup>	ustarka	uztarka
107 or. = IX, 8, 18 [227, 15]	egotzi [# = s + z]	egotsi	egotzi
107 or. = IX, 8, 18 [227, 20]	dagiezuna	degiezuna	dagiezuna
110 or. = IX, 11, 27 [233, 24]	ezarriko	ezaliko	ezarriko
111 or. = IX, 12, 31 [236, 7]	Euodi'k	Eudi'k	Euodi'k
113 or. = IX, 13, 37 [241, 1]	ioiago	ioiago	ioriago <sup>259</sup>
116 or. = X 5, 7 [249, 1]	bezate	bezate	bezat
117 or. = X, 6, 9 [250, 17]	zintzan	zintzan	nintzan
119 or. = X, 9, 16 [256, 5]	aitorrak [iatorrak m3]	aitorrak	iatorrak
121 or. = X, 13, 20 [260, 3]	oroitean	oroiten	oroitean
123 or. = X, 16, 25 [264, 6]	dendua [dendua m3]	deudua	dendua
126 or. = X, 23, 33 [272, 14]	osasun	esasun	osasun
128 or. = X, 27, 38 [276, 11]	liraken [ez liraken m3]	liraken	liraken
130 or. = X, 31, 45 [282, 4]	duzuna	duguna	duzuna
141 or. = XI, 2, 3 [305, 9]	#tsegin [# = i + o]	itsegin	otsegin
149 or. = XI, 21, 27 [325, 12]	tartetik	tartetik	tarterik
154 or. = XI, 30, 40 [336, 7]	egian	legian	egian
155 or. = XI, 31, 41 [337, 6]	ondorioak	ondoriak	ondorioak
160 or. = XII, 12, 15 [350, 15]	eiten duna	eitenduna	eiteduna
163 or. = XII, 16, 23 [356, 14]	ain	ain	an
167 or. = XII, 23, 32 [364, 10]	ialkitzean	ialkitzen	ialkitzean
182 or. = XIII, 19, 24 [397, 20]	Ikazazute [Ikazazute m3]	Ikazazute	Ikazazute
184 or. = XIII, 21, 31 [403, 19]	eritzean	erotzean	eriotzean
185 or. = XIII, 23, 34 [406, 20]	aintzoak [zintzoak m3]	aintzoak	zintzoak
187 or. = XIII, 24, 37 [409, 27]	igitzen	egitzen	igitzen
188 or. = XIII, 26, 41 [413, 6]	atosten	atoste	atosten
189 or. = XIII, 29, 44 [415, 4]	sortzitan [zortzitan m3]	sortzitan	zortzitan
190 or. = XIII, 31, 46 [417, 11]	dezagun	dezagun	dezagu
190 or. = XIII, 31, 46 [417, 20]	ianko-	ianko-	iainko-
191 or. = XIII, 34, 49 [420, 16]	ald# [# = e + i]	alde	aldi
191 or. = XIII, 34, 49 [420, 16]	begeko	begeko	bageko
192 or. = XIII, 36, 51 [422, 14]	[degula Uts.]	degula	dugula

baitu, testuinguruak argi asko erakusten duen legez, eta ez «iñarrausi». (Ikus, hau bezalako kasu bat, aurreko oharrean).

<sup>256</sup>«emana nakiok» C; «emananizaiok» B; «emanan izaiok» m2; «emana nizaiok» m3; «emana nizaiok» A; «emana nizaiek» Oz.; ikus, zuzenketa honen historia korapilatsu samarrari buruz, 129 eta, batez ere, 130-131 or.

<sup>257</sup>«osasungarrienak» Oz.

<sup>258</sup>m3-k ere nabarmendu egin du hitz hau (ikus 138 or.) baina, seguruenik, arrazoi lexikoengatik; ikus, baita ere, 228 or.

<sup>259</sup>C-k, noski, «ioriago» dakar; m3-k ere azpimarratu egin du baina, seguruenik —aurreko oharreko kasuan bezala—, arrazoi lexikoengatik (138 or.).

Hiru zuzenketa mota egiteko erabili zuen Lekuonak «Okerrak zuzentze» hau: A-n bertan sortutako huts berriak zuzentzeko; ordura arte ikusi ez zituen edo, behinik behin, zuzendu ez zituen huts zaharrak lehenengo aldiz zuzentzeko; eta, azkenik, lehen egindako proposamenak aldatzeko eta hauen tokian proposamen berriak sartuarazteko. Merezi du aurreko zerrenda irizpide honen arabera antolatuta ematea.

Lehendabizi, esan bezala, A-n sortu diren huts berrien zuzenketak bil ditzakegu, hau da, B eta Oz bat datoz A-ren kontra:<sup>260</sup>

4 or. = I, 6, 7 [14, 17]		-ninduzu	-ninduzun
15 or. = I, 18, 28 [32, 16]	[aldegitea Uts.]	-egitera	-egitea
42 or. = IV, 4, 9 [81, 20]	sortetxea	sortetxoa	sortetxea
44 or. = IV, 7, 12 [84, 11]	iakitea	iakitzea	iakitea
50 or. = IV, 15, 26 [96, 8]	gogor	gogo	gogor
53 or. = V, 2, 2 [102, 8]	barne#eraifio	barnereraifio	barneneraifio
54 or. = V, 3, 3 [103, 14]	ont#ixkan	ontxixkan	ontzixkan
62 or. = V, 14, 24 [122, 20]	askotan	azkotan	askotan
77 or. = VII, 5, 7 [159, 15]	mugarik	mugatik	mugarik
82 or. = VII, 9, 15 [169, 14]	diotenek	diotenak	diotenek
94 or. = VIII, 7, 17 [198, 16]	gurikerieri	guzikieri	gurikieri <sup>261</sup>
100 or. = IX, 2, 2 [212, 17]	-maisugoa	-maisugoa	-maisugoa
103 or. = IX, 4, 10 [219, 20]	diranak	niranak	diranak
104 or. = IX, 4, 10 [220, 9]	illik	illun	illik
106 or. = IX, 7, 16 [225, 3]	gindoazan	gindoazan	gindoazan
106 or. = IX, 8, 17 [226, 1]	gogoz	gogo	gogoz
107 or. = IX, 8, 18 [227, 15]	egot#i [# = s + z]	egotsi	egotzi
107 or. = IX, 8, 18 [227, 20]	dagiezuna	degiezuna	dagiezuna
110 or. = IX, 11, 27 [233, 24]	ezarriko	ezaliko	ezarriko
111 or. = IX, 12, 31 [236, 7]	Euodi'k	Eudi'k	Euodi'k
121 or. = X, 13, 20 [260, 3]	oroitean	oroiten	oroitean
126 or. = X, 23, 33 [272, 14]	osasan	osasan	osasan
130 or. = X, 31, 45 [282, 4]	duzuna	duguna	duzuna
141 or. = XI, 2, 3 [305, 9]	#tsegin [# = i + o]	itsegin	otsegin
154 or. = XI, 30, 40 [336, 7]	egian	legian	egian
155 or. = XI, 31, 41 [337, 6]	ondorioak	ondoriak	ondorioak
167 or. = XII, 23, 32 [364, 10]	ialkitzean	ialkitzen	ialkitzean
187 or. = XIII, 24, 37 [409, 27]	igitzen	egitzen	igitzen
188 or. = XIII, 26, 41 [413, 6]	atosten	atoste	atosten
191 or. = XIII, 34, 49 [420, 16]	ald# [# = e + i]	alde	aldi

Baina ohar bedi sail honetan sartu ditugula —azken batean huts mota berbera direlako—, B-ko testuak aukera bat baino gehiago ematen zuenean, A-k irtenbide oker bat hautzatetik sortutako hutsak: «barne#eraifio», «ont#ixkan», «egot#i», «#tsegin», «ald#».<sup>262</sup> Orobat, sail honen kasu berezia osatzen dute B-ko testuari B-prior-eko orrietatik ibili diren eskuek

<sup>260</sup> Irakurketa hauetako bakoitzaren xehetasunetarako ikus zerrenda nagusian (289-290 or.) jarritako oharra.

<sup>261</sup> Sarrera honen benetako irakurketei buruz ikus, gorago, 289 or. 254 oh.

<sup>262</sup> «gurik<er>ieri» ere (Oz) A-n sortutako huts berri bat ezabatzeko zuzenketa da; ikus gorago 289 or. 254 oh.

egindako zuzenketak ez jasotzetik sortu diren hutsek —A-ri dagokionez ezabatze hutsak lirake—:

16 or. = I, 19, 30 [34, 15]	aurtz#i [aurtzai m2]	aurtazi	aurtzai
54 or. = V, 3, 3 [103, 16]	aien [aien m3]	aien	ain
59 or. = V, 10, 19 [117, 22]	etzi [atzi m2]	utzi	atzi
71 or. = VI, 10, 17 [143, 25]	genen [genen m3]	genen	genun
72 or. = VI, 12, 22 [147, 10]	iantzat [aintzat m3]	aientzat	aintzat
86 or. = VII, 19, 25 [178, 9]	Itz	Itz	Iaten
90 or. = VIII, 3, 6 [189, 3]	txeko [etxeko m2]	txeko	etxeko
93 or. = VIII, 6, 14 [195, 10]	Pontian	Poztitian	Pontitian
100 or. = IX, 1, 1 [212, 3]	ustea [uztea m3]	ustea	uztea
107 or. = IX, 8, 18 [227, 1]	uztarka	ustarka	uztarka
119 or. = X, 9, 16 [256, 5]	aitorrak [iatorrak m3]	aitorrak	iatorrak
128 or. = X, 27, 38 [276, 11]	liraken [ez liraken m3]	liraken	ez liraken
182 or. = XIII, 19, 24 [397, 20]	Ikazazute [Ikasazute m3]	Ikazazute	Ikasazute
184 or. = XIII, 21, 31 [403, 19]	eritzean	erotzean	eriotzean
185 or. = XIII, 23, 34 [406, 20]	aintzoak [zintzoak m3]	aintzoak	zintzoak
189 or. = XIII, 29, 44 [415, 4]	sortzitan [zortzitan m3]	sortzitan	zortzitan

Aipatu proposamen hauetak bi («aien» eta «genen») ez dira inoiz gauzatu: bi kasu hauek, A inprimatu zutenen lanari bakarrik begiratu ez gero, bigarren sailean sailkatu behar genituzkeen; baina Lekuonarena hartzen badugu kontuan —eta haxe da gehien axola zaiguna— hemen daude propioago. «Itz BA : Iaten Oz» zuzenketari dagokionez zalantzarik gabe dakigu «Iaten» *coniectura* B-prior-etik A-ra bidean sartu zela «ta edan, lo egin B : ta edaten, lo egiten A» zuzenketekin batera (ikus 225 or.):

[...] meruisse videbatur. Quid autem sacramenti haberet «Verbum caro factum», ne suspicari quidem poteram. Tantum cognoveram [...] quia manducavit et bibit, dormivit, ambulavit [...] (VII, 19, 25)	[...] merezi zula. Itz aragi egiñak Beuregan zer izkutu zedukan, ez nendun amesten ere. Ian zula ta edan, lo egin, egurastu zala [...] (C, 90 or.)	[...] merezi zula. Itz zula ta edan, lo egin, egurastu zala [...] (B, 86 or.)	[...] merezi zula. Itz [Iaten Oz] zula ta edaten, lo egiten, egurastu zala [...] (A, 178, 8-9)
---	--	--	--

Bistan da zer gertatu den: C-tik B-ra lerro oso bat ezabatu da (kopiagileak jauzi bat egin du «Itz»-etik «Ian»-era) eta gero, aurrean B-ko testu soila zuen Lekuona —jatorrizko latinak, honetan, ezer gutxi argitu ahal baitzion— saiatu da okerra *ope ingenii* sendatzen: B-prior-etik A-ra bidean, inongo zalantzarik gabe, hiru hitzak aldatu nahi izan zituen (hots, «Itz : Iaten», «edan : edaten» eta «egin : egiten»), baina lehenengoa A-ko testuan sartzeke gelditu zen. (Testuinguruak argi uzten zuen «Itz» hark «Ian» izan behar zuela: ez da ordea ulertzen zergatik aldatu zuen Lekuonak «[ian] > iaten», «edan > edaten» eta «egin > egiten»). Interesgarriak dira, orobat —eta betiere aurreko zerrenda honi buruz ari garelarik—, «Pontitian», «uztarka» eta «eriotzean» kasuak: hiru kasu hauetan, zerrenda honetako

gainerakoetan ez bezala, ez dugu dokumentatuta B-ren eta A-ren arteko zuzenketarik; bestela esanda, hauetan ez da betetzen gorago eman dugun araua: B (edo B zuzendu duten m2 edo m3) bat etortzea Oz-rekin eta, aldi berean, B (edo B zuzendu duten m2 edo m3) eta Oz egotea A-ren kontra. Baina A-n sortu diren hiru irakurketa berri hauen nolakotasunak eta Oz-n zuzenduta agertzeak berak —bi irizpideek batera alegia— esaten digute, batetik, ezin direla transmisio hutsak izan —hots, ezin direla nahi gabe sortutako hutsak izan— eta, bestetik, hauetan ez dela egon, Lekuonaren aldetik, iritzi aldaketarik —hirugarren multzokoetan egon den bezala—. Argi dago mintzagai ditugun hiru kasu hauetan gertatua: B-prior-etik A-ra bidean egindako gainerako aldaketa ugariekin batera zuzendu ditu Lekuonak —dokumentatu gabe dugun zuzenketa aldi batean, ez dezagun ahantz—, baina A testua inprimatu dutenek gaizki —edo zatika— jaso dituzte aipatu zuzenketak. Auzi —erraz— honek mahai gainean jartzen digu ja geroago azaldu beharko dugun beste auzi zailxeago bat: lehenengo multzo honetan sailkatu ditugun kasuetako A-ren irakurketak benetan ote diren transmisio hutsak ala Lekuonak B-prior-etik A-ra bidean berariaz sartutako aldaketak, gero, Oz aprobeztatuz, beren lehenengo onera itzuliarazi dituenak. Baina, esan bezala, honetaz beherago (295-297 or.).

Bigarrenik, ordura arte ikusi ez zituen edo, agian, hustzat jo ez zituen hutsak zuzentzeko baliatu zen Lekuona «Okerrak zuzentze» honetaz:

2 or. = I, 4, 4 [12, 3]	otoitzen	otoitzen	otoizten
8 or. = I, 9, 15 [21, 17]	zitiguteen	zitiguteen	zitiguten
21 or. = II, 3, 8 [42, 20]	giñare	giñare	giñarre
31 or. = III, 6, 10 [61, 10]	Ori	Ori	Orri
68 or. = VI, 7, 12 [137, 28]	maitatzekoa	maitatzekoa	maitatzeko
76 or. = VII, 3, 5 [157, 4]	baiñan	baiñan	—baiñan
76 or. = VII, 3, 5 [157, 5]	argi	argi	argi—
83 or. = VII, 11, 17 [171, 4]	nenkuzan	nenkuzan	nenkusan <sup>263</sup>
96 or. = VIII, 8, 19 [200, 22]	iñarausia	iñarausi	iñarrausi <sup>264</sup>
102 or. = IX, 4, 7 [217, 17]	osasangarriena [= C]	osasangarriena	garrienak
113 or. = IX, 13, 37 [241, 1]	ioiago	ioiago	ioriago
116 or. = X 5, 7 [249, 1]	bezate	bezate	bezat
117 or. = X, 6, 9 [250, 17]	zintzan	zintzan	nintzan
149 or. = XI, 21, 27 [325, 12]	tartetik	tartetik	tarterik
160 or. = XII, 12, 15 [350, 15]	eiten duna	eitenduna	eiteduna
163 or. = XII, 16, 23 [356, 14]	ain	ain	an
190 or. = XIII, 31, 46 [417, 11]	dezagun	dezagun	dezagu
190 or. = XIII, 31, 46 [417, 20]	ianko-	ianko-	iainko-
191 or. = XIII, 34, 49 [420, 16]	begeko	begeko	bageko

Ez zen erraza harrapatzen «otoitzen» hutsa: *Aitorkizunetan* «otoiztu» dugu (38 or. = III, 12, 21 [72, 10]) eta, beste alde baterik, «otoizten» (8 or. = I, 9, 14 [21, 1] eta 141 or. = XI, 2, 4 [306, 11] —hemen aztergai duguna alde batera utzita—), «otoiztenago» (38 or. = III, 12, 21 [72, 24]) eta «otoitztea» (115 or. = X, 4, 5 [247, 5]). Azken honek —Lekuonak B-prior-etik

<sup>263</sup>Gogora C-k ere «nenkusan» dakarrela.

<sup>264</sup>Sarrera honen benetako irakurketei buruz ikus 289 or. 255 oh.

A-ra bidean «otoiztea» bihurtu duena: ikus 230 or.— pentsarazten digu hemengo «otoitzen» oker hau ere ez ote zen izango, Orixeren asmoetan, «otoitzten». VII, 3, 5 paragrafoan sartutako bi marrek ere azalpena behar dute:<sup>265</sup>

Et intendebam ut cernerem quod audiebam, liberum voluntatis arbitrium causam esse, ut male faceremus <i>et</i> <i>rectum iudicium</i> <i>tuum ut pateremur,</i> <i>et eam liquidam</i> cernere non valebam. (VII, 3, 5)	Nentzuna alegiñez ulertu nai nendun, ots, guk gaitza egitea gure autamenetik zetorrela; baiñan ez nenkusan argi ta iasaitea Zure burubide zuzenetik. (B, 76 or.)	Nentzuna alegiñez ulertu nai nuan, ots, guk gaitza egitea gure autamenetik zetorrela; baiñan ez nenkusan argi ta iasaitea Zure burubide zuzenetik. (A, 157, 3-5)	Nentzuna alegiñez ulertu nai nuan, ots, guk gaitza egitea gure autamenetik zetorrela; —baiñan ez nenkusan argi— ta iasaitea Zure burubide zuzenetik. (Oz)
---	---	--	--

Pasarte hau Mokoroak bere txostenean aipatu zituenetakoa da eta, izan ere, C-ko itzulpena gaizki dago; hauxe da hark proposatzen zuena: «Guk gaitza egitea geure autamenetik zetorrela, ta *jasaitea* zure burubide (irizpide...) zuzenetik» (ikus III erans. 23 zenb.). Mokoroak arrazoiak zuen eta Orixek ere halaxe ikusi zuen, ezer aldatu gabe («jasaitea : iasaitea» izan ezik) onartu baitzuen B-ko testuan bere adiskideak iradokitakoa. Zer gertatu da orduan? Mokoroaren gehiketa —gehiketa soil bat besterik ez baita— behar ez zen tokian txertatu dela. Lekuonaren zuzenketak ez du hutsa zeharoan konpondu: ez dakigu hau bezalako «Okerrak zuzentze» batean ezin zuelako besterik egin ala ez zuelako argi ikusi zein zen hutsaren zergatikoa.

Hirugarrenetik, bai m2 bai m3 zuzentzen saiatu ziren kasu gutxi batzuetara itzultzeko ere erabili zuen Lekuonak «Okerrak zuzentze» hau:

9 or. = I, 10, 16 [23, 1]	etzai#u [etzazu m2C]	etzazu	eitzazu
60 or. = V, 10, 19 [118, 6-7]	gogoen atean	gogoen atean	gogora n. <sup>266</sup>
62 or. = V, 14, 24 [122, 11]		nairik	nai-ta
98 or. = VIII, 11, 27 [206, 20]	emananizaiok	nizaiok	nizaiek <sup>267</sup>
123 or. = X, 16, 25 [264, 6]	dendua [dendua m3]	deudua	dendua
192 or. = XIII, 36, 51 [422, 14]	[degula Uts.]	degula	dugula

Aipatzeko modukoa da —hau bezalako bat baino gehiago ikusi dugulako ja— lehenengo kasua huts batetik sortutako hutsa dela: A-ko testua inprimatu zutenek gaizki jaso zuten m2-ren zuzenketa eta, horrela, hemen ezinezkoa den «etzazu» hori sortu zuten; huts honen gainean —eta, zalantzarik gabe, B-prior-era itzuli gabe— *Aitorkizunetan hāpax* den «eitzazu» asmatu zuen Lekuonak. (Ez da zalantzarik Orixek berak proposatzen zuen «etzazu» behar duela hemen: hauxe da, izan ere, Orixek —inoiz huts egin gabe, oker ez banago— *itzazu*

<sup>265</sup>«Nentzuna alegiñez ulertu nai nendun, ots, guk gaitza egitea ta Zuk gu zentzatzea gure autamenetik zetorrela; baiñan ez nenkusan argi» (C, 79 or.).

<sup>266</sup>Ikus gorago 289 or. eta bertako 250 oh.

<sup>267</sup>Ikus gorago 290 or. eta bertako 256 oh.

formarako erabiltzen duen aldaera bakarra).<sup>268</sup> Hitz egin dugu gorago «gogora naiean» zuzenketa okerrari buruz (129-130 or.): *Aitorkizunen* testuaren historiako kasurik bitxia eta politena dateke; bestalde, egiazta dezagun bakarrik (ez baitagokigu hemen B-prior-etik A-ra bidean gehitu den «nairik» horren zergatikoa azaltzea: ikus, dena den, 222 or. 84 oh.) estiloa aldatzeko ere erabili duela Lekuonak «Okerrak zuzentze» hau: «nairik A : nai-ta Oz». Orobat, «emana nizaiok» irakurketaren inguruko istiluen gainean ikus 129 eta 130-131 or. Berriz, «dendua B : dendua m3 : deudua A : dendua Oz» kasuan damutu egin zaio Lekuonari B-prior-eko orrietan ez ezik B-prior-etik A-ra bidean egindako zuzenketa proposaturakoaz. Azkenik, «Utsuneak» dokumentuaren bidez sartu zen «degula» horren zuzenketa erakusten digu, hamaikagarren aldiz, Lekuona ez zela saiatu Orixeren hizkera bere *usus*-era makurtzen (ikus 191 or. 4 oh. eta, oro har, VII erans. 469-470 or.).

Zintzilik utzi dugu (ikus 292-293 or.) axola handi samarreakoa izan daitekeen auzi bat: izan ere, inprimategian sorturako hustzat jo ditugu B eta Oz bat —eta A-ren kontra— zetozen kasu guztiak; «askotan B : askotan A : askotan Oz» erakoak, alegia. Abiapuntu gisa egin dugu, bistan baita ez duela nahitaez horrela izan bear; bi arrazoi hauengatik: badakigulako B-prior-etik A-ra bidean aldaketak egin zituela Lekuonak eta, bestalde, aldaketa horiek ez ditugulako dokumentatuta. Bestela esanda: daitekeena da lehenengo multzoan sailkatu ditugun kasuen artean arestian ikusi dugun «dendua B : dendua m3 : deudua A : dendua Oz» bezalakoak egotea; daitekeena da, alegia, B-prior-etik A-ra bidean berariaz egindako aldaketa batez damutzea Lekuonari eta «Okerrak zuzentze» honetaz baliatzea aldaketa hori lehengo onera itzuliarazteko. Zeren eta era honetakoa baitirudi transmisio huts gisan nekez uler daitekeen eta, aldi berean, B-prior-etik A-ra bidean egindako zenbait aldaketarekin bat datorren irakurketa honek:

107 or. = IX, 8, 18 [227, 20]	dagiezuna	degiezuna	dagiezuna
-------------------------------	-----------	-----------	-----------

Agian ez da bereziki zaila izango «dagiezuna B : degiezuna A» bezalako aldaketa bat transmisio huts gisa azaltzea baina, agidanean, ez da transmisio huts tipikoa; aldi berean, ezin da aldaketa hau ez lotu B-prior-etik A-ra bidean gertatu diren beste bi hauekin:

77 or. = VII, 4, 6 [158, 22]	dazaguzulako [= C]	dezaguzulako
168 or. = XII, 25, 35 [367, 13]	dasaiodan	desaiodan

Eta, orain bai, sinestezina da bi kasu hauek ere transmisio hutsak izatea. Beraz, ondorioztatu beharko da Lekuonak berariaz egin zuela bi —edo hiru— bider «da- > de-» aldaketa era honetako adizki trinkoetan. Guz tietan, agidanean, arrazoi handirik gabe: Orixek berdin erabiltzen baitzitu «dazagu» eta «dezagu» edo «desaidate» eta «dasaiodan».<sup>269</sup> Eta oraindik

<sup>268</sup>Hemen aztergai dugun honetatik landara honako agerraldi hauetan: 3 or. = I, 5, 5 [13, 13-14]; 17 or. = I, 20, 31 [36, 9]; 47 or. = IV, 12, 18 [90, 10]; 106 or. = IX, 8, 17 [225, 19 eta 22]; 113 or. = IX, 13, 37 [240, 18]; 129 or. = X, 30, 42 [279, 13]; 140 or. = XI, 2, 3 [304, 22]; 182 or. = XIII, 19, 24 [398, 10]. (Eta baita «etzazula» bat ere: 99 or. = VIII, 12, 28 [207, 17]).

<sup>269</sup>Izan ere, «dazagu» itxurako formak 11 aldiz agertzen dira B-ko testuan, eta «dezagu» itxurakoak, berriz, 6 aldiz. Beste kasu askotan bezala, sistema falta hau bilatu egiten zuen Orixek; ikus, adibide gisa, esaldi hau: «Egia *dezagunak* au *ba-dazagu*, ta au *dezagunak*, betiera *dazagu*. Maitasunak *dazagu*» (82 or. = VII, 10, 16 [170, 5-6]).

arrazoi gutxiagorekin mintzagai dugun kasuan, Orixek ez baitu inoiz «degi» erabiltzen. Honengatik egin ote zuen atzera «degiezuna» formaren kasuan eta ez beste bietan? Daitekeena da: baina litekeena litzateke, orobat, B-prior-etik A-ra bidean egindako «da- > de-» erako aldaketa guztiez damutzea baina «degiezuna» bakarrik harrapatu ahal izatea. Ez du ematen gauza bera esan daitekeenik beste honen gainean:

82 or. = VII, 9, 15 [169, 14]      diotenek      diotanak      diotenek

Arrazoi batengatik: 1956ko liburuaren inprimatzaileentzat, ia-ia zalantzarik gabe, «diotanak» *facilior* zelako. Eta badira era honetako aldaketak B-prior-etik A-ra bidean gertatutakoetan:<sup>270</sup>

4 or. = I, 6, 7 [14, 19]	atsegiñek	atsegiñak
57 or. = V, 8, 14 [113, 5]	zutenek	zutenak
190 or. = XIII, 31, 46 [418, 2]	gizonak	gizonek
190 or. = XIII, 31, 46 [418, 2]	sorkariak	sorkariak

Hots, «atsegiñak», «zutenak» eta «sorkariak» ere, «diotanak» bezala, *faciliores* dirateke; berriz, badirudi «gizonak B : gizonak A» aldaketa berariaz egindakoa bezala uler daitekeela ondoena.<sup>271</sup> Bestalde, dokumentatuta dugu, B-prior-eko orrietan eta ohiko arkatz gorriarekin eskribituta, Lekuonak ergatibo plurala bereiztearren egindako aldaketa bat —agian m2-k ildo beretik egindako beste bati jarraituz—.<sup>272</sup>

159 or. = XII, 11, 11      zirkiñak      zirkiñek [m3]      zirkiñek

Bestela esanda: ergatiboa bereizteko aldaketak, berez eta nahitaez, berariaz egindakotzat jo behar ditugu, eta ergatiboa desberezitekoak, berriz, hustzat.

Adibide on bat gogoratzearen, *esan* aditzaren forma trinkoetan 6 «desa» erakoak dira B-ko testuan eta 4, berriz, «dasa» erakoak: ikus guztien erreferentziak 276 or. 233 oh.

<sup>270</sup>Ez dut uste bi kasu hauek ere zerranda honetan sartu behar liratekeenik: «guziok B : guziak A» (5 or. = I, 6, 10 [16, 24]) eta «urteek B : urteok A» (146 or. = XI, 13, 16 [316, 23]). Baina baditugu beste batzuk *Aitorkizunen* testutik kanpo: *Egan*-eko testuan («Gaiztoek B : Gaiztoak E»; ikus 301 or.); «Gauza iakingarrienen arkibidea» izena duen eranskinean («emazteak BA : emazteek index», «Salmuek BA : Salmuak index» bi bider eta «guziek BA : guziak index»; ikus 309 or.); eta «Arkibidea» izenburua daramanean (aipatu «guziek BA : guziak Ark» eta «itzaldiak BA : itzaldiak Ark»; ikus 318 or.). *Egan*-eko eta aurkibideko kasuek pentsarazi ahal digute —nahiz eta honek argirik ez ekarri, nire ustez, B-prior-etik A-ra bidean eta Oz-n egindako aldaketak hobeto ulertzeko— ergatibo anitza *-ak* morfemaz egitea ere ez ote den Lekuonak eskribitutako testuen ezaugarrietako bat, «baña» etab. idaztea zen bezala; esan gabe doa Lekuonak, bere izkribuetan, ez zituela bereizten ergatibo eta absolutu anitzak.

<sup>271</sup>Egiantzekoa baita Lekuonak pentsatu izana hor plurala behar zela —hots, plurala errazago sartzen zela— eta ez singularra: «Besterik da, batek on dana gaizteztea, lengoengatik esan duguna<-> ta besterik da, *gizonak* on dana on dalako ikustea; askori Zure *sorkariak* on diralako atsegiten bait<->» (B-ko testuaren arabera); Orixek, berriz, jatorrizko latinari atxiki zaio: «Aliud ergo est, ut putet quisque malum esse quod bonum est, quales supra dicti sunt; aliud, ut quod bonum est videat homo, quia bonum est, sicut multis tua *creatura* placet, quia bona est [...]». Baina «gizonak» mugagabea izan litekeela ere pentsa genezake... Honekin batera, eta «sorkariak B : sorkariak A» aldaketari dagokionez, ezingo genuke baztertu beste hipotesi hau: hemen («gizonak > gizonak» aldaketarekin egindakoaren kontra) latinari jarraitu nahi izan diola Lekuonak eta «creatura» eman nahi izan duela «sorkariak» singularrarekin.

<sup>272</sup>Ikus, honetarako, 153 or.; Orixek egindako oharra (116 or.) honako hau da: «laiñoak B : laiñoek m2 : laiñoek A» (99 or. = VIII, 12, 29 [208, 19]); betiere Orixeri dagokionez, ikus, C-tik B-ra gertatutako era honetako aldaketen gainean, 76-77 or.



«Okerrak zuzentze» hau izan zen, hortaz, Lekuonak 1956ko liburuan argitaratu zen testua ukitzeko izan zuen azken abagunea: ikusi dugun bezala, honetaz ere baliatu egin zen zuzenketa berriak egiteko eta, agian, baita lehen sartutako aldaketaren batean atzeraka egiteko ere.

\* \* \*

Hau guztia, noski, 1956ko liburuan argitaratuko zen *Aitorkizunen* testuari berari dagokionez; ez dezagun ahaztu ordea aldaketa hauekin guztiakin batera liburuaren antolamenduari begiratzen zioten beste erabaki batzuk hartu zituela Lekuonak B-prior-etik A-ra bidean: batez ere, Orixek B-prior-en ipinitako oin-ohar guztiak —bat izan ezik— ezabatu egin zituela eta hauen ordeaz —eta hauek osatuz— «Iztegitxoa» izeneko eranskina gehitu zuela. Testutik beretik hurbilago, aldaketa ugari egin behar izan zituen Orixek utzitako puntuazio aldrebes samarrean: B-prior-eko orrietan ere egin zituen, honetan, zuzenketa franko, eta B-prior-etik A-ra bidean, hainbeste gauzatan bezala, ildo beretik segitu zuen; orobat, arreta berezia ipini zuen lanaren azken aldi honetan —B-prior-en ere auzi honi erreparatu arren— *Aitorkizunetan* hain ugari diren aipua komatxo bidez mugatzen eta —hau hemen bertan aztertu dugu— hauei dagozkien erreferentziak zehazten. Besterik dira —ez baitute Orixeren behatzizkribuko ezer ukitzen— Lekuonak gehitu nahi izan zituen gainerako eranskinak: hauei buruz dihardu hurrengo kapituluak.

## 1956ko edizioaren testutik kanpokoak

Badira, *Aitorkizunen* testu soilak Orixeren azken eskuizkributik Lekuonaren ediziora ibili zuen bidearen bazterretan, beste bi testu edo, hobeto, bi testu multzo: batetik, Lekuonak 1956ko liburuaren akaberan inprimarazi zituen lau eranskin; bestetik, Lekuonak ere *Egan* aldizkarian agertarazi zuen *Aitorkizunen* zati bat. Guztiak dira istorio honetakoak.

1. *Egan*-eko testua

Gorago ikusi dugu agertzeaz egon behar zukeen liburuaren iragarpen gisa *Aitorkizunen* zati bat (XI, 1, 1 - XI, 2, 4) argitaratu zela *Egan* aldizkarian: «Agustin donearen *Aitorkizunak*. Amaikagarren iarduna», *Egan*, 1956 [3-4], 18-19 or. Testuaz kanpotiko datuei pasadizo honetaz atera ahal izan diegun gauza bakarra izan da *Egan*-en zerbaki hura 1956ko abuztu-irailean inprimatu zela —inprimatu diogu, ez nahitaez kaleratu—, hau da, liburua bera baino pixka bat geroago (ikus 56 or.). Liburua zabaldu baino lehenago *Aitorkizunen* zati bat edo zati batzuk aldizkari batean argitaratzeko asmoa Orixek berak erakutsi zuen, Euskal Herrira itzuli berria zenean, 1955eko hasiera aldean: orduko asmoa ordea zen EG-ra bidaltzea (50-51 or.), baina ikusi dugu gorago (56-58 or.) bai *Egan* aldizkariarekin bai honen zuzendarietako bat zen Mitxelenarekin berarekin aparteko begirunea izan zuela Orixek eta EG-ko zuzendaritzarekiko harremanak, berriz, gero eta urrutiagokoak egiten hasi ziren; bestalde, *Aitorkizunen* historian hain parte handia izan zuten Lekuonak eta Labaienek ere oso harreman zuzenak zituzten *Egan*-ekin eta bertan argitaratzen zuten eskuarki. Ez da harritzekoa, beraz, EG-n atera behar zen iragarpen hura, azkenean, *Egan*-eko orrialdeetan inprimatu izana; besterik da nork erabaki zuen testu zati haiek *Egan*-en ateratzea eta Orixe jakinaren gainean zegoen ala ez. Segituan frogatuko dugu *Egan*-eko testua Lekuonaren eskuetan zegoen B-prior behatzizkributik atera zela —ez ordea aldaketa esanguratsu batzuk jasan gabe—.

Aurreratu bezala, seguru dakigu *Egan*-en argitaratu zen testua Lekuonak atera zuela bere ardurapean zegoen Orixeren orijinaletik. B-prior-eko 116. orrian, Xgarren liburuaren seigarren kapituluaren gainean dagoen zurian, m3-ren ohiko arkatz gorriarekin idatzitako hitz hauek irakur daitezke:

Aukera EGAN<sup>1</sup>erako

Orixek 1955eko hasierako hilabeteetan zuen asmoa zen VIII eta IXgarren liburuak bidaltzea EG-rako: asmo hura ordea —ikusitako dugu: 51 or.— ez zen ezertan gauzatu eta Lekuonaren ohar honekin bat ez etortzetik ezin dugu ondorio interesgarriarik atera. Nolanahi ere, X. liburuko pasarteak ere ez zen bidali, ez Egan-era ez inora —ez zen behintzat inon argitaratu—, ezpada XIgarren liburua lehenengo lau paragrafoak, esan bezala. Orain ez zaigu axola zergatik aukeratu zen lehendabizi X. liburua seigarren kapitulua —eta hurrengoetakoa bat edo beste, agian— eta gero XI.aren aipatu pasarteak; oso bigarren mailakoa da, orobat, noren erabakia izan zen. Gehien axola zaiguna, *Aitorkizunen* testuak ari baikara, honako hau da: Egan-erako aukeratu beharreko zatiak Lekuonaren eskuetan zegoen testutik atera zirela. Eta hau frogatzeko B-prior-eko 116. orriko oharra baino frogaragoak ditugu.<sup>1</sup> Ikus ditzagun, aurrera egin baino lehenago, Egan-eko testuaren eta B-prior eta A-koen arteko aldaerak:<sup>2</sup>

	B	Egan	A
303, 3	betieran	batieran	betieran
303, 3	bziz	bizi	bizi
303, 3	noizaldian	noizaldean	noizaldian
303, 4	iardun	lardun	iardun
303, 5	Zure	zure	Zure
303, 6	ezanok, [esanok m3]	esanok?	esanok,
303, 6	edota,	edota	edota,
303, 9	Zugana griña	Zugana griña	Z. nere griña
303, 10-11	aundi ... goresgarri	«Aundi ... goresgarri»	«âundi ... g.»
303, 10	aundi	Aundi	âundi
303, 10	launa	launa,	launa
303, 10	ta	eta	ta
303, 11		(Ps. 95, 4)	
303, 12	naiz	naiz	naz
303, 13-14	ba-daki ... len	«Ba-daki ... len»	«ba-daki ... len»
303, 13	zeraten	zeraten,	zeraten

<sup>1</sup>Orixeren itzulpenari Egan-en eman zitzaion izenburua ere kontuan hartzekoa da, auzi honetaz ezer garbirik esaten ez badigu ere: «Agustin donearen *Aitorkizunak*». Hau da: «Agustin», ez «Augustin» ez «Agustiñ»; «donearen», ez «gurenaren». Daitekeena da Lekuonak «Aitorkizunak» bakarrik aipatu izana liburua izenburutzat Egan-era bidali zituen paperetan eta gainerakoa Egan-eko gehiketa izatea; baina daitekeena da, orobat, Lekuonak izenburu hori berori eman izana eta ez, alegia, liburua inprimarazi zuena: gogora «Agustiñ gurenaren» hitzak ez daudela Orixeren orijinalan eta, itxura guztien arabera, azken momentuan erabaki zuela Lekuonak izenburuaren zati hori (izan ere, berreraiki dugun kronologia erlatiboaren arabera bateratsu egingo zituen Lekuonak bi gauza hauek: Egan-eko testua prestatu eta 1956ko liburua izenburu-orriaren edukia erabaki). Honi guztiari buruz ordea ikus 74 or. (eta bertako oharra) eta, aipatu kronologiarako, 303 or.

<sup>2</sup>Ezkerreko erreferentziak A-ko testuaren orrialde eta lerroen zenbakiek osatzen dituzte: hau da, Egan-eko testu zati bat aipatzerakoan, zerrenda honetan eta kapitulu honetan guztian zehar, testu zati horri 1956ko edizioan dagozkion orrialde eta lerroaren bidez egingo da. Lehendabiziko zutabe B-ko testuaren aldaerak jaso dira eta, taketen artean, B-prior-en ibili diren eskuenak, halakorik dagoenean; bigarren zutabe Egan-eko testuarenak; hirugarrenean, azkenik, A-koarenak. Hiru zutabeetako baten batean ezer agertzen ez denean, ulertu behar da zutabe horri dagokion testuan ez dela agertzen lerro berean eta beste zutabe baterako jasotakoa: esaterako, «(Ps. 95, 4)» erreferentzia Egan-eko testuak bakarrik dakar, ez B-k ez A-k. Azkenik, 304 orrialdearen 6-7 lerroetako aldaerak (zerrenda honetan «[...]» ikurrarekin markaturakoak alegia) beherago jaso dira, hots, zerrenda honen ondoren.

303, 14	baño	baño	baño
303, 14		(Mat. 6, 8)	
303, 15	onek,	onek;	onek,
303, 16	nazazun; deitu	nazazun. Deitu	nazazun, deitu
303, 17	ta	eta	ta
303, 17	nabill	nabil	nabill
303, 17	gogz	gogoz	gogoz
303, 18	ninduru	minduru	minduru
303, 18	#uzenaren [# = z + Z]	Zuzenaren	zuzenaren
303, 18	errulior [errukior m3]	errukior	errukior
303, 20	âl	ahal	âl
304, 2	Orri	orri	Orri
304, 2	ona	«ona	«ona
304, 2	baitzera;	baitzera;	baitzera»,
304, 2	baita	baita»	baita
304, 2	Zuri [Zure m3]	zure	Zure
304, 2		(Ps. 117, 1)	
304, 4	gai [gai, m3]	gai,	gai
304, 4	Zure	zure	Zure
304, 5	zuzen bide	zuzen-bide	zuzenbide
304, 5	mihiz	bidez	mihiz
304, 6-7	ekarri [...] eragitera	ekarri [...] ematera	ekarri [...] em.
304, 8	ba'netza	benetza	ba'netza
304, 9	Zure	zure	Zure
304, 9	legea	Legea	legea
304, 10	iakineza	iakineza	iakineza
304, 10	Zure	zure	Zure
304, 12-14	eta ... ondoan		eta ... ondoan
304, 16	Iainko,	Iainko:	Iainko,
304, 17	nerkiko [nerekiko m3]	nerkiko	nerkiko
304, 18	ez-ezen	ez ezen	ez-ezen
304, 18	Ba-dakusazu	Ba-dakusazu	Ba-dakusazu
304, 19	serbitzua [serbitzua m3]	serbitzua	serbitzua
304, 20	Zure [Zuri m3]	Zuri	Zuri
304, 20-21	Txiro ... guzientzat	«Txiro ... guzientzat»	Txiro ... g.
304, 21	naiz,	naiz;	naiz,
304, 21	aberats,	aberats,	aberats
304, 21	dauzkazun	dauzkatzun	dauzkazun
304, 21		(85, 1)	
304, 23	idazti	Idazti	Idazti
305, 2	egin	egin,	egin
305, 3	gaiñera,	gaiñera	gaiñera,
305, 3	dakuztenen [dakust m3]	dakuztenen	dakuztenen
305, 4	indar# [# = : + ;]	indar:	indar;
305, 5	barrne barrneko	barne-barneko	barne barneko
305, 6	ba'daude	badaude	ba daude
305, 7	Zure ... Zure	«Zure ... zure»	«Zure ... Zure»
305, 7		(73, 16)	
305, 8	asti	asti,	asti
305, 8	Zure	zure	Zure

305, 8	legearen	Legearen	legearen
305, 9	#tsegin [# = i + o]	otsegin	itsegin [ots. Oz]
305, 9	alperrik [alperrik m3]	alperrik	alperrik
305, 12	ausnartzera	aunartzera	aunartzera
305, 13	Zure	zure	Zure
305, 13	mintzoa,	mintzoa	mintzoa,
305, 15	Zure	zure	Zure
305, 15	gutxi etsi	gutxi-etsi	gutxietsi
305, 16	Zure	zure	Zure
305, 16	Zure	zure	Zure
305, 16	liburuetan	Liburuetan	liburuetan
305, 17	gora-mintzoa	gora-mintzoa	gora-mintza
305, 18	zaitut	zaitut,	zaitut
305, 18	Zure	zure	Zure
305, 18	legearen	Legearen	legearen
305, 20	uri	Uri	uri
305, 20	sainduko	Sainduko	sainduko
305, 20	iaurrerira	Iaurrerira	iaurrerira
305, 21	guraria,	guraria;	guraria,
305, 24	zaiona:	zaiona;	zaiona:
305, 25	Zure	zure	Zure
305, 25	iaurreria	Iaurrerria	iaurreria
305, 25	ba'dugu	badugu	ba   dugu
305, 26	Gaiztoek	Gaiztoak	Gaiztoek
305, 27	ez	ez,	ez
305, 27	ordea	ordea,	ordea
305, 27	Zure	zure	Zure
305, 27	legea	Legea	legea
305, 27	aifñakoa	aifñakoa	aifñakoak
305, 28	n#ndik [# = o + u]	nundik	nundik
306, 1	artu	artu,	artu,
306, 1	Zure	zure	Zure
306, 2	mamaia [mamia m3]	mamia	mamia
306, 4-5	Zure ... giza-semea	zure ... giza-semea	«Zure ... Giza-s.»
306, 4	Zure	zure	Zure
306, 5	Zeuretako	Zeuretako	Zeruetako
306, 5	giza-semea [g.-s., m3]	giza-semea,	Giza-semea,
306, 6	Zure	zure	Zure
306, 6	ginduzun	ginduzun,	ginduzun
306, 7	genbiltzazula, [g.; m3]	genbiltzazula;	genbiltzazula,
306, 8	Zure	zure	Zure
306, 9	Zure	zure	Zure
306, 10	semautzi	semautzi	semautzi
306, 10	izatera	izatera,	izatera
306, 11	ni#	ni;	ni,
306, 11	zaitut [zaitut, m3]	zaitut,	zaitut
306, 11-13	Zure	zure	«Zure
306, 12	iarririk	iarririk,	iarririk
306, 12	Arengan	«Arengan	Arengan
306, 13	Zu gurtze	zuhurtze	zugurtze

306, 13	guziak	guziak»	guziak»
306, 13		(Col. 2, 3)	
306, 13	Zure	zure	Zure
306, 14	liburuetan	Liburuetan	liburuetan
306, 14	Moise; berak	Moise. Berak	Moise; berak

Eta zerrenda honetan jaso ez diren 304 orrialdearen 6-7 lerroetako aldaerak honako hauek dira:

[...] quibus me perduxisti praedicare verbum, et sacramentum tuum dispensare populo tuo [...] (XI, 2, 2)	[...] orien bitartez ekarri bainauzu Zure itza ta ixilgordea erriari eragitera. (B, 140 or.)	[...] orien bitartez ekarri bainauzu erriari zure itza erakustera eta zure Sacramentuak ematera. (Egan)	[...] orien bitartez ekarri bainauzu erriari Zure itza erakustera ta Zure Sakramentuak ematera. (A, 304, 5-7).
---	---	---	--

B-ko testua alde batetik eta, bestetik, *Egan* eta A-koa ezberdinak dira: segituan ikusiko dugu zergatik; bestalde, *Egan*-eko testuaren (hemendik aurrera E) eta A-koaren arteko aldaerak honako lau hauek dira:<sup>3</sup>

304, 6	zure	Zure
304, 7	eta	ta
304, 7	zure	Zure
304, 7	Sacramentuak	Sakramentuak

Gorago iragarri bezala, aldaera hauek ematen digute ezin ukatuzko froga bakarria *Egan*-eko zatia Lekuonaren eskuetan zegoen B-prior-eko testutik sortu zela: *Egan*-ekoak, izan ere, inongo zalantzarik gabe Lekuonak sartuak diren zuzenketak dituelako. Baina ez m3-k sartutakoak: mesprextatu behar ez diren aztarrenak badira ere, guztiak —kasualitatea— irakurketa zuzenak direlako, hau da, haietako bat ere ez delako ez hutsa ez hutsa ez den zerbaiten aldaketa eta, hortaz, ez dute balio bi testuen artean —hots, m3-ren proposamenek osatzen duten testuaren eta *Egan*-ekoaren artean— ezinbesteko lotura bat frogatzeko. Bestela esanda: «ezanok B : esanok m3EA», «errulior B : errukior m3EA», «Zuri B : Zure m3EA», «nerkiko B : nerekiko m3EA», «serbitsua B : serbitzua m3EA», «Zure B : Zuri m3EA», «dakuztenen B : dakustenen m3EA», «alperik B : alperrik m3EA», «mamaia B : mamia m3EA» bezalako zuzenketak *ope ingenii* egin daitezkeenetakoak direlako. Erabat frogagarriak ez izateak ez du ordea esan nahi batera baliorik ez dutenik. Balioa dute, orobat, puntuazioari dagozkion m3-ren proposamenek —A-raino iritsi edo ez iritsi: honetara itzuliko gara beherago—: «gai B : gai, m3E», «giza-semea B : giza-semea, m3E», «genbiltzazula, B : genbiltzazula; m3E», «zaitut B : zaitut, m3E». Aztarren hauek guztiak alde batera utzita ere —eta, diogun berriz ere, ez da horretarako arrazoirik—, badugu ezin ukatuzko froga bat: 304 orrialdeko 6-7 lerroetako aldaerak. Izan ere, pasarte hau

<sup>3</sup>Ezkerreko zutabeen *Egan*-eko irakurketak jaso dira eta eskuinekoan A-koak.

«Utsuneak» izeneko dokumentuaren bidez sartu zirenetako bat da, eta zalantza izpi txikiena ere ez dugu —ikus 188-193 or.— gehiketa eta zuzenketa hauek Lekuonak eginak direla.

Aipatu pasarte honek, horrela, *Egan*-eko testua Lekuonaren eskuetatik atera zela zeharoan frogatzeaz gain, lagundu egiten digu zehazten noiz atera zen haren lantegitik, hau da, *terminus post quem* bat ematen digu. *Egan*-eko testuaren eta probetan sartu bide ziren zuzenketen arteko aldaerek *terminus ante quem* bat ematen digutela ere pentsa genezake, zeren oso aldaera esanguratsuak baitaude E-ren eta A-ren artean: «Zugana griña BE : Zugana nere griña A», «aundi BE : âundi A», «Zu gurtze B : zuhurtze E : zugurtze A», erabakigarrienak besterik ez aipatzearren. Baina argudio hau okerra litzateke: E-k «Utsuneak» dokumentuaren bidez *Aitorkizunen* testuan sartutako berrikuntza bat izateak bai frogatzen du E geroagokoa dela «Utsuneak» izeneko paperak baino; baina E-k ez izateak A-k badituen berrikuntzak ez du frogatzen E lehenagokoa dela A baino, azken batean *argumentum ex silentio* izango bailitzateke. Bestela esanda, oso erraz gerta zitekeen —eta adibide bat baino ez da, egin litezkeen hipotesien artean— honelako zerbait: Lekuonak sartuak ditu ja probetan aipatu berrikuntzak baina, dela probak inprimategian daudelako momentu horretan dela beste edozein arrazoirerengatik, ez ditu kontuan hartu *Egan*-era bidali behar duen testua kopiatzerakoan.

Badugu ordea *Egan*-eko testua (hau da, zehazki mintzatzeko, *Egan*-en inprimatu zen testuaren orijinala, hots, e) 1956koaren garaikidea edo hura baino geroagokoa dela frogatzen duen datu bat: Lekuonak B-prior-etik A-ra bidean egin zituen aldaketak aztertu ditugunean ikusi dugu (263-264 or. eta V erans.) lehenengo aldi batean «zur B > zugar A» zuzenketa egin zuela eta, ondoren, bigarren aldi batean alegia, «zugar B > zuhur A»; *Egan*-eko testua ontzerakoan ere, goiko zerrendan ikus daitekeenez, «zugar > zuhur» aldatu du Lekuonak: seinale nabarmena *Egan*-en argitaratu zen testu zatia prestatu zuena liburuaren probetan sartu zituen azken zuzenketak egiten zituen bitartean edo hauek egin ondoren, zeren eta bi zuzenketetako batean zuzenkizun baita bestean zuzentzat proposatu den forma («zugar»). Eta gogora dezagun e-ren datatze berankor hau ondo baino hobeto uztartzen dela auzi honi buruz testuaz kanpotiko datuei atera ahal izan diegun datu bakarrarekin, hots, *Egan*-en zenbaki hura 1956ko abuztu-irail aldera inprimatu zela dioenarekin.

Hizkuntzari berari egin zitzaizkion aldaketak alde batera lagata —gogora dezagun *Egan*-ekoa Lekuonak berak kopiatutako testuetakoa dela eta, beraz, horrelakoetan egin ohi zituen aldaketak dituela honek ere: ikus VII erans.— baina, aldi berean, aldaketa horien zergatikoa ulertzeko argi pixka bat etor daitekeelako hemendik, axola zaigu egiaztatzea Lekuonak arreta handia ipini zuela *Egan*-era bidali zuen testua prestatzerakoan. Oso ondo ikus daiteke, esaterako, puntuazioan, *Egan*-eko zatian A-n baino askoz ere sarriago egin baititu ahaleginak B-ko testua hobetzeko:

303, 6	ezanok, [esanok m3]	esanok?	esanok,
303, 6	edota,	edota	edota,
303, 10	launa	launa,	launa
303, 13	zeraten	zeraten,	zeraten
303, 15	onek,	onek;	onek,

303, 16	nazazun; deitu	nazazun. Deitu	nazazun, deitu
304, 16	lainko,	lainko:	lainko,
304, 21	naiz,	naiz;	naiz,
305, 2	egin	egin,	egin
305, 3	gaiñera,	gaiñera	gaiñera,
305, 8	asti	asti,	asti
305, 13	mintzoa,	mintzoa	mintzoa,
305, 18	zaitut	zaitut,	zaitut
305, 21	guraria,	guraria;	guraria,
305, 24	zaiona:	zaiona;	zaiona:
305, 27	ez	ez,	ez
305, 27	ordea	ordea,	ordea
306, 1	artu	artu,	artu,
306, 6	ginduzun	ginduzun,	ginduzun
306, 10	izatera	izatera,	izatera
306, 12	iarririk	iarririk,	iarririk
306, 14	Moise; berak	Moise. Berak	Moise; berak

Eta behin baino gehiagotan saiatu da, orobat, m3-k proposatutakoa jasotzen: «gai B : gai, m3E : gai A» (304, 4), «giza-semea B : giza-semea, m3EA» (306, 5; hemen, eta hemen bakarrik, A-n ere bai), «genbiltzazula, B : genbiltzazula; m3E : genbiltzazula, A» (306, 7), «zaitut B : zaitut, m3E : zaitut A» (306, 11).<sup>4</sup> Baina hau guztia ere, neurri batean behintzat, Lekuonak berak kopiatu izanaren ondorioa izan liteke eta, honengatik, askoz esanguratsuagoa da aipuen erreferentziekin gertatutakoa. Aipatu dugu gorago (136 or. 1 oh.), zeharka izan bada ere, Lekuona Orixeren testuak zekartzan erreferentziak eta komatxoak BAC-eko edizioaren arabera osatzen saiatu zela baina, askotan bezala, sistema zorrotzegirik gabe, hau da, ez zituela beti BAC-eko testuak zekartzan guztiak jaso. *Egan*-en argitaratu zen zatiari B-n dagokion testuan aipu bakarra dago nabarmendua komatxoekin eta erreferentziarekin: «“Gaiztoek [Gaiztoak E] ... aifñakoa [aifñakoak A]” (Ps. 118, 85)» alegia (141 or. = XI, 2, 4 [305, 26-28]); eta B-ko aipu bakar hau bai E-n bai A-n mantendu da, orain axola ez zaizkigun aldaketa batzuekin. Honetaz gain ordea E-n beste sei aipu nabarmendu ditu Lekuonak, seirak beren komatxo eta erreferentziekin:<sup>5</sup>

303, 8-9	«Aundi ... goresgarri» (Ps. 95, 4)
303, 11-12	«Ba-daki ... len» (Mat. 6, 8)
304, 2	«ona ... baita» (Ps. 117, 1)
304, 20-21	«Txiro ... guzientzat» (85, 1)
305, 7	«Zure ... zure» (73, 16)
306, 12-13	«Arengan ... guziak» (Col. 2, 3)

A-ko testuan ere beste sei daude —alegia, B-k dakarrenaz landara—: E-ko bost («Txiro ...

<sup>4</sup>Bi kasu eztabaidagarritan bakarrik gertatu da A-n aldatu izana E-n aldatu gabe emandako zerbait: «baitzera; BE : baitzera», A» (304, 2; komatxoetan gertatu den aldaketak ordea ilundu egiten ditu gauzak) eta «aberats, BE : aberats A» (304, 21; baina hemen kontuan izan behar da aldaketa izan ordez ezabatze soilia izan litekeela).

<sup>5</sup>Erreferentziak —esan dezagun bide batez— B-n eta A-n erabili ez den sistema batekin daude eginda: E-n, dirudienez, Bibliako liburua ez da aipatzen aurreko aipuko berbera baldin bada; B-n eta A-n, berriz, beti aipatzen da, hutsik ez badago behintzat.



guzientzat» falta da) eta E-n jaso ez den bat («Zure ... Giza-semea»: 306, 4-5).<sup>6</sup> Baina —eta honetara iritsi nahi genuen— E-ko aipu guztiek beren erreferentzia baldin bazeramaten, behin ere huts egin gabe, A-n dauden 6 aipu berrietatik batek ere ez darama halakorik —eta ez, noski, erreferentziak emateko ohitura sistematikoki ezabatu duelako A-ko testutik—. Testuaren alderdi hauei dagokienez behintzat zilegi da pentsatzea Lekuonak *Egan*-eko zatia *Aitorkizunen* liburu osoa zaindu ezin izan zuen modu batean zaindu zuela, hau da, Lekuonak Orixeren liburu osoan zehar egin nahi zukeenaren erakusgarritzat har dezakegula.<sup>7</sup> Baina gorago iragarri bezala, nago iritzi hau, neurri batean bederen, *Egan*-eko zatian Orixeren hizkuntzari egin zitzaizkion aldaketen zergatikora ere heda litekeela.

## 2. 1956ko edizioaren eranskinak

Lekuonaren artxiboan gordetzen den eta guk B-prior izendatu dugun behatzizkribua, gorago esan dugun bezala, Clément Mathieu apezpikuarentzako eskaintzarekin hasten da eta XIII, 38, 53 paragrafoaren itzulpenarekin bukatu: hau da, ez dugu inprimategira bidali zen Orixeren beste paperik, «Utsuneak» dokumentua inongo zalantzarik gabe Lekuonak egina delako. Baina 1956ko edizioaren akaberan B-prior-en ez dauden lau testu daude: 425-433 orrialdeetan, «Iztegitxoa» izeneko eranskina, sasoi hartan ipini ohi ziren hitz zerrenda elebidun haietako; 435-437 orrialdeetan, gorago aztertu dugun «Okerrak zuzentze» delakoa (ikus 288-297 or.); 439-446 orrialdeetan, *index rerum memorabilium* moduko bat, «Gauza iakingarrienen arkibidea» (guk *index* esango diogu hemen); eta 447-462 orrialdeetan, azkenik, «Arkibidea», hots, *Aitorkizunetako* kapituluaren izenburuak eta hauei dagozkien orrialdeak jasotzen dituen aurkibide soil eta arrunt bat (guretzat, hemendik aurrera, 'aurkibidea'). Hauetako bat ere B-prior-en ez egoteak ez du berez esan nahi hauetako bat ere ezin daitekeenik Orixerena izan, ezta —ez behintzat frogatu baino lehenago— nahitaz Lekuonarenak izan behar dutenik.

Eranskin hauei liburuan eman zitzaizen hurrenkera aipatu duguna izan bazen ere, badakigu bi aurkibideak hiztegitxoa eta hutsen zerrenda baino lehenago konposatu zirela inprimategian eta, seguruenik, baita idatzi ere; izan ere, bi aurkibideen ondoren bakarrik heldu ziren inprimategira «Iztegitxoa» eta «Okerrak zuzentze» delakoa. Inprimategiko langile batek Lekuonari egin zizkion gutunek ezin eztabaidatzeko lekukotasuna ematen digute. Gorde zaigun bigarrenak, 1956ko abuztuaren 2koak, honela dio:

Con esta fecha y por correo aparte le envío dos juegos de páginas montadas de la obra Aitorkizunak [...]. Ya estamos componiendo los dos Índices que pronto le enviaré para su corrección. Ya sólo queda el pequeño vocabulario que aún no he recibido su original y la portada, para ultimar la obra.

<sup>6</sup>E-ko «Arengan ... guziak» aipua beste modu batera mugatu da A-n: «Zure eskuifnean ... guziak» (306, 11-13).

<sup>7</sup>Baita liburuan egin zituen aldaketa asko irar-probek ezartzen zizkieten murriztapen fisikoek baldintzatuta egin behar izan zituelako ere: mintzagai dugun kasuan, esaterako, oso egiantzekoa da A-k falta dituen erreferentziak Lekuonak sartu ez izana —komatxoak ez bezala— bigarren probetan sartu behar izan zituelako, hots, komatxo batzuk gehitzeko bai baina erreferentziak sartzeko tokirik ez zuelako. (Arriskutsuegia litzateke ordea, agidanean, *Egan*-eko testuaren kronologiari buruzko ondorioirik ateratzea hemendik).

1956ko abuztuaren 10ekoak, berriz, honela:

Acuso recibo a su atta. carta fecha 7 del cte. junto con las pruebas de los Índices corregidos [...]. Ya sólo queda por hacer la fe de erratas [...]

Eta ez dugu inongo arrazoirik pentsatzeko eranskin hauek beste hurrenkera batean egin zirenik: alderantziz, inprimategiko langilearen gutunek dioskutenaren arabera, badirudi egin ahala bidali zituela Lekuonak «Iztegitxo» eta «Okerrak zuzentze».

a. «Gauza iakingarrienen arkibidea» ('index')

«Gauza iakingarrienen arkibidea» deritzan eranskina, esan bezala, *index rerum* moduko bat da; liburuan zehar aipatu diren pertsona, kontzeptu eta pasarte gogoangarri zenbait bildu dira bertan eta orobat hauei dagozkien erreferentziak edo, hobeto, erreferentzia batzuk:

*Adeodat*, Augustiñen semea, gazterik iltzen da; beraren doaiak. IX, vi, 14.

*Adiskide*, aurtzaroko kutun bat iltzen zaio, Augustiñ'en naigabea. IV, iv, 7-9. Ua gabe, bizitzeak nazka ematen dio. IV, vi, 11.

*Aita* laungoikoak Semeagan egin zitun zeru-lurrak. XI, ii, 4.

*Alabearra*, ala gertatzea. IV, iii, 4.

*Aldakor*. Iainkoaren zer-izana ta nai-izana ez dira aldakor. XII, xv, 8.

*Aldia* (noizkoa). Zer da? XX, xiv, 7. Luzea, laburra. XI, xv, 8. Neurtzen dugu. XI, xvi, 21. Nola neurtu aldiak? XI, xxi, 27. Bi gauza aldi gabe egiñak. XII, xii, 15. Ez da gorputzen zirkiñ edo mugimentua. XI, xxiii, 29, 30, xxiv, 31. Irautea da. XI, xxv, 33. Ez daki zer dan, ez zer ez dan. XI, xxv, 32.

[...]

eta horrela *index* honek dituen zazpi orrialdeak bete arte.

Axola zaizkigun galderetako bat —ez bakarra baina bai, eta arrazoi askorengatik, garrantzitsuena— da nork egin den *index* hau. Galdera alferrikakoa dela pentsa lezake baten batek, *index*-aren hizkuntzak argi eta garbi salatzen duelako Orixeren eskua: hitz zenbaiten morfologian («ua», «Iainkoa», «beure», «zition», «guzia», etab.), izen berezien itxuran («Amburusi» —edo «Anburusi»—, «Pontitian», «Elpidi», etab.), eta baita ere Orixek eratutako edo, behinik behin, hemen duten adierekin ia-ia berarengan bakarrik irakur daitezkeen hitz asko eta asko erabiltzen direlako bertan («zer-izana», «nai-izana», «noizkoa» izen gisa, «mintza-maisua», «betiera», «orai-geroa», etab.). Utz dezagun alde batera noraino izango litzatekeen frogagarria argudio hau beste daturik izango ez bagenu, zeren eta hara non mintzagai dugun *index* hau Orixek *Aitorkizunetako* kapitulu e i ipinitako izenburuekin osatu baita; bestela esanda: «Gauza iakingarrienen arkibidea» honetako hitz guztiak *Aitorkizunetako* kapitulu en izenburuetatik hartu dira.<sup>8</sup> Ikus ditzagun, adibide gisa, *index*-aren lehenengo sei sarrerak (ezkerrean) eta

<sup>8</sup>Horrela bakarrik uler daitezke *index* honetako sarrera xeble batzuk, hots, erabilgarritasunik gabeak diruditen sarrera batzuk: «*Aurre, atze*. Augustin bere atzealdean gordetzen da, aurrealdea ez ikusteko. VIII, vii, 16 sq.»; «*Ba-dezake*. Oiek egin zutena ik ez al dezake? VIII, xi, 27»; «*Iz* gutxitatik aburu aunitz atera ditek. XII, xxvii, 37»; etab.

horietan aipatzen diren kapituluaren izenburuak (eskubian):

*Adeodat*, Augustiniñen semea, gazterik iltzen da; beraren doaiak. IX, vi, 14.

[IX, 6] Adeodat, Augustiniñen semea. Aren doaiak. Gazterik iltzen da. Augustiñi goxo zaizkio Salmuek eragindako malkoak.

*Adiskide*, aurtzaroko kutun bat iltzen zaio. Augustiniñen naigabea. IV, iv, 7-9. Ua gabe, bizitzeak nazka ematen dio. IV, vi, 11.

[IV, 4] Aurtzaroko adiskide kuttun bat biltzen zaio; iltzen zaio. Augustiniñen naigabea. [IV, 6] Bizitzak nazka ematen beure 'animaren erdi' ua gabe.

*Aita* laungoikoak Semeagan egin zitun zeru-lurrak. XI, ii, 4.

[XI, 2] Iainkoak asieran egin zitun zeru-lurrak aztertu nai ditu.

[XIII, 5] Aitak zeru-lurrak egin, iakintasunagan (Semeagan) egin [...].

*Alabearra*, ala gertatzea. IV, iii, 4.

[IV, 3] [...] alabearra ta ala gertatzea.

*Aldakor*. Iainkoaren zer-izana ta nai-izana ez dira aldakor. XII, xv, 18.<sup>9</sup>

[XII, 15] Iainkoaren zer-izana ta nai-izana ez dira aldakor [...].

*Aldia* (noizkoa). Zer da? XI, xiv, 17. Luzea, laburra. XI, xv, 18. Neurtzen dugu. XI, xvi, 21. Nola neurtu aldiak? XI, xxi, 27. Bi gauza aldi gabe egiñak. XII, xii, 15. Ez da gorpuzten zirkiñ edo mugimentua. XI, xxiii, 29, 30; xxiv, 31. Irautea da. XI, xxvi, 33. Ez daki zer dan, ez zer ez dan. XI, xxv, 32.<sup>10</sup>

[XI, 14] Aldia zer da?<sup>11</sup>

[XI, 15] Aldi 'luzea, laburra' esan oi dugu, ta ala ote da?

[XI, 16] Ala ere, aldia neurtzen dugu luze-laburrean.

[XI, 21] Nola neurtu aldiak.

[XII, 12] Bi gauza, aldi gabe egiñak.

[XI, 23] Aldia ez da gorpuzkien zirkiñ edo mugimentua; ez eguzkiaren eta izarrena.

[XI, 24] Lengo atalean iarraitzen du: aldia ez dala gorpuzkien zirkiña.

[XI, 26] Aldia irautea da.

[XI, 25] Ez dakit zer dan aldia; ez dakit zer ez dakidan ere. Argitu nazazu, Iauna.

Hortaz, *index*-ean ez dira kapituluaren izenburuetako hitz guztiak edo esaldi guztiak jaso, baina *index*-ean dagoen guztia kapituluaren izenburuetatik dago hartua, noiz edo noiz testura bertara jo bada ere sarreraren baten zentzua borobiltzeko-edo.<sup>12</sup>

<sup>9</sup>1956ko edizioak «XII, xv, 8» dakar, oker.

<sup>10</sup>1956ko edizioan honako huts hauek daude sarrera honetan: guk eman dugun «XI, xiv, 17» zuzenaren ordez «XX, xiv, 7» okerra irakurtzen da; «XI, xv, 18» ez baina «XI, xv, 8»; «XI, xxvi, 33» izan beharrean «XI, xxv, 33».

<sup>11</sup>Sarrera-hitzaren ondoren parentesien artean agertzen den «noizkoa» testutik bertatik dago hartua: XI, 14, 17 paragrafoaren bigarren lerroan bertan dago (hitza ondo nabarmentzen duten komatxo batzuen artean) eta baita XI, 13, 15 paragrafoan ere.

<sup>12</sup>Izan ere, batzuetan, behar duen izenburuko testua hitzez hitz jaso nahi —edo ahal— ez duenean, testutik edo beste kapitulu baten izenburutik hartu du falta zitzaiona, normalean hitzez hitz. Horrela, esaterako, «Manestarrengana grifia galtzen du» esaldia ontzeko (s.v. 'Augustin') izenburutik aldendu da («Manestarrenganako

Gauzak horrela, nola gelditzen da egiletasunaren auzia? Liburuaren historiari buruz ikasi ahal izan duguna kontuan izanik, badirudi honako hau dela egin dezakegun galdera bakarra: Orixek ala Lekuonak —ala, gehienera, Labaienek— egin zuen «Gauza iakingarrienen arkibidea» delako hau? Hemendik abiatuta, eranskin hau ere Lekuonaren eskuetatik pasatu zela zalantzarik gabe dakigunez gero (ikus gorago, 305-306 or., inprimategiko langilearen gutunek eskaintzen duten lekukotasuna) eta, orobat, jakinik nolakoa izan zen Lekuonak *Aitorkizunen* testuan egin zuen zuzentze lana, badirudi onartu beharra genukeela ezinezkoa dela frogatzea Lekuona izan zela *index*-aren egilea. Bestela esanda: Lekuonaren egiletasuna frogatzeko bide bakarra baldin bazen aztergai dugun *index* honek izatea B-prior-i Orixeren eskuetatik alde egin eta gero Lekuonak egindako —eta poligenetikoa ezin izan daitekeen— aldaketa edo gehiketa bat, bide hau zeharoan deuseztatua gelditzen da gure testu honetaz ere Lekuona arduratu zela dakigun bezain laster, zeren eta, horrela, *index*-ean diratekeen era horretako aldaketa edo gehiketa guztiek froga lezaketen gauza bakarra Lekuonak *index*-a ere ukitu egin zuela baita, baina ez, nahi hainbat baldin bagenu ere, *index*-a Lekuonak ondua denik. Beraz, liburuak izan duen historiak gararazi egingo liguke Lekuonaren egiletasuna frogatu ahal izatea.<sup>13</sup>

Alabaina, *index* honek *Aitorkizunen* testuarekin berarekin eta «Arkibidea» izeneko eranskinarekin dituen aldaerak aztertuez gero froga daitezke zenbait kontu. Mintzagai dugun *index* hau ez da, *sensu stricto*, ezagutzen dugun beste inongo testuren kopia —hots, ez da, berez, B-ko kapituluaren izenburuen kopia huts bat— eta, hortaz, aldaeren ohiko azterketa soil bat ezinezkoa da alde aurretik; baina, aldi berean, ezin ukatuzkoa da *index*-aren zati asko jokoan sartzen diren gainerako hiru testuetako zati askoren berdina direla (B-ko izenburuenak, A-koenak eta liburuaren 447-462 orrialdeetako aurkibidearen zatienak) eta, beraz, erkaketa modu bat behintzat ahal da eta, are gehiago, hemen lanabes hobetagoa edo kaxkarragoa izan, derrigor egin beharrekoa. Hau guztia kontuan izanda egin litekeen zerrenda luzeenari ezinbestean uko egingez, argi txikiena ere eman lezaketen aldaerak bildu ditut. Hona hemen:<sup>14</sup>

---

grifa ozten zaio», V, 7), baina testura bertara jo delako izan da: «Manestarren ikaskizun aietarako grifa galdurik [...]» (V, 7, 13); «Bitorinen gertaerak sutan iartzen du Augustin; Bitorin baiño leize aundiagoan eroriak badira» (s.v. 'Bitorin') VIII, 4 kapituluaren izenburuari dagokio, bertan esaten zaigun bezala, baina hau aipatu esaldiaren bigarren zatiarentzat bakarrik da egia: lehendabizikoa, hala ere, ez da *index*-aren egileak asmatua, aipatu ez duen beste kapitulu baten izenburutik hartua baizik: «Bitorinen gertaerak Iainkoagana sutan iartzen du Augustin [...]» (VIII, 5); «Itz gutxitatik aburu aunitz atera ditek» (s.v. 'Itz' = XII, 27, 37) ez da zehatz-mehatz kapitulu horren izenburua («Itz gutxitatik egi aunitz [...]»), baina kapituluaren testua bera irakurriez gero «aburu» hitza bertatik zuzenean hartu duela ikus dezakegu; etab.

<sup>13</sup>Historia hau den bezalakoa delako ere —eta, funtsean, B-alter bezalako lekukotasun bat gorde zaigulako—, balegoke modu bat frogatzeko *index*-a, jatorrian, Orixek egina dela: *index*-ean egotea B-alter-en ere dagoen eta, jakina, B-prior-en ez dagoen irakurketa bat —betiere, esan gabe doa, poligenetikoa ezin izan daitekeen irakurketa bat—. Kapituluetako izenburuen testuari dagokionez, bada kasu bat non B-alter-en B-prior-era pasatu ez zen Orixeren irakurketa bat baitago: VII, 21 kapituluaren izenbururik gabe gelditu zen B-prior-en, horretarako gorde zen lerroa betetzeke dagoelarik (B, 87 or.); B-alter-en, berriz, lerro zuri hura Orixeren eskuak bete zuen honako testu honekin: «Kristo biotzez umil eta samur» (ikus 98 or. 5 oh.). 1956ko edizioaren *index*-ean izenburu honen arrastorik izan balitz, Orixeren egiletasunaren froga ezin ukatuzkoa izango genukeen. Baina horrelakorik ez da.

<sup>14</sup>Liburu eta kapituluari dagokien erreferentziaren ondoren, parentesien artean, hitza agertzen den *index*-aren sarrera aipatu da.

	B	A	Ark	index
IX, 6 (Adeodat)	Aren	Aren	Aren	beraren
IV, 6 (Adiskide)	Bizitzeak	Bizitzak	Bizitzeak	bizitzeak
XII, 12 (Aldia)	aldi gabe	aldi gabe	aldi-gabe	aldi-gabe
XI, 23 (Aldia)	gorpuzkien	gorpuzkien	gorpuzkien	gorputzen
XI, 25 (Aldia)	zer ez dakidan	zer ez dakidan	zer ez dakidan	zer ez dan
VI, 9 (Alipi)	bere	beure	bere	beure
VIII, 8 (Alipi)	baratzen	baratzen	baratzen	baratzean
XIII, 19 (Argizar...)	argi zagiak	argizagiak	Argizagiak	argizariak
IX, 1 (Atsegiñaren)	bañon	bañon	bañon	bañon
II, 3 (Augustin)	ieki	ieki	ieiki	ieiki
VI, 14 (Augustin)	emazteak	emazteak	emazteak	emazteek
VI, 3 (Augustin)	Anburusi	Amburusi	Amburusi	Anburusi
VIII, 12 (Aug., A.)	Augustin	Augustiñ	Augustin	Augustin
XI, 7 (Betiera)	lekrik [lekurik m3]	lekurik	lekurik	lekurik
IX, 4 (Dabid'en)	Salmuek	Salmuek	Salmuek	Salmuak
IX, 6 (Dabid'en)	Salmuek	Salmuek	Salmuek	Salmuak
VII, 10 (Egia)	argiz gaiñetik	argiz-gaiñetik	argiz gaiñetik	argiz gaiñetik
XIII, 28 (Egiñak)	orobatean	oro batean	orobatean	oro batean
I, 13 (Griegoa)	latiña	latiña	latina	latiña
I, 13 (Griegoa)	baño	baño	baño	baño
VI, 6 (Griña)	emaiten	ematen	emaiten	ematen
VI, 15 (Griña)	min	min	min	miñ
X, 26 (Iaungoikoa)	Beragan	Beragan	beragan	Beregagan
X, 27 (Iaungoikoa)	Augustiñ	Augustiñ	Augustin	Augustin
I, 5 (Iaungoikoa)	gora-bêra	gora-bêra	gora-bêra	gora-bera
VIII, 3 (Iaungoikoa)	areago.	areago?	areago.	areago?
VI, 8 (Ikuskari)	Ikuskarrietan	Ikuskarrietan	Ikuskarietan	Ikuskarietan
VI, 8 (Ikuskari)	arixkua	arixkua	arrixkua	arrixkua
IX, 5 (Isaias)	Anburusi	Amburusi	Amburusi	Amburusi
I, 10 (Kirola)	Kiroletan	Kirolak	Kiroletan	[Artan]
I, 19 (Kirola)	iruzur	iruzur	iruzur	iruzaku
V, 13 (Milan)	mintza maisua	mintza-maisua	mintza-maisua	mintza-maisua
XII, 23 (Moise)	eztun [etzun m3]	etzun	etzun	etzun
V, 8 (Monika)	iruzurrez	iruzurrez	iruzurrez	iruzaku
VI, 10 (Nerbidi)	Nebri	Nebri	Nebri	Nerbidi
IX, 3 (Nerbidi)	Nebri	Nebri	Nebri	Nerbidi
V, 10 (Ona)	opoz-opo	opoz-opo	opoz-opo	orpoz orpo
X, 25 (Oroimena)	Bañan	Bañan	Bañan	bañan
X, 13 (Oroimena)	oroipenak	oroipenak	oroipenak	oroikizunak
IX, 10 (Ostia)	elkar-izketa	elkar-izketa	elkar-izketa	elkar-izketa
IX, 10 (Ostia)	zerutarra	zerutarra	zerutarra	zerutiarra
V, 1 (Otoitz)	guziek	guziek	guziak	guziak
XIII, 10 (Otoitz)	Gu illunbetik	Gu, illunbetik	Gu illunbetik	gu illunbetik
X, 2 (Otoitz)	Iaungoikoa artzeko	I...koari eltzeko	I...koa artzeko	Iainkoa l. <sup>15</sup>

<sup>15</sup>A-k eta «Arkibidea» delakoak dakartzaten irakurketak, noski, honako hauek dira: «Iaungoikoari eltzeko A : Iaungoikoa artzeko Ark»; eta *index*-ak, berriz, honako hau: «Iainkoa laztantzeko». Ohar bedi, bestalde, «Iainkoa

V, 3 (Paustu)	Manes'tar	Manes'tar	Manestar	manestarra
V, 3 (Paustu)	Kartagotik	Kartagotik	Kartago'tik	Kartago'tik
VIII, 6 (Pontitian)	Pontian	Pontitian	Pontian'ek	Pontitian
IX, 7 (Salmuak)	oitura	oituran	oitura	oitura
VII, 9 (Semea)	Manes'tarren	Manes'tarren	Manestarren	manestarren
VII, 9 (Semea)	Irakurtzen	Irakurtzen	Irakurten	irakurten
VIII, 1 (Sinplikian)	iotzen	iotzen	iotzen	ioten
VIII, 1 (Sinplikian)	bere	beure	bere	bere
XI, 6 (Zeru-lurrak)	iteze—[itzez? m3]	itzez?	itzez	itzez [...?]

Lekuonaren egiletasuna berez baldin bazen frogatu ezina, zerrenda honetako aldaerek argi eta garbi erakusten dute L e k u o n a k e z z u e l a *index* honen testu a m a k i n a z j o , hau da, inprimategira joan zen orijinala ez zela Lekuonak eskribitua. Beste toki batean ikusi dugu (VII erans.) Lekuonak *Aitorkizunen* testu zati bat kopiatu behar izan zuen guztietan aldaketa jakin batzuk egin zituela testu zati horren grafian: horrelaxe gertatu da «Utsuneak» izeneko dokumentuan, *Egan*-eko testuan eta 1956ko liburuaren akaberako aurkibidean; arrazoizkoa da pentsatzea *index*-ak ere, Lekuonak egina balitz, «Utsuneak» delakoari, *Egan*-eko testuari eta, batez ere, aurkibideari egin zizkien aldaketa mota berberak izan behar zituzkeela: hots, *index*-ean ere «baño» eta «mingaia» bezalakoek egon behar luketela, edo «zirkin» (eta ez «zirkiñ»), edo «Augustin'en» bezalakoek (eta ez «Augustiñ'en»), etab. Baina ez da horrela: -*Viñ*- > -*Vñ*- aldaketari dagokionez, ez da bakarrik ez dela horrelako bat ere egin *index*-ean, ezpada *ex novo* sartuta egon litezkeen guztiak -*Viñ*-erakoak direla;<sup>16</sup> berbera gertatzen da -*iñ* > -*in* delakoarekin;<sup>17</sup> eta gauza bera esan genezake «Augustin» izenari buruz: behin gertatu da «Augustiñ > Augustin» aldaketa, baina 20 bider agertzen da «Augustiñ» aldaera marratxo bat edo apostrofo bat duelarik («Augustiñen» 1 eta 19 aldiz «Augustiñ'en» edo honen antzekoak).<sup>18</sup> Eta, aipatu ezaugarri hauekin bezala,

laztantzeko» testutik bertatik hartua dela: «[...] Baztartzzen [Bastartzzen A] naiz neregandik Zu laztantzeko [...]» (114 or. = X, 2, 2 [244, 11]).

<sup>16</sup>Hau da, ez dago «baña» edo «antolatzalle» erako kasu bat ere; horrelakorik sor zezaketen guztiak hauek dira: «gaiñean» (s.v. 'Arnasa' = XIII, 5-7); «baiñon» (s.v. 'Atsegiñaren' = IX, 1); «baña» (s.v. 'Bataioa' = I, 11); «bañio» (s.v. 'Bitorin'en' = VIII, 4-5); «baiñan» (s.v. 'Edertasuna' = VIII, 1); «gaiñetik» (s.v. 'Egia' = VII 10); «eskeñiñ» (s.v. 'Goreskizunetan' = IV, 14); «bañio» (s.v. 'Griegoa' = I, 13-14); «maillak» (s.v. 'Izan-maillak' = IV, 16); «maillak» (*ib.* = IV, 16); «baña» (s.v. 'Kartago' = III, 1); «baña» (s.v. 'Lapurreta' = II, 4); «mingaia» (s.v. 'Mingaia' = X, 37); «baiñan» (s.v. 'Oroimena' = X, 25); «soiñua» (*ib.* = X, 9); «baiñan» (s.v. 'Paustu' = V, 3); «baiñan» (s.v. 'Semea' = VII, 9); «soiñu» (s.v. 'Zentzu' = X, 30); «-erañio» (s.v. 'Zeru-lurrak'); «bañio» (*ib.* = X, 12); «soiñuzko» (*ib.* = XI, 6); «bañio» (*ib.* = XI, 21); «bañio» (*ib.* = XI, 13).

<sup>17</sup>Honako hauek dira: «zirkiñ» (s.v. 'Aldia' = XI, 23-24); «eziñ» (s.v. 'Egia' = VI, 1); «miñ» (s.v. 'Grifa' = VI, 6); «miñ» (*ib.* = VI, 15); «ezin» (s.v. 'Manes' = V, 7). Ohar bedi, azken kasu honi dagokionez, hemen ez dela aldaketarik egon, B-k ere «ezin» baitakar: ikusi dugu (VII erans.) Orixek -*iñ* zein -*in* erabiltzen duela eta, hortaz, Lekuonak Orixeren -*iñ* guztiak -*in* bihurtzea dela esanguratsua.

<sup>18</sup>Gure testu honetan ez da Jaungoikoari dagokion *zure* hitzik, eta hitz hasierako letra larriaren eta xehearen erabilaren adibide gutxiegia daude horietatik ondorioarik ateratzeko, baina ditugun datuek zeharoan berresten digute aztertu ditugun gainerako hizkuntz ezaugarriek dioskutena. Ez da erraza, puntu honetan, eraketa zehatz bat egitea, *ex novo* sartutako hitz ugari baitira *index*-ean («Ispiritu Saindua» eta besteren bat, letra larriaz, noski); hala ere, abiapuntutzat hartzen baldin badugu aurkibidean egindako aldaketak, inongo beldurrik gabe esan dezakegu aldaketa bat ere ez dagoela: hau da, aurkibidean ukitu diren kasuetatik bat ere ez da aldatu, ez zentzu batean ez bestean, *index*-ean. Era honetako aldaketa bat pairatu duten eta bi testuetan agertzen diren hitzak (ikus VII erans. 465-466 or.) honako hauek dira: «etxearren» (s.v. 'Jaungoikoa' = XII, 15), «itza» (s.v. 'Betiera' = XI, 7), «sainduen» (s.v. 'Liburu' = XIII, 15) eta «Platon'darrenak» (s.v. 'Liburuak' = VII, 21); esan bezala, *index*-ean

ekar genitzake hona aurkibidean arrunki edo, bada ere, sarri egin diren eta *index*-ean inoiz topatzen ez ditugun aldaketak; ez dirudi ordea beharrezkoa denik: mintzagai dugun *index* honek ez du Lekuonak kopiatutako testu guztietan —eta, bereziki, *index*-a zuzendu zuen egun beretan ondu bide zuen aurkibidean— sistematikoki egin zituen aldaketetako bat ere. Orain arte kopiatzeari buruz hitz egin dugu: bistan da ordea, *Aitorkizunen* testuaren historiak horrela erakusten digulako, nekez izan daitekeela *index*-a Lekuonak egina —hots, Lekuonak asmatua— ez baldin bada aldi berean Lekuonak materialki eskribitua; hortaz, eta testu honi dagokionez, Lekuonak idatzia ez izatea Lekuonaren egiletasunaren kontrako argudio erabatekoa da. Ez bailitzateke sinesgarria hau bezalako istorio bat: 1956ko uztailean Lekuonak *Aitorkizunen* kapitulu-tako izenburuak zerrendatzen dituen «Arkibidea» egiten du eta, kopia mekaniko hutsa izan arren, berak eskribitzen dituen testu guztietan bezala grafiari eta, noiz edo noiz, morfologiari dagozkion aldaketak egiten ditu; aldaketa hauek ez dira erabat sistematikoak baina, egiten direnean, beti ukitzen dituzte grafiaren eta morfologiaren alderdi berberak, hortik ateratako testuari oso itxura nabarmena emanez; lan mekaniko hau egiten duen momentu berean, egun bertuetan seguruenik, eta hain mekanikoa ez den lan bat eginez, *index*-a ontzen du: lehengaia, bai, berbera da, baina esaldi batzuk aldatu egin behar dira, moztu, luzatu, noizean behin beste testu batera jo...; baina, oraingo honetan, Lekuonari ez zaio itzuri egin ohi dituen grafia aldaketa horietako bat ere. Ez dirudi aldeztu daitekeen hipotesia denik, eta ondorioztatu beharko dugu *index*-a ez dela ez Lekuonak kopiatua ezta, beraz, Lekuonak ondua.

Alabaina, gorago eman dugun zerrendan askotan datoz bat, batetik, *index*-aren berrikuntzak eta, bestetik, A eta «Arkibidea» delakoarenak: hau da, bai batak bai besteek B-ko testuaren kontra egindako berrikuntzak, zein aipatu azken bi kasuetan zalantzarik gabe atxiki behar baitzaizkio Lekuonari. Izan ere, seguru dakigu A-ko testuak eta aurkibidearenak (zer esanik ez m3-ren proposamenek osatzen dutenak) B-ko testuaren kontra dituzten aldaerak, inprimategian sortutako hutsak ez direnean, Lekuonak berariaz egindako aldaketak direla. Ikus ditzagun bada A-ko testuari edota aurkibidearenari (edo B-prior-en m3-k egindako zuzenketei) dagozkien zutabeetako irakurketekin bat datozen eta, aldi berean, B-ko testuari dagozkion zutabeetarekin bat ez datozen *index*-eko irakurketak:

	B	A	Ark	index
XII, 12 (Aldia)	aldi gabe	aldi gabe	aldi-gabe	aldi-gabe
VI, 9 (Alipi)	bere	beure	bere	beure
IX, 1 (Atsegñaren)	bañon	bañon	bañon	bañon
II, 3 (Augustin)	ieki	ieki	ieiki	ieiki
XI, 7 (Betiera)	lekrik [lekurik m3]	lekurik	lekurik	lekurik
XIII, 28 (Egiñak)	orobatean	oro batean	orobatean	oro batean
VI, 6 (Grifia)	emaiten	ematen	emaiten	ematen

guztiak daude B-n bezala, eta aurkibidean aldatu egin ditu Lekuonak: «etxearen B : etxearen *index* : Etxearen Ark», «itza B : itza *index* : Itza Ark», «sainduen B : sainduen *index* : Sainduen Ark»; «Platondarretan B : Platon'darrenak *index* : platondarretan Ark».

X, 27 (Iaungoikoa)	Augustiñ	Augustiñ	Augustin	Augustin
VIII, 3 (Iaungoikoa)	areago.	areago?	areago.	areago?
VI, 8 (Ikuskari)	Ikuskarrietan	Ikuskarrietan	Ikuskarietan	Ikuskarietan
VI, 8 (Ikuskari)	arixkua	arixkua	arrixkua	arrixkua
IX, 5 (Isaias)	Anburusi	Amburusi	Amburusi	Amburusi
V, 13 (Milan)	mintza maisua	mintza-maisua	mintza-maisua	mintza-maisua
XII, 23 (Moise)	etzun [etzun m3]	etzun	etzun	etzun
IX, 10 (Ostia)	elkarr-izketa	elkar-izketa	elkar-izketa	elkar-izketa
V, 1 (Otoitz)	guziek	guziek	guztiak	guziak
V, 3 (Paustu)	Manes'tar	Manes'tar	Manestar	manestarra
V, 3 (Paustu)	Kartagotik	Kartagotik	Kartago'tik	Kartago'tik
VIII, 6 (Pontitian)	Pontian	Pontitian	Pontian'ek	Pontitian
VII, 9 (Semea)	Manes'tarren	Manes'tarren	Manestarren	manestarren
VII, 9 (Semea)	Irakurtzen	Irakurtzen	Irakurten	irakurten
XI, 6 (Zeru-lurrak)	iteze—[itez? m3]	itez?	itez	itez [...]?

Ohi bezala, *index*-aren aldaera gehienak honako bi mota hauetakoak dira: batetik, benetako edo ustezko hutsen zuzenketa nabarmenak (hots, edonork egin ditzakeen zuzenketak edo banalizazioak: «ieiki», «lekurik», «Ikuskarietan», «arrixkua», «etzun», «itez») eta, bestetik, hizkuntzaren itxurari dagozkion ezaugarrietan egindako aldaketak (hau da, erraz izan ahal direnak poligenetikoki sortuak: «aldi-gabe», «oro batean», «elkar-izketa», etab.).<sup>19</sup> Banan-banan ez dira gauza ezer frogatzeko, baina ezin ukatuzkoa da guztiak batera agertzea, gutxienez, zerbaiten aztarrena dela; behin Lekuonaren egiletasunarena baztertuta, honako hipotesi hau da honen guztiaren berri eman dezakeen bakarra: *index*-aren berrikuntzak bat baldin badatoz Lekuonak A-ko testuan eta aurkibidean egindako aldaketekin da *index*-a ere bere eskuetatik pasatu ziren —baina kopiatu ez zituen— *Aitorkizunen* testu zati guztiak bezala ukitu zuelako Lekuonak.

Badira gainera hauen guztien artean neurri batean bederen esanguratsua goak diren aldaerak. Alde batetik «Pontian : Pontitian» aldaketa dugu: C-n «Pontian» forman eman du beti Orixek *Ponticianus* izena; Mokoroak ordain horren okerra erakutsi zionean («*Pontitianus* izena *Pontianus* egin dezu, *Pontian*»; ikus III erans. 25 zenb.) zuzendu egin zuen Orixek, baina B-n dauden bost agerraldietako bat bakarra, eta zuzenduta agertzen da ja B-ko makinazko testuan («Pontitian»: 94 or. = VIII, 6, 15 [197, 8]); gainerako laurak ordea B-prior-etik A-ra bidean bakarrik zuzendu dira (ikus 226-227 or.) baina, hori bai, gelditzen ziren guzti-guztiak arrapatu zituen Lekuonak: VIII, 6, iz.; VIII, 6, 14; VIII, 7, 16; VIII, 7, 18. Hots: lehendabizi, Orixek B-prior zuzentzen zegoenean ez zuen lau «Pontian» horietako bat ere zuzendu (nahiz eta, gorago ikusi dugun bezala, zuzenketa ugari egin eta izenok sei paragraforen esparruan agertu, hau da, erraz ikusteko moduan); bigarrenik, Lekuonak ere, B-prior-en gainean ari zenean, ez zuen inongo arrastorik utzi lau «Pontian» horietan; eta, hirugarrenik, Lekuonak *Aitorkizunen* testuan egin ahal izan zituen azken zuzenketetan bakarrik zuzendu zituen, orain bai, gelditzen ziren lau «Pontian» haiek. Ondo uler bedi:

<sup>19</sup>Tipologia honi buruz ikus I erans.



*index*-etik kanpoko lekukotasun hauek duten balio handiena da erakustea «Pontian» hutsa, gure historiako aktoreentzat, ez dela pentsa genezakeen bezain nabarmena eta, hortaz, aztarrena izan daitekeela —agian aztarrena baino gehiago ere bai— mintzagai dugun *index* hau Lekuonaren eskuetatik pasatu zela eta, are gehiago, Lekuonaren eskuetatik noiz pasatu zen erakuts dezakeen zera; *index*-etik kanpoko lekukotasun horiek beste baliorik baldin badute —eta badutelakoan nago—, oso bigarren mailakoak dira.

Beste alde batetik «bere : beure», «bañon : baiñon» eta «irakurtzen : irakurten» aldaerak ditugu. Ezin da esan erabat ezinezkoa denik hauek guztiak poligenetikoki sortu izana (B-ren kontra egindako *difficiliores* badira ere, testu honetan erruz aurkitzen diren aldaerak ere badira), baina hiru izateak ere badu balioa eta onartuko dugu lotura bat dagoela bat datozen testu hauen artean: «bere : beure» aldaeraren kasuan *index*-aren eta A-ko berrikuntza baten artean; «bañon : baiñon» eta «irakurtzen : irakurten» aldaketan kasuan *index*-aren eta aurkibidearen artean. Hau da, B-tik sortu diren testu hauetan egin diren zenbait aldaketari jarrera komun bat igarri dakieke: lehen ere esan bezala, A-ko testuan egin diren berrikuntzak eta liburuaren akaberako «Arkibidea» delakoan gertatutakoak inongo zalantzarik gabe Lekuonari atxiki behar zaizkionez, ondorioztatu beharko dugu *index*-ean dauden hauen parekoak ere Lekuonak eginak direla. Inozokeria litzateke argudiatzea, honen guztiaren kontra, «beure», «bañon» eta «irakurten» Orixeren hizkuntzaren ezaugarri berezkoak direnez gero, Orixeri atxiki behar zaizkiola: hain zuzen ere, Orixeren orijinaleko aldaera arrunt bat Orixeren hizkeraren ezaugarrietakoa den hitz beraren beste aldaera bitxiago batekin ordezkatzeari («bere Or. : beure Lek.», «zur Or. : zugur Lek.», «edukitzea Or. : idukitzea Lek.», «zaion Or. : dakion Lek.», «etzitzaizkidan Or. : etzekizkidan», etab.) Lekuonak *Aitorkizunen* testuan egin zuen lanaren alderdi nagusietakoa da, askotan ikusi dugun bezala. Eta, izan ere, «bere > beure» aldaketa hiru bider egin du Lekuonak B-prior-etik A-ra bidean (266 or.); orobat, maiz egin du, B-prior-en bertan eta B-tik A-ra bidean, *-Viñ-* —eta ez *-Vñ-* alegia— multzoaren aldeko aldaketa bat (160 eta 260-261 or.), eta bi aldiz sartu ditu *ex novo -Viñ-* multzoa duten hitzak (VII erans. 463 or. 12 oh.); eta «irakurtzen : irakurten» aldaketari dagokionez —hemen, noski, morfema da kontuan hartu beharrekoa, ez hitza bera— B-prior-etik A-ra bidean «balditzen > balditen» eta «oroitzeko > oroiteko» ditugu (ikus 265 or.). Eta inozokeria litzateke esatea, lekukotasun hauen balioa deuseztatzeko asmoz, badirela Lekuonak kontrako norabidean egindako aldaketak: ikus, honen guztiaren gainean, VII erans. 469-470 or.

Bestalde, berez *faciliores*-tzat jo ditugun batzuk ere esanguratsuak —agian esanguratsua goak— dirateke. Esaterako, «Anburusi > Amburusi» aldaketa, orain eta hemen, banalizazioa da: baina kontuan hartu beharrekoa da Orixek «Anburusi» idatzi duela beti *Aitorkizunetan* eta Lekuonak, B-prior-etik A-ra bidean —ez lehenago—, 11 bider aldatu duela izen hau, 1956ko edizioan «Amburusi» uzteko (ikus 277-278 or.). Ezin esan, testukritika katiximek diotena diotela, inongo baliorik ez daukatenik batera huts egiten duten bi lekukotasunek, batez ere itxura guztien arabera elkarrengandik oso hurbil dauden *index*-a eta «Arkibidea» bezalako bi lekukotasun baldin badira: biek batera egin dituzte, izan ere, «ieki : ieiki» eta «ikuskarrietan : ikuskarietan» aldaketak. Eta gauza bera esan genezake hizkuntzaren itxurari dagozkion aldaketei buruz: «aldi gabe : aldi-gabe», «mintza maisua : mintza-maisua», «Kartagotik : Kartago'tik».

Zeren eta, esan bezala, begien bistan baitago *index*-a eta aurkibidea oso hurbil daudela

elkarrengandik, askotan batera berritzen baitute —B eta A-ren kontra alegia—:

	B	A	Ark	index
XII, 12 (Aldia)	aldi gabe	aldi gabe	aldi-gabe	aldi-gabe
IX, 1 (Atsegiñaren)	bañon	bañon	bañon	bañon
II, 3 (Augustin)	ieki	ieki	ieiki	ieiki
X, 27 (laungoikoa)	Augustiñ	Augustiñ	Augustin	Augustin
VI, 8 (Ikuskari)	Ikuskarrietan	Ikuskarrietan	Ikuskarietan	Ikuskarietan
VI, 8 (Ikuskari)	arixkua	arixkua	arrixkua	arrixkua
V, 1 (Otoitz)	guziek	guziek	guztiak	guziak <sup>20</sup>
V, 3 (Paustu)	Manes'tar	Manes'tar	Manestar	manestarra
V, 3 (Paustu)	Kartagotik	Kartagotik	Kartago'tik	Kartago'tik
VII, 9 (Semea)	Manes'tarren	Manes'tarren	Manestarren	manestarren
VII, 9 (Semea)	Irakurtzen	Irakurtzen	Irakurten	irakurten

Banan-banan ez dira izango, gorago ere emandako argudioengatik, huts frogagarriak, baina guztiak batera esanguratsuak dira —gutxienez—, eta bat etortze horren berri eman beharra dago. Agidanean, eta esan bezala, hauxe da horren zergatiko bakarra: hots, *L e k u o n a k m i n t z a g a i d u g u n i n d e x* hau zuzendu zuela «Arkibidea» kopiatu zuen egun bertsetan; eta esan beharrik ez dago hipotesi hau ezin hobeto uztartzen dela testuaz kanpotiko datuek bi eranskin hauen kronologiari buruz dioskutenarekin —eta baita ere testu barneko zenbaitek erakutsitakoarekin: gogora, besterik ez bada, «Pontian : Pontitian» aldaera—.

Bada ordea Orixeren egiletasunaren hipotesia bermatu ez ezik erabat frogatzen duen testuaz kanpotiko datu bat: orain arte ez badut aipatu izan da goragoko lerroetan atera behar izan ditugun ondorioen testuinguruan bakarrik eman dezakeelako ahal duen argitasun guztia. Tolosako Udal Artxiboan gordetzen diren Antonio Maria Labaienen paperen artean gutun-azal bat dago, *ez Aitorkizunekin* ez Orixerekin zer ikusirik ez duten ehunka paper zaharrekin batera; atzeko aldean, gutuna bidaltzen duenaren helbidea jartzen den —edo jarri ohi zen— tokian, inprimatua, honako hau irakur daiteke (ikus XXV irud.):

MONASTERIO BENEDICTINO  
LAZCANO (Guipúzcoa)

eta aurreko aldean, eskuz eskribituta, beste hau:

AITORKIZUNAK  
Arkibidea

Nago ezin eztabaidatuzkoa dela bi hitz hauek Orixek eskribituak direla: nahikoa da XXVI-XXVII irudietan agertzen diren letra larriekin erkatzea. 1956ko liburuak 'arkibidea' izena duten bi eranskin ditu: orain mintzagai dugun «Gauza iakingarrienen

<sup>20</sup>Ikus, honetaz, 296 or. eta bertako 270 oh.

arkibidea» eta *Aitorkizunetako* kapituluaren izenburuak biltzen dituen akaberako «Arkibidea»; «Arkibidea» hau Lekuonak fisikoki eskribitu zuela inongo zalantzarik gabe dakigunez gero (ikus VII erans.), bistan da Tolosako gutun-azalaren barnean zegoena «Gauza iakingarrienen arkibidea» zela, guk *index* deitu izan duguna eta letra haiek gutun-azalean idatzi zituenak ere, laburtzarren —eta, zalantzarik gabe, beste aurkibidearen berri ez zuelako—, «arkibidea» deitu zuena.

Miragarriro gorde zaigun —eta oraindik miragarriroago aurkitu dudan— gutun-azal honek ematen digun froga geuk asmatua izan balitz baino hobeto datorkigu *index*-aren historia ixteko: izan ere, gorago saiatu gara frogatzen delako *index* hau ez zela Lekuonaren lantegitik atera, 1956ko liburuak dakartzan eta aldi berean B-prior-en ez dauden gainerako testu guztiak ez bezala (hots, «Iztegitxoa», «Okerrak zuzentze» eta «Arkibidea» ez bezala), baina ez genuen testu zati haren orijinalik. Noiz edo nola heldu zitzaion Lekuonari —galde genezake— B-prior-ek falta duen zati hori? Eta hara non agertzen zaigun B-prior-en ez dagoen eta hala ere Lekuonari ezin atxiki diogun testu b a k a r r a k Lazkaotik Andoaina egin behar izan zuen bidaiaren arrasto ezin ukatuzkoa: dudarik gabe, beraz, «Gauza iakingarrienen arkibidea» Orixek egin zuen, *Aitorkizunen* behatzizkribua bidali ondoren baina oraindik, noski, Lazkaoko beneditarren etxean zegoenean; B-prior bera bezala —eta *Aitorkizunen* argitaratzearekin zer ikusi zuten gauza guztietan gertatu zen legez—, *index*-a ere Labaien adiskideari eman edo helarazi zion, bera bizi zen beneditarren etxearen izena eta helbidea zituen gutun-azal batean txukun sartuta; eta Labaienek, hilabete edo aste batzuk lehenago *Aitorkizunen* testuarekin berarekin egin zuen legetxe, Lekuonari eman zion, haren ardurapean baitzegoen liburuaren inprimatzea. Ohi den bezala, Lekuonak ez zituen paper haiek inprimategira bidaliko *Aitorkizunen* testuaren beraren inprimaketa oso aurreratuta egon arte; seguru dakigu *index*-a eta aurkibidea batera konposatu zituztela inprimategian: bi eranskin hauen testuaren azterketak ere esan digu biak batera landu zituela Lekuonak, batean.—B-prior-en bertan egin zuen bezalaxe— Orixerena nola edo hala zuzenduz (dela Orixeren paperen gainean, dela probetan, dela bi moduetara), eta bestearen kasuan testua B-prior-etik —ez, segituan ikusiko ahal dugu, A-tik— kopiatuz. Horrela izan zela dioskute, hortaz, testuaz kanpotiko datuek zein testu barnekoek.

#### b. «Arkibidea» ('aurkibidea')

1956ko edizioaren 447-462 orrialdeetan dagoen «Arkibidea» izeneko eranskinak —guk 'aurkibidea' esan diogunak alegia— *Aitorkizunen* kapituluek Orixeren itzulpenean dituzten izenburuak biltzen ditu eta, jakina, kapitulu hauetako bakoitzari dagokion orrialdea. Filologiaren lezioa da ez dagoela kopia inozenterik, eta berez hain bazterrekoa eta ezdeusa den hau bezalako testu bati egin zaizkion aldaketek horren adibide ezin hobea ematen dute. Ikus ditzagun, aurrera egin baino lehenago, *Aitorkizunen* kapituluetakoa izenburuetan dauden aldaera guztiak, kontuan hartuta kapituluaren izenburuak osorik ematen dizkiguten hiru testuak, hots, B-koa (B-prior-en egin zaizkion aldaketak barne), A-koa eta orain aztergai dugun «Arkibidea» honetakoa (ez ditut jaso, berriz, *i* eta *j* letren erabilerari dagozkionak):

	B	A	Ark
I, 2	etorri	etorri,	etorri
I, 3	arotan [orotan m2]	orotan	orotan
I, 4	orotan [orotan, m2]	orotan,	orotan
I, 5	Augustiñek	Augustiñek	Augustin'ek
I, 5	Maitat# [Maitatu m2]	Maitatu	Maitatu
I, 9	zenbail, [zenbait m2]	zenbait,	zenbait
I, 10	Kiroletan	Kirolak	Kiroletan
I, 10	aundinai billa	aundinai billa	aundinai-billa
I, 11	Luzapena,	Luzapena,	Luzapena
I, 12	ongi	ongi	ondo
I, 12	zentz#tzen [zentzatzen m2]	zentzatzen	zentzatzen
I, 13	iguiñago	iguiñago,	iguiñago
I, 13	latiña	latiña	latina
I, 13	baño	baño	baño
I, 13	Asiberrien	Asiberrien	Asi-berrien
I, 13	baño	baño	baño
I, 14	ziotelako;	ziotelako:	ziotelako;
I, 14	zulako	zulako	zualako
I, 15	bedi	bedi,	bedi
I, 15	Augustiñek	Augustiñek	Augustin'ek
I, 16	dio	dio	dio,
I, 17	iaioena	iaioena,	iaioena
I, 17	Augustin;	Augustin;	Augustin.
I, 19	litxarrerri; iokuan	litxarrerri; iokuan	litxarrerri. Iokuan
I, 20	zitun	zitun	zituan,
II, 1	ez-baiña	ez-baiña	ez baiña
II, 2	Augustiñ'ek,	Augustiñ'ek;	Augustin'ek,
II, 2	baiña	baiña	baña
II, 2	dago	dago,	dago
II, 3	bezala	bezala	bezela
II, 3	ieki	ieki	ieiki
II, 4	Lapurreta# [.tan m2] <sup>21</sup>	Lapurretan	Lapurretan
II, 4	ez-baiña	ez-baiña,	ez-baña
II, 5	utzita	utzita	utzita,
II, 6	Augustiñ'ek	Augustiñ'ek	Augustin'ek
II, 7	eroriko	erorika	erorika
II, 7	danak,	danak,	danak
II, 7	zu#ik [zutik m2]	zutik	zutik
II, 8	lagunarte	lagunarte	lagun-arte
II, 9	beñiere	beñiere	beñere
II, 9	lagunetiko [.kiko m2] <sup>22</sup>	lagunekiko	lagunekiko
II, 10	detzadan,	detzadan	detzadan
II, 10	Zugana,	Zugana,	Zugana
III, 3	ondamendirako.	ondamendirako	ondamendirako.

<sup>21</sup>«Lapurretan» m2.

<sup>22</sup>«lagunekiko» m2.

III, 4	irakurten	irakurten	irakurtzen
III, 6	batzuek,	batzuek,	batzuek
III, 6	egia»,	egia»	egia»
III, 6	esanez	esanez,	esanez,
III, 6	iaurespidearekin [p m2] <sup>23</sup>	iaurespidearekin	laurespidearekin
III, 6	naste-borraste	naste-borraste	naste-borraste
III, 6	exkaxa	exkaxa	eskaxa
III, 7	Gorpuz-begiz	Gorputz-begiz	Gorpuz-begiz
III, 7	nendun	nuen	nuan
III, 7	asmatzen:	asmatzen:	asmatzen;
III, 7	ez,	ez,	ez
III, 7	z#zentqsuna [.ta. m2] <sup>24</sup>	zuzentasuna	zuzentasuna
III, 8	gaiñerakoak	gaiñerakoak,	gaiñerakoak
III, 9	gaiztetsiak	gaiztetsiak,	gaiztetsiak
III, 9	alde#-beste [.z-b. m2] <sup>25</sup>	aldez-beste	aldez-beste
III, 10	iragarle	iragarle	Iragarle
III, 10	saindu	saindu	Saindu
III, 10	bañia	bañia	baña
III, 11	osiñ	osiñ	osin
III, 12	Monikari	Monikari	Monika'ri
III, 12	egizu	egizu	Egizu
III, 12	utzi,	utzi;	utzi;
III, 12	ez	ez	Ez
IV, 1	Augustñek	Augustiñek	Augustin'ek
IV, 1	du	du,	du,
IV, 2	saldu; emazteki	saldu; emazteki	saldu. Emazteki
IV, 4	Augustin'en	Augustiñ'en	Augustin'en
IV, 6	Bizitzak	Bizitzak	Bizitzeak
IV, 8	naigabeak	naigabeak	naigabeak,
IV, 14	goreskizun billa:	goreskizun billa:	goreskizun-billa
IV, 15	ote dago	ote dago	ote-dago
IV, 16	billatzen	billatzen	billatzen,
IV, 16	gorpuzki antzera	gorpuzki antzera	gorpuzki-a.
V, 1	Jaungoikoa	laungoikoa	laungoikoa,
V, 1	guziek	guziek	guztiak
V, 3	Manes'tar	Manes'tar	Manestar
V, 3	Kartagotik	Kartagotik	Kartago'tik
V, 3	asko[-]iakñ	asko-iakiñ	asko iakin
V, 3	Egia	Egia	egia
V, 4	da,	da,	da
V, 4	dazaguna,	dazaguna;	dazaguna;
V, 4	oiek iakin gabe	oiek iakin gabe	oiek gabe
V, 5	Manes'ek,	Manes'ek,	Manes'ek
V, 5	bete betean	bete-betea	bete-betea
V, 7	zio	zaio	zaio

<sup>23</sup>«iaurespidearekin» m2.<sup>24</sup>«zuzentasuna» m2.<sup>25</sup>«aldez-beste» m2.

V, 7	Augustiñ'i	Augustiñ'i	Augustin'i
V, 8	omen ziralako	omen ziralako	omen-ziralako
V, 9	ipernura	ipernura	inpernura
V, 10	Manes'tar	Manes'tar	Manestar
V, 10	uste;	uste;	uste:
V, 11	itzaldiek	itzaldiek	itzaldiak
V, 12	Erroma'ko	Erromako	Erroma'ko
V, 13	mintza maisua	mintza-maisua	mintza-maisua
V, 13	gotzaia	gotzaia	Gotzaia
VI, 1	Augustiñ'ek	Augustiñ'ek	Augustin'ek
VI, 1	eziñ	eziñ	ezin
VI, 1	itxaropen	itxaropen,	itxaropen
VI, 2	Aprikan	Aprikan	Aprika'n
VI, 3	Anburusi	Amburusi	Amburusi
VI, 3	Augustiñ'ek	Augustiñ'ek	Augustin'ek
VI, 3	az	az	ez
VI, 3	ari	ari	artu
VI, 4	Anburusi	Amburusi	Amburusi
VI, 6	zori oneko	zori oneko	zorioneko
VI, 6	miñ	miñ	min
VI, 6	emaiten	ematen	emaiten
VI, 7	Augustiñ'ek	Augustiñ'ek	Augustin'ek
VI, 7	Alipi	Alipi	Alipi,
VI, 8	Ikuskarrietan	Ikuskarrietan	Ikuskarietan
VI, 8	arixkua	arixkua	arrixkua
VI, 9	bere	beure	bere
VI, 10	laguna,	laguna	laguna,
VI, 11	Augustiñ'ek	Augustiñ'ek	Augustin'ek
VI, 11	egia	egia	egia,
VI, 12	irixteko	irixteko	iristeko
VI, 12	Alipik,	Alipik;	Alipi'k;
VI, 12	Augustiñek	Augustiñek	Agustin'ek
VI, 13	Augustiñ	Augustiñ	Augustin
VI, 14	Augustiñekin	Augustiñekin	Augustin'ekin
VI, 14	bañan	bañan	bañan
VI, 15	Augustin	Augustiñ	Augustin
VI, 15	gero ta	gero ta	gero-ta
VI, 16	du	du,	du
VI, 16	Augustiñ'i	Augustiñ'i	Augustin'i
VII, 1	ote dago	ote dago	ote-dago
VII, 1	guzietan	guzietan	guzietan
VII, 1	Aiek	Aiek	aiek
VII, 1	erasanez? — Iñola	erasanez? — Iñola	erasanez? Iñola
VII, 5	ba'du	ba'du	badu
VII, 7	Augustiñek	Augustiñek	Augustin'ek
VII, 7	bailegon	bailegon	bailegon
VII, 8	Augustin	Augustiñ	Augustin
VII, 8	eziñ-egonera	eziñ-egonera	ezin-egonera
VII, 9	Irakurtzen	Irakurtzen	Irakurten
VII, 9	Manes'tarren	Manes'tarren	Manestarren

VII, 9	ez	ez	ez,
VII, 9	ordea	ordea	ordea,
VII, 10	Augustiñ'ek	Augustiñ'ek	Augustin'ek
VII, 10	argiz gaiñetik	argiz-gaiñetik	argiz gaiñetik
VII, 10	Naizana	Naizana	Naizana,
VII, 13	ere	ere	ere,
VII, 13	Auengatik	Auengatik	Auengandik
VII, 13	goresgarri. [goresgarri,]	goresgarri,	goresgarri
VII, 14	Orañ	Orañ	Orañ
VII, 14	Augustiñ'ek	Augustiñ'ek	Augustin'ek
VII, 15	dialako	dialako	diralako
VII, 17	Augustiñ'ek	Augustiñ'ek	Augustin'ek
VII, 18	aundimiña	aundimiña	aundi-miña
VII, 19	Augustiñ'ek	Augustiñ'ek	Augustin'ek
VII, 19	iantzia,	iantzia,	iantzia.
VII, 19	ez-brzala [ez-bezala m1]	ez-bezala	ez-bezala
VII, 21		Paul'en	Pauloren <sup>26</sup>
VII, 21		liburuetan	Liburuetan
VII, 21		Platondarretan	platondarretan
VII, 21		duna	duna,
VII, 21		Arnasa	Arnasa; ta
VIII, 1	du	du	du,
VIII, 1	bere	beure	bere
VIII, 1	Augustiñ'ek	Augustiñ'ek	Augustin'ek
VIII, 1	etxearen	etxearen	Etxearen
VIII, 1	edertasuna;	edertasuna:	edertasuna;
VIII, 2	Sinplikian'ek,	Sinplikian'ek,	Sinplikian'ek
VIII, 2	z#n [zan m2]	zan	zan
VIII, 3	areago.	areago?	areago
VIII, 5	Bitori#'en [# = n + ñ]	Bitorin'en	Bitorin'en
VIII, 5	berekin:	berekin:	berekin;
VIII, 5	zaude	zaude	Zaude
VIII, 5	«ori [ori m2]	ori,	ori,
VIII, 5	zaude	zaude	Zaude
VIII, 5	pixkabat [p. b. m1] <sup>27</sup>	pixka bat	pixka bat
VIII, 5	bat [bat» m2]	bat»	bat»
VIII, 6	Pontian'ek	Pontitian'ek	Pontian'ek
VIII, 7	a#ek [aiek m2]	aiek	aiek
VIII, 7	Augustiñengana	Augustiñengana	Augustin'engana
VIII, 7	au	au	ta
VIII, 7	gorde	gorde	gorde,
VIII, 8	Augustiñ'en	Augustiñ'en	Augustin'en
VIII, 9	ta [eta m2]	ta	eta
VIII, 11	Augustiñ'ek	Augustiñ'ek	Augustin'ek
VIII, 11	berandutzen:	berandutzen:	berandutzen;
VIII, 12	Ar	Ar	Ar,

<sup>26</sup>Gogora bedi VII, 21 kapituluak ez duela izenbururik B-prior-en: ikus 98 or. 5 oh.

<sup>27</sup>«pixka bat» m1.

VIII, 12	Augustin	Augustiñ	Augustin
IX, 1	Augustiñen	Augustiñen	Augustin'en
IX, 1	barnean	barnean	barnean,
IX, 1	bañon	bañon	bañon
IX, 3	Augustiñen	Augustiñen	Augustin'en
IX, 3	lagunartea	lagunartea	lagun-artea
IX, 3	da:	da:	da;
IX, 3	ene	ere;	ere
IX, 4	Augustiñ'en	Augustiñ'en	Augustin'en
IX, 5	Augustiñ'ek	Augustiñ'ek	Augustin'ek
IX, 5	Anburusi	Amburusi	Amburusi
IX, 5	lenik	lenik	leenik
IX, 6	Augustiñ'en	Augustiñ'en	Augustin'en
IX, 6	Augustiñ'i	Augustiñ'i	Augustin'i
IX, 7	oitura	oituran	oitura
IX, 7	Balentinian	Balentinian	Balendinian
IX, 8	Monika# [Monika'k m2]	Monikak	Monika'k
IX, 8	edaria	edaria	umetan edaria
IX, 9	Monikak	Monikak	Monika'k
IX, 9	au	au	au,
IX, 10	elkarr-izketa	elkar-izketa	elkar-izketa
IX, 11	Augustiñ'en	Augustiñ'en	Augustin'en
IX, 11	bioz-miña	bioz-miña	biotz-miña
IX, 12	Augustiñek	Augustiñek	Augustin'ek
IX, 12	bakartasunean,	bakartasunean	bakartasunean
IX, 13	Augustiñen	Augustiñen	Augustin'en
IX, 13	azken-otoitz	azken-otoitz	azken-otoitza
X, 1	Augustiñ'ek	Augustiñ'ek	Augustin'ek
X, 2	baztarten,	baztarten	baztarten,
X, 2	Iaungoikoa	Iaungoikoari	Iaungoikoa
X, 2	artzeko	eltzeko	artzeko
X, 3	Augustiñ'ek	Augustiñ'ek	Augustin'ek
X, 3	barnean	barnean	barnean
X, 3	baña	baña	bañan
X, 5	ba-daki,	ba-daki;	ba-daki;
X, 5	beraz	beraz,	beraz,
X, 6	Augustiñ'ek	Augustiñ'ek	Augustin'ek
X, 6	ezer;	ezer;	ezer,
X, 6	barrua	barrua,	barrua;
X, 9	aitor [iator m3]	aitor	iator
X, 10	galdera-motak	galdera-motak	galdera motak
X, 11	— Buruan	— Buruan	Buruan
X, 11	iraultzea	iraultzea,	iraultzea
X, 11	an	an	ez
X, 14	oroimenean:	oroimenean:	oroimenean;
X, 15	oroimenean,	oroimenean,	oroimenean
X, 16	Auztea [Ânztea m3]	Anztea	Aanztea
X, 17	tz [ta m2]	ta	ta
X, 17	ezin konta-ala	ezin konta-ala	ezin-konta-ala
X, 17	erraiñuz, [erraiñuz m3]	erraiñuz	erraiñuz



X, 17	betea, [betea m3]	betea	betea
X, 17	ortik	ortik	ortatik
X, 19	da	da	da,
X, 20	Bera	Bera	bera
X, 20	Oroituz	Oroituz	Oroituz,
X, 23	bizia	bizia	bizia,
X, 23	egiaren	egiaren	agiaren
X, 23	Zurea	Zurea	zurea
X, 24	dauka	dauka	dauka,
X, 25	Iainkoa.	Iainkoa?	Iainkoa.
X, 26	Beragan	Beragan	beragan
X, 27	zeukan	zeukan,	zeukan,
X, 27	Augustiñ	Augustiñ	Augustin
X, 29	duzuna [pr.]	duzuna	duzuna, <sup>28</sup>
X, 29	naiduzuna	nai duzuna [pr.]	nai duzuna
X, 29	ezkatzen	eskatzen	eskatzen
X, 29	duzuna [alt.]	duzuna [tert.]	duzuna,
X, 33	gutxiegi edo	gutxiegi-edo,	gutxiago edo
X, 34	(argiak),	(argiak),	(argiak)
X, 35	da:	da:	da;
X, 35	ikuskarri	ikuskarri	ikuskarri
X, 35	galgarrietara	galgarrietara	galgarrietara
X, 37	mingaiña	mingaiña	mingaiña
X, 38		goretsi-naia, nai	goretsi naiaren <sup>29</sup>
X, 38		arrikkutsua	arrikkua
X, 39	Geron	Geron	Geuron
X, 41	nendun	nuan	nuan
X, 42	Augustiñ	Augustiñ	Augustin
XI, 1	bziz	bizi	bizi
XI, 1	gu	gu	gu,
XI, 3	galdegin	galdegin	galdegin,
XI, 3	dio	dio,	dio
XI, 3	asieran	asieran	Asieran
XI, 6	iteze—Ez; [itzez? m3] <sup>30</sup>	itzez? Ez;	itzez ez,
XI, 7	itza	itza	Itza
XI, 7	da:	da:	da;
XI, 7	Ez	Ez	ez
XI, 7	lekrik [lekurik m3]	lekurik	lekurik
XI, 8	Itza	Itz	Itz
XI, 8	mintzo	mintzo	mintzoa
XI, 9	Semea	Semea	Semea,
XI, 9	asiera	asiera	Asiera
XI, 9	da,	da,	da;

<sup>28</sup>Izenburuak honela dio: «Emazu agintzen duzuna [duzuna, Ark] ta agindu zazu nai duzuna [naiduzuna B]. Garbitasuna [Garbitazuna B] eskatzen [ezkatzen B] duzu? Emazu agintzen duzuna [duzuna, Ark] ta agindu nai duzuna».

<sup>29</sup>X, 38 kapituluaren izenburuaren gainean ikus 250 or. eta bertako 186 oh.

<sup>30</sup>«itzez?—Ez;» m3.

XI, 9	asiera	asiera	Asiera
XI, 10	baño	baño	baño
XI, 11	diagotenak	diagotenak	diagotenak,
XI, 11	ulertzen	ulertzen	ulertzen,
XI, 12	oro	oro	oro,
XI, 12	Iai#oak [# = k + n]	Iainkoak	Iainkoak
XI, 12	baño	baño	baño
XI, 12	ba'lu	ba'lu,	balu,
XI, 12	ziteken	ziteken	zitekean
XI, 13	baño	baño	baño
XI, 13	orduan	orduan	orduan,
XI, 13	noizkoa	noizkoa	noizkoa,
XI, 15	laburra»	laburra»	laburra»,
XI, 15	ote da	ote da	ote-da
XI, 23	Aldi# [Aldia m3] <sup>31</sup>	Aldia	Aldia
XI, 23	zirkiñ	zirkiñ	zirkin
XI, 24	du:	du:	du;
XI, 25	nazazu,	nazazu	nazazu,
XI, 30	tokian	tokian	tokian,
XI, 30	da;	da;	da.
XI, 30	beraz	beraz	Beraz
XII, 1	Augustiñ'ek	Augustiñ'ek	Augustin'ek
XII, 1	zaill	zaill	zail
XII, 2	«zeruen zerua?»	«zeruen zerua?»	zeruen zerua?
XII, 4	Nâste-borraste	Nâste-borraste	Naaste borraste
XII, 4	lurrarentzat	lurrarentzat	lurrarentzako
XII, 5	nâste-borraste	nâste-borraste	naaste borraste
XII, 6	Lurra	Lurra	Lurra,
XII, 6	gabia [gabea m3]	gabea	gabea
XII, 7	egiñak. dira	egiñak dira	egiñak dira
XII, 8	Lurra	Lurra	Lurra,
XII, 8	ikus-egiña [i.-egiña m3] <sup>32</sup>	ikus-eziña	ikus eziña
XII, 8	leize gaiñean	leize gaiñean	leize-gaiñean
XII, 10	ez-baiña	ez-baiña	ez baiña
XII, 11	zerua	zerua	zerua,
XII, 11	Augustiñ'ek	Augustiñ'ek	Augustin'ek
XII, 12	gauza	gauza,	gauza
XII, 12	aldi gabe	aldi gabe	aldi-gabe
XII, 13	zerua;	zerua;	zerua:
XII, 14	zuan	zun	zuan
XII, 16	Iainkoari	Iainkoari	Iainkoari,
XII, 17	Moise'k?	Moise'k.	Moise'k.
XII, 21	zan»:	zan»:	zan»;
XII, 23	etzun [etzun m3]	etzun	etzun
XII, 24	asieran	asieran	Asieran
XII, 24	Iainkoa	Iainkoak	Iainkoak

<sup>31</sup># = a+z.<sup>32</sup>«ikus-egiña» m3.

XII, 24	esatean.	esatean.	esatean?
XII, 25	guk	guk	Guk
XII, 26	Augustiñ'ek	Augustiñ'ek	Augustin'ek
XII, 26	naiko	naiko	naiko,
XII, 26	ba'litza	ba'litza,	balitza,
XII, 27	gutxitatik	gutxitatik	gutxietatik
XII, 28	zeru-lurra»:	zeru-lurra»:	zeru-lurra»;
XII, 29	zitun:	zitun:	zitun;
XII, 30	bixikoak	bitxikoak	bixikoak
XII, 32	ba'zun	ba'zun	bazun
XIII, 1	Augustiñ'i	Augustiñ'i	Augustin'i
XIII, 2	zenezan:	zenezan:	zenezan;
XIII, 3	izan [izan, m3]	izan	izan,
XIII, 4	ba'litu	ba'litu	balitu
XIII, 4	ere	ere,	ere,
XIII, 5	iakintasanagan	iakintasanagan	Iakintasanagan
XIII, 5	egin	egin	egin,
XIII, 5	arnasa	arnasa	Arnasa
XIII, 5	arnas	arnas	Arnas
XIII, 5	saindua,	saindua;	Saindua;
XIII, 5	Augustiñ'ek	Augustiñ'ek	Augustin'ek
XIII, 6	arnaza [arnasa m3]	arnasa	Arnasa
XIII, 7	Nork	Nork	Nor
XIII, 7	esan	esan	esan, <sup>33</sup>
XIII, 7	arnasa	arnasa	Arnasa
XIII, 7	zala».	zala».	zala»?
XIII, 8	arrazoi duna	arrazoiduna	arrazoiduna
XIII, 9	gaiñ	gaiñ	gain
XIII, 10	Gu	Gu,	Gu
XIII, 12	argira	argira	argitara
XIII, 13	ori	ori	ori,
XIII, 13	siñestea	siñestea	sinistea
XIII, 15	sainduen	sainduen	Sainduen
XIII, 16	alda-eziña	alda-eziña,	alda-eziña,
XIII, 18	illuna:	illuna:	illuna;
XIII, 18	eguna:	eguna:	eguna;
XIII, 19	argi zagiak	argizagiak	Argizagiak
XIII, 20	Lengoan	Lengoan	Lengoak
XIII, 21	itzak	itzak	Itzak
XIII, 21	egaztiak:	egaztiak:	egaztiak;
XIII, 21	da.	da	da.
XIII, 25	Augustiñ	Augustiñ	Augustin
XIII, 25	esaten,	esaten;	esaten,
XIII, 26	Paul	Paul,	Paul
XIII, 28	orobatean	oro batean	orobatean
XIII, 29	guk	guk	guk,
XIII, 29	ikusten	ikusten	ikustean

<sup>33</sup>Hemengo «esan» hau izenburuko lehenengoa da: «Nork [Nor Ark] esan [esan, Ark] eta [...]».

XIII, 31	dana	dana	dana,
XIII, 31	ori	ori,	ori
XIII, 32	Iaunari	Iaunari	Iaunari,
XIII, 35	Emaiguzu	Emaiguzu	Emaiguzu,
XIII, 35	Iauna	Iauna	Iauna,
XIII, 38	Zerorrek	Zerorrek,	Zerorrek,

Aldaera hauen aurrean segurtasun osoarekin bazter dezakegu testuaz kanpotiko datuen interpretazio sinpleegi batek egiantzeko egin zezakeen hipotesi bat, hots, aurkibidea *Aitorkizunen* testuaren proba zuzenduetatik abiatuta egin zela. Hau da, bistan da aurkibidearen testua ezin dela A-ren kopia izan edo, zehazkiago mintzatzeko, A-ren berdin-berdina izan behar zukeen azken probarena: kontua da, berriz ere, frogatzea X eskuizkribua ez datorrela Y eskuizkributik, eta hori frogatzeko modu bakarra da *error separativus* bat aurkitzea.<sup>34</sup> Baditugu lauzpabost horrelako gure goiko zerrenda honetan:

IV, 6	Bizitzeak	Bizitzak	Bizitzeak
VI, 6	emaiten	ematen	emaiten
VIII, 6	Pontian'ek	Pontitian'ek	Pontian'ek
IX, 7	oitura	oituran	oitura
X, 9	aitor [iator m3]	aitor	iator

Hau da, sinestezina da —erabat ezinezkoa dela ez esatearren— jatorrizko irakurketak zein diren *ope ingenii* asmatzea A-tik bakarrik abiatuta, hain zuzen ere A-ko hutsei ezin zaielako igarri hutsak direnik: horregatik izan ahal dira *errores separativi*.<sup>35</sup> Ohar bedi, honetaz gain, «Pontian'ek B : Pontitian'ek A : Pontian'ek Ark» irakurketaren kasuan, A-ren irakurketa ez dela hutsa, zuzenketa baizik; jakina, oraindik frogagarriagoa da: gauza bat da irakurketa zuzena eta beste bat irakurketa jatorra, eta hemen axola zaiguna da, hain zuzen ere, irakurketa jatorretatik aldentzen diren berrikuntzak.<sup>36</sup> Arestian emandako zerrendatxokoen antzekoa da —frogatzeko balioaren aldetik behintzat— X, 2 izenburuaren testuarekin gertatutakoa:

Aitortu nai ezik ere, Iainkoak ezagutzen du giza-barrena. Lotsatzen da ta beregandik <i>baztartzen, Iaungoikoa artzeko.</i> (B)	Aitortu nai ezik ere, Iainkoak ezagutzen du giza-barrena. Lotsatzen da ta beregandik <i>baztartzen Iaungoikoari eltzeko.</i> (A)	Aitortu nai ezik ere, Iainkoak ezagutzen du giza-barrena. Lotsatzen da ta beregandik <i>baztartzen, Iaungoikoa artzeko.</i> («Arkibidea»).
---	--	--

<sup>34</sup>Ikus, kontzeptuaren gainean, 127 or. 95 oh.

<sup>35</sup>Eztabaidagarria izan daiteke, alde honetatik begiratuta, «Kiroletan B : Kirolak A : Kiroletan Ark» kasua (I, 10): izan ere, «Kirolak aundinai billa» esaldia ezinezkotzat jo daiteke eta Agustinek kapituluaren bertan dioenarekin berreraiki liteke —egundoko suertearekin, hori bai— jatorrizko irakurketa. (Baina izenburua ez da nahitaz ezinezkoa: uler daiteke «Kirolak», bera bakarrik, esaldi nominal bat dela, eta «aundinai billa» beste esaldi bat). Beharrik ez dagoenez gero ez du merezi honetaz gehiago tematzea, baina nago besterik gabe sar litekeela goiko zerrendatxoan.

<sup>36</sup>Gogora dezagun B-prior-en ez dituela ezerk iragarri B-ren eta A-ren arteko aldaera hauek, hau da, B-prior-etik A-ra bidean sartu ziren haietakoak direla guztiak.

Ekar genitzake froga gehiago,<sup>37</sup> baina nahikoa da testukritika geometrikoenaren arabera ere erabat akatsik gabeak diren kasu hauekin.

Aldi berean, ordea, «Arkibidea» honen testuak B-prior baino geroagokoak diren bi testu zati islatzen ditu. VII, 21 kapituluak ez du izenbururik B-prior-en (B, 87 or.): izenburuarentzako zuri bat utzi zuen B-ren kopiagileak baina hutsune hori ez zen inoiz bete (B-alter-ekoa, berriz —ikus dugu gorago: 98 or. 5 oh.—, Orixek bete zuen bere eskuz: «Kristo biotzez umil eta samur»); A-n, eta esan bezala B-prior-en inongo arrastorik utzi gabe, honako izenburu hau irakur daiteke:

Batez ere Iondoni Paul'en liburuetan arkitu du Platondarretan arkitu ez duna ta Goiko Arnasa pozdardara sartu zaio.

Funtsean, izenburu berbera dago mintzagai dugun aurkibidean. Antzeko zerbait gertatu da X, 38 kapituluaren izenburuarekin: B-k «Gauza galduak nola arkitzen ditu oroimenak?» izenburua dakar (B, 137 or.); baina Lekuona konturatu egin zen izenburu hau X, 18 kapituluak zuen berbera zela eta, oraingoan ere B-prior-en arrastorik lagatzeke, beste bat asmatu zuen A-ko testurako:

Ageriko egiñak goretsi-naia, nai arrixkutsua.

Eta hau ere, gutxi gorabehera, aurkibidean dagoen bera da. Gorago frogatu dugu, testukritika zorrotzenak ezin eztabaidatuzkotzat jo ohi duen modu batean frogatu ere, aurkibidea B-prior-eko testutik edo B-prior-ekoa bezalako batetik kopiatu zela, hau da, ez zela kopiatu A-koa bezalako batetik; baina VII, 21 eta X, 38 kapituluaren izenburuek frogatzen dute, aldi berean, beste zerbait ere izan zuela kontuan Lekuonak aurkibide hau egiteko momentuan eta zerbait hori gero A-n inprimatu zenaren berdina —edo oso antzekoa— zela. (Hau guztia, bestalde, orain arteko datuetan oinarri litekeen beste hipotesi baten kontrako aztarrena da, hots, «Arkibidea» inprimategiko langileek egina izatea baina zuzenean B-prior-etik; nolahi ere, beherago —ikus 327 or.— aztertuko ditugun hizkuntz ezaugarriek zeharoan frogatuko dute mintzagai dugun testu hau Lekuonak egina izateaz gain Lekuonak berak eskribitua dela). Baina, bestalde —azpimarra dezagun aurkaritza—, axola zaigu egiaztatzea aipatu bi izenburu hauetatik landara behin ere ez datozela bat, B-prior-eko testuaren kontra, aurkibidekoa eta A-koa —bat etorri, esan gabe doa, poligenetikoa ezin izan daitekeen irakurketa batean—; hizkuntzaren itxurari dagozkion aldaerak alde batera utzita —hemen bereziki baliogabeak, gainera—, hauek dira dauden guztiak:

II, 7	eroriko	erorika	erorika
V, 7	zio	zaio	zaio
VI, 3	Anburusi	Amburusi	Amburusi
VI, 4	Anburusi	Amburusi	Amburusi

<sup>37</sup>Esaterako —eta puntuazio kasu bat aipatzearren bakarrik—, «izan bizi B : izan, bizi m3 : izan bizi A : izan, bizi Ark» (XIII, 3), komaren beharra ez baitzen, inondik ere, begien bistakoa: «Argiak ere ez zun merezi izan [izan, m3Ark] bizi izatea ta argitsu izatea».

IX, 5	Anburusi	Amburusi	Amburusi
X, 41	nendun	nuan	nuan
XI, 1	bziz	bizi	bizi
XI, 8	Itza	Itz	Itz

«Anburusi : Amburusi» eta «nendun : nuan» aldaerek ezer gutxi balio dute, Lekuonak *Aitorkizunen* testuan zehar sistematikoki egin zituen aldaketetakoak direlako; «Itza : Itz» ere, duen testuinguruan ikusten badugu, nabarmenegia da ezer frogatzeko («Zure Itz [Itza B] alda-ezifña mintzo [mintzoa Ark.] zaigu»); eta gainerakoek berez hitz egiten dute. Benetako salbuespen bakarra «eroriko B : erorika AArk» da: zalantzarik gabe, Lekuonak gogoan zuen B-prior-etik A-ra bidean egindako aldaketa hau (ikus 217 eta 283 or.), eta aurkibidea egiterakoan ere berriz egin zuen. Beraz, onartu beharra daukagu, ezinbestean, «Arkibidea» B-prior-etik kopiatu zela, baina bi testu zati —eta bi bakarrik—, VII, 21 eta X, 38 kapituluaren izenburuak alegia, B-prior baino geroagoko bertsio batetik txertatu zirela —edo, zehazkiago mintzatzeko, geroagoko bertsio batean agertuko ziren bi testu zati txertatu zirela—. Bestela esanda: eskuen artean ditugun datuen arabera, ez dugu zertan pentsatu behar «Arkibidea» B-prior-en eta A-ren arteko bertsio batetik kopiatu zenik, eta apropos erabili dugu *txertatu* aditza; zehazki, egiaztatu dezakegun gauza bakarra da *contaminatio* bat gertatu dela bi puntutan eta bi puntutan bakarrik. Ez dago harritzeko arrazoirik bi puntutan bakarrik gertatu delako: honelaxe izaten dira, hain zuzen ere, *contaminatio* gehienak, hots, ez dira izaten *collatio* sistematikoak. Baina, hori bai, horrela izateko zerbaitek bultzatu behar izan du kopiagilea *contaminatio* egitera, hau da, besoa testuaren beste lekukotasun batera luzatzera. Gure bi kasu hauek eskuliburu batean adibide gisa azaltzeko modukoak dira: VII, 21 kapituluaren izenburuan B-prior-en dagoen zuria ikusi du kopiagileak, Lekuonak alegia; X, 38 kapituluaren izenburura heldu denean X, 18 kapitulukoarekin gogoratu da edo, agian —aurkibideko bertsioa, uste dudana bezala, A-koa baino berriagoa bada—, gogoratu da nola konturatu zen errepikapen horrekin A-ko testua prestatu edo zuzendu zuenean eta nola asmatu behar izan zuen beste izenburu bat.<sup>38</sup> Zeren eta «Arkibidea» delakoaren testua, esan

<sup>38</sup>Berez, bi aukera ditugu: edo VII, 21 eta X, 38 kapituluaren aurkibideko testua A-tik kopiatu da (hau da, liburuaren probetatik), edo bai aurkibidearen bai A-ren ereduaz zatekeen behin-behineko zirriborro moduko batetik (hau da, bi izenburu horiek bakarrik izango zituzkeen zirriborro bat eta, aldi berean, B-prior baino berriagoa eta A baino zaharragoa zatekeena); hots: edo A-ko testua da aurkibidekoa baino zaharragoa edo aurkibidekoa da A-koa baino zaharragoa. Ikus ditzagun testuak osorik:

Batez ere Iondoni *Paul'en liburuetan* arkitu du *Platondarretan* arkitu ez *duna* ta Goiko *Arnasa* poz-dardara sartu zaio. (A)

Batez ere Iondoni *Paul'o'ren Liburuetan* arkitu du *platondarretan* arkitu ez *duna*, ta Goiko *Arnasa*; ta poz-dardara sartu zaio. (Ark.)

Ageriko egiñak *goretsi-naia, nai arrixkutsua*. (A)

Ageriko egiñak *goretsi naiaren arrixkua*. (Ark.)

Esango nuke —batez ere lehenengoari buruz— bete-betean balio duela hemen harako *lectio brevior potior* hark (non *potior*, noski, *vetustior* baita), zehazki izenburuaren bukaerako «[...] ta Goiko Arnasa; ta [...]» hitzei dagokienez. Badirudi bestearekin ere antzeko zer edo zer gertatzen dela baina sintaxiaren aldetik, hau da, aurkibidekoa sofistikuagoa —xegetikoagoa— dela A-koa baino. (Kontzeptuari buruz ikus, esaterako, Metzger

bezala, A-koa baino zaharragoa baita —aipatu bi izenburuetan izan ezik—, baina honek ez du esan nahi «Arkibidea» A finkatu baino lehenago egin zenik: aitzitik, VII, 21 eta X, 38 kapituluen izenburuen txertaketak frogatu du aurkibidea egiteko B-prior baino geroagokoa den testu bat erabili dela, seguruenik A bera, hau da, liburuaren azken probak; aipatu izenburu horien testuaren bi bertsioen azterketak ere, zerbait erakustekotan, egiantzekoagotzat jo du aurkibideko bertsioa A-koa baino berriagoa izatea (ikus, hemen bertan, 38 oh.); eta, azkenik, testuaz kanpotiko datuek ere horren alde hitz egiten dute, hau da, Lekuonak «Arkibidea» prestatu zuela *Aitorkizunen* testuaren inprimatze lanak bukatuta zeudenean.

Prestatu esan dugu: izan ere, segurutzat jo dezakegu «Arkibidea» Lekuonak berak eskribitutako aldaki batetik kopiatu zutela moldiztegiko langileek; hau da, Lekuonak ez zuen lan egin ez Orixek bidalitako testu baten gainean ez —nahiz eta aukera hau, *a priori*, oso egiantzekoa izan hemen— inprimategian bertan antolatutako izenburuen zerrenda baten gainean. Berak idatzi zuen, hots, berak kopiatu zituen, banan-banan, aurkibidea osatzen duten kapituluen izenburu guztiak: berak kopiatu zituen bezala «Utsuneak» izeneko dokumentuaren bi orriak eta *Egan*-en argitaratu zen testu zatia. Horrela dela erakusten du mintzagai dugun testuaren grafian ere egoteak materialki eskribitzen zituen testuetan bakarrrik egin ohi zituen aldaketa jakin batzuk: VII eranskinean saiatu gara hau guztiau frogatzen. Eta ez da kontu hutsala: beste arrazoi askorengatik bestela, fenomeno horren berri emateko, *Aitorkizunen* testuaren historia osoa beste modu —oker— batean azalduko lukeen teoria bat eraiki behar litzatekeelako.

### c. «Iztegitxoa»

1956ko liburuaren hiztegitxoari buruz bi lekukotasun garrantzitsu ditugu: biak ikusi ditugu gorago (58 eta 305-306 or.), baina komeni da berriz gogoratzea hemen axola zaizkigun auziei begira. 1956ko irailaren 23an Orixek karta egiten dio Mokoroari: aurreko egunean ikusi du lehenengo aldiz *Aitorkizunen* liburu inprimatu berria eta izan duen nahigabea adierazten dio; nahigabe horren zergatikoetako bat, hain zuzen ere, bukaerako hiztegitxoa da:

S. Agustiñen bi ale atzo eman zizkidan Labaienek. Axalez poliki dago. Gaiñerakoan... eskua politiktxo sartu dutela, lenengo orrialdetik asita. Azkenean iztegia ere ipini dute. Zertzuk esanez! [...] Ez dit batera irakurtzeko gogorik ematen.

Bistan da, hortaz, aztergai dugun hiztegitxoa ez ziola Orixek bidali Lekuonari, B-prior-en ondoren esaterako, *index*-a helarazi bide zion bezala. Bigarren lekukotasuna —kronologiaren arabera lehenena, noski— Itxaropena argitaletxearen inprimategiko langile batek Lekuonari egindako gutun bat da. 1956ko abuztuaren 2an, *Aitorkizunen* testua gutxienez bigarren probetan dagoenean, honako hau kontatzen dio, besteak beste, gure inprimatzaileak on Manuel Lekuonari:

[1992, 121-122 eta 201 or.] eta Aland [1982, 319-320 or.]; ez da ordea arriskurik gabeko araua: ikus, besterik gabe, Timpanaro [1981, 28 or. 30 oh.]).

[...] por correo aparte le envío dos juegos de páginas montadas de la obra Aitorkizunak [...]. Ya estamos componiendo los dos Índices que pronto le enviaré para su corrección. Ya solo queda el pequeño vocabulario que aún no he recibido su original y la portada, para ultimar la obra.

Lekuonak azkar egin zuen egitekoa eta abuztuaren 7an bidali bide zuen moldiztegia falta zen hiztegitxoa, honela esaten baitio langileak 1956ko abuztuaren 10eko beste eskutitz batean:

Acuso recibo a su atta. carta fecha 7 del cte. junto con las pruebas de los Índices corregidos, así como el original del pequeño vocabulario. Ayer le envié las pruebas de este vocabulario, rogándole la rápida devolución de las mismas una vez corregidas [...]

Hiztegitxoa, orduan, bi aurkibideak baino geroago heldu zen inprimategira eta «Okerrak zuzente» baino pixka bat lehenago: pentsatzekoa da egin ere horrela egingo zelako.

Inongo zalantzarik gabe, beraz, 1956ko edizioaren «Iztegitxoa» ez da Orixek ondua. Alabaina, eta askotan aipatu behar izan dugun bezala, B-prior-en badira, orrien oinean, Orixek ipinitako hiztegi ohar zenbait (IV eranskinean eman eta azaldu ditugu); ohar hauek guztiak —bi izan ezik: ikus, hementxe, 39 oh.— 1956ko liburuaren hiztegitxoan jaso ziren, aldaketa gutxi batzuekin: Orixek euskaraz emandako iruzkinak erdaratu egin zituen Lekuonak eta, hiruzpalau kasutan, Azkueren hiztegi jo zuen, nonbait Orixeren azalpenak zehazteko edo, oro har, hobetzeko (ikus, beherago, 337 or.). Mintzagai dugun hiztegitxo honek 240 sarrera ditu guztira eta 128 B-prior-etik hartutakoak dira;<sup>39</sup> nondik eta nola etorri dira gainerako 112 horiek? Gorago, m3-k B-prior-en utzitako arrastoak aztertu ditugunean, lau sail egin behar izan ditugu: hauetako bat, beste hiruretatik oso ondo bereizita, esanahiaren aldetik azalpena behar zuten hitzek m3-ri eragindako markek eta oharrek osatzen zuten. Izan ere, era honetako hitz asko markatu zituen m3-k bere ohiko arkatx gorri-urdinarekin: batzuetan, bertan esaten genuen bezala, azpimarratu besterik ez zuen egin eta beste batzuetan azpimarratu eta, betiere lapitz gorri-urdinarekin, erdal —inoiz euskal— ordain bat eman; m3-k helburu honekin nabarmendutako hitz guztien zerrenda, hauei emandako ordainekin batera —horrelakorik dagoenean—, gorago irakur daiteke (137-140 or.). 1956ko edizioaren hiztegitxoko 240 sarreretatik 79 Lekuonak B-prior-eko orrietan markatutako edo azaldutako hauek dira. Merzei du elkarren ondoan ikustea, alde batetik, B-prior-en nabarmendutako

<sup>39</sup>B-prior-en, berez, 153 ohar daude, ez 128: 153 horietatik ordea 2 ez dira jaso 1956ko edizioaren hiztegitxoan («aizu = libre» eta «abaldu = calmarse») eta, bestalde, hitz asko bi edo —inoiz— hiru aldiz agertzen dira B-prior-eko oharretan, baina 1956ko hiztegitxoan, noski, behin bakarrik jaso dira («apen», izan ere, hiru aldiz agertzen da Orixeren oharretan; honako hauek, berriz, bina aldiz: «asimasi», «atzi», «aurtiki», «ausaz», «azbegi», «aznai», «bakun», «batzaldi», «gogaki», «iagon», «iaregin», «iguin», «ikotika», «ifutu», «itzuri», «mendeku», «mintzul», «sori», «tuku», «tulunbio», «urribizi» —azken hau, berez, «urri bizi»—). Ikus erreferentziak IV erans. Oro har, eta testuan esan bezala, B-prior-eko oharrek aldaketa handirik gabe jaso dira 1956ko hiztegitxoan: euskaraz zeudenak erdarara itzuli dira («iarki = buruz buru iari» B : «iarki = oponerse» A; «mintzul = itzik gabe» B : «mintzul = mudo» A; «atzi = atzeman, arrapatu» B : «atzi = conseguir, lograr, coger» A; etab.) eta erdarazko gehienak zeuden-zeudenean gelditu dira («ifutu = nutrir» B : «ifutu = nutrir» A; «tuku = celos» B : «tuku = celos» A; «apen = venganza» B : «apen = venganza» A; etab.). Hau guztia oharren antolamenduari dagokio: oharren testuan gertatu diren aldaerei buruz ikus, beherago, 334-337 or. Ohar bedi, bestalde, m1 ter-ek eta m2-k sartutakoak ere jaso egin direla: «urribizi» eta «iagole» (ikus 104-105 eta 118 or.). Adibideak besterik ez dugu ekarri: kasu guztiak ikusi nahi dituenak IV eranskinean ditu, esan bezala, B-prior-ekoak; besteak, jakina, 1956ko edizioan.



hitzak eta Lekuonak emandako azalpenak eta, bestetik, hauetatik abiatuta 1956ko edizioaren «Iztegitxo» delakoan (hemendik aurrera «Izt») sortu diren sarrerek:<sup>40</sup>

	B	m3	Izt
42 or.	garerdiko	florentem	«garerdiko = floreciente»
43 or.	Auk	ten	«auk = ten (imper.)»
43 or.	mingulin	queja	«mingulin = queja»
45 or.	axekatzeak	nugari, broma	«axekatu = bromear»
45 or.	obenduru	reo	«obenduru = reo»
48 or.	erraldoi	gigas	«erraldoi = gigante»
51 or.	zireun		
51 or.	kaizu	magnitudo	«kaizu = tamaño, grandor»
53 or.	iñarrausiak	vexari, castigar	«iñarrausi = sacudir»
54 or.	bekaldetzen	comparar	«bekaldetu = comparar»
54 or.	Arrandi	soberbia	«arrandi = orgullo»
54 or.	iresle	devorador	«iresle = devorador»
56 or.	txiratzen	acariciar	«txeratu = acariciar»
60 or.	nabastarreak	familiaritas	«nabastarre = familiaridad»
60 or.	iasak	pietas	
61 or.	puztagarriak	pasajeros	«puztagarri = efímero, pasajero»
64 or.	kurkañoaren		«kurkaño = traguito ( <i>kurka</i> )»
64 or.	suar	fervens	«suar = ferviente, ardiente»
71 or.	iraizeko	presente	«iraizeko = presente, superficial»
75 or.	erasaten	penetrar	«erasan = penetrar»
76 or.	idoki	sacar	«idoki = sacar»
77 or.	zafiñiltzen	?	«zafiñil = flojo, apático»
83 or.	adargil	ganado	«adargil = ganado cosquilloso»
84 or.	aleun	inumerable [sic]	«aleun = inumerables [sic]»
85 or.	oildu	apartar	«oildu = apartar»
85 or.	istatua	inundar	«iztatu = inundar, rociar»
85 or.	usma	olfato	«usma = usai»
85 or.	eraiki	ex[...]	«eraiki = hacer levantarse, exaltar»
86 or.	tinki		«tinki (egon) = (estar) seguro»
86 or.	eskier		«eskier = seguro»
87 or.	mordindua		«mordindu = embeber»
87 or.	illarraindu		«illarraindu = hincharse [...]» <sup>41</sup>
87 or.	atzilotzen		«atzilotu = cautivar»
87 or.	tinkatu		«tinkatu = asegurarse en...»
87 or.	kordokatuko		«kordokatu = tambalearse»
88 or.	irenak	eunuco	
89 or.	berariz	burlar	

<sup>40</sup>Ezkerrean, ohi bezala, m3-k nabarmendutako hitza doa; erdian, m3-k betiko arkatz gorri-urdinarekin idatzitako azalpena, baldin horrelakorik badago; eskuinean, azkenik, m3-ren oharrari 1956ko edizioaren hiztegitxoan dagokion sarrera osoa. Datuak argiago emateagatik ezin izan ditugu erreferentziak osorik —hau da, ohiko moduan— eman: hutsik egiteko arriskurik gabe osatu daitezke 137-140 orrialdeetako zerrendara joez gero; ohar bedi, orobat, aipatu zerrendan bakarrik ematen direla kasu bakoitzean eman beharreko xehetasunak: hemen ez dugu harako deirik ere jarri.

<sup>41</sup>«illarraindu = hincharse, envanecerse».

89 or.	izai	cedro	«izai = cedro»
93 or.	auengarri		«auen = lamento»
93 or.	aioan		«aio = espera, deseo»
93 or.	goxo ta mana		«g. t. m. = dulcísimo y mansísimo»
93 or.	sari-zun		«sari-zun = por interés»
95 or.	aiertzen		«aiertu = oponerse»
95 or.	irotzen		«irotu = consumirse, corromper»
104 or.	lasternna	prontitud	
107 or.	uztaka		
107 or.	arreratu	curar	
107 or.	uger	profundo	«uger = profundo»
108 or.	korrokatu	vomitar	«korrokatu = vomitar»
109 or.	txirdillen	inferior	«txirdil = inferior»
112 or.	ilaurri		«iñaurri = extender [...]» <sup>42</sup>
112 or.	nausa	reírse	«nausatu = reirse, burlarse»
113 or.	ioiago	rico	«iori = abundante»
115 or.	asaska	desahogarse	«asazkatu = respirar»
115 or.	as-estu	apurar	«asestu = suspirar
117 or.	Uhats [...] uhatsak	aire	«uhats = aire atmosférico»
118 or.	edutu	formarse	«edutu = formarse»
120 or.	berrein	innumerables	«berrein = inumerables [sic]»
123 or.	dendua	cimiento	«dendu = equilibrio»
123 or.	aleun	inumerables [sic]	«aleun = inumerables [sic]»
123 or.	zietan		«zietan sartu = estimular»
125 or.	usnatu		
128 or.	kukatzen	hallar	«kukatu = hallar»
129 or.	gorbizi	rebelde	«gorbizi = rebelde [...]» <sup>43</sup>
130 or.	segarak		«segara = lazo (sin. <i>lakio</i> )»
131 or.	entziten	aquietar	«entzi = confiarse, quietarse»
132 or.	antzumatzuz		
133 or.	lo-armarik		«lo-asma = dormirar [...]» <sup>44</sup>
133 or.	ista	brillo	«ista = brillo»
134 or.	araotzen		«araotu = suplicar»
135 or.	xapaleri		
135 or.	egitzi		«egotzi = dejar, deponer»
136 or.	axukatzen [...]» <sup>45</sup>	tentar	«axukatu = tentar»
137 or.	goitzarrenak	contumelia	«goitzarren = vituperio»
140 or.	Berein	milla, asko	«berrein = inumerables [sic]»
141 or.	semautsi		«semautsi = hijo adoptivo»
142 or.	eita	forma	
145 or.	beraizik	bromeando	
145 or.	aleun, aleun	inumerables [sic]	«aleun = inumerables [sic]»
147 or.	axekatuko	tentar	«axekatu = bromear» <sup>46</sup>

<sup>42</sup>«iñaurri = extender, tender como lecho».

<sup>43</sup>«gorbizi = rebelde, desobediente, destemplado».

<sup>44</sup>«lo-asma = dormirar (op. *lozorro*)».

<sup>45</sup>Ikus, sarrera osoa, 139 or.

<sup>46</sup>Azalpen oker honen gainean ikus 140-141 or. 22 oh. bigarren zatia.

148 or.	iaurri	gobernar	«iaurri = regir»
149 or.	atarra	reprehensión	«atarratu = reprender»
151 or.	zora	movearse	«zoratu = dar vueltas»
152 or.	tarterrik	espacio	
153 or.	xurtzen	disminuir	«xurtu = disminuir»
154 or.	iraizeko	transitorio	«iraizeko = presente, superficial»
155 or.	iraitzi	arrojar	
156 or.	mokorki	corpus	
157 or.	soraioeri	muy [...] <sup>47</sup>	
160 or.	egarten	egari	«egari = sufrir, soportar»
161 or.	aizaroak		«aizaroak = tinieblas»
161 or.	sorbatz	filo	
162 or.	irutzen		«irotu = consumirse, corromper»
169 or.	edu	como	«edu = tantos... como (= <i>ainbat</i> )»
170 or.	erasanez	padecer	«erasan = penetrar»
173 or.	ixitu		
174 or.	iro corromper		«irotu = consumirse, corromper»
175 or.	bixikoago		«bixiko = diferente»
178 or.	ataizean		«ataize = celo, acecho»
181 or.	maketsen	perfecto	
181 or.	alki	contento	«alki = contento»
182 or.	lapardiak	zarzal	
182 or.	auta	electa	«auta = elegante»
182 or.	eintsu	medida	
183 or.	bixikoak	diferentes	«bixiko = diferente»
183 or.	ein		«einean = a la medida»
183 or.	gorbiziz	infiel	«gorbizi = rebelde [...]» <sup>48</sup>
184 or.	edu, edu	como	«edu = tantos... como (= <i>ainbat</i> )»
184 or.	ataizerako	celo	«ataize = celo, acecho»
185 or.	zarralda		«zarralda = arrastrándose»
185 or.	aintzoak		
185 or.	xegunekin		«xegun = señal»
186 or.	txartaketan		«txartaka = arbusto»
187 or.	antzi	habilidad	
187 or.	igatu	marchitarse	
188 or.	iragarlea		
190 or.	soatzi	gustar	«soatsi = gustar, saborear»

Begien bistan dago, hortaz, 1956ko liburuaren hiztegitxoak Lekuonak egin zuela eta, zati handiengan, Orixek ipinitako oharrak bilduz eta berak B-prior-eko orrietan zehar markatutako eta azaldutako hitzak jasoz. Esan dugu gorago hiztegitxo honetako 240 sarreretatik 128 Orixek ipinitakoetatik etorri direla; 79 Lekuonak nabarmendutakoetatik dira: arestian emandako zerrendan, noski, gehiago daude, baina hemen ere, Orixerenetan bezala, batzuk bi edo hiru aldiz markatu edo azaldu dira; bestalde, 7 sarrera bai Orixeren oharretan bai Lekuonak nabarmendutakoetan agertzen dira («bixiko», «egari», «einean»,

<sup>47</sup>«muy tardos de inteligencia».

<sup>48</sup>Ikus gorago 43 oh.

«illarraindu», «iñarrausi», «kaizu», «semautsi»). Hortaz, 40 sarrera gelditzen dira: zalantzarik gabe, B-prior-en gainean egindako lanaren ondoren konturatuko zen Lekuona hitz horiek ere liburuaren akaberako zerrendan sartzea komeni zela. Hona hemen:<sup>49</sup>

- «ahopaldi = insulto» (107 or. = IX, 8, 18 [227, 12])  
 «akalde (*Tiber akalde*) = puerto (*Ora tiberina*)» (109 or. = IX, 10, 23 [231, 6])  
 «akio = insistir, tentar (*-an ari*)» (135 or. = X, 36, 59 [292, 3])  
 «amarru = asechanza» (113 or. = IX, 13, 36 [240, 10]; amarruz B : amarruz A); 132 or. = X, 33, 50 [284, 23]; 134 or. = X, 35, 56 [289, 24]; 178 or. = XIII, 13, 14 [389, 21])  
 «antzelari = artista, artesano» (142 or. = XI, 5, 7 [308, 9 eta 15])  
 «ario (*-ra*) = a la medida» (4 or. = I, 6, 7 [14, 21]; 131 or. = X, 33, 49 [284, 16]; erioko B : arioko A); 151 or. = XI, 25, 32 [330, 3]; 170 or. = XII, 28, 38 [371, 3]; 186 or. = XIII, 24, 36 [408, 9])  
 «asikin = primicia» (109 or. = IX, 10, 24 [232, 8]; 163 or. = XII, 16, 23 [356, 15]; 178 or. = XIII, 13, 14 [389, 15])  
 «astandu = esconderse» (7 or. = I, 8, 13 [20, 7]; 178 or. = XIII, 14, 15 [390, 16]; 184 or. = XIII, 21, 30 [402, 17])  
 «aundipide = gloria, glorificación» (135 or. = X, 36, 59 [292, 13])  
 «baltza = fondo común» (73 or. = VI, 14, 24 [149, 8]; 80 or. = VII, 7, 11 [165, 22])  
 «ebatzi = juzgar» (89 or. = VIII, 2, 3 [186, 8]; 116 or. = X, 5, 7 [248, 13; ebazle]; 135 or. = X, 36, 59 [292, 16]; 185 or. = XIII, 22, 32 [404, 27 <pr.>, 27 <alt.> eta 28]; 185 or. = XIII, 23, iz. [405, 2]; 185 or. = XIII, 23, 33 [405, 3, 17, 18, 24 <ebazle>, 405, 24-406, 1, 406, 6, 8]; 186 or. = XIII, 23, 34 [406, 17, 407, 3, 7-8])  
 «egotzi = dejar, deponer»<sup>50</sup> (3 or. = I, 5, 6 [13, 23]; 10 or. = I, 11, 18 [24, 19]; 13 or. = I, 16, 25 [30, 7 eta 9-10]; 23 or. = II, 5, 11 [45, 23]; 34 or. = III, 7, 14 [65, 26]; 44 or. = IV, 7, 12 [84, 15]; 46 or. = IV, 11, 16 [88, 20]; 47 or. = IV, 11, 16 [88, 21]; 53 or. = V, 2, 2 [102, 21]; 54 or. = V, 3, 5 [105, 13]; 56 or. = V, 6, 11 [110, 10]; 59 or. = V, 10, 19 [117, 24]; 60 or. = V, 11, 21 [119, 11]; 62 or. = V, 14, 24 [123, 2]; 65 or. = VI, 4, 5 [131, 4]; 68 or. = VI, 7, 12 [137, 17]; 70 or. = VI, 9, 15 [141, 28]; 72 or. = VI, 11, 20 [146, 14]; 79 or. = VII, 6, 8 [163, 2]; 107 or. = IX, 8, 18 [227, 15 eta 228, 2]; 112 or. = IX, 13, 34 [238, 15; legotzidaken]; 113 or. = IX, 13, 36 [240, 4]; 114 or. = X, 2, 2 [244, 18]; 122 or. = X, 14, 22 [262, 8 eta 8-9]; 130 or. = X, 31, 44 [281, 7]; 135 or. = X, 36, 59 [292, 5; egitzi]; 137 or. = X, 37, 62 [295, 14]; 139 or. = X, 43, 70 [301, 16]; 168 or. = XII, 25, 34 [367, 10; egitzikiko]; 168 or. = XII, 25, 35 [367, 16]; 186 or. = XIII, 24, 37 [409, 2]; 187 or. = XIII, 25, 38 [411, 3])  
 «eiagora = clamor» (102 or. = IX, 4, 8 [217, 18 eta 24])  
 «eit! = ay! [sic]» (3 or. = I, 4, 4 [12, 23]; 6 or. = I, 7, 11 [17, 12]; 13 or. = I, 16, 25 [29, 18]; 74 or. =

<sup>49</sup>Hiztegitxoko sarrera bakoitzaren ondoren eman ditudan erreferentziak hitza agertzen den pasarteei dagozkie: honek ez du esan nahi aipatzen diren agerraldi horietan guztietan hitzak sarreran ematen zaion esanahia duenik; ikus, honen gainean, 338-339 or.

<sup>50</sup>Hitz hau «egitzi» idatzita agertzen da m3-ren arkatz gorriak nabarmendu duen tokian (135 or. = X, 36, 59 [292, 5]); ez dakigu, beraz, hitza hiztegitxoan jasotzeko asmoarekin markatu zuen Lekuonak ala hutsa zuzentzeko (ikus 138 or. 16 oh.). Huts berbera gertatu da hitzaren beste agerraldi batean («egitzikiko»: 168 or. = XII, 25, 34 [367, 10]), baina hemen ez dago inongo markarik; oso huts mota arrunta da makinaz jotako testuetan: ikus 84 or. 42 oh. Beste agerraldi batean ere lapitz gorri-urdinak azpimarratua dago (23 or. = II, 5, 11 [45, 23]), baina kasu honetan argi dago «Utsuneak» dokumentuan (197 or. 12 zenb.) proposatu den aldaketa bat txertatzeko marka bat dela. («Utsuneak» hauetako beste testu zati batean ere [195 or. 8 zenb.] agertzen da, oraingo honetan —aurrekoan ez bezala— Lekuonak *ex novo* sartuta). Baina 35 aldiz agertzen da guztira *egotzi* aditza *Aitorkizunen* testuan: beraz, modu askotara sar zitekeen hitz hau liburuaren akaberako hiztegitxoan, hau da, abagune asko izan ziteuen Lekuonak hitza «Iztegitxo» delakoan jasotzeko, eta honengatik guztiagatik zuhurrago dirudi X, 36, 59 paragrafoa hutsa zuzentzeko nahiari atxikitzea.

- VI, 16, 26 [152, 1]; 112 or. = IX, 13, 34 [238, 24]; 128 or. = X, 28, 39 [277, 15]; 170 or. = XII, 27, 37 [370, 10])
- «emaro = suavemente» (100 or. = IX, 2, 2 [212, 16]; 109 or. = IX, 10, 23 [231, 8])
- «erasiatu = increpar» (95 or. = VIII, 7, 18 [198, 27]; 111 or. = IX, 12, 31 [236, 18]); ikus baita ere «erasi» (65 or. = VI, 4, 5 [130, 23])
- «erdeñiatu = despreciar» (61 or. = V, 13, 23 [121, 23]; 110 or. = IX, 10, 26 [233, 12-13]; 131 or. = X, 31, 46 [282, 14])
- «erdikide = partícipe» (50 or. = IV, 15, 25 [95, 27]; 81 or. = VII, 9, 14 [168, 6]; 89 or. = VIII, 2, 3 [186, 13]; 139 or. = X, 43, 68 [300, 12]; 159 or. = XII, 9, 9 [346, 12]; 162 or. = XII, 15, 19 [353, 18]; 188 or. = XIII, 26, 40 [412, 14; erdikidetuz])
- «erkitu = debilitarse» (32 or. = III, 6, 10 [61, 23-24]; 82 or. = VII, 10, 16 [170, 19]; 88 or. = VIII, 1, 2 [184, 22]; 90 or. = VIII, 2, 4 [187, 20]; 104 or. = IX, 4, 11 [221, 1]); ikus baita ere: erkigarri (67 or. = VI, 6, 9 [135, 1])
- «eseki = pender, estar colgado, colgar» (112 or. = IX, 13, 35 [239, 12]; 164 or. = XII, 18, 27 [358, 23])
- «ezain = indigno» (80 or. = VII, 7, 11 [165, 24])
- «ezarian = poco a poco» (36 or. = III, 10, 18 [69, 18 bis]; 45 or. = IV, 8, 13 [85, 16]; 61 or. = V, 13, 23 [122, 5]; 112 or. = IX, 12, 33 [237, 24]; 134 or. = X, 35, 57 [290, 8])
- «gaitzegoki = incongruente» (157 or. = XII, 6, 6 [342, 19-20]; 164 or. = XII, 17, 25 [357, 21]; 174 or. = XIII, 3, 4 [379, 23])
- «garastatu = regar» (180 or. = XIII, 17, 21 [394, 21-22; garaztatu BA])
- «iastatu = saborear» (64 or. = VI, 2, 2 [127, 18]; 72 or. = VI, 12, 21 [146, 22]; 73 or. = VI, 12, 22 [147, 22 bis]; 86 or. = VII, 20, 26 [179, 24]; 104 or. = IX, 4, 10 [220, 5]; 118 or. = X, 8, 13 [254, 16]; 125 or. = X, 21, 30 [270, 13]; 128 or. = X, 27, 38 [276, 15]; 132 or. = X, 33, 50 [285, 8]; 133 or. = X, 35, 54 [288, 15]; 160 or. = XII, 11, 12 [348, 16])
- «iastu = gusto» (73 or. = VI, 13, 23 [148, 18]; 117 or. = X, 6, 8 [250, 1]; 120 or. = X, 10, 17 [257, 16-17]; 121 or. = X, 12, 19 [259, 5-6]; 121 or. = X, 14, 21 [261, 18])
- «iraultzizka = revolcándose» (100 or. = IX, 1, 1 [212, 11])
- «minduru = pesaroso» (58 or. = V, 8, 15 [114, 16-17]; 108 or. = IX, 9, 22 [230, 12]; 140 or. = XI, 1, 1 [303, 18; minduru B : minduru A])
- «mozkin = lucro, provecho» (3 or. = I, 4, 4 [12, 18])
- «obo = ámbito»<sup>51</sup> (151 or. = XI, 23, 30 [328, 2])
- «okaztatu = vomitar» (76 or. = VII, 2, 3 [156, 9]; 84 or. = VII, 16, 22 [175, 13]; 103 or. = IX, 4, 9 [219, 12])
- «sogor = sordo-mudo» (18 or. = II, 1, 2 [38, 6]; 46 or. = IV, 11, 16 [88, 13]; 51 or. = IV, 15, 27 [96, 28]; 104 or. = IX, 4, 11 [220, 25]; 105 or. = IX, 7, 15 [224, 7]; 128 or. = X, 27, 38 [276, 13]; 189 or. = XIII, 29, 44 [415, 14-15])
- «sumaiki = sentido» (121 or. = X, 12, 19 [259, 14]; 123 or. = X, 16, 25 [264, 19-20]; 125 or. = X, 21, 30 [270, 5 eta 9])
- «txokoan = en secreto» (106 or. = IX, 8, iz. [225, 8]; 141 or. = XI, 3, 5 [307, 5])
- «umontzi = seno materno» (170 or. = XII, 27, 37 [370, 5])
- «urrurik = de balde [sic]» (28 or. = III, 2, 3 [56, 1; urrurik B : urrurikago A]; 92 or. = VIII, 5, 10 [192, 19-20]; 126 or. = X, 22, 32 [271, 15]; 179 or. = XIII, 15, 17 [392, 10])
- «urrufiatu = despreciar»<sup>52</sup> (49 or. = IV, 14, 23 [94, 8-9]; 181 or. = XIII, 18, 22 [395, 19])
- «xedera = red» (31 or. = III, 6, 10 [60, 20]; 44 or. = IV, 6, 11 [83, 22]; 53 or. = V, 3, 3 [103, 10]; 57 or. = V, 7, 13 [111, 22-23]; 135 or. = X, 36, 59 [292, 3])

<sup>51</sup>B-ko makinazko testuan dei bat dago hitz honen ondoren baina oharririk ez dago. (Gauza bera gertatzen da, lerro berebean, «ekia» hitzarekin, baina hau ez da jaso bukaerako hiztegitxoan.)

<sup>52</sup>Baina bada Orixeren ohar bat «urrufia = desprezio»; ikus IV erans.

«zarteko = repentino» (169 or. = XII, 27, 37 [369, 21])

«zudu = empeño» (105 or. = IX, 7, 15 [223, 22])

Badira ordea aztertu beharreko aldaera zenbait *Aitorkizunen* testuaren eta hiztegi honetako hitzek osatzen dutenaren artean. Orixek ipinitako oharretatik sortutako sarreretan honako hauek aurkitu ahal izan ditut:

	B	Izt
36 or. = III, 10, 18 [69, 20]	erauzi	erautzi
20 or. = II, 3, 7 [41, 28]	eretsi	ezetsi
31 or. = III, 6, 10 [61, 6-7]	iarra eman	iaran eman
13 or. = I, 16, 25 [30, 4-5]	txartexa	txartesa
54 or. = V, 3, 3 [103, 23]	xume	kume

Berez, «eretsi B : ezetsi Izt» aldaera gorago azaldu dugu, B-ren kopiagileari buruz (80 or.) eta, gero, m2-k egindako zuzenketen gainean (102-103 eta 110 or.) hitz egin dugunean: ohar honi dagokion hitza, B-ko testuan, «erezten» da, eta oharra, esan bezala, «eretsi»; testuko «erezten» ordea «ezesten» zuzendu du m2-k, baina ez du ukitu orri barreneko «eretsi»; B-prior-en ez dago besterik, baina 1956ko edizioan jaso egin da m2-k egindako zuzenketa eta mintzagai dugun hiztegitxoan ere «ezetsi» inprimatu da. Hutsa delakoan nago hiztegitxoko «erautzi»: Orixek «erauzi» erabili du beti *Aitorkizunetan*.<sup>53</sup> Badirudi gauza bera esan behar dela —eta arrazoi berberengatik— «iaran eman» formari buruz. Berriz, esango nuke «txartexa : txartesa» aldaerak jatorri argia duela: hitz hau *hápax* da *Aitorkizunetan* eta, izan ere, «txartexa» da; baina Azkuek «txartes» dakar: ondoren ikusiko ditugun beste adibide batzuek erakutsiko digute Azkuek horrela ekartzea nahikoa dela onartu behar izateko horixe dela horren jatorria eta ez besterik. Azkenik, ezin eztabaidatuzkoa da Lekuonaren «kume = pequeño» ezinezkoak bestela jasogabetzat jo behar genukeen Orixeren «xume = txiki» izan behar duela derrigor.

Interesgarriagoak dira m3-k nabarmendutako hitzei dagozkien sarreretan gertatutako aldaerak:

	B	Izt
115 or. = X, 4, 5 [247, 12]	as-estu	asestu
115 or. = X, 4, 5 [247, 11]	asaska	asazkatu
113 or. = IX, 13, 37 [241, 1]	ioiago	iori [ioriago Oz]
85 or. = VII, 17, 23 [176, 19]	istatua	iztatu
133 or. = X, 34, 52 [287, 7]	lo-armarik	lo-asma
190 or. = XIII, 30, 45 [416, 3]	soatzi	soatsi
56 or. = V, 6, 10 [109, 7]	txiratzen	txeratu [txoratu A]
77 or. = VII, 3, 5 [157, 25]	zañiltzen	zaiñil

<sup>53</sup>6 or. = I, 7, 11 [17, 24]; 20 or. = II, 3, 6 [41, 4]; 36 or. = III, 10, 18 [69, 20]; 42 or. = IV, 4, 8 [81, 17]; 74 or. = VI, 15, 25 [150, 11 eta 22]; 96 or. = VIII, 8, 20 [200, 28]; 117 or. = X, 6, 8 [250, 1-2]; 134 or. = X, 35, 57 [290, 10].

Badirudi «as-estu B : asestu Izt» aldaerak honako zergatiko bakar hau duela: B-prior-eko orri berean eta paragrafo berean, lerro bat beherago (115 or. = X, 4, 5 [247, 14]), «asestu» irakur daitekeela Orixeren testuan —baina, esan bezala, «as-estu» aldaera dago azpimarratua—. Dударik gabe, «ioiogo» hutsa da, Lekuonak hiztegitxoa egiterakoan bakarrik atzemandako eta zuzendutako hutsa alegia, 1956ko testuan ere «ioiogo» irakurtzen baita oraindik: datua ez da bazter batean uzteko modukoa, alde batetik aztarren ia-ia segurua delako «Iztegitxoa» prestatu zenean —prestatu diogu, ez bakarrik inprimatu— *Aitorkizun*en testua ez zena ja gehiago ukitu eta, beste alde batetik, testu barneko datua izanik berretsi egiten digulako testuaz kanpotiko datuek zioskutena, hots, *Aitorkizun*en testuaren orrialdeak «montadas» zeudela (ikus, 328 or., 1956ko abuztuaren 2ko gutuna) hiztegitxoa oraindik inprimategira iritsi gabe zegoenean eta, honetaz gain, «Okerrak zuzentze» delakoa —hemen ere zuzenkizun agertzen baita: ikus 290 or.— hiztegitxoa inprimatu ondoren bakarrik egin zela (1956ko abuztuaren 10ekoa: *ib.*). Berriz, «istatua : iztatu» aldaera, oso oker ez banago, *coniectura* bat da, BAC-eko testuetan eta Orixek ipinitako ohar batean oinarritutako *coniectura* bat hain zuzen ere.<sup>54</sup> Ikusi dugu gorago (146 or. eta bertako 33 oh.) m3-k hustzat jo zuela «txiratzen» eta «txeratzten» zuzentzea proposatu zuela, B-prior-en bertan, bere betiko lapitz gorri-urdinarekin: hiztegitxoa ere «txeratu» inprimatu da eta, hortaz, pentsatu beharra dugu testua eta hiztegitxoa bat ez baldin badator dela testua ez delako zuzendu m3-k nahi zuen bezala («txeratu» eta ez «txiratu»), esango nuke, Azkuek «txera» eta «txeratsu» dakartzalako; «txiratu», bestalde, *hápax* da *Aitorkizunetan*); hau da, A-ko «txoratzten» nabarmenki *facilior* da eta, agidanean, hutsa, nahiz eta C-k ere

<sup>54</sup>B-ko testuak honela dio: «Ala arkitu zun animak zer argiz *istatua zan* [...]»; hots —gutxi gorabehera—: «[...] ut inveniret, quo lumine *aspergeretur* [...]» (85 or. = VII, 17, 23 [176, 19]). Ikusi dugu m3-k «istatua» hau azpimarratu zuela eta, inongo zalantzarik gabe BAC-eko edizioaren gaztelaniazko itzulpenari jarraituz, «inundar» glosa idatzi zuela B-prior-eko 85. orrian (ikus, honetaz, 137 eta batez ere 141-142 or.). Utz dezagun alde batera Lekuonaren glosaren jatorria; oso oker ez banago, *Aitorkizunetan* *hápax* den «istatua» honek bi hipotesi bakarrik onartzen ditu: edo *ista* hitzetik sortutako aditza da (eta, orduan, 'argiztatu' esan nahi luke nonbait —ez horrenbeste «brillar», OEH-k ulertu duen bezala—) edo «iztatu» baten orde zegoen hutsa da (Lekuonak hiztegitxo hau egiterakoan —agian ja B-prior-eko glosa idatzi zuenean— pentsatu duen bezala). Lehenengoaren alde dago, noski, testua bera (C-k ere «istatua» dakar) eta Orixek «ista» hitza *Aitorkizunetako* beste pasarte batean ere erabili izana (ikus 330 eta 338-339 or.). Bigarrenaren alde, berriz, honako hau: bai aztergai dugun «istatua» honek bai *Aitorkizunetan* agertzen diren *ihinzatu* guztiek («iiztatzten» 12 or. = I, 14, 23 [28, 10]; «ihiztaturik» 109 or. = IX, 10, 23 [231, 14]) latinezko *aspergere* aditza itzultzen dutela. Bestalde, lehenengo «iiztatzten» horri ohar bat ipini zion Orixek: «iiztatu = rociar»; Orixeren ohar honek iradokiko zion Lekuonari —seguruenik 1956ko liburuaren hiztegitxoa ontzerakoan— «istatua B : iztatu Izt» aldaketaren azpian dagoen *coniectura*: ez dezagun ahantz A-ko testuan ere «istatua» gelditu zela («ioiogo BA : iori[ago] IztOz» kasuan bezalaxe). Baina ezin da zalantzarik izan Orixeren oharrak esplikatzeko duela m3-ren «istatua = inundar» glosaren bigarren zatik «Iztegitxoa» delakoa izan zuen aldaketa: «iztatu = inundar, rociar» baita hemen; eta, orobat, m3-ren glosak esplikatzeko duela Orixeren oharrak jasandakoa: B-ko 12. orrian «iiztatu = rociar» bakarrik baldin bazen, 1956ko hiztegitxoa «iiztatu = rociar, inundar» baita. Bistan da Lekuonak sarrera bakar bat egin nahi izan zuela m3-ren glosa eta Orixeren oharra bilduz eta «iiztatu : iztatu» aldaerak azkenean inprimatu zen bikoizketa ekarri zuela. (Ez litzateke arrazoizkoa eskatzea —ez inongo itzultzailearen kasuan, baina mila aldiz gutxiago Orixerean— *Aitorkizunetan* agertzen diren *aspergo* edo *aspargo* guztiak *ihinzatu* bezala emanda egotea. Hala eta guztiz ere, hitzari emandako ordainek egoera esanguratsua erakusten dute: bost *aspergo* —edo *aspargo*— dira *Aitorkizunetan* [I, 14, 23; II, 2, 4; III, 1, 1; VII, 17, 23; IX, 10, 23]; hauetatik hirur, esan bezala —eta, berriz ere, Lekuonaren *coniectura* zuzena baldin bada—, *ihinzatu* aditzaren bidez jaso ditu Orixek; gainerako biak [II, 2, 4 eta III, 1, 1], berriz, beste aditz banarekin: «zirtatuz» eta «kirastu»).

«zorutzen» irakurri —gogora dezagun Lekuonak ez zekiela C-ren berririk—: m3-ren oharra eta, agian batez ere, hiztegitxoaren lekukotasuna askoz pisu handiagokoak iruditzen zaizkit C-ren irakurketa baino. Gainerako hitz guztietan gertatu diren aldaketak Azkueren hiztegiari egotzi behar zaizkiolakoan nago, segituan emango dugun taulan ikusiko ahal den bezala.

Azkenik, ez Orixeren oharretatik ez m3-k nabarmendutako hitzetatik ez datozen sarreretan aldaera bakarria gertatu da:<sup>55</sup>

	B	Izt
180 or. = XIII, 17, 21 [394, 21]	garaztatzen	garastatu

Hau ere *hápax* da *Aitorkizunetan* eta, agidanean, hiztegitxoan «garastatu» baldin bada Azkuek horrela dakarrelako da.

*Aitorkizun*en testuaren eta 1956ko liburuaren akaberako hiztegitxoaren arteko aldaera gehienak, hortaz, honela sortu ziren: Lekuonak, «Iztegitxoa» egiterakoan, Azkueren hiztegia izan zuen mahai gainean; batzuetan, eta seguruenik oharkabean,<sup>56</sup> hiztegitxoaren sarrearak Azkuek zekartzan gisan kopiaitu zituen eta ez, berez behar zukeen bezala —*Aitorkizun*en testua bera ere aldatu ez zuenez gero behintzat—, Orixek idatzi zituen modura. Horixe besterik ez da kasu hauetan guztietan (goragoko hiru zerrendak bilduz) gertatua.<sup>57</sup>

	B	Azkue	Izt
13 or. = I, 16, 25 [30, 4-5]	txartexa	txartes	txartesa
56 or. = V, 6, 10 [109, 7]	txirutzen txera,	txeratsu	txeratu
77 or. = VII, 3, 5 [157, 25]	zañiltzen	zañiñ-hil	zañiñil
115 or. = X, 4, 5 [247, 11-12]	asaska	asazkaldi	asazkatu
133 or. = X, 34, 52 [287, 7]	lo-armarik	lo-asma	lo-asma
180 or. = XIII, 17, 21 [394, 21]	garaztatu	garastatu	garastatu
190 or. = XIII, 30, 45 [416, 3]	soatzi	sohatsi	soatsi

Aldaeraren arrazoia, esan bezala, ezin da besterik izan: *Aitorkizunetan* «asaskatu» bakarrik dago (zerrendan aipatua eta beste «asaska» bat bi lerro beheago: 247, 14); seguru dakigu —ikus, batik bat, 169 or.— «lo-arma» ez dela inoren hutsa; eta «soatzi», «zañiltzen» eta «garaztatu» *hápax legómena* dira *Aitorkizunetan*. Eta gogora dezagun bide batez Lekuona ez zela inoiz

<sup>55</sup>Bakarria da A-ko «amurruz», izan ere, «amarruz» delako B-ko testuan eta, orobat, B-ko «erioko» irakurketa (A-k «arioko») dakar: ikus 234 eta 281 or.) inongo zalantzarik sortzen ez duen hutsa delako. Ikus, bien erreferentziak, 332 or.

<sup>56</sup>Bestela esanda: Lekuonak ez zuen asmorik izango hiztegitxoko hitzak sistematikoki Azkuek dakartzan arabera emateko eta, hortaz, gertatu ziren aldaerak oharkabean sortuko ziren. Izan ere, horrela dela erakusten dute aldatu ahal ziren baina aldatu nahi izan ez zituen hitz askok (barne direlarik azalpena Azkueren liburutik hartua duten oharrak): «adargil Alzt : adargilla, adargilbera, adargili Azk.»; «atzilotu Alzt : atxillotu Azk.»; «baietsi Alzt : baitetsi Azk.»; «baltza Alzt : baltza Azk.»; «bapikatu Alzt : bapigakatu Azk.»; «dendu Alzt : dendun Azk.»; «iagole Alzt : jagola Azk.»; «iñarrausi Alzt : iñardausi Azk.»; «obenduru Alzt : obenduri Azk.»; «segara Alzt : segada Azk.»; «semautsi Alzt : semaatxi Azk.»; «zarralda Alzt : zarralde Azk.»; etab. Ikus erreferentziak 137-140 orrialdeetako zerrendan, 332-334 orrialdeetakoan eta IV erans.

<sup>57</sup>Ezkerreko zutabeen hitzak *Aitorkizun*en B-prior-eko testuan duten forman agertzen dira; erdikoan Azkueren hiztegiaren irakur daitezkeen bezala daude; eskuinekoan «Iztegitxoa» delakoan hartu duten itxuran.



saiatu, *Aitorkizunen* testuan zehar, hitz hauen —edo hauen antzeko beste batzuen— grafia aldatzen hiztegitxoan aldatu zuen bezala («txiratzen : xeratzen» ez baita grafia kontua).

Zeren ez baita zalantzarik Lekuonak Azkueren hiztegia erabili zuela bere «Iztegitxoa» egiteko —eta axola zaigu egiaztatzea, liburuaren sorrera berreraikitzeko duen balioagatik ez ezik mintzagai dugun hiztegitxo honek, bestela, irudipen oker bat eman liezagukeelako Orixek zenbait hitzi ematen zion zentzuari buruz—. Orain arte ikusitako aldaerek baino klaruago hitz egiten dute hitz batzuei (Lekuonak azalduakoei zein Orixeren oharretatik hartutakoei) hiztegitxoan eman zaizkien ordainek:<sup>58</sup>

Izt	Azkue
«adargil = ganado cosquilloso»	«adargilla [...]» <sup>59</sup> g. vacuno cosquilloso [...]
«aio = espera, deseo»	«aio: 1. espera [...] 3. deseo [...]»
«baltsa = fondo común»	«baltza: [...] fondo común [...]»
«dendu = equilibrio»	«dendun: [...] equilibrio [...]»
«edu = tantos... como (= <i>ainbat</i> )»	«edu: [...] tanto... como [...]»
«erdeñiatu = despreciar»	«erdeñiatu: [...] 2. despreciar [...]»
«erkitu = debilitarse»	«erkhitu: [...] 3. debilitarse [...]»
«ezarian = poco a poco»	«ezarian: [...] poco a poco [...]»
«garastatu = regar»	«garastatu: regar [...]»
«kurkaño = traguito ( <i>kurka</i> )»	«kurka: [...] trago [...]»
«nausatu = reirse, burlarse»	«nausatu: [...] burlarse [...]»
«urrurik = debalde [sic]»	«urrurik: [...] de balde [...]»
«zaiñil = flojo, apático»	«zaiñ-hil: [...] flojo, apático [...]»
«zietan sartu = estimular»	«zia: [...] 6. estímulo [...] 7. aguijón [...]» <sup>60</sup>

B-prior	Izt	Azkue
«aina: alakoa»	«aina = tanto como...»	«aiña [...]: tanto como [...]» <sup>61</sup>
«andeatu: alperrik galdu»	«andeatu = echarse a perder»	«andeatu [...]: e. a perder»
«aznai: azkura»	«aznai = prurito, rasquera»	«aznai [...]: prurito, rasquera»
«bortxaz: in<d>arbeartuz»	«bortxaz = a la fuerza»	«bortxaz [...]: a la fuerza»

Baina, hala eta guztiz ere, hitz gutxi azaldu zituen Lekuonak «Iztegitxoa» honetan Azkueren hiztegiaren laguntzarekin: jaso nahi izan zituen hitz gehien-gehienak —Orixek berak orriaren barrenean emandako oharretatik ez datozenetan gehienak alegia— BAC-eko edizioaren latin eta gaztelaniazko testuetatik abiatuta azaldu zituen, hots, B-prior-en arkatz gorri-urdinarekin markatu eta azaldu zituen hitzetan bezalaxe. Aspergarria litzateke —eta, agidanean, alferrikakoa— erakustea zein izan zen, kasu gehien horietan, Lekuonak ibilitako bidea: izan ere, begien bistakoa da. Besterik da ordea —B-prior-eko m3-ren ohar lexikoei

<sup>58</sup>Ikus erreferentziak 137-140 orrialdeetako zerrendan eta IV eranskinean.

<sup>59</sup>Sarrera osoa honela da: «adargilla, adargilbera, adargili».

<sup>60</sup>Honetaz ikus behe-rago 338 or.

<sup>61</sup>Huts egin zuen hemen Lekuonak, Orixeren «aina» Azkueren «haina»-ri —eta ez «aiña»-ri— baitagokio: «[...] 2. (L) auel [...]».

buruz jardutean bezala— hiztegitxoaren aldi honetarako ere BAC-eko latinezko zein gaztelaniazko testuaren erabilera f r o g a dezaketen kasuei dagokienez. Bi aurkitu ditut 1956ko liburuiko hiztegitxoan *ex novo* sartutako sarreretan baina, agidanean, nahikoa da hemen axola zaigunerako: «ezain = indigno». Sarrera hau *Aitorkizunen* jatorrizko latinarekin edota BAC-eko gaztelaniarekin bakarrik uler daiteke: *ezain*, Azkuerentzat, «feo» besterik ez da; *Aitorkizunetan* hemen bakarrik agertzen da (ikus 333 or.): «Quo is, *indigne* et sordide?»; «¿Adónde vas *indigno* y sucio?». Eta orobat gertatzen da «goxo ta mana = dulcísimo y mansísimo» sarrerarekin, m3-k azpimarratutakoetakoia —baina azalpenik gabea— bada ere: honetaz ikus, beherago, 339 or. 64 oh. Beraz, 1956ko liburuaren «Iztegitxo» ere B-prior-eko hiztegi oharrak egin zituen bezalatsu egin zuen Lekuonak, alde batera uzten badugu «Iztegitxo» delakoan, B-prior-eko glosetan ez bezala, Azkueren hiztegiara ere jo zuela noizean behin, sarrera berriak azaltzeko eta m3-ren azalpen bat edo beste zehazteko edo, noiz edo noiz, zuzentzeko.

Jakina, hiztegitxoa —edo, hobeto esateko, hiztegitxoa osatu duten osagai hauetako bakoitza— testuaren egoeraren eta haren interpretazioaren morroia da: hala m3-k egindako hiztegi oharretan nola 1956ko liburuan sartu ziren berrietan.<sup>62</sup> Batzuetan, hitz batek adiera bat baino gehiago duenean, hauetako bakar bat hartu izan da kontuan, hau da, hitz hori agertzen den pasarteetako bati edo batzuei bakarrik begiratu zaie. Horrela gertatu da, esaterako, *ex novo* sartutako 40 sarrera horietakoia den «astandu = esconderse» azalpenarekin: esanahi hori izan dezake XIII, 21, 30 paragrafoan, ez ordea —ez zehazki behintzat— I, 8, 13 eta XIII, 14, 15 paragrafoetan; m3-ren oharretatik datorren «ista = brillo» X, 35, 54 paragrafoan agertzen denari bakarrik dagokio, ez, inondik ere, I, 7, 11 paragrafoari (hemen 'iseka, trufa' baita); etab. Inoiz testuaren huts bati ez antzematek hitz berri bat —hots, ez den hitz bat— azaldu da. Hiztegitxoan «zietan sartu = estimular» sarrera dago: goiko zerrendan *ex novo* sartutakotzat jo ez badugu izan da m3-k azpimarratu egin duelako B-prior-en, baina inongo azalpenik eman gabe. Izan ere, B-prior-en m3-k, batetik, hitza bera azpimarratu du eta, bestetik, hitzaren lehenengo letra zirkulu moduko baten barnean sartu du (daitekeena da *o* bat izatea: ikus 138 or.); baina marka horiek guztiak B-prior-en egon arren ez da aldaketarik izan A-ko testuan: beharbada Azkueren hiztegian aurkitu duen «zia» horrek (ikus gorago 337 or.) pentsarazi diolako ez dela hutsa, itxura guztien arabera hasiera batean uste izan zuen bezala, ezpada berak ezagutzen ez zuen hitz bat. Uste dut ezin dela dudarik egin hutsa dela eta, gainera, makinaz jotzean sarri egin ohi den huts mota batekoa: «[...] or derabiltzat laster eta ega, al bezain barrena aietan [zietan BA] sartuz, eta ez dute azkenik»; «[...] per haec omnia discurro et volito hac illac, penetro etiam, quantum possum, et finis nusquam [...]».<sup>63</sup> (Beste era bateko zabarkeriak ere ez dira falta: «akalde (*Tiber akalde*) = puerto (*ora Tiberina*)» sarreran —alde batera utzita bigarren parentesiko hitzen letra larriak alderantziz jarrita daudela, hau da, «Ora tiberina»— ez luke «ora Tiberina» izan behar, «ostia Tiberina» baizik, horrela irakurtzen baita san Agustinen testuan eta horrela delako, oro har, latinean. Inoiz hitz bakar bat bi modutara eta bi tokitan agertzen da: «iiztatu = rociar,

<sup>62</sup>Ondoren aipatzen ditudan sarrera-hitz guztien erreferentziak, ohi bezala, hiru zerrenda hauetan aurkitu ahal dira: 137-140 or., 332-334 or. eta IV erans.

<sup>63</sup>Ikus adibide batzuk 84 or. 42 oh.

inundar» eta, lerro batzuk beherago, «iztatu = inundar, rociar»; baina honetaz ikus gorago, 335 or. 54 oh. Alfabetoaren araberako ordena hautsi egin da batzuetan. Hiztegiaren sistema bera ez da beti berdina; berez euskara-erdara hiztegia izanik, inoiz euskara-euskara bihurtzen da: «usma = usai» eta, agian, «urrurik = debalde»; eta adizkiren bat ere —jaso zitezkeen milaren artean, berriz ere— jaso da: «auk», «bio», «zirakiten».<sup>64</sup>

Harrigarria da oso —eta beste lezio bat, ez dela *ex silentio* ateratako argudioetan fidatu behar— Orixek aipatu ere ez egitea B-prior-en ipini zituen oharrak Mokoroari egindako gutunetan keaxtzen denean liburuaren akaberan jarri duten hiztegiak: «Azkenean iztegia ere ipiñi dute. Zertzuk esanez!»; eta bizpahiru lerro betetzen ditu delako hiztegi horretan bere ustez egin dizkioten lardaskeria batzuk aipatuz (ikus 58 or.). *Euskaldunak* poema argitaratu zenean, berriz, behin baino gehiagotan azaldu zuen bere haserrea bereak kendu eta beste ohar batzuk sartu zizkiotelako (ikus 58-59 or. eta bertako 37 oh.). Bestalde, hiztegitxo honi buruz kexa bat agertzekotan, *Aitorkizunen* edozein irakurleri ezpainetara letorkiokeena ez litzateke, agidanean, Orixek Mokoroari agertutakoaren antzekoa, ezpada azaldu behar zituzkeen hitz asko eta asko ez direla bertan jaso.

---

<sup>64</sup>Hitz bakarrekoak ez diren bi sarrera dira hiztegitxo honetan eta biak elkarren ondoan daude: bata Orixek ipinitako haietatikoa da (ikus IV erans.), «gotor eta tinko = sólido y firme [...]» («solito» dakar hiztegitxoak), eta bestea Lekuonak B-prior-en nabarmenduetakoa, «goxo ta mana = dulcísimo y mansísimo» (ikus 330 or.). Lehendabizikoa erabateko salbuespena da Orixek jarritako oharretan: ez bakarrik bi hitz batera azaltzen dituen ohar bakarria delako, ezpada hiztegi ohar soila ez den bakarria delako (ikus, honetarako ere, IV erans.). Lekuonak, besterik gabe, hiztegiari zegokion zatia hartu zuen eta zegoen-zegoenean txertatu zuen hiztegitxoan (beste alde batetik, oharra bera Orixek ipini zuen bezala utzi zuelarik A-ko testuan): pentsa dezakegu ez zegoela bi hitzak batera eman beharrik, banan-banan eta hitz bakoitza zegokion tokian ematea garbiagoa zela, «gotor eta tinko» ez baita osorik baizik ezin argi daitekeen esapidea; baina «Iztegitxo» delakoaren historia ikusita erraz ulertzen da Lekuonak egindakoa. Bigarren oharraren azalpena emateko ere, «goxo ta mana = dulcísimo y mansísimo» alegia, BAC-eko espainolezko itzulpenetik abiatu da Lekuona: «[...] sino que no quiso este amigo *dulcísimo y mansísimo* [...]». Baina hemen ulergaitzagoa da zergatik jaso duen hiztegitxoan jaso duen bezala: nekez izan daiteke kasualitatea sarrera hau oso zergatik argia duen «gotor eta tinko» oharraren ondo-ondoan egotea.



III

*AITORKIZUNEN* HISTORIA



Orixek mugaz bestaldean eman zituen urteak (1938-1949) ilunak dira guretzat, eta *Aitorkizun*en sorrerari buruz ere ezer gutxi dakigu. Hari sinistu behar badiogu —liburuaren atarian jarri zuen eskaintzatik landara ez baitugu apenas lekukotasunik honen gainean—, Clément Mathieu apezpiku euskaldunak iradoki zion lan hura: hala izan bazen bete-betean asmatu zuen, nekez aurkitu baitzezakeen Orixeren gaitasunari eta, batez ere, Orixek aldeztu nahi zuen hizkuntz ereduari hobeto egokitu ahal zitzaion itzulkizunik. Noiz edo non lotu zitzaion lanari ez dakigu: nago segurutzat jo dezakegula, batetik, Bidarraitik alde egitean, 1947ko udara-udazken aldera, itzulita zituela I-IX liburuak; eta, bestetik, lan honen zati bat behintzat Bidarrain bertan ondu zuela. 1947garren urte hartan ordea misalaren itzulpena eskaini zioten, eta *Aitorkizunak* (beharbada eskuen artean zuen IX. liburua bukatu ondoren) bertan behera utzi behar izan zituen; Bidarraitik Donibane Lohizuna joan zen eta —ez nahitaez ordena honetan— ordura arte egina zuen lan guztia, hau da, I-IX liburuen euskal testua, bere lagun Antonio Maria Labaieni helduarazi zion, hark gorde zezan. (27-36 or.).

Baina Labaieni emandako hau ez da handik zortzi bat urtera, 1956an, inprimategira bidaliko zuen testua, zeren *Aitorkizun*en bi idatzaldi ondu baitzituen Orixek: bata (C) Iparraldean eta Ameriketean egindakoa; bestea (B), lehenengo hartatik abiatuta, Lazkaoko beneditarren etxean apailatutako bigarren eta behin betikoa, hark inprimategira bidali zuela uste zuena hain zuzen ere. Iparraldean egindako idatzalditik, I-IX liburuak kabitzen zituen eskuizkribuaren kalkoa heldu da guganaino (Ca-alter; ikus I-III irud.): itxura guztien arabera, Orixek berak makinaz jotakoa, bigarren idatzaldiko behatzizkribua ez bezala. (Lan-aldaki gisa erabili bide zuen ca-prior, berriz, ez da oraingoz behintzat ageri). Esana dugu ezer gutxi dakigula mugaz bestaldean ondutako lehenengo idatzaldi honen inguruko zertzeladei buruz: segurutzat jo dezakegu, alabaina, I-IV liburuak (zehazki, V, 5, 8 edo, apika, V, 8, 14 paragraforainokoa) edizio elebakar batetik itzuli behar izan zituela; eta ez da zalantzarik hurrengoetarako Trabucco-ren latin-frantses edizioa eskuratu zuela. Ez baita gauza hutsala: testua finkatzerakoan izan dezakeen garrantzia alde bat utzita ere, oso kontuan hartzekoa da *Aitorkizunak* itzultzea ez dela inorentzat lan arina, batera laguntzarik gabe aise egin daitekeena, eta garai eta hizkuntza askotako itzultzaile ospetsuen lekukotasunak bil genitzake egiaztapen honen alde. (Mitxelenak, esate baterako, «*Euzko-gogoa* eta *Euskera*» artikuluan Zaitegirekin izan zuen eztabaida sonatuan, honela zioen: «Zer erakutsiko luke, gaiñera, euskeraz idatziaz? Gauza dela euskera, alegia, orrelako gaiak adierazteko? Ez aal

dira itzuli orain berriro san Agustin'en *Aitorkizunak?*» [1956b, 128 or.]). Baduke zailtasun honekin zer ikusi I-V liburuak izateak lehenengo idatzalditik bigarrenera gehien itxuraldatu zirenak. (67-68 or. eta II erans.).

Donibane Lohizunen jo eta ke ekin zion misalari —baita beste lan arinago zenbait ere— eta, horrela, uste baino lehenago bukatu zuen, seguruenik 1948ko akaberan edo 1949ko hasieran. Misalarekin irabazitako sosekin Ameriketara joatea otu zitzaion: 1949ko azaroaren 1era arte ordea ezin izan zen itsasoratu, eta berriz jarri zuen mahai gainean bere Trabucco, *Aitorkizunen* Xgarren liburu aldrebes samarrarekin jarraitzeko. Liburu honi dagokion eskuizkribua ez badugu ere (cb), badirudi aldika-edo itzuli zuela: hala pentsarazten digute bertan diren errepikapenek. (Abiatu, honetarako, 39 or. 62 oharretik). Jakin ahal dugu, orobat, ezin izan zuela Donibanen bukatu: izan ere, arrazoi asko ditugu pentsatzeko X, 36, 58 paragrafoa itzuli zuenean —liburua X, 43, 70 paragrafoarekin amaitzen da— utzi egin behar izan ziola itzultzeari. Eta oraingo honetan egindako guztia ere Labaien adiskideari eman zion gordetzeko. (36-39 or. eta II erans.).

Ameriketara emandako lehenengo urteetan beste lan batzuetan jardun zuen Orixek eta, betiere oso presente izan bazituen ere, 1953ko udara arte ez zituen berriz *Aitorkizunak* eskuetan hartu: antza denez, han zen jesulagun euskaldun batek BAC-eko edizioa utzi zion eta honetaz baliatu zen —noizean behin baita, agian, besteren batez ere— itzulpenarekin segitzeko. (40-44 or. eta II erans.). 1954ko urtarrilarekin bukatu bide zuen XI-XIII liburu korapilatsuen behin-behineko bertsioa eta martxoan, azkenik, erakusteko modukoa —cz izena eman dioguna—: badirudi honen aldaki bat Labaieni bidali ziola eta beste bat on Martin Oiartzabal bere adiskide minari; hala eta guztiz ere eskuizkribu hau —Xgarren liburuarena bezala— galdutzat jo behar dugu oraingoz. (45-47 or.). (Ez dut uste jakin ahal denik non itzuli zituen, El Salvadorren ala Lazkaon, Xgarren liburuaren azken paragrafoak, hau da, X, 36, 58 paragrafoaren bigarren bertsioa eta gainerakoak. Ikus, honetaz, II erans. 381 or.).

1954ko azaroaren 24an Bilboko portuan lehorreratu zen eta, El Salvadorretik hitz hartua zuen bezala, 1955eko urtarrilaren 7an Lazkaora joan zen hango beneditarrekin bizitzera. Bitartean Tolosako arrebaren etxean gelditu zen: aste haietan, Orixek estimu handitan zuen on Justo Maria Mokoroa tolosarrak *Aitorkizunak* aztertzeari ekin zion (baina I-X liburuei zegozkien eskuizkribuak bakarrik, ez XI-XIII liburuak zituztenak), eta handik egun gutxi batzuetara zazpi orriko txosten bat bidali zion Lazkaora. Bertan gorde zaigun txosten hau (beste aldaki bat, dirudienez, Mokoroaren beraren paperen artean izan da) arrazoi askorengatik da kontuan hartzeko modukoa: lehendabizi, *Aitorkizunen* bigarren idatzaldian izan zuen eraginarengatik; bigarrenik, guganaino heldu ez diren bi testuren lekukotasuna direlako, lekukotasun murrizta izan arren (I-IX liburuak zituen behatzizkribuaren lehenengo aldakiarena, hau da, ca-prior-ena —hauxe izan baitzen Mokoroak eskuen artean izan zuena, ez guganaino ere heldu den Ca-alter—, eta Xgarren liburua zuen cb-rena); eta, hirugarrenik, XXgarren mendeko euskalaritzan aitortzen zaion baino garrantzi gehiago duen Mokoroak Orixeren *Aitorkizunen* gainean emandako iritzi osoena delako. Itzulpenaren zuzentasuna eta hizkeraren nolakotasuna aztertu zituen gehienbat Mokoroak: dezentetan, batez ere lehendabizikoari dagozkionetan, kasu egin zion Orixek. (48-50 or., III erans. eta XXVIII irud.).

Lazkaon igarotako lehenengo egunetatik jardun zuen Orixek bi aldakitan (B-prior eta



B-alter) heldu zaigun *Aitorkizunen* bigarren idatzaldia moldatzen: lehenengoa —kontuan hartzeko moduko datua da— Lekuonaren paper zenbait gordetzen dituen Donostiako artxibo batean dago eta bigarrena, kalkoz egindakoa alegia, Lazkaon bertan. (IV-XI irud.). Oso oker ez banabil, aita Jose Maria Aizpuruak jo zituen makinaz paper hauek: bistan da ez zela Orixe izan haiek eskribitu zituen eta, bestalde, makinaz jotakoaren ezaugarri asko bat datoz aipatu Aizpuruak kopiaitu zituen —eta Lazkaoko beneditarrek oraindik ere gordetzen dituzten— san Benitoren Erregelaren behatizkribuenekin. (XII-XV irud.). Kopiagilea ez zela Orixe izan erraz ikusten da; egileek ere egiten dituzte irakurtze-hutsak —bat baino gehiago ikusi dugu *Aitorkizunen* historia honetan—, baina nekez hauek bezalakoak: «egari : egarri», «diarduzu : biar duzu», «ukan-naia : ukari-naia», «eiteduna : eiten duna», «bezaio : bazaio»; *s* eta *z* fonemak nahasteagatik sortu ziren hutsek ere horixe bera salatzen dute («naski : nazki», «naiz : nais», «zuten : suten», «letraz : letras», «nagusiagandik : naguziagandik», etab.) eta baita, agidanean, *i* eta *j* letren erabilera xeble batek ere (I-III liburuetan —C-ko testuan eta B-ko gainerako liburuetan ez bezala— *Jaun*, *Jainko* eta *Jaungoiko* hitzak *j*-rekin idatzi dira, baina beste guztiak —esaterako «iakin», «ian», «ioan», etab.— *i*-rekin). (50-51, 78-91 or.).

Nolakoa izan zen ordea *Aitorkizunen* testua C-tik B-ra eraman zuen bidea? Orixek honako hau zioen, 1955eko otsailaren 15eko lekukotasun goiztiar batean: «nik bigarren eta azken-iorraldian eman-ala, kopiak ateratzen ditidate». Baina baditugu arrazoiak pentsatzeko gauzak ez zirela horrela izan bigarren lan-aldi osoan zehar: I-V liburuetarako, bai, onartu beharra daukagu C-ren eta B-ren artean gorde ez zaigun testu bat izan zela (Orixek 'ematen' zuena alegia, guk b esan dioguna); baina badirudi VI-IX liburuetan —eta baita, seguruenik, ondokoetan ere— ez zela horrelakorik izan, hau da, B-ra sartu ziren berrikuntzak ca-prior-eko —eta ez Ca-alter-eko— orrietan egindako zuzenketen bidez sartu zirela. Hauxe da honetarako dugun argudiorik zehatzena: C-tik B-ra bidean derrigor gorde behar ez ziren paragrafo zatiketetan ez da bat ere gorde I-V liburuetan; VI-IX liburuetan, berriz, gehien-gehienak mantendu dira. Aipatu irizpideak nabarmentzen digun muga zehatz honetatik abiatuta egiaztatu ahal dugu, batetik, I-V liburuetan egin direla —argi eta garbi gainera— aldaketa ugariak eta sakonenak, C-ren orrietako ertz eta lerroarteetan nekez sar zitezkeen aldaketak alegia, baina VI-IX liburuetako gehienak oso azalekoak direla, C-ko testuaren gainean (ca-prior-ekoan, ez —esana dugu— Lazkaon dagoen Ca-alter-ekoan) erraz egiteko modukoak; bestetik, I-V liburuetan eskuz eskribitutako eredu bat salatzen duten hutsak ikusi ahal ditugu C-tik B-ra aldatu ez diren pasarteetan, ez ordea —oker ez banabil— VI-IX liburuetan («ortzi : ontzi», «buruari : burnari», «anpatzea : aupatzea», etab.); eta pentsatzekoa da X-XIII liburuak, honetan, VI-IX liburuak bezalakoak direla. Ez dut uste kasualitatea denik: I-V liburuak bakarrik berridatzi nahi izan zituen Orixek Lazkaon, eta I-V liburuak izan ziren —gutxi gorabehera— edizio elebakar batetik itzuli behar izan zituenak. (91-95 or.).

Orixek egin gogo zuen idatzaldi berriaren zergatiko nagusia zen itzulpenaren beraren 'zabarraldia' zuzentzea; gero, jakina, beste gauza asko aldatuko zituen, eta *Aitorkizunen* testuak bigarren idatzaldi honetan jasan zituen aldaketak asko eta askotarikoak izan ziren. (Garrantzia du egiaztatu ahal izateak BAC-eko 1946ko edizioa ibili zuela Lazkaon; edizio honek, gainera, ezabatze handi samar bat du testuaren hasiera-hasieran eta, agidanean, akats honek behar baino gehiago beldurtu zuen Orixe: pentsatu zuen I-IX liburuak itzultzeko izan zituen latin testuen eta BAC-eko haren beraren arteko aldea benetan zen baino are

handiagoa zela. Ikus, honen gainean, 49 or.). Orduan egindako zuzenketa batzuek, beraz, itzulpenaren zuzentasunari —batik bat, eta jakin ahal dugun neurrian, I-V liburuetan— begiratzen zioten, eta horrela aldatu ziren ilun edo oker zeuden pasarte franko. Beste batzuk, berriz, testuaren antolamenduari zegozkion, lehenengo idatzaldikoa bigarrenekoa baino askoz lauagoa baitzen: paragrafokako zatiketa, liburu sailduetatiko aipuentzako komatxoak eta erreferentziak, etab., gehienak BAC-eko edizioa eskuen artean eduki ahal izateari eskerrak dira eginak. Eta, honetaz gain, zenbait osagai berri sartu zituen Orixek Lazkaoko idatzaldi honetan: Mathieu apezpikuarentzako eskaintza (*Aitorkizunen* testua bera makinaz jo ondoren, kalkoaren koloreak —eta beste aztarrenen batek— salatzen duen legez); san Agustinen liburuaren edizio askotan bezala —baina ez, harrigarria bada ere, BAC-ekoan—, kapituluei gehitutako izenburuak; *subscriptio* moduko bitxikeria bat: «U.I.O.G.D.» (nire ustez, «Uasconice interpretaui Ormaetxea [ad] gloriam Dei» edo antzeko moduren batera osatu behar dena; ikus, honen gainean, 73 or. 16 oh.); eta hiztegi ohar ugari, sasoi hartan usatzen zen gisan (IV erans.). Liburuaren izenburua bera aldatu egin zen: lehen *Iainkoari Gorespenak* zen (agian *Iainkoari Augustin sailduaren Gorespenak*), orain *Aitorkizunak* (apika *Augustiñ gurenaren Aitorkizunak*). Ohar bedi, dena den, bi idatzaldien arteko aldea zeharbidez bakarrik axola zaigula hemen: gogora hitzaurrean esandakoak. (74-78 or.).

Aipa dezagun, hala ere, bi idatzaldien arteko alde nabarienteko bat hizkera bera dela: batetik bestera pauso bat eman zuelako Orixek, berak aldeztu nahi zuen —eta beragan, sasoi hartan behintzat, aldakor samarra zen— hizkuntz ereduaren hausnarketan. Alde batetik, bigarren idatzaldiko hizkuntza mendebalekoagoa da: «oinaze C : oiñaze B», «epaille C : epaille B», «nire C : nere B», «gira C : gera B», «zira C : zera B», «aunitz C : asko B», «aur C : ume B», «ardura C : askotan B», «gal litezke C : galdu litezke B», eta abar; hizkuntz eremuan egin bide zuen aipatu norabide aldaketatxoarengatik ez ezik baita ere, agian, gustatu egiten zitzaiolako Orixeri zegoen tokiko euskara islatzea. Beste alde batetik, Orixek (Azkuek —batik bat *Morfología vasca* eta *Gipuzkera osotua* idazkietan— erakutsitako jarrerarekin bat, oro har) euskararen batasunerako proposatu nahi zituen berrikuntzak daude jokoan: beti, jakina, bere ustez zaharragoak ziren aldaerak hobetsiz. *Aitorkizunetan*, besteak beste, hizkuntza jaso eta batu baten erakusgarria aurkeztu nahi izan zuelako Orixek. Lehenengo idatzaldian muturreko samar agertu bazen (han sartu zuen, estreinako aldiz oker ez banago, «nendun» famatua, eta baita *ekidin* ustezko aditz laguntzailea eta *izan* aditzaren joko 'jatorrago' bat ere), bigarrenean ez zuen askoz epelago jokatu —bai, agian, pixka bat—: zehaztu egin zuen, zenbait puntutan —beharbada hauekin batera sartu behar genuke hizkuntzaren aipatu mendebaleratze hura—, lehendabizikoan aurkeztutako eredia, baina ezin da esan bide hartatik aldendu zenik. Horrela, esaterako, «zagar», «zugur» edo «bigurri» bezalako aldaerak ugaltzen dira, baita «mihi» bezalakoak ere (eta ez, alegia, ordura arteko «mî»), aipatu *ekidin* aditzaren forma sinkopatuak, etab. Hau guztia, esan gabe doa, Orixek ohi zuen —eta, inongo zalantzarik gabe, bilatu egiten zuen— sistema faltarekin egina. (76-78 or. eta, batik bat, V-VI erans).

*Aitorkizunen* bigarren idatzaldi honen orriak idatzi ahala (zati batean, esan dugun bezala, eskuz eskribitutako testu berri batetik abiatuta; beste zati batean, seguruenik, lehenengoaren orrietan beretan zuzendutako testutik) testu berria zuzentzeari ekin zioten bai —zuzen baldin banabil— hura makinaz jo zuen kopiagileak bai Orixek berak. (96-98 or.). Ustezko kopiagile honek hiru zuzenketa mota egin zituen: paperak oraindik idazmakinatik atera

gabe marraztutakoak; paperak idazmakinatik atera eta berehala egindakoak bai B-prior-en bai B-alter-en; eta, azkenik, B-prior-eko eta B-alter-eko 35. orriko oin-oharren inguruan tinta gorritz eskribitutakoak. (Hiru sail hauetako bakoitzaren egileari m1, m1bis eta m1ter esan diogu, hurrenez hurren, nahiz eta gero frogatu —hala uste dugu behintzat— hirurak pertsona bakar bati dagozkiola). Axola du egiaztatzeak ohar hauek guztiak (har bedi kontuan *oharra* hitza adiera berezi samar batean erabili izan dugula, askotan, lan honetan guztian zehar: ikus 16 or.) bi eratakoak direla: edo testuaren antolamenduari dagozkion hutsak konpontzekoak (oin-oharren ingurukoak, esaterako) edo eskribitze-huts mekanikoak zuzentzekoak («bio zgarbi B : biozgarbi m1», «Zukegiñeri B : Zuk egiñeri m1», «eta, ezin B : eta ezin m1», etab.). Hau da: ohar hauen egileak eskribitze-hutsak zuzentzen ditu, baina inoiz ez, konparazio batera, irakurtze-hutsak (inoiz ez, adibidez, *s* eta *z* nahastuz egin dituen dozenaka hutsetako bat ere); eta horrelako jarrera bat bi baldintza hauek betetzen dituen zuzentzaile batek bakarrik izan dezake: batetik, testuaren hizkuntza ez menderatzea eta, aldi berean, b e r a k e s k r i b i t u i z a n a mintzagai dugun testua. (98-105 or.).

B-ren kopiagileak egindako oharren nolakotasuna nabarmenagoa egiten da hauen ondoan jartzen baditugu gure ustez Orixeri atxiki behar zaizkion zuzenketak (m2). Gutxitan baliatu zen Orixe aukera hartaz makinazko testuaren edukia aldatzeko («gabezi ugarira B : urribizira m2», «ikuskariak B : amets-ikuskariak m2», «so dagiezu B : dagiezu so m2»): bistan da alderdi honi dagokionez bukatutzat jotzen zuela. Baina ohar asko egin zituen B-ko orrietan: batzuk kopiagileak sartutako hutsak zuzentzekoak, beste batzuk hizkuntzaren itxura —grafia, baita morfologia ere— ukitzekoak. Bigarren sailekoekin eguneratu egin nahi izan zuen Orixek B-ko testua bere orduko iritzi eta gustuen —baita, batzuetan, apeten— arabera; hauetako batzuekin C-tik B-ra bidean egin zituen aldaketa sistematiko zenbait burutu nahi izan zituen: orduan bezala, orain ere ugari dira «oinaze B : oifñaze m2», «sendagailuz B : sendagailluz m2», «zarra B : zârra m2», «al B : âl m2», edo «gira B : gera m2», «zirate B : zerate m2» erako aldaketak; beste batzuk, oro har, aldaera berreraikitzaile eta grafia morfologikoen alde egiteko erabili izan ditu: «bainindukan B : bainifñedukan m2», «laiñoak B : laiñoek m2», «bapanakatu B : batbanakatu m2» eta antzekoak. Bereziki interesgarriak dira B-ko testuaren hutsak zuzentzearen egindako oharak: batzuek arreta ez nolana hiko bat erakusten dute («siñesten B : siñestez Cm2», «izanez B : izenez Cm2»); beste batzuk, aldiz, berak nahi zukeenaren kontra daude nabarmen eta harrigarriro: «gogomatean C : gogoen atean B : gogoen artean m2», «emana nakiek C : emanizaiok B : eman izaiok m2», «izutu C : izkutu B : ikaratu m2»; eta badira, azkenik, beragan ezin sinistuzko zalantzak erakusten dituzten —eta, dirudienez, bere buruarentzako oharkizunak diren— azpimarratuak: «iakintzea», «opro», «arreratu», etab. (105-133 or.).

Azтарren askok erakusten digute Orixek —batik bat IVgarren liburutik aurrera— ezin izan zuela B-ko testua zuzendu nahi adina denbora eta patxadarekin; eta, aldi berean, beste batzuek argi eta garbi dioskute liburuaren probak ikustea espero zuela: besteak beste, arestian aipatu ditugun bere buruarentzako oharkizunek eta, orobat, kopiagilea saiatu izanak B-alterera aldatzen Orixek B-prior-en egindako oharrak. (98 eta 132-133 or.). Gauzak horrela, eta 1956ko Erregenetan gutxi gorabehera, B-prior Antonio Maria Labaienen kontu gelditu zen, hura arduratu zedin gotzaitzegiko eta gero inprimategiko eginbeharrez. Honek ordea pentsatu bide zuen komenigarria zela norbaitek testu hura nola edo hala orraztea, eta hiru izen etorri zitzaizkion burura: adiskide eta era honetako eginkizun askotan lankide izan ohi

zuen Manuel Lekuona; Orixeren begikoa —eta hura bezalako lan bat aztertzeke inor baino aproposagoa— zen Justo Maria Mokoroa; eta urte haietan euskal letren baratzan indartsu gailentzen hasia zen frantziskotar gazte bat, Andoni Sorarrain. Pentsatzekoa da Labaienek beldurra ziela Orixek usatzen zituen —eta haren hizkuntza oraindik zailago egiten zuten— xelebreekerei, agian baita haren ohiko txukuntasun faltari ere. Baina Labaienen asmoa erdizka bakarrik bete zen, lan guztia —duda izpi txikiena ere ezin dugu izan— Lekuonaren eskuetan gelditu baitzen. (51-55 or.).

\* \* \*

Espero zitekeen baino arreta eta gogo gehiagorekin aritu zen Lekuona arantzez betetako testu hura garbitzen eta zuzentzen. B-prior-eko orrietan beretan —bere jardueraren lehenengo aldian, alegia— testuaren hiru alderdiri begira egin zuen lan: batetik, azaldu beharrekotzat jo zituen hitzak nabarmendu zituen (batzuk azpimarratu egin zituen bakarrik; beste batzuk orrien ertzetan azaldu zituen gaztelaniazko eta latinezko —noiz edo noiz euskarazko— ordainak emanez: «garerdiko: florentem», «auk: ten», «kaizu: magnitudo», etab.); bestetik, saiatu zen testua bera zuzentzen eta, nola edo hala, arautzen, eta baita Orixek ibili ohi zuen puntuazio nahaspilari erremedioa ipintzen ere —edo zuzendu, arautu eta erremediatu behar liratekeela adierazten zuten oharrak egiten—; azkenik, eta *Aitorkizunen* testuari egingo zizkion aldaketen nolakotasunean pauso bat aurrera emanez, nabarmendu egin zituen —oraingoz nabarmendu bakarrik— ulergarritasunaren edota jatorrizko latinarekiko leialtasunaren aldetik hobetu beharra erakusten zuten pasarteak. (135-179, bereziki 135-136 or.). Eskuetan san Agustinen latin testu bat zuela ekin zion Lekuonak lanari hasieratik bertatik: lehendabizi, gutxi gorabehera liburuaren lehenengo herenerako, testu zahar samar bat zuen edizio elebakar batekin jardun zuen, agidanean; gero BAC-eko edizio elebiduna eskuratu zuen hark ere, baina ez Orixek erabili zuen lehenengoa (1946koa alegia), 1955ekoa baizik. Honetaz baliatuko zen *Aitorkizunen* inguruan egin zuen lan guztian zehar eta, batez ere, honetaz baliatu zen Orixeren hiztegia argitzeko B-prior-eko orrietan egin zituen aipatu ohar haietako asko jartzerakoan; beti bezala, oker egindako azalpen batzuek oso klaru hitz egiten dute hipotesi honen alde: «korrokatu: vomitar», «dendua: cimientu» edo —adibide politenetako bat ekartzearen— «makets: perfecto» (141-145 or.). Gogora dezagun Orixeren eskuizkribuak bazituela lehendik hiztegi oharrak, orrien barrenean: Lekuonarenak, beraz, nola edo hala Orixeren oin-oharrak osatzera zetozen, eta haien kokapenak ere hala erakusten du (140 or.). Orixeren testua bera zuzendu nahi zuten Lekuonaren B-prior-eko ohar gehienak (hots, m3-renak) bi era hauetakoak dira: batetik, hutsak —edo Lekuonak horrelakotzat jotakoak— zuzendu nahi zituztenak; bestetik, Orixek zerabiltzan grafia eta morfologia aldatu nahi zituztenak (ikus, zuzenketen tipologia bat, I erans.). Baina lehenengoen eta, batez ere, bigarrenen zergatikoa eta nondik norakoa irar-probetan egindako aldaketak aztertzerakoan ikusiko ditugu ondoena, orain mintzagai ditugunak ondoren egingo zituenen iragarpena baizik ez baitira (ikus, hemen bertan, 349-353 or.); B-prior-eko orrietan egindako zuzenketei dagokienez axola zaiguna da egiaztatzea oso gutxi direla testua ukitu nahi izan zuten oharrak, esan nahi baita hizkuntzaren ulergarritasunaren edota itzulpenaren zuzentasunaren kariaz egindakoak:

«Orregatik asiera B : Orregatik da asiera m3», «atera ez ba lira B : atera ez ba lizkit m3», «ze zor zizuten B : ze zor zenien m3» eta, gehienera, hauen antzeko bizpahiru gehiago bakarrik, 400 bat oharretan (157-160 or.). Baina, esan bezala, B-prior-eko orriek Lekuonaren lanaren lehenengo aldia islatzen dute, neurri handi batean behin-behinekoa eta bere buruarentzat egindakoa: aldaketak ugariagoak eta, batez ere, sakonagoak izango baitziren handik aurrera. Bada ordea, B-prior-en bertan, jarrera ausartago horren beste iragarpen bat —alegia, aipatu zuzenketa bakan horietaz gain—: azpimarratu bakarrik egin zituen pasarteak, gero «S. Augustin'en Aitorkuntzetan utsuneak» izeneko paperetan erabat aldatuko zituenak lehen aipatu arrazoiengatik, hau da, testu ulergarriago eta —batez ere— leialago bat lortzearren (173-179 or.). Irizpide material eta paleografikoari men eginez, m4, m5 eta m5bis eskuei atxiki dizkiegu B-prior-eko dozena bat ohar: nago, alabaina, ohar hauetako garrantzitsuenak —hots, esanguratsuenak— Lekuonarenak berarenak direla (179-187 or.).

Lekuonak egindako lan hauen kronologia erlatiboan bereiz daitekeen hurrengo aldi baten lekukotasuna ematen digu «S. Augustin'en Aitorkuntzetan utsuneak» izeneko dokumentuak: B-prior-ekin batera inprimategira bidali zituen bi orri solte. (Ez da zalantzarik bi orri hauek Lekuonak eginak direla: hala salatzen dute, orrien azterketa materialaz landara, B-prior-eko nabarmenduekin duten lotura ezin ukatuzkoak, bertan proposatutako gehiketen hizkuntzak eta B-tik kopiatutako zatietan egindako huts esanguratsu zenbaitek). Arestian esan bezala, hemen zerrendatutako aldaketa asko B-prior-eko orrietan zeuden ja nabarmenduta, eta frogatu ahal da, beste alde batetik, delako «Utsuneak» hau egin zuela B-prior-en azterketa eta zuzenketa aurreratu samar zituenean, behin baino gehiagotan m3-k egindako oharretan oinarritzen baitira bi orri hauetako irakurketa batzuk (adibidez, «ta zuzentasunak zerutik B : ta zuzentasunak so beza zerutik m3 : ta Zuzentasunak begira beza zerutik UtsA»). Lekuonaren hasierako asmoa, izenburuak zerbait esan nahi baldin badu, izango zen Orixek bere itzulpenean jaso gabe utzitako pasarte zenbait txertatzea (nago oraingo honetan ere 1946ko BAC-eko edizioak I, 2, 2 paragrafoaren akaberan duen —eta Lekuonak B-prior-en bertan arkatzez egindako gurutze batekin nabarmendu zuen— ezabatze luzeak erakutsi ziola *corrigenda* honen beharra); baina era honetako zuzenketa ez dira «Utsuneak» izeneko dokumentu honetako gehienak: gehiago dira —helburua, guztiarekin ere, ez zen horrenbeste aldatu— itzulpena jatorrizko latinera hurbildu nahi zutenak, Orixeren hizkuntza nonbait ulergarriagoa egin nahi zutenak —batzuen eta besteen arteko muga, askotan, batere garbi egon ez arren— edo, besterik gabe, B-ko testua txukuntzeko eginak —esaterako, X, 36, 58 paragrafoak B-n dituen bi itzulpenetako bat ezabatzekoa—. (188-193 eta 208-213 or. eta XXIII-XXIV irud.).

B-prior-eko orriek eta «Utsuneak» izeneko paperek islatzen dituzten lanen ondoren ere izan zen —honentzat lekukotasun materialik ez badugu ere— beste lan-aldi garrantzitsu bat, oraindik ere aldaketa asko eta askotarikoak jasan baitzituen, inprimategira bidean, B-ko testuak: seguruenik irar-probetan —ohitura baitzuen Lekuonak horietan aldaketa ugari egitekoa—, agian «Utsuneak» bezalako *corrigenda* baten bidez, beharbada bi baliabide hauek batera erabiliz. (Aldaketa hauen guztien egiletasuna ezin da auzitan jarri: ikus 213-214 eta, batik bat, 259-260 or.). Jakina, testuaren antolamendua bera ukitzen zuten aldaketak egin ziren B-tik A-ra bidean (A deitu baitiogu, laburtzearren, 1956ko liburuan inprimatu zen testuari): Orixeren hiztegi-ohar guztiak kendu zituen Lekuonak, hauekin eta berak egindako beste batzuekin, dakigun bezala, «Iztegitxoa» izeneko eranskina apailatzeko; eta

*Aitorkizunetan* hain ugari diren Bibliatiko aipu askori komatxoak jarri zizkion eta baita, zenbaitetan, zegozkien erreferentziak emendatu ere, liburuaren hasierako orrialdea eta akaberako aurkibidea ez aipatzearen. Hauek baino munta handiagokoak dira ordea testuari berari dagozkion kontuetan gertatutako aldaketak: funtsean, hutsak —edo, behinik behin, Lekuonak horrelakotzat jo zituenak— zuzendu nahi zituztenak; Orixeren hizkuntza berezi samarraren itxura, nola edo hala, arautu-edo nahi zituztenak; eta itzulpena eta estiloa bera hobetzea helburu zutenak. (Ikus berriz ere, aldaketen tipologia hau, I erans.). Hutsen eta ustezko hutsen zuzenketan aurkitu ditugu aipatzeko moduko *coniecturae* («naiez B : ianez A», «guztienik B : guttienik A», «arreratu B : arretatu A», «eskutatu B : eskukatu A», «erioko B : arioko A», «eskerturik B : esker zuri A», «biar dula B : diardula A», «soiñua eiten duna B : soiñu eiteduna B», «bazaio B : bezaio A», etab.) baina,aldi berean, baita makina bat banalizazio ere: «gaurgoitik B : gaurkotik A», «urre-urria B : urre-zuria A», «eroriko B : erorika A», «aitor B : iator A», «ark edu eiotea B : ark edu bezela eiotea A», «bixikoak B : bitxikoak A», etab. (280-286 or.).

Orixeren hizkeraren itxura bakarrik ukitu zutenak, zati handi batean, B-prior-eko orrietan egindako era honetako aldaketen jarraipena izan ziren (azken hauei buruz ikus 160-162 or.; B-tik A-ra bidean egindakoen gainean 259-278 or.; m4, m5 eta m5bis izeneko eskuen oharrez ikus gorago egindako oharpena eta bertan aipatutako orrialdeak): azalpen xehe samar baten beharrean dira, hauetan gauzatu zelako Lekuonak *Aitorkizunen* aurrean izan zuen jarreraren alderdi garrantzitsu bat eta, bestalde, askotan elkarren kontra dauden irizpideen arabera eginak direla dirudielako —eta zati batean, izan ere, hala da—. Oso oker ez banago, Lekuonak hizkuntzaren itxurari begira egin zituen aldaketa gehienek helburua zen Orixeren grafia eta morfologia aldakorrak nola edo hala arautzea; arautze hau, agidanean eta funtsean, honako bi irizpide hauen arabera egin nahi izan zuen: batetik, aniztasun hura Orixeren *usus*-ak berak eskaintzen zizkion aukeretako baten arabera bateratu; bestetik, bere ustez aurreko irizpidearekin konpondu ezin ziren hitz gutxi batzuk Orixek erabili ez zuen ordain batekin ordezkatu. Gutxitan erabili zuen bigarren irizpidea, baina honen arabera egindako aldaketa bat Lekuonak *Aitorkizunetan* egin zituen ikusgarrienerakoa da: Orixeren «nendun» guztiak (hau da, 'nuen') Lekuonak «nuan» bihurtu zituen —noiz edo noiz baita «nun» eta «nuen» ere—. (Ikus 183-184 or. eta, batez ere, VI. erans. bigarren zatia; aldaketa hau izan zen Orixek jendaurrean eta espresuki salatu zuen bakarra: honi buruz —eta Mitxelenak adizki honetaz eta hau bezalakoez esandakoen gainean— ikus 60-62 or.). Noizean behin bakarrik egindako beste aldaketa batzuk ere multzo honetan sartu beharrekoak dira: esaterako, zazpi bat aldiz gertatu zen «zugur > zuhur» aldaketa edo behin bakarrik topatu ahal dugun «zagar > zahar» (kontuan izan Orixek ez zuela inoiz ez «zuhur» ez «zahar» erabili *Aitorkizunen* B testuan —bai ordea, esaterako, «ahal», «mihi», «nahas», etab.—: ikus, hurrenez hurren, 263-264 eta 181-182 or. eta, bi kasuetarako, V erans.), etab. Baina, esan bezala, hauek guztiak salbuespenak dira Lekuonak *Aitorkizunen* testuan izandako jarreraren. Izan ere, lehenengo irizpidearen arabera egindako aldaketak askoz ugariagoak izan ziren: esaterako, *-in-* > *-iñ-* edo *-il-* > *-ill-* aldaketa jasan zuten hitzak («gainera > gaiñera», «mailaka > maillaka», etab.), *-iñ* > *-in* edo *-ill* > *-il* («atsegiñ > atsegin», «urbill > urbill»), «zira > zera», «otsegin > otsein» (biak *otsein*, hau da, 'morroia'), azentu zirkunflexuaren aldeko aldaketak («zar > zâr» erakoak), «zur > zugur», «bere > beure», «nindukan > niñedukan», agian baita «eduki > iduki» ere, etab. (160-162 eta 259-278 or.

eta VI erans.). Aldaketa hauek guztiak Orixeren *usus*-ean oinarrizten dira, baina guztiak ez daude horratik maila berean aldatu beharrenden nabarmentasunari dagokionez edo —bestela esanda— aldatzearen zergatikoaari dagokionez: Lekuonak aldatu zituen zenbait grafia eta zenbait hitz, izan ere, benetako salbuespenak dira *Aitorkizunen* B-ko testuan (esaterako, «zâkar B > zâr A» edo «zagar B > zâr A», bi adibide esanguratsu aipatzearen; hauetako batzuk gainera Orixek berak C-tik B-ra bidean —edo B-prior-eko orrietan beretan— egin nahi izandako aldaketa sistematikoetan itzuritakoak dira: *-in-* > *-iñ-* eta *-il-* > *-ill-* erakoak, «zira > zera», etab.); beste batzuetan, berriz, maiztasunaren aldetik behintzat hain nabarmena ez zen aukera bat egin zuen Lekuonak: «otsegin > otsein», «zur > zugar», etab. (eta hauetako zenbaitetan, agidanean, Orixek berak, hau da, m2-k, B-prior-en egindako oharrek iradokitza: «zâr» —eta hau bezalakoak— ez da «zar» baino askoz ugariagoa, baina «zar B : zâr m2» aldaketa behin baino gehiagotan ikus daiteke B-prior-en; orobat «bere > beure», «nindukan > niñedukan», etab.). B-k zekarren irakurketa ordezkatzeko aukeratu zen aldaerari dagokionez ere, Lekuonak ez zuen beti irizpide berbera erabili: batzuetan Orixeren testuan berean zabaldueña zegoena aukeratu zuen («gaiñera», «zera», «zugar», «iduki», etab.); beste batzuetan, agidanean, orixetarrenaren alde egin zuen («beure», agian multzo honetakoak dira baita «zâr» bezalakoak ere, «niñedukan», etab.); zenbaitetan bi irizpideak bat bakarria dira: aldaera erabiliena orixetarrena da («zugar», esaterako); eta daitekeena da aipatu bi irizpide hauekin ere guruzatzea, behin baino gehiagotan, garai eta giro hartan errazen onar zitekeenarena («zera», agian baita «gaiñera» bezalako kasuak, «otsein», etab.). Lekuonaren jarrera ere, hortaz, ez zen ez sistematikoa ez norabide bakarrekoa izan, ezta hurrik eman ere, baina ezin eztabaidatuzkoa da, oro har, aipatu irizpideen araberakoa izan zela; grafiaren alorretik at ere —baina *accidentals* hauetatik ez hain urruti: ikus I erans.— asmo berbera igarri ahal diogu: «zakit > zakida», «zitzaizkidan > zekizkidan», «ninzan > nintzan», «dekartz > dekartzi», «nekusan > nenkusan», etab. (270-276 or.). Honako egiaztapen hau azpimarratu behar da argi eta garbi hemen darabilgun auzian: hots, Orixeren *usus*-ak eragin nabarmena izan zuela Lekuonaren aukeran eta Lekuonaren beraren *usus*-ak, berriz, oso gutxi; izan ere, Lekuonak ez zituen erabiltzen «gaiñera», «maillaka» edo «zâr» bezalakoak («gañera», «mallaka» eta «zaar» edo «zahar» baizik), zer esanik ez «zugar», «beure» edo antzerakoak. Bestela esanda: Lekuonak ez zuen, inondik ere —eta salbuespenak salbuespen—, bere ohitura grafiko eta morfologikoetara makurtu nahi izan *Aitorkizunen* hizkera.

Badira ordea ondorio nagusi honekin itxuraz behintzat muturka dabiltzan Lekuonaren ohar batzuk, hots, Lekuonaren *usus*-aren araberakoak direnak erabat eta, aldi berean, Orixek *Aitorkizunen* bigarren idatzaldian erabili ez zituenak: maiztasun handienekoak baino ez aipatzearen, bokal bikoitz bat duten aldaerak («zaar» erakoak), *-Vñ-* grafia darabiltenak («baña», «baño») eta «det» paradigmako adizkiak. Nola uztartu Lekuonak sartutako grafia hauek lehen emandako azalpenarekin? Agidanean, zenbaitetan, batez ere Orixeren testuari zerbait gehitu behar izan zionean —baina ez beti, ezta hurrik eman ere—, berak erabili ohi zituen grafiak *i t z u r i* zitzaizkion Lekuonari. Arrazoi asko ditugu pentsatzeko grafia eta paradigma hauek ez direla, gorago aztertu ditugunak ez bezala, berariaz —hau da, Orixeren testua horien arabera aldatzeko eta arautzeko— eginak. Hasteko, hauek guztiak salbuespenak direlako hark egindako aldaketetan: hiru aldiz bakarrik erabili du Lekuonak bokal bikoitza *Aitorkizunen* testuari egindako oharretan; *-Vñ-* grafiak 18 aldiz bakarrik agertzen dira —era honetako ehunka hitzetan—, eta oso kontuan izateko modukoa da

hauetatik 7 *ex novo* sartutako pasarteetan daudela; eta «dut > det» aldaketa —hemen ere, jakina, horrelako aldaketa bat jasan lezaketen ehunka adizkiren artean— behin bakarrik gertatu da B-tik A-ra bidean. (Hiru aldaketa mota hauei buruz ikus, hurrenez hurren, honako leku hauek: 263 or. eta VII erans.; VII erans. 462-463 or.; eta 191 or. 4 oh.). Bigarrenik, eta agian batez ere, ondo frogatua dugulako —ikus betiere VII erans.— aldaketa hauexek egiten zituela testu bat k o p i a t u bakarrik egin behar izaten zuen bakoitzean: izan ere, hala gertatu da «Utsuneak» izeneko dokumentuan B-ko testuaren kopia diren zatietan (hau da, benetan aldatu nahi zituen hitzak beren testuinguruan kokatzeko bakarrik eman behar izan zituen pasarteetan), *Egan* aldizkarian argitaratu —eta, inongo zalantzarik gabe, Lekuonak berak ateratako kopia batetik inprimatu— zen pasarteetan, eta 1956ko liburuaren akaberako aurkibidean (non bildu baitzituen *Aitorkizunetako* kapitulu guztien izenburuak). Ikusi dugu, hain zuzen ere, aipatu ezaugarri grafikoak askoz ere maizago aurkitzen ditugula hiru testu hauetan B-tik A-ra bidean egindako aldaketetan baino, eta frogatu dugu hiruren arteko bat etortze hori ez zaiola zor, esaterako, hirurak aldi berean eginak izateari, ezpada hirurak Lekuonak kopiatuak izateari; baina hiru testu hauetan ere grafia horiek ez dira sistematikoak —Lekuonaren beraren izkribuetan diren bezala—: ez baititu, ezta hemen ere, berariaz egin. Eta, hirugarrenik, behin baino gehiagotan agertzen zaigulako bere ohitura grafiko horien arabera itzuri zaizkion aldaketak atzera Orixeren *usus*-era berraldatzen, edo ez delako baliatzen hitz batean beste arrazoiren batengatik egin behar duen aldaketaz grafia aipatu moduan aldatzeko. Hala da, izan ere: maiz ukitu behar izan zuen, esaterako, Orixeren «baña» edo «baño» bat, dela huts bat zuzentzeko («bauñan B > baiñan m3»), dela —seguruenik— hizkuntzazko hustzat jo zuen irakurketa bat zuzentzeko («ez baiño B > ez baiña A», edo —hau hustzat jo ez bazuen ere— gorago aipatu «otseña B > otseña A»), eta ez zuen aprobeixatu berak erabiliko lituzkeen «baña», «baño» edo «otseña» sartzeko behin betiko testuan. Ikusgarriagoa da «det» paradigmako adizki batzuekin gertatua: «Utsuneak» delakoan 3 «det» itzuri zitzaizkion Lekuonari; hauetako bat ez zen A-ra iritsi, zalantzarik gabe probetan zuzendu ahal izan zuelako; beste bat makinaz zuzendu zuen «Utsuneak» berean, hau da, Lekuonak bere burua zuzendu zuen *Aitorkizunen* arauaren alde; baina hirugarrenaren kasua da esanguratsuena: «degula» bat A-raino iritsi zen, baina 1956ko liburuaren akaberako «Okerrak zuzentze» izeneko *corrigenda*-n «dugula» gisan zuzentzea iradoki zuen. (Are gehiago: B-ko testuan 5 «det» daude, gehienak edo guztiak kopiagileak sartuak seguruenik; hauetako bat ere zuzendu egin zuen Lekuonak: «dezunari B : duzunari A»). Ikus, honen laburpen bat, VII erans. 469-470 or.

Ikusi dugu, hortaz, Lekuonak *Aitorkizunen* testuaren *accidentals* direlakoei dagokienez (ikus I erans.) izan zuen asmoa izan zela, oro har, Orixeren hizkerak berak eskaintzen zizkion aukeretako baten arabera arautzea; oro har diogu, asmoa ez baitzen izan —eta ulertzekoa da— ez erabatekoa ez sistematikoki burutua: egin ditugu gorago fiabardurak eta aipatu ditugu salbuespenak. Nago, alabaina, asmo hura Lekuonak sartuarazitako aldaeren azterketak erakuts lezakeen baino tinkoagoa izan zela: ez zen ordea hain tinkoa izan bere asmoa gauzatzen jarri zuen a r r e t a , eta noiz edo noiz itzuri egiten zitzaizkion, batez ere gehiketa bat egin behar zuenean —baina testua zuzentzea ere, askotan, hitz zaharra hitz berri batekin ordezkatzeta izaten da—, berak bere idatzietan erabili ohi zituen grafia zenbait. (Ohar bedi bat datozela, puntu batean, arestian ikusi ditugun aldaketa hauek eta aurreko paragrafoko bigarren irizpidearen araberrakoak: bietan ordezkatu da —benetan ordezkapen



bat izan denean, hau da, gehiketa bat gertatu ez den guztietan— jatorrizko grafia Orixeren *usus*-aren arabera ez den grafia batekin. Baina bien arteko aldea nabaria da: haietan egindako aldaketa guztiak, inongo dudarik gabe, berariaz eginak dira; hauetan, berriz, bistan da —aipatu ditugun arrazoi guztiengatik— nahi gabe sartutako aldaerak direla).

Itzulpenaren leialtasunari eta hizkuntzaren estiloari edo, agian hobeto, ulergarritasunari begira egindako aldaketak, gorago aurreratu dugun bezala, ugariagoak eta ausartagoak dira B-tik A-ra bidean egindakoetan ordura artekoetan baino. (Ikus, horrelakoen adibideak, 278-280 or.; B-prior-en egindakoei buruz, irakur 157-160 or.). Izan ere, B-prior-eko orrietan oso gutxi dira era honetako aldaketak, nahiz eta B-prior-en egindako lanarekin estu-estu lotua dagoen «Utsuneak» izeneko paperetako proposamen gehienak estiloari eta itzulpenaren zuzentasunari dagozkionak izan; ez da zalantzarik «Utsuneak» dokumentua, zati batean, B-prior-eko aldaketen osagarri bat bezala ulertu behar dela (seguruenik, behatzizkribuaren ertzetan eta lerroarteetan sartzen ez ziren zuzenketak bi orri horietan jaso zituen Lekuonak), baina zati batean bakarrik: «Utsuneak» delakoan bildu diren zenbait aldaketa bezalakoak egin dira B-prior-eko orrietan eta, bestalde, ezin ukatuzkoa da hein batean behintzat «Utsuneak» dokumentuko proposamen gehienak B-prior-eko ohar gehienak baino geroagoak direla. Badirudi, beraz, B-prior-eko orrietatik 1956ko liburuaren irar-probetara doan bide luze samarrean zehar halako mailakatze bat dagoela. Lehendabizi, B-prior-en islatu zen lan aldi alegia, helburu nagusia zen *Aitorkizunen* hizkuntza bera hitzez hitz eta erabat ulertzea eta, nolabait esateko, finkatzea: hitz ezezagun anitzen esanahia —eta, askotan, forma— argitu, testuan zeuden hutsak ahal zen neurrian garbitu, maiz eraman ezina egiten zitzaion puntuazioa aldatu eta, beste alde batetik baina oraindik oso gutxitan, bereziki nabarmenak ziren Orixeren hizkuntzaren alderdi xeble batzuk araupean jartzen saiatu; orduan ere begiratu zien —beharrik— jatorrizko latinarekiko mendekotasunari eta, aldi berean, hizkuntzaren aldetik nekezak edo, besterik gabe, ulertezinak egiten zitzaizkion hitz edo pasarteei, baina markatu besterik ez zituen egin era honetakoak. Aipatu oinarriko eginkizun hauek beti izan zituen gogoan Lekuonak: hots, B-prior-eko orrietan islatu zen lehenengo zuzenketa aldi hartan ez ezik baita B-prior-etik A-ra bidean egindako aldaketetan ere, azken orduko «Okerrak zuzentze» delakora arte; baina gero eta arreta gehiago ipiniko ahal zuen *Aitorkizunen* gainean egindako orrazte lan honetan axola zitzaizkion eta aipatu ditugun beste bi alderdiak zuzentzen: latinarekiko leialtasuna eta Orixeren estiloa bera edo, oro har, hizkuntza bera. Lekuonaren lanaren norabidea ezin zen, noski, bestelakoa izan. Izan ere, B-prior-etik A-ra bidean egindako aldaketak ere, neurri handi batean, B-prior-eko orrietan egindakoen jarraipena dira: asko dira hizkuntzaren azala ukitu nahi izan zutenak (batzuetan B-prior jorratu zuenean egin zituen aldaketak burutuz; beste batzuetan era bereko arazoak era berean konponduz; pare bat alderdi garrantzitsutan —lehenengo hiru liburuetan B-ko testuan dauden *j* guztiak *i* idaztarazten eta liburu guztietako «nendun» oro «nuan», «nuen» eta «nun» bihurtzen— B-prior-en iragarrita bakarrik zeuden aldaketa sistematiko eta nekosoak eginez), baina inoiz baino ugariagoak dira itzulpenari eta hizkerari berari dagozkienak. Eta, azkenik, jarrera eta jarraitasun hauen beste erakusgarri bat da arestian aztertu dugun «Okerrak zuzentze» delakoa ere, nahiz eta —hemen bai— *corrigenda* zerrenda baten ezaugarriek mugatuta egin.

\* \* \*

Ez gaitezen gehiegi harritu on Manuel Lekuonak, eskuetan zuen behatzizkribua txukundu ez ezik, Orixeren hizkuntza eta testua bera zuzendu nahi izan zituelako: ez da hain gauza ohi gabea, edozein tokitan eta edozein hizkuntzatan, inprimategira doan liburu bat egilea ez den baten eskuetatik igarotzea, egilearen oniritziarekin zein horrelakorik gabe; euskal testuei dagokienez, egingo nuke era honetako kasuak ez direla nonahikoak baino urriagoak, eta zalantzarik gabe ugariagoak XXgarren mendeko testuetan; eta, seguruenik, *Aitorkizunak* itzulpena izateak zabaldu egin zuen zuzendu beharrekoaren eremua eta, aldi berean, arrazoi bat gehiago zen testu hari, hein batean behintzat, *res nullius* bati bezala begiratzeko. (Ikus, honi guztiari buruz, I erans.). Lekuonaren asmoa zen Orixeren testua zuzenagoa eta argiagoa egitea: zuzenagoa san Agustinen latinarekiko leialtasunean eta argiagoa, hots, ulergarriagoa eta txukunagoa orduko euskaldunentzat; bi helburu hauek kontuan izanda bakarrik uler daiteke Lekuonak liburu honen argitaratzean izan zuen esku-hartzea. Lekuonak Orixeren testuaren aurrean izan zuen jarrera filologikoa da harritzeko modukoa: batez ere —eta halabeharrez— gaizki egindako zuzenketei erreparatu badiegu ere, dozenaka dira ez ohiko arreta bat —eta ez ohiko gaitasun bat— salatzen dutenak, esan bezala oztopoz betetako testu batean. Nago orrazte lan honen zati handi bat Orixek B-prior-eko makinazko testuan eskuz egindakoaren halako osagarria izango balitz bezala ikusi nahi zuela Lekuonak, hau da, Orixek berak bere liburu zuzenduko zukeen bezala ari zela hura ere zuzentzen: horrela pentsarazten digute, besteak beste, Lekuonaren ohar mota zenbait Orixerenak bakantzen hasten diren tokian hasteak, edo Orixek erabiltzen zituen aldaeren artetik aukeratzeak testuaren grafian eta morfologian egiten zituen berrikuntza gehienak. Horrela ikusi nahi zuela diogu, ez horrela denik.

*Aitorkizunen* testuaren azken probak 1956ko uztailearen akabera aldean zuzendu zituen Lekuonak: azkenak diogu, gutxienez ekainaren hasieratik baitzebiltzan galeradak Zarautzik Andoaina eta Andoaindik Zarautza. (Esana dugu gorago proba hauek, Labaienen asmoaren —apika hasierako asmoaren— kontra, ez zirela inoiz iritsi ez Mokoroaren ez Sorarrainen eskuetara). Azken proba zuzenduekin batera edo, agian, azken proba hauek ja Zarautza bidean edo Zarautzen bertan zirenean, «Arkibidea» izeneko eranskina bidali zuen inprimategira Lekuonak: hala dioskute testuaz kanpotiko datuek eta baita ere, beharbada, testuaren barnekoek («Arkibidea» hau B-prior-etik kopiatua baita eta ez A-ren probetatik); eta frogatu ahal dugu, orobat, Lekuonak berak egina dela, ez Orixek ez inprimategiko langileek. Liburuaren akaberako «Arkibidea» hau zera besterik ez da, hots, *Aitorkizunetako* kapitulu guztien izenburuen zerrenda bat; testu ezdeusa, nonbait horrelakorik baldin bada: baina oso garrantzitsua izan da Lekuonak Orixeren testu zati hauek kopiatzerakoan —konturatzeko edo, behinik behin, ez berariaz— egin ohi zituen aldaketen nondik norakoa zehazteko eta, horrela, *Aitorkizunen* testuan bertan egin zituenak zuzenago ulertu ahal izateko. (53-55 eta 316-327 or.). «Arkibidea» honekin batera beste eranskin bitxi bat ere joan zen Zarauzko inprimategira: 1956ko liburuan «Gauza iakingarrienen arkibidea» izena daramana eta guk, bestetik bereiztearren, *index* izendatu duguna. Izan ere, *index rerum* bat da, alegia liburuan zehar agertzen diren pertsona-izenak eta kontzeptu garrantzitsuenak biltzekoa, baina berezitasun batekin: *Aitorkizunetako* kapituluaren izenburuei bakarrik dagokie eta kapitulu horien izenburuetatik hartutako zatiekin bakarrik dago osatua... zalantzarik gabe apailatu

zuen ez zegoelako prest *Aitorkizunen* testu osoaren *index rerum* bat egiteak ekarriko zion lana hartzeko. Eranskin hau oso estu lotuta dago «Arkibidea» delakoarekin: bien lehengai, zati handi batean, berbera da —esan nahi baita, kapituluaren izenburuek osatzen duten testua—; biak batera bidali zituen Lekuonak inprimategira, arestian esan dugun bezala; eta biek komun dituzten berrikuntza interesgarri zenbaitek berresten dute egun bertsoetan pasatu zirela Lekuonaren eskuetatik. «Gauza iakingarrienen arkibidea» hau ordea —1956ko liburuak dakartzan eta aldi berean B-prior-en ez dauden gainerako testu guztiak ez bezala— ez da Lekuonak egina, Orixek berak baizik: horrela susmarazten zigun, hain zuzen ere, Lekuonak testu bat kopiatzean egin ohi zituen aldaketa haietakorik ez izateak, eta horrela dela berresten digu Labaien paper batzuk gordetzen dituen artxiboan den gutun-azal huts —baina, bistan denez, baliotsu— batek (XXV irud.). Hau da, *Aitorkizunen* behatzizkribua bidali ondoren baina oraindik Lazkaoko beneditarren etxean zegoenean, Orixek *index* hau helarazi zion Labaieni eta Labaienek, jakina, Lekuonari eman zion; eranskin hau ere *Aitorkizunen* testua bera zuzendu zuen bezalaxe zuzendu zuen Lekuonak eta —besteak beste, honek ere liburuaren akabea joan behar zuelako— «Arkibidea» delakoarekin batera: dela azken hau eskribitu zuen egunetan jardun zuelako hura ere inprimategirako prestatzen, dela bien probak batera zuzendu zituelako. (306-307 or.).

Zehazki noiz egin zuen jakin ezin badugu ere, badakigu bi eranskin hauen proba zuzenduekin batera —hau da, abuztuaren hasiera aldean— bidali zuela Lekuonak inprimategira 1956ko liburuaren beste eranskin baten orijinala: «Iztegitxo» delakoarena alegia. Ondoren —baina, pentsatzekoa da, handik gutxira— «Okerrak zuzentze» izeneko *corrigenda* igorri zuen Zarautza. Nola sortu zen «Iztegitxo» ikusi dugu: Orixek orrien barrenean jarritako hiztegi oharrak beren lekutik kendu eta osatu egin zituen Lekuonak beste horrenbeste jarriaz, gehienbat BAC-eko edizioaren laguntzarekin eta, noizean behin, Azkueren hiztegi ere joaz; hiztegitxo ere, jakina, testuaren egoeraren morroia da, eta interesgarria da ikusi ahal izatea, hamaikagarren aldiz bada ere, morrontza honen ondorioren bat: esaterako, nola sortu den, makinaz idaztean askotan gertatzen den huts mota batetik (itxura guztien arabera «aietan sartu» baten ordez dagoen «zietan sartu» batetik), «zietan sartu: estimular» bezalako sarrera bat. (136-145 eta 327-339 or.). «Okerrak zuzentze» hura testua orrazten jarraitzeko azken aukera zen Lekuonarentzat eta, oro har, ordura arte egin zituenak bezalako aldaketak egiteko baliatu zen hartaz, baita —zenbaitetan— bere burua zuzentzeko ere, hots, egin behar ez zituzkeen aldaketa batzuetan atzera egiteko. Hutsaren hurrengo iritzi diezaiokegu baina, bere ezdeusean, oso gauza esanguratsuak esan dizkigu: gogora, esaterako, zeinen garrantzitsua izan den, Lekuonak Orixeren testuan izandako jarrera zehazterakoan, «Okerrak zuzentze» honetako «degula > dugula» zuzenketa. (287-297 or.).

*Aitorkizunen* argitaratzea hurbil ikusten hasi zenetik, buruan izan zuen Orixek liburuaren zatiren bat *Euzko-gogoa*-n agertaraztea: hala diotso, 1955eko otsailean, Jokin Zaitegiri («Zueri bialiko dituzuet atal bereizi batzuk noizean bein, A. Mokoroak aukeratuak»), eta asmo bera erakusten dio Andima Ibiñagabeitiari 1955eko martxoan («S. Augustiñen Autorkizunetatik 8garren eta 9garren iarduna oso osorik bialduko neukez E. Gogoa-rako»). Dakigun bezala, *Euzko-gogoa*-n ez zen inoiz *Aitorkizunen* zatirik argitaratu; baina Lekuonak ere —beste norbaitek iradokita ala ez, ezin jakin— asmo berbera islatu zuen B-prior-eko orri batean bere ohiko arkatz gorri-urdin harekin: «Aukera EGAN'erako» idatzi zuen X. liburuko

6. kapituluaren parean. Azkenean, zati hau ez baina XI. liburuko lehenengo lau paragrafoak *Egan*-en argitaratu ziren, agertzeaz —agian ordurako ja agertu berria zen— liburuaren iragarpen gisa. (50-51 eta 56-58 or.). *Egan*-eko testu hau —bertan diren aldaera zenbaitek berretsi digute testuaz kanpotiko datuek egiantzeko egiten zuten hipotesia— Lekuonak B-prior-etik egindako kopia batetik inprimatu zen, eta seguruenik *Aitorkizunen* testuan egin zituen zuzentze eta orrazte lan guztien azken aldera egindako kopia batetik hain zuzen ere: Lekuonak Orixeren orijinaletik kopiatu zuelakoa erakusten dute bai B-prior eta *Egan*-ekoa lotzen (eta A-tik bereizten) dituzten aldaera batzuek bai *Egan*-eko zati honek izateak Lekuonak testu bat kopiatzean egin ohi zituen aldaketa haietako franko; eta *Aitorkizunen* inguruan egindako lan guztien akabera aldean kokatu beharra eskatzen du —erraz egin litezkeen argudio oker batzuen kontra— «zugur B > zuhur E [zugur A]» aldaera ezin pagatuzkoak. (298-305 or.).

Bazterreko testu hauen azterketa —axola du esateak— ez da alferlana izan. *Egan*-eko testuari eskerrak segurutzat jo ahal izan dugu bestela nekez irits genezakeen ondorio bat: Lekuonari inoren testuak eskribitzean grafian-eta itzuri ohi zitzaizkion aldaketei buruzkoa alegia. Izan ere, zati hau gabe, «Utsuneak» izeneko dokumentua ez zatekeen nahikoa —*testis unus, testis nullus*, hemen ere— Lekuonaren ohitura hau zalantzarik gabe egiaztatzeko; eta gogora dezagun «Arkibidea» delakoaren kasuan argudioa alderantzizkoa izan dela: horrelako ezaugarriak dituelako —eta, noski, baita beste arrazoi zenbaitengatik ere— ondorioztatu dugu Lekuonarena izan behar zuela. Egiaztapenak, bestalde, badu garrantzia: batez ere, Lekuonak *Aitorkizunen* testuan berean izandako portaeraren alderdi bat argitzen digulako. Orobat 1956ko liburuaren akaberako aurkibideari dagokionez: honek, batik bat, portaera hori zehazten lagundu digu (gogora, esaterako, VII eranskinean xeheago aztertutako «Augustiñ > Augustin» aldaketaren kasua). Eta, bestalde, «Gauza iakingarrienen arkibidea» bezalako testu ezdeus baten egiletasuna Lekuonari kendu ahal izateak pentsa litekeen baino axola handiagoa du, bestela *Aitorkizunen* historia osoa hankaz gora jar zezaketen hipotesiak eraikitzea behartuta egongo baikinateke.

1956ko irailaren 23an karta egiten dio Orixek Mokoroari eta honako hau diotso, besteak beste: «S. Agustiniñ bi ale atzo eman zizkidan Labaienek. Axalez poliki dago. Gaiñerakoan... eskua politikitxo sartu dutela, lenengo orrialdetik asita». Orixe ez zen ja Lazkaon, Tolosako arrebaren etxean baizik, eta badakigu Labaieni eman zion orijinalaren kopia beneditarren etxean utzi zuela; honako hau erantzun zion, handik egun batzuetara, orijinalaren eske zeukan Mokoroari: «Aitorkizunen originala? Ni ez naiz beintzat ausartzen ezer eskatzera masoikide oieri». (Mokoroak filologia hutsera zuen isuriaz ikus III erans. 389 or. 3 oh.). Bi edo hiru urte pasatu ondoren bakarrik aipatu zuen Orixek auzi hau idatziz eta jendaurrean, 1959ko *Yakin* aldizkarian argitaratu zen eta «*Mea culpa* eta “Quos ego!”» izenburua zeraman artikulu batean: dakidalarik, inork ez zion kasu gehiegirik egin —Mixelenak bai, «Asaba zaarren baratza» sonatuan, baina ditxosozko «nendun» haren alde bertan esandakoengatik bakarrik—. Honetaz gain, liburuak ez zuen —idatziz behintzat— oihartzun ozenik izan: iruzkinetan, Koldo Mixelenarenak bakarrik merezi du izena; eta gainerakoan gutxitan ikusi ahal da honen aipamenik ordutik honanzko euskal letretan. (58-63 or.). (Norbaitek esan du, Orixe izan zukeen itzal handiaren neurria emateko, mintzagai dugun garaian hari, eta ez Euskaltzaindiari, egin behar zitzaizkiola batasunari buruzko proposamenak. Esaldi arrakastatsua izan da. Honen beharrik ez bazen ere, *Aitorkizunen* historiak —eta ikusi dugu

adibide bat besterik ez dela: cf. 58-59 or.— oso ondo erakusten du gauzak ez zirela inoiz horrela izan: aitzitik, beti bizi izan zen, hark zioen bezala, 'jauntxopean').

Orixeren ustez, *Aitorkizunak* bere liburu hoberena zen 'euskarari begiratuta': ez, agidanean, hizkuntzaren itxurari edo, nahiago bada, hizkuntzaren batasunari begira bertan egin zituen proposamen berriengatik, ezpada liburu hartan gauzatu zuelako, seguruenik, bere bizi guztian zehar kezkatu zuen euskara 'landuaren' eredu borobilena. Auzia ez zen ja —gerraurreko bere zenbait liburutan bezala— hizkuntzaren gaitasuna frogatzea, euskarak 'noranahiko' izan nahi hartan zein bidetatik ibili behar zuen erakustea baizik; Orixerentzat, giza-pentsamenduaren oinarrizko kontzeptuei dagozkien hitz nahitaez berriak euskararen baitako baliabideetatik abiatuta sortu behar ziren eta, horretarako, filosofia eta inguruko jakintza-alorrak jorratu behar ziren euskaraz beste ezer baino lehenago —grekoak, latinak eta alemanak egin zuten bezalaxe alegia, berak aipatu ohi zituen adibideak ematearren—. Honetantxe saiatu zen *Aitorkizunetan*: san Agustinek bere 'latin landuan' darabiltzan oinarrizko kontzeptu horiek 'artzainen eta ikazkinen mintzaera honekin' ematen, hain zuzen ere. Eta, honekin batera, euskaldunen eskuetan jartzen zuen haien heziketari begira ere izan litezkeen liburu hoberenetako bat; gogora, berriz ere, Mathieu apezpikuarentzako eskaintza: «gaurgoitik [gaurkotik A] au gelditu diteke, Biblia leku, euskal-libururik bikaiñena».



ERANSKINAK





# I

## Testu batek —batik bat inprimategira bidean— jasan ohi dituen aldaketen tipologia bat

Aztertu nahi baldin baditugu egileak eta egilea ez denak testu batean egin ohi dituzten aldaketak testu hori berori argitaratzerakoan edo, oro har, irakurleko jakin bati luzatzeko prestatzerakoan, komenigarria da eskumenean izatea aldaketa horiek guztiak kabitu eta ordenatu ahal dituen tipologia bat. Ez dateke erabat alferrikakoa, hortaz, gure lan honetan zehar erabili duguntxoaren berri ematea: oraindik ere nagusi den testukritikak askatu behar izan dituen korapiloak beste era batekoak izan direnez gero —neurri handi batean, hain zuzen ere, aztergai izan dituen testuen kopiagileak oso bestelakoak zirelako, jarreran eta gaitasunean—, eskuliburu hoberenetan ere ez ohi da gehiegi hitz egin berariaz egindako aldaketen gainean.<sup>1</sup>

Testu baten ibilbidean sortu daitezkeen aldaketak, lehendabizi, bi multzo hauetan banatu ahal dira: 1. hutsak, hau da, nahi gabe gertatutako aldaketak; 2. berariaz egindako aldaketak. Berariaz egindako aldaketa hauek, guri axola zaigun ikuspuntutik begiratuz gero, honela sailkatu daitezke: a. jatorrizko irakurketa bat berreskuratzeko asmoarekin egindakoak, hau da, *coniecturae*; b. inongo hutsik ez duela jakinik, testua aldatu nahi dutenak; c. itzulpena zuzentzearen egindako aldaketak, baldin eta —noski— itzulpena den testu baten historiari ari bagara.<sup>2</sup>

Hutsaren kontzeptutik at egindako aldaketak sailkatzeko Greg-ek zabaldu zuen ereduaz baliatu naiz batik bat —jakinaren gainean haren helburua, eta sailkapenaren kokapen teorikoa bera, ez zirela zehazki hemen axola zaizkigun berberak—; eredu honetatik abiatuta, 2.b atalean aipatu ditugunak bi multzo hauetan banatuko ditugu: i. hizkuntzaren itxurari dagozkion ezaugarriak aldatu nahi dituztenak (hau da, testuaren *accidentals* direlakoak); ii. hizkuntzaren edukiari dagozkion zernahi aldatu nahi dutenak (hots, *substantives* direnak).

---

<sup>1</sup>Testukritika —ustez— lachmandarrak hizkuntza modernoetan idatzitako testuen gainean jarduterakoan dituzkeen mugei buruz ikus, oker ez banabil ortodoxia gehienetatik kanpo oraindik, Rico [2001] eta [inprimategian].

<sup>2</sup>2.c saila, berez, 2.b sailaren barruan kokatu behar litzateke (2.b.ii sailan zehazki: ikus honetaz beherago): hala ere, hain dira —oro har— nabarmenak 2.c honetan sartu ahal diren aldaketak, hau da, hain ondo bereizten dira 2.b.ii ataleko aldaketengandik, non zehaztasun gura horrek —2.c sartzek 2.b.ii sailarekin batera— sailkapena bera iluntzea ekarriko bailuke. Ohar bedi, beste alde batetik, hizkuntzazko hutsak zuzendu nahi dituzten aldaketak bai 2.a bai 2.b ataletan sailkatu ahal direla: *hutsa* hitzak, noski, beste adiera bat du hemen. (Itzulpen baten edizioak dituen berariazko korapiloari buruz ez dute txintik ere esaten testukritikazko lan orokorrek: zerbait aipatzen dugu honetaz gure edizioan; euskal kasuei buruzko oharpen eta adibide batzuk honako lan hauetan ikus daitezke: Ruiz Arzalluz [1992] eta, orain, Urgell [2001]).

Banaketa honek badu oraindik, dirudienez, azaldu beharra. Honela agertzen ditu Greg-ek [1950-1951, 376 or.] testu batean alda daitezkeen edo aldatu ohi diren osagaiak:

But here we need to draw a distinction between the significant, or as I shall call them 'substantive', readings of the text, those namely that affect the author's meaning or the essence of his expression, and others, such in general as spelling, punctuation, word-division, and the like, affecting mainly its formal presentation, which may be regarded as the accidents, or as I shall call them 'accidentals', of the text.

Bi mutur hauen artean ordea bada hirugarren sail bat —euskal testuen historiari begira bereziki interesgarria agidanean—:

It is also true that between substantive readings and spellings there is an intermediate class of word-forms about the assignment of which opinions may differ and which may have to be treated differently in dealing with the work of different scribes

non «word-forms» hori 'aldaera morfologikoak' itzuli behar baita. Horrela, *substantive readings* direlakoei dagokien sailean sartu behar genituzke, esaterako, «gabezi ugarira B : urribizira m2», «ikuskariak B : amets-ikuskariak m2», «so dagiezu B : dagiezu so m2» edo «bakan B : oso bakan A», «amor eman B : men egin A», «baiño B : baizik A»; *accidentals* deiturarekin sailkatu behar lirateke, konparazio batera, «ba zinaude B : ba ziñaude m2», «zer gauza B : zer-gauza m2», «baidakit B : baitakit m2» edo «zilegi B : zillegi m3», «antzi B : antzi m3», «ba du B : ba-du m3»; eta aipatu hirugarren multzoan leudeke, agidanean, «gira B : gera m2», «laiñoak B : laiñoek m2», «bainindukan B : bainiñedukan m2» edo «zaion B : dakion A», «ta B : eta A», «etzitzaizkidan B : etzekizkidan A».

Ez da hau toki aproposa sailkapen honen xehetasunez jarduteko; orain axola zaiguna da eskumenean izatea, pixka bat *grosso modo* bada ere, inprentak ekarri zituen jarrerak eta eginkizunak behar bezala ulertzeko eta neurtzeko lanabes egoki bat: merezi du egiaztatzea —norbaitek Pernandoren egia dela iritziko badio ere— Lekuonak Orixeren testuarekin egin zuen lana ulertezina litzatekeela inprentarik gabeko garai edo gizarte batean... eta, hortaz —hau, berriz, ez litzaioke burura etorriko gure Pernandori—, nekez aztertu daitekeela eskuizkribuen bidez transmititu diren testuen inguruan sortu eta garatutako testukritika baten laguntzarekin bakarrik. Horregatik abiatu gara Greg-en azalpenetatik, filologiaren tradizioan —gutxienez Gaston Paris-en lanetatik aurrera— sailkapen honen funtsarekin bat datozen beste sailkapen eta beste azalpen on asko egon arren (hala nola koptiatzeaz gain beste zerbait egiten zuten kopiagileei buruzko oharpenak: ikus gorago 361 or. eta bertako 1 oh.).<sup>3</sup> Eskuen artean duguna ez da, apika, testubibliografiak aztertu ohi dituen kasu arruntenetakoa; baina norbaitek edo norbaitzuek inoren testu bat zuzentzea eta arau jakin

<sup>3</sup>Berez ezin eztabaidatuzkoa den sailkapen honek Greg-en teoria eztabaidagarrian duen tokiaz jabetzeko ikus (Greg-en beraren —eta, oro har, testubibliografiaren fundatzaileen— lan nahitaezkoen landara) Harris-ek [2000] berriki eman duen ikuspegi orokorra; ikuspegi zabalago bat izateko honako liburu honetatik —eta bertan aipatzen diren lanetatik— abiatu daiteke: Greetham [1994]. Gogora dezagun bakarrik Greg-en sailkapena zera besterik ez dela, hots, esku-inprentaren garaian egin ohi ziren aldaketa sistematikoko eta garrantzitsu batzuen aurrean testukritikak izan behar lukeen jarrerari buruzko teoria —zuhur, sotil baina, agian, eztabaidagarri eta ez hizkuntza guztietarako— baten morroia (azken kontu honi buruz lan honetatik abiatu daiteke: Fahy [1999]).

batzuen arabera moldatzea (askotan —oraindik inprentaren garaian arazo hori bizirik izan duten hizkuntzetan alegia— egilearen orijinala hizkuntza batu-edo baten arabera arautzeko, hau da, irakurleari ulergarriagoa edota atseginagoa egingo zaion hizkuntz eredu baten arabera moldatzeko, bide batez esan dezagun) prentsetan sartu baino lehenago, uste izaten den baino askoz normalagoa da: inprentak, berez eta nonahi, ekarri zituen ohituretakoa da.<sup>4</sup>

---

<sup>4</sup>Inprimategira bideak, lehen baina baita orain ere, «rappresenta sempre un momento molto critico della sua storia [sc. testuaren historiarena]» (Stoppelli [1987, 15 or.]). Honi guztiari buruzko ikuspegi orokor eta aberats bat Stoppelli-ren aipatu lanean bertan ikus daiteke; beste ikuspuntu batetik begiratzen dio auziari Gaskell-ek [1972, 430-448 or.]. Maila bertuko hizkera asko dituen hizkuntza batek eskuizkribuak inprimatzerakoan ekarri ohi —edo ahal— dituen ondorioei dagokienez, ezin egokiago datorkio euskararen kasuari, agidanean, XVIgarren mendearen erdira arteko italierarena: ikus, honen gainean, Migliorini [1960], Quondam [1983], Trovato [1991 eta 1998, 129-171 or.] eta Trifone [1993].

## II

### Orixek erabilitako edizioak

Orixek ez zuen aditzera eman, liburuaren hitzaurrean esaterako, zein ediziotatik itzuli zituen bere *Aitorkizunak*: ez nahitaez —edo ez bakarrik— txukuntasunarekiko axolagabekeria batengatik; baita ere agian lan hura, erabilitako liburuei dagokienez ere, berak nahi ez zituzkeen baldintza batzuetan egin behar izan zuelako. *Salmutegia* euskaratu zuenean azaldu zuen, hitzaurrean, Elizak egindako latin itzulpen berrienetik itzuli zuela; Homero itzultzeko asmoa zuenean Segalá prestatzen ari omen zen edizioaren zain zegoen, berak zeukan Teubner-ekoari zaharkitua irizten ziolako; eta behin baino gehiagotan kexatu zen *Mireio* itzuli behar izateagatik Lauaxetak eskuetan ipini zion gaztelaniazko itzulpenetik.<sup>1</sup> Hala ere, *Aitorkizunak* itzultzeko erabili zituen edizioen kontua behin baino gehiagotan agertzen da garaiko gutunetan: hau da, bere eguneroko beharren artean sartzen zen neurrian, eta neurri horretan bakarrik.

Ditugun lekukotasunei sinistekotan,<sup>2</sup> honako ondorio hauek atera behar genituzke: batetik, Ameriketara joan baino lehenago itzulitako guztia Trabucco-ren ediziotik egin zuela eta, bestetik, Ameriketara eta gero Lazkaon egindakoa Vega-ren BAC-ekotik. Trabucco delako horrena 1937. urtean argitaratutako latin-frantses edizio elebidun bat da: Saint Augustin, *Les confessions*, traduction nouvelle avec introduction et notes par Joseph Trabucco, Paris, Librairie Garnier Frères, s.a. [baina 1937], 2 lib.<sup>3</sup> Orixek Ameriketara eta Lazkaon erabili zuena La editorial católica argitaletxeak argitaratzen zuen —eta duen— ‘Biblioteca de autores cristianos’ izeneko bilduma ezagunean agertu zen *Confesiones* obraren lehendabiziko

---

<sup>1</sup>Orixek, *Salmutegia*, Donostia, Lazkaoko Bénédictarrak, 1967, xiii eta xv or.; Homeroren itzulpenari buruzko lekukotasun honetarako, 27 or. 1 oh.; *Mireiorekin* gertatua ezagunagoa dateke: begira, hala ere, 165 or. 77 oh.

<sup>2</sup>Oiartzabalentzako 1953ko maiatzaren 14ko eta 1954ko urtarrilaren 29ko gutunak (ikus 44-45 or.) eta Mokoroarentzako 1955eko urtarrilaren 14koa (49 or.); BAC-ekoa izan zela Orixek Lazkaon erabili zuen edizioa Orixek berak Mokoroak bidali zion txostenean eskribitu zuen ohar batek berresten du: ikus III erans.

<sup>3</sup>Trabucco-ren latin testua —hala nola, oso oker ez banago, frantsesezkoa— Labriolle-k ‘Les Belles Lettres’ bilduma famatuan argitaratu zuen edizioari jarraitzen zaio (Saint Augustin, *Confessions*, texte établi et traduit par Pierre de Labriolle, Paris, Les Belles Lettres, 1925-1926 [eta berrinprimaketak], 2 lib.); eta Labriolle-ren testuari dagokionez esan genezake ez doala —XX. mendean zehar egin ziren edizio asko joan ziren bezala— Knöll-ek proposatutako bide berritik. (Ikus, honi guztiari buruz —baita ohar honetan aipatzen ditugun edizioen erreferentziatarako ere—, 370-371 or.). Trabucco-k —ez, nire ustez, erabat zuzen— honela azaltzen du kontu hau: «Notre texte suit, comme celui d’un éditeur récent [zalantzarik gabe Labriolle-ri buruz ari da, bere edizioan XVII. mendean akabera Saint-Maur-eko beneditarrek atera zuten testu garrantzitsuaren oreka eta zuhurtasuna defendatu baitzuten Knöll-en testuaren kontra], l’excellente édition des Bénédictins. Il ne s’en écarte que fort peu» (xi or.). Dena den, alde handi samarra dago beneditarren testuaren eta Trabucco-k edo Labriolle-k ematen dutenaren artean, segituan ikusi ahal izango dugun bezala.

edizioa izan zen, hau ere elebiduna, latin-gaztelania: *Obras de san Agustín, texto bilingüe. II. Introducción a la filosofía de san Agustín. Las confesiones*, edición crítica y anotada por el R.P. Ángel C. Vega, O.S.A., Madril, La editorial católica ('Biblioteca de autores cristianos'), 1946. Vega-ren edizio honek, Trabucco-renak ez bezala, badu garrantzia san Agustinen testuaren historian —ikus, esaterako, L. Verheijen-ek [1990, viii or.] eskaintzen duen ikuspegia— eta itzulpenari, ez filologiaren aldetik ez hizkuntzaren gardentasunarenetik, ezin zaio, gustu kontuak alde bat utzita, askoz gehiago eskatu.<sup>4</sup>

Badirudi ordea ezin diogula Orixeri itsu-itsuan sinistu, ez behintzat lekukotasun hauen xehetasun guztietan. Izan ere, lehenengo idatzaldiaren hasierako liburuetan irakur daitezkeen pasarte zenbaitek salatzen dute **liburu horiek ez direla Trabucco-ren testutik itzuli**. Hona hemen adibide batzuk<sup>5</sup>

Sed *qui* imples omnia, te toto imples omnia? (I, 3, 3)

Sed *quae* imples omnia, te toto imples omnia? (Trab.)

Guziak betetzen dituzun *Orrek*, Zutaz osoz betetzen al dituzu? (C, 2 or. [A, 11, 15-16]);

Sine illum, faciat *quod vult* (I, 11, 18)

Sine illum, faciat (Trab.)

Bego; egin beza *nai duna* (C, 9 or. [A, 24, 10]);

[...] si contra disciplinam grammaticam, sine aspiratione primae syllabae, *ominem* dixerit, displiceat magis hominibus, quam si [...] (I, 18, 29)

[...] si contra disciplinam grammaticam sine aspiratione primae syllabae *hominem* dixerit, magis displiceat hominibus, quam si [...] (Trab.)

Ain eta, mintzalegearen edo Gramatikaren aurka *ominem* (gizona) asierako hatsa gabe eman balezate, gizona bera gorrotoago baitute aren izena baiño. (C, 13 or. [A, 33, 15-18]).<sup>6</sup>

Orixek nekez idatziko zukeen «ominem» bere eremuan «hominem» irakurri izan balu, Trabucco-renean irakur daitezkeen bezala; aldiz, edizio —batez ere zahar— askok «ominem» dakarte.

<sup>4</sup>Vega-ren BAC-eko edizioaren latin testuak Vega-ren beraren beste edizio elebakar batean hartzen du oinarria: *S. Aurelii Augustini confessionum libri tredecim*, nova editio curante P. A.C. Vega, O.S.A. [...], typis Augustinianis regalis Escorialensis monasterii, 1930; gaztelaniazko itzulpen bat ere argitaratu zuen lehendik (*Las Confesiones de san Agustín*, nueva versión española literal y con notación abundantísima [...], Madril, Bruno del Amo eta Espasa Calpe, 1932 ['Nueva biblioteca filosófica', LIX-LX]); baina BAC-eko bi testuak goitik behera berrituta omen daude. (BAC-en bertan 1946tik aurrera egindako edizioei buruz ikus 143-144 or. eta, hemen bertan, 385 or. 23 oh.).

<sup>5</sup>*Aitorkizunen* bi idatzaldiei buruzko azalpen orokor eta labur bat 67-68 or. irakurri ahal da. Ondoko zutabeei dagokienez, ohar bedi ezkerrean eman dugun testua Saint-Maur-eko beneditarren bigarren edizioa dela: *Sancti Aurelii Augustini Hipponensis episcopi operum tomus primus* [...], opera et studio monachorum ordinis S. Benedicti e congregatione S. Mauri, Parisiis excudebat Franciscus Muguet [...], 1689 (ikus, lehenengo edizioari buruzko datuetarako eta bestelako xehetasun batzuetarako, 371 or. eta bertako 12 oh.). Erdiko zutabean, bertan adierazi dugun legez, Trabucco-ren testua eman dugu, eta eskuinekoan, azkenik, Ca-alter-ekoa.

<sup>6</sup>Pasarte honek aldaketa sakonak izan zituen B-ra bidean (ez ordea latin testuarengatik: «displiceat» alde bat utzita —edizio honen hutsa baita—, BAC-ekoa eta Trabucco-rena elkarren berdinak dira), baina hemen axola zaiguna bere hartan gelditu zen. Hona, dena den, B eta A-ko testuak: «Ain eta, mintzalegearen [mintza-legearen A] aurka *ominem* asierako hatsa gabe eman ezkerre, atsekaitzago litzaieke gizoneri, Zure legeen buruzki gizona gizon dalako gorrotaturik [gorrotaturik A] baiño» (B, 15 or. [A, 33, 15-18]).

Et ego furtum facere volui et feci, nulla compulsus egestate <i>nec</i> penuria, <i>sed</i> fastidio iustitiae, et sagina iniquitatis. (II, 4, 9)	Et ego furtum facere volui et feci nulla compulsus egestate <i>nisi</i> penuria et fastidio iustitiae et sagina iniquitatis. (Trab.)	Nik naski, lapurreta egin nai ukan nun, eta egin ere; <i>ez</i> , bearrak <i>eta ez</i> -ukanak zirikatutrik, <i>baiña</i> zuzenaren nardaz eta gaiztoaren gaiztoz. (C, 18 or. [A, 43, 13-15]).
---	--	---

Begien bistakoa da Orixen «*nec... sed...*» dakarten edizio zaharretako bati jarraitu zaiola.

Quid te autem innocentius, quando quidem opera <i>tua</i> malis inimica sunt? Et ignavia [...] (II, 6, 13)	Quid te autem innocentius, quandoquidem opera <i>sua</i> malis inimica sunt? Et ignavia [...] (Trab.)	Zer Zu baiño gaiztagabeago? <i>Zuk</i> egiñak gaiztakeriaren buruz buru baitaude. Alperkeriak [...] (C, 20-21 or. [A, 47, 13-15]).
--	---	--

Hemen, «opera sua» irakurriez gero, itzulpenean honelako zerbait aurkitu behar genukeen: «[...] que aun el daño que reciben los malos les viene de sus malas obras» (Vega); «[...] puisque ce sont leurs propres oeuvres qui nuisent aux pécheurs» (Labriolle); edo Trabucco-k berak ematen duena: «[...] puisque ce sont leurs propres oeuvres qui font du mal aux méchants». Berriz, Orixeren «Zuk egiñak» ezin garbiagoa da.

Sed etiam sic te imitando indicant creatorem te esse omnis <i>creaturae</i> [...] (II, 6, 14)	Sed etiam sic te imitando indicant creatorem te esse omnis <i>naturae</i> [...] (Trab.)	Ala ere, oker antzeratze ortan berean ederki adierazten dute Zu zirala <i>sorkari</i> guzieren sortarazle [...] (C, 21 or. [A, 48, 7-9]).
---	---	---

Itzulpenean dagoen errepikapenak («*sorkari* guzieren *sortarazle*») ez du, agidanean, zalantzarik uzten.

<i>actori</i> earum imaginum (III, 2, 2)	<i>auctori</i> earum imaginum (Trab.)	Alegitan ari dana [...] (C, 25 or. [A, 54, 23]).
--	---------------------------------------	--

Orixerena «actori» aldaerarekin bat etorri arren zeharoan, agian argiagoa da alderantzizko argudioa, hots, «alegitan ari dana» ezin dela inondik ere izan «auctori earum imaginum» baten itzulpena izan: «autor de aquellas ficciones» (Vega-k); «l'auteur de ces fictions» (Labriolle-k eta Trabucco-k).

[...] sed etiam de istis elementis <i>hujus</i> mundi creatura tua [...] (III, 6, 10)	[...] sed etiam de istis elementis mundi, creatura tua [...] (Trab.)	[...] baita Zure sorkari dan mundu <i>onen</i> osagaietaz ere. (C, 28 or. [A, 61, 5-6]);
---	--	--

[...] adolescens valde bonus et valde <i>cautus</i> [...] (IV, 3, 6)	[...] adulescens valde bonus et valde <i>castus</i> [...] (Trab.)	[...] gazte on eta <i>zur</i> [...] (C, 37 or. [A, 79, 23-24]),
--	---	---

bitxia bailitzateke benetan *castus* hitza «zuhur» batekin ematea.

Bene quidam dixit de amico suo: dimidium animae <i>meae</i> . (IV, 6, 11)	Bene quidam dixit de amico suo: «dimidium animae <i>suae</i> ». (Trab.)	Adiskideaz ongi esan zun norbaitek: « <i>ene</i> animaren erdia». (C, 39 or. [A, 84, 1-2]). <sup>7</sup>
---	---	--

<sup>7</sup>C-k, berez, «Adiskideak» dakar, baina zuzenketa Ca-alter-eko [I]v orrian dago ja egina (ikus, honetaz, 69 or.

Adibide honek indar gutxi duke, Horazioren bertso ezagun baino ezagunagoa baitago jokoan, baina san Agustinen edizio askotan «*meae*» irakur daiteke. (Eta «*suae*» duten edizioetatik abiatu diren itzultzaileek ez ohi dute *nire* bezalakorik itzuli: «Bien dijo uno de su amigo que “era la mitad de *su* alma” Vega-k; «[...] le poète qui l’appelle “moitié de *son* âme” Labriolle-k; «[...] un poète, parlant de son ami, l’a nommé “la moitié de *son* âme” Trabucco-k).

[...] et *qui* dimittit quo it aut quo fugit [...] (IV, 9, 14)

[...] et *quia* dimittit, quo it aut quo fugit [...] (Trab.)

[...] eta uzten *zaituna* nora doa iges? (C, 41 or. [A, 87, 3-4]);

Ecce illa discedunt ut alia succedant, et omnibus suis partibus *constat* infima universitas. (IV, 11, 16)

Ecce illa discedunt, ut alia succedant et omnibus suis partibus *constet* infima universitas. (Trab.)

Ara! Aiek ba doaz besteri toki egiteko eta zati guziek osatzen dute beiko izadi au. (C, 42 or. [A, 88, 16-17]).

Subjuntiboak («constet») xedezko esaldiaren barruan egon behar du derrigor eta indikatiboak («constat»), berriz, kanpo: hots, euskarazkoan bezalaxe; Orixeren zabarkeriari leporatuko genioke baldin ez bagenekiz zenbait ediziotan «constat» irakurtzen dela.

Non cessat nec tacet laudes tuas universa creatura tua; nec spiritus *omnis hominis* per os conversum ad te [...] (V, 1, 1)

Non cessat nec tacet laudes tuas universa creatura tua, nec spiritus *omnis* per os conversum ad te [...] (Trab.)

Zure sorkariak oro, ixildu orde, Zu goستن ari dira atergabe: giza-arnasa, Zugana biurtu *danaren* agoz [...] (C, 49 or. [A, 101, 15-16]).

Orixeren itzulpenak ez du hitzez hitz jaso «per os conversum» —agian gaizki itzuli du— baina, nolnahi den ere, ez dirudi Trabucco-rena bezalako testu batetik abiatu ahal izan denik, erabat alferrikakoa bailitzateke bestela «biurtu danaren» hori; berriz, zenbait ediziok dakarten «spiritus omnis hominis» (edo «spiritus hominis») irakurketak ezin hobeto esplikatzeko du Orixerena.

[...] cadentes in asperitatem *suam*. (V, 2, 2)

[...] cadentes in asperitatem *tuam*. (Trab.)

[...] *beren* latzean erori. (C, 49 or. [A, 102, 14-15]);

Ipsi convertantur *et quaerant te*, et ecce ibi es in corde eorum [...] (V, 2, 2)

Ipsi convertantur et ecce ibi es in corde eorum [...] (Trab.)

Berek dute itzuli bear *eta Zu billatu*, beren biotzean baitzaukate [...] (C, 49 or. [A, 102, 18-20]);

[...] si cognoscens te sicut Deum glorificet [...] (V, 4, 7)

[...] si cognoscens te sicut te glorificet [...] (Trab.)

[...] Iainko bezala ezagunik Iainko bezala edertzen ba zaitu [...] (C, 51 or. [A, 106, 8-9]).

Azken honi dagokionez, egia da Orixerena ez datorrela bat ez edizio zahar gehienek

eta bertako 6 oh.): «adiskidea*k* orde*k*, adiskidea*z*».

dakartenarekin ez Trabucco-renean irakurri ahal denarekin, baina egia da baita ere askoz zailagoa dela Orixerena bezalako itzulpen bat Trabucco-ren testutik sortu izana saint-maur-tarrenetik baino.

ecce pietas <i>et</i> sapientia (V, 5, 8)	ecce pietas <i>est</i> sapientia (Trab.)	ona zintzotasuna <i>ta</i> iakintasuna (C, 52 or. [A, 107, 6-7]);
Nam et qui perturbabant otium meum, foeda rabie caeci erant; et qui invitabant ad aliud, terram sapiebant. Ego autem qui detestabar hic veram miseriam, illic falsam felicitatem appetebam. (V, 8, 14)	Nam et qui perturbabant otium meum, foeda rabie caeci erant, et qui invitabant ad aliud, terram sapiebant, ego autem, qui detestabar hic veram miseriam, illic falsam felicitatem appetebam. (Trab.)	Nire pakea durdurikatzen zutenak, amorruz itsu zeuden, eta pakera deitzen nindutenak lurkoi ziran. Nik berriz, emengo zorigaitza iguin eta ango gezur-zoriona maite. (C, 55 or. [A, 113, 13-16]),

puntuazioa, gurea bezalako itzulpen libre samar batean, bigarren mailako argudioa bada ere.

Ezin eztabaidatuzkoa da, beraz, aztergai izan ditugun pasarteotan Orixe ez dela abiatu —testuaz kanpotiko datuek zioskutenearen kontra— Trabucco-ren ediziotik, eta badirudi, bestalde, bosgarren liburuaaren hasieran bukatzen dela bi testuen arteko bat ez etortze hau: hau da, ezin dugula aurrera egin *Aitorkizunen* testuan V, 8, 14 (agian V, 5, 8) paragraforainoko testurako frogatu dugun hipotesia frogatzen. Gauzak horrela, arrazoizkoa litzateke pentsatzea puntu honetatik aurrera erabili zuela Orixe Trabucco-rena zeren, edizio hau aipatzen duenez gero, ez baita egiantzekoa inoiz erabili ez izana. Baina zailagoa da frogatzea (behin baino gehiagotan ikusi behar izan dugu, bestelako arazoez ari ginela izan bada ere, gure lan honetan zehar) lekukotasun jakin bat badela beste lekukotasun jakin baten kopia edo, hitzak orain darabilgun auziari egokituaz, Orixeren itzulpena badela Trabucco-ren testutik egina; adibidez, aurreko orrialdeetan erabili dugun irizpidea baliogabea izango da hemendik aurrera: begien bistan dago Trabucco eta Orixe bat etortzeak ez duela —apenas— ezer esan nahi, oso gutxitan —bai ordea noiz edo noiz— frogatu ahal izango dugulako Trabucco-k dakarren irakurketa ez dagoela beste inongo ediziotan. Badugu, alabaina, beste irizpide bat.

*Aitorkizunen* edizio gehienetan testuak kapituluena baino zatiketa xeheago bat izaten du, hots, paragrafoena; zatiketa hau, batzuetan, hirugarren zenbaketa bat egiteko erabiltzen da —liburuka eta kapituluka egindakoen ondoren baitator—, baina horrelakorik ez duten edizioetan ere (Trabucco-renean esaterako) gorde egin ohi da testuaren zatiketa bera: hau da, testua, mintzagai dugun zatiketa honi dagokion zenbakirik eman ez arren, puntu horietan zatitu ohi da, paragrafo berriak eginez. Beraz, nekez baliatu ahal izango gara zatiketa sail honetaz bi edizioen arteko lotura frogatzeko. Ordea zenbatuta ager daitezkeen paragrafo hauek kabitzen duten testua modu askotara zatitu ahal da: edizio batzuetan —adibidez, edizio zahar gehienetan eta edizio moderno hoberenetan— paragrafoen barruko testua ez da gehiago zatitzen; beste batzuetan, berriz, zati txikiagoak egiten dira (halaxe da, adibidez, Trabucco-renean), eta zati txikiago hauetan —paragrafoenetan ez bezala— gutxitan etortzen dira bat *Aitorkizunen* edizioak. Hortaz, irizpide egokia izan daiteke frogatzeko *Aitorkizunen*



bi edizio elkarren mendean dauden ala ez.

Esana dugu C-ko testuan ez dagoela paragrafokako zenbaketarik (ikus 75-76 or.), baina nabarmenduta daude beste edizio batzuetan zenbatuta agertzen diren paragrafo horiek: hots, hirugarren zenbaketarik ez dago (bakarrik liburuei eta kapituluei dagozkienak), baina lerro berri batean hasten dira gehienetan aipatu paragrafoak. Paragrafoen barruko testuaren zatiketari dagokionez, berriz, hauxe da C-ren egoera: I-IV liburuetan 9 bider gertatu da horrelakorik (Trabucco-ren edizioan, konparazio batera, 62 bider), eta hauetatik 2 bakarrik datoz bat Trabucco-ren zatiketarekin; berriz, V. liburuan 9 bider zatitu da paragrafoen barruko testua, eta 9ak datoz bat Trabucco-k egindako zatiketa banarekin:<sup>8</sup>

I, 6, 9 (4 or.)	
II, 6, 13 (20 or.)	
II, 9, 17 (22 or.)	
III, 1, 1 (25 or.)	
III, 2, 3 (25 or.)	
III, 6, 10 (28 or.)	= Trab.
III, 6, 10 (29 or.)	= Trab.
III, 7, 13 (31 or.)	
IV, 12, 18 (42 or.)	
V, 6, 10 (53 or.)	= Trab.
V, 8, 15 (56 or.) bis	= Trab.
V, 9, 16 (56 or.)	= Trab.
V, 9, 16 (57 or.)	= Trab.
V, 10, 18 (58 or.)	= Trab.
V, 10, 20 (58 or.)	= Trab.
V, 10, 20 (59 or.)	= Trab.
V, 13, 23 (60 or.)	= Trab.

Eta, jakina, V. liburuan gertatzen diren bat etortze hauek C-ren gainerako liburuetan ere gertatzen dira, VI-IX.etan alegia, eta baita C-n ez dagoen X. liburuan ere —edo, segituan ikusiko dugun bezala, X. liburua zati handiengan, hots, Ameriketara alde egin baino lehenago ondutako zatian—. Hona hemen (laburrago emanda, ez baitugu ja hainbesteko xehetasunen beharrik) aipatu liburuetan diren paragrafoen barruko zatiketak:<sup>9</sup>

	Trabucco	Orixe
VI	41	30 (1)
VII	25	22
VIII	23	16 (1)
IX	35	23

<sup>8</sup>Ondorengo taulak dakartzan lekuetan daude aipatu paragrafoen barneko zatiketa horiek, hots, I-IV liburuetako 9ak eta Vgarren liburuko 9ak. Trabucco-ren edizioko zatiketekin bat datozenei «=Trab.» laburdura jarri diegu; gainerako guztiak ez datoz bat.

<sup>9</sup>Esan bezala, zenbakiak honako hau adierazten dute: edizio moderno gehienetan (baina ez, diogun berriz ere, Trabucco-renean ez C-ko testuan) zenbatuta ager daitezkeen paragrafoen barruan dauden paragrafo txikiagoen kopurua. Lehenengo zutabeko zenbakiak esaten digute era honetako zenbat zatiketa dauden Trabucco-ren testuan; bigarren zutabeko lehendabiziko zenbakiak adierazten ditu Trabucco-ren testuko zatiketa hauetako batekin bat datozen Orixeren testuko zatiketak, eta bigarrenak —parentesien artean dagoenak— bat ez datozenak. (Adibidez:

X

67

41 (1)

Gogora dezagun X. liburua ez dagoela Ca-alter-en eta, beraz, eman ditugun datuak B-tik ateratakoak dira: baina badakigu (ikus 93-95 or.) testuaren antolamendua, oro har, ez zela aldatu, C-tik B-ra bidean, VI-IX liburuetan (bai, berriz, I-V liburuetan), eta arrazoizkoa da pentsatzea X.ean ere gauza berbera gertatu zela. Eta guk eb izan ez arren (ikus 68 or.), X. liburua ere kontuan hartu behar dugu, hau da, zerrenda honetan sartu beharra dago —XI-XIII liburua ez bezala—, testuaz kanpotiko datuek (ikus 37-39 or.) argi asko dioskutelako liburu hau ere Iparraldean ondutakoetakoa dela, han ondutako azkena zehazki: jakina, X. liburuaren zein puntutara arte egiaztatu daitekeen erabili zuela Orixek Trabucco-ren edizioa beherago aztertuko dugu, bai baitakigu —oraingo honetan testuaz kanpotiko zein testuaren barruko datuek esana— Ameriketara joan baino lehenago itzultitakoa, seguruenik, X, 36, 58 paragraforaino iristen zela.

Labur dezagun orain arte frogatutakoa: batetik, I-IV liburua eta V.aren hasiera Trabucco-rena ez den edizio batetik —edo batzuetatik— itzuli zituen Orixek; bestetik, V-X liburua (esan bezala V. liburuaren hasiera eta, agian, X. liburuaren akabera kenduta), berak zenbait gutunetan adierazi legez, aipatu Trabucco-ren ediziotik abiatuta ondutituen. Trabucco-ren edizio elebidunarekin, seguruenik, V, 8, 15 paragrafoaren inguruan hasiko zen: gogora dezagun V, 8, 14 paragrafoan genuela Trabucco-ren kontra hitz egiten zuen azken aztarrena (edo, aipatu aztarrena erabat gardena ez denez gero —gorago aitortu legez—, V, 5, 8 paragrafoan), eta V, 8, 15 paragrafoan hasten zela, berriz, Trabucco-ren testuaren arabera zatiketa sistematikoa.<sup>10</sup> Beherago ikusiko ahal ditugu ondorio hauek berresten dituzten beste argudio batzuk.

Hortaz, eta Orixeren beraren lekukotasunaren aurka, I-IV liburua eta V.aren lehenengo paragrafoak ez zituen Trabucco-ren ediziotik itzuli. Non diko orduan? Mundu zabalean eta historian zehar egin diren *Aitorkizunen* edizioak itsaso hondar gabea dira: ez bakarrik zenbatu ezinak direlako, ezpada haietako asko eta asko eskolarako —gehienetan, zehazki, apaizgaitegiarako edo abadeentzat— egindako liburua eta liburuxkak direlako; honelako edizioek oso zabalkunde berezia izaten dute: ihes egin ohi diete bibliografoei, inoiz edizio osoak desagertu izan dira eta, gainera, jarraitzen zaila baino zailagoa den arrastoa uzten duen *contaminatio* moduko bat egiten zuten beraien artean. Bestalde, san Agustinen testuak azken hiru edo lau mendeetan izan duen bizitzari buruzko bibliografia —zentzu hertsian, hau da, izan diren edizioen deskribapena— eta filologia, hainbestetan bezala, gutxiago landu dira testu honek berak Erdi Aroan zehar izan duenari buruzko ikerketak baino: bestela esanda, gehiago dakigu apika *Aitorkizunek* Erdi Aroan pairatutako gorabeheren gainean azken berrehun edo hirurehun urteetan jasandakoei buruz baino.<sup>11</sup>

VI. liburuan era honetako 41 zatiketa daude Trabucco-ren testuan; Orixerenean, guztira, era honetako 31 zatiketa daude, eta hauetatik 30 bat datoz Trabucco-ren testuan dauden zatiketa banarekin eta 1, berriz, ez dator bat Trabucco-ren testuko inongo zatiketarekin).

<sup>10</sup>Ohar bedi 'zatiketa sistematikoa' diogula, V, 2, 2 paragrafoaren ondoren dagoen Trabucco-ren arabera lehenengo zatiketa V, 6, 10 paragrafoan baitago.

<sup>11</sup>*Aitorkizunen* edizioen bibliografiarako ondoren aipatzen ditugun lan guztiak hartu behar dira kontuan, guztiek elkar osatzen dutelako, eta hala eta guztiz ere segurutzat jo dezakegu ez dituztela jasotzen izan diren edizio

*Aitorkizunen* edizioaren historian bi mugarri daude testuaren ibilbidea neurri handi batean —baina neurri batean bakarrik— baldintzatu dutenak; mutur batean, behin baino gehiagotan aipatu behar izan dugun Saint-Maur-eko beneditarren edizioa: honen lehenengo liburukia (*Aitorkizunak* dituen hain zuzen ere) 1679. urtean argitaratu zen lehendabiziko aldiz;<sup>12</sup> beste muturrean, Pius Knöll-ek Viena-ko ‘Corpus scriptorum ecclesiasticorum Latinorum’ ospetsuan 1896an argitaratu zuen edizioa.<sup>13</sup> Beneditarrena garaiko filologiaren lan sonatuenetakoa izan zen eta berehala nagusitu zen ordura arte zeuden edizio guztien gainetik: ordutik aurrera mundu zabalean egin ziren edizio zein itzulpen gehienak —ez guztiak— beneditarren testuaren arabekoak izan ziren —arabekoak, ez nahitaz berdinak—, eta testua finkatzean egin ziren aurrerapenak beneditarren edizioaren gainean egin ziren. Baina beneditarrena baino lehenago (eta —azpimarratzen saiatu naiz— baita geroago ere) izan ziren itzal handiko beste testu batzuk, hau da, mota guztietako edizioak kutsaruko zituztenak: funtsean, eta zabaltze edo kutsatze indar horri begiratu ez gero, *Lovaniensis* deitu ohi dena (Anberes 1576-1577), eta, askoz maila apalago batean, arrakasta harrigarria izan zuten beste bi hauek: Henri de Sommal jesulagunarena (Douai 1607 eta ehunka berrinprimaketa, ez beti elkarren berdinak) eta beste jesulagun batena, Heinrich Wangnereck aitarena (Dillingen 1631, hau ere berrinprimaketa asko izandakoa). Sommal-ena eta Wangnereck-ena bezalako edizioen iraunkortasunaz jabetzeko, hurrean dugu adibide ezin hobeko bat: Mokoroak Orixeren itzulpena aztertzeko mahai gainean duen edizioa, III eranskinean erakutsi dugun bezala, 1942an Turin-en inprimatutako Wangnereck-en edizio bat da. Edizio mota hauen adibide ospetsuenak dira: baina bi jesuita hauen edizioen ondoan zabalkunde ikaragarria ere izan zuten dozenaka edizio —gaur ia-ia ezezagun— aipa genitzake, guztiak elkarren desberdinak, baita editore eta inprimatzaile berberak sinatutako berrinprimaketetan. Pius Knöll-enak eta ondoren etorri ziren edizioek, hortaz, ez zuten ikuspegia zeharoan aldatu, ezta gutxiago ere: eskoletan eta, oro har, filologiaren alor murriztetik kanpo, XVII eta XVIII. mendeetako eskola edizio hauek jarraitu zuten nagusi izaten: gorago aipatu Mokoroaren adibidea —Orixerena bera ere— esanguratsuak dira.

guztiak. (Begi bistan dauden arrazoiengatik, arreta berezia ipini dugu Frantzia eta Espainian argitaratutako liburuetan edota bi lurralde hauetan zabaldu eta erabili direnetan, beste toki batzuetan argitaratutakoak ere aztertu ditugun arren). Oraindik ere Schoenemann [1794] zaharra erabili beharra dago, hain zuzen ere guri axola zaizkigunak bezalako kontuetarako, baina zati handi batean behintzat —zorionez— Eckermann-Krümmel-ek [1992] ordezkari dezake (dituen akatsekin baina baita abantailekin ere: ikus, lehenengoi buruz, Folliet [1993]). Frantzia argitaratutako san Agustinen edizioetarako ezinbestekoak dira Bibliothèque Nationale delakoaren Catalogue [1973, 45-47 or.] eta [1990, 374-414 zut.] eta baita ere Brunet [1814, I, 557-568 or.]. Espainiarako bakarrik, oraindik ere dugun lanik hoberena da, hainbestetan bezala, Palau [1967, 1-10 or.]. Azkenik, arreta berezia merezi duten Sommal-en eta Wangnereck-en edizioetarako ikus, hurrenez hurren, Sommervogel [1890-1900, VII, 1375-1381 zut. eta IX, 856 zut.] eta [1890-1900, VIII, 979-980 zut.].

<sup>12</sup>Lehendabiziko edizio hau ere, guk erabili dugun bigarrena bezalaxe (ikus 365 or. 5 oh.), F. Muguet-ek inprimatu zuen Parisen: edizio honen lehenengo tomoa 1679an argitaratu bazen, hamaikagarren —eta azken— tomoa 1700. urtean kaleratu zen, hau da, bigarren edizioaren lehenengo liburukia inprimatu eta hamar bat urte geroago. (Beneditarren edizio garrantzitsu baino garrantzitsuago honi buruz ikus De Ghellinck [1930] aitaren ikerketa klasikoa eta, orain, edizioaren beraren hirugarren mendeurren ospatzeko egin zen biltzarren liburua, batez ere Chaussy eta Folliet jaunen artikulua [biak 1990] eta hauetan aipatzen diren lanak; Gorman-ek ere [2001], guri hemen axola zaizkigun kontuz arduratzen ez bada ere, badakartza honi buruzko xehetasun bat edo beste).

<sup>13</sup>*Sancti Aureli Augustini confessionum libri tredecim*, recensuit et commentario critico instruxit Pius Knöll, Praga-Viena-Leipzig, Tempsky-Freytag, 1896 (‘Corpus scriptorum ecclesiasticorum Latinorum’, XXXIII).

Gauzak horrela, hauxe da egin ahal dugun egiaztapen bakarra: hots, Orixek I-IV liburuak eta Varen hasiera itzultzeko begien aurrean izan zuen latin testua Saint-Maur-eko beneditarren ediziotik hur zegokeen *testu zahar bat* izan zela, seguruenik edizio hartatik abiatuta egin ziren ehunka edizioetako bat; alegia, testua zaharra zen zalantzarik gabe, baina ez nahitaez liburua bera: gogora, bestela, lehen aipatutako kasuak. Testua, funtsean, beneditarrena zela (eta ez, adibidez, XIX. mendearen akaberan eta XX. mendearen lehenengo hamarkadetan zehar gauzatutako tradizio kritikotik sortutakoa, ezta —agidanean— aipatu ditugun XVI-XIX. mendeetako beste tradizio haietan oinarritutakoa) ez da zalantzarik: gorago aztertutako pasarte gehienek, izan ere, saint-maur-tarren testua salatzen dute (eta honi kontrajartzen zaion Trabucco-rena, berriz, aipatu tradizio kritikoa kokatzen da). Badira ordea beneditarrenarekin bat ez datozen irakurketa batzuk:

Quid te autem innocentius,  
quando quidem opera *tua*  
malis inimica sunt? Et ignavia  
[...] (II, 6, 13)

Quid te autem innocentius,  
quando quidem opera *sua*  
malis inimica sunt? Et  
ignavia [...] (Maur.)

Zer Zu baiño gaiztagabeago? *Zuk*  
egñiak gaiztakeriaren buruz buru  
baitaude. Alperkeriak [...] (C, 20-21  
or. [A, 47, 13-15]).

Edizio zaharrek bakarrik, hau da, saint-maur-tarrena baino zaharragoek edo, esan bezala, hori baino testu zaharrago bati jarraitzen zaizkion eskola-edizioek ekarri ohi dute «tua»: eta badirudi ezin ezbaitadaturkoko dela Orixek ere «tua» itzuli duela. Baina kontuan hartzeko modukoa da «tua», hemen, *facilior* dela: hau da, ez litzateke ezinezkoa Orixek «tua» ulertu izana —edo itzuli nahi izana— «sua» irakurri arren.

Sed etiam sic te imitando  
indicant creatorem *te* esse  
omnis creaturae [...] (II, 6, 14)

Sed etiam sic te imitando  
indicant creatorem *se* esse  
omnis creaturae [...] (Maur.)

Ala ere, oker antzeratze ortan berean  
ederki adierazten dute *Zu* zirala  
sorkari guzien sortarazle [...] (C, 21  
or. [A, 48, 7-9]);

Ecce illa discedunt ut alia  
succedant, et omnibus suis  
partibus *constat* infima  
universitas. (IV, 11, 16)

Ecce illa discedunt ut alia  
succedant, et omnibus  
suis partibus *constet* infima  
universitas. (Maur.)

Ara! Aiek ba doaz besteri toki  
egiteko eta zati guziek osatzen dute  
beiko izadi au. (C, 42 or. [A, 88,  
16-17]).

Gorago esan bezala, badirudi Orixeren ereduak «constat» zuela: beneditarrek ordea —eta edizio nagusi guztiek— «constet» dakarte, eta «constat» zenbait eskola-ediziotan bakarrik ikusi ahal da. Dena den, begien bistan dago ezin dela segurutzat jo, ezta hurrik eman ere, Orixek «constat» irakurri zuenik.

ecce pietas *et* sapientia (V, 5, 8)

ecce pietas *est* sapientia  
(Maur.)

ona zintzotasuna *ta* iakintasuna (C,  
52 or. [A, 107, 6-7]).

Hauek baino ilunagoa da —horregatik ez dugu lehen aipatu eta horregatik ematen dugu, orain ere, besteen ondotik bakarrik— honako kasu hau:

[...] ordinator et creator  
rerum omnium naturalium,  
peccatorum autem tantum *non*  
ordinator [...] (I, 10, 16)

[...] ordinator et creator  
omnium rerum naturalium,  
peccatorum autem tantum  
ordinator [...] (Maur.)

[...] sortuzko gauza guzien  
antolatzaile ta egille, ez ordea  
pekatuen egille [...] (C, 8 or. [A, 22,  
9-11]).

Zer itzuli du Orixek, «tantum ordinator» ala «tantum non ordinator»? Edizio gehienek «tantum ordinator» dakarte, baina bi aldaeren arteko aldea ez da hain nabarmena: «tantum ordinator» irakurriez gero «tantum» ondoren datorren «ordinator» izenari legokioke (eta *ordinator* hitzak, orduan, adiera berezi eta jakin bat izango luke); «tantum non ordinator» leitez gero «tantum» honek lehenago agertu den «peccatorum» hitza ukituko luke eta *ordinator*, berriz, adiera arruntago batean ulertu behar genuke, gutxi gorabehera *creator* hitzaren baliokidea balitz bezala —horregatik da *facilior* irakurketa hau—. <sup>14</sup> Orixek mahai gainean izan zuen liburuak ez zuen Saint-Maur-eko beneditarren testua, baina ezin eztabaidatuzkoa da eredu hura oso gertu zegoela aipatu testutik.

Orixek irakurri zuen testua —ez nahitaez, esana dugun bezala, liburua— zaharra zela ez da zalantzarik: gorago aztertu ditugun irakurketa gehienak, guztiak ez esatearren, ez dira jaso XIX. mendearen akaberatik aurrera egin diren edizio berrietan. Are gehiago: hauetako batzuk, beneditarren testukoak izanik, ez dira mantendu beneditarren testua ematen dutela aitortzen duten edizioetan. Hala gertatzen da, esaterako, «creaturae» (II, 6, 14) irakurketarekin; eta antzeko kasua da honako hau: IV, 12 kapitulua «Si placent corpora [...]» hitzekin hasten da XIX. mendetik honanzko edizio gehienetan (*Patrologia*-rena barne), baina Orixeren erudian, Saint-Maur-ekoen testuan bezala, «Si placent animae [...]» ziren aipatu kapituluaren lehenengo hitzak (ezkerreko zutabearen beneditarren edizioan dagoen bezala antolatu da testua, eta erdikoan edizio modernoek dakarten legez): <sup>15</sup>

Si placent corpora,  
Deum ex illis lauda, et in  
artificem eorum retorque  
amorem; ne in his quae  
tibi placent, tu displiceas.

XII. Si placent animae  
[...] (IV, 11, 17 - IV, 12,  
18)

XII. Si placent corpora, Deum  
ex illis lauda, et in artificem  
eorum retorque amorem; ne  
in his, quae tibi placent, tu  
displiceas. Si placent animae  
[...] (edd.)

[...] Gorputzak maite ba dituzu,  
goretsazu aietan lainkoa, ta maitasun  
ori Egilleagana biurrazu, maite  
dituzunetan atsekaberik ez dezazun.

XII. Animak maite ba dituzu [...] (C, 42 or. [A, 90, 5-7]).

Bide batez, honekin nahikoa dugu azken batean beneditarren edizioaren segiziokoa den *Patrologia*-ko testuaren alde egin litekeen hipotesia baztertzeko. (Bai baitzagoen baztertu

<sup>14</sup>Pasartearen frogagarritasuna ahulago egiten du oraindik Teologian bide duen nabarmentasunak: daitekeena da, hau dela-eta, Orixek libreago jokatu izana puntu honetan; zergatik berberak —ez horrenbeste, beraz, ereduaren auziak— eragin ditu, agidanean, esaldiak C-tik B-ra bidean eta, ja Lekuonaren eskuetan, «Utsuneak» izeneko dokumentuan (195 or. 7 zenb.) jasan dituen aldaketak: «[...] sortuzko gauza guzien antolatzaile, ez, ordea obenen agintzaile [...]», B, 9 or.; «[...] sortuzko gauza guzien egille ta antolatzaile, ez, ordea obenen agintzaile [...]», A, 22, 9-10 (azken aldaketa honi buruz ikus 174 or. eta 195 or. 7 zenb.).

<sup>15</sup>Berez, beneditarren edizioak «Si placent corpora» esaldia kapituluaren hasiera balitz bezala nabarmendu du (lehenengo letra tamaina handian jarritz, etab.), baina XII. kapituluaren benetako hasiera (hots, zenbakia eta *caput* hitza) «Si placent animae» hitzei ipinitako izartxo baten bidez adierazi du. Esan gabe doa berdin samar dela guri axola zaigun auzirako.

beharra: besterik ez bada, Orixek berak aipatzen duelako 1953ko maiatzaren 14ko gutun batean: ikus 44 or.).<sup>16</sup>

Honetaz gain, badirudi I-IV liburuak (eta —pentsatzekoa da— V.aren hasierako paragrafoak) latin edizio elebakar batetik itzuli zituela Orixek. Gure itzulpenean dauden hutsak —huts gordinak, itzultzailearen askatasunari inondik ere zor ezin zaizkionak— hamahiru liburuetan zehar aurki daitezke: baina lehenengo lauretan bereziki ugari dira eta, batez ere, lehenengo lau hauetan dauden batzuk gainerako liburuetan inoiz kausitu ezin den eta eredu elebidun baten falta nabarmenki salatzen duen mota batekoak dira. Bi adibide nahikoa izango dira. I, 16, 25 paragrafoan honako hau irakur daiteke: «*Quis autem paenulatorum magistrorum audit [...]*»; *paenulatus* edo *paenula* hitz arraro samarra da latinean: jantzi mota bat edo jantzi hori daramana esan nahi bide du; Orixek ez zuen hitz hau ezagutzen eta, lehendabizi, nire ustez *penna* ('luma') hitzaren ustezko txikigarri batekin nola edo hala lotuz (bi hitz hauek, *paenula* eta *penna* alegia, elkarrekin zer ikusirik ez izan arren), honela itzuli zuen: «Zein maisu galdordunek» (C, 11 or. [A, 30, 4-5]).<sup>17</sup> Bigarren adibidea IV, 3, 4 paragrafoan dago eta ja salatu zuen Mitxelena liburu honi egin zion iruzkinean:<sup>18</sup> «Itaque illos planos, quos mathematicos vocant [...]»; *planus* hitza —hau ere gutxitan erabiltzen da— «vagabond [...], charlatan, saltimbanque» da Gaffiot-entzat, baina Orixek ez bide zekien, honela itzuli baitzuen: «Orregatik ez nitun erabat zapuizten matematiku izenekoen azti-karta aiek [...]» (C, 36 or. [A, 77, 24-78, 1]). Esanguratsua da oraindik honako kasu hau: III, 3, 6, IV, 14, 23 eta IV, 16, 28 paragrafoetan *typhus* (edo *tyfus*) hitza agertzen da («*enflure, orgueil, arrogance*») eta Orixek gaizki itzuli du —edo jaso gabe laga— hiruretan;<sup>19</sup> VI, 6, 10 paragrafoan ordea berriz agertu da baina, oraingo honetan, behar bezala jaso du (C, 68 or. [A, 136, 6-7]): «[...] ego mentiendo quaerebam tyfum», «[...] ta nik gezurrez opa nizun aizekeria» («je qu'étais avec des mensonges une vaine gloire» Trabucco-k). Bistan da huts hauek ez ziratekeela gertatuko Orixek *Aitorkizunen* itzulpen bat aurrean eduki izan balu.<sup>20</sup>

Goiago ikusi dugu gutxi gorabehera V, 8, 15 paragrafotik aurrera eta oraindik zehaztu ez dugun X. liburuaen puntu bateraino Orixek Trabucco-ren edizioa erabili zuela bere

<sup>16</sup>*Patrologia*-k dakarren san Agustinen testurako ikus Folliet [1995]; jakina, edizio honi buruz ari gara: J.-P. Migne, *Patrologiae cursus completus... Series Latina prior...*, accurate J.-P. Migne, 1861 [2. inpr.], XXXII, 659-868 zut. [eta berrinprimaketa asko].

<sup>17</sup>Hiru hitz hauek eskuz gehitu zituen Orixek makinazkoak urratu ondoren: seinalea, beraz, zalantzan ibili zena. Igarri egin zion hutsari Mokoroak —berak zebilen Wangnereck-en edizioak ohar bat duelako espresuki hitz honen gainean— eta baita bere txostenean nabarmendu ere: ikus, honetaz eta Orixek egin zuen aldaketaz, III erans. eta bertako 401 or. 38 zenb.

<sup>18</sup>Mitxelena [1956a, 78 or.]; baina gaizki ematen du pasartearen erreferentzia: «III, 3, 4» dakar berak.

<sup>19</sup>Honela: «et gaudebam superbe et tumbam tyfo», «eta anpatzen nintzan aundinaiezko *zora-edariz*» (C, 27 or. = III, 3, 6 [57, 10-11]; «aundinaiezko» hori «tumbam» edo «superbe» hitzek eragin baitute; cf.: «et ma joie était faite d'orgueil, j'étais gonflé de vanité» Labriolle-k, «y gozábame de ello soberbiamente y me hinchaba de orgullo» Vega-k); «errabam tyfo», «zoro nindabilan» (C, 44 or. = IV, 14, 23 [94, 4]; ezin jakin, hemen, zortasunarekin lotutako hitzart hartu duen Orixek ala «errabam» bakarrik jasotzen duen 'zoro ibiltze' horrek; cf.: «mon orgueil m'égarait» Labriolle-k, «mas yo erraba por mi orgullo» Vega-k); «buccis tyfo crepantibus», «ago-durundiz» (C, 46 or. = IV, 16, 28 [97, 13]; hemen jaso gabe utzi du —Vega-k bezala, bestalde—; cf.: «se bouffissaient d'une emphase bruyante» Labriolle-k, «con gran énfasis y ponderación» Vega-k).

<sup>20</sup>Daithekeena ez ezik egiantzekoa da hasierako zati hau (hau da, I-IV liburuek eta V.aren lehenengo paragrafoek osatzen dutena) ez izatea eredu bakar batetik itzulia: honen alde legoke, inongo frogarik ez izan arren, Orixeren testuak salatzen dituen aldaera guztiak batera dituen ediziorik

itzulpena egiteko: hipotesi honetara bidean jarri gaituzte Orixeren lekukotasunek —erabat garbiak ez izan arren— eta horrela dela frogatu du, ezin eztabaidatuzko modu batean nire ustez, paragrafoen barneko testuaren antolamenduak. Baina testuaren beraren azterketak ere ekar ditzake egiaztapen honen aldeko aztarren eta froga gehiago eta, agidanean, merezi du honetan ere pixka batean pausatzea: izan ere, aztarrena da —aztarren esanguratsua, guztiarekin ere— aipatu paragrafotik aurrera Trabucco-k dakarren testuaren araberakoa izatea beti Orixeren itzulpena eta ez, orain arte bezala, edizio zaharretan ohi diren irakurketen mendekoa; Trabucco-ren testuak dituen inprimatze-huts zenbaitek isla izatea Orixerenean aipatu hipotesiaren *f r o g a d a*, eta baita ere, orobat, igarri ahal izatea Trabucco-ren frantses itzulpenari, noiz edo noiz, Orixeren testuan.

[...] ut <i>in me</i> faceres quod semper petebat. (V, 8, 15)	[...] ut <i>me</i> faceres quod semper petebat. (Trab.)	[...] Zuk ni ark eskatzen zuna <i>nindegizun</i> . (C, 56 or. [A, 114, 7-8]);
et melior eram puer, <i>quando</i> illum de materna pietate flagitavi [...] (V, 9, 16)	et melior eram puer, <i>quo</i> illum de materna pietate flagitavi [...] (Trab.)	obea ninduzun amari eskatu nioneko <i>artan</i> (C, 57 or. [A, 115, 16]);
sed excusare <i>eam</i> amabam (V, 10, 18)	sed excusare <i>me</i> amabam (Trab.)	aldiz, <i>neure burua</i> zuritu nai [...] (C, 57 or. [A, 117, 6]);
plures enim eos Roma <i>occultat</i> (V, 10, 19)	plures enim eos Roma <i>occultabat</i> (Trab.)	Erroma'n aunitz <i>baiztiran</i> (C, 58 or. [A, 117, 28]);
Metuebam itaque credere <i>in carne natum</i> , ne credere cogerer ex carne inquinatum. (V, 10, 20)	Metuebam itaque credere <i>incarnatum</i> , ne credere cogerer ex carne inquinatum. (Trab.)	<i>Aragiztatua</i> siñes-bildur ninzan, aragiz zikindua ez uste ukaiteko. (C, 59 or. [A, 119, 5-7]);
[...] <i>multa</i> probabiliora plerosque sensisse philosophos, [...] judicabam. (V, 14, 25)	[...] <i>multo</i> probabiliora plerosque sensisse philosophos [...] judicabam. (Trab.)	[...] iakinzale geienen aburuak artzekoago zirudizkidan [...] (C, 61 or. [A, 123, 12-13]);
[...] me [...] tibi [...] <i>efferebat</i> [...] (VI, 1, 1)	[...] me [...] tibi [...] <i>offerebat</i> (Trab.)	<i>Ala eskaintzen</i> ninduzun [...] (C, 62 or. [A, 126, 2-3]);
[...] aut de aliquibus difficilioribus <i>disceptare</i> quaestionibus [...] (VI, 3, 3)	[...] aut de aliquibus difficilioribus <i>dissertare</i> quaestionibus [...] (Trab.)	[...] edota auzi zailagoetaz <i>iardun</i> [...] (C, 64 or. [A, 129, 19-20]);

aurkitu ez izana. Ez dugu hipotesi honekin lan egin nahi izan ez dagoelako —esan bezala— honen aldeko aztarren garbirik eta, horrela, auziaren azalpena aldrebestu baino ez genukeelako egingo, ezer argitu gabe. Honek ez du ordea esan nahi, inondik ere, kontuan izan behar ez den hipotesia denik.

[...] non sic intelligi ut humani corporis forma <i>te terminatum</i> crederent atque cogitarent [...] (VI, 3, 4)	[...] non sic intellegi, ut humani corporis forma <i>determinatum</i> crederent atque cogitarent [...] (Trab.)	[...] etzaitutela siñetsi ta iduri bear gorputzez <i>mugatua</i> iakitean [...] (C, 64 or. [A, 130, 5-6]);
[...] ex fovea [...] qua libenter demergebatur, et cum <i>miserabili</i> voluptate caecabatur [...] (VI, 7, 12)	[...] ex fovea [...] qua libenter demergebatur et cum <i>mira</i> voluptate caecabatur [...] (Trab.)	[...] leize barne artatik [...] an gogara pulunpatzen baitzan, eta goxo goxo itsutzen. (C, 69 or. [A, 138, 10-12]);
[...] et inde offerendus <i>judici</i> ducebatur. (VI, 9, 14)	[...] et inde offerendus <i>judiciis</i> ducebatur. (Trab.)	[...] ta <i>auzi-gizoneri</i> eskuratzeko ba-deramate. (C, 70-71 or. [A, 141, 8-9]);
[...] quod putabamus, et vani accusabamus: nefas habent docti ejus credere [...] ab intentione curarum? [...] Sed absit ut ita sit [...] et vitam beatam? Sed exspecta [...] cum conjugibus dediti fuerunt. Cum haec dicebam [...] (VI, 11, 18-19)	[...] quod putabamus et vani accusabamus. «Nefas habent docti ejus credere [...] ab intentione curarum? [...]» «Sed absit, ut ita sit [...] et vitam beatam?» «Sed exspecta [...] cum conjugibus dediti fuerunt». Cum haec dicebam [...] (Trab.)	[...] nik uste nunik eta salatzen nunik. «Itsusi zaie aien iakintsueri [...] kezka orietatik? [...]» «Ez olakorik! [...] ta bizi doatsu-billa asteko?» «Nagon, ordea [...] emazteekin ere iakintasunera artu ziran». Onela ari ninzala [...] (C, 73 or. [A, 144, 23-146, 1]).

Pasarte honetan —ekarri ditugun adibideetan frogagarriena seguruenik— komatxoei begiratu behar zaie, testua zatitzeko modua gorago hartu baitugu kontuan: horrela jarrita Labriolle-ren edizioan bakarrik ikusi ditut, eta ezaguna da zenbat zor dioten edizio eta itzulpen honi Trabucco-ren bi testuek.

Vita <i>haec</i> misera est (VI, 11, 19)	Vita misera est (Trab.)	Bizia errukari da (C, 73 or. [A, 145, 8]);
Prohibebat me sane Alypius ab uxore ducenda, <i>caussans</i> nullo modo nos posse [...] vivere [...] (VI, 12, 21)	Prohibebat me sane Alypius ab uxore ducenda <i>cantans</i> nullo modo nos posse [...] vivere [...] (Trab.)	Alipi'k ikus <i>zer lelorekin</i> eragozten zidan andrea artzea: [...] ez giñezkela [...] astiro elkarrekin bizi [...] (C, 74 or. [A, 146, 18-20]);
[...] et quasi <i>concusso vulnere</i> repellens verba bene suadentis tamquam manum solventis. (VI, 12, 21)	[...] et je repoussais les paroles de bon conseil qui heurtaient, pour ainsi dire, ma blessure, <i>comme un blessé écarte la main d'un libérateur</i> . (Trab.)	[...] aholku oneko itzak baztartuz, <i>zauritu batek</i> askatzera doakionaren eskua bezala. (C, 74 or. [A, 147, 5-6]).

Trabucco-ren itzulpena ez da jatorrizko testuak nahitaez derrigortu dezakeen bakarra, ezta hurrik eman ere, eta Orixerena haren berdin-berdina da; erka bitez, konparazio batera,



Labriolle-rena eta Vega-rena: «comme une main qui s'approchant pour la défaire *aurait heurté une blessure*»; «como se repele *en una herida contusa* la mano que quiere quitar las vendas».

Non *es* autem ita. (VII, 1, 2)      Non *est* autem ita. (Trab.)      Ez *da* ola ordea. (C, 78 or. [A, 155, 9-10]);

[...] quando totus Angelus a conditore optimo factus esset *bonus*? (VII, 3, 5)      [...] quando totus angelus a conditore optimo factus esset? (Trab.)      [...] guzia Egillerik oberenak egiña izanik? (C, 79 or. [A, 157, 23-24]);

Sed tunc lectis Platoniorum illis libris, postea quam inde *admonitus* quaerere incorpoream veritatem [...] (VII, 20, 26)      C'est alors, qu'ayant lu ces livres platoniciens et *appris* d'eux à chercher la vérité incorporelle [...] (Trab.)      Platondarren liburu aiek irakurriz, mukulu gabeko egia billatzen *ikaski* [...] (C, 90 or. [A, 179, 15-16]).

Bai Orixek bai Trabucco-k *admonitus* hitzari eman dioten zentzua ez da batere begien bistakoa; Trabucco, hainbestetan bezala, Labriolle-ri jarraitu zaio, baina ikus nola jaso duten pasarte hau beste itzultzaile batzuek: «*amonestado*... a buscar la verdad incorpórea» (Vega-k); «*l'avertissement* qu'ils me donnèrent de rechercher la vérité incorporelle» (Tréhorel-Bouissou-k); «*despertado* por ellos a buscar la verdad incorpórea» (Mier-ek); etab.<sup>21</sup>

Videbam enim *plenam* ecclesiam, et alius sic ibat, alius autem sic. (VIII, 1, 2)      Je voyais l'Église *pleine de fidèles*, et l'un allait d'un pas, l'autre d'un autre. (Trab.)      Eliza *bete* oi zizaion *zintzoz* edo bestelakoz. (C, 93 or. [A, 184, 12]);

Et ideo sunt duae voluntates, quia una earum tota *non* est, et hoc adest alteri quod deest alteri. (VIII, 9, 21)      Et ideo sunt duae voluntates, quia una earum tota est et hoc adest alteri, quod deest alteri. (Trab.)      Ortatik bi naikari, bakoizka oso izanik, batari eskas zaiona besteari baitatxikio. (C, 104 or. [A, 202, 8-9]).

Adibide ezin hobeago honek bi gauza erakusten dizkigu: batetik, noski, Orixe Trabucco-ren ediziotik ari dela itzultzen; bestetik, eta gorago ekarri ditugun kasu batzuek pentsarazi lezaketaren kontra, ez ziola kasu gehiegi egiten frantses testuari. Izan ere, «tota est» Trabucco-ren edizioan bertan sortu den inprimatze hutsa da eta ez nonbaitetik hartutako eta apropos aukeratutako irakurketa bat, eta Trabucco-k berak ere «tota non est» itzultzen du: «Il y a donc deux volontés, toutes deux *incomplètes* [...]». (Ikus, esaterako, Vega-ren itzulpena: «Hay, pues, en ella dos voluntades, porque, no siendo una de ellas total, tiene la otra lo que falta a ésta»). Baina Orixek «tota est» itzuli du, frantseari begiratu gabe, itzulitakoaren zentzu faltak eskatu egiten bazuen ere. (Ikus honetarako, beherago, IX, 13, 36 paragrafotik ateratako adibidea).

<sup>21</sup>*Oeuvres de saint Augustin. XIII. Les confessions*, texte de l'édition de M. Skutella, introduction et notes par A. Solignac, traduction de E. Tréhorel (†) et G. Bouissou, Paris, Études Augustiniennes (Bibliothèque Augustinienne), 1992 [1. ed. 1962]; San Agustín, *Los XIII libros de las Confesiones*, traducción, introducciones y notas por el P. F. Mier, Madril, Apostolado de la Prensa, 1940 [1. ed. 1929].

Cum invocarem <i>exaudivit</i> me Deus justitiae meae (IX, 4, 8)	cum invocarem te, <i>exaudisti</i> me, deus justitiae meae (Trab.)	Deitu zindudalarik entzun <i>ninduzun</i> , ene lainko zuzena (C, 113 or. [A, 218, 7-8]);
Et <i>clamabat prophetia</i> [...] (IX, 4, 9)	Et <i>clamat propheta</i> [...] (Trab.)	Oiuka <i>ari da Profeta</i> [...] (C, 113 or. [A, 219, 1]);
[...] etsi ad credendi sanitatem non <i>ampliatu</i> s [...] (IX, 7, 16)	[...] etsi ad credendi sanitatem non <i>applicatu</i> s [...] (Trab.)	[...] siñestera <i>biurta</i> ez ba zan ere. (C, 116 or. [A, 224, 28]);
Quia vero non exquiris delicta vehementer, fiducialiter speramus aliquem apud te locum <i>invenire indulgentiae</i> . Quisquis autem tibi [...] (IX, 13, 34)	Quia vero non exquiris delicta vehementer, fiducialiter speramus aliquem apud te locum. Quisquis autem tibi [...] (Trab.)	Obenak ez baitituzu gogor arakatzen, Zure alboan lekua lasapidez ditxarogu. Zurekiko [...] (C, 124 or. [A, 239, 2-4]);
Ad cujus pretii nostri sacramentum ligavit ancilla tua <i>animam suam vinculo</i> <i>fidei</i> . <i>Nemo a protectione tua</i> dirumpat eam. (IX, 13, 36)	Ad cujus pretii nostri sacramentum ligavit ancilla tua dirumpat eam. (Trab.)	Sari orren balio izkutuari lotua zun bere bizia Zure mirabe ark: eten dezala etsaiak. (C, 125 or. [A, 240, 7-9]).

Trabucco-k dakarren *lacuna* bertan sortua da eta, hortaz, latin esaldia ezinezkoa da; guztiarekin ere, latinari jarraitu zaio Orixek, ez baitirudi arreta handia ipini duenik aurrean zuen frantsesa irakurtzen (Trabucco-ren itzulpena bai baita osoa: «C'est à ce mystère de la rédemption que votre servante a lié son âme par le lien de la foi. Que nul ne l'arrache à notre protection»).

Orain axola zaiguna da ahal den zehatzena finkatzea non aldatu zuen Orixek eredia, hau da, zein puntutatik aurrera ez zuen ja Trabucco-ren edizioa erabili edo, gauza bera dena, non utzi zion lanari Ameriketara joateko. Batetik, badakigu X, 35, 56 paragraforainokoa behintzat Iparraldean ondu zuela, paragrafo horretako pasarte bat aipatzen baitu Mokoroak bere txostenean eta zalantzarik gabe dakigu Mokoroak txosten hura egiteko irakurri ahal izan zituen paperak Orixek mugaz bestaldean itzulitakoak bakarrik izan zirela (ikus, honetaz, 37-39 or.). Bigarrenik, behin baino gehiagotan esaten digu Orixek XI-XIII liburuetan El Salvadorren eginak direla eta, aldi berean, zalantzarik gabe dakigu Ameriketara ez zuela Trabucco erabili ahal izan (ikus 44 or.). Eta, hirugarrenik, badugu eredu aldaketaren auzi honekin lotuta egon daitekeen beste zerbait: X, 36, 58 paragrafoa bi bider dago itzulita liburu honetarako dugun lekukotasun bakarrean, hots, B-ko testuan. Bistan da datu hauek guztiak —batez ere Orixeren lekukotasunei zor zaizkienak— testuaren beraren bidez berretsi behar direla, baina arrazoizkoa da hipotesi honetatik abiatzea: X, 36, 58 paragrafoaren lehenengo bertsioa izango litzateke Iparraldean —eta, hortaz, Trabucco-ren ediziotik— egindako azken zatia, eta paragrafo horren berorren bigarren bertsiotik aurrerakoa, berriz, Iparraldetik alde egindakoan ondua.

Ikusi dugu gorago X. liburuko testuaren antolamenduak berretsi egiten zuela bestelako datuek esaten zigutena, hau da, X. liburu hau Trabucco-ren ediziotik itzulia zela (ikus,

baita 'testuaren antolamendua' hitzekin esan nahi dugunaz ere, 368-370 or.); baina aipatu azterketa hark X. liburua osorik kabitzen zuen, eta orain analisi xeheago bat behar dugu:<sup>22</sup>

	Trabucco	Orixen
X, 2, 2	1	1
X, 3, 4	1	0
X, 4, 5	2	0
X, 4, 6	1	0
X, 5, 7	1	0
X, 6, 8	1	0
X, 6, 9	1	1
X, 7, 11	1	1
X, 8, 12	1	1
X, 8, 13	1	1
X, 8, 15	1	0
X, 10, 17	2	2
X, 11, 18	1	1
X, 14, 21	5	3
X, 14, 22	1	1
X, 15, 23	2	1
X, 16, 24	2	1
X, 16, 25	2	2
X, 17, 26	2	1
X, 19, 28	2	2
X, 21, 30	3	1
X, 23, 33	3	3
X, 23, 34	1	1
X, 25, 36	1	1
X, 28, 39	1	1
X, 31, 43	1	1
X, 31, 44	1	1
X, 31, 45	1	1
X, 33, 50	3	2
X, 34, 52	1	1
X, 34, 53	2	2
X, 35, 54	2	2
X, 35, 55	2	1
X, 35, 56	1	1
X, 35, 57	2	2
X, 36, 59	2	0
X, 37, 60	2	1
X, 37, 61	2	0
X, 40, 65	2	0
X, 42, 67	2	0
X, 43, 69	0	0 (1)

<sup>22</sup>Taula honetako zenbakien esanahiaz ikus 369 or. 9 oh. Ohar bedi ez ditugula aipatzen ez Trabucco-ren testuan ez Orixerenean zatiketa xeheagorik ez duten paragrafoak.

Bistan da, hortaz, X, 35, 57 paragraforaino —hau ere barne delarik— Trabucco-ren edizioa erabili zuela eta badirudi, orobat, X, 36, 59 paragrafotik aurrerako datuek berretsi egiten digutela testuaz kanpotikoez susmarazten zigutena, hots, paragrafo gutxi horiek ez zituela Trabucco-ren testutik egin.

Testua bera aztertzekoan bestelako egoera batean gaude: batetik, ez zaigulako gorde, ez X. liburu honetarako ez ondorengoetarako, C deitu dugun lehenengo idatzaldia eta, hortaz, guganaino iritsi den B testuak izan ditzake Orixek bigarrena egiteko erabili zuen BAC-eko edizioaren arabera egindako zuzenketak; bestetik, jokoan dauden ereduak bi bakarrik direlako, hau da, seguru dakigulako —hala dirudi behintzat— pasarte hauek edo Trabucco-ren ediziotik edo Vega-renetik itzuli zituela. Gauzak horrela, Trabucco-ren araberrako eta Vega-ren kontrako irakurketa batek, hemen, frogatu egingo luke zati horren lehenengo idatzaldia Trabucco-ren ediziotik itzuli zela —eta, beraz, Ameriketara joan baino lehenago egin dela— baina, aldiz, Vega-ren araberrako eta Trabucco-ren kontrako irakurketa batek ez luke nahitaez kontrakoa frogatuko. Alabaina, X, 35, 56 paragrafotik aurrera ez dugu, Orixeren itzulpenean, Trabucco-ren testua salatzen duen irakurketarik, hau da, aldaerak izan litzaketen pasarte guztiak Vega-ren edizioaren araberrakoak dira (ezkerreko zutabea):

Sed numquid, Domine, qui solus sine tyfo dominaris, quia solus verus Dominus es, qui non habes dominum, numquid hoc quoque tertium temptationis genus cessavit a me aut cessare in hac tota vita *potest*: timeri et amari velle ab hominibus non propter aliud, sed ut inde sit gaudium, quod non est gaudium? Misera vita est et foeda iactantia. (X, 36, 59)

Sed numquid, domine, qui solus sine tyfo dominaris, quia solus verus dominus es, qui non habes dominum, numquid hoc quoque tertium temptationis genus cessavit a me aut cessare in hac tota vita *potest*, timeri et amari velle ab hominibus non propter aliud, sed ut inde sit gaudium, quod non est gaudium? Misera vita est et foeda iactantia. (Trab.)

Baiña, launa, Zu bakarra baitzera laun arrokeri gabe, Zu baitzera egizko laun bakarra, launik ez duzuna, utzi al nau irugarren tentaera onek, edo utzi al nazake bizi *guzian*? Biziera doakabe ta arrokeri itsusi [itsusu B] da gizoneri maitagarri ta bildurgarri izatea, ortatik poza datorrelako, ez bestegatik. (B, 135 or. [A, 291, 16-21]).

Baina —eta horregatik ekarri dugu hona— paragrafoaren hasieran bertan dagoen aldaera hau baino askoz esanguratsuagoa da aipatu paragrafotik beretik ateratako beste hau:

Gloria nostra tu esto; propter te amemur et *timeamur* in nobis. (X, 36, 59)

Gloria nostra tu esto; propter te amemur et *verbum tuum timeatur* in nobis. (Trab.)

Zu zaite gure aundipide. Zugatik *gaitzez* gugan maitagarri edo *bildurgarri*. (B, 135 or. [A, 292, 13-14]);

temptat, et cum a me in me arguitur, eo ipso quo arguitur, et saepe de ipso vanae gloriae contemptu, vanius gloriatur [...] (X, 38, 63)

temptat, et cum a me in me arguitur, eo ipso, quo arguitur, et saepe *homo* de ipso vanae gloriae contemptu vanius gloriatur [...] (Trab.)

Axukatzen gaitu, ta ortan norbera salatzean, salatze orrexegatik, ta askotan aundinai txoro ortaz txorokiago arrotzen da [...] (B, 137 or. [A, 296, 3-5]);

[...] cum ad te referrem *interiora* visa mea [...] (X, 40, 65)

[...] cum ad te referrem *inferiora* visa mea [...] (Trab.)

[...] Zu'ri *nere barrera* nik al bait zabaltzean [...] (B, 137 or. [A, 297, 5-6]);

[...] quem secreta tua  
misericordia demonstrasti  
*humilibus* [...] (X, 43, 68)

[...] quem secreta tua  
misericordia demonstra<s>ti  
*hominibus* [...] (Trab.)

[...] Zuk erruki izkutuz *umilleri*  
erakutzia [...] (B, 139 or. [A, 300,  
5-6]).

Erabateko frogaz ezin izateak ez du esan nahi Vega-ren testuaren aldeko irakurtze sistematiko hau erabat hutsala denik: berez duen balioaz gain, gogora dezagun VI-IX liburuetan oso aldaketa gutxi egin zirela C-tik B-ra bidean, eta —lehen ere esan bezala— ez dugu inongo arrazoirik pentsatzeko gauza bera gertatu ez zenik ondorengo liburuetan. Eta, nolana ere, testuaren azterketak erakusten digun aztarren garrantzitsu hau bat dator zeharoan arestian aipatu ditugun testuaz kanpotiko zein barneko datuekin.

Beraz, frogatutzat joenez X, 36, 58 paragrafotik aurrera —zeren eta, testuaren antolamenduaren eta testuaren beraren azterketak X, 36, 59 paragrafoari buruz bakarrik hitz egiten badigu ere, X, 36, 58 paragrafoa bi bider egotea itzulita ez baita aztarren makala— Orixek ez zuela Trabucco-ren edizioa erabili: hots, hortxe utzi ziola lanari Ameriketara alde egiterakoan. Alabaina, honek ez du nahitaz esan nahi X. liburua azken paragrafo horiek El Salvadorren itzuli zituenik: bai Ameriketara bai Lazkaon ibilitako eredu berbera izan zirenez gero (testuaz kanpotiko datuek esan eta testuaren analisiak berresten duenez), hau da, Vega-ren BAC-eko edizioa, ez dago jakiterik. Badakigu Iparraldean egindako itzulpena ez zuela aurrean izan El Salvadorren egon zenean: gogoratuko zen X. liburua gehiena egin zuela, baina egiantzekoa da oso —lau bat urte igaro baitziren ordutik— ez jakitea zehazki zein pasartetan utzi zion itzultzeari eta, beraz, XI. liburua hasieratik ekitea lan berriari; eta Lazkaon, paper guztiak ordenatzerakoan, beteko zuen lagatako hutsunea.

Ez dirudi zalantzan jar daitekeenik Ameriketara itzultitako XI, XII eta XIII. liburua Vega-ren ediziotik itzuli zituela: batetik, Orixeren beraren lekukotasunak ditugu —Iparraldeko sasoiari buruzkoak baino mila aldiz fidagarriagoak— eta, bestetik, segituan aztertuko ditugun aztarrenak.

Sunt sidera et luminaria caeli  
in signis et in temporibus et in  
diebus et in annis. (XI, 23, 29)

*Son* las estrellas y luminares  
del cielo «*signos* para distinguir  
los tiempos, días y años»  
(Vega)

Ortziko izar eta argizagiak aldien  
eta egunen eta urteen aztarren  
dira. (B, 150 or. [A, 327, 10-  
11]).

Orixeren itzulpena ez da espero litekeen bakarra, baina bat dator, erabat, Vega-renarekin; erka bedi ordea, esate baterako, Labriolle-k dakarrena: «*Il y a des astres, des flambeaux célestes, "pour être des signes, pour marquer les saisons, les jours, les années"*» (eta Trabucco-k ere berdintu jaso du hemen san Agustinen latina). Ondoko pasarteetan Vega-rena bezalako testu bat itzuli du Orixek (ezkerrean), baina edizio gehienek besterik erakusten dute:

[...] sed id ipsum et id ipsum  
[...] (XII, 7, 7)

[...] sed id ipsum et id ipsum  
*et id ipsum* [...] (edd.)

[...] baiña berbera ta berbera  
[...] (B, 158 or. [A, 344, 6-7]);

[...] et ideo non declinat a te nec  
*a se* [...] (XII, 15, 19)

[...] et ideo non declinat a te  
nec *ad se* [...] (edd.)

[...] ta orregatik ez dala saiesten  
ez Zugandik, ez *beregandik?* (B,  
162 or. [A, 353, 15-16]);

Et non solum ante illam [...] (XII, 15, 21)	Et <i>si</i> non solum ante illam [...] (edd.)	Ua baiño len ez- <i>ezik</i> [...] (B, 162 or. [A, 354, 17]);
[...] et <i>novi</i> , magister noster in quibus duobus praeceptis totam legem prophetasque suspenderit [...] (XII, 18, 27)	[...] et <i>novit</i> magister noster in quibus duobus praeceptis totam legem prophetasque suspenderit [...] (edd.)	<i>Ba-dakit</i> zertatik eseki ditun gure Maisuak lege osoak eta Igarleak. (B, 164 or. [A, 358, 22-23]);
Vident enim, cum haec verba legunt vel audiunt tua, <i>Deus aeternae</i> , stabili permansione [...] (XII, 28, 38)	Vident enim, cum haec verba legunt vel audiunt tua, <i>Deus</i> , aeterna stabili permansione [...] (edd.)	Ikusten dute, bada, <i>Iainko betikor</i> Zure itz auek irakur edo entzutean [...] (B, 170 or. [A, 370, 18-20]);
Atque in eis qui intellegunt «in principio» quod in sapientia <i>fecit</i> «caelum et terram» [...] (XII, 28, 39)	Atque in eis qui intellegunt «in principio» quod in sapientia <i>fecisti</i> «caelum et terram» [...] (edd.)	Eta «asieran» zugurtasunean zeru-lurrak egin <i>zitula</i> ulertzen duten aietan [...] (B, 170 or. [A, 371, 14-15]);
<i>Etenim</i> , Domine, delevisti omnia mala [...] (XIII, 1, 1)	<i>Tu enim</i> , Domine, delevisti omnia mala [...] (edd.)	<i>Izan ere</i> suntsi dituzu Iauna [...] (B, 173 or. [A, 377, 12-13]);
In bona voluntate <i>tua</i> pax nobis est [...] (XIII, 9, 10)	In bona voluntate pax nobis est [...] (edd.)	<i>Zure</i> gogo onean daukagu pakea. (B, 176 or. [A, 385, 7-8]);
Ibi nos <i>collocabit</i> [...] (XIII, 9, 10)	Ibi nos <i>collocavit</i> [...] (edd.)	An <i>ezarriko</i> gaitu [...] (B, 176 or. [A, 385, 20-21]);
[...] quis <i>intellegit?</i> (XIII, 11, 12)	[...] quis <i>intellegit?</i> (edd.)	[...] nork <i>ulertuko</i> du. (B, 177 or. [A, 386, 6]);
[...] ut fluminis impetus <i>laetificarent</i> civitatem tuam. (XIII, 13, 14)	[...] ut fluminis impetus <i>laetificaret</i> civitatem tuam. (edd.)	[...] ibaiaren oldarrek Zure uria pozarazi <i>zezaten</i> . (B, 178 or. [A, 389, 12-13]);
Et ego dico: «Deus meus ubi <i>est?</i> ». (XIII, 14, 15)	Et ego dico: «Deus meus ubi <i>es?</i> ». (edd.)	Nik ere «non <i>da</i> nere Iainkoa» diagot. (B, 178 or. [A, 390, 3]);
[...] et figis limites, quousque progredi sinantur <i>aquae</i> [...] (XIII, 17, 20)	[...] et figis limites, quousque progredi sinantur <i>atque</i> [...] (edd.)	[...] eta Zuk ezarten ditiezu mugak <i>urak</i> doazan tokiraiño [...] (B, 180 or. [A, 394, 16-17]).

Ondoko pasarte honetan, berriz, badirudi eragina izan duela Vega-ren itzulpenak Orixerenean, baita esaldiaren antolaketan eta puntuazioan ere:

Sermo autem «scientiae» qua continentur omnia sacramenta, quae variantur temporibus tamquam luna, et ceterae notitiae donorum, quae deinceps	«La palabra de la ciencia», en la que están contenidos todos los sacramentos que cambian con los tiempos, es semejada a la luna; mas la	Iakite-itza, aldiekin aldatzen diran izkutuak berekin ditula, illargiaren antzeko da, ta beste doaien ezaguerak, gero izar antzo aipatu diranak esan dugun eguneko
--	---	--

tamquam stellae commemorata sunt, quantum differunt ab illo candore sapientiae, quo gaudet praedictus dies, tantum in principio noctis sunt. (XIII, 18, 23)

restante lista de dones, que hemos mencionado después como estrellas, cuanto más difieren de aquella claridad de la sabiduría de que goza el precitado día, tanto se hallan más en el principio de la noche. (Vega)

Zu<gur>tasunaren zuritasun artatik urrunago ta gauetik urbillago daude. (B, 181 or. [A, 397, 1-5]).

Ikus, bestela —eta adibidez—, Labriolle-rena: «Mais cette parole de science, qui renferme toutes les mystérieuses vérités, lesquelles se diversifient selon les temps comme la lune elle-même, ces autres dons que j'ai mentionnés en les assimilant aux étoiles, diffèrent tellement de cette brillante lumière de sagesse, joie du jour qui s'annonce, qu'ils ne sont que le crépuscule de la nuit». Gauza berbera —baina oraindik argiago— gertatu da paragrafo bereko pasarte honetan:

[...] ille, qui «sapientiam» loquitur inter *perfectos* [...] (XIII, 18, 23)

[...] aquel, digo, «que hablaba la sabiduría entre los *imperfectos*» (Vega)

[...] *maketsen* artean Zugurtasunez ari zan ua [...] (B, 181 or. [A, 397, 7-8]).

Vega-ren «*imperfectos*» hutsa da, *lapsus* bat seguruenik (ikus 143-144 or.), eta *makets*, inongo zalantzarik gabe, «*imperfectos*» horren itzulpena da, inondik ere ez «*perfectos*» bezalako zerbaitena. Bistan da Orixen, esaldi hau itzultzerakoan, gaztelaniazko testuari jarraitu zaiola eta ez —ohi bezala, oso oker ez banago— latinari.

[...] animam vivam quam terra *producet* [...] (XIII, 20, 26)

[...] animam vivam quam terra *producit* [...] (edd.)

[...] lurrak *sortuko* dun anima biziduna [...] (B, 182 or. [A, 399, 18]);

[...] lucidas *cognitiones* harum rerum in firmamento caeli [...] (XIII, 20, 27)

[...] lucidas *cogitationes* harum rerum in firmamento caeli [...] (edd.)

[...] zeru-ortziko gauza auen *ezagukizun* garbiak [...] (B, 183 or. [A, 400, 7]).

Hemen ere Vega-ren gaztelania dago jokoan:

[...] neque enim nisi signa et prodigia viderit non credit [...] (XIII, 21, 29)

[...] puesto que no es de aquellos que no creen si no vieren signos y prodigios [...] (Vega)

[...] ez baita mirari edo arrigarrik ikusi gabe siñesten ez dutenetakoa [...] (B, 183 or. [A, 401, 12-14]).

Labriolle-k, aldiz, honako hau dio: «Elle ne réclame plus, pour croire, des prodiges surprenants». Orobat honetan:

[...] creati in operibus bonis [...] (XIII, 23, 33)

creados para obras buenas (Vega)

[...] egite onetarako sortuak [...] (B, 185 or. [A, 405, 11]),

eta Labriolle-k, berriz ere, beste hau dakar: «créés parmi les oeuvres bonnes».

[...] quantum sapere dedisti [...] [...] quantum sapere dedisti, [...] eman diozun iakitearen  
(XIII, 24, 36) *Deus meus* [...] (edd.) ariora. (B, 186 or. [A, 408, 8-9]).

Ikus, beste honetan ere, Vega-ren itzulpenak izan dukeen eragina:

[...] quam multiplicibus [...] [...] con cuántos misterios [...] [...] zenbat izkutuz eta zenbat  
sacramentis et innumerabilibus [...] y con cuántas lenguas [...] izkuntzaz [...] (B, 186 or. [A, 408,  
linguis [...] (XIII, 24, 36) (Vega) 18-19)).

Honako esaldi honetan latina gardena da baina Orixeren itzulpena, berriz, iluna baino ilunagoa; Vega-ren gaztelaniak du errua:

Et ideo pisces et coeti non [...] Y ésta es la razón por qué [sic] Orregatik arraiek eta beleek  
vescuntur escis, quas non [...] los peces y los cetáceos no [baleek A] ez dute erne-gauzarik  
germinat nisi iam terra ab [...] comen de los manjares que iaten, baizik eta itsas-ugiñen  
amaritudine marinorum [...] no germinan, sino la tierra samñetik bereizi ta bakandurik  
fluctuum distincta atque discreta. [...] distinta y separada ya de la dagon lurekkoa. (B, 189 or. [A,  
(XIII, 27, 42) amargura de las olas marinas. 414, 7-9)).  
(Vega)

Labriolle-k edozein irakurlek ulertuko zukeen moduan itzuli du: «Voilà pourquoi les poissons et les monstres marins ne se nourrissent pas d'aliments que la terre ne produit qu'une fois séparée et purifiée de l'amertume des flots de la mer».

[...] ut esset visibilis et [...] [...] ut esset visibilis et [...] [...] belarren eta zugatzen *ama*  
composita herbarumque atque [...] composita herbarumque [...] ikusgarri ta antolatua zedin. (B,  
arborum *mater* [...] (XIII, 32, atque arborum *materiem* [...] 191 or. [A, 419, 2-3]);  
47) (edd.)

[...] quoniam super nos erant [...] [...] porque «sobre nosotros [...] [...] «gure obenak gure gain  
peccata nostra et in profundum [...] eran nuestros pecados» [...] baitziran eta Zugandik urrun ietsi  
tenebrosum abieramus abs te, et [...] (Ez., 23, 10) y habíamos [...] baikiñan osiñ illunera» (Ezek 23,  
Spiritus tuus bonus [...] (XIII, descendido lejos de ti al [...] 10) Zure arnas ona [...] (B, 192  
34, 49) «abismo tenebroso», sobre el que [...] (edd.) or. [A, 420, 19-21]).

Ezekielen liburuari buruzko erreferentzia oker dago: «33, 10» behar luke, ez «23, 10»; bestalde, edizio gutxik aipatzen dute (ez dakarte, esaterako, ez Labriolle-k ez Trabucco-k): BAC-ekoan ere gaztelaniazko aldean bakarrik dago, ez latinezkoan.

A te petatur, in te quaeratur, ad [...] A te petatur, in te quaeratur, [...] Zuri eska, Zugan billa, Zurean io  
te pulsetur: sic, sic accipietur, sic [...] ad te pulsetur: sic, sic [...] dezagun. Onela dugu arkituko,  
invenietur, sic aperietur. (Matth., [...] accipietur, sic invenietur, [...] arkituko, onela zaigu idekiko. (B,  
7, 8) (XIII, 38, 53) sic aperietur (Matth., 7, 8). 193 or. [A, 423, 21-23]).  
*Amen.* (edd.)



Edizio gehienetan «Amen» batekin bukatzen dira *Aitorkizunak*: ez ordea hoberenetan, ezta BAC-ekoan ere, eta badirudi honi jarraitu zaiola Orixe puntu honetan ere. (Azken esaldian dauden arazoei buruz ikus, «Utsuneak» dokumentuan, 208 or. 52 zenb.).

Arrazoizkoa da, hortaz, frogatutzat jotzea X. liburuaren azken paragrafoak eta XI-XIII liburuak osorik BAC-eko edizio elebidunetik itzuli zituela Orixek.<sup>23</sup> Aurreratu dugu gorago gure frogak, berez, ezin direla erabatekoak izan: batetik, ez dugulako liburu hauen lehenengo idatzaldia eta, horrela, Orixeren testua eta BAC-ekoa lotzen dituzten aztarren guztiak —Vega-ren itzulpena salatzen duten pasarteei dagozkienak barne— izan litezke Lazkaon ondutako bigarren idatzaldian sartuak; bestetik, eta testuaren aldaeretan oinarritzen diren argudioei dagokienez, BAC-eko edizioak dakartzan irakurketak beste edizio batzuetan ere badirelako. Baina ez da batere egiantzekoa: behin baino gehiagotan esan behar izan dugu VI-IX liburuen testua ez zela apenas aldatu C-tik B-ra, ez behintzat era honetako kontuetan, eta ez dugula inongo arrazoirik pentsatzeko kontrakoa gertatu zenik X-XIII liburuetan —alderantziz, izatekotan—. Bestalde, hor dira Vega-ren gaztelaniatik abiatuta itzultitako pasarteak. Eta honi guztiari gehitu behar zaio Orixeren beraren 1954ko urtarrilaren 29ko lekukotasuna: «Aita Aranguren Azpeitiarrak utzi dit BAC-ren argitaraldia [...]» (45 or). Beraz, lasai asko ondorioztatu ahal dugu X, 36, 58 paragrafotik aurrerakoa, o r o h a r, BAC-eko ediziotik itzuli zuela Orixek.

Oro har diogu, ez ordea erabat, zeren bai baitirudi aldatu egin behar izan zuela eredia noizean behin: izan ere, badira pasarte batzuk, XI-XIII liburuetan alegia, BAC-ekoa ez den testu batetik itzuliak. Bi aurkitu ditut ezin eztabaidatuzkoak:

[...] *dividentes inter lucem perfectorum, sed nondum sicut angelorum, et tenebras parvulorum, sed non despectorum* [...] (XIII, 19, 25)

[...] *dividentes inter lucem perfectorum, sed nondum sicut angelorum, et tenebras parvulorum, sed non desperatorum* [...] (Vega)

[...] bikaiñen argia —oraingik ez aingeruena aiña— nimen illunetik, ez *gaiztetsiengandik*, bereiziz. (B, 182 or. [A, 398, 25-27]);

*Laudent* te opera tua, ut amemus te, et *amemus* te, ut laudent te opera tua. (XIII, 33, 48)

*Laudant* te opera tua ut amemus te, et *amamus* te ut laudent te opera tua. (Vega)

Gora *zaitzate* Zuk egiñak; maita *zaitzagun*, eta maita *zaitzagun* Zuk egiñak gora *zaitzaten*. (B, 191 or. [A, 419, 21-22]).<sup>24</sup>

<sup>23</sup>XI-XIII liburuen itzulpena 1953ko akaberan eta 1954ko hasieran kokatu behar denez gero, BAC-eko lehenengo bi edizioetako edozein erabili ahal izan zuen Orixek, hots, bai 1946koa bai 1951koa. (BAC-eko edizioei buruz ikus 143-144 or.). Betiko arazoa dugu jakiteko bietako zein izan zuen eskuen artean El Salvadorren: alegia, ez dugula, liburu horietarako, C idatzaldia. Bestalde, seguru dakigu (ikus 49-50 or.) Lazkaon ondu zuen B idatzaldirako 1946ko edizioa erabili zuela: gauzak horrela, ezinezkoa da frogatzea Ameriketara ere 1946koa eduki zuela, hau da, frogateke gauza bakarra izango litzateke 1951koa erabili zuela, eta ez dut honen aldeko argudioirik aurkitu.

<sup>24</sup>Lekuonak aldatu egin zuen pasarte hau «Utsuneak» deitu dugun dokumentuan (207 or. 49 zenb.): ikus 207 or. 42 oh. eta 209 or. 48 oh.; hain zuzen ere BAC-eko testuarekin bat ez zetoirelako.

Ohar bedi ondo —oso esanguratsua da-eta— Orixek bi pasarte hauetan itzuli dituen irakurketak, berriz ere, *Aitorkizunen* testu zaharretan bakarrik aurkitu ahal direnetakoak direla, hau da, orain dela gutxi arte eskola edizioetan-eta inprimatu ohi ziren testu zahar haietakoak. Eredu aldaketa honen beste aztarren batzuk ere badira (eta, oker ez banago, XII. liburuaren bigarren erdian kokatzen dira guztiak, gorago aipatu ditugunak XIII.aren bigarren erdikoak diren bezala), baina ez dira hain seguruak:

Estne ista domus Dei [...] ubi vices temporum frustra quaeritis, quia non <i>invenietis</i> ? (XII, 15, 22)	Estne ista domus Dei [...] ubi vices temporum frustra quaeritis, quia non <i>invenitis</i> ? (Vega)	Au al da Iainko-etxea [...] alperrik baita or aldia billatzea, ez baituzute <i>arkituko</i> . (B, 163 or. [A, 355, 6-8]).
---	---	---

Gauza ñimiñoa da Orixeren ohituretan, eta baita, bestalde, irakurketa edo itzulpen *facilior* ere: hau da, testuinguruak errazago onartzen du hemen —ia-ia eskatu egiten du— geroaldia. Berbera esan genezake honako honen gainean:

[...] quod <i>praescriptum</i> est (XII, 22, 31)	[...] quod <i>perscriptum</i> est (Vega)	[...] <i>aurretik idatzia</i> dagonez (B. 166 or. [A, 362, 23]),
--	--	--

eta Vega-k ere, dakarren testua ekarri arren, honela itzuli du: «en lo antes escrito».

sive [...] pulchras <i>variationes</i> faciant aut patiantur. (XII, 28, 38)	sive [...] pulchras <i>narrationes</i> faciant aut patiantur. (Vega)	[...] aldizka ta tokika <i>aldakuntza</i> aunitz egíñez naiz erasanez. (B, 170 or. [A, 371, 5-6]),
---	--	--

baina hauxe da testuinguruak errazen onartzen duen irakurketa eta Vega-k ere, bere testuaren kontra oraingo honetan ere, «*variationes*» itzuli du argi eta garbi: «[...] formen o padezcan hermosas variaciones». Jakina, aldaera hauek guztiak jasota daude BAC-eko latin testuaren aparatuan, baina honek ez du gure auzia konpontzen: ez da egiantzekoa aparatuari begira ibili izana Orixe *Aitorkizunak* itzultzerakoan. Baina, beste alde batetik, Vega-ren testuaren eta itzulpenaren beraren alde eman ditugun argudioak, guztira, ezin eztabaidatuzkoak dira. Zer gertatu da orduan? Testuaz kanpotiko datuek argi eta garbi dioskute Orixek arazoak izan zituela aita Aranguren eskaini zion BAC-eko ale hura etxean izateko: «Orain itxedon egin bear, liburua itzuli bearra baitut [...] aien Bibliotekako arauak oso zorrotzak dira. Ez da gutxi *ad mensem* ere, eta gaiñera liburua etxetik atera», ziotson Oiartzabali aipatu 1954ko urtarrilaren 29ko gutunean. *D a i t e k e e n a d a h o n e l a k o z e r b a i t g e r t a t u i z a n a*: bistan da ezin zuela BAC-eko alea nahi hainbat denboran eduki etxean —badirudi hilabeterako bakarrik atera ahal izaten zuela— eta, mailegu epea agortzen zitzaionean, itzuli egin behar izaten zuen berriz atera ahal izateko; BAC-ekoa jesulagunen liburutegian zegoen bitartean —edo bertan egon zen aldietakoren batean—, ez al zioten utziko *Aitorkizunen* beste edizio bat ateratzen? seguruenik edizio zaharren bat —gogora pasarte hauek erakusten duten testuaz gorago esan duguna—, elebakarra agidanean, inondik ere alderatzekoa ez zena orduan berriki argitaratua zen BAC-eko liburu elebidun harekin, baina lanean segitzen behintzat utziko ziona? Honelako zerbeit izango zen, ezin baita ukatu XI-XIII liburuen gehiena BAC-eko ediziotik itzuli zuela.

\* \* \*

*Aitorkizunetako* I-IV liburuak eta V.aren lehenengo paragrafoak testu zahar bat zuen edizio —seguruenik elebakar— batetik itzuli zituen Orixek: seguruenik, abadeentzat egin ohi ziren edizio txiki eta merke haietako bat —edo, agian, batzuk—. Tentagarria litzateke lehenengo liburu hauen itzulpena Bidarraira joan aurreko garaian kokatzea: gutxienez Aire-sur-l'Adour-en eta Bétharram-en emandako urteetan apaizez eta apaizgaitegiako liburutegiez inguratutik bizi izan zen, eta giro horietan aurkitu ahal ziren garai hartan Orixek *Aitorkizunen* hasiera itzultzeko aurrean izan bide zuena —edo zituenak— bezalako edizioak. Handik Bidarraira alde egitean liburutik gabe geldituko zen, eta horregatik eskuratuko zuen Trabucco-rena, bai baitakigu berea zuela Trabucco-rena: horrela, V-IX liburuak (zehazki, V, 8, 14 —agian V, 5, 8— paragrafotik aurrerakoa) Bidarrain itzuliak izango lirateke, hau da, 1945 eta 1947 bitartean gutxi gorabehera. Hipotesia egiantzekoa eta daitekeena da, baina ez dut uste nahikoa oinarria dugunik *null hypothesis* gisan erabiltzeko; Ca-alter-ek, bestalde, ez du honen alde egingo lukeen arrastorik erakusten —egia bada ere ez duela zertan erakutsi behar—. Oso oker ez banabil, IX. liburuaren itzulpena bukatu zuenean utzi egin zuen *Aitorkizunen* itzulpena misalari ekiteko, Donibane Lohizunen ja; misalari eskerrak lortutako sosekin Ameriketara joatea erabaki zuen baina, agidanean, ontzia itsasoratu arte jarraitu egin zuen *Aitorkizunekin*, hots, X. liburuarekin eta, noski, berea zuen Trabucco-tik, harik eta bapatean utzi behar izan arte, X, 36, 58 paragrafoa itzultitakoan. Ez zuen Trabucco Ameriketara eraman eta, saiatu bazen ere, ez zuen inork hara bidaltzea lortu: beste edizio bat bilatu behar izan zuen eta jesuita euskaldun baten bidez eskuratu zuen, 1953ko udara aldean-edo, Vega-ren BAC-eko edizio erabilgarria. Berriz ekin zion, bada, 1949an lagatako lanari: ez, agian, utzi zuen paragrafo berberean, baina bai behintzat, zalantzarik gabe, XI. liburuan eta XIII.a amaitu arte. Ez dirudi ordea El Salvadorren itzultitako guztia BAC-eko ediziotik egin zuenik; zenbait pasartek beste eredu bat salatzen dute —testu zahar bat berriz ere— eta, agidanean, BAC-eko ale haren jabeak ziren jesulagunen liburutegiko arau zorrotzek ematen dute honen zergatikoa: BAC-ekoa itzuli behar izaten zuen bakoitzean beste edizio —kaskarrago— bat hartuko zuen Orixek, berriz ere BAC-ekoa atera ahal izan arte. Bigarren eta azken idatzaldia —Lazkaokoa— ontzeko 1946ko BAC-eko edizioa erabili zuen: I-V liburuetan bai, gauza dezente ukitu zituen (eta ez dira falta, hemen aztertu ez baditugu ere, BAC-eko edizioa salatzen duten zuzenketak); V-IX liburuetan, berriz, gauza gutxi, eskua eredu berrira luzatzeko behartuko zuketan kontuei dagokienez behinik behin; eta pentsatzekoa da X-XIII liburuetan ere antzera egingo zuela. (Gero, noski, Lekuona etorri zen: lehenengo, edizio —oker ez banago elebakar— batekin; ondoren, BAC-ekoarekin hura ere, baina 1955ekoarekin oraingo honetan. Baina hau beste kontu bat da).

Badu garrantzia Orixek ibili zituen edizioei buruzko auzi honek: alde batetik, noski, liburuaren historiako alderdi esanguratsu bat osatzen duelako eta, aldi berean, historia horren berorren beste alderdi batzuk berreraikitzen laguntzen digulako, lan honen lehenengo zatian eta arestian ere ikusi ahal izan dugun bezala; baina, batez ere, erabat ezinbestekoa izango delako *Aitorkizunen* testua finkatzerakoan.

### III

#### Mokoroaren txostena

Askotan aipatu behar izan dugu, gure lan honetan zehar, on Justo Maria Mokoroak 1954ko abenduan eta 1955eko urtarrilaren lehenengo egunetan ondu zuen eta Orixeri bidali zion *Aitorkizunei* buruzko txostena (37-39 eta 48-50 or.): makinaz eta alde bakar batetik jotako zazpi orri dira eta, funtsean, itzulpenaren zintzotasunari eta euskararen nolakotasunari buruz dihardute. Esana dugu, orobat, Mokoroak aztertu zuen *Aitorkizunen* testua lehenengo idatzaldiarena izan zela —bigarrena jaio gabe zegoen oraindik—, eta ez testu osoa ezpada I-IX eta X liburua zituzten ca eta cb behatzizkribuak, hots, Orixek Iparraldean itzuli zuen zatia hain zuzen ere. Paper hauen bi aldaki gorde dira: bata, zalantzarik gabe kalko baten bidez egina, Mokoroaren artxiboan omen dago —edo, behinik behin, zegoen—;<sup>1</sup> bestea, berriz, idazmakinak jotako lehenengo aldakia da, Orixeri bidali zion berbera alegia (ikus XXVIII irud.): Mokoroaren eta Orixeren beraren eskuzko oharrekin zuzendua eta iruzkindua dago, eta gaur Lazkaoko beneditarren etxean da. Txosten honi, bere apalean nahi baldin bada, biziki interesgarri irizten diogu: lehenik, noski, *Aitorkizunen* historiako kapitulu garrantzitsu bat osatzen duelako; bigarrenik, guganaino heldu ez diren bi testuren lekukotasuna delako, hots, ca-prior eta cb-rena (ca-prior baita, segituan frogatuko dugunez, Mokoroak aurrean izan zuena, eta ez Lazkaon dagoen Ca-alter); eta, hirugarrenik —baina ez, inondik ere, azkenik—, bertan dugulako Mokoroak berak Orixeren *Aitorkizunei* buruz eman zuen iritzi xeheena eta osoena.<sup>2</sup>

Ez dakigu zer dela-eta hartu zuen Mokoroak lan neketsu hau, hots, *motu proprio* izan ote zen ala Orixek eskatuta; nolana ere den, merezi du gogoratzea aita Mokoroa izan zela seguruenik, sasoi hartan bizirik zirenen artean, Orixek euskalari gisa gehien estimatzen zuen gizona: «El P. Justo M. Mocoora, el mejor concedor actual, quizá, del idioma vasco [...]» dio hartaz *Euskaldunak* poemaren erdal itzulpenerako 1951n idatzitako hitzaurrean, eta huraxe jarri nahi izan zuen inprimaketaren arduradun bai 1935ean, *Euskaldunak* argitaratzeko lehenengo asmoa ustel gertatu baino lehenago, bai 1950ean —azken honetan ere alferrik,

---

<sup>1</sup>Paper hauen berri, Orixeren hainbat konturena bezala, Iztuetak [1991, 135 or.] eman zuen lehenbiziko aldiz, eta Mokoroaren artxiboan dagoen edo zegoen aldaki hau aipatzen du. Baina txostenak, Iztuetak diotenaren kontra, ez du izenbururik: «Oarkabez utziak» ez da txostenaren izenburua, ezpada haren lehenengo atalarena (ikus, beherago, gure edizioa); eta ez dira sei orri, zazpi baizik, gorago esan bezala (azken puntu honi dagokionez ordea daitekeena da Iztuetak ikusi zuen aldakia osoa ez izatea).

<sup>2</sup>Txosten honetako hitzak eta pasarteak aipatzeko gure edizioan —eranskin honen akaberan— ezarri ditugun zenbakiez baliatu gara.

dakigun bezala—.<sup>3</sup> Bi ikuspegitik begiratzan zion Mokoroak, mintzagai dugun txosten honetan, Orixeren itzulpenari: batetik, jatorrizko latinarekiko leialtasunarenetik eta, oro har, itzulpenaren txukuntsunarenetik; bestetik, euskararen nolakotasunaren ikuspegitik.<sup>4</sup> Horrela, eta lehendabizikoari dagokionez, begien aurrean jartzen dizkio jaso gabe utzi dituen pasarte edo hitz zenbait, gaizki ulertutakoak, bere ustez ilun gelditu diren esaldiak, etab. (baita beste era bateko hutsak ere: esaterako, makinaz jotzean egindakoak...)<sup>5</sup> Hizkuntzari berari buruzko oharretan honako gai hauek dira nagusi: Orixek darabiltzan grafiaren eta morfologiaren aldakortasuna, testua —bere ustez— jatorrago egingo luketen proposamenak, Orixek asmatuak edo ustez berpiztuak diren zenbait adizkiren kontrako iritziak... Eta esan gabe doa, jakina, ohar hauek benetan egin zitezkeen hautaketa —seguruenik arbitrario— bat besterik ez direla. Askotan jaramon egiten dio Orixek, agian itzulpenari buruzko oharkezin batetik; dezentetan, berriz —batez ere hizkuntzari buruzkoetan, agidanean—, zuzendu beharra onartzen dio Mokoroari baina hirugarren itenbide bat bilatzen du: batek esango luke Orixeren izaeraren ezaugarria dela jarrera

<sup>3</sup>*Euskaldunak poema eta olerki guziak...*, xlv or.; 1935eko saioari buruz ikus Iztueta [1991, 714-715 or. eta 733-737 or.] eta Mokoroari berari 1935eko apirilaren 2an eta 1935eko urriaren 23an egindako gutunak (PIA); 1950ekoaren gainean —eta baita 1935ekoaz ere— ikus Mokoroak poemaren 1980ko edizioari jarritako hitzaurrea (*Euskaldunak...*, [xxi-xxii] or.). Mintzagai ditugun paperetan gehiegi erabili behar izan ez bazuen ere, bazuekan aita Mokoroak dohain bakan bat, hots, filologiarako —esan nahi baita, testukritikarako eta antzeko kontuetarako— halako jaidura bat: seguruenik jakin gabe, *naturaliter philologus* balitz bezala alegia. Hemen axola zaigun istorioarekin lotuta dauden bi adibide bakarrik aipatuko ditut. 1954ko abenduaren 14an karta egiten dio Orixek Zaitegiri esanez, beste zenbait gauzaren artean, Itxaropena argitaletxeak inprimatu berri dion *Bidalien egiñak* liburuan inprimatze-huts gutxi bide direla, argitaletxe bereberan eta sasoi bertsuan Manuel Lekuonak atera duen *Gero*-ren edizioan ez bezala: honek 800 bat huts ditu, «Ibar'en iritziz» (PIA). Ez dut uste gizaki asko izango zenik, hamarkada haietako Euskal Herrian, ez ja Axularren testuan 800 huts harrapatzeko gauza zena, ezpada Axularren —edo beste edonoren— testuarekin horrelako zerbait egiteko burutazioa izan zezakeena. Bigarren adibidea Orixeren beraren *Euskaldunak* poemari dagokio eta Mokoroak 1980ko edizioaren zarrera-gutunean irakurri ahal da: «Hubo alguien [...] que para ensalzar el esmero tipográfico de la edición [sc. 1950ekoarena], llegó hasta escribir [...] que el libro no contenía una sola errata. En realidad, fueron tantas y tales las que iban saltando a mis ojos a la primera lectura, que, mirando por el prestigio de la obra, creí necesario publicar un folleto aparte con las correcciones. Sometí con tal objeto mi copiosa lista al VºBº de Orix; la completó él con unas pocas adiciones y algún retoque dado al propio texto primitivo [ikus Mokoroarentzako 1951ko uztailaren 21eko eta 1951ko urriaren 27ko gutunak, PIA] [...]. Al no disponer de recursos suficientes, tuve que desistir del intento, hasta que, trece años más tarde, enterado de que se planeaba una segunda salida del Poema [sc. Añamendi argitaletxeak 1972an kaleratutakoa], puse mi *Fe de erratas* a disposición de los nuevos editores. Gracias a ella, en efecto, salió la 2ª edición con un texto mucho más aceptable» ([xxii-xxiii] or.). Inoiz euskal filologiaren historia egiten baldin bada —filologia, esan bezala, hitzaren zentzu hertsian ulertuta— toki bat izan beharko du aita Mokoroak.

<sup>4</sup>Argi hitz egiten dute bertan ukitzen diren gaien buruz txosten honek dituen zazpi atalen izenburuek: «1. Oarkabez utziak», hau da, Orixek, latinezko jatorrizkoa itzultzean, konturatu gabe jasotzeko utzi dituen hitz edo esaldiei buruzkoa; «2. Nerekiko oker artuak», hots, Mokoroaren ustez Orixek 'gaizki ulertu' dituen pasartei buruzkoa; «3. Otezkoak», alegia Mokoroarentzat zalantzarik diren kasuei buruzkoa; «4. Illuntxoak»; «5. Beste oar eta iritziak batzuk»; «6. Aditzari buruzko oarrak»; «7. Aditzari buruzko utsak».

<sup>5</sup>Mokoroaren ohar zenbait erabili zuten latin edizioaren argitan bakarrik uler daitezke: inoiz aipatzen ez badu ere, 26 eta 38 zenbakietatik abiatuta inongo zalantzarik gabe egiazta daiteke honako hau izan zela: *S. Aurelii Augustini Confessionum libri XIII*, cum notis rev. P. H. Wangnereck, S.J., Torino, Società Editrice Internazionale, 1942 edo urte hau baino lehenago eta 1631ko lehendabiziko ediziotik egin ziren inprimaketa ugarietako edozein. (Ikus, edizio honen gainean, II erans. 371 or.). Honetaz gain, Wangnereck-en edizioak beste modu batera banatzen eta zenbatzen ditu paragrafoak, eta honek ere sortu zuen gaizki ulertu bat baino gehiago: ikus 40, 42, 61 zenbakia (eta baita, seguruenik, 5 zenbakia ere). Baina inoiz BAC-eko edizioa ere hartzen du eskuen artean, 43 zenbakian ikus daitezkeen bezala.

hau.<sup>6</sup>

Itxura batean, Mokoroak aurrean izan zuen eskuizkribua (I-IX liburuetako testua bakarrik izango dugu hemen mintzagai, X. liburuarenari buruz ezer gutxi esan ahal baitugu) Lazkaon dagoen Ca-alter bera izan zen: erreferentzia gisa ematen dituen orri zenbakiak Ca-alter-enak berak dira (hutsak diratekeen bi kasutan izan ezik)<sup>7</sup> eta aipatzen dituen testu zatiak, lehenengo begi kope batean behintzat, bat datoz, hutsak barne,<sup>8</sup> Ca-alter-eko testuarekin; are gehiago, Ca-alter-en eskuz gehituta dauden hitz batzuk ere aipatzen dira Mokoroaren txostenean: esaterako, «txabola zabal» aipatzen du (26 zenb.), «zabal» hori Ca-alter-en eskuz egindako gehiketa delarik (C, 117 or. = IX, 7, 16); «zein maisu galdordunik» aipatzen du (38 zenb.), hitz horiek ere ezabatuta dauden beste batzuen gainean eskuz gehitutakoak izanik (C, 11 or. = I, 16, 25); eta, azkenik, «barneago» aipatzen du (86 zenb.), eta hitz hori ere eskuz egindako zuzenketa bati esker bakarrik irakur daiteke (C, 13 or. = I, 18, 29). Baina, polikiago begiratu ez gero, aldaera susmagarriak aurkitzen ditugu txosten honen zenbait pasartetako testuaren eta Ca-alter-ekoaren artean:<sup>9</sup>

Erregeri beure irian, iñork ordurarte agindu eza —ez berak ere— agintzea zillegi ba zaiio (C, 31 or. = III, 8, 15)	«Erregeri beure irian ... zillegi <u>bada</u> » Ba <u>zaiio?</u> <u>dakio?</u> Erregek beure irian, artean iñork egindu ez dunik agintzea zillegi badu... (17 zenb.)	Erregeri beure irian iñork ordurarte agindu eza —ez berak ere— agintzea zillegi ba'zaiio (B, 35 or.; A, 66, 22-24)
---	--	---

Beraz, Mokoroak, «Erregeri beure irian... zillegi bada» (azpimarratua Mokoroarena berarena da!) Orixeren eskuizkribukoa bezala aipatu ondoren, honako hau proposatzen dio esaera hobetzeko: «ba zaiio? dakio?; 'bada' kopiatzea 'bazaio' baten ordeztuz uler daitekeen hutsa da, baina zailago ulertzen da Mokoroak 'bazaio' proposatzea 'bazaio' dioen esaldi bat zuzentzeko. Ondoko bi kasu hauek, hain esanguratsuak ez badira ere, badute zer esanik auzi honetan:

aizekeri oek eramanik (C, 13 or. = I, 18, 28)	«aizekeri oien mende... etc.» Aizekeri oiek arrotuta (puztuta) zugandik alde nindoala...? (84 zenb.)	aizekeri oek eramanik (B, 15 or.; A, 32, 15)
Nork erakarriko zakidit (C, 2 or. = I, 5, 5)	«Nork erakutsiko <u>zakidit</u> » <u>Zaitzakit?</u> (8 zenb.)	Nork erakarriko zatzait [zakit A] nere biotzera (B, 3 or.; A, 13, 4-5)

<sup>6</sup>Mokoroak egiten dituen itzulpenari buruzko proposamen guztiak ere ez dira zuzenak: horrela gertatzen da, esaterako eta gutxienez, 12, 24, 33, 43 zenbakietan; aipatu kasu hauetatik 24.ean bakarrik egiten dio kasu Orixek. Ari gara objektiboki gaizki dauden interpretazioei buruz: besterik dira —hauek, begien bistan dauden arrazoiengatik, ez ditugu aztertuko— Orixeren itzulpena zatartu egiten duten iradokizunak, batik-bat itzulpen exegetikoak eta antzekoak proposatzen dituztenak. Bestalde, hizkuntzari buruzko proposamenei dagokienez, gogoratu beharra dago Orixek 1955eko urtarrilaren 14ko gutunean ziotsona, Mokoroak adizki trinko xeble batzuei buruzko kritikari erantzunez: «Arrazoi dezu. Gizagajoa! Zer penitentzi eragin dizudan! Ikusten zaitut zure gela-txokoan, eskuak buruan, ile-tiraka, *neoflexismo* oietako zenbaitekin oztupo egitean. Neroni ere lotsa ematen didanak ba-dira, ta pozik kenduko ditut» (ikus gutun osoa 49 or.).

<sup>7</sup>118 orrikoa bezala aipatzen du, 117koa izan arren, 53 zenbakia; eta 122koa, 121ekoa izan arren, 56 zenbakia.

<sup>8</sup>Esaterako, «ikaratiekin» hitzaren ordeztuz «iakaratiekin» idatzi duela jakinarazten dio (18 zenb.); «beatzera» hitzaren ordeztuz «betazera» (19 zenb.); «iarraikizun» hitzaren ordeztuz «irraikizun» (51 zenb.); etab.

<sup>9</sup>Ezkerrean Ca-alter-eko testua; erdian Mokoroaren iruzkina; eskuinean B-ko testua. Baina xehetasun gehiagarorako ikus, behegera, edizioa bera.

nahiz eta, azken kasuari dagokionez, Mokoroak proposatu edo, hobeto, nabarmendu nahi izan duenak zer ikusirik ez izan bi testuen artean dagoen aldearekin. Baina, agian, aipatu ditugun hiru kasu hauek baino askoz frogagarriagoa da ondoko hau. «Aditzari buruzko utsak» izenburua duen atalean Mokoroak «diraken» bat aipatzen du oker eraturako edo oker erabilitako adizkitzat (ikus, beherago, 111 zenb.); «diraken» horrek C-ko bosgarren orrian egon behar luke, bertan dagoen *Aitorkizunen* lehenengo liburuko seigarren kapituluari dagokion zatian hain zuzen ere, baina Ca-alter-eko ez bosgarren ez inongo orritan ez dago horrelakorik. Aipatu I, 6 kapituluaren B-ko testura jotzen badugu ordea hara non aurkitzen dugun, inongo zalantzarik gabe, bila gabiltzan «diraken» bera:

[...] eta ontatik artuko dute, nolabait igaro diran oriek bezala, nolabait diran igarotzeko oriek ere (C, 5 or. = I, 6, 10)	«Diraken» Diratezken... (111 zenb.)	[...] ta ontatik artuko dute nolabait igaro diran oriek bezala, nolabait diraken oriek ere (B, 5 or.)
---	--	---

Bistan da, hortaz, makinaz jotako «diran igarotzeko» hitzak ezabatuta zeudela ca-prior-en eta haien gainean «diraken» zuela idatzita, eskuz, Orixek.<sup>10</sup> Lehendik ere susmatzen genuen (ikus 69-71 or.) B-ko testua —edo, nahiago bada, b-koa— ez zela egin Ca-alter-etik abiatuta, ca-prior aldakitik baizik: C-tik B-ra bidean Orixek ez zuen, pasarte honetan, aldaketarik egin (ezta, noski, Mokoroaren proposamena jasotzeko), eta horrela B-ko testuak ca-prior-ekoaren lekukotasuna ematen digu.

Beraz, frogatuzat jo dezakegu Mokoroak eskuen artean izan zuen eskuizkribua ca-prior izan zela eta ez Ca-alter; cb-ri buruz, arestian esan bezala, ezin dugu ondoriorik atera, baina arrazoizkoa da pentsatzea I-IX liburuen testua zuen behatzizkribuaren lehenengo aldakia izan bazuen, X. liburua zuenari dagokionez ere lehenengoa izango zuela, hau da —eta honen kasuan ere aldaki bat baino gehiago izan baldin bazen, ez baitugu honen froga erabatekorik—, cb-prior. Bestalde, eta hau bezalako egiaztapen baten beharrik ez badugu ere, bat dator honekin guztiarekin mintzagai dugun txosten honen inguruko beste datu bat: lehen ikusi dugunez, Mokoroak izan zituen behatzizkribuak Orixek zerabiltzanak berak ziren, Orixe Tolosatik Lazkaora joateko zegoenean itzuli egin behar izan baitzizkion bere txostena idatzi baino lehenago; eta arrazoizkoa da pentsatzea Orixek erabiltzen zituenak lehenengo aldakia zirela eta ez kalkoarekin ateratako aldaki bat edo aldaki bakarra. (Honetaz gain, espresuki baztertu behar da —erraz izan bailezake horrelakorik pentsatzeko tentazioa— honako hipotesi hau: Mokoroak begien aurrean izan zuena izatea C-ren eta B-ren artean egongo zatekeen beste idatzaldi bat. Honen kontra hitz egiten dute, klaru hitz egin ere, Mokoroak aipatzen dituen pasarteetan eta guk ezagutzen dugun C-ko —hots, Ca-alter-eko— testuaren arteko bat etortze ugariak, orrien zenbaketari dagozkionak barne direlarik).<sup>11</sup>

<sup>10</sup>Antzeko zerbait gertatuko zen C-ko 3. orrian egon behar luketen «mintza zakio» hitzekin (110 zenb.), baina oraingo honetan aldatu egingo zen testua, ezin izan baititut aurkitu ez Ca-alter-en ez B-prior-en.

<sup>11</sup>Ohar bedi ondo arestian aztertu dugun zerrendako kasu guztiak *Aitorkizunen* I. liburukoak direla: zalantzarik gabe, ca-prior-eko lehenengo orriak landu eta zuzendu zituen Orixek gehienbat, ohi denez. (Ondoren emango dugun zerrendan ere, nahiz eta proportzio txikiagoan, gauza bera gertatzen da: seinalea, lehen aipatuaz landara, bigarren zerrenda horretako kasu asko ere benetako aldaerak direna eta ez kopiaketan sortutako

Mokoroaren txostenean aipatzen diren pasarteetan eta Ca-alter-eko testuaren artean dauden gainerako aldaerak —gure ikuspuntutik begiratuta— oso bestelakoak dira, guztiak jo daitezkeelako kopiaketan egindako hustzat edo, zenbait kasutan, Mokoroak nahita egindako moldaketa banaren ondorioztat —zaila delarik, batzuetan, bi zergatiko hauen artean bereiztea—:<sup>12</sup>

	Ca-alter	Mokoroaren txostena
9 zenb.	beure buruz erruki ez dan errukaria	bere buruz erruki ez dana
12 zenb.	itsusirako; baiñan [...] Zure legeetan	itsusirako, baiñan [...] zure legeetan
28 zenb.	Zure	zure
30 zenb.	[...] ua iraupenez irabazi Zuretako	[...] ua iraupenez irabazi Zureztat
31 zenb.	Argi etzazu, launa, Zure	Argi etzazu zure
38 zenb.	Zein maisu galdordunek <sup>13</sup>	Zein maisu galdordunik
50 zenb.	iauregian	Jauregian
64 zenb.	Nork deituko zaitu ez ezagunik?	Nor deituko zaitu ez ezagunik?
67 zenb.	erdi-unea	erdi-une
82 zenb.	ifarnuko ibai	ifernuko ibai
83 zenb.	itxaropen aundiko mutiko	itxaropen aundiko mutikoa
85 zenb.	gizona bera gorrotoago	gizona bera baiño gorrotoago
93 zenb.	gizonki maitatzen	gizonki maite
94 zenb.	laguna ta etsaia ere Zugatik	laguna eta etsaia ere zugatik
99 zenb.	Zu aldiz, beñere ez	Zu aldiz beñere ez
112 zenb.	luzatu zan [...] galgariago litekelakoan	luzatu zan, galgarriri litekelakoan
114 zenb.	isiltzen	ixiltzen
117 zenb.	etzakidie agertzen	zakidie agertzen

Bestela esanda: bigarren zerrenda honetako aldaera asko lehenengo zerrendakoak bezalakoak dirateke, hau da, ca-prior-en eta Ca-alter-en arteko aldaeren islak; baina, gorago aztertu ditugunekin ez bezala, hauekin ezingo genuke erabat frogatu —zilegi ez ezik nahitaezkoa izan arren honen aztarrentzat jotzea— Mokoroak irakurri zuena ca-prior izan zela.

#### TESTUA

Mokoroaren txostena *Aitorkizunen* testu zati zenbaiti buruzko iruzkina da eta, horrela,

hutsak).

<sup>12</sup>Bistan da Mokoroak ez zuela inongo interesik aipatu behar zituen Orixeren pasarteetan hitz eta letra guztiak zehatz-mehatz kopiatzeko: horrela, esaterako, C-ko testuan *i*-rekin idatzita dauden hitz batzuk *j*-rekin kopiatu zituen, hauxe zelako Mokoroak erabili ohi zuen grafia eta bere proposamenak ez zuelako zer ikusirik kontu honekin; edo Jaungoikoari zuzendutako *zu* edo *zure* zenbait, Orixek letra larriarekin eskribituta zituenak, letra xehez eman zituen, orduan ez baitzen horretaz eztabaidatzen ari; etab. Beste batzuetan, baina betiere arrazoi berberengatik, Mokoroak laburtu edo moldatu egingo zuen —betiere laburtzearren— Orixeren testua, errazago iristeko benetan axola zitzaion zatira: hauxe izan daiteke, adibidez, «ez dana : ez dan errukaria» bezalako aldaera baten zergatikoa (9 zenb.) edo, zer esanik ez, Mokoroaren txostenean diren ezabatze askorena.

<sup>13</sup>Ca-alter-en, berez, urratu bat dago, eta urratu horren gainean eta eskuz eskribitua honako hau irakurri ahal da: «Zein maisu galdordunek».



txostenean mintzagai hartzen den zati bakoitzean —sarrera bakoitzean, nahi baldin bada— bi parte bereiz daitezke: lehendabizikoa, Orixeren testutik —edo jatorrizko latinetik— aipatzen den pasartea, hau da, Mokoroaren iruzkinaren edo kritikaren objektua dena; bigarrena, aipatu den testu zatiari buruz Mokoroak egiten duen iruzkina bera. Hauxe da, funtsean, hemen editatzen dugun testuaren egitura. Mokoroak Orixeri iradoki zizkion aldaketak —eta iradokizun hauen ondorioak— ahalik eta hobekien ulertzen lagundu dezakeen edizio bat egin nahi izan dugu eta, horrela, komenigarria iruditu zaigu aipatu bi osagai nagusi horiekin batera honako beste bi testu mota hauek ere ematea: batetik, auzitan dagoen pasarteari dagokion jatorrizko latina eta, bestetik, pasarte horrek B-ko testuan hartu duen itxura. Testua, hortaz, honela dago antolatuta: lehenengo zutabean, latin testua;<sup>14</sup> bigarrenean, Mokoroak aipatzen duen *Aitorkizunen* pasartea;<sup>15</sup> hirugarrenean, Mokoroak proposatzen duen zuzenketa;<sup>16</sup> laugarrenean, mintzagai dugun pasarteari B-ko testuan dagokion testua. Honetaz gain, Orixeren bi ohar ere badaude paper hauetan: biak dagozkien sarreren ondoren eman ditugu.<sup>17</sup> Ez ditugu jaso ez Mokoroak eman dituen erreferentziak (hots, ez ditugu jaso hark eman dituen bezala, modu osoago eta sistematikoago batean baizik), ez sarrera bakoitzaren bi zatiak bereizteko erabili dituen ikurrak, ez —hitz batean— inongo esanahirik ez duten markak edo seinaleak; berriz, Mokoroaren azpimarratuak jaso egin ditugu, hauek bai baitute funtzio jakin bat txosten honetan.

### 1. Oarkabez utziak

<p>1 [quod nomen Christi non erat ibi,] quoniam hoc nomen, secundum misericordiam tuam, Domine, hoc nomen salvatoris mei Filii tui, in ipso adhuc lacte matris, tenerum cor meum pie biberat et alte retinebat [et quidquid sine hoc</p>	<p>[Kristoren izenik etzala an ageri. Izen au gabekorik ezerk, legun eta txukun esanik ere, nire buruz gain ez ninderaman.] (C, 28 or.)</p>	<p>Izen au, Iauna, Zure urrikiz, Zure Seme ta nere Salbatzailearen izen au, amaren bular-bularretik txintxo edan baitzun nere biotz samurrak, eta barne-barnean zedukan. Beraz, izen au gabe idatzirik zegoen edozerk, ele</p>
--	---	--

<sup>14</sup>Jatorrizko latina Mokoroak aipatzen baldin badu, hark aipatu bezalaxe eman dugu, baita xehetasun txikienetan ere —bai baitu garrantzia, lehen ikusi dugun bezala—; Mokoroak aipatzen baldin badu baina testuinguru zabalago bat behar zela erabaki badugu, guk gehitua BAC-en 1946ko testutik hartu dugu eta taketen bidez bereizi, betiere Mokoroak aipatutakoa hark eman legez jasotzen dugularik (noski, Mokoroak ez badu latinik aipatzen, osorik sartu dugu taketen artean guk ekarritako aipua). Beste alde batetik, aita Mokoroak dakarren latin testua ez baldin badator bat Orixek bigarren idatzaldia egiteko erabili zuen BAC-ekoarekin, adierazi egin dugu.

<sup>15</sup>Mokoroak aipatzen dituen testu zatiak hark ematen dituen moduan jaso ditugu eta, hemen ere, testuinguru zabalago bat komeni zela iruditu zaigunean, osatu egin ditugu —noski Ca-alter-etik abiatuta—, baina arreta handiarekin bereiziz, taketen bidez berriz ere, Mokoroaren aipua dena —eta, beraz, ikusi dugun legez, caprior-etik datorrena— eta guk Ca-alter-etik gehitua. (Ca-alter-eko testuaren eta Mokoroak aipatutakoen arteko aldaerak gorago daude zerrendatuta, 390-391 eta 392 or.)

<sup>16</sup>Testu zati hauetan Mokoroak eskuz egindako zuzenketa eta gehiketak daude: hauek guztiak, eman nahi dugun testuaren zatia direnez gero, ez ditugu makinaz jotako testutik bereizi nahi izan.

<sup>17</sup>Bi ohar hauek, 1 eta 5 zenbakietan, «m2» deiturapean eman ditugu, erabili ez dugun «m1» izenari Mokoroak eskuz egindako oharrak bailegozkieke (hauen gainean ikus aurreko oharra). Baina hauetaz gain utzi zituen Orixek beste marka batzuk paper hauetan; izan ere, sarrera guztiak urrututa edo —zenbait kasutan— markatuta daude: zalantzarik gabe, jaso ahala —edo, behinik behin, aztertu ahala— urratu egiten zituen Orixek.

nomine fuisset,  
quamvis litteratum et  
expolitum et veridicum,  
non me totum rapiebat]  
(III, 4, 8)

ederrez, apain eta  
egiaz izanik ere, ez  
nindun enegandik  
ateratzen. (B, 30 or.;  
A, 59, 17-22)

m2: izen au, Iauna, Zure errukiz, Zure Seme ta nere {~~Osasunaren~~} Salbatzailearen izen au, amaren bular-bularretik edan baitzun nere biotz samurrak, eta barren barnean zedukan. Beraz, {~~fidatz~~} izen au gabe idatzirik zegoan {~~oro~~} edozerk ele ederrez apain eta egiaz izanik ere, ez nindun nigandik ateratzen.

- |   |   |  |   |
|---|---|--|---|
| 2 | [eo quod inflatus<br>essem novitate haeresis<br>illius] et nonnullis<br>quaestiunculis iam<br>multos imperitos<br>exagitassem [sicut illa<br>indicaverat ei] (III, 12,<br>21) | [oraino eskuragaitza<br>nintzala, heresi berri<br>batekin anpatua<br>nindagola, amak esan<br>zionetik] (C, 34 or.)       | oraino eskurakaitza<br>nintzala, heresi berri<br>batekin anpatua<br>nindagola, <i>ta auzitxo<br/>batzuekin ez-ikasi<br/>batzuk urduri utzi<br/>nitula</i> , amak esan<br>zionetik. (B, 38 or.;<br>A, 72, 13-16) |
| 3 | [Irrideant me<br>arrogantes et nondum<br>salubriter prostrati] et<br>elisi a Te [Deus meus]<br>(IV, 1, 1)   | [Maxia nazate,<br>ene Iainko, Zure<br>aintzinean oraino<br>belaunikatu ez diran<br>aundi-utsak.] (C, 35<br>or.)          | Maxia nazate, nere<br>Iainko, oraino<br>Zure aintzinean<br>belaunikatu <i>ta erori</i><br>ez diran aundi-utsak.<br>(B, 39 or.; A, 75,<br>17-19)   |
| 4 | [Quid est autem, quod<br>me movit, domine<br>Deus meus, ut ad]<br>Hierium [Romanae<br>urbis oratorem,<br>scriberem illos libros?]<br>(IV, 14, 21)                             | [Zerk eragin ote<br>nindun, ene Iainko<br>Iauna, iardun aiek<br>Erroma'ko mintzalari<br>ari eskeintzera?] (C,<br>44 or.) | Izen au, naita kendu<br>al dezu?<br><br>Zerk ote ninderagin,<br>ene Iainko Iauna,<br>iardun aiek Erromako<br><i>Hieri</i> mintzalariari<br>eskeintzera? (B, 49<br>or.; A, 92, 20-93, 1)                         |
| 5 | [ac per hoc student]<br>perversissima caecitate<br>[etiam tibi tribuere<br>quae sua sunt] (V, 3, 5)   | [Zure ez diranak ere,<br>gezurrak alegia, ola<br>egozten ditizue] (C,<br>51 or.)   | Itsumen zitalez...<br><br>Zure ez diranak ere,<br>gezurrak, alegia,<br>orrela ditizute<br>egozten (B, 54 or.; A,<br>105, 12-13)   |
| 6 | Cumque ad eum<br>finem sermo ... atque<br>innovanti omnia. (IX,<br>10, 24)  | (C, 120 or.)   | <u>osorik</u> <sup>18</sup><br><br>Ondorio ontara iritxi<br>giñalarik ... ta dana<br>berrituz. (B, 109 or.;<br>A, 231, 16-232, 11)  |

<sup>18</sup>Hots, IX, 10, 24 paragrafo osoa falta da C-n (120 or.): «Cumque [...] omnia» aipatu paragrafoaren

7 Ergo animus ad habendum seipsum angustus est <i>ut ubi sit, quid sit, non capiat.</i> (X, 8, 15) <sup>19</sup>	(cb, 4 or.)		Ortaz anima bere bera idukitzeko [idukitzeke A] estua da. Non dagoke beregan kokatzen ez dana? (B, 119 or.; A, 255, 9-11)
Obeki begiratu <sup>20</sup>			
2. <u>Nerekiko oker artuak</u>			
8 [Quis dabit mihi, ut venias in cor meum?] (I, 5, 5)	Nork erakutsiko <i>zakidit.</i> (C, 2 or.)	<u>zaitzakit?</u>	Nork erakarriko <i>zatzait</i> [zakit A] nere biotzera (B, 3 or.; A, 13, 4-5) <sup>21</sup>
9 [Quid enim miserius misero non miserante se ipsum] (I, 13, 21)	[Al da bada errukarigorik] bere buruz erruki ez dana [baiño?] (C, 9 or.) <sup>22</sup>	<u>buruaz?</u>	Al da, bada, errukarigorik beure <i>buruaz</i> erruki ez dan errukarria baiño? (B, 11 or.; A, 26, 12-13)
10 Laudes tuae, Domine, ... suspenderent <i>palmitem</i> cordis mei ..., ut [et BAC] non raperetur per inania nugarum <i>turpis praeda volatilibus.</i> (I, 17, 27)	[Zure gorespenak, launa, Liburu Sainduetako Zure gorespenak balditu zezaketen erroraiño nire biotza, ta ez zebilken eriosuar, arranoa bezala, lizunkeri zoro orien ondotik.] (C, 13 or.)	Et det uste bear bezela artu dezun: «arranoa bez#la» ta gaiñerakoa... (egaztizarren eize ... arrapakin ...?)	Zure goreskizunak, Jauna [launa A], Liburu Sainduetako goreskizunak arriturik iduki zezaketen ene biotza, ta ez zan ibilliko eriosuar <i>arranoaren erpeetan</i> , lizunkeri zoro orien ondotik. (B, 14-15 or.; A, 32, 7-10)
11 [Falli nolebam] (I, 20, 31)	[Ez nûn maite] bestek iruzur egin <i>zekididan.</i> (C, 15 or.)	<u>Zezaidan?</u> ... <u>iruzur zegidan?</u>	Ez nendun [nuan A] maite bestek iruzur egin <i>zezaidan</i> (B, 17 or.; A, 35, 20-21)

lehenengo eta azken hitzak dira. Izan ere, 120. orria moztuta dago, beheko aldean, guraizeekin-edo, eta moztu dana aipatu paragrafoari dagokiona da, ez gehiago ez gutxiago (ikus 69 or. 7 oh.).

<sup>19</sup>BAC-ek beste testu hau dakar: «[...] ut ubi sit quod sui non capit?». B-ko itzulpena, jakina, BAC-ekoaren arabera da.

<sup>20</sup>Hitz hauek, agidanean, ez dira inongo sarreraren zati (horregatik ez diegu zenbakirik eman), «Oarkabez utziak» atal osoari dagozkionak baizik.

<sup>21</sup>Ikus, honetaz, 270-271 or. Bestalde, «erakutsiko : erakarriko» aldaerari buruz ikus gorago 390-391 or.

<sup>22</sup>Merezi du aipatzea Ca-alter-eko testuan eskuz dagoela eskribituta «buruz» hitzaren z letra.

12	Totas manus ei dedi, vesaniae libidinis, <i>licentiosae</i> (supl. etiam) per dedecus humanum, illicitae autem per leges tuas. (II, 2, 4) <sup>23</sup>	Lizunkeri zoro ori <i>zillegi da gizadiaren itsusirako</i> , baiñan debeku da zure legeetan. (C, 16 or.)	Nere ustez oker artua: Gizadiaren begietan ere itsusi izanik zure legez debeku dan lizunkeri zoro orri...?	Lizunkeri zoro ori <i>zillegi utzi oi da</i> gizadiaren itsusirako; baiña debeku da Zure legeetan. (B, 19 or.; A, 39, 20-21)
13	[quia per quem me videt tantis peccatorum meorum languoribus exui, per eum se videt] (II, 7, 15)	[ni] oinbeste <i>pekatuen</i> gaitzetik [sendatu naunak berak egin baitu] (C, 22 or.)	<u>Pekaturen?</u>	ni sendatu naun medikuak berak egin baitu (B, 25 or.; A, 49, 14-15)
14	et tamen foedus atque inhonestus (supl. cum essem), elegans et urbanus esse gestiebam ... (III, 1, 1)	[Alare, aizekeri aundiz, itsusi ta lizun agertu nai, apain, eta iendeekiko.] (C, 25 or.)	Tarteko oar ori gogoan, begira zazu obeki zure itzulpena.	Alare, aizekeri aundiz, itsusi ta lizun <i>izanik</i> , apain eta iendeekiko [iendeekiko m2] agertu nai nendun [nuen A]. (B, 27 or.; A, 54, 1-3)
15	utrum <i>iusti</i> existimandi? (III, 7, 12)	<i>Zorionsu</i> ote? (C, 30 or.)	<u>Zintzo?</u>	<i>zuzen</i> ote (B, 33 or.; A, 63, 20)
16	[aut aliquid] post praesepia [fieri, quod ante mensam prohibeatur] (III, 7, 13)	[edo] <i>sukal-atzean</i> [egiten dana mai-aintzinean debekatzen dalako] (C, 30 or.)	Ikullu bazterrean ... Prakak askatzea, esate baterako, ikullu-bazterrean egin bear dala, ez mai-aurrean. Aliquid post praesepia fieri (sinitur) quod ante mensam prohibetur.	[...] edo <i>ukullu-bazterrean</i> egiten dana mai-aintzinean debekatzen dalako [...] (B, 34 or.; A, 64, 26-27)
17	[Si enim regi licet in civitate, cui regnat, iubere aliquid, quod neque ante illum quisquam nec ipse unquam iusserat] (III, 8, 15)	Erregeri beure irian [iñork ordurarte agindu eza —ez berak ere— agintzea] <i>zillegi bada</i> (C, 31 or.) <sup>24</sup>	ba <u>zaio?</u> <u>dakio?</u> (Erregek beure irian, artean iñork egindu ez dunik agintzea <i>zillegi badu</i> ...).	Erregeri beure irian iñork ordurarte agindu eza —ez berak ere— agintzea <i>zillegi ba'zaio</i> (B, 35 or.; A, 66, 22-24)

<sup>23</sup>Mokoroak dakarren latin testuak aldaera ugari —eta garrantzitsuak— ditu BAC-ekoaren —eta edizio gehienen— ondoan; Mokoroarena, oraingo honetan oso-osorik eta hark idatzi bezalaxe, hau da: «(Totas manus ei dedi, vesaniae libidinis), *licentiosae* (supl. etiam) per dedecus humanum, illicitae autem per leges tuas. “Lizunkeri zoro ori *zillegi da gizadiaren itsusirako*, baiñan debeku da zure legeetan”».

<sup>24</sup>Ikus honetaz gorago 390 or.

- 18 [a quibus rudes  
abyssi viatores, cum  
perturbantur, consolari  
solent] (VI, 1, 1) [oitu gabeko]  
*ikaratiekin* [beraiek  
egin oi dutena] (C,  
62 or.) Errata. *Ik*aratiekin. oitu gabeko *ikaratiekin*  
beraiek egin oi dutena  
(B, 63 or.; A, 125,  
15-16)
- 19 [et ecce ipse a capite  
usque ad pedes in loco  
est.] (VI, 3, 4) [ta burutik] *beatzera*  
[tokian dago bera.]  
(C, 64 or.) Errata. *Beatzera*. ta burutik *beatzera*  
tokian dago bera. (B,  
65 or.; A, 130, 15-16)
- 20 [Cum ergo nescirem  
quomodo haec  
subsisteret imago tua,  
pulsans proponerem  
quomodo credendum  
esset,] non insultans  
opponerem [quasi ita  
creditum esset.] (VI,  
4, 5) [Zure antz ori nola  
genduken ez nekila,  
galdeka iauki ordez,]  
*bekokiz iarki ninzaion*  
[nire ustearen  
neurriko zalakoan.]  
(C, 64 or.) Irakur zazu  
begiratu; S.  
Agustin ordurako  
bigundu-askoa  
zan. Ez du beraz  
ori esan nai. Ate-  
joka ta eskean  
joaten zitzaioa S.  
Ambrosio-ri, ea  
zertan ziteken gizona  
Jainkoaren antzeko;  
ez alegia *bekokiz*  
*#arkitzera* sinisogor-  
antzean. Zure antz ori nola  
genduken ez nekila,  
arren, iaukitzen nion,  
nola siñestuko, ez  
lotsagabe iarkiz, nik  
uste nuna zalakoan. (B,  
65 or.; A, 130, 20-22)
- 21 Et conabar cogitare  
te *homo* (sc. ego  
homunculus iste), eta  
[sic] *talis homo* (sc.  
quem tu bene novisti!)  
(id est, infirmissimus)  
summum et solum [et]  
verum Deum (VII,  
1, 1) Zu *gizon iduritzea*  
alegiten nendun  
eta alako ori Jainko  
aundiena ta bakarra  
uste zindudan. (C,  
77 or.) Berriz irakurtzea aski  
dezu ongi aditzeko  
S. Agustiniena: «Nik  
alajaiña zu buruz  
artu, ttattar onek  
Jainko aundia!».  
(Naizan bezalako  
ttattar onek). Gixontto onek,  
alegiten nendun  
[nuan A] Zu Iainko  
aundiena ta bakarra  
asmatzea (B, 75 or.; A,  
153, 13-14)
- 22 Et hoc uno ictu  
[...] [ut, quamvis  
non forma humani  
corporis, corporeum  
tamen aliquid cogitare  
cogerer per spatia  
locorum sive infusum  
mundo sive etiam  
extra mundum per  
infinita diffusum, etiam  
ipsum incorruptibile  
et inviolabile et  
incommutabile, quod  
corruptibile et violabile  
et commutabile  
praeponeram, quoniam  
[bet-betan] [...] [Giza-gorputz antzera  
ez ba da ere,  
gorputz antzeko  
zerbait iduritaratzea  
berrarazten  
ninduten, mundu  
barnera ixuria edo  
munduz landa edatua  
ote ziñan. Ustel-uki-  
alda-ezin diranak  
berak, ala ditezkenen  
aldean obetsirik ere,  
nongoa kenduz geroz  
ezer etzirala uste  
bainendun, ezta uts-
- Ez det uste bear  
bezela aditu dezunik  
kapitulu onen  
lenengo erdia.  
Erderaz ipiñiko  
dizut, zure paperak  
aurrean baneuzka  
euskeraz adierazten  
aisago moldatuko  
nintzana: Por ese  
tiempo concebía  
aún S.A. a Dios  
como algo *corpóreo*  
—aunque no de  
figura humana—;  
pero también a
- Giza-gorputz antzera  
iduritu ez ba'neza,  
ustel-ezin, autsi-  
ezin, alda-ezin Ua  
—nik naiago bainun  
ustelgarri, auskor  
eta aldakor dana  
baiño— gorputz-  
antzeko zerbait  
iduritaratzera beartzen  
nindun idurimenak,  
mundu barnera ixuria  
edo munduz landa  
edatua, ote zan. Ustel-  
uki-alda-ezin diranak  
berak, nongoa kenduz

<p>quidquid privabam spatiis talibus, nihil mihi esse videbatur, sed prorsus nihil, ne inane quidem, tamquam si corpus auferatur loco et maneat locus omni corpore vacuatus et terreno et humido et aereo et caelesti, sed tamen sit locus inanis tamquam spatiosum nihil] (VII, 1, 1)</p>	<p>zulo# ere. Mukulua tokitik kenduz geroz, eta tokia lurrez, urrez, aizez, uts gelditu, alare uts ori toki dala, uts zabaldua dala.] (C, 77 or.)</p>	<p>la vez como algo incorruptible, inviolable e inmutable (convencido como estaba de que esto era superior al ser corruptible, violable y mudable). Y a ese ser extrañamente corpóreo lo concebía, per spatia locorum; sive infusum mundo, sive etiam extra mundum per infinita diffusum. Irakur zazu arretaz.</p>	<p>geroz ezer etzirala uste bainendun, ezta uts zulo ere. Mukulua tokitik kenduz geroz, eta tokia lurrez, urrez [urez m3], aizez, uts gelditu, alare uts ori toki dala, uts zabaldua dala. (B, 75 or.; A, 154, 4-13)</p>
<p>23 Et intendebam ut cernerem quod audiebam: liberum voluntatis arbitrium causam esse ut male faceremus; et rectum iudicium tuum ut pateremur. (VII, 3, 5)</p>	<p>[Nentzuna alegiñez ulertu nai nendun, ots, guk gaitza egitea ta Zuk gu zentzatzea gure autamenetik zetorrela] (C, 79 or.)</p>	<p>Nere ustez ez daukazu ondo; edo ikutu bat bear luke. Nik onela ikutuko nizuke, al bait bereortan utziz: «Guk gaitza egitea geure autamenetik zetorrela, ta jasaitea zure burubide (irizpide...) zuzenetik». Ikusi zuk obeki.</p>	<p>Nentzuna alegiñez ulertu nai nendun, ots, guk gaitza egitea gure autamenetik zetorrela; [...] ta iasaitea Zure burubide zuzenetik. (B, 76 or.; A, 157, 3-5)</p>
<p>24 <i>Noveris</i> me iam esse Christianum (VIII, 2, 4)</p>	<p><i>Ezagutzen al duk kristau naizala?</i> (C, 95 or.)</p>	<p>Oker, nere ustez. <i>Noveris</i> imperativo egingo nuke: Jakizak kristau naizala. Edota: Kristau naizala jakifaren gaiñean jartzen aut. Edo zuk polikiago asmatuko dezun beste nolabait.</p>	<p>Kristau nauk, gero? (B, 89 or.; A, 186, 27)</p>
<p>25 [Ponticianus] [...] [Ponticianus] (VIII, 6, 15 eta VIII, 7, 16)<sup>25</sup></p>	<p>[Pontian] [...] [Pontian] (C, 101 or.)</p>	<p><u>Pontitianus</u> izena <u>Pontianus</u> egin dezu, <u>Pontian</u>.</p>	<p><i>Pontitian</i> [...] Pontian (B, 94 or.; A, 197, 8 eta 22)<sup>26</sup></p>

<sup>25</sup>«Pontitianus» beti Wangnereck-en edizioan.

<sup>26</sup>Lau aldiz agertzen da C-ko testuan izen hau, eta laurak VIII. liburuko 6 eta 7. kapituluetan (txostenean aipatzen den C-ko 101 orrian diren biak bakarrik ekarri ditugu hona: gainerako biak 99 eta 102 orrietan daude), baina Orixek Mokoroak nabarmendutako agerraldia bakarrik aldatu du. Ikus, honetaz, 312-313 or.

- |  |  |   |  |
|--|--|---|--|
| 26 In domo foenea. (IX, 7, 16)   | Txabola zabal. (C, 117 or.)  | Oker, nere ustez. Bere gorputza adierazi nai du S. Agustiñek. Nere edizioko adierazleak: «Corpus suum intelligit, iuxta illud: “omnis caro foenum”».  | gorputz argal au (B, 106 or.; A, 225, 6)   |
| 27 Nec Tu, quod per eos agis, sed quod ipsi voluerunt, retribues eis ... Etiam de alterius animae insania sanasti alteram. (IX, 8, 18)                                       | [On au ez duzu aiek naita egiten: baiñan aiek nai zutena ematen diguzu [...] bataren zorakeriz bestea sendatzen duzu] (C, 118 or.)   | Zati au berriz ikusazu, ezpaitago bear bezela artua: Gaiztoen lanaz ere onerako baliatzen daki Jainkoak, beren asmo biurriaz âztu gabe. <sup>27</sup> | Aien bidez dagiezuna ez-baiñan berek gogo dutena ematen diezu [...] bataren zorakeriz bestea sendatzen duzu (B, 107 or.; A, 227, 19-228, 1)  |
| 28 Ad cuius pretii nostri sacramentum ligavit ancilla tua animam suam vinculo fidei [...] Nemo a protectione tua dirumpat eam (IX, 13, 36)                                   | Sari orren balio izkutuari lotua zun bere bizia zure mirabe ark; <i>eten dezala etsaiak.</i> (C, 125 or.)  | Ikusi ta zuzendu.   | Sari orren balio izkutuari siñes-lokarriz lotua zeukan beure bizia Zure mirabe arek: <i>Ez beza eten etsaiak Zure gerizpetik.</i> (B, 113 or.; A, 240, 7-9)                                  |
| 29 [neque enim respondebit illa nihil se debere, ne convincatur et obtineatur ab accusatore callido, sed respondebit dimissa debita sua ab eo, cui nemo reddet] (IX, 13, 36) | [Ark ez du erantzunen zorrik etzula, salatzaile maltzurak auzitan gezurta ez dezan, ezperen, barkatuak ditula, ta barkatzaileari] <i>ez diokela</i> iñork itzuli. (C, 125 or.) | Ez dezaikela??  | Ark ez du erantzunen zorrik etzula, salatzaile maltzurak auzitan gezurta ez dezan; ezperen barkatuak ditula, ta barkatzaileari <i>ez dezaikela</i> iñork itzuli. (B, 113 or.; A, 240, 11-13) |
| 30 Cui servivit, fructum tibi afferens (sc. filium) cum tolerantia (sc. patientia) ut eum (sc. eumdem Augustinum) quoque lucraretur Tibi. (IX, 13, 37)                       | Bat serbitu zun, eta ua iraupenez irabazi Zuretzat. (C, 125 or.)   | Semea ez dezu aipatzen; eta guziz bearrekoa zan or.   | Ari men egin zion, Zu'ri zitua (semea) eman ez iraupenarekin Zuretzat irabazi zezan. (B, 113 or.; A, 240, 16-8)  |

<sup>27</sup>Mokoroak, mintzagai ditugun paper hauetan behinik behin, ez du inoiz azentu zirkunflexua erabiltzen, bokal luzea adierazteko erabili ohi den marratxoa baizik: guk, nahasketarik ezin gerta daitekeenez, zirkunflexuaren bidez eman dugu beti. (Honako hauek dira txosten honetan diren guztiak: «âl» [109 zenb.]; «âztu» [27 zenb.]; «lên» [54, 58 eta 109 <bis> zenb.]; «nâsi» [69 eta 82 zenb.]). Orixek ere onartu bide zuen grafia xeble honen gainean ikus V erans. 425 or. 8 oh.

31	inspira ... servis tuis (id est) fratribus meis; filiis tuis (id est) dominis meis. (IX, 13, 37) <sup>28</sup>	Argi etzazu zure otseñak, ni otsein binaute. (C, 125 or.)	Obeki begiratu.	Argi etzazu, Iauna, Zure otseñak, nere senideak ni otsein binaute (B, 113 or.; A, 240, 18-19)
32	Memineri<n>t parentum meorum in hac luce (id est, vita) transitoria; fratrum (id est, qui sunt fratres) sub Te Patre in matre catholica; civium (id est, qui erunt cives mei) in aeterna Ierusalem. (IX, 13, 37)	[Ene guraso ta senide gogora betzate mundu iragankor ontan, Zu Aitarenpean eta Eliza Katoliku Amarenpean; baita betiko Ierusalem'go uritarrek ere] (C, 125 or.)	Begiratu obeki: beure gurasoeri esaten die Jainkoagan eta Elizagan senide, ta zeruan errikide.	Ene guraso ta senideetaz oroi bitez mundu iragankor ontan Aita Zurepean eta Eliza Katoliku Amarenpean; baita betiko Ierusalem'go uritarrek ere (B, 113 or.; A, 240, 23-26)
33	Ut quod a me illa (Ierusalem) poposcit ... et praestet. (IX, 13, 37) <sup>29</sup>	[Onela, amak eskutzen didan azken- otoitza ene otoitz soila baiño ioriago diteke, aitorpen auek araziko duten aunitz otoitzen bitartez.] (C, 125 or.)	Begiratu obeki: Zeru ark eskutzen didana (birtutea), berak eman ere dezaidan...	Onela, amak eskatzen didan azken-otoitza ene otoitz soila baiño io<r>iago diteke aitorkizun auek araziko duten aunitz otoitzen bitartez. (B, 113 or.; A, 240, 27- 241, 3)
34	[Tu enim, Domine, diiudicas me] (X, 5, 7)	Zu <i>nauzu</i> ebazle	<i>zaitut?</i>	Zu <i>zaitut</i> ebazle (B, 116 or.; A, 248, 13)
35	[Homines autem possunt interrogare] (X, 6, 10)	galdegin <i>dukete</i>	dirote; dezakete	Gizonek, aldiz galdegin <i>dezakete</i> (B, 117 or.; A, 251, 7)
36	Calamitates deliciae vocantur (X, 31, 43)	Atsegiñen atsegabe dute izen.	Oker aditua dirudi, «atsegiñek» ipiñi arren ere.	eta atsegiñaren atsegabe dute izena (B, 130 or.; A, 280, 15)
37	Non est alius (sc. transitus) qua transeat, quam qua transire cogit necessitas (X, 31, 44)	Igaroteko, ez da bear beste iragangurik.	Oker ezpadago, illun bai: bear-beste? Begiratu obeki.	igaroteko ez da beste iragangurik bearrak ala eraginda (B, 130 or.; A, 280, 19-20)

<sup>28</sup>Jatorrizko latin testuak honela dio: «Et inspira, Domine meus, Deus meus, inspira servis tuis, fratribus meis, filiis tuis, dominis meis, quibus [...] servio».

<sup>29</sup>Latinak honela dio: «[...] ut quod a me illa poposcit extremum uberius ei [et Wängnereck] praestetur in multorum orationibus [tam add. Wängnereck] per confessiones quam per orationes meas».



3. Otezkoak

38	Quis [...] <i>paenulatorum</i> magistrorum (I, 16, 25)	Zein maisu <i>galdordunik</i> (C, 11 or.)	Nere edizioak: <u>penulatorum</u> ; oar onekin: «id est palliatorum: est enim penula vestis quae tunicae iniicitur adversus frigoris et tempestatis vim. Ea aetate utebantur professores grammaticae». Zuk ikusiko.	Zein maisuk txartexa dunik (B, 13 or.; A, 30, 4-5) <sup>30</sup>
39	Non fuit cura meorum, ruentem excipere me matrimonio (II, 2, 4)	Ez <i>zitzaien axola</i> [...] ni ezkonaraztea (C, 16 or.)	Gure ontan «no les importaba» adituko dizue. Ez ote guretzat argiago: «Etzuten arretarik izan (ukan) ni ezkonarazteko?»	<i>Etziran axolatu</i> [...] ni ezkonarazteaz (B, 19 or.; A, 39, 21-23)
40	[Ecce <est add. BAC> ille servus fugiens...] (II, 6, 14)	Ara morroia... (C, 21 or.)	Or asten da nere edizioan 7'gn kapitulua.	Ara morroia... (B, 24 or.; A, 48, 15)
41	[et pudet non esse impudentem] (II, 9, 17)	[Lotsagabe ez izanak] lotsagabetzen gaitu. (C, 23 or.)	Lotsatzen?	Lotsagabe ez izanak <i>lotsatzen</i> gaitu. (B, 26 or.; A, 51, 12-13)
42	[Quid est, quod homo ibi <ibi homo BAC> vult dolere] (III, 2, 2)	Negargarri ... (C, 25 or.)	Or asten da nere edizioan 2'gn kap.	Negargarri... (B, 27 or.; A, 54, 15)
43	Usque ad quod omnino non est (III, 7, 12)	ezaren beraren mugaraiño (C, 30 or.)	BAC-en ere adiera orixe ematen zaio. Baiña <u>quod</u> ori ez al diteke beste alde batera artu? Usque ad quod (bonum, sc.), omnino non est: on ez dan eifnean deus ere ez dana? On ez dan arteraraiño ... ? Barkatu ausardia. <sup>31</sup>	ezaren beraren mugaraiño (B, 33 or.; A, 63, 24-64, 1)

<sup>30</sup>«txartexa» hitzak oin-ohar bat du zintzilik B-ko aipatu orrian: «txartexa: capa»; ikus IV erans.

<sup>31</sup>BAC-eko erdal itzulpenak, izan ere, honela dio: «[...] hasta llegar a la misma nada».

44 Factus ei eram familiarior (IV, 3, 5)	Adiskidetu (C, 37 or.)	Ez ote da <u>reconciliari</u> balitz bezela oker artuko «adiskidetu» orri?	Lagunabar egin nintzaion (B, 41 or.; A, 78, 25)
45 [An et fletus res amara est et prae fastidio rerum, quibus prius fruebamur, et tunc ab eis abhorremus, delectat?] (IV, 5, 10)	[Samin al da negarra? eta len goxo zitzaigunaren nardak eta] nardatzean [pozten al gaitu?] (C, 39 or.)	nardatzeak? nardatzeaz?	Samiñ al da negarra? eta len goxo zitzaigunaren nardak eta <i>nardatzeak</i> al gaitu pozten? (B, 43 or.; A, 82, 21-23)
46 [et satis aperte mihi videbantur loquentes de substantiis, sicuti est homo, et quae in illis essent, sicuti est figura hominis qualis sit, et statura quot pedum sit, aut cognatio cuius frater sit; aut ubi sit constitutus, aut quando natus, aut stet an sedeat, aut calciatus vel armatus sit, aut aliquid faciat aut patiatu aliquid, et quaecumque in his novem generibus, quorum exempli gratia quaedam posui, vel in ipso substantiae genere innumerabilia reperiuntur] (IV, 16, 28)	[Aski argi mintzo zan Aristotel iraunkietaz eta ioan-etorkietaz. Dirauken gauza bat, esaterako, gizona; aren ioan-etorkiak: zenbat aundi, nolako, elkarkizun, egin, erasan, nongo, noizko, egoera. Orrela beste eun, berreun, zireun iraunkitan.] (C, 46 or.) <sup>32</sup>	Azken xatia ez ote laburregi? <sup>33</sup>	Aski argi mintzo zan Aristotel iraunkietaz eta ioan-etorkietaz. Dirauken gauza bat, esaterako gizona; aren ioan-etorkiak: zenbat aundi, nolako, elkarkizun, egin-erasanak, noizko-nongoak, egoera ta iazkera. Orrela beste eun, berreun, zireun iraunkietan. (B, 51or.; A, 97, 19-23)
47 absurdissima (VI, 4, 6)	begimingarri (C, 65 or.)	Gurean «objeto exasperante». <sup>34</sup>	belarri-mingarri (B, 65 or.; A, 131, 12-13)
48 quae absurda videbantur (VI, 11, 18)	<i>entzungogor</i> ziruditenak (C, 72 or.)	Gurean «entzungor egin (entzungogor?): hacer oídos de mercader, no hacer caso»	entzungaitz gor ziruditenak (B, 71 or.; A, 144, 15)

<sup>32</sup>Azken esaldia («Orrela [...] iraunkitan») eskuz gehitu da Ca-alter-en. Honetaz gain, «egoera» hitzetik ohar bat dago zintzilik: ohar honen gainean ikus IV erans. 413-414 or.

<sup>33</sup>Mokoroak ematen duen erreferentzia bakarra orriaren zenbakia da (eta, noski, «azken xatia» hori), baina ez dut uste zalantza egin daitekeenik pasarte honi buruz ari dela.

<sup>34</sup>«objeto» hitzaren gainean honako hau gehitu du Mokoroak eskuz: «persona o cosa».

49	sponsonem enim volebat facere cum morte [et qui amat periculum, incidet in illud.] (VI, 12, 22)	[Eriotzarekin itun egin nai zun, eta galbidea maite duna, artan ereriko da.] (C, 74 or.)	Begiratu obeki. (Zure paperak aurrean ez dauzkadala ez naiz oroitzen zergatik).	Eriotzarekin itun egin nai zun (Isai. 26, 18) eta galbidea maite duna, artan ereriko da (Eccl. 3, 29). (B, 73 or.; A, 147, 23-25)
50	Praeclare in palatiis militans (VIII, 6, 14)	Jauregian morroinagusi (C, 99 or.)	Zerbitzari goienetako, goi-mailako?	iauregian morroinagusi (B, 93 or.; A, 195, 12)
51	[Sequebatur autem] (VIII, 12, 30)	[Au zan] irraikizun (C, 108 or.)	Errata? jarraikizun? irakurkizun?	Au zan <i>irraikizun</i> (B, 99 or.; A, 208, 26)
52	[dies, quo etiam actu solverer] (IX, 4, 7)	itzi-eguna (C, 112 or.)	Errata? utzi-eguna?	<i>utzi-eguna</i> (B, 102 or.; A, 216, 20-21)
53	[Accipe] (IX, 8, 17)	Ar etzazu (C, 117 or.)	Errata? bi aldiz dator.	Ar etzazu [...] ar etzazu (B, 106 or.; A, 225, 19 eta 21-22)
54	[ita curam gessit, quasi omnes genuisset] (IX, 9, 22)	[erdi ginduzken eran] <i>artatu</i> [gindun] (C, 120 or.)	Lêntxeago: <u>arretatu</u> . Erabaki zein onetsi. <sup>35</sup>	arretatu (B, 108 or.; A, 230, 21)
55	Quantum ad me attinet (IX, 10, 26)	<i>Nerekiko</i> (C, 121 or.)	Gurean « <u>nerekiko</u> : a mi entender».	nerekiko (B, 110 or.; A, 233, 7)
56	[intra quinque dies] (IX, 11, 27)	Andik bost egunera (C, 121 or.)	Ala esan oi degu emen; baiña ez al obeto « <u>egunetara</u> ? (egunetara).	eguntara (B, 110 or.; A, 233, 19)
57	[pendit] (IX, 13, 35)	<i>esegi</i> (C, 125 or.)	Gipuzkoeraz Lardizabal-ek <u>eseki</u> .	eseki (B, 112 or.; A, 239, 12)
58	[sapores ... gustando] (X, 8, 13)	<i>iastagarri</i> , <i>iastatu</i> , etc. (cb, 4 or.)	(Lên ta gero ere bai, beti). Agirre Asteasuko-k, beti <u>dastatu</u> ...	<i>dastagarri</i> [...] iastatuz (B, 118 or.; A, 253, 21 eta 254, 16) <sup>36</sup>

<sup>35</sup>Beste «artatu» bat ere bazen C-ko testuan eta hura ere aldatu egin zuen B-ra bidean: «artatzeko C : zaintzeko B» (VI, 3, 3 [= 129, 22]).

<sup>36</sup>Onartu egin du, hortaz, Orixek Mokoroak iradokitakoa, baina honek aipatu hitzarentzat bakarrik (eta, zehazki, lehenengoarentzat, ez bigarrenarentzat): hots, ez du beste *iasta* edo *iastu* bat ere aldatu B-ra bidean; izan ere, hauxe da bertan dagoen *dasta* bakarra. Adibide egokia da hainbestetan eta hainbeste kontutan egiaztatu ahal izan dugun Orixeren jarrera ikusteko.

59	[Avertat Deus hoc aut illud!] (X, 8, 14)	Ez beza nai Jainkoak (cb, 4 or.)	Gurean beti: «Ez dakiola nai Jainkoari... Ez bekio nai...».	Ez beza Iainkoak au ez ori! (B, 119 or.; A, 255, 2-3)
60	[cum imprimitur ... unde ... possit imprimi] (X, 16, 25)	Ezartzen. Ezartea. (cb, 7 or.)	Batera edo bestera erabaki.	ezarte[a]n [...] ezarteko (B, 123 or.; A, 264, 17) <sup>37</sup>
61	[Si praeter memoriam meam...] (X, 17, 26)	Ene oroimenetik landa. (cb, 8 or.)	Or asten nere edizioan cap. 18.	Ene oroimenetik landa (B, 123 or.; A, 266, 8)
62	Concupiscentiae <i>ventris</i> (X, 31, 45)	<i>Aragi</i> -irritsak (cb, 13 or.)	<u>Sabel</u> -?	sabel-irritsak (B, 130 or.; A, 282, 6)
63	[Quid enim voluptatis habet videre] (X, 35, 55)	Zer atsegin dugu ikusteak (cb, 16 or.)	Errata: ikusteaz?	Zer atsegin dugu [...] <i>ikusteaz</i> (B, 134 or.; A, 289, 4-5)

#### 4. Illuntxoak

64	[Sed quis te invocat nesciens te?] (I, 1, 1)	Nor[k] deituko zaitu <i>ez ezagunik?</i> (C, 1 or.)		Nork deituko zaitu <i>ezagun ezean?</i> (B, 1 or.; A, 9, 15, 16)
65	[dulcissime vanus est] (I, 14, 23)	utsean goxo (C, 11 or.)	goxo uts?	txit goxo <i>bere utsean</i> (B, 12 or.; A, 28, 6)
66	[Quid autem mirum, quod in vanitates ita ferebar et a te, Deus meus, ibam foras, quando mihi imitandi proponebantur homines, qui aliqua facta sua non mala si cum barbarismo aut soloecismo enuntiarent, reprehensi confundebantur, si autem libidines suas integris et rite consequentibus verbis copiose ornateque	[Ni aizekeri oek eramanik eta Zugandik aldegiñik, launa, arrigarri al da, gertaberritzeko ematen zidaten gizona itsusten bai luten, ari zenbait egin —ez gaizto— arrotz-itzez eta izkera gaiztoz edatsarazten nitulako ni itsusten, eta aldiz, aren lizunkeriak itz ugariz ta apaiñez ebakitzen nitulako	cap. 18. Asierari illun irizten diot.	Arrigarri al da, Jauna, ni aizekeri oek eramanik eta Zugandik aldegiñik, gertaberritzeko gizona itsusten bai luten, aren zenbait egille —ez gaizto— arrotz itzez eta izkera maketsez ialkitzen nitula-ta itsustea, ta aldiz aren lizunkeriak itz ugariz eta apaiñez ebakitzen nitulako biziki edertzea? (B, 15

<sup>37</sup>Auzi honetaz ikus 264-265 or.

- 66 narrarent, laudati gloriantur?] (I, 18, 28) biziki edertzen?] (C, 13 or.) or.; A, 32, 15-20)<sup>38</sup>
- 67 [momenta nascentium] (VII, 6, 8) erdi-une (C, 82 or.) jaio-une? *iaio-unea* (B, 79 or.; A, 162, 11)
- 68 [Cumque mirarentur illae scientes, quam ferocem coniugem sustineret, nunquam fuisse auditum aut aliquo indicio claruisse, quod Patricius ceciderit uxorem aut quod a se invicem vel unum diem domestica lite dissenserint] (IX, 9, 19) [Arritzen] baitziran [nolako senar basa iasaiten zun, ez] baitzun [esaten ez aditzera emaiten Patiriki'k beure emaztea io zunik edo egun bateko errixtarik ere ukan zutenik.] (C, 119 or.) Joskera biurritxoa. Arritzen baitziran nolako senar basa iasaiten zun, ez baitzun esaten ez aditzera emaiten Partiki'k beure emaztea io zunik edo egun bateko errixtarik ere ukan zutenik. (B, 108 or.; A, 229, 1-4)
- 69 [Parvum hoc bonum mihi videretur, nisi turbas innumerabiles tristes experirer nescio qua horrenda pestilentia peccatorum latissime pervagante, non solum iratorum inimicorum iratis inimicis dicta prodere, sed etiam quae non dicta sunt addere] (IX, 9, 21) Au ez lizake izugarri [nonai zabaldurik dagon bekatuzko izurri lazgarri au giza-saldoetan egunoro damurik ikus ez bagenez: etsai asarreeri etsai asarreen esanak salatu ez ezen, ez esaneri eratziki.] (C, 120 or.) Biurri edo nâsia, joskera. Au ez litzake izugarri, nonai zabaldurik dagon bekatuzko izurri lazgarri au giza-saldoetan egunoro damurik ikus ez ba geneza: etsai asarreeri etsai asarreen esanak salatu ez ezen, ez esaneri eratziki. (B, 108 or.; A, 230, 1-4)
- 70 [cum contra homini humano parum esse debeat inimicitias hominum nec excitare nec augere male loquendo, nisi eas etiam extinguere bene loquendo studuerit] (IX, 9, 21) [Gizon iator danarentzat ezer gutxi da, gizarteko asarreak] ez piztea ez ezen, [gaizki mintzatuz geitzea. Ongi mintzatuz itzaltzen aletin bear luke.] (C, 120 or.) Illun. Pizten, naiz piztenagotzen ez aritzea... ezer gutxi da...? ez aritzeak ez du asko esan nai? Gizon iator danarentzat ezer gutxi da, gizarteko asarreak ez piztea ez ezen, gaizki mintzatuz geitzea. Ongi mintzatuz itzaltzen aletin bear luke. (B, 108 or.; A, 230, 4-7)
- 71 [apud praesentem veritatem, quod tu es] (IX, 10, 23) [egiaren aintzinean] —Zu baitzira— (C, 120 or.) Kemen gutisko: Zu baitzira bera? egiaren aintzinean —*ama* Zu baitzera— (B, 109 or.; A, 231, 9-10)

<sup>38</sup>Pasarte honek aldaketa sakonak jasan zituen Lekuonaren eskuetan, «Utsuneak» izeneko dokumentuan (196 or. 9 zenb.).

72	[nec faciebas, credo, commendans memoriae meae vel hoc uno documento omnis consuetudinis vinculum etiam adversus mentem, quae iam non fallaci verbo pascitur]. (IX, 12, 32)	[Etzenun sendatu, ikaskizun bakar artaz ere oituraren indarra aditzera emanetz, naski,] gezur-itzik iresten [ez dunaren biotzean ere]. (C, 123 or.)	Paperak emen ez dauzkadala ez naiz oroitzen zertara datorren oar au.	Etzenun sendatzen, nik uste, nik ongi gogoan au artu nezan: ikaskizun bakar arekin ere, edozer oiturak zer indar dun, gezur-itzik iresten ez dunaren biotzean ere. (B, 111 or.; A, 237, 4-6)
73	[et commendavi ei <sc. memoriae sive cordi>] (X, 10, 17)	Oroiteari goraintzi (cb, 5 or.)	Guretzat illunegi da.	ta oroiteari goraintzi (B, 120 or.; A, 257, 22-23) <sup>39</sup>
74	[numeros, quibus numeramus] (X, 15, 23)	Bapanatzeko banakoak (cb, 7 or.)	Illunegi.	bapanatzeko <i>numeroak</i> (B, 122 or.; A, 263, 1)
75	(X, 23, 33)	(cb, 10 or.)	Cap. 23. Sarrera illunegia.	(B, 126 or.; A, 272)
76	(X, 34, 51-53)	(cb, 14 or.)	34'gn kapituluari zailtxo iritzi nion.	(B, 132 or.; A, 285-286)

<5.> Beste oar eta iritxika batzuk

77	[fides mea, quam dedisti mihi, quam inspirasti mihi] (I, 1, 1)	Pitzarazi (C, 1 or.)	Azken-aldera <u>pitzarazi</u> ibiltzen dezu. Orrela argiago emen oetarako.	piztuerazi (B, 1 or.; A, 10, 5) <sup>40</sup>
78	[copiosae inopiae] (I, 12, 19)	Gabezi ugarira (C, 9 or.)	Urribizira?	urribizira (B, 10 or.; A, 25, 7) <sup>41</sup>
79	[miserrimus ... miserius ... misero] (I, 13, 20-21)	Errukari... errukarigorik... [errukaria] (C, 9 or.)	Errata? errukarri?	errukarri [...] errukarrigorik [...] errukarria (B, 11 or.; A, 26, 10, 12 eta 13) <sup>42</sup>

<sup>39</sup>Oin-ohar bat gehitu du Orixek B-n: «goraintzi: recomendar» (ikus IV erans.).

<sup>40</sup>Beste bi «pitzarazi» dira C-ko testuan: bata hau bezala aldatu du («pitzaraziz C : piztueraziz B» V, 3, 4 [= 104, 24]) eta bestea zegoen-zegoenean utzi du (VI, 1, 1 [= 126, 21]); baina 179 or. = XIII, 14, 15 [= 390, 20] paragrafoan ere beste «pitzarazi» bat aurkitu ahal dugu. Bestalde, C-n dagoen —eta Mokoroak ohar honetan aipatzen duen— «pitzarazi» bakarra ez da aldatu B-ra bidean: VIII, 8, 19 [= 199, 18].

<sup>41</sup>B-ko makinazko testuan «gabezi ugarira» dago oraindik, baina Orixeren eskuak egindako zuzenketa hau dago: «urribizira» (ikus 108 or.); eskuz gehitutako hitz honetatik ohar bat dago zintzilik, eskuz egina hau ere, eta honela dio: «urribizi: eskasi ugari» (ikus 118 or. eta IV erans.).

<sup>42</sup>Badirudi puntu honetan, onartu ez ezik, sistematikoki egin zuela Orixek Mokoroak iradoki zion aldaketa.

80	[virtus] maritans [mentem meam et sinum cogitationis meae] (I, 13, 21)	[nire ezagumena ta gogamena] <i>indartzen</i> dituzuna (C, 10 or.)	Ernaltzen? Umatzen? Ernarazten?	nere ezagumena ta gogamenaren sabela <i>ernaltzen</i> duzun indar. (B, 11 or.; A, 26, 16-18)
81	[quos iam non timeo] (I, 13, 22)	ez diet bildurrik (C, 10 or.)	Ez nizaie batere bildur?	ez diet bildurrik (B, 11 or.; A, 27, 7-8)
82	[o flumen tartareum, iactantur in te filii hominum cum mercedibus, ut haec discant, et magna res agitur, cum hoc agitur publice in foro, in conspectu legum supra mercedem salaria decernentium, et saxa tua percusis et sonas dicens:...] (I, 16, 26)	ifernuko ibai, etc. [ur ortara aurtiki oi ditute gizasemeak, olakoak ikasteko pagatuz. Gauza aundiak ari ditute ageriko enparantzetan, merezi baño sari aundiago agintzen duten legeen aintzinean. Zuk, ibai, arkaitzarekin tupust egifñez otsegiten duzu...] (C, 12 or.)	Oldarraldi bikaiñ ori ez ote legoke obeki <i>ika?</i> Bestela ere, irakurrazu begiratuki. Zerbait nâsi samar ote daukan nago.	ifernuko ibai, iregana oldartu oi dituk gizasemeak, olakoak ikasteko dirua ordainduz. Gauza aundiak ari dizkie ageriko enparantzetan, merezi baño sari aundiago agintzen duten legeen aintzinean. Ik, ibai, arkaitzarekin tupust egifñez, au otsegiten duk:... (B, 13 or.; A, 30-31)
83	[bona spei puer] (I, 16, 26)	<i>itxaropen aundiko</i> mutikoa (C, 12 or.)	Etorkizun politeko...?	etorkizun politeko mutiko (B, 14 or.; A, 31, 12)
84	[in vanitates ita ferebat] (I, 18, 28)	aizekeri oien mende... etc. (C, 13 or.)	Aizekeri oiek arrotuta (puztuta) zugandik alde nindoala...?	aizekeri oek eramanik (B, 15 or.; A, 32, 15)
85	[magis displiceat hominibus, quam si contra tua praecepta hominem oderit, cum sit homo] (I, 18, 29)	gizona bera baiño <i>gorrotoago</i> (C, 13 or.)	Iguiñaigo?	atsekaitzago litzaieke gizoneri, Zure legeen buruzki gizona gizon dalako gor<r>otaturik baiño. (B, 15 or.; A, 33, 17-18)

Izan ere, C-ko testuan bai «errukari» (10 aldiz) bai «errukarri» (4 aldiz) erabili zuen Orixek; B-ra bidean ordea ez da «errukari» bat ere gelditu: guztiak bihurtu ditu «errukarri». Daitekeena da Mokoroaren iradokizunaz landara beste arrazoirik izatea Orixek, baina ezin ukatuzkoa da Mokoroak nabarmendutako hiru agerraldi hauek C-ko testuan diren lehenengoak direla; daitekeena da, orobat, Ca-alter-eko «errukari» guztiak ezabatze huts banaren ondorioa izatea edo, behinik behin, horrelakotzat jotzea Orixek berak: ez dezagun ahantz *r* 'gangarduna' darabilela Orixek eta, aldi berean, Orixek ca-prior-en egingo zituen zuzenketa guztiak ez zirela pasatuko guk dugun Ca-alter-era. (Bestalde, «errukarri» eta «errukari» hauekin batera «urrikarri» [3 aldiz], «urrikari» [14 aldiz] eta «urrukari» [behin] ere erabili zituen Orixek C-ko testuan, baina «urrikari» gehienak ere «urrikarri» bihurtu zituen B-ra bidean —edo, berriz ere, bihurtuak zituen ja ca-prior-eko orrietan—).

86	[non est interior] (I, 18, 29)	barneago (C, 13 or.)	barneanago?	barneanago (B, 15 or.; A, 33, 22) <sup>43</sup>
87	[eloquentiae famam quaeritans] (I, 18, 29)	Mintzalari-aipua billatzean (C, 14 or.)	irabazi naiean?	Mintzalari-aipua <i>irabazi naiean</i> (B, 15 or.; A, 33, 26-27)
88	[et ne per mentis furorem hominem auferat 'ex hominibus' non cavet] (I, 18, 29)	gizonengandik (C, 14 or.)	Gizonen artetik?	gizona <i>gizonen artetik</i> (B, 15 or.; A, 34, 3)
89	Tamquam glaciem <i>solvisti...</i> (II, 7, 15)	ederki suntsitu (C, 21 or.)	zearo urtu?	izotza antzo <i>urtu</i> (B, 25 or.; A, 49, 2-3)
90	Sine dubitatione (III, 8, 15)	koloka gabe (C, 32 or.)	ezbairik gabe? zalantza gabe?	ez-mezean egon gabe (B, 35 or.; A, 67, 4)
91	[servientibus] (III, 9, 17)	morroi (C, 33 or.)	Ez ote obeki emen <u>mirabe</u> ?	mirabe (B, 36 or.; A, 69, 10)
92	Iam nata cogat se diligi (IV, 2, 2)	aiek maitatzea <i>eginbide</i> da (C, 36 or.)	<u>ezinbeste</u> ?	aiek maitatzea <i>ezinbesteko</i> da (B, 40 or.; A, 77, 4)
93	Diligere homines <i>humaniter</i> (IV, 7, 12)	gizonki maite... (C, 39 or.)	gizabidez?	gizabidez (B, 44 or.; A, 84, 10)
94	Amicum <i>in te</i> , et inimicum <i>propter te</i> (IV, 9, 14)	laguna eta etsaia ere zugatik (C, 41 or.)	??	laguna Zugan eta etsaia Zugatik (B, 45 or.; A, 86, 22)
95	[infima universitas] (IV, 11, 16)	beiko [izadi au] (C, 42 or.)	Beitiko?	<i>beitiko</i> izadi au (B, 46 or.; A, 88, 17)
96	[pulchra inferiora] (IV, 13, 20)	beiko [edertasunak] (C, 43 or.)	Beitiko?	<i>beitiko</i> [e]dertasunak (B, 48 or.; A, 92, 4)
97	[buccis tyfo crepantibus] (IV, 16, 28)	ago-durundiz (C, 46 or.) <sup>44</sup>	Ezpaiñak arrotuz... Agotik aparra zeriela...?	ezpaiñak arrotuz (B, 46 or.; A, 97, 13)
98	[panem meum] (IV, 16, 29)	uzta (C, 47 or.)	Gari? Ogi?	garia (B, 51 or.; A, 98, 10)

<sup>43</sup>Esanguratsua dateke hitzaren azken *n*-a eskuz zuzendua egotea B-ko testuan: ikus 109 or.

<sup>44</sup>Honen gainean ikus II erans. 374 or. eta bertako 19 oh.



99	Illa finirentur in te, tu autem <i>nusquam</i> (VII, 1, 2)	Zu aldiz <i>beñere ez</i> (C, 77 or.)	Iñon ez?	iñon ez (B, 75 or.; A, 154, 25)
100	[ne quisquam ... potentiae suae tribuat] (IX, 8, 18)	ez diogu [geuren buruari] egotziko (C, 118 or.)	Ez dezaiogun egotzi?	geuren buruari egotzi ez <i>dagiogun</i> (B, 107 or.; A, 228, 1-2)
101	[nonne hoc est: «intra...»?] (IX, 10, 25)	Ez al da au: «sar zaitte...»? (C, 121 or.)	Ez al da au <u>arako</u> «sar zaitte...»?	Ez al da au <i>arako</i> «sar zaitte...»? (B, 109 or.; A, 232, 28-233, 1)
102	[Et istud quando? An cum «omnes resurgimus, sed non omnes immutabimur»?] (IX, 10, 25)	Eta noiz? [Ez al da piztean, bainan oso aldatu gabe?] (C, 121 or.)	Eta noiz sartu ere? Ez ote arako beste artan dionez: guziok piztean, naiz ez gaiten guziok aldaberritu? (naiz ez geran guziok aldaberrituko...?)	Eta noiz sartu? Ez al da orok piztean, «orok oso <i>alda-berrituko ez ba'gera ere</i> »? (B, 109 or.; A, 233, 1-3)
103	[Est alia vis ... qua sensifico carnem meam] (X, 7, 11)	ernarazten <i>duna</i> (cb, 3 or.)	dunik?	Ba dut beste indarririk [...] ernarazten <i>dunik</i> . (B, 118 or.; A, 252, 10-11)
104	latissimos lapsus fluminum et Oceani ambitum (X, 8, 15)	Okean'en ta izarren itzuliak (cb, 4 or.)	??	Okeanen ingurua ta izarren itzuliak (B, 119 or.; A, 255, 14-15)
105	[Audiui sonos verborum, quibus significantur <sc. numerorum rationes> ... Nam illi <sc. sonus verborum> aliter graece, aliter latine sonant, istae vero <sc. numerorum rationes> nec graecae nec latinae sunt] (X, 12, 19)	Aditza (cb, 6 or.)	Adi-itza?	Ele egitean entzuten dut itzen mintzoa, baiñan itza bat da, mintzoa besterik. Grekoz eta latinez mintzo berezia dute; baiñan <i>adi-itza ez</i> da greko ez latin (B, 121 or.; A, 259, 6-9) <sup>45</sup>

<sup>45</sup>Badirudi gaizki ulertu duela Orixek pasarte hau —eta baita, beraz, Mokoroak ere—; san Agustinek honako bi gauza hauek jartzen ditu aurrez aurre: batetik hitzak (hau da, hitzen soinuak: «sonus verborum») eta bestetik hitz horiek adierazten dituzten kontzeptuak (kasu honetan «numerorum rationes»); haren arabera, hitzak —hitzen soinuak— aldatu egiten dira hizkuntza batetik bestera, baina kontzeptuak beti berberak dira. Orixek, oso oker ez banabil, beste hau ulertu du: elkarren parean jartzen diren gauzak «sonus» eta «verba» direla, eta «sonus» 'mintzo' itzuli du eta «verba» 'hitzak' edo 'aditzak' edo 'adi-hitzak'.

106	<i>Et est alius</i> [quidam] modus [quo quisque cum habet eam, tunc beatus est, et sunt, qui spe beati sunt.] (X, 20, 29)	doatsu diranak (cb, 9 or.)	Doatsu diranak <u>ere</u> .	Ba dira ukanez doatsu diranak <u>ere</u> eta itxedonez doatsu diranak. (B, 125 or.; A, 268, 19-20)
107	[Iste se accepisse confitetur et quod gloriatur in Domino gloriatur]. (X, 31, 45)	Arrotzen dana, Jainkoagan arro bedi (cb, 13 or.)	<u>Illarraindu</u> itza, gure amari ere entzunberria naiz 'engreirse' adierazteko. <sup>46</sup>	Onek artu dula diago, ta <u>illarraintzen</u> dana Iainkoagan <u>illarraindu</u> bedi. (B, 130 or.; A, 282, 4-6)
108	[ut] <i>signum</i> [aliquod petam] (X, 35, 56)	(cb, 16 or.)	Zergatik ez <u>siñale?</u> Eta or bezela beste zenbaitxe lekutan, euskera utsez ezin danean erderazkoaz lagundu?	<u>siñale</u> bat eskatzeko (B, 134 or.; A, 289, 25)

#### 6. Aditzari buruzko oarrak

- 109 Itzez naikoa esan nizun, baiña berriz esanak ez duke kalterik: orrenbeste nekeren umeak jendearen protxurako bear du izan, ez gramatikoen jardunerako. Eta jendeak ezin ditzake, ez emen, ez inon, irentsi liburu ortan darabilzkizun zenbait aditz-joku:
1. ekidin-enak beren di ta guzi. (Zuk eta nik eta beste guziok miñ izanakatik, illak ez dira pizten, eta ekidin ori aspaldi aitu zan).
  2. ekidin-enak indicatiboz (adibidez, etortzen, etorri, etorriko-rekin) inongo idazle zarretan beñere ez ditut ikusi; beti subjuntiboz (etorr-ekin, esan nai det). Sakandarrak ala ibilli badituzte, ondo egingo dezu zuk ere aintzakotzat arteaz. Belarrirako ondo derizkiet nik ere, eta nappar-euskeraren babesean neke aundirik gabe adituko ditu emengo irakurleak.
  3. nu-en, edo nu-an edo olakoetan bigarren silaba belarriak bakarrak erantsia dala sinistea aldats egiten zait. Zergatik ez die berdin erantsi dut, du, naiz, da eta beste olako monosilaboai ere? Eta nolatan edatu zan euskalki guzietara orren berdinkiro 'betegarri' dalako ori? — Baiña, nolanai dala, vocal ori gabe esaten ditugu gaur inguru oetan, eta irakurleari etzaio miñ aundirik ematen kentzeaz.
  4. Pluralizadoreak, zuzen edo makur, euskalerririk geienetan barruraino sartuta daude, eta aiñak gabe elkor eta itsusi iritziko die aditz-joku zenbaiti ni bezelako beste euskaldun askok: zator, zatorket, gakio, zadin..., zinegolakoan...
  5. Izkuntzak numeroen logicaz gobernatzen ez dirala nik baiño obeto dakizu (beste gauzarik geienakin batean). «Maxia gazate», «goretsi zaza», «billa zazate», «zaindu gazazu», «zinzan», «ez dizake», ta orrelakoak alda itzazu arren, gaurko euskaldunok adi âl izateko moduan.

<sup>46</sup>Baina *illaraindu* hitza badarabil Orixek C-ko testuan, eurrez erabili ere: 18 or. = II, 3, 7 [42, 5]; 27 or. = III, 3, 6 [57, 9]; 70 or. = VI, 9, 14 [141, 8]; 91 or. = VII, 21, 27 [181, 5-6]. (Aipatzeko modukoa da II, 3, 7 paragrafokoa «urgoitu» bezala aldatu duela B-ra bidean; ohar bat ere ipini dio: «urgoitu: arrotu»; ikus, honetaz, IV erans.).

6. ediñ-ek ke-ren ordez te artzen zuan lèn; eta orain ere te-ren laguntza gabe etzaio ke erantsi bear. Nendike... ez, baiño ninteke... bear luke beti. — Orobat izan-ek ere. Guk emen ninzake, lirake, ta abar esaten degu; baiña beste lekutan jatorrago: ninzateke, lirateke... — Dirake iñon esaten bada, oker dago: dirateke bear luke, Iztueta-ren dateke bezela. (Axular-ek: diratezke).

7. Napar antzean, edo napar-kutsuaz egiten badezu oraingoan, polikixeago sartuko dizkiguzu lèngoratze diralako oriek. Baiña, arren Orixe, irakurle bizien izenean eskatzen dizut: etzazu, jarren, milla bider! elkortu zure lan bikañ ori aditz-joku arrotz geiegrekin.

### 7. Aditzari buruzko utsak

110		mintza <i>zakio</i> (C, 3 or.)	Imperativo litzake (lizateke) orrela. Zaitzaio...? <sup>47</sup>	
111	[utcumque existent] (I, 6, 10)	diraken (C, 5 or.)	Diratezken...	nolabait diraken oriek ere (B, 5 or.; A, 17, 2) <sup>48</sup>
112	[Dilata est itaque mundatio mea, quasi necesse esset, ut adhuc sordidarer, si viverem; quia videlicet post lavacrum illud maior et periculosior in sordibus delictorum reatus foret]. (I, 11, 17)	[Nire garbitzea] luzatu zan, [bizitzearekin nire zikinkerien obena oraino aundiago ta] galgarriri átekelakoan (C, 8 or.)	<u>Zitekelakoan?</u>	Nere garbitzea luzatu zan, nere zikinkerien obena oraino bizitzearekin aundiago ta galgarrigi <i>zitekelakoan</i> . (B, 9 or.; A, 23, 20-22)
113	[indociores nescire se respondebunt] (I, 13, 22)	[ez-iakiñek ez dakitela] erantzun dukete (C, 10 or.)	Nere ustez oker: Erantzungo dute; erantzun dezakete.	<i>ez-ikasiek ez dakitela erantzunen dute</i> (B, 11 or.; A, 27, 13)
114	[per quam mihi tu non tacebas] (II, 3, 7)	[Aren bitartez] ez <i>zenkididan</i> ixiltzen (C, 17 or.)	zintzazkidan... (!!).	Aren bitartez <i>etzintzaidan</i> ixiltzen (B, 20 or.; A, 41, 27)
115	[propitius es peccatis confitentium] (III, 8, 16)	aldeko <i>zakigu</i> [guk obenak aitortzean] (C, 32 or.)	Imperativo litzake (lizateke). Zaitzazkigu (!!).	aldeko <i>zaitugu</i> guk obenak aitortzean (B, 35 or.; A, 68, 6-7)
116	[ut redeas] (IV, 11, 16)	[itzul] zadin (C, 42 or.)	Zaiten, zaitezen...	itzul <i>zaiten</i> (B, 46 or.; A, 88, 14)

<sup>47</sup>Ikus, hemen bertan, 391 or. 10 oh.

<sup>48</sup>Ikus, gorago, 391 or.

117	[nec propinquas nisi obtritis corde] (V, 3, 3)	[baiña damutueri] <i>zakidie</i> urbiltzen (C, 50 or.)	Zaitzazkie, zaitzaie...	baiña damutueri <i>zaitzaie</i> [zakie m2] urbiltzen (B, 54 or.; A, 103, 24-104, 1)
118	[nec inveniris a superbis] (V, 3, 3)	[Arranditsu oieri et] <i>zakidie</i> agertzen (C, 50 or.) <sup>49</sup>	Idem.	Arranditsu oieri <i>etzaitzie</i> agertzen (B, 54 or.; A, 104, 1-2)
119	[sic eum legentem vidimus tacite] (VI, 3, 3)	[orrela] gindekusan [ixil irakurten] (C, 64 or.)	Genekusan?	orrela <i>genekusan</i> ixil irakurten (B, 64 or.; A, 129, 13-14)
120	[ego ... quamvis incontaminabilem ... dicerem firmeque sentirem Deum nostrum ... qui fecisti] (VII, 3, 4)	[Nik ... kutsa-ezin ... ] zinedukalarik (C, 78 or.)	Zindukadalarik, zinduzkadalarik...	Nik ... kutsa-ezin ... <i>zindudalarik</i> (B, 76 or.; A, 156, 14-15)
121	[Respondebunt ad singula: «Bonum»] (VIII, 10, 24)	[Bakoitzari on zaigu] erantzun <i>dukete</i> (C, 105 or.)	dirote? erantzungo dute; erantzun dezakete?	Bakoitzari on zaigu erantzun <i>dezakete</i> (B, 97 or.; A, 204, 16)
122	[et me robustius alligaret] (VIII, 11, 25)	[ni bizkorrago] lotu ez <i>nengan</i> (C, 106 or.) <sup>50</sup>	Errata: <u>nindezan??</u>	ni bizkorrago lotu ez <i>nindezan</i> (B, 98 or.; A, 205, 8-9)
123	[quo aliud futurus eram] (VIII, 11, 25)	[beste gizon] biur nendiken (C, 106 or.)	ninteken?	beste gizon biur <i>ninteken</i> (B, 98 or.; A, 205, 16)
124	[Nemo enim potest esse continens] (X, 31, 45)	ez dizake gartxu (cb, 10 or.)	dateke; gip. Iztueta.	iñor ez <i>diteke</i> gartxu (B, 130 or.; A, 281, 13)

<sup>49</sup>Hau da, Mokoroaren txostenean irakur daitekeena honako hau da: «*Zakidie* agertzen».

<sup>50</sup>Ohar bedi ezezko bezala itzuli duela Orixek esaldia baiezkoa izan arren.

## IV

### Orixeren oin-oharrak

*Aitorkizunen* lehenengo idatzaldian —pentsatzekoa baita guganaino iritsi ez diren *cb* eta *cc* behatzizkribuak ere, puntu honetan, *Ca* bezalakoak izango zirela—<sup>1</sup> ez da hiztegi oharririk. Oin-ohar bat ordea bada, IV, 16, 28 paragrafoari dagokion itzulpenaren akaberatik zintzilik (*C*, 46 or.), eta honela dio:

*Ianzkera* utzi egin dut, *habitus* ez baiño *habitud* obe bailizake. Beraz izan danaren mail oriek zortzi dira, azken ontan sartzen baita *to pros t* ere.

Ohar honek ez dihardu san Agustinen testuaz: han ez dago ez *habitus* ez *habitud* ez antzekorik. Izan ere, aipatu paragrafoaren lehenengo erdia, gutxi gora behera, ohiko moduan itzuli du Orixek; baina paragrafoaren bigarren erdiari dagokionez ezin da esan itzulpena eta jatorrizkoa bat datozenik:

et satis aperte mihi videbantur [sc. Aristotelis categoriae] loquentes de substantiis, sicuti est homo, et quae in illis essent, sicuti est figura hominis qualis sit, et statura quot pedum sit, aut cognatio cuius frater sit; aut ubi sit constitutus, aut quando natus, aut stet an sedeat, aut calciatus vel armatus sit, aut aliquid faciat aut patiatur aliquid, et quaecumque in his novem generibus, quorum exempli gratia quaedam posui, vel in ipso substantiae genere innumerabilia reperiuntur. (IV, 16, 28)

Aski argi mintzo zan Aristotel iraunkietaz eta ioan-etorkietaz. Dirauken gauza bat, esaterako, gizona; aren ioan-etorkiak: zenbat aundi, nolako, elkarkizun, egin, erasan, nongo, noizko, egoera. [Orrela beste eun, berreun, zireun iraunkitan]. (*C*, 46 or.).<sup>2</sup>

Nolatan urrundu da Orixek horrenbeste san Agustinen testutik eta, batez ere, zerk eragin du *C*-ko ohar bakar hau? Vega-k ematen digu, urrutira joan gabe, honen giltza: «Estos

---

<sup>1</sup>Honen alde hitz egiten du, era berean, on Martin Oiartzabali *cc*-ren behatzizkribuarekin batera bidali zion gutunean hitz zerrenda txiki bat gehitu izanak (ikus, hementxe, 415 or.).

<sup>2</sup>Taketan artean eman duguna eskuz gehitu du Orixek *Ca*-alter-en. *B*-ra bidean ordea, mintzagai dugun oharrean zioenaren kontra, jaso egin zuen *habitus* hari zegokion itzulpena (*C*-n aipatzen zuen «ianzkera» ez baina bai «iazkera»); *C*-ko testuaren eta *B*-koaren arteko aldaerak honako hauek dira (*B*, 51 or.): «egin, erasan *C* : egin-erasanak *B*»; «nongo, noizko *C* : noizko-nongoak *B*»; «egoera *C* : egoera ta iazkera *B*»; «iraunkitan *C* : iraunkietan *B*».

predicamentos [sc. san Agustinek aipatu dituenak] corresponden exactamente a la doctrina aristotélica tal cual aun hoy día se enseña en las escuelas, conocidos con los nombres de *substantia, quantus, qualis, relatio, ubi, quando, situs, habitus, actio y passio* (467 or. 59 oh.). Orixek —bistan da orain— buruan zuen baina san Agustinen liburuan ez dagoen zerrenda hau itzuli zuen (nahiz eta beste ordena batean): ezin esan harrigarria ez denik ohar bat jartzea —liburuko ohar bakarra!—, azken batean bere burua zuritzeko itzultzen ari den zerrenda bateko osagai bat jaso ez duelako, eta ez esatea zerrenda hori ez dagoela san Agustinen liburuan. Litekeena da ohar honen zergatikoa *Aitorkizunen* hasierako liburu hauek itzultzeko erabili zuen eredu ezezagunean egotea: gogora dezagun itxura guztien arabera oso testu zaharra zuen edizioa zela (ikus II erans.), eta hau ondo baino hobeto uztartzen da era honetako ohar batekin. Honek esplikatu luke bestela nekez uler daitekeen ohar bakar honen izatea bera.

Bigarren idatzaldian ere, segituan aztertuko ditugun hiztegi oharrez gain, bada C-koaren eiteko oharrik, bakarra oraingo honetan ere; pasarte honi dago atxikia:

Ubi autem inde auferebatur anima mea, onerabat me grandi sarcina miseriae. Ad te, Domine, levanda erat et curanda, sciebam; sed nec volebam nec valebam, eo magis, quod mihi non eras aliquid solidum et firmum, cum de te cogitabam. (IV, 7, 12)

Auetatik alderazten nindutenean, zorigailtz aundi baten zamak azpiratzen nindun. Baneekin Zuk arintzekoa ta sendatzekoa zala, launa; baiñan ez nai ta ezin ez baitzintzaidan oraíño gotor eta tinko nik Zu asmatzean. (B, 44 or.);

hemendik zintzilik, esan bezala, hiztegiari —edo, hobeto esateko, hiztegi soilari— ez dagokion ohar bakarra dago:

Gotor eta tinko = sólido y firme. Oraindik ez baitzun asmatzen gorpuzkia besterik, eta lainkoa gogaki izan.

Alde bat utzita oharraren lehenengo zatian bi hitz azaltzen dituela batera, Orixek ohi duenaren kontra (alde honetatik begiratuta ere salbuespena baita, askoz errazago onar daitekeen «bakun, bikun» kasua —ikus eranskin honen akaberako zerrenda— kontatzen ez badugu), zaila da ulertzen bigarren zatiaren zergatikoa, kontuan hartzen badugu san Agustinen testua hau baino oztopo larriagoez josita dagoela baina ez duela, horratik, Orixeren ohar gehiagorik merezi izan. (Orixeren ohar honek Lekuonaren eskuetan jasan zituen aldaketei buruz ikus 339 or. 64 oh.)<sup>3</sup>

Baina bigarren idatzaldi honetan, lehenengoan ez bezala beraz, hiztegi oharrak ipini nahi izan zizkion Orixek makinaz jotako testuari: *Aitorkizunen* testuak berak beta ematen zuen horretarako (san Agustinen liburuaren edukiagatik beragatik eta, ez gutxiago, Orixek hura itzultzerakoan izan zuen asmoarengatik) eta, bestalde, garai hartan oso zabaldua —eta ondo

<sup>3</sup>Aipatu tokian ere esana dugu «sólido y firme» Vega-k BAC-eko edizioan ematen duen erdal itzulpenetik dagoela hartua; ohar bedi ordea «gotor eta tinko» hitzak C-ko testuan ere bazirela: izan ere, aldaketa gutxi izan zituen pasarte honek C-tik B-ra: «Auetarik C : Auetatik B»; «baizinizadan C : baitzintzaidan B»; «oraino aski gotor eta tinko Zu gogoratzean C : oraíño gotor eta tinko nik Zu asmatzean B».

asko justifikatuta— zegoen ohitura zen.<sup>4</sup>Lekuonak ez zituen ohar hauek zeuden-zeudenean argitaratu nahi izan: iruzkindu gabe gelditu ziren zenbait hitzi ohar berriak egin zizkien, Orixerenak berriekin batera bildu —baina ez, noiz edo noiz, aldaketaren bat egin gabe— eta «Iztegitxoa» izena ipini zion gehigarri batean eman zituen guztiak 1956ko liburuaren akaberan. (Ikus, honetaz guztiaz, 136-145 eta 327-339 or.).

Nabaria da, Orixeren 153 ohar hauetan, axolagabekeria zerbait: hitzen azalpenak euskaraz nahiz erdaraz daude; ez daude beti argitu nahi dituzten hitzak lehenengo aldiz agertzen diren tokietan; hitz batzuk behin baino gehiagotan iruzkindu dira; eta abar... Orixeren lan egiteko modua ezagutzen duena ez da honengatik harrituko. Ohar hauen zerrenda eman nahi izan dugu hemen: batetik, berez dituzketen garrantzi eta balioarengatik eta, bestetik, liburuaren historiaren osagai bat delako eta, hortaz, interesgarria izan daitekeelako eskueran izatea historia honen zenbait pasadizo behar bezala ulertzeko. Eranskin hau gehiegi ez luzatzearen, ez dugu apenas azalpenik eman iruzkindutako hitzei buruz: eman ditugun erreferentzietatik atera daitezke ohar bakoitzaren testuingurua berreraikitze behar diren datu guztiak; hiztegiari berari dagokionez, arbitrarioa iruditu zaigu egin litekeen azterketa Orixek jarritako oharretara mugatzea —eta ez da hau toki egokia orexarraren lexikoaren jatorriaz-eta jarduteko—.

*Aitorkizunetan* erabilitako hiztegia, izan ere, bitxia da alderdi askotan. Ez da harritzekoa Orixek hitz zenbaiten azalpena ematea on Martin Oiarzabali, XI-XIII liburuen itzulpenaren lehenengo idatzaldiarekin batera, 1954ko martxoaren 19an bidali zion gutunean. Merezki du hauek ere hemen aipatzea, batez ere kontuan izanik hauetako gehienak iruzkindu gabe gelditu zirela B-ko testuan; honelaxe antolatuta jarri zituen Orixek aipatu eskutitzean:<sup>5</sup>

eite: forma (eitegabe: informe)  
 antolagabe: incompositum  
 mukulu, mokor: cuerpo (no precisamente organizado)  
 ortzantza: firmamento (Uitzi'n osantza)  
 mukuluki: corporal (de natura corporis)  
 gogaki: espiritual (de natura spiritus)  
 gogakoi: espiritual (persona)

#### B-KO HIZTEGI OHARRAK

B-ko hiztegi oharrak alfabetoaren arabera antolatuta eman ditugu eta ez B-ko testuan agertzen diren ordenan: nahi duenak atera dezake, eman ditugun erreferentzietatik, zein den ohar bakoitzak B-ko testuan duen kokapena (eta ikusiko du, besteak beste, hasierako orrietan bukaerakoetan baino askoz ugariagoak direla, ohi bezala); honengatik —eta baita beste arrazoi batzuegatik ere— ez ditugu

<sup>4</sup>Orixek ere, *Aitorkizunetatik* landara, bazuen ohitura hau: badakigu, jakin ere, era honetako oharrak jarri zizkiola *Euskaldunak* poemari (lehenengo argitalpenaren arduradunek, antza, Orixerenak kendu eta haiek ondutakoak sartu bazituzten ere: ikus, honetaz, 59 or. 37 oh.), eta badirudi Ameriketako urteetakoa den Salmutegiak dituenak ere Orixerenak direla.

<sup>5</sup>OE, 951-952, 952 or.; gutun honi buruz ikus 45 or.

bateratu nahi izan behin baino gehiagotan ematen diren azalpenak. Azkenik, m1ter-ek eta m2-k B-prior-en gehitu dituzten oharrak ere jaso egin ditugu: ikus, hauei buruz, 104-105 eta 118 or.

ahamen: mokadu	(B, 37 or. = III, 10, 18 [70, 6])
aina: alakoa	(B, 5 or. = I, 6, 10 [17, 5])
aizu: libre	(B, 73 or. = VI, 12, 22 [147, 21])
aizukeri: libertinaje	(B, 57 or. = V, 8, 14 [112, 19])
akar: reproche	(B, 6 or. = I, 7, 11 [17, 22])
aketx egin: aragikeri egin	(B, 40 or. = IV, 2, 3 [77, 15])
alegi: ficción <sup>6</sup>	(B, 28 or. = III, 2, 2 [54, 23])
amaratu: desegin	(B, 29 or. = III, 3, 5 [56, 18])
andeatu: alperrik galdu	(B, 68 or. = VI, 7, 12 [137, 13])
anker: cruel	(B, 23 or. = II, 5, 11 [45, 16])
anpatu: puztu	(B, 29 or. = III, 3, 6 [57, 10])
apen: venganza	(B, 5 or. = I, 6, 8 [15, 20])
apen: mendeku, bengantza	(B, 8 or. = I, 9, 15 [21, 24])
apen: bengantza	(B, 35 or. = III, 8, 16 [67, 21])
ardietsi: iritxi	(B, 24 or. = II, 6, 14 [48, 16])
asimasi: rudimentos	(B, 8 or. = I, 9, 14 [20, 20-21])
asi-masiak: lenbiziko ikaskizunak	(B, 30 or. = III, 4, 8 [59, 8])
asperen: suspirio	(B, 31 or. = III, 6, 10 [61, 9])
atzeman: atzi, arrapatu	(B, 16 or. = I, 19, 30 [34, 23])
atzi: atzeman, arrapatu	(B, 3 or. = I, 5, 5 [13, 15])
atzi: atzeman, iritxi	(B, 33 or. = III, 7, iz. [63, 14])
aurtiki: bota	(B, 16 or. = I, 19, 30 [34, 13])
aurtiki: bota	(B, 22 or. = II, 4, 9 [43, 24])
ausarki: ugari	(B, 22 or. = II, 4, 9 [43, 23])
ausaz: bear ba'da	(B, 4 or. = I, 6, 7 [14, 12])
ausaz: bear ba'da	(B, 36 or. = III, 9, 17 [68, 24])
auteman: observar	(B, 79 or. = VII, 6, 8 [162, 11])
azbegi: miembro	(B, 6 or. = I, 7, 11 [18, 6])
azbegi: miembro	(B, 65 or. = VI, 3, 4 [130, 13])
azkuri: ianari	(B, 6 or. = I, 7, 11 [17, 20])
aznai: azkura	(B, 9 or. = I, 10, 16 [22, 17])
aznai: azkura	(B, 48 or. = IV, 13, 20 [92, 13])
baietsi: ontzat eman	(B, 32 or. = III, 6, 11 [62, 25])
baitaratu: konturatu	(B, 4 or. = I, 6, 8 [15, 12])
bakun: sencillo	(B, 24 or. = II, 6, 13 [47, 11])
bakun, bikun: simple, doble	(B, 50 or. = IV, 15, 24 [95, 17])
balditu: txit arritu	(B, 73 or. = VI, 12, 22 [147, 21])
bapikatu: ezagerar [sic]	(B, 67 or. = VI, 6, 10 [136, 10])
basi: bañu	(B, 20 or. = II, 3, 6 [41, 4-5])
batzaldi: concurso	(B, 9 or. = I, 10, 16 [22, 15])
batzaldi: concurso	(B, 39 or. = IV, 1, 1 [75, 11])
bekaizgo: inbiria	(B, 35 or. = III, 8, 16 [67, 11])
bidutzi: monstro	(B, 24 or. = II, 6, 14 [48, 16])
bio: esan beza	(B, 5 or. = I, 6, 10 [17, 6])

<sup>6</sup>Ikus, honen gainean, II erans. 366 or.



birrintu: apurtu, desegin	(B, 38 or. = III, 12, 21 [72, 11])
bitxi: raro	(B, 36 or. = III, 10, iz. [69, 15])
bixiko: diferente	(B, 49 or. = IV, 14, 22 [93, 22])
bortxaz: in<d>arbeartuz	(B, 10 or. = I, 12, 19 [25, 4])
buruntza: koroia	(B, 64 or. = VI, 2, 2 [128, 2])
buruzki: kontra	(B, 35 or. = III, 8, 16 [67, 22])
dedu: honor	(B, 67 or. = VI, 6, 9 [134, 11])
dilindan: zintzilika	(B, 11 or. = I, 13, 22 [27, 6])
ebatsi: lapurtu	(B, 23 or. = II, 6, 12 [46, 7])
edatsi: narrar	(B, 140 or. = XI, 2, 2 [304, 5])
eder-itsusi (norberaren...): amor propio	(B, 14 or. = I, 17, 27 [31, 18])
edoski: titia artu	(B, 4 or. = I, 6, 7 [15, 7])
egari: supritu	(B, 8 or. = I, 9, 14 [20, 16-17])
einean: tamañean	(B, 29 or. = III, 3, 5 [57, 1])
ekai: materia	(B, 142 or. = XI, 5, 7 [308, 19])
ekain: solsticio	(B, 54 or. = V, 3, 6 [105, 22])
ekurugaitz: inquieto	(B, 18 or. = II, 1, 2 [38, 12])
eliku: freno, continencia	(B, 72 or. = VI, 12, 21 [146, 23])
entzin: fiarse	(B, 65 or. = VI, 4, 6 [132, 3])
entzingaitz: desconfiado	(B, 63 or. = VI, 1, 1 [125, 12])
erauzi: arrancar	(B, 36 or. = III, 10, 18 [69, 20])
erdaindu: circuncidar	(B, 140 or. = XI, 2, 3 [304, 22])
eredu: modelo	(B, 16 or. = I, 19, 30 [35, 9])
[eretsi: ikus, beherago, «ezetsi»]	
ergi: biga, zekor	(B, 82 or. = VII, 9, 15 [169, 1])
erroialdi: pamili	(B, 34 or. = III, 7, 13 [65, 1])
etekin: protxu	(B, 25 or. = II, 8, 16 [49, 19])
ezetsi: aintzat ez artu <sup>7</sup>	(B, 20 or. = II, 3, 7 [41, 28])
ezope: zirtzil	(B, 18 or. = II, 1, 2 [38, 12])
gartxu: sobrio	(B, 63 or. = VI, 2, 2 [127, 11])
giltza: vuelta	(B, 150 or. = XI, 23, 29 [327, 3])
gogaki: espiritual	(B, 31 or. = III, 6, 10 [61, 14])
gogaki: espiritual	(B, 65 or. = VI, 4, 6 [131, 26])
goibeltasun: tristeza	(B, 24 or. = II, 6, 13 [47, 28])
gomen: serbitzu	(B, 36 or. = III, 9, 17 [69, 8])
goraintzi: recomendar	(B, 120 or. = X, 10, 17 [257, 23])
gotor eta tinko: sólido y firme [...] <sup>8</sup>	(B, 44 or. = IV, 7, 12 [85, 1])
iabal: tranquilo	(B, 88 or. = VIII, 1, 1 [183, 19])
iabaldu: calmarse	(B, 90 or. = VIII, 3, 6 [189, 15])
iagole: zaitzaile <sup>9</sup>	(B, 35 or. = III, 8, 16 [68, 3])
iagon: defender	(B, 6 or. = I, 7, 12 [18, 23])
iagon: defender	(B, 60 or. = V, 10, 19 [117, 27])
ialki: kontatu	(B, 18 or. = II, 1, iz. [37, 3])
iara eman: kasu egin	(B, 31 or. = III, 6, 10 [61, 6-7])

<sup>7</sup>Oharrak dioena, berez, «eretsi» da, makinazko testuko hitzak bezala («eretzen»); baina ez da zalantzarik kopiagilearen hutsak direla biak: m2-k testukoa zuzendu zuen baina ez oharrekoa. Ikus, guzti honetaz, 80 or.

<sup>8</sup>Honi buruz ikus, gorago, 414 or.

<sup>9</sup>Ohar hau m1ter-ek gehitu du: ikus 104-105 or.

iaregin: libratu	(B, 9 or. = I, 10, 16 [22, 23])
iaregin: librar	(B, 92 or. = VIII, 5, 12 [194, 8])
iarki: buruz buru iarri	(B, 1 or. = I, 1, 1 [9, 9])
iauki: aurean ipifii	(B, 31 or. = III, 6, 10 [61, 18])
iaurespide: erligio	(B, 31 or. = III, 6, iz. [60, 16-17])
idaroki: burura sarrerazi	(B, 30 or. = III, 4, 8 [59, 6])
iguin: aspergarri	(B, 12 or. = I, 14, 23 [28, 4])
iguin: gogaitu	(B, 29 or. = III, 3, 6 [57, 17])
iiztatu: rociar	(B, 12 or. = I, 14, 23 [28, 10])
ikotika: saltoka	(B, 20 or. = II, 3, 6 [41, 6])
ikotika: saltoka	(B, 90 or. = VIII, 3, 6 [188, 24])
illarraindu: arrotu	(B, 29 or. = III, 3, 6 [57, 9])
illarrieta: cementerio	(B, 63 or. = VI, 2, 2 [127, 5])
iñarrausi: astindu	(B, 21 or. = II, 4, 9 [43, 20])
iñutu: nutrir	(B, 3 or. = I, 4, 4 [12, 13])
iñutu: nutrirse	(B, 32 or. = III, 6, 10 [62, 4])
iradu: prisa	(B, 38 or. = III, 12, 21 [72, 7])
irozo: conservar	(B, 17 or. = I, 20, 31 [36, 9])
itzuri: eskapa	(B, 8 or. = I, 9, 15 [21, 20])
itzuri: eskapa	(B, 34 or. = III, 8, 15 [66, 16])
kaizu: gorpuz-tamaña	(B, 16 or. = I, 19, 30 [35, 9])
kali: akabatu	(B, 22 or. = II, 5, 11 [45, 11])
kirola: iostaketa	(B, 8 or. = I, 9, 15 [22, 1])
kuntze: sexo	(B, 50 or. = IV, 15, 24 [95, 18])
margazki: pintura	(B, 14 or. = I, 16, 26 [30, 24])
mendeku: bengantza	(B, 22 or. = II, 5, 10 [44, 18])
mendeku: bengantza	(B, 24 or. = II, 6, 13 [47, 22])
mihi: mingain	(B, 7 or. = I, 8, 13 [20, 6])
mikuin: gutziatsu	(B, 23 or. = II, 6, 12 [46, 11])
mingatu: pronunciar	(B, 90 or. = VIII, 2, 5 [187, 25])
mintzul: itzik gabe	(B, 3 or. = I, 4, 4 [12, 23])
mintzul: itz gabe	(B, 7 or. = I, 8, 13 [19, 12])
mukulu: cuerpo sólido	(B, 33 or. = III, 7, 12 [64, 4])
narda: nazka	(B, 21 or. = II, 4, 9 [43, 15])
oldar: ímpetu	(B, 109 or. = IX, 10, 24 [232, 7])
oldartu: indarrez sartu	(B, 13 or. = I, 16, 26 [30, 13])
peitu: falta	(B, 3 or. = I, 4, 4 [12, 13])
pulunpatu: murgildu	(B, 18 or. = II, 1, 2 [38, 5])
semautsiek: hijo adoptivo	(B, 65 or. = VI, 3, 4 [130, 4])
sori: zillegi	(B, 34 or. = III, 7, 13 [65, 2])
sori: zillegi	(B, 57 or. = V, 8, 14 [112, 24])
sorterro: iturburu	(B, 35 or. = III, 8, 16 [67, 16-17])
tirriatu: gutziatu	(B, 30 or. = III, 4, 7 [58, 15])
toil: astun	(B, 92 or. = VIII, 5, 12 [193, 19])
tuku: celos	(B, 3 or. = I, 4, 4 [12, 14])
tuku: celos	(B, 27 or. = III, 1, 1 [54, 8])
tulunbio: leize aundi	(B, 22 or. = II, 4, 9 [44, 2])
tulunbio: abismo	(B, 64 or. = VI, 3, 3 [129, 5])
tupust: oztopo	(B, 32 or. = III, 6, 11 [63, 6])
txartexa: capa	(B, 13 or. = I, 16, 25 [30, 4-5])

uieldu: empaparse	(B, 78 or. = VII, 5, 7 [161, 2])
ukan: izan	(B, 10 or. = I, 11, 18 [24, 14])
ulertu: comprender	(B, 7 or. = I, 8, 13 [20, 1])
unitu: iñutu, nutrir	(B, 85 or. = VII, 18, 24 [177, 20])
urduri: eziñegon	(B, 14 or. = I, 17, 27 [31, 18])
urgoitu: arrotu	(B, 20 or. = II, 3, 7 [42, 5])
urribizi: eskasi ugari <sup>10</sup>	(B, 10 or. = I, 12, 19 [25, 7])
urri bizia: mixeria	(B, 51 or. = IV, 16, 29 [98, 7-8])
urruña: desprezio	(B, 35 or. = III, 8, 16 [67, 8])
xume: txiki	(B, 54 or. = V, 3, 3 [103, 23])
zailu: arin	(B, 30 or. = III, 4, 7 [58, 17])
zapuiztu: repudiar	(B, 40 or. = IV, 2, 3 [77, 12])
zirakiten: irakiten zuten	(B, 18 or. = II, 1, 2 [38, 3])
zirkin: mugimentu, movimiento	(B, 145 or. = XI, 11, 13 [314, 12])
zirta: zipriztifi	(B, 27 or. = III, 1, 1 [54, 4])
zuamu: arbola	(B, 77 or. = VII, 5, 7 [159, 7])

---

<sup>10</sup>Bai oharra bai oharraren objektua den testuko hitza m2-k eskuz gehituak dira: ikus 118 or.

Azentu zirkunflexua, bokal bikoitza eta *h* letra C-tik A-ra

Orixek eta Lekuonak B-prior-eko testuari egindako zuzenketa zati esanguratsu bat dagokie hitz gutxi batzuek bokal bakun baten tokian eraman dezaketen azentu zirkunflexu, bokal bikoitz edo *h* letrari: esaterako, *zahar* hitzak agertu ahal dituen «zar», «zâr», «zaar» eta «zahar» aldaerei. Esan bezala, hitz gutxi dira, baina maiz samar erabiltzen direnak eta, hortaz, egilearen —edo zuzentzaile baten— jarrera edo bilakaera egoki erakuts ditzaketenak. Aipatu m2-ren eta m3-ren oharrak eta B-tik A-ra gertatutako aldaketak eragin dituzten asmoak ezin dira ulertu hiru osagai horietaz horniturik ager daitezkeen hitz guztiak batera aztertu ezean: eta merezi du zeren, txikikeria hauei eskerrak, Orixek —eta, neurri apalago batean, Lekuonak— izan zuten ardura baten nondik norakoaz jabetzeaz gain, kronologiari buruzko auzi bat baino gehiago ere garbitu ahal izango baitugu.<sup>1</sup>

Ca-ko egoera gardena da: I-IV liburuetan Orixek ez du —esateko moduan— *h* erabiltzen, bokal bakuna baizik, zirkunflexuarekin edo zirkunflexurik gabe («zar» edo «zâr» alegia); erdiko liburuetan, III-VII.etan zehazki, lehenengoetan eta azkenekoetan ez bezala, bokal bikoitzaz ere baliatzen da noizean behin («zuur», baina baita «zur» eta «zûr» ere); eta V-IX liburuetan, berriz, zirkunflexua desagertu egiten da ia-ia eta, aldi berean, *h* letra usatzen du, baina zirkunflexurik gabeko bokal bakuna inoiz erabat baztertu gabe («zar» eta «zahar», beraz). Horrela, eta kontuan izanik zirkunflexurik gabeko bokal bakuna («zar»), gehienetan, aldaera ez-markatua dela —eta, hortaz, nonahi ager daitekeena—, hona hemen azentu zirkunflexua, bokal bikoitza edo *h* letra duten Ca-alter-eko hitz guztiak:<sup>2</sup>

<sup>1</sup>Hemen mintzagai izango ditugun hitzak —eta, hortaz, emango ditugun zerrendetan jasoko ditugunak— dira *Aitorkizunen* testuan zehar azentu zirkunflexu, bokal bikoitz edota *h* letrarekin behin behintzat agertzen diren guztiak. Hauei buruzko datuak eranskin honen akaberako tauletan daude osorik: bertan aurkituko ahal du irakurleak zein aldaera agertzen diren testuaren hiru idatzaldietan (C, B eta A-n alegia), nola aldatu den horietako bakoitza idatzaldi batetik bestera, zein zuzenketa egin dituzten B-prior-etik ibilitako eskuek, etab. Eranskinaren testu nagusian zehar, berriz, idatzaldi bakoitzaren egoera, egoera horien bilakaera eta esku bakoitzak egindako aldaketan —beharrezko baino nahasgarri iritzi baitiogu—, bai ordea aipatu akaberako tauletan. Azentu zirkunflexu, bokal bikoitz edo *h* letra eraman dezaketen hitz hauetako batzuek aldaera ez-markatu bat izaten dute: azenturik gabeko bokal bakunarekin osatutakoak, hau da, «antzi», «zar», «zur», etab.; ohar bedi aldaera ez-markatu hauei buruzko datuak ez ditugula jaso hiru idatzaldien egoera deskribatzeko eman ditugun (421, 422-423 eta 428-429 or.) zerrendetan —beharrezko baino nahasgarri iritzi baitiogu—, bai ordea aipatu akaberako tauletan. Orobat, kontuan hartu behar da *Aitorkizunen* testuari buruz ari garela: Orixeren hiztegi oharrak, beraz, kanpo gelditzen dira, haietan dauden aldaerak eranskin honen bukaeran diren tauletako oin-oharretan jaso baditugu ere.

<sup>2</sup>Ohar bedi ondo laburtuta eman ditugula erreferentziak zerrenda hauetan (hots, 421, 422-423 eta 428-429 orrialdeetakoetan), osorik baitaude guzti-guztiak eranskinaren akaberako tauletan; zerbait ordea eman beharra zegoen, irakurleak begi kolpe batean kokatu ahal izateko, *Aitorkizunen* testuan, aipatu dugun agerraldi bakoitza.

- âmen (1): III, 10, 18  
 ântzi (5): I, 5, 5; I, 13, 20; I, 13, 22 (bis); IV, 13, 20  
 bê (1): VII, 10, 16  
 îztatu (1): I, 14, 23  
 mî (5): I, 8, 13; I, 9, 14; I, 17, 27; IV, 8, 13; IV, 14, 23  
 nâs (7): I, 16, 25 (bis); II, 2, 2; III, 6, 10; III, 11, 20; V, 12, 22; IX, 11, 28  
 zâr (4): I, 4, 4; I, 9, 14 (bis); I, 18, 29  
 zûr (4): III, 6, 11; III, 12, 21; IV, 3, 5 (bis)
- mii (3): III, 4, 7 (bis); V, 1, 1  
 xeetasun (1): VII, 6, 8  
 zuur (2): V, 6, 10; VI, 14, 24
- ahal (11): II, 2, 3; VI, 4, 6; VI, 5, 8; VI, 10, 16; VII, 4, 6 (bis); VII, 5, 7 (bis); VII, 17, 23 (ter)  
 aholkari (1): VI, 10, 16  
 aholku (8): VI, 10, 16; VI, 12, 21; VII, 6, 8; VIII, 1, 1; VIII, 6, 13 (bis); VIII, 12, 30; IX, 2, 2  
 ahopaldi (1): IX, 8, 18  
 hats (1): I, 18, 29  
 heresi (2): III, 12, 21; V, 10, 19  
 heretiku (2): VII, 19, 25 (bis)  
 ihize (2): V, 1, 1; VII, 5, 7  
 ihiztatu (1): IX, 10, 23  
 mahasketa (1): IX, 2, 2  
 mihi (19): V, 1, 1; VI, 3, 3; VI, 7, 12; VI, 12, 21; VII, 2, 3; VII, 7, 11; VII, 9, 14; VII, 21, 27; VIII, 4, 9; VIII, 4, 9; VIII, 5, 10; VIII, 7, 18; IX, 1, 1; IX, 2, 2; IX, 2, 3; IX, 4, 7; IX, 9, 19; IX, 9, 20; IX, 10, 25  
 nahas (1): IX, 12, 32  
 oge (2): IX, 11, 27; IX, 12, 32; ikus s.v. 'ohaide'  
 ohaide (1): IX, 9, 19; ikus s.v. 'oge'  
 zahar (5): IX, 4, 10; IX, 8, 17 (bis); IX, 8, 18 (bis)  
 zugur (3): VIII, 6, 13 (bis); VIII, 7, 17; ikus s.v. 'zuhur'  
 zuhur (11): V, 6, 10; V, 10, 19; VII, 6, 8; VII, 9, 14 (bis); VII, 18, 24; VII, 19, 25; VII, 21, 27; IX, 3, 6; IX, 8, 17 (bis); ikus s.v. 'zugur'

Ca-ren testuan zehar egon den ezin ukatuzko —eta gorago azaldu— bilakaera ondoena erakusten dutenak *zahar*, *zuhur* eta *mihi* hitzak dira: «zâr» I. liburuan bakarrik erabiltzen da eta «zahar», berriz, IX.ean bakarrik; «zûr» III-IV liburuetan, «zuur» V-VI.etan eta «zuhur» (edo honen aldaera baizik ez den «zugur») V-IX liburuetan; eta, azkenik, «mî» I-IV liburuetan bakarrik aurkitu ahal dugu, «mii» III-V.etan eta «mihi», berriz, V-IX.etan. Gainerako hitzek ere berretsi egiten dute —ez ohiko gardentasun batekin berretsi ere— aipatu hirurek erakusten duten ikuspegia: salbuespenak, izan ere, edo arbuigarriak dira edo begien bistan dauden arrazoiek eragindakoak.<sup>3</sup> Hau guztia, esan bezala, inoiz ahaztu gabe

Kontuan har bedi, orobat, «ago», «oge», «zagar», «zâkar» eta «zugur» aldaerak *b*-dun aldaerei dagokien sailean jaso direla.

<sup>3</sup>Benetako salbuespen bakarra *ahal* hitza izango zatekeen, konturatu ez bagina Orixek «ahal» aldaera izena denean bakarrik erabiltzen duela: «al» eta «âl», berriz, izena zein —askoz ere sarriago— *ahal izan* aditzaren osagaia izan daitezke. Ikus, bestela, «ahal» aldaeraren agerraldi guztiak beren testuinguruetan (erreferentzia osoak

gehien-gehienetan azenturik gabeko bokal bakuna duten aldaerak ez-markatuak direla eta, hortaz —oro har behintzat—, nonahi ager daitezkeenak.

B-ren makinazko testura bidean egin diren aldaketak honela labur genitzake: bokal bikoitzak ia-ia zeharoan desagertu dira eta, aldiz, lehen baino askoz sarriago baliatu da Orixeko azentu zirkunflexuaz; beste alde batetik, *h* letra Ca-ren azken liburuetan bezalatsu erabili du, *zahar* eta *zuhur* hitzentzat (neurri txikiago batean baita *aho* eta *obe* hitzentzat ere) *h*-dun aldaeren baliokidetzat jo daitezkeen irtenbide bereziak bilatu edo —batzuk Ca-n ere bai baitzeuden— indartu baditu ere («zagar» edo «zâkar», «zugur», «ago», «oge»<sup>4</sup>). Hitz batean: Ca-ren V-IX liburuetan erakutsitako jarrerari eutsi dio funtsean —*g*-dun aldaera bereziei proportzio handiagoa emanez— baina azentu zirkunflexua askoz maizago erabiliz.<sup>5</sup> Hortaz, honako hauek dira B-ko testuan dauden azentu zirkunflexu, bokal bikoitz edo *h* letra duten hitz guztiak, oraingo honetan ere oso kontuan izanik zirkunflexurik gabeko bokal bakuna («zar») aldaera ez-markatua dela eta, hortaz, nonahi agertzen dela B-ko testuan zehar:

âl (16): I, 2, 2; II, 2, 4; IV, 5, 10; IV, 12, 18; IX, 3, 6; IX, 12, 32; X, 30, 42; X, 40, 65 (bis); XI, 1, 1; XI, 9, 11; XII, 27, 37; XII, 29, 40; XII, 31, 42; XIII, 2, 2; XIII, 7, 8

ântzi (44): ikus beheragoko tauletan

bê (2): I, 5, iz.; VII, 10, 16

kê (1): I, 17, 27

lên (1): [I] orrian (Mathieu apezpikuarentzako eskaintzan)

mâsti (1): II, 4, 9

nâs (33):<sup>6</sup> ikus beheragoko tauletan

zâr (13): ikus beheragoko tauletan

zûr (2): ikus beheragoko tauletan

iiztatu (1): I, 14, 23

xeetasun (1): VII, 6, 8

zuur (1): VI, 14, 24

ago (1): II, 4, 9; ikus ahopaldi

ahal (13): II, 2, 3; VI, 4, 6; VI, 5, 8; VI, 10, 16; VII, 4, 6 (bis); VII, 5, 7 (bis); VII, 17, 23 (ter); X, 32, 48 (bis)

ahamen (1): III, 10, 18

ahantzi (3): X, 8, 12; X, 8, 14; X, 9, 16

aholkari (1): VI, 10, 16

akaberako tauletan): «Zure guzizko ahala ez baitugu urrun» (II, 2, 3); «ainbesteko ahala emanez» (VI, 4, 6); «olako ahalik» (VI, 5, 8); «ematen zioten ahala» (VI, 10, 16); «Zure ahala» (VII, 4, 6); «Iainkoagan, ahal eta nai, Iainkoa Bera da» (VII, 4, 6); «ene ahalez» (VII, 5, 7); «ahal oro dun Orrek» (VII, 5, 7); «Zure betiko ahala» (VII, 17, 23); «ondorioka artzeko ahalera» (VII, 17, 23); «Ahal au ere» (VII, 17, 23); «nigan dagon ahala» (X, 32, 48); «Ahal ontaz» (X, 32, 48).

<sup>4</sup>Ikus hauei buruz, hemen bertan, 429 or. 12 oh.

<sup>5</sup>Daitekeena da ordea zirkunflexuaren erabileran C-tik B-ra bidean egon den ugartzea ez izatea gure datuek erakusten duten bezain handia: ez dezagun ahaztu Ca-alter baino ez dugula, hau da, orijinalaren kalko bat, eta azentuduntzat jo ditugun hitz askok eskuz dutela gehitua zirkunflexua; zalantzarik gabe, Ca-alter-eko oharrak ca-prior-ekoen kopia dira eta, ohi bezala —horrela gertatu da, urrutirago joan gabe, B-prior eta B-alter-en—, kopiaketa horretan ohar asko geldituko ziren Ca-alter-era aldatu gabe.

<sup>6</sup>Sail honetan sartu ditugu beste era bateko edozein azentu daramaten agerraldiak («nâs» edo «nâs» alegia), bistan baita kopiagilearen asmoan —eta, zalantzarik gabe, ereduan— «nâs» zegoela.

aholku (11): VI, 10, 16; VI, 12, 21; VII, 6, 8; VIII, 1, 1; VIII, 6, 13 (bis); VIII, 12, 30; IX, 2, 2; X, 40, 65; XI, 2, 2; XIII, 32, 47  
 ahopaldi (1): IX, 8, 18; ikus ago  
 hats (1): I, 18, 29  
 heresi (2): III, 12, 21; V, 10, 19  
 heretiku (2): VII, 19, 25 (bis)  
 ihize (6): V, 1, 1; VII, 5, 7; X, 6, 10; X, 17, 26; X, 25, 36; X, 31, 46  
 ihiztatu (1): IX, 10, 23  
 mahasketa (1): IX, 2, 2  
 mihi (27): ikus beheragoko tauletan  
 nahas-mahas (2): XII, 3, 3; XII, 17, 25  
 oge (5): II, 2, 3; IV, 7, 12; IV, 12, 19; IX, 11, 27; IX, 12, 32; ikus ohaide  
 ohaide (1): IX, 9, 19; ikus oge  
 uhats (1): X, 6, 9  
 zagar (3): I, 4, 4 (bis); IX, 8, 18; ikus zâkar  
 zâkar (2): IX, 8, 17 (bis); ikus zagar  
 zugur (61): ikus beheragoko tauletan

Hortaz, eta esan bezala, zirkunflexudun aldaerak ugariagoak dira askoz, eta *h* letra Ca-ren azken liburuetan bezalatsu mantendu da salbu *zahar* eta *zuhur* hitzetan: izan ere, B-n ez da ez «zahar» ez «zuhur» bat ere gelditu, eta hauen tokian «zagar» edo «zâkar» eta «zugur» bakarrik (noski, «zar», «zâr», «zur», «zûr» aldaerekin batera) agertzen zaizkigu.

Begien bistakoa da zein toki duten, bilakaera garden honetan, m2-k B-prior-eko orrietan era honetako hitzei egindako zuzenketek (121-122 or.):

	B	m2	A
11 or. = I, 13, 22 [27, 4 <alt.>]	##zteko	ânzteko	ânzteko
23 or. = II, 6, 12 [46, 18]	zurtasun. [= C]	zûrtasunarekin	zûrtasunarekin
38 or. = III, 12, 21 [72, 11]	antzarazteko [= C]	ântzarazteko	ântzarazteko
88 or. = VIII, 1, 1 [184, 7]	zartua [= C]	zârtua	zârtua
92 or. = VIII, 5, 10 [192, 22]	zarra [= C]	zârra	zarra
96 or. = VIII, 8, 20 [201, 3]	al [= C]	âl	âl
97 or. = VIII, 10, 24 [204, 4]	al [= C]	âl	al
97 or. = VIII, 10, 24 [204, 7]	al [= C]	âl	al
98 or. = VIII, 11, 25 [205, 15]	zarragoak [= C]	zârragoak	zarragoak
106 or. = IX, 8, 17 [226, 10]	zâkar [zahar C]	zagar	zâr

Berria da, lehen emandako ikuspegi orokorrean, «zâkar» aldaeraren kontrako jarrera —paragrafo berean dagoen beste «zâkar» bat ukitu ez badu ere—: erraz ulertzen da, Ca-n ez baitzegoen ez «zâkar» ez «zagar», bai ordea «zugur»; eta B-ko testuan «zagar» aldaeraren alde arreta gutxi ipini arren —esanguratsua da, hala ere, B-ko lehenengo bi agerraldiak «zagar» izatea—, «zugur» da ia-ia erabiltzen duen bakarra.<sup>7</sup>

<sup>7</sup>Izan zen, bukatu berria den mendeko hogeigarren urteetan, xede honekin erabilitako azentu zirkunflexuari buruzko aipamen bat edo beste. Euskaltzaindian eztabaidatu behar liratekeen puntu zenbait ukitzen zituen

Ildo beretik joan dira Lekuonak B-prior-eko orrietan egindako zuzenketak: badirudi, zirkunflexuari dagokionez, Orixeri jarraitu zaiola, agian Orixeren aipatu oharrei berei (161

«Batasunera-bidean» izeneko lan batean auzi hau aipatu zuen Azkuek [1928, 64 or.], nahiz eta ez zehazki guk mintzagai ditugun kasuetarako: «¿Usaremos o no del acento circunflejo sobre vocales sincopadas, por ejemplo, para distinguir *arriba bat* 'una hermana' de *arrebá* 'la hermana', *zazpi astok iretsi dute* 'siete burros lo han devorado' de *astók nireak dira* 'los tales burros son míos?». Altubek [1928, 77 or.], aldizkariaren zerbaki berebean, honela erantzun zion bere ohiko ikuspuntu zuhurretik: «No veo por ningún lado qué ventaja pudiera reportar esta reforma a la escritura del euskera para justificar ese otro pequeño retoque a las reglas y prácticas de los escritores de las generaciones pasadas. Esta sola consideración bastaría para que, yo al menos, me vociflara contrario al proyecto; pero es más, creo que se podrían oponerle algunas objeciones de orden práctico y aun gramatical [...]»; eta, orain bai, argudio hauek ematean, Azkuek aipatzen zituen kasuez gain *zabar* eta *bebe* ere aipatzen zituen Altubek, eta honako ondorio honekin bukatzen zuen: «Por las razones aducidas, opino que las vocales dobles en cuestión deben ser representadas por sendas letras». Azkuek zirkunflexuaren kontu honekin batera aurkeztu zituen beste auzi batzuk aztertu ziren —zenbaiti buruz baita erabakiak hartu ere— handik gutxira egindako bileretan (esaterako, 1930eko «Euskaltzaindiaren batzar-agiriak» delakoan: *Euskera*, 11, 1930, 44-61 or.), inoiz ez ordea guri hemen axola zaiguna. Alabaina —honek eragin ote zion Azkueri 1928ko aipamena?—, 1918 eta 1919 urteetan argitaratutako bi artikulutan («Acento vasco», RIEV, 9, 1918, 1-15 or. [= IG, III, 470-479 or.] eta «Vocales compuestas o de acento doble», *ib.*, 10, 1919, 45-48 or. [= IG, III, 479-481 or.]) hitz egin zuen ja Orixek gai honi buruz (honen gainean ikus Exteberria [1997]); izan ere, Orixek —Altubek bezala: ikus gorago aipatu dugun 1928ko lana— euskararen auzenturen auziarekin lotu nahi zuen zirkunflexuaren erabilera: harentzat, zirkunflexua ez zen bokal bikoitz bat —azentua gorabehera— adierazteko ikur soil bat («zâr» = «zaar»), ezpada —grekeran bezala— lehenengo gorantz eta ondoren beherantz zihoan tonu bat adierazi behar zuen zeinu bat («zâr» = «zâar»); horrela, ohiko zirkunflexua erabili behar baldin bazen, berdin erabili behar lirerateke izan daitezkeen gainerako hiru azentu konposatuak: hau da —betiere, noski, bokal bakar baten gainean— bi azentu gorantz, bi beherantz eta alderantziz jarritako zirkunflexu bat (hots, beherantzko bat gehi gorantzko bat). Bide askotatik dakigu hauxe zela Orixek kontu honen gainean zuen iritzia. Hau baino interesgarriagoa da —auzi honen historia egiteko batera asmorik ez dudan arren, ez baita hau tokia— egiaztatzea behin baino gehiagotan saiatu zela Orixek teoria korapilatsu samar honek auzalten bide duen errealitatea praktikan ere islatzen. Horrela, azentu hauek guztiak sartu nahi izan zituen *Euskaldunak* poema inprimategira joan zen lehenengo aldian; Mokoroarentzako garaiko gutunak ditugu lekuko (guztiak PIA): «*Béra, zâr, lén*, eta abarren gorabêra, ez al nizun *prueba*-etarako utzi? An egizu nai dezuna, ta esker onez artuko dizut. Markiegiri ere bialtzeko asmoa det, nik ez baitezaket bururik zorroztu ortaraino» (1935eko martxoaren 18koa); «Erantzunik daukazu "Nota" [gorago aipatzen duen "Nota para los cajistas" bat] orretan. Itzeri, bakarka duten azentua ipini oi diegu lagunekin dirala ere, ta ez luke bear: *lèna, lén, ni lén; zârra, bi zâr; nâsi, ez nâsi. Biâmon* ordez *biâmon* bear luke, t.a. [...] Diozun *besteen* ori *bestén* bear luke» (1935eko apirilaren 12koa); «Lengo bileretan galdegin nien Euskalzain launeri zer zerizkioten azentu biko orietaz, eta, ain kolokak eta aldaberak diran ezkeroz, bi letraz adieraztea litzakela oherenik [izan ere, hauxe zen Altubek aipatu tokian, 79 or., proposatu zuena]. Oinbeste buruauste ta aldaketa bage, *circunflejo directo, inverso, agudo-sobre-agudo, grave-bajo-grave*, ta *vocal larga*-ren marra utzita ez al litzake errezago vocal oriek *negrita*-z adieraztea? Ontaz itzaurrean zerbait esan bear» (1935eko apirilaren 27koa). Eta beste lekuko bat dugu, ez txarragoa, Mokoroak poemaren edizioari jarri zion hitzaurrean (*Euskaldunak...*, [xxx-xxxi] or.); antza denez Mokoroak, azentu aldrebes haiek ikusita, honako hau proposatu zion Orixeri: *zabar, lehen, nahasi* bezalako hitzentzat bokal luzea adierazteko erabili ohi den marra erabiltzea («episema» deitzen dio berak); eta, betiere Mokoroak dioskunez, baita Orixek onartu ere: «*aceptó* [sc. Orixek] *igualmente la tercera* [sc. proposamena], optando por el *episema*. Sólo por imposibilidades de tipografía habría admitido el circunflejo. El circunflejo debía representar *entonación* (aguda + grave), y *no cantidad*; y su aceptación habría implicado la introducción del acento ã (grave + agudo), del á (agudo + agudo) y del ä (grave + grave): demasiados signos prosódicos para un poema popular» (etzana Mokoroarena). Dakigun bezala, edizio hura ez zen inoiz egin —ez behintzat bukatu—. Mokoroak lekukotasun hauetan islatzen duen Orixeren jarrera berbera —hots, ohiko zirkunflexua erabiltzekotan gainerako hirurak ere erabili beharra— ikus dezakegu *Aitorkizunen* lehenengo idatzaldiaren (hots, Ca-alter-eko) I-II liburuetan, 70-71 or. «nun» adizkiaren kasua zela-eta ikusi ahal izan dugun bezala; badirudi ordea aipatu idatzaldiaren hirugarren liburutik aurrera —eta, jakina, bigarren idatzaldian— amore eman zuela eta ohiko zirkunflexua bakarrik erabili zuela. Alabaina, azpimarratu egin beharko litzateke *Euskaldunak* poeman eta *Aitorkizunen* lehenengo idatzaldian —zer esanik ez azentuari buruzko lanetan— erakutsitako jarrera hau salbuespena zela baita bere izkribuetan ere: gehien-gehienetan, noski, ohiko zirkunflexua bakarrik erabiltzen zuen Orixek. Azkenik, eta noiz edo noiz 1918-1919etako artikulua haiek baino lehenago —betiere «zâr» erako kasuez ari garelarik— agertzen bada ere, esango nuke Orixeren inguruko idazleek erabili izan dutela batik bat azentu zirkunflexua ('Orixeren ingurukoa' da —ez alderantziz— Olabideren *Itun zâr eta berria* delakoaren grafia, zati batean behintzat).



or.). Izan ere, eta Lekuonaren *usus*-a erabat sistematikoa izan ez bazen ere, ez ohi zuen —sasoï hartako izkribuetan behintzat— zirkunflexua erabili: nahiago izaten zituen bokal bikoitza edo *h* letra bera, *Aitorkizunen* inguruko haren izkribuek ere erakusten duten bezala.<sup>8</sup> Eta, zalantzarik gabe, pentsatuko zuen —neurri batean, seguruenik, zuzen— zirkunflexurik gabeko «antzi» eta «nas» haietako asko ezabatze huts banaren ondorioak zirela, hau da, ahaztu egin zitzaiola, Orixeri edo kopiagileari, zirkunflexua ipintzea, «ântzi» eta «nâs» asko baitzeuden B-prior-eko testuan zehar, makinaz joak zein —azpimarra dezagun— Orixek eskuz gehituak.

	B	m3	A
106 or. = IX, 7, 16 [225, 2]	antzi	ântzi	ântzi
107 or. = IX, 9, 19 [228, 12]	nasten	nâsten	nâsten
118 or. = X, 8, 13 [254, 7]	nasten	nâsten	nasten
122 or. = X, 16, iz. [263, 9]	Auztea	Ânztea	Anztea
122 or. = X, 16, 24 [263, 10]	Auztea	Ânztea	Anztea
122 or. = X, 16, 24 [263, 15]	anztea	ânztea	ânztea
124 or. = X, 19, 28 [267, 12]	Antzia	Ântzia	Aantzia
106 or. = IX, 8, 17 [226, 8]	zâkar	<b>zâkar</b>	zâr

Erraz ulertzen da Lekuonak «zâkar» hitza nabarmendu izana geroago «zâr» gisa zuzentzeko: batetik, berdin jokatu izan zuelako Orixeren testuak, hemen bezala, aukera ematen zionean aldaera normalago bat aukeratzeko (gogora, esaterako, «otsegin» eta «otsein», etab.); bestetik, berak nabarmendutako «zâkar» haren azpiko lerroan bertan ikus zezakeelako Orixek «zagar» gisa zuzendutako —eta arestian aipatutako— beste «zâkar» bat, B-ko testuan zen bestea, hain zuzen ere (hau ere «zâr» bihurtuko zuen A-ra bidean).

Hauek ez bezalakoa bada ere, ikusiko dugu m4-ren ohar hau ere erraz uztartzen dela bai arestian aipatu dugun Lekuonaren *usus*-arekin berarekin bai *Aitorkizunen* testuan egin zituen beste zuzenketa batzuekin (180 or.):

	B	m4	A
3 or. = I, 4, 4 [12, 9]	zagar	zahar	zahar

Eta, ohar honen egiletasuna epaitzerakoan ere, oso kontuan izan behar genuke B-ko testuan agertzen den lehenengo «zagar» dela. (Ikus, honi guztiari buruz, 181-182 or.).

B-prior-en arkatx gorri-urdinarekin egindako oharretan Orixeren *usus*-ari jarraitu zitzaiola batik bat erakusten digute, Lekuonaren aipatu bestelako izkribuek bezain ondo,

<sup>8</sup>Honako aldaera markatu hauek aurkitu ditut VII erans. 470 or. 19 oh. aipatutako Lekuonaren lanetan (guztira 30 bat orrialde): «nahastu» («Prantzia'ko idazle katoliku barek...», 68 or.), «bee» (*ib.*, 70 or.), «zahar» 4 aldiz («Urquixo jaunaren liburutegia...», 7-8 or.), «zahar» («Ortega'ren eriotza...», 37 or.), «mahasti» (*ib.*, 38 or.), «bee» («Edertiak Gipuzkoan...», 7 or.), «zaar» 2 aldiz (*ib.*, 8 or.), «mee» (*ib.*, 8 or.), «bee» (*ib.*, 8 or. eta 1 oh.), «leen» (*ib.*, 9 or.), «lehen» («Aita Jose Antonio Donostia...», 120 or.), «aaztu» (*ib.*, 121 or.), «ahal» (*ib.*, 122 or.). Hau da, aldaera markatuak bakarrik bildu nahi izan ditut, hots, azentu zirkunflexu, bokal bikoitz edota *h* letra dutenak: kontuan izan behar da, beraz, aipatutako hauekin batera «zar», «len» edo «nas» bezalakook ere badirela, ez ordea azentu zirkunflexudun bat ere.

«Utsuneak» izeneko dokumentuan eta 1956ko liburuaren akaberako «Arkibidea» delakoan egindako huts zenbaitek eta —«beerako» hitzaren kasuan— *ex novo* sartutako pasarte batek (191 eta 320-322 or.):

	B	Uts	A
6 zenb.	zârragoren	zaarragoren	zârragoren
36 zenb.	beerako	beerako	
	B	A	Ark
IX, 5	lenik	lenik	leenik
X, 16	Auztea [Ânztea m3]	Anztea	Aanztea
XII, 4	Nâste-borraste	Nâste-borraste	Naaste borraste
XII, 5	nâste-borraste	nâste-borraste	naaste borraste

Izan ere, ikusi dugu —VII erans.— berak eskribitu zituen testuetan joera zuela Lekuonak bere ohiko grafiak erabiltzeko.

Honen argitan errazago ulertuko da B-tik A-ra bidean egindako aldaketan aniztasuna (262-264 or.):<sup>9</sup>

	B	A
I or. [6, 7]	lênik	lenik
31 or. = III, 6, iz. [60, 17]	naste	nâste
35 or. = III, 8, 16 [67, 28]	antzirik	ântzirik
68 or. = VI, 7, 12 [138, 13]	ler	lêr
69 or. = VI, 8, 13 [139, 13]	al	âl
92 or. = VIII, 5, 10 [192, 21]	zar	zâr
92 or. = VIII, 5, 10 [192, 22]	zarra [zârra m2]	zarra
96 or. = VIII, 8, 20 [201, 5]	al <sup>10</sup>	âl
97 or. = VIII, 10, 24 [204, 4]	al [âl m2]	al
97 or. = VIII, 10, 24 [204, 7]	al [âl m2]	al
98 or. = VIII, 11, 25 [205, 15]	zarragoak [zârragoak m2]	zarragoak
103 or. = IX, 4, 8 [217, 25]	al	âl
104 or. = IX, 4, 10 [220, 9]	zârra	zarra
106 or. = IX, 8, 17 [226, 8]	zâkar [zâkar m3]	zâr
106 or. = IX, 8, 17 [226, 10]	zâkar [zagar m2]	zâr
107 or. = IX, 8, 18 [226, 24]	Zagarragoen	Zârragoen
109 or. = IX, 10, 23 [231, 8]	antziz	ântziz
118 or. = X, 8, 13 [254, 7]	nasten [nâsten m3]	nasten

<sup>9</sup>A-ra bidean aldaketarik izan duten B-prior-eko oharrak ere sartu egin ditugu zerrenda honetan (ikus, hauetaz, 214-215 eta 252-257 or.): B-ko irakurketaren ondoan, eta taketen artean, dagokion eskuaren irakurketa eman dugu. Gehienetan, gertatu den aldaketa ezabatze huts baten ondorioa da («zâr B : zar A», etab.) eta hutsa, zalantzarik gabe, inprimategiko langileei egotzi behar zaie: horrela izan da gehienetan, ez beti.

<sup>10</sup>Kontuan hartu behar da «al» hau m2-k ere «âl» zuzendu duen «al» baten (201, 3) azpiko lerroan dagoela B-n.

120 or. = X, 11, 18 [258, 11]	naste	nâste
121 or. = X, 14, 22 [261, 24]	nasten	nâsten
122 or. = X, 16, iz. [263, 9]	Auztea [Ânztea m3]	Anztea
122 or. = X, 16, 24 [263, 10]	Auztea [Ânztea m3]	Anztea
122 or. = X, 16, 24 [263, 21]	ântzi	ântzi
127 or. = X, 23, 34 [273, 12]	nasten	nâsten
127 or. = X, 24, 35 [274, 7]	antzi	ântzi
127 or. = X, 24, 35 [274, 9]	antzi	ântzi
128 or. = X, 27, 38 [276, 7]	zar	zâr
131 or. = X, 33, 49 [284, 6]	nasten	nâsten
134 or. = X, 35, 57 [290, 25]	nasten	nâsten
140 or. = XI, 1, 1 [303, 10]	aundi	âundi
173 or. = XIII, 1, 1 [377, 6 pr.]	ântzik [ântzi m3]	antzi
173 or. = XIII, 1, 1 [377, 6]	ântzi	antzi
173 or. = XIII, 1, 1 [378, 2]	âala	âla
I or. = I, 1, 1 [9, 13]	lenik	leenik
3 or. = I, 4, 4 [12, 10]	zagartzen	zaartzen
I, 7, 11 [18, 17]	zârragoren [zaarragoren Uts.]	zârragoren
124 or. = X, 19, 28 [267, 12]	Antzia [Ântzia m3]	Aantzia
[176 or. =] XIII, 9, 10 [385, 9]	[beerako Uts.]	beerako
20 or. = II, 3, 6 [41, 7]	Antzi	Ahantzi
118 or. = X, 8, 12 [253, 25]	eta aren sabel	eta har aren sabel
6 or. = I, 7, 11 [18, 3]	zugurrageokin	zuhurrageokin
68 or. = VI, 7, 12 [138, 2]	zurra	zugurra
71 or. = VI, 10, 17 [143, 17]	zurtasuna	zugurtasuna
139 or. = X, 43, 70 [301, 19]	zugurtze	zuhurtze
143 or. = XI, 6, 8 [309, 20]	zugurrari	zuhurrari
144 or. = XI, 9, 11 [312, 16]	Zugurtasuna	Zuhurtasuna
144 or. = XI, 9, 11 [312, 16]	zugurtasuna	zuhurtasuna
144 or. = XI, 9, 11 [313, 5]	zugurtasunez	zuhurtasunez
145 or. = XI, 11, 13 [314, 5]	zugurtasun	zuhurtasun

Bistan da —aurreratu dugu gorago— zirkunflexua galdu den guztietan ezabatze huts banarengatik izan dela. Berriz, ezin da zalantzarik izan zirkunflexua gehitzea lehen azaldu dugun moduan ulertu behar dela: batetik, Lekuonak ikusiko zuen huraxe zela, *Aitorkizunetan* diren aukeretan, maiztasun handienekoa eta, aldi berean, B-prior-en diren Orixeren beraren eskuzko oharrek aldeztzen zuten aukera —modu nabarmenean aldeztu ere—; bestetik, azentu zirkunflexudun aldaera zen, harentzat eta garai eta giro hartako euskaldun gehienentzat, *Aitorkizunen* testuak eskaintzen zituenetan erraz onartzeko moduko aukera bat. Eta, hortaz, horren arabera bateratu nahi izan zuen eskuen artean zuen testua. B-tik A-ra bidean bokal bikoitza hartu duten irakurketei buruz zail da ondorio erabatekorik ateratzea: badakigu bokal bikoitzaren erabilera ondo errotua zegoela Lekuonaren *usus*-ean eta, kontuan hartuta «leenik» eta «zaartzen» behintzat *Aitorkizunen* testuaren hasieran daudela, daitekeena da horiek biak lanaren hasieran bakarrik saiaturako irtenbide baten ondorio izatea, hau da, testua zuzentzeko erabiliko zituen irizpideak oraindik finkatu gabe —edo, nahiago bada,

beste era batera finkatuta — zituenean egindakoak.<sup>11</sup> Bestalde, B-prior-eko *h*-dun aldaeretan ez da aldaketarik izan ez baldin bada *zuhur* hitzaren kasuan: C-ko «zahar» eta «zuhur» guztiak Orixek ezabatu zituen B-ra bidean, haien ordeztzeko «zâr», «zagar» edo «zâkar» eta, hurrenez hurren, «zugur» sartzeko; Lekuonak B-ko «zâkar» eta «zagar» guztiak desagertuarazi zituen (*Aitorkizunetan* nagusi den «zâr» banarekin ordezkatzeko —alde bat utzita aipatu hasiera-hasierako «zaartzzen» eta B-prior-eko oharren historian toki berezi samarra duen m4-ren «zahar»—), eta —hemen mintzagai dugun auziari heltzeko— «zugur» zenbait «zuhur» bihurtu: zalantzarik gabe, «zagar» eta «zâkar» kentzeko izan zituen arrazoi berberengatik, nahiz eta oraingo honetan, azentu zirkunflexudun aldaeraren alde egin ordeztzeko, Lekuonaren *usus*-ean ere batere arrotza ez zen *h*-dun forma hautatuz. Izan ere, Lekuonak era honetako hitzetan *h*-dun aldaerak ere erabili egiten zituela (bere bestelako izkribuez landa: ikus, hemen bertan, 425 or. 8 oh.) *Aitorkizunetan* inguruko testuek berek erakusten dute (299-302 or.):

	B	Egan	A
303, 20	âl	ahal	âl
306, 13	Zu gurtze	zuhurtze	zugurtze

Eta ez dirudi gehiago luzatu beharra dagoenik B-tik A-ra bidean «zuhur» aldaeraren mesedetan egindako aldaketa hauen zergatikoen inguruan.

Gauzak horrela, A-ko testuan gelditu zen egoera honako hau da:

âl (21): I, 2, 2; II, 2, 4; IV, 5, 10; IV, 12, 18; VI, 8, 13; VIII, 8, 20 (bis); IX, 3, 6; IX, 4, 8; IX, 12, 32; X, 30, 42; X, 40, 65 (bis); XI, 1, 1; XI, 9, 11; XII, 27, 37; XII, 29, 40; XII, 31, 42; XIII, 1, 1; XIII, 2, 2; XIII, 7, 8

ântzi (49): ikus beheragoko tauletan

âundi (1): XI, 1, 1

bê (2): I, 5, iz.; VII, 10, 16

kê (1): I, 17, 27

lêrtu (1): VI, 7, 12

mâsti (1): II, 4, 9

nâs (40): ikus beheragoko tauletan

zâr (18): ikus beheragoko tauletan

zûr (3): ikus beheragoko tauletan

bee (1): XIII, 9, 10

iiztatu (1): I, 14, 23

leen (1): I, 1, 1

xeetasun (1): VII, 6, 8

zuur (1): VI, 14, 24

zaar (1): I, 4, 4

<sup>11</sup>Berriz, «zaarragoren» eta «beerako» aldaerak oso erraz uler daitezke, biak baitira «Utsuneak» izeneko dokumentuan sartuak, hau da, Lekuonak eskribitutako testu batean ohiko moduan itzuritako grafiak. (Beste kontu bat da «zaarragoren» A-raino iritsi ez izana: bistan da, aipatu hitza bai B-ko testuan bai «Utsuneak» delakoan dauden pasarteetako izanik, inprimategiko langileek B-tik kopiatu zutela).

ago (1): II, 4, 9; ikus s.v. 'ahopaldi'  
 ahal (13): II, 2, 3; VI, 4, 6; VI, 5, 8; VI, 10, 16; VII, 4, 6 (bis); VII, 5, 7 (bis); VII, 17, 23 (ter); X, 32, 48 (bis)  
 ahantzi (4): II, 3, 6; X, 8, 12; X, 8, 14; X, 9, 16  
 ahamen (1): III, 10, 18  
 aholkari (1): VI, 10, 16  
 aholku (11): VI, 10, 16; VI, 12, 21; VII, 6, 8; VIII, 1, 1; VIII, 6, 13 (bis); VIII, 12, 30; IX, 2, 2; X, 40, 65; XI, 2, 2; XIII, 32, 47  
 ahopaldi (1): IX, 8, 18; ikus s.v. 'ago'  
 har [1]: X, 8, 12  
 hats (1): I, 18, 29  
 heresi (2): III, 12, 21; V, 10, 19  
 heretiku (2): VII, 19, 25 (bis)  
 ihize (6): V, 1, 1; VII, 5, 7; X, 6, 10; X, 17, 26; X, 25, 36; X, 31, 46  
 ihiztatu (1): IX, 10, 23  
 mahasketa (1): IX, 2, 2  
 mihi (27): ikus beheragoko tauletan  
 nahas-mahas (2): XII, 3, 3; XII, 17, 25  
 oge (5): II, 2, 3; IV, 7, 12; IV, 12, 19; IX, 11, 27; IX, 12, 32; ikus s.v. 'ohaide'  
 ohaide (1): IX, 9, 19; ikus s.v. 'oge'  
 uhats (1): X, 6, 9  
 zahar (1): I, 4, 4  
 zugur (57): ikus beheragoko tauletan; ikus, orobat, s.v. 'zuhur'  
 zuhur (7): I, 7, 11; X, 43, 70; XI, 6, 8; XI, 9, 11 (ter); XI, 11, 13; ikus s.v. 'zugur'

\* \* \*

Arestian aztertu ditugun kasuak ez bezalakoak badira ere, bistan da badutela hauekin zer ikusi *Aitorkizunen* B-ko testuan zehar aurkitu ahal diren bikote hauek: «biur» edo «bigur», «neur» edo «negur» eta «otsein» edo «otsegin». Izan ere, ikusi dugu Ca-ko azken liburuetan eta, batez ere, C-tik B-ra bidean, hitz jakin zenbaiten *g*-dun aldaerak hobesten dituela Orixek: «ago», «oge», «zagar» eta «zugur». Hitz hauetan guztietan *g*-dun aldaerakin batera azentu zirkunflexua, bokal bikoitza edo *h* letra duten aldaerak agertzen zaizkigu *Aitorkizunetan* eta, jakina, horregatik aipatu ditugu eranskin honetan; aldiz, «biur» edo «bigur», «neur» edo «negur» eta «otsein» edo «otsegin» hitzek bina aldaera hauek baino ez dituzte *Aitorkizunetan* baina, esan bezala, ezin ukatuzkoa da Orixek horiek aukeratzeko izan zituen arrazoiak —edo arrazoietakoz batzuk— «ago», «oge», «zagar» eta «zugur» aldaeren alde egiteko izandako berberak izan zirela: zaharragotzat jotzen zituela, alegia, gainerakoak baino, eta egokiagoak, hortaz, *Aitorkizunetan* saiatu nahi zuen hizkuntz batu-edo hartarako.<sup>12</sup> Ikus

<sup>12</sup>Ezin da zalantzarik izan Orixek «zagar», «zakar», «zugur» eta hauek bezalakoan alde egin zuela zaharragotzat jotzen zituelako: honexegatik hasi zen erabiltzen —eta sasoi honetan inoiz ez bezalako gogoarekin berpiztu zituen— «nendun» adizkia eta era honetako beste xebebrekeria batzuk; gogora, esaterako, «nendun» honi buruz uste zuena eta hura erabiltzeko eman zuen arrazoiak: «orien guzien [sc. *nuen* adizkiaren aldaera ustez ugarien] a m a d a n a : *nendun*» (ikus 60-62 or. eta VI erans.). Orixeren iritzi hauen guztien azalpen bat ere aipatu VI eranskinean ikusi ahal da. Badirudi begien bistakoa iruditzen zitzaioela Azkueri *g*-dun aldaera hauek gainerakoak

ditzagun datuak. Ca-n ez da ez «bigur» ez «negur» ez «otsegin» bat ere, «biur», «neur» eta «otsein» oso sarri irakurri ahal badira ere.<sup>13</sup> B-ra bidean, berriz, *g*-dun aldaera zenbait ageri dira. Sei aldiz gertatu da «biur C : bigur B» aldaketa:

	C	B	A
22 or. = II, 4, 9 [43, 21]	biurrienak	bigurrienak	bigurrienak
26 or. = II, 10, 18 [51, 17]	biurri	bigurri	bigurri
55 or. = V, 5, 8 [107, 11]	Biurri	Bigurri	Bigurri
61 or. = V, 12, 22 [120, 19]	biurriak	bigurriak	bigurriak
135 or. = X, 36, 59 [292, 10]		bigurritz	bigurritz
192 or. = XIII, 34, 49 [420, 22]		bigurriak	bigurriak

nahiz eta dozenaka kasutan —*Aitorkizunen* testu osoan zehar— aldaketarik ez gertatu. Pixka bat desberdina da —baina Orixeren jokaeraren adibide ezin hobea— «negur» hitzarena: «neur» B-ko edozein liburutan aurkitu ahal delarik, «negur» aldaera 65 aldiz erabili da XI. liburuan eta 3 aldiz gainerakoetan (54 or. = V, 3, 3 [104, 3]; 55 or. = V, 4, 7 [106, 19]; 176 or. = XIII, 8, 9 [384, 12]). Azkenik, 7 «otsegin» eta 20 «otsein» dira B-ko testuan, guztiak IX eta XI-XIII liburuetan; hona hemen «otsegin» itxurako agerraldi guztiak:

	C	B	A
113 or. = IX, 13, 37 [240, 19]	otseñiak	otsegiñak	otseñiak
142 or. = XI, 3, 5 [307, 12]		Otsegin [.ein m3]	Otsein
162 or. = XII, 15, 20 [354, 4]		otsegin	otsein
163 or. = XII, 15, 22 [355, 5]		otsegi#	otseñ
165 or. = XII, 20, 29 [360, 11]		otsegiña [.eiña m3]	otsefiña
167 or. = XII, 23, 32 [364, 13]		otsegin [.ein m3]	otsein
167 or. = XII, 24, 33 [365, 9]		otsegin [.ein m3]	otsein

Esan bezala, «otsein» itxurako aldaerak «otsegin» hauekin batera agertzen dira, nahasian, XII, 24 kapituluraino; hemendik aurrera ordea «otsein» bakarrik erabiliko du Orixek.<sup>14</sup>

baino zaharragoak zirela: «Las contracciones temáticas tienen lugar por la elisión de alguno de estos tres fonemas: *d*, *g* y *r* suave. [...] Al elidir el segundo de ellos, los vascos orientales introducen la aspiración, como sucede en los vocablos baztaneses *zagar* 'viejo', *zugur* 'prudente' y *bigi* 'grano', que en aquellos dialectos dicen *zabar*, *zuhur* y *bihi*; y en vocablos de uso más general como *ago* y *oge*, que allí suenan como *aho* y *ohe*. No sé si *zehe* 'palmo', *mehe* 'delgado', *mih* 'lengua', *leben* 'antes'... habrán sido un tiempo *zege*, *mege*, *migi*, *legen*, como son en ciertas zonas *zê*, *mê*, *mî*, *lên* [...]» (Azkue [1930, 223]); eta, zalantzarik gabe, teoria berbera islatzen dute Mokoroaren hitz hauek: «[...] yo sería partidario de ayudar a los eventuales lectores vasco-franceses [sc. *Euskaldunak* poemaren irakurleei alegia] a reconocer en nuestras evolucionadas formas *zar*, *len*, *nasi*, *mi*, *al* [bada], *ler*, *zur*... sus *no menos evolucionadas* voces *zabar*, *leben*, *nahasi*, *mih*, *ahal*, *leher*, *zuhur*...» (*Euskaldunak*..., [xxviii-xxix] or.; etzana Mokoroarena). Nolanahi den ere, *-g* / *-h* aldaera hauei buruz ikus Mitxelena [1950] eta [1977, 221-222, 303 eta 413 or.]; «*zagar*» formari buruz Mitxelena [1979]; hitz hauetako batzuen etimologiari buruz ikus, orain, Lakarra [2002]. *Aitorkizunen* hizkuntzari buruz ikus gure edizioaren sarrera.

<sup>13</sup>Bada ordea «ogartzen» bezala irakurri behar litzatekeen agerraldi bat: «oartzten» jo du makinaz baina *o* letraren gainean —lerroartean alegia—, eta baita ere makinaz, *g* bat gehitu du (C, 82 or. = VII, 6, 8 [162, 18]). Kasu bakarra da, bai C-n bai B-n «oar» baitarabil beti Orixek (baita, beraz, C-ko «ogartzen» honi dagokion pasartearen ere).

<sup>14</sup>Aipatu 20 «otsein» (edo «otseñ») horien zerrenda eta erreferentziak 162 or. 68 oh. ikusi ahal dira.

Ohar bedi, bestalde, hemen ere ohiko irizpideen arabera bateratu nahi izan duela Lekuonak Orixeren aniztasuna: oraingo honetan, gainera, ez zaio agerraldi bat ere itzuri, B-prior-eko orrietan zuzendu ez zituen guztiak B-tik A-ra bidean harrapatu baitzituen, goiko zerrendak argi asko erakusten duen bezala (baina ikus, dena den, 161-162 eta 264 or.).

Hortaz, g-dun aldaera hauen aldeko jarrera bat dator gorago aztertu dugun «ago», «oge», «zagar» eta «zugar» haietan izandakoarekin: guztiak eragin zizkion zergatiko edo nahi berberak eta, guztiak ez badira bai behintzat esanguratsuenak, sasoi berean kokatu behar dira.<sup>15</sup>

\* \* \*

C-tik B-ra bidean —eta Ca-ren beraren barnean— izan zen bilakaeraren argitan begien bistako bihurtu zaigu Orixek B-prior-eko orrietan egindako zuzenketen nondik norakoa eta honi guztiari eskerrak ere ulertu ahal izan dugu Lekuonak bai B-prior-en bai B-tik A-ra bidean sartutako aldaketen —eta itzuritako hutsen— zergatikoa. Baina, guzti honetaz gain, berreraiki dugun historia honek utziko digu kronologiari dagozkion bizpahiru auzixka konpontzen.

Ikusi dugu Lekuonak B-tik A-ra bidean egin zituen aldaketetan *zuhur* hitzari dagozkion hauek zeudela:

6 or. = I, 7, 11 [18, 3]	zugurrageokin	zuhurrageokin
68 or. = VI, 7, 12 [138, 2]	zurra	zugurra
71 or. = VI, 10, 17 [143, 17]	zuratasuna	zugurtasuna
139 or. = X, 43, 70 [301, 19]	zugurtze	zuhurtze
143 or. = XI, 6, 8 [309, 20]	zugurrari	zuhurrari
144 or. = XI, 9, 11 [312, 16]	Zugurtasuna	Zuhurtasuna
144 or. = XI, 9, 11 [312, 16]	zugurtasuna	zuhurtasuna
144 or. = XI, 9, 11 [313, 5]	zugurtasunez	zuhurtasunez
145 or. = XI, 11, 13 [314, 5]	zugurtasun	zuhurtasun

Bi zuzenketa mota dira hemen («zur > zugar» eta «zugar > zuhur») eta, batean zuzentzat jotakoa bestean zuzenkizuna denez gero, ondorioztatu beharko dugu bigarrena lehenengoa baino berriagoa dela: hau da, lehendabizi «zur > zugar» aldaketa egin zuela Lekuonak, eta gero «zugar > zuhur». Bat dator hipotesi honekin *Egan*-eko testuan ere —gorago ikusi dugu— «zuhur» aldaeraren aldeko aldaketa bat egotea: bai baititugu, izan ere, *Egan*-eko testua 1956ko liburuaren probak zuzendu ondoren prestatu zuela pentsarazten diguten aztarrenak. Eta beste kontu bat ere berresten digu auzitxo honek, beharrik ez bagenuen ere:

<sup>15</sup>Esanguratsuenak diogu zeren bistan baita, izan ere, «ago» eta «zugar», esaterako, sakonago zeudela sartuta Orixeren idazkeran: nonahi ikusi ahal ditugu («ao» eta «zu») aldaerekin batera, esan gabe doa) garai hartan bertan baina hizkuntzaren aldetik beste helburu batekin idatzi zituen *Urte guziko meza-bezperak*, *Salmutegia* edota san Benitoren Erregela liburuetan; «zagar», berriz (neurri batean, nire ustez, «nendun» bezala), aipatu hiru liburu haien zuzenkeraren zuzenkeraren ez bezalako irakurleko batentzat idatzi zituen *Aitorkizunetan* —eta, «zagar» aldaerari dagokionez, *Aitorkizunen* historiaren aldi jakin batean— bakarrik erabili zuen, esateko moduan behintzat.

B-prior-eko orrietan —edo B-tik A-ra bidean— egindako aldaketetan hurrenkera bat izan arren (hau da, azken liburutetan egindako zuzenketak, eskuarki, lehenengoetan egindakoak baino geroago eginak izan arren), hurrenkera hau ez dela erabatekoa; Lekuonak sartutako «zuhur» gehienak, izan ere, X-XI liburutetan dira, baina lasai asko jo dezakegu segurutzat hauen garaikidea dela I. liburuko beste «zuhur» hori: are gehiago, esango nuke era honetako lan batean akabera eta hasiera parekatuta egon ohi direla, hau da, bereziki egiantzekoa dela —eta, ikusten ari garen bezala, datuak ere honen alde daude: gogora, urrutirago joan gabe, II. liburuko «ahantzi» hura— Lekuonak B-prior-eko orrietan zehar egin zuen orrazketa nagusia bukatu ondoren eskuizkribuaren lehenengo orrietara itzuli izana.<sup>16</sup>

Gauzak horrela, ez dirudi ausartegia litzatekeenik ondorio hauek guztiak m<sup>4</sup>-ren «zahar» misteriotsu samar hura argitzeko erabiltzea (ikus 181-182 or.): daitekeena da, izan ere, I. liburuko «zagar B : zahar m<sup>4</sup>» aldaketa arestian aztertu ditugun «zuhur» hauen garaikidea izatea. Badugu ordea hau baino ondorio garrantzitsuagorik: Lekuonak *h*-dun aldaerei buruz izandako jarrerak indartu egiten duela m<sup>4</sup>-ren aldaketentzat ere Lekuonaren egiletasuna aldeztu duen hipotesia.

Azkenik, ezin da aipatu gabe utzi mintzagai izan ditugun osagai hauek Ca-ko testuan zehar izan duten —eta behin baino gehiagotan aipatu behar izan dugun— bilakaerak muga bat edo bi uzten dituela agerian *Aitorkizunen* lehenengo idatzaldi honetan; ez muga zehatzak baina bai, agidanean, ukaezinak: bata bosgarren eta seigarren liburuen artean, bestea —lausotuagoa zalantzarik gabe— zortzigarren liburuan edo bederatzigarrenaren hasiera aldean gutxi gorabehera. Nahikoa izango da beherago jarri ditugun taulei begiratzea eta gorago berreraiki dugun ikuspegia gogoratzea. Lehenengo muga —bietan garbiena, esan bezala— bat dator ereduari buruzko ikerketak ekarri dituen ondorioetako batekin, hots, bosgarren liburua hasi eta handik pixka batera erabili zuela Orixek Trabucco-ren edizioa (ikus II erans.): zilegi da pentsatzea, datu berri honen argitan, eredu aldaketa soil bat ez ezik etenaldi bat izan zela lehenengo lau liburuen itzulketaren eta ondorengoaren artean; beste xehetasun batzuek ere berretsi egiten dute etenaldi horren izatea: gogora, esaterako, seigarren liburua izenburuan agertzen dela lehendabizikoz «IARDUNA» hitza makinaz idatzia (ikus 75 or. eta bertako 22 oh.), eta seguru egon gaitzke Ca-ren hizkuntzaren azterketa sakonago batek —hemen tokiz kanpo legokeenak— oraindik nabarmenago egingo litzukeela aipatu bi muga hauek. Alabaina, azentu zirkunflexuak, bokal bikoitzak eta *h* letrak *Aitorkizunen* lehenengo idatzaldi honetan zehar izan duten bilakaerak ez digu uzten —espero zitekeenaren kontra— Ca-ko testuaren edo honen zatien kronologian aurrera egiten; alferrik da, izan ere, garaiko Orixeren beste testu batzuekin erkatzea eta erkatze horretatik ondorioak atera nahi izatea: batetik —askotan egiazatu dugun gauza jakina da—, Orixek grafian eta morfologian berariaz erabiltzen zuen aniztasunarengatik; bestetik, hizkuntz eredia —eta, honekin batera, grafiaren zenbait puntu— aldatu egin ohi zuelako Orixek idazten ari zen idazkiari atxiki nahi zion xedearan arabera: ikus, bestela, 1944koak diren metafisikazko paperak, *Urte guziko meza-bezperak* liburua, *Salmutegia* edo —bigarren idatzaldiaren testuari dagokionez

<sup>16</sup>Hurrenkera hau, esan bezala, ez da erabatekoa eta, agidanean, ez du zertan izan behar; izan ere, ez dut uste aipatu kronologia erlatibo hori zalantzan jartzen duenik B-tik A-ra bidean *ex novo* sartu den «zugur» honek: «eincan Aren B : eincan Zugurtasun Aren A» (173 or. = XIII, 2, 2 = [378, 16]).



eta erakusten ari garenaren adibide ezin hobea— san Benitoren Erregela.

## TAULAK

Mintzagai izan ditugun hitzen agerraldi guztiak bildu ditugu hemengo taula hauetan, hots, *Aitorkizunen* testuaren hiru idatzaldietan —baina ez B-ko oin-oharretan— azentu zirkunflexu, bokal bikoitz edota *h* letrarekin idatzita behin behintzat agertzen diren hitzen aldaera guztien agerraldi guztiak. Lau kasutan —*ahal*, *aho*, *handi* eta *lehen*— ez ditugu agerraldi guztiak jaso: murriztearen zergatikoa eta nondik norakoa taula bakoitzaren lemari ipinitako oin-oharrean azaltzen da; bestalde, Orixek C-ren lehenengo bi liburuetan erabili zuen *nuen* adizkiaren «nún» aldaera ez dugu hemen kontuan izan, kontuan izan ez ditugun bezala aipatu liburuetan aurki daitezkeen «nún», «nún», «nún», etab.: hemen aztertu diren gainerako hitzekin zer ikusirik ez duen kasua da eta, nolahi ere, eman dugu honen berri (70-71 or. eta VI erans. 452 or.).

*ahal*<sup>17</sup>

	C	B	A
I, 2, 2 [10, 14]		âl	âl
II, 2, 3 [38, 24]	ahala	ahala	ahala
II, 2, 4 [39, 23]	alík	âlik	âlik
IV, 5, 10 [82, 9]	âl	âl	âl
IV, 12, 18 [90, 10]	al	âl	âl
VI, 4, 6 [132, 8]	ahala	ahala	ahala
VI, 5, 8 [133, 18]	ahalík	ahalík	ahalík
VI, 8, 13 [139, 13]	al	al	âl
VI, 10, 16 [143, 6]	ahala	ahala	ahala
VII, 4, 6 [158, 18]	ahala	ahala	ahala
VII, 4, 6 [158, 20]	ahal	ahal	ahal
VII, 5, 7 [159, 13]	ahalez	ahalez	ahalez
VII, 5, 7 [160, 12]	ahal	ahal	ahal
VII, 17, 23 [176, 8]	ahala	ahala	ahala
VII, 17, 23 [176, 15]	ahalera	ahalera	ahalera
VII, 17, 23 [176, 16]	Ahal	Ahal	Ahal
VIII, 8, 20 [201, 3]	al	al [âl m2]	âl
VIII, 8, 20 [201, 5]	al	al	âl
VIII, 10, 24 [204,4]	al	al [âl m2]	al
VIII, 10, 24 [204,7]	al	al [âl m2]	al
IX, 3, 6 [216, 3]	âl	âl	âl
IX, 4, 8 [217, 25]	al	al	âl

<sup>17</sup> *Aitorkizunen* hiru idatzaldietako batean «âl» edo «ahal» aldaera duten hitzak bakarrik bildu ditut hemen; hortaz, «al C : al B : al A» erako agerraldiak falta dira: ohar bedi testu osoan zehar aurkitu ahal direla, I. liburutik azkeneraino. (Izan ere, «aal» bat ere ez dago: A-ko bi «kontaal» [biak X, 17, 26 paragrafoan] ez ditut kontuan hartu —ikus, honetaz, 150 or. 47 oh.—, eta goiko taulan ikus daitezkeen B-ko «âala» [XIII, 1, 1], zalantzarik gabe, hutsa da).

IX, 12, 32 [237, 3]	al	âl	âl
X, 30, 42 [279, 10]		âlik	âlik
X, 32, 48 [283, 14]		ahala	ahala
X, 32, 48 [283, 14]		Ahal	Ahal
X, 40, 65 [297, 7]		âl	âl
X, 40, 65 [298, 8]		âl	âl
XI, 1, 1 [303, 18]		âl	âl
XI, 9, 11 [313, 3]		âldunak	âldunak
XII, 27, 37 [369, 20]		âl	âl
XII, 29, 40 [373, 17]		âl dunak	âldunak
XII, 31, 42 [375, 18]		âl	âl
XIII, 1, 1 [378, 2]		âala	âala
XIII, 2, 2 [378, 12]		âl	âl
XIII, 7, 8 [382, 20]		âldunak	âldunak

*ahamen*

	C	B	A
III, 10, 18 [70, 6]	âmen	ahamen	ahamen

*ahantzi*

	C	B	A
I, 5, 5 [13, 6]	ântzirik <sup>18</sup>	ântzirik	ântzirik
I, 13, 20 [26, 8]	ântzirik	[azturik]	[azturik]
I, 13, 22 [27, 4]	ânzteko	ânzteko	ânzteko
I, 13, 22 [27, 4]		anzteko[ântz. m2]	ânzteko
I, 13, 22 [27, 19]	ântzi	ântzi	ântzi
I, 13, 22 [27, 20]	antzi	ântzi	ântzi
II, 3, 6 [41, 7]	Antzi	Antzi	Ahantzi
III, 8, 16 [67, 28]	[autsirik]	antzirik	ântzirik
III, 12, 21 [72, 11]	antzarazteko	antz. [ântz. m2]	ântzarazteko
IV, 13, 20 [92, 16]	ântzi	ântzi	ântzi
VI, 7, 12 [137, 13]	antzi	ântzi	ântzi
VI, 7, 12 [137, 15]	antzia	antzia	antzia
IX, 3, 6 [216, 5]	anzteko	ânzteko	ânzteko
IX, 4, 11 [220, 21]	anzten	ânzten	ânzten
IX, 4, 12 [221, 4]	antzi	ântzi	ântzi
IX, 7, 16 [225, 2]	antzi	antzi [ântzi m3]	ântzi
IX, 10, 23 [231, 8]	antziz	antziz	ântziz
IX, 10, 25 [232, 14]	antzirik	ântzirik	ântzirik

<sup>18</sup>Orixek eskuz egindako oharra da; makinazko testuak «azturik» dio.

IX, 11, 28 [235, 1]	antziko	ântziko	ântziko
IX, 13, 35 [239, 9]	antzirik	ântzirik	ântzirik
X, 8, 12 [253, 6]		ahantzteak	ahantzteak
X, 8, 14 [254, 20]		ahantzi	ahantzi
X, 9, 16 [256, 6]		ahantzi	ahantzi
X, 14, 21		ântztean	
X, 16, iz. [263, 9]		Auztea [Ântz. m3]	Anztea
X, 16, 24 [263, 10]		Auztea [Ântz. m3]	Anztea
X, 16, 24 [263, 12]		ântzi	ântzi
X, 16, 24 [263, 14]		ântztea	ântztea
X, 16, 24 [263, 15]		anztea [ântztea m3]	ântztea
X, 16, 24 [263, 16]		ântztea	ântztea
X, 16, 24 [263, 16]		Anztea	Anztea
X, 16, 24 [263, 19]		ântztea	ântztea
X, 16, 24 [263, 19]		ântztea	ântztea
X, 16, 24 [263, 21]		ântzi	ântzi
X, 16, 24 [263, 22]		ântzi	ântzi
X, 16, 24 [263, 23]		ântztea	ântztea
X, 16, 24 [263, 24]		ântztea	ântztea
X, 16, 24 [264, 1]		ântzarazi	ântzarazi
X, 16, 25 [264, 10]		ântzteaz	ântzteaz
X, 16, 25 [264, 12]		ântztea	ântztea
X, 16, 25 [264, 12]		ântzteko	ântzteko
X, 16, 25 [264, 14]		ântztea	ântztea
X, 16, 25 [264, 23]		ântztea	ântztea
X, 16, 25 [264, 26]		ântztea[k]	ântzteak
X, 16, 25 [264, 27]		ântztea	ântztea
X, 19, 28 [267, 12]		Antzia [Ântzia m3]	Aantzia
X, 19, 28 [267, 18]		ântzia	ântzia
X, 19, 28 [268, 1]		ântzi	ântzi
X, 19, 28 [268, 1]		ântzi	ântzi
X, 19, 28 [268, 2]		ântzi	ântzi
X, 20, 29 [268, 13]		ântzi	ântzi
X, 20, 29 [268, 14]		ântzi	ântzi
X, 20, 29 [268, 15]		ântzi	ântzi
X, 20, 29 [268, 16]		ântzeraifio	ântzeraifio
X, 20, 29 [268, 16]		ântzia	ântzia
X, 24, 35 [274, 7]		antzi	ântzi
X, 24, 35 [274, 9]		antzi	ântzi
X, 25, 36 [275, 7]		ânzten	ânzten
XI, 29, 39 [335, 17]		ântziz	ântziz
XIII, 1, 1 [377, 6]		ântzik [ântzi m3]	antzi
XIII, 1, 1 [377, 6]		ântzi	antzi
XIII, 13, 14 [388, 24]		ântziz	ântziz

*aho*<sup>19</sup>

	C	B	A
II, 4, 9 [43, 19]	aosapaiaren	ago-sapaiaren	agosapaiaren
II, 6, 12 [46, 15]		aogozatua	aogozatua
IX, 8, 18 [227, 12]	ahopaldi	ahopaldi	ahopaldi
XIII, 15, 17 [392, 4]		aotik	aotik

*aholkari, aholku*

	C	B	A
VI, 10, 16 [142, 10]	aholku	aholku	aholku
VI, 10, 16 [142, 15]	aholkari	aholkari	aholkari
VI, 12, 21 [147, 5]	aholku	aholku	aholku
VII, 6, 8 [162, 2]	aholku	aholtu [c. m3]	aholku
VIII, 1, 1 [184, 10]	aholku	aholku	aholku
VIII, 6, 13 [194, 20]	aholku	aholku	aholku
VIII, 6, 13 [194, 21]	aholkuak	aholkuak	aholkuak
VIII, 12, 30 [208, 28]	Aholku	Aholku	Aholku
IX, 2, 2 [213, 6]	aholku	aholku	aholku
X, 40, 65 [297, 6]		aholku	aholku
XI, 2, 2 [304, 5]		aholku	aholku
XIII, 32, 47 [419, 12]		aholkuz	aholkuz

*handi*<sup>20</sup>

	C	B	A
XI, 1, 1 [303, 10]		aundi	âundi

*behe*

	C	B	A
I, 5, iz. [13, 3]		bêra	bêra
IV, 11, 16 [88, 17]	beiko	beitiko	beitiko
IV, 13, iz. [92, 2]		beitiko	beitiko
IV, 13, 20 [92, 4]	beiko	beitiko	beitiko
VI, 9, 14 [140, 22]	Beian	Beian	Beian

<sup>19</sup>Ez dira taula honetan jaso «ago C : ago B : ago A» erako agerraldiak: II. liburutik IX. eraino dira (I.an ez dago *aho* hitzaren agerraldirik).

<sup>20</sup>Esan gabe doa *handi* hitza (beti «aundi» aldaeran) oso sarri agertzen dela *Aitorkezinetan*: hemen, «aundi» ez den aldaera bakarraren agerraldi bakarra jaso da.

VII, 10, 16 [170, 4] VIII, 10, 24 [204, 22] XIII, 9, 10 [385, 9]	bêrago beitik	bêrago beitik [beerako Uts.]	bêrago beitik beerako
	<i>har</i>		
	C	B	A
X, 8, 12 [253, 25]		har	
	<i>hats</i>		
	C	B	A
I, 18, 29 [33, 16]	hatsa	hatsa	hatsa
	<i>heresia, heretiko</i>		
	C	B	A
III, 12, 21 [72, 14] V, 10, 19 [117, 26] VII, 19, 25 [179, 3] VII, 19, 25 [179, 8]	heresi heresi heretikuen Heretiku	heresi heresi heretikuen Heretiku	heresi heresi heretikuen Heretiku
	<i>ihize</i>		
	C	B	A
V, 1, 1 [101, 17] VII, 5, 7 [159, 7] X, 6, 10 [251, 5] X, 17, 26 [266, 3] X, 25, 36 [274, 19] X, 31, 46 [282, 20]	ihize ihize	ihire [ihize m2] ihize ihizeek Ihizeek ihizeek ihizeak	ihize ihize ihizeek Ihizeek ihizeek ihizeak
	<i>ihiztatu<sup>21</sup></i>		
	C	B	A
I, 14, 23 [28, 10] IX, 10, 23 [231, 14]	îztatzen ihiztaturik	iizatzen ihiztaturik	iizatzen ihiztaturik

<sup>21</sup>I, 14, 23 paragrafoko agerraldiak oin-ohar bat darama B-prior-en (12 or.): «Iiztatu = rociar»; ikus IV erans.

*ke*

	C	B	A
I, 17, 27 [32, 5]	ke	kê	kê
IV, 2, 2 [76, 20]	kei	kei	kei
VIII, 2, 4 [186, 23]	ketan	ketan	ketan

*lehen<sup>22</sup>*

	C	B	A
[I] [6, 7]	lênik	lenik	
I, 1, 1 [9, 13]	lenik	lenik	leenik

*leher*

	C	B	A
VI, 7, 12 [138, 13]	ler	ler	lêr
XIII, 17, 20 [394, 17]		lertu	lertu
XIII, 23, 34 [406, 24]		lertzen	lertzen

*mahats*

	C	B	A
II, 4, 9 [43, 18]	mastiaren	mâstiaren	mâstiaren
IX, 2, 2 [212, 21]	mahasketa	mahasketa	mahasketa

*mihi*

	C	B	A
I, 8, 13 [20, 6]	Mî-otsak	Mihi-otsak	Mihi-otsak
I, 9, 14 [21, 6]	mîa	mihia	mihia
I, 17, 27 [32, 6]	mîa	mihia	mihia
III, 4, 7 [58, 16]	mîia	mihia	mihia
III, 4, 7 [58, 19]	mîia	mihia	mihia
III, 4, 8 [59, 8]	giza-miz	giza-mihiz	giza-mihiz
IV, 8, 13 [86, 10]	mîz	mihiz	mihiz

<sup>22</sup>Hitz hau ere askotan aurkitu ahal da *Aitorkizunetan*, beti «len» aldaeran: hemen, «len» ez beste aldaera guztien agerraldiak bakarrik bildu ditugu.

IV, 14, 23 [94, 12]	mîak	mihia	mihia
V, 1, 1 [101, 5]	mii [mihi] <sup>23</sup>	mihia	mihia
VI, 3, 3 [129, 11]	mihia	mihietan	mihietan
VI, 7, 12 [138, 5]	mihietan	mihiz	mihiz
VI, 12, 21 [147, 8]	mihiz	mihien	mihien
VII, 2, 3 [156, 10]	mihien	mihitik	mihitik
VII, 7, 11 [165, 4]	mihitik	mihia	mihia
VII, 9, 14 [167, 28]	mihia	mihia	mihia
VII, 21, 27 [180, 25]	mihia	mihia	mihia
VIII, 4, 9 [191, 16]	mihia	mihia	mihia
VIII, 4, 9 [191, 19]	mihia	mihia	mihia
VIII, 5, 10 [192, 11]	mihia	mihia	mihia
VIII, 7, 18 [198, 27]	mihia	mihia	mihia
IX, 1, 1 [211, 9]	mihia	mihia	mihia
IX, 2, 2 [213, 5]	mihia	mihia	mihia
IX, 2, 3 [213, 13]	mihia	mihia	mihia
IX, 4, 7 [216, 21]	mihia	mihia	mihia
IX, 9, 19 [228, 21]	mihia	mihia	mihia
IX, 9, 20 [229, 12]	mihia	mihia	mihia
IX, 10, 25 [232, 21]	mihia	mihia	mihia
X, 8, 13 [254, 10]	mihia	mihia	mihia
X, 37, iz. [293, 2]	mihia	mihia	mihia
X, 37, 60 [293, 5]	mihia	mihia	mihia
X, 37, 62 [295, 16]	mihia	mihia	mihia
XI, 2, 2 [304, 6]	mihia	mihia	mihia
XI, 2, 3 [304, 19]	mihia	mihia	mihia
XI, 3, 5 [307, 7]	mihia	mihia	mihia
XII, 2, 2 [340, 3]	mihia	mihia	mihia
XII, 6, 6 [342, 12]	mihia	mihia	mihia
XII, 25, 34 [366, 13]	mihia	mihia	mihia
XII, 26, 36 [368, 19]	mihia	mihia	mihia
XIII, 19, 25 [399, 6]	mihia	mihia	mihia
XIII, 21, 29 [401, 15]	mihia	mihia	mihia
XIII, 26, 40 [412, 12]	mihia	mihia	mihia

*nahas*

	C	B	A
I, 16, 25 [30, 2]	ezkontza-nâsle	ezkontza-nâsle	ezkontza-nâsle
I, 16, 25 [30, 4]	nâstea	nâslea	nâslea
I, 20, 31 [36, 7]	nâspillara	nâspillara	nâspillara
II, 2, 2 [38, 3]	nâste	nâste	nâste
II, 3, 7 [41, 24]	nâsi	nâsi	nâsi
II, 6, 14 [48, 4]	nâsgabeen	nâsgabeen	nâsgabeen

<sup>23</sup>Makinaz jotako testuak «mii» dakar (C, 49 or.) eta Orixek *h* bat gehitu du, eskuz, bi *z*-en artean.

II, 7, 15	nasi		
II, 10, 18 [51, 17]	nasi	nâsi	nâsi
III, 3, 6	nasmakil		
III, 3, 6	nasi		
III, 6, iz. [60, 17]		naste-borraste	nâste-borraste
III, 6, 10 [61, 2]	nâsiz	nâsiz	nâsiz
III, 7, 12 [63, 22]	nasten	nâsten	nâsten
III, 11, 20 [71, 15]	nâsi	nâsi	nâsi
V, 3, 3 [103, 11]	nastarazten	nâsarazten	nâsarazten
V, 8, 14 [112, 21]	nasten	nâsten	nâsten
V, 12, 22 [120, 7]	nâsmakil	nâsmakil	nâsmakil
VI, 4, 5 [131, 5]	nasten	nâsten	nâsten
VI, 15, iz. [150, 7]		nâsten	nâsten
VII, 2, 3 [155, 23]	nasi	nâsi	nâsi
VII, 18, 24 [177, 12]	nasten	nâsten	nâsten
VII, 21, 27 [182, 11]	nasietan	nasietan	nasietan
IX, 4, 9 [219, 11]	Nasi	Nâsi	Nâsi
IX, 8, 18 [227, 27]		nâsia	nâsia
IX, 9, 19 [228, 12]	nasten	nasten [nâsten m3]	nâsten
IX, 11, 28 [234, 17]	nâste	nâste	nâste
IX, 12, 32 [237, 2]	nahasaldi	nâsaldi	nâsaldi
X, 8, 13 [254, 7]		nasten [nâsten m3]	nasten
X, 11, 18 [258, 11]		naste	nâste
X, 14, 22 [261, 24]		nasten	nâsten
X, 23, 34 [273, 12]		nasten	nâsten
X, 33, 49 [284, 6]		nasten	nâsten
X, 35, 57 [290, 25]		nasten	nâsten
X, 40, 65 [297, 15]		nâste	nâste
XI, 22, 28 [325, 22]		nâsi	nâsi
XI, 27, 36 [333, 13]		nâsarazi	nâsarazi
XI, 27, 36 [333, 13]		nâsi	nâsi
XII, 3, 3 [341, 12]		nahas-mahas	nahas-mahas
XII, 4, iz. [341, 14]		Nâste-borraste	Nâste-borraste
XII, 5, iz. [342, 2]		nâste-borraste	nâste-borraste
XII, 11, 11 [348, 10]		nâsten	nâsten
XII, 17, 25 [357, 16]		nahas mahas	nahas-mahas
XII, 17, 26 [358, 12]		nâste	nâste
XII, 18, 27 [358, 19]		nâsi asteko [c. m3]	nâsiazteko
XII, 20, 29 [360, 23]		nâste	nâste
XII, 20, 29 [361, 3]		nâste	nâste
XIII, 20, 27 [400, 6]		nâsten	nâsten

*ohe*

	C	B	A
II, 2, 3 [38, 19]	oeraïño	ogeraïño	ogeraïño
IV, 2, iz. [76, 11]		oe-laguna	oe-laguna
IV, 7, 12 [84, 17]	oeko	ogeko	ogeko



IV, 12, 19 [91, 8]	oetik	oetik	oetik
VI, 15, 25 [150, 12]	oe-laguna	oe-laguna	oe-laguna
VIII, 12, 29 [208, 15]	oeko	oeko	oeko
IX, 9, 19 [228, 12]	Ohaide	Ohaide	Ohaide
IX, 11, 27 [233, 19]	ogeratu	ogeratu	ogeratu
IX, 12, 32 [237, 14]	Ogeko	ogeko	ogeko

*uhats*

	C	B	A
X, 6, 9 [250, 8]		Uhats	Uhats

*xehe*

	C	B	A
VII, 6, 8 [162, 20]	xeetasun	xeetasun	xeetasun

*zahar*

	C	B	A
I, 4, 4 [12, 9]	zar	zagar [zahar m4]	zahar
I, 4, 4 [12, 10]	zârtzen	zagartzen	zaartzen
I, 7, 11 [18, 17]	zarragoren	zâr. [zaar. Uts.]	zârragoren
I, 8, 13 [20, 13]	zarragoen	zarragoen	zarragoen
I, 9, 14 [20, 22]	Zârrak	Zârrak	Zârrak
I, 9, 14 [21, 9]	zârrago	zârragoek	zârragoek
I, 18, 29 [33, 13]	zârren	zârren	zârren
IV, 10, 15 [87, 15]	zartzen	zârtzen	zârtzen
IV, 10, 15 [87, 15]	Zartu	Zârtu	Zârtu
V, 14, 24 [122, 19]	zarreko	Zarreko	Zarreko
VI, 4, 6 [131, 11]	zarreko	zarreko	zarreko
VII, 1, 1 [153, 7]	zarrago	zarrago	zarrago
VII, 6, 8 [161, 14]	zar	zar	zar
VII, 13, 19 [173, 8]	zar	zar	zar
VII, 21, 27 [181, 17]	zarrari	zarrari	zarrari
VIII, 1, 1 [184, 1]	zarretik	zarretik	zarretik
VIII, 1, 1 [184, 7]	zartua	zartua [zârtua m2]	zârtua
VIII, 5, 10 [192, 21]	zar	zar	zâr
VIII, 5, 10 [192, 22]	zarra	zarra [zârra m2]	zarra
VIII, 11, 25 [205, 15]	zarragoak	zarragoak [zâ. m2]	zarragoak
IX, 4, 8 [217, 23]	zar	zâr	zâr
IX, 4, 10 [220, 9]	zaharra	zârra	zarra
IX, 8, 17 [226, 8]	zahar	zâkar	zâr
IX, 8, 17 [226, 10]	zahar	zâkar [zagar m2]	zâr

IX, 8, 18 [226, 28]  
 IX, 8, 18 [227, 5]  
 IX, 10, 24 [232, 11]  
 X, 27, 38 [278, 7]  
 X, 34, 52 [286, 16]  
 X, 34, 52 [286, 19]  
 XI, 10, 12 [313, 10]  
 XI, 22, 28 [326, 12]  
 XI, 29, 39 [335, 16]  
 XIII, 18, 22 [396, 8]

Zaharragoen  
 zahar

Zagarragoen  
 zâr  
 zârtu  
 zar  
 zarturik  
 zâr  
 zargaldurik  
 zârtuazi  
 zarretik  
 zârrak

Zârragoen  
 zâr  
 zârtu  
 zâr  
 zarturik  
 zâr  
 zargaldurik  
 zârtuazi  
 zarretik  
 zârrak

*zuhur*

C

B

A

I, 7, 11 [18, 3]  
 II, 6, 12 [46, 18]  
 III, 6, 11 [63, 7]  
 III, 6, 11 [63, 7]  
 III, 12, 21 [72, 13]  
 IV, 3, iz. [77, 22]  
 IV, 3, 5 [78, 19]  
 IV, 3, 5 [79, 7]  
 IV, 3, 6 [79, 24]  
 IV, 14, 21 [93, 7]  
 V, 6, 10 [109, 8]  
 V, 6, 10 [109, 17]  
 V, 10, 19 [117, 20]  
 VI, 7, 12 [138, 2]  
 VI, 10, 17 [143, 17]  
 VI, 14, 24 [150, 1]  
 VII, 6, 8 [161, 10]  
 VII, 9, 14 [168, 5]  
 VII, 9, 14 [168, 6]  
 VII, 18, 24 [177, 13]  
 VII, 19, 25 [178, 16]  
 VII, 21, 27 [182, 9]  
 VIII, 6, 13 [195, 4]  
 VIII, 6, 13 [195, 6]  
 VIII, 7, 17 [198, 12]  
 IX, 3, 6 [216, 4]  
 IX, 8, 17 [226, 14]  
 IX, 8, 17 [226, 16]  
 IX, 10, 24 [232, 2]  
 X, 29, 40 [278, 2]  
 X, 37, 61 [294, 8]

zurragoekin  
 zurtasunarekin  
 zûrtze  
 zurr-itzetan  
 zûrki  
  
 zûr  
 zûr-antzo  
 zur  
 zur-iakiteari  
 zuur  
 zuhurtzea  
 zuhurrago  
 zurra  
 zurtasuna  
 zuurtasuna  
 zuhurtasunak  
 zuhur  
 zuhurtasuna.  
 zuhurtasuna  
 zuhurrak  
 zuhurreri  
 Zugurki  
 zurgurtasun.  
 zurgurtasunera  
 zuhurtze  
 zuhur  
 zuhurki

zugurragoekin  
 zur.[zûr. m2]  
 zûrtze  
 zugur-itzetan  
 zugurki  
 zugur  
 zugur  
 zugur antzo  
 zugur  
 zûr-iakiteari  
 zugur  
 zurgurtzea  
 zugurrago  
 zurra  
 zurtasuna  
 zuurtasuna  
 zurgurtasunak  
 zugur  
 zurgurtasuna.  
 zurgurtasuna  
 zugurrak  
 zugurreri  
 Zugurki  
 zurgurtasun.  
 zurgurtasunera  
 zurgurtze  
 zugur  
 zugurki  
 Zugurtasuna  
 zurgurtasun  
 zugur

zuhurragoekin  
 zûrtasunarekin  
 zûrtze  
 zugur-itzetan  
 zugurki  
 zugur  
 zugur  
 zugur antzo  
 zugur  
 zûr-iakiteari  
 zugur  
 zurgurtzea  
 zugurrago  
 zugurra  
 zurgurtasuna  
 zuurtasuna  
 zurgurtasunak  
 zugur  
 zurgurtasuna.  
 zurgurtasuna  
 zugurrak  
 zugurreri<sup>24</sup>  
 Zugurki  
 zurgurtasun.  
 zurgurtasunera  
 zurgurtze  
 zugur  
 zugurki  
 Zugurtasuna  
 zurgurtasun  
 zugur

<sup>24</sup>A-k, berez, «zugurreri» dakar.

X, 43, 70 [301, 19]		
XI, 2, 4 [306, 13]		
XI, 6, 8 [309, 20]		
XI, 9, 11 [312, 16]		
XI, 9, 11 [312, 16]		
XI, 9, 11 [313, 5]		
XI, 11, 13 [314, 5]		
XII, 11, 11 [348, 3]		
XII, 11, 11 [348, 12]		
XII, 11, 13 [349, 12]		
XII, 15, 20 [353, 22]		
XII, 15, 20 [353, 24]		
XII, 15, 20 [353, 26]		
XII, 15, 20 [353, 27]		
XII, 15, 20 [354, 1]		
XII, 15, 20 [354, 6]		
XII, 17, 25 [357, 22]		
XII, 17, 25 [358, 7]		
XII, 19, 28 [359, 16]		
XII, 22, 31 [363, 25]		
XII, 28, 39 [371, 10]		
XII, 28, 39 [371, 14]		
XIII, 2, 2 [378, 15]		
XIII, 2, 2 [378, 16]		
XIII, 2, 3 [379, 10]		
XIII, 2, 3 [379, 11]		
XIII, 5, 6 [381, 10]		
XIII, 5, 6 [381, 11]		
XIII, 15, 17 [392, 2]		
XIII, 18, 23 [396, 20]		
XIII, 18, 23 [397, 4]		
XIII, 18, 23 [397, 6]		
XIII, 18, 23 [397, 8]		
XIII, 19, 24 [398, 13]		
XIII, 19, 25 [398, 28]		
XIII, 20, 27 [400, 10]		
XIII, 21, 31 [403, 17]		
	zugurtze	zuhurtze
	zugurtze <sup>25</sup>	zugurtze
	zugurrari	zuhurrari
	Zugurtasuna	Zuhurtasuna
	zugurtasuna	zuhurtasuna
	zugurtasunez	zuhurtasunez
	zugurtasun	zuhurtasun
	zugur	zugur
	zugur	zugur
	zugur	zugur
	Zugurtasuna	Zugurtasuna
	zugurtasun	zugurtasun
	zugurtasun	zugurtasun
	zugurtasun	zugurtasun
	zugurtasun	zugurtasun
	zugurtasun	zugurtasun
	zugurtasun	zugurtasun
	zugurtasunez	zugurtasunez
	Zugurtasunak	Zugurtasunak
	Zugurtasunean	Zugurtasunean
	zugur	zugur
	zugurtasunera	Zugurtasunera
	zugurtasunean	zugurtasunean
	Zugurtasunez	Zugurtasunez
	Zugurtasun	Zugurtasun
	zugurki	zugurki
	zugur	zugur
	zugurtasun	zugurtasun
	zugurtasun	zugurtasun
	zugurtasuna	zugurtasuna
	zugur-itza	zugur-itza
	Zugurtasunaren	Zugurtasunaren
	zugur	zugur
	Zugurtasunez	Zugurtasunez
	zugurtasuna	zugurtasuna <sup>26</sup>
	zugur-itza	zugur-itza
	zugurtasunaren	zugurtasunaren
	zugur	zugur

<sup>25</sup>«Zu gurtze» dakar B-k.<sup>26</sup>«zugurtasna» A.

## VI

### *Ekidin*, «nendun»

Berebiziko garrantzia dute, *Aitorkizunen* testuan ez ezik *Aitorkizunen* testuaren historian —eta azken honengatik dira hemen aztertu beharrekoak—, *ekidin* ustezko aditz laguntzaileak eta «nendun» adizkiak: batetik, *Aitorkizunetan* hasi zelako Orixeko horiek erabiltzen eta, hein batean behintzat, *Aitorkizunentzat* berreskuratu bide zituelako (itzulpen honekin iritsi nahi zuen xede garrantziko baten erakusgarri diratekeelarik, beraz); bestetik —eta, orain eta hemen darabilgun auzirako, batez ere—, bi hitz hauen inguruan gertatu zirelako *Aitorkizunen* testuaren historiako bizpahiru gertaldi esanguratsu, segituan ikusiko ahal dugun bezala. Bide batez —auzi hau zeharka baino ez baita hemengoa—, azalpen orokor honek erakutsiko ahal digu, adibide gutxik eman lezaketen argi batekin erakutsi ere, nola gauzatu ziren *Aitorkizunetan* —bere beste lan nagusietan ez bezala— Orixek hizkuntzari buruz edo, agian hobeto, hizkuntzaren batasunari buruz zituen iritzi zenbait: iritzi-aburu hauetako batzuk ez dira erabat ezezagunak, behin baino gehiagotan eztabaidatu baitira, bai argitaratu ziren garaian bai azken urteotan (dagokien tradizioan —nire ustez— behar bezala kokatu ez badira ere, diren baino xeblebreagoak agertuaraziz), baina gutxitan hitz egin da —baldin inoiz egin bada— hizkuntzaren praktikan eta puntu honi dagokionez izan zuen jarreraren gainean. Hemengo hauek, esan bezala, bi adibide besterik ez dira baina, agidanean, oso adibide adierazgarriak.

#### 1. *ekidin*

Orixek uste zuen *izan* laguntzailearen nor-nori saileko «zait», «zaio», «natzaio» etab. gaizki eraturako adizkiak direla, hau da, jatorrizko adizkien forma endekatuak izan behar dutela nahitaez;<sup>1</sup> aldi berean, uste zuen aditz laguntzailearen balioa zuen nor-nori sail jator oso bat bizirik zela oraindik zenbait herritan:

Se usa en bastantes formas acá y allá: *nakio*, *zakio*, *dakio*, etc., y en la Burunda y Barranca de Navarra no he oído sino *dakio* en vez de *zaio*. A esas formas usuales les falta el *-di-* de la raíz, que convenía restablecer, al menos en algunas flexiones, para no confundirlas con las del verbo *iakin*: *dakit* = 'yo lo

---

<sup>1</sup>Ez dutelako agerian Orixeren ustean *izan*-en erroa den *-iza-*; nor hirugarren pertsonan duten adizkiei dagokionez, ezin bide direlako *z-* batez hasi, *d-* batekin baizik; etab. Ikus, guzti honetaz, hurrengo oharra.

sé'; *dakit* (*dakidit*) = 'ello me es' = *zait*;

eta, gauzak horrela, «*dakit*» edo «*dakidit*» honen sailekoak erabiltzea proposatzen zuen ohiko *zait* eta abarren ordez.<sup>2</sup>

Orixerentzat, izan ere, bide honetatik iritsi behar zen aditzaren batasuna:

[...] [por] el restablecimiento morfológico de nuestros verbos auxiliares a su primitiva pureza. Restablecimiento, decimos, y no reforma, porque el trabajo está hecho a base de datos auténticos y ciertos, tomados de unos y otros dialectos, no sacando nada de nuestra cabeza,<sup>3</sup>

hau da, ustezko forma zaharrak berreskuratuz, literatur tradizioak edo hiztun gehienek erabilerak ezer gutxi balio baitzuten jatorrizko garbitasun haren ondoan:

Hemos hecho un esfuerzo teórico con vistas a la unificación. No es aquello de 'los autores anteriores lo dicen', o 'eso no es *hoy* popular'. Pero si hay indicios de que lo fue, seguimos al pueblo que habló mejor, y, sobre todo lo más sencillo. Si no dejamos a un lado el uso de esos autores viejos y del pueblo de hoy, nos condenamos a no salir nunca del caos actual [...].

aipatu *El lenguaje vasco...* liburutik ez irtetzearren.<sup>4</sup>

Ohar bedi ondo: «restablecimiento», «no sacando nada de nuestra cabeza», «indicios de que [...] fue [popular]», etab. Ez gaude —garrantzia baitu zehazteak— Azkue gaztearen edo Sabino Aranaren edo Soloeta Dimaren eta enparauen ildoan,<sup>5</sup> ezpada *Morfología vasca* eta, agian batez ere, *Gipuzkera osotua* bezalako liburuen gerizpean: alde handia baitago horien guztien artean edo, hobe, horiei guztiei buruzko iritzien artean —batik bat, baina ez bakarrik, 1940 edo 1950garrenetako antiojoekin begiratuaz gero—.<sup>6</sup> Ez da hau toki egokia Orixek

<sup>2</sup>*El lenguaje vasco*, 139 or.; bai *ekidin*-i buruz bai *izan*-en ustezko forma jatorrei buruz ikus, aipatu liburuz gain (133-136 or.), Orixe, «Euskal aditza», EG, 1950 [5-6 eta 7-8], 42-45 eta 18-20 or. [= IG, III, 895-904 or.] —*El lenguaje vasco* liburuan dioenaren aurreko bertsio bat—, eta Id., «*Mea culpa* eta "Quos ego!"», *Yakin*, 9 (1959), 89-93 or. [= IG, III, 978-980 or.]; 1949-1950 urteetako gutunetan ere —batik bat Oiartzabal eta Mokoroarentzakoetan— sarri samar aipatzen da bi aditz hauen kontua. Orixek aditzaren inguruan erakutsi zituen iritzi eta apeta hauen guztien gainean —baita *ekidin* eta *izan* laguntzailei buruz ere— ikus Zuazo [1988a, 303-307 or.] eta [1988b, 246-249 or.] eta baita ere Goenaga [1991, 543-546 or.].

<sup>3</sup>*El lenguaje vasco*, 5 or.

<sup>4</sup>*El lenguaje vasco*, 147 or. Eta pixka bat gorago, *ekidin* laguntzaileari buruz ari delarik hain zuzen ere: «Pero en tratándose de la unificación literaria (;somos o no somos?) hay que pasar por alto autores antiguos, modernos y actuales, habiendo más que razón suficiente para ello» (*ib.*, 139-140 or.).

<sup>5</sup>Esanguratsua da oso —batahunaren historiari buruz guztiok ditugun uste batzuk neurtzeko alegia— aipatu ditugun Goenagaren eta, batik bat, Zuazoren lanetan Orixe kokatuta egotea *Euskal-Izkindea*, Soloeta Dima eta abarren segizioan; izan ere, eredia hurbilago dugu: idazle bat baldin bada gipuzkera osotuaren benetako mamia —zehaztasuna ez da, agidanean, alferrikakoa— jarraitu zitzaiona, idazle hori *Urte guziko meza-beesperak* eta *Aitorkizunak* liburuetako Orixe da.

<sup>6</sup>Orixek hizkuntzaren inguruan zituen ideia funtsezkoenak Azkuerengandikoak ziren: bai hizkuntzari buruzko ideologian bai hizkuntzalaritzaren beraren oinarrietan; Azkuek —eta, diogun berriz ere, ez gara Azkue gazteari buruz ari— jarraitzaile gutxi izan zituen, eta horietakoa izan zen Orixe. Gramatika hutsezko kontuetan, horratik, ez zen beti bat etortzen ez maisuarekin ez inorekin: gogora, eranskin honetan mintzagai ditugun auzien mugetatik ez irtetzearren, «*dakio*» saileko adizkiak *izan*-enak direla Azkuerentzat, ez *ekidin*-enak; *izan*-en erroa *-iz-* dela Azkuerentzat, Orixerentzat berriz *-iza-*; eta hizkuntza idatzian Orixek sartu omen zuen «nun» espresuki gaitzetsi zuela Azkuek —gogoan Olabide bazuen ere— (ikus, hemen bertan, 450-451 or. 18 oh.); etab. Baina Orixek

hizkuntzari eta hizkuntzaren batasunari buruz zituen iritzi erromantikoki sistematikoki aztertzeko, baina axola zaigu ustezko *ekidin* honen inguruan argitu beharrekoak xehe samar aztertzea: batetik, honetarako erabili zituen argudioak sasoi honetan —hots, *Aitorkizunak* idazten hasi zenekoan, hain zuzen ere— agertu eta praktikan jarri zituen era honetako beste proposamenen oinarrian dauden berberak direlako (hemen ere mintzagai dugun «nendun» adizkiaren aldekoarenean, esaterako); bestetik, auzi honek adibide gutxik bezala erakutsiko digulako hizkuntzari buruzko hausnarketaren tradizioan —eta, zehazkiago, batasunaren historiaren— zein alderdiri atxiki behar zaion, eta zeinen estu, Orixeren hizkuntz eredu.

Honela hasten da, *Morfología vasca* liburuan, «Recipientes de verbos intransitivos» izena daraman atala:<sup>7</sup>

Afortunadamente uno solo, único en todos los dialectos, es el elemento reflexivo que se une a los personales *d, k, n, o, gu, zu...* para formar estos recipientes: *ki*. Creo haber enseñado en alguna otra parte que este elemento es el núcleo del verbo *ekin* [...]. No cabe, sin embargo, tener seguridad acerca de su origen. Bonaparte ve la fuente del elemento *ki* en el verbo *egon, egoki*.

Nuestra ciertamente apreciable y sobradamente decantada conjugación familiar ha producido tales desaguisados en la cortés del auxiliar, que valiéranos más no hubiera nacido [...].

Como este elemento reflexivo *ki*, de que aquí se trata, se manifestó hurraño con el intruso *i* [hau da, hitanoaren adizkietan agertzen dena] y desaparecía cada vez que éste quería ponerse a su lado, el intruso se ha vengado de él quedándose en sus flexiones disfrazado de respetuoso. Hasta al diligentísimo y pacienzudo tratadista de nuestro verbo Fr. Juan Mateo de Zabala se le escapó que *ddat, ddaku, ddatzu* son flexiones de origen familiar [...] no percatándose de que la *i* familiar está en ellas incorporada a la *d* [...].

Las flexiones *il dakit* 'se me ha muerto', *estali dakigu* 'se nos ha cubierto', pierden su característica de recipiente en conjugación familiar. En el dialecto en que como característica de esta conjugación figura, como es natural, el pronombre familiar *i*, arranca de su puesto al reflexivo *ki* sin que de él quede rastro; y al elidirse este elemento permuta, como es de ley, la consonante que le sigue [...]. De *il dakidaz* y *dakiguz* nacen las flexiones, por su aspecto semifamiliares, *il ddataz* e *il ddakuz* 'se me han, se nos han muerto'. En otros dialectos, en que como característica de familiaridad interviene por chocante anomalía el pronombre respetuoso *zu*, de *ki* queda la *i* en objetos singulares, *il zait* en vez de *il dakit* 'se me ha muerto' [...].

Sólo en un rincón paradisiaco de nuestra hermosa Navarra y en limitadas zonas de Bizcaya, como Bakio, Lemoniz y Barrika, se oyen flexiones de verbo auxiliar de indicativo en que figura el reflexivo *ki*. Doce o catorce años atrás oí hacia Etxarri-Aranaz, con una fruición que sin duda asomó al semblante, estas lindísimas flexiones: *etorri dakit* 'se me ha venido', *etorri dakik* 'se te ha venido' [...].

1931an argitaratutako «Primer apéndice de la *Morfología vasca*. Conjugación del verbo

Azkueri zor zionekoa —eta zor ez zionekoa— ez da toki honetakoa.

<sup>7</sup>Azkue [1923-1925, 573-575 or.]. Ondo laburbildu zuen Mitxelena [1970, 20-21 or.] Azkueren asmoen nondik norakoa: «[...] lo que Azkue quería era precisamente esto, restaurar, por ejemplo, el verbo vasco, como se restaura un edificio o un cuadro: borrar en la lengua las injurias del tiempo y desempañar el brillo original del instante mismo de su creación. [...] Azkue, y en general todos los reconstructores del verbo vasco, tratan de eliminar a toda costa las irregularidades del sistema y ponen para ello en el origen un verbo perfectamente 'lógico', es decir, regular. [...] Azkue, como los demás, cayó en este pecado al tratar del verbo, no del léxico. De ahí procede el vicio radical que quita valor a la segunda parte de su excelente *Morfología vasca* (1923), compensado en parte por el apéndice que dedicó al verbo guipuzcoano (1932)». Ikus, orobat, Tovar [1952] eta [1966].

guipuzkoano» delakoan berriz aipatzen du kontua,<sup>8</sup> baina askoz interesgarriagoa da *Gipuzkera osotua* izeneko idatzian dioena —eta barka bekit, berriz ere, aipuairen luzea—:<sup>9</sup>

Hay otras flexiones curiosas de este verbo [*izan* aditza alegia], por lo general arcaicas, cuyo uso en Gipuzkera Osotua parece recomendable. Son las receptivas de indicativo, por ejemplo, *etorri dakit, dakigu, zekion...* etc., de uso aun hoy en la Burunda y la tercera, con otras de conjugación remota, también en ciertos lugares del B, como Bakio, Lemoniz y Barrika. Sus correspondientes *zait, zaigu, zitzaion* son deformaciones producidas por la conjugación familiar. [...] Y así como esto [hots, «ddatort» (B) iluna «datorkit» (G) gardenaren ondorio gaiztoa izateak] debe impulsar a los bizkainos a abandonar las degeneradas *ddatort, ddatork* y *ddatorku*, así la existencia de flexiones burundenses *etorri dakit, dakigu, zekion, zekigun*, etc., debe animarnos a valernos de ellas en Gipuzkera Osotua en vez de las deformadas *etorri zat* ('zait'), *zaku* o *zaigu, zitzaion* y *zitzaigun*.

Tal vez pudiera objetarse que como las flexiones *dakit* y *dakigu* se usan ¡y tanto! en significación de 'lo sé' y 'lo sabemos', el introducirlas en vez de *zait* y *zaigu* (*zat* y *zaku*) produciría una gran mezcla. A lo cual diré que [...].

Eta, hemendik orrialde gutxira, «Algunas flexiones de *izan*» izenburua daraman atal batean, honela dio:<sup>10</sup>

Paradigma III. Flexiones receptivas de *izan* en indicativo próximo. Este paradigma se expuso en [...]. Sus flexiones *naitzak, naitzan, naitzako...* etc., son, como se dice allí, anormales, aunque de uso general, con ciertas pequeñas variantes, como *natzaik, natzain, natzaio* y demás. De sus correspondientes flexiones normales se habló en [...]. Aquí se expondrá su paradigma tal como se oye aún hoy en la Burunda [...].

Quizás a alguien le ocurra decir que dejando en la Burunda sus *etorri dakit* y *dakio*, podríamos atenernos a las flexiones hoy corrientes *etorri zait* y *zaio*, dejando las primeras para los modos imperativo, subjuntivo, hipotético, condicional y potencial. Y esto por una razón muy sencilla. Como se ha visto, a las flexiones *dakit* y *dakio* les falta el núcleo del verbo *izan*. En cambio este núcleo aparece claro en las flexiones *zait* y *zaio*. A esto responderé que no; pues, este *za* es cosa muy distinta de *iz*, núcleo del verbo *izan*, como se expondrá a continuación [...].

Para terminar este capítulo añadiré que tal vez algunos, aun convencidos ya de que las flexiones *zait* o *zat* y *zaio* o *zako* son restos fosilizados de *zaidak* y *zaidan, zaiok* y *zaion*, familiares de *dakit* y *dakio*; es posible que opinen que *para evitar anfibologías* [Azkuek nabarmendua] es más práctico y recomendable el conservarlas, dejando sus correspondientes originales, ya casi totalmente arcaicas, para expresar ideas de subjuntivo. En vez de *etorri dakit*, digamos: *etorri zait* 'se me ha venido' y *etorri dakidala* 'que se me venga' [...]. Pero esta teoría de evitar anfibologías nos llevaría así mismo a las siguientes conclusiones [...].

Auzi berberari buruz ari dira hitz egiten Azkue eta Orixe eta bistan da, bestalde, ezin ukatuzko lotura bat dagoela bien azalpenen artean —ez dut uste ordea dirudien bezain erraza denik jakitea zein dagoen zeinen mendean—: alde bakarra da Orixerentzat *ekidin* laguntzaile baten forma sinkopatuak liratekeela adizki hauek guztiak eta Azkuerentzat, ikusi dugun

<sup>8</sup>Azkue [1931, 101-102 or.]: «[...] las viejas y preciosas formas de recipiente *il dakit, dakik, dakin, dakio* 'se me... te... le ha muerto' [...]; «[...] estas viejas hermosas flexiones [...]; etab.

<sup>9</sup>Azkue [1934-1935, 151-152 or.]; hemen aldatu egiten du *Morfología*-n azaldutako teoriaren zati bat, baina ez du axola hemen darabilgun auzirako.

<sup>10</sup>Azkue [1934-1935, 155-156, 158, 162-163 or.].

legez, *izan* aditzaren jatorrizko formak. Azken batean gramatikazkoa den puntu honetan Azkue eta Orixe bat etortzea, garrantziko gauza izan arren, gutxienezkoa da; hemen axola zaiguna da egiaztatzea «zait» gaitzesteko eta «dakit» hobesteko zergatikoak eta argudioak berberak direla batarengan eta bestearengan. Alabaina eta esan bezala, ez da hau toki egokia Orixez hizkuntzaren batasunari buruz zituen iritzien —eta hauen iturrien— gainean jarduteko. Gogora dezagun bakarrik Orixe, kontu hauetan, Azkue baino epelagotzat zuela bere burua —eta ez gara, diogun berriz ere, Azkue gazteari buruz ari—. Eta, izan ere, hala zen: oso oker ez banago, eta era honetako beste zenbait hitzekin gertatu zitzaionaren antzera (gogora, berriz ere, hemen bertan aztertuko dugun «nendun» kasua), *Aitorkizunen* testuaren inguruan bakarrik —eta *Aitorkizunen* lehenengo idatzaldian batik bat— erabili zuen aditz hau (ikus 77 or.), *Aitorkizunetan* gauzatu nahi izan baitzuen Orixe, beste inon baino gehiago, bere bizi guztian zehar hausnartzen eta osatzen joan zen hizkuntza jasoa.

Esan dugunez, ustezko *ekidin* hau erabiltzeko Orixe izan zuen zergatiko nagusia izan zen *izan* laguntzailearen nor-nori saileko adizkiak gaizki eraturakotzat jotzen zituela: honek ez du ordea esan nahi, inondik ere, adizki oker horiek arbuiatzean sistematikoa izan zenik —edo sistematikoa izan nahi zuenik—, ezta *Aitorkizunen* lehenengo idatzaldian ere; aitzitik, hiru modutara jokatu zuen Orixe nor-nori saila *Aitorkizunen* bi idatzaldietan: *izan*-en ohiko formekin (hots, aipatu ditugun «zait», «zai» etab. endekatuekin, eta sasikotzat ere jotzen zituen *-tza-* eta *-zki-* morfemak dituztenekin: «natzaio», «zitzaidan», «zitzaizkidan»); hark *izan*-en forma jatortzat zituen beste batzuekin (aditzaren ustezko erroa, *-iza-* alegia, garbi erakusten zutenekin: «nizaio», «zizadan», «ziza[i]zkidan»); eta ustezko *ekidin* delakoaren formekin (osoak zein sinkopatuak: «nakidio» edo «nakio», «zekididan» edo «zekidan», etab.).<sup>11</sup> Gorago aztertu dugun «zatzaie B : zakie m2» oharrak (ikus 123 or. 75 oh.) pentsarazi lezakeenaren kontra (eta era honetako beste zenbait kasutan ez bezala: gogora, berriz ere, «nendun»), Orixe amore ematen joan zen *Aitorkizunen* testuaren historian zehar: izan ere, C-tik B-ra bidean auzi honen inguruan egindako aldaketa gehienak *izan*-en forma normalen aldekoak dira, beste bi sailak (*izan*-en forma ustez jatorrena eta *ekidin*-en adizkiarena alegia) erabat baztertu ez bazituen ere.

Ikusi dugun bezala, adizki hauek direla-eta Azkuek eta Orixe dakartzaten lekukotasunak eta argudioak berberak dira eta, puntu honetan behintzat, ezin eztabaidatuzkoa da lotura bat dagoela bien artean; izena ordea aldatu egiten da: Azkuerentzat *izan* da, Orixerentzat berriz *ekidin*. Orixeren asmakizuna ote *ekidin* hau? Gauza ezaguna da *ekidin* aditzoia Axularrek dakarrela («equidin»), baina ez da zalantzarik Orixe *ekidin* izena zuen aditz baten adizkitzat

<sup>11</sup>Bi maila bereizten zituen Orixe *izan* aditzaren historian: bata, oraindik bizirik ziren adizki batzuetatik hurbil dauden formena eta, hortaz, erabil daitekeena eta, izan ere, erabili egin zuena *Aitorkizunetan* («gira», «zira»; «nizaio», «nizaizu», etab.; «ninza», «ninzaion», «ninzaizun», etab.; «ziza[i]dan», «zizaion», etab.); eta bestea, oraindik erabat erregularrak ez diren aipatu saileko adizki zenbaiten jatorrian leudekeenak, inoiz erabili beharko lirakeenak baina Orixe erabili ez zituenak («niza», «diza» [> «da»], «giza» [> «gira»], «ziza» [> «zira»], «ditz» [> «dira»]; «dizait», «dizaio», «dizaizu», etab.; «ninizan», «zinizan», «zizan», etab.). Ikus, guzti honetarako, 445 or. 2 oh. aipatutako liburu eta artikulua. Inoiz erabili ez zituen —baina, hala ere, proposatu egiten zituen— adizkiei dagokienez ikus zer dioen «Amillaitz'i erantzuna» izeneko artikuluan (EG, 1951 [9-10], 45-46 or. [= IG, III, 935-937, 937 or.]): «[...] ez al nizan oartarazi lengoratzeko ori ez ditekela oraingoz egin, ez alegin ere? Erabiltzen al dirut neronek ere *niza*, *iza*, ta olako oriek?». *Aitorkizunen* lehenengo idatzalditik bigarrenera adizki hauek direla-eta egin zituen aldaketei buruz ikus 77 or. 28 oh.



zituela hemen ikusi ditugun hauek Axularrenaren berri jakin baino lehenago eta, honekin topo egindakoan, biak bat zirela pentsatu zuela.<sup>12</sup> Lekuko dugu Donibane Lohizunetik 1949ko martxoaren 9an Martin Oiartzabali egindako karta bat:

Atzo erenegunetan Axular'en Gero'ri axial-begiratu bat eman diot, gure nagusi onek emanda. Itokarrean ari izanik ere (zazpi bat orduz), gauza asko auteman ditut gure bion aditza-lana sendotzen dutenak, eta geroko utzi bear, edo besterentzat, obeki esan. Gauzarik politena au arkitu dut: ekidin (equidin), aditz-izen berbera, beste joka-itz batzuekin.<sup>13</sup>

Baina, esan bezala, Oiartzabalentzako gutun hau idatzi zuenerako harrotua zuen Orixek *ekidin*-en kontu hau, bai teorian —*ekidin* izena erabiliz— bai praktikan ere: praktikari dagokionez, bukatua zuen ordurako, dudarik gabe, adizki hauetaz josita dagoen Ca behatzizkribua (ikus 35-39 or.); teoriari dagokionez, berriz, *ekidin* laguntzailearen izena aipatzen du Lafonen eta Lafitteren liburuei 1947an egindako iruzkinetan;<sup>14</sup> eta Oiartzabalentzako aipatu gutunak ere argi eta garbi erakusten du Orixek aurkitu berria duena *ekidin* aditzaren «aditz-izen berbera» dela, hots, ordura arte hipotesi hutsa zelakoan erabiltzen zuen hitzaren benetako lekukotasun bat. Baina nago ordura arteko *ekidin* izena ere ez zela Orixek asmatua; esango nuke honetan ere Olabide dagoela tartean, bai baitirudi aditz laguntzailei dagokiela —eta ez, edo ez bakarrik, Axularren «equidin» hitzari berari— Euskaltzaindiaren 1927ko batzar-agirietan irakur daitekeen aipamen hau:

Olabide jaunak idoro ditu orainarte entzun ez diran euskal-aditz abek *ekidin* eta *idin*: biyak Leizarraga ta Axular'ek badakarzkite.<sup>15</sup>

Egiantzekoagoa da, beraz, Olabiderengandik etorri izana Orixeri *ekidin* aditzaren izena behintzat —ahoz alegia, hark ez baitzuen, dakidala, honi buruzko ezer argitaratu—: ezaguna da bien arteko lotura bereziki estua izan zela 1923-1931 urteetan eta baita, noski, geroago ere: «bai ote da Euskalerrian Aita Erraimun nik bezainbat ezagutu zunik? [...] Ni ondoan iduki nindun zortzi bat urtez [...]».<sup>16</sup>

<sup>12</sup>Axularrena eta berea bat egiten zituela Orixek ez da dudarik: «[...] *nakio, zakio, dakio* [...]; *ki* orren izen osoa *ekidin* da, *equidin* (Axular) [...]» («Arnas'en berri laburra», *Arnas*, 3, 1960 [= IG, III, 452-453 or.]). Axularren *ekidin*-i buruz ikus Mitxelena [1963], Akesolo [1991] eta, ustezko hirugarren lekukotasun bati buruz, OEH, VI, s.v. Zer ikusi izango du Orixerekin, zalantzarik gabe, Mitxelenak aipatu artikuluxkaren akaberan dioenak: «Badut aditza baduela honezaz esankizunik, aspaldiz gero gainera, Aita Justo Mokoroak».

<sup>13</sup>Gutun honi buruz ikus 34 or. 36 oh.; 'gure nagusia', esan gabe doa, Telesforo Monzon da. Orixek irakurria zuen *Gero* lehenik ere eta aspaldi samar: «Mucho hemos leído al Padre Granada, y cinco veces cuando menos, después de haber leído el opúsculo del señor Urquijo, hemos saboreado a Axular [...]» («Pedro de Axular: plagio, imitación o traducción?», *Euzkadi*, 1924ko maiatzaren 15ekoa [= IG, III, 198 or.]); «Neronek ere Axular aundia bost aldiz irakurri nendun gaztezarroan, ez bost aldiz edo askotaldiz, guk esan oi dugun bezala: lau ta bat aldiz esan nai nuke [...]» («Paul Gurenaren Eskutitzak», EG, 1958 [5-6], 518-523, 522 or. [= IG, III, 439-442, 442 or.]). Oiartzabalentzako aipatu gutunean ere esaten du: «Bost aldiz irakurri (beinere ez irakurri) egin nun 3'garren argitaldian, Intxauspe jaunak bi lerro jan egiten baititu. Ez ulertu, nonbait»; hau da, *equidin* dakarren esaldia ez dagoela —eta, izan ere, hala da— Orixek ordura arte erabili zuen Intxausperen edizioan.

<sup>14</sup>Jakina, *Le système du verbe basque au XVIe siècle* eta *Grammaire basque*: ikus 37 or. 47 oh.

<sup>15</sup>«Euskaltzaindiaren batzar-agiriak. Bilbo'n, Euskaltzaindiaren etxean, 1927'ko Jorrailla'ren 29'an», *Eusker*, 8 (1927), 160 or.

<sup>16</sup>Orixek, «Paul gurenaren eskutitzak», EG, 1958 [5-6], 518-523, 518-519 or. [= IG, III, 439-442, 439-440

## 2. «nendun» ('nuen')

Honetan ere, aditzaren morfologia arautu —hots, ditzosozko logikaren arabera— egin— beharrak bultzatzen zion Orixeri «nendun» adizkia aukeratzera ordura arte, gehienetan —eta, orduan ere, gehienetan usadioaren kontra—, «nun» formaren bidez adierazi zuena adierazteko. Merezi du *Aitorkizunak* edo *Aitorkizunen* hizkuntza mintzagai nagusi duen «*Mea culpa* eta “Quos ego!”» artikuluko pasarte luze hau ekartzea:<sup>17</sup>

Aurtemin erauntsi zenidanez —Ibar'ek ere ori berori esan zidan—, euskera idatzian nik omen dut obena *nun* eta *zun* sartu izanarena. Ala ote? Etzait iduri. Nik oraindion nire libururik argitaratu gabe, Aita Olabide'k erabili zituen Itun Berrian. Asi zaite lene[n]go orrialdetik, eta len-atalean, *zun* ogeitamabost aldiz arkituko duzu. Esan duzukena, orduko nik erabilia nedukala Jesusen Biotzaren Deya'n, eta zanarekin batean ari izan nintzala lanean Itun Berria argitaratu baño sortzi [sic] urte lenagotik. Nork ezagutzen ditu nere lantxo aiek, bakar batzuek ezik, eta olako ondorioak ukan ote dute? Olabide'k nere kutsurik bai ote du, Lekuona jaunari ere derizkiona? Nik arena geiago, nere ustez. Dana dala, nere errua baldin bada, *mea culpa* esatea dagokit. Urrengo liburu-gaiean, *Iainkoaren billa*, *nuan* eta *zituun* ipiñi ditut, zori oneko zuen erri orrentzat, alik eta geiena buruz atzi dezan. Lan ori ez dut egin ikasientzat, batez ere zuek bezalakoentzat. Zuentzat berdin dio garbiago edo zailago eginik ere, buruz ongi artuko baituzute, belarrik ez bada ere. Gaurko au bezalako artikuluetan ez duzu aurrera arkituko *nuan*, *nuban*, *nuen*, *nuben*, *nuin*, *niin*, *noon*, *non*, *nuun*, *nun*. Batasunaren billa omen zoazte. Anarki aundi ortan zein aukeratu bada? Orien guzien ama dana: *nendun*. Nere *nendun* kuttun au ematen asi nindeken 1923'garrenean ere, erri askotan esaten baitzan ordu artan. Bai, Adiskide Berri, erri askotan. Orozko erri aundiskoa da bere bailerakin, eta asi Lezamatik eta Getxora bitartean, eta Laukiniz aldera, Txori-erri zaion lurralde ori ba-da zerbait. Ez ote zan Gipuzkoaren erdi bat aña 1923'garrenean *nendun* esaten zanekollurraldea? Gipuz-gipuzkoa esan nai nuke, ots, Bizkai-Gipuzkoa leku: Eibar, Mundrau, Ofiati eta abar. Zuen erriak ez dula orrela esaten. Zuen erria al da beti lege? Eta zuen belarria? Ni, ongi mintzo dan edo zan erriarekin noa, eta nere belarriarekin. Zer itz ederragorik, bulunba-antzeko mintzoa dun ori baño? Gipuzkoan ere ez al zan esaten *nendun*, giputz-erria gaur baño obeki mintzo zala? Nondik atera duzute *gendun*, *nendun* etik ez eta? *N*:- ni, bakarraren einean; eta *g*:- gu, aunitzen einean. Ez noala erriarekin? Zein erriekin? Zuek bezain erriar iotzen dut nere burua, ni baño kaletarrago baitzirate.<sup>18</sup>

or.]. Honi buruzko lekukotasunak ugari dira Orixeren izkribuetan zehar: ikus, besterik gabe, Iztueta [1991, 85 or.].

<sup>17</sup>*Yakin*, 9 (1959), 89-93 or. [= IG, III, 978-980, 978-979 or.]. Ikusi dugu artikulua hau «Anizetxe iaunari» —hau da, on Nemesio Etxanizi: ikus 60 or. eta bertako 45 oh.— egindako erantzun bat balitz bezala aurkezten duela Orixek: honen arabera ulertu behar dira aipuan agertzen diren bigarren pertsonak. Bertan aipatzen den 'Adiskide Berri', jakina, K. Mitxelena da, baina ez da erraz ulertzen zertara datorren aipamena, «Asaba zaarren baratza» argitaratu arte ez baitzuen Mitxelenak, zuzenean behintzat —eta nik dakidalarik—, auzi honi buruzko ezer idatzi.

<sup>18</sup>Oso oker ez banabil, Azkue du gogoan Orixek *nuen* adizkiaren aldaera xeble hauek aipatzen dituenen: «Hoy el pueblo en dialecto G [...] propende por lo general a asimilar la epentética, oyéndose en casi todas partes *nuun* (algunos *noon*) por *nuan* o *nuen*, y *nittuun* por *nituan* o *nituen*, como también *zuun* o *zoon* por *zuen* y *zittuun* por *zituun*. No sé si en tiempos de nuestros primeros escritores habrá mostrado el pueblo esta indolencia. Sabemos, sí, que por lo menos en nuestros días no se contenta con asimilar elementos epentéticos sino hasta el artículo mismo, cuando trae consigo algún elemento, sea el plural *k*, el inesivo *n* o algún otro. En muchos de esos lugares en que dicen *nuun*, *nittuun*, *zuun*, *zittuun*, oímos también *gorriik* por *gorriak*, *gureen* por *gurean*... etc., etc. Si alguno, en vista de esa tendencia popular, por lo menos de nuestros días, prefiere el uso de las asimilaciones al de las tradicionales epentéticas, se vería también obligado a renunciar al uso del artículo en cien casos de indolente asimilación. Y más aun. Si alguien, tal vez por no tener los oídos bien abiertos a la lengua y no haberse podido

Auziaren beste alderdi bat agertzen da hurrengo urtean —eta aldizkari berean— argitaratutako artikulu batean, Irigoieni zuzendutako erantzun batean hain zuzen ere:<sup>18bis</sup>

«*Nun* nondik datorren errez ikusi leiteke» diñozu. Ni baiñon abillago zare. Nik ez dot aen garbi ikusten. [...] Gure autorerik zaharrenak atzoko dira. Len zer gertatu zan, joan eta billa. *Dun*-en alde or daukazuz euskaldun, ez euskalduen, bizardun, dirudun eta senardun, esaterako. [...] Ganera, zure errazoia erantzunez, guk ez dogu esaten *duan* eta *duen* orreitan *a* ta *e* epenetika diranik *edun* *lez iokatzen ba'dira*, bai *un* *lez iokatzen ba'dira*. Zer da *un* ori? Olabide zanaren balizkizun (hipotesi) bat. [...] Ernamuina *-u-* dauan orren izen zaharragoa ez ote zediken (eiken, *pardon!* eikean) *un?* Gure iokaera garbi garbiari begirata, baietz esan lei! *d-u-t*, (*ne*)*n-u-n*, (*ne*)*n-u-ke*, (*ne*)*n-u-ken*. Dana dala, ez dakigu zein uste dan erdi-ustel eta bitartean, ondo da, batasunerako, arauz-erara dagon hipotesi bat artutea. Zuena arauz-ipurdi dago, Bizkaian ezik. Zergatik esaten dabe kiputzak *zenuen*, *zuen* eta ez *zenuaten*, *zenueten*, *zaaten*, *zueten*, esan bear lizaken lez? [...] *Nuan*, *nuban* [...], *nuen* [...]: emeretzi aldetara. Egizu or batasuna! Bai, eta errez, euskera idatzirako, *edun* hipotesi artu ezkerro: *nen-edun* (metatesiz *nen-uden*, *neuen*, *nuen*).

Antola ditzagun Orixeren arrazoibide hauek beste toki batzuetan —baina garai bertsuan— azaldu zituen iritzi argiakoak gogoratuz eta horietaz baliatuz: aditzaren batasuna iritsi behar da «[por] el restablecimiento morfológico de nuestros verbos auxiliares a su primitiva pureza», bila gabiltzana ez baita soilik hizkuntzaren batasuna —batasuna edozein preziotan alegia—, hizkuntzaren muina ahal den garbiena gorde beharko duen hizkuntza batu bat baizik, eta honen ondoan ezer gutxi balio du tradizioak —gure idazleak 'atzokoak baitira zaharrenak ere'—; «nendun» ez da —bide hau, Azkuek ere onartu behar izan zuen gisan, debeku baita— inork asmatutako adizkia, 'ondo mintzatzen zen herriak' erabili zuena baizik; eta mintzagai dugun aldaera multzoaren jatorrizko formari buruz hipotesi bat baino gehiago baldin badago, hipotesi horietan 'arauen arabera' hautatu beharko da, hots, erregularrena.<sup>19</sup> Ezaguna da Mitxelena «nendun» honi buruz edo, hobeto, «nendun» formaren alde Orixek eman zituen arrazoiei buruz agertu zuen iritzia (noski, *Yakin*-eko orrialdeetan argitaratutako artikulu hauetatik bakarrik abiatuta, ez ja «nendun»-ik gabea zen

habituat al lenguaje sano y hasta filosófico del pueblo, persistiera en escribir *esan zun*, *ekarri genun*, *ekarri zitun*... etc., debe renunciar a valerse de *t* en vez de *e* como agente de tercera persona de plural [...]» (Azkue [1934-1935, 112-113 or.]). Jakina, Olabide du buruan Azkuek «si alguien [...] persistiera en escribir *esan zun* [...]» dioenean, aipuren akaberran; eta gogora bedi «gorriik» bezalako asimilazioak erabiltzeko asmoa erakutsi zuela Orixek azken urteetako idazki batean —nahiz eta lehendik ere egina izan antzeko saioren bat—: «[...] gaurdanik erabakirik nago errebistáten emen darabilladan euskera au egitera, batasunerako errezta baita gramatikana, eta ontaik asi bear dugu. Beti izki lagungabe (vocal) *-a* artikulua egin orde, itza zer vokal'ekin buka, ura luxatuz egin aren artikulua, beraz, bost artikulua, bakarraren orde. Gero, izen-iokuan, lenengo mailletik asita beste guzitan ere, bi vokal'ak batean urtu, xurtu, ikoldu (contracción). Onela: *ogi-i* [...]. Beraz: [...] *etxee*, *ogii*, *lepoo*, *eskuu*, batasunerako araua [...]» («Orixen erantzuna», *Yakin-en geigarria*, 1, 1960, 3-4 or. [= IG, III, 984-986, 985 or.]).

<sup>18bis</sup>«Irigoien iaunari», *Yakin-en geigarria*, 1 (1960), 2-4 or. [=IG, III, 986-987 or.].

<sup>19</sup>Ikus baita ere *El lenguaje vasco* liburuan dakartzan argibideak: *edun* eta *un* aditzei buruzko hipotesiak; «nun» aldaera zabaltzean izan zuen partear dioena; eta baita «nendun» honi buruzko asmoak ere («Manteniendo "nun" para el pueblo iliterato, usaré en adelante "nendun", "nedun", "neun" para el lector ilustrado, por la unificación con los vizcaínos» [145 or.]). Ez da zalantzarik —eta, bestalde, axola du zehazteak— *El lenguaje vasco* liburuaren zati hauek bere azken urteetan ondu zituela, 1960-1961.etan, Añorgan eman zituenetan alegia. (Bestalde, «nendun» adizkiaren aldeko lehenengo proposamen teorikoa, oker ez banago, honako artikulua honetan eman zuen: «Ukan, Ekun, Edun, (Eduki), Un», EG, 1950 [9-10], 20-22 or. [= IG, III, 914-917 or.]; aipatu, berriz, Mokoroari 1949ko ekainaren 20ko eskutitz batean aurkitu dut lehendabizi aipatuta).

*Aitorkizunen* testutik: ikus, hemen bertan, 453 or.).<sup>20</sup>

*Aitorkizunetan* baliatu zen gehienbat Orixen «nendun» honetaz: erabili zuen azken urteetako beste lan batzuetan ere, baina inon ez hemen bezain nabarmen; ohar bedi ordea antzeko zerbait esan genezakeela —«nendun» hau, agidanean, kasurik garbiena bada ere— era honetako beste zenbait hitzi buruz (arestian aztertu dugun *ekidin* laguntzailearen gainean edo, esaterako, «diago» adizkiak): honetan ikus daiteke ondo nolakoa zen Orixek *Aitorkizunekin* egin nahi izan zuen saioa. Baina jaio ere —Orixeren idatzietan alegia—, nago segurutzat jo daitekeela *Aitorkizunen* itzulpenaren inguruan jaio zela «nendun» hau —era honetako beste zenbait hitz bezala, hemen ere— eta, gainera, zehaztu dezakegula itzulketaren zein momentutan jaio zen. Ca-alter-en agertzen den lehenengo «nendun» III, 1, 1 paragrafoan dago (24 or.): I-II liburuetako makinazko testuan «nun» besterik ez da ageri (hori bai, era guztietako azentuez hornitua),<sup>21</sup> eta III. liburuko hasieratik «nendun» da sarrien irakur daitekeen aldaera («nun» inoiz desagertzen ez bada ere, B-ko testuan berean bezala, bestalde: Orixek —ez dezagun ahaztu— gustuko zuen aniztasun hau). Bistan da, beraz, *Aitorkizunen* lehenengo idatzaldiaren puntu horretan deliberatu zela Orixen «nendun» erabiltzera. Beste lekukotasun bat ere badugu, aipatu kronologia berresteaz gain Orixek hitz honen inguruan izan zuen arreta erakusten duena: izan ere, I, 9, 15 paragrafoan (7 or.) makinaz dagoen «nun» baten gainean «nenun» idatzi du eskuz eta, [I]v orrialdean dagoen huts zerrenda modukoan, aipatu makinazko «nun» berberari buruz ari delarik (eta, jakina, 7. orrian eskuz egindako oharra egin ondoren), «nendun» proposatu du, baina «nun» ordez [...] beti sartzeko agindua gehituz.<sup>22</sup> Hortik aurrera, hau da, C-ko III-IX liburuetan eta, ondoren, B-ko testu osoan zehar, bai «nun» bai «nendun» erabili zituen Orixek: adizkia soila denean «nendun» maizago, atzizki bat baldin badarama «nun» sarriago.<sup>23</sup>

Lekuonak *Aitorkizunen* testuaren inongo hitzetan eta inongo alderditan izan ez zuen jarrera bat eduki zuen «nendun» honekin, eta «nun» itxurako adizkiak zeuden-zeudenean utzi bazituen, ez ohiko arreta batekin saiatu zen «nendun» guztiak desagertarazten: gehien-

<sup>20</sup>Mitxelena [1960, 36-40 or.]; honetaz, dena den, ikus 61-62 or.

<sup>21</sup>Ikus, lehenengo idatzaldiaren I-II liburuetako azentudun «nun» hauen gainean, 70-71 or. eta V erans. 423-424 or. 7 oh.

<sup>22</sup>[I]v orrialdeko oharra dioena, zehazki, honako hau da: «7<sup>g</sup>. [orrialdea] 21 [garren lerroa] *nun* ordez *nendun* (beti)». Ohar honek, bestalde, argi eta garbi erakusten du Ca-alter behatzikribuan dauden Orixeren oharra C-ko testuaren garaikideak direla: 7. orriko «nenun» hura, nahitaez, III. liburua idazten hasi baino lehenago eskribituko zuen Orixek ([I]v orrialdeko zerrenda noizkoa den ez dut uste frogatu ahal denik, baina segurutzat joko nuke ez zuela egin IV. liburuarren itzulpena baino askoz geroago: besterik ez bada zerrendako azken zuzenketa 39. orriari dagokiolako, zehazki IV, 6, 11 paragrafoari). Ikus, honi guztiari buruz, 69 or. 6 oh. eta 70-71 or. Aipatzeko moduko da, orobat, C-ko testuan zehar «nendun» gisa zuzendu dituela Orixek makinaz jotako beste bi «nun»: bata eskuz (37 or. = IV, 4, 7 [80, 12]) eta bestea makinaz (38 or. = IV, 4, 8 [81, 13]).

<sup>23</sup>Hauex da, inongo zalantzarik gabe, Orixeren joera, baina badira noski atzizkia duten agerraldiak: «nenduna» (42 or. = IV, 4, 9 [81, 21]; 44 or. = IV, 6, 11 [83, 24]; 64 or. = VI, 3, 3 [129, 6]; 97 or. = VIII, 10, 22 [203, 5]), «nendula» (49 or. = IV, 14, 23 [94, 7]; 68 or. = VI, 7, 12 [137, 25]), etab.; dena den, nahikoa da I-III liburuetako aldaketak biltzen dituen beheragoko taulari begiratzea konturatzeko atzizkia duten «nun» adizkiak, oro har, ez direla aldatzen. (Gogora dezagun, bestalde, «nendun» honek ez duela —ez behintzat Orixeren praktikan— objektu pluralari dagokion formarik: horretarako, beraz, «nitun» erabiltzen du beti). C-tik B-ra bidean egindako aldaketei dagokienez, kontuan hartzeko moduko da «nun» batzuk —batez ere; jakina, «nendun» forma ezagutzen ez zuten I-II liburuetan— «nendun» bihurtu direla, baina beste «nun» asko zeuden-zeudenean gelditu direla: beheko taulak argi erakusten du nolakoak izan ziren aldaketa hauek. (Ohar bedi kontrakoa, hau da, «nendun C: nun B» aldaketa, oso gutxitan gertatu dela).

gehienetan «nuan» aldaerarekin ordezkatu zituen, hasieran —eta, nolana ere, gutxitan— «nun» eta «nuen» aldaerez baliatu zen arren. Esan bezala, arreta handia ipini zuen honetan Lekuonak: bi «nendun» bakarrik itzuri zitzaizkion, hau da, bi «nendun» bakarrik heldu ziren A-ko testura.<sup>24</sup> (Adizki honen inguruan —bai C-tik B-ra bai B-tik A-ra bidean— egindako aldaketa gehienak eta, inondik ere, interesgarrienak, I-III liburuetan egin ziren: eranskin honen akaberan eman dugun taulan argiago ikus daitezke arestian azaldu ditugun —eta, agian, ilun samar gelditu diren— joerak; gainerako liburuei dagokienez, esan bezala, ez dago gorago aurkeztutako aldaketa-sistema gardenari ezer funtsezkorik gehitu beharrik).

Orixeren jatorrizko testua irakurtzean bakarrik konturatzen gara noraino baldintzatzen duen —noraino koloretzatzen duen— *Aitorkizunen* hizkuntzaren itxura «nendun» honek: ez da harritzekoa haxe izatea Orixek, *Aitorkizunen* testuan egin zizkioten era guztietako aldaketen artean, espresuki salatu zuen bakarra «*Mea culpa* eta “Quos ego!”» artikuluan (ikus, berriz ere, 60-61 or.). Ez dezagun ordea ahaztu —honen guztiaren oihartzuna behar bezala neurtzeko— orain arte ez genekielako *Aitorkizunen* testua zorioneko «nendun» honetaz josia zegoenik: ez dakit zenbaten eskuetaraino iritsiko zen *Yakin* aldizkaria 1959garren urtean, zenbat irakurle jabetuko ziren salaketa haren esanahiaz eta, hauetan, zenbatek sinistuko zioten Orixeri. Ikusi dugun bezala, argitaratu zen *Aitorkizunen* testuan bi «nendun» baino ez ziren, eta hauek baino xelebrea goak ziren ehunka adizkiren artean: ulertzekoa da haiekin gogoratu ez izana Mitxelena *Aitorkizunei* egin zien iruzkinean edo, alderantziz, *Aitorkizunak* aipatu ez izana «Asaba zaarren baratza» artikuluan «nendun» honen aurka jarduterakoan.

#### TAULA

Esan bezala, *Aitorkizunen* I-III liburuetan diren *nuen* adizkiaren aldaera guztiak biltzen dira honako taula honetan (ez ordea *nituen*-enak: ikus 452 or. 23 oh.). C-ri dagokion zutabea gehiketaren

<sup>24</sup>Lekuonak «nuan» erabiltzen zuen beti, inoiz huts egin gabe, bere idatzietan: *Aitorkizunen* testuan *ex novo* gehitutako pasarteetan «nun» bat dago (baina lehendabizikoa da: 14 or. = I, 16, 26 [31, 11]; ikus 216 or.) eta bi «nuan» (<26 or. => II, 9, 17 [51, 8] —«Utsuneak» dokumentuan sartua, 197 or. 13 zenb.: ikus 190-191 or.— eta 31 or. = III, 6, 10 [61, 7] —berez, jatorrizko «nuken» baten ordezkari: ikus, ohar honetan bertan, beheago—). Bestalde, «nendun» hauek ordezkatzeko erabili zituen aipatu «nun» eta «nuen» adizkiak honela kokatzen dira *Aitorkizunen* testuan (ikus I-III liburuetako agerraldien erreferentzia osoak eranskin honen akaberako taulan): «nun» 3 aldiz (I, 6, 8; II, 8, 16; IV, 15, 24) eta «nuen» 9 bider (II, 10, 18; III, 1, 1; III, 1, 1; III, 1, 1; III, 4, 8; III, 5, 9; III, 7, iz.; III, 7, 13; III, 7, 14). Beraz, bi aldaera hauek liburuaren hasieran bakarrik aurkitu ahal dira, hau da —seguruenik—, Lekuonak oraindik ondo finkatu gabe duenean bere irizpidea. Nolanahi ere, «nun» errazago ulertzen da, haxe baita Orixek erabiltzen duen beste aukera; «nuen» aldaerari dagokionez, ohar bedi —beheko taulak argi erakusten du— agerraldi guztiak II, 10, 18 paragrafotik III, 7, 14 paragrafoaren erdi alderainoko zatian biltzen direla eta, aldi berean, «nuen» dela zati horretan «nendun» ordezkatzeko erabili duen aldaera bakarra: III, 1, 1 paragrafoko «nuneko» ez da Lekuonak sartutako aldaketa, eta III, 6, 10 paragrafoko «nuan» ez dago jatorrizko «nendun» baten tokian, «nuken» baten lekuan baizik, hau da, beste era bateko aldaketa baten ondorioa da eta, zalantzarik gabe, beste momentu batean sartua. (Gogora dezagun m5bis-ek «nuen» batekin glosatu zuela *Aitorkizunetan* —I, 6, 8 paragrafoan— agertzen den lehenengo «nendun»: 183-184 or.). Itzuri zitzaizkion —eta, beraz, A-ko testuraino iritsi ziren— bi «nendun» horiek honako hauek dira: 75 or. = VII, 1, 2 [154, 28] eta 81 or. = VII, 9, 14 [167, 18]. Axola zitzaion benetan auzi hau Lekuonari: Orixeren testuan jarri zuen ez ohiko arreta honen beste lekukotasun bat ikus dezakegu handik urte batzuetara, aditzaren batasuna zela-eta, Euskaltzaindian aldeztu zuen proposamenean eta, oro har, honen gainean eman zituen hitzaldietan eta egin zituen idatzietan: honi

ikurra duten «nun» guztiak gorago aipatu diren (452 or. 21 oh.) azentuetako bat daramate, dela eskuz gehitua dela makinaz eskribitua; bestalde, Ca-alter-etik eta B-prior-etik ibilitako eskuek egindako oharrak taketen artean eman ditugu.

	C	B	A
I, 6, 8 [15, 10]	nun	nendun [nuen m4]	nun
I, 6, 9 [16, 5]	nunarena	nunarena	nunarena
I, 7, 11 [17, 19]	nun	nendun	nuan
I, 7, 12 [19, 1]		nula	nula
I, 7, 12 [19, 2]	nula	nula	nula
I, 7, 12 [19, 4]	nun	nendun	nuan
I, 8, 13 [19, 17]	nun	nun	nun
I, 8, 13 [19, 22]		nunik	nunik
I, 8, 13 [19, 24]	nun	nendun	nuan
I, 8, 13 [20, 1]	nun	nendun	nuan
I, 8, 13 [20, 2]		nendun	nuan
I, 8, 13 [20, 11]	nun	nendun	nuan
I, 9, 14 [21, 2]	nun	nun	nun
I, 9, 15 [21, 18]	nun	nendun	nuan
I, 9, 15 [21, 19]	nun	nun	nun
I, 9, 15 [21, 20]	nun [nenun]	nendun	nuan
I, 10, 16 [22, 9]	nun [+]	nendun	nuan
I, 10, 16 [22, 11]	nun [+]	nendun	nuan
I, 10, 16 [22, 16]	nun	nendun	nuan
I, 11, 17 [23, 6]	nun	nendun	nuan
I, 11, 17 [23, 22]	ba nun [+]	ba-nendun	ba-nuan
I, 12, 19 [25, 1]	nun	nun	nun
I, 12, 19 [25, 2]	nun	nendun	nuan
I, 13, 20 [25, 22]	nun [+]	nendun	nuan
I, 13, 20 [25, 24]	nun [+]	nendun	nuan
I, 13, 21 [26, 22]	nun	nun	nun
I, 13, 21 [26, 26]	nulako	nulako	nulako
I, 16, 26 [31, 11]			nun
I, 17, 27 [31, 17]	nun	nendun	nuan
I, 17, 27 [31, 21]	nun	nun	nun
I, 19, 30 [34, 12]	bainun	nendun	nuan
I, 19, 30 [35, 1]	nun	nendun	nuan
I, 20, 31 [35, 16]	ba nun	ba-nendun	ba-nuan
I, 20, 31 [35, 16]	nun	nendun	nuan
I, 20, 31 [35, 17]	nun	nendun	nuan
I, 20, 31 [35, 18]	nun [+]	nendun	nuan
I, 20, 31 [35, 20]	nun [+]	nendun	nuan
I, 20, 31 [36, 7]	nun [+]	nendun	nuan

buruzkoa da «Aita Larramendi'ren gramatika-puntu bat», antza 1966an emandako hitzaldi bat (Lekuona [1984, 82-85 or.]); «“Zuen” ala “zuan”?», dirudienez Euskaltzaindira bidali zuen txosten baten bertsio bat (*ib.*, 86-89 or.); eta 1975koa bide den «“Zuen” ala “zuan”? “Duen” ala “duan”?» (*ib.*, 90-93 or.).

II, 1, 1 [37, 13]	nun [+]	nendun	nuan
II, 1, 2 [37, 18]	nun [+]	nendun	nuan
II, 1, 2 [38, 9]		nendun	nuan
II, 2, 3 [38, 20]	ba nun	ba'nendun	ba'nuan
II, 2, 4 [39, 9]	nun	nendun	nuan
II, 2, 4 [39, 11 pr.]	nun [+]	nendun	nuan
II, 2, 4 [39, 11 alt.]	nun [+]	nendun	nuan
II, 3, 7 [42, 2]	nun [+]	nendun	nuan
II, 3, 7 [42, 6]	nun [+]	nendun	nuan
II, 3, 7 [42, 9]	nunean	nunean	nunean
II, 3, 7 [42, 10]	nulakoa	nulakoa	nulakoa
II, 3, 7 [42, 10]	nun	nendin [.dun m2]	nuan
II, 3, 8 [43, 4]	nun	nendun	nuan
II, 4, 9 [43, 14]	nun [+]	nendun	nuan
II, 4, 9 [43, 16]	nula	nula	nula
II, 4, 9 [43, 16]	bainun	bainun	bainun
II, 4, 9 [43, 17]	nulako	nulako	nulako
II, 6, 14 [48, 10]	nun	nendun	nuan
II, 6, 14 [48, 17]		nendun	nuan
II, 8, 16 [49, 19]	nun	nendun	nuan
II, 8, 16 [49, 21]	bainun	bainun	bainun
II, 8, 16 [49, 23]	[nezaken]	nendun	nuan
II, 8, 16 [49, 24]	nun	nendun	nuan
II, 8, 16 [50, 1]	nun [nunekiko]	nunekiko	nunekiko
II, 8, 16 [50, 1]	nun	nendun	nuan
II, 8, 16 [50, 3]	[nun	nula	nula]
II, 8, 16 [50, 10]	nun [+]	nandun [nen. m2]	nuan
II, 8, 16 [50, 11]	bainun	bainun	bainun
II, 8, 16 [50, 12]	nun [+]	nendun	nuan
II, 9, 17 [50, 21]	nun [+]	nendun	nuan
II, 9, 17 [50, 22]	nunaz	nendunaz	nuanaz
II, 9, 17 [51, 3]		nendun	nuan
II, 9, 17 [51, 4]		nendun	nuan
II, 9, 17 [51, 5]	nun	nendun	nuan
II, 9, 17 [51, 6]	bainun	bainun	bainun
II, 9, 17 [51, 7]	nulako	nulako	nulako
II, 9, 17 [51, 8]			nuan
II, 10, 18 [52, 2]	nun [+]	nendun	nuen
III, 1, 1 [53, 19]	nendun	nendun	nuen
III, 1, 1 [53, 20]		nendun	nuen
III, 1, 1 [54, 3]		nendun	nuen
III, 1, 1 [54, 3]	nuneko	nuneko	nuneko
III, 4, 8 [59, 10]	nendun	nendun	nuen
III, 5, 9 [60, 14]		nendun	nuen
III, 6, 10 [61, 7]		[nuken]	nuan
III, 7, iz. [63, 14]		nendun	nuen
III, 7, 13 [64, 10]		nendun	nuen
III, 7, 14 [65, 16]		nendun	nuen
III, 7, 14 [65, 21]	nendun	nendun	nuan
III, 10, 18 [69, 18]	nendun	nendun	nuan

III, 10, 18 [70, 7]  
III, 12, 21 [72, 13]

nunez

nendun  
nunez

nuan  
nunez



## VII

Lekuonak idatzitako testuen ezaugarri grafiko zenbait: «Utsuneak», *Egan*-eko testua eta 1956ko «Arkibidea»

Frogatu dugu gorago (298-303 or.) *Egan*-en argitaratu ziren *Aitorkizunen* lau para-grafoen testua (E), inongo zalantzarik gabe, Lekuonaren lantegitik atera zela eta, beraz, B-prior-en eta E-ren arteko aldaera guztiak —inprimategiko huts soilak ez direnak alegia— Lekuonari leporatu behar zaizkiola. Orixeren testuari egindako aldaketa hauetako batzuk, agian gehienak, grafiari dagozkio, hau da, hizkuntzari eman nahi izan zaion itxurari: batik bat *-Viñ-* > *-Vñ-* edo *-Vill-* > *-Vll-* eta *-iñ* > *-in* edo *-ill* > *-il* («baiño B : baño E», «nabill B : nabil E», etab.) eta letra larriaren eta xehearen erabilera («saindu B : Saindu E»). Era hauetakoak ez dira falta Lekuonak *Aitorkizunen* testu osoan zehar egin zituen aldaketetan, baina ezin eztabaidatuzkoa da askoz ugariagoak eta, batez ere, askoz sistematikagoak direla *Egan*-eko testuan B-prior-en edo probetan sartutako ehunka zuzenketetan baino.

Abia gaitezen —bereziki nabarmenak dira-eta— hitzen hasierako letra larriaren eta xehearen erabilerari dagozkion aldaketetatik eta, zehazki, *Aitorkizunetan* ez ohiko garrantzia —eta maiztasuna— duen *zure* hitzari dagozkionetatik. Izan ere, B-ren eta E-ren arteko aldaera guztiak jasotzen dituen zerrendara jotzen baldin badugu (299-302 or.), ikusiko dugu Lekuonak, behin ere huts egin gabe, B-ko «Zure» guztiak «zure» bihurtu dituela. Eta ez dira gutxi:

	B	E	A
303, 5	Zure	zure	Zure
304, 2	Zuri [Zure m3]	zure	Zure
304, 4	Zure	zure	Zure
304, 9	Zure	zure	Zure
304, 10	Zure	zure	Zure
305, 7	Zure...Zure	«Zure...zure» <sup>1</sup>	«Zure...Zure»
305, 8	Zure	zure	Zure
305, 13	Zure	zure	Zure
305, 15	Zure	zure	Zure
305, 16	Zure	zure	Zure
305, 16	Zure	zure	Zure
305, 18	Zure	zure	Zure

<sup>1</sup>Bi hauetako lehenengoa puntu baten ondoren dago: horregatik gorde da letra larria.

305, 25	Zure	zure	Zure
305, 27	Zure	zure	Zure
306, 1	Zure	zure	Zure
306, 4	Zure	zure	Zure
306, 6	Zure	zure	Zure
306, 8	Zure	zure	Zure
306, 9	Zure	zure	Zure
306, 11-13	Zure	zure	«Zure
306, 13	Zure	zure	Zure

Ezin esan berariaz eta oso erabaki argi bat hartu ondoren egindako aldaketa ez denik eta, batez ere —ikusitako dugun legez—, Lekuonaren portaeran ez ohikoa den sistematikotasun batekin gauzatua. Eta, izan ere, ez B-prior-eko orrietan ez B-prior-etik A-ra bidean egindako aldaketetan, ez dugu horrelakorik aurkitzen ehunka bider agertzen den *zure* hitzarekin.

Baina hara non *zure* hitza letra xehearekin idazteko joera sistematiko berbera ikusten dugun «Utsuneak» izeneko paperetan (192 or.): 8 *zure* daude «Utsuneak» dokumentuan, guzti-guztiak letra xehearekin idatziak;<sup>2</sup> hauetatik 5 B-ko «Zure» banatik datoz eta gainerako 3rak *ex novo* sartutakoak dira:

	B	Uts
22 zenb.	Zure	zure
22 zenb.	Zure	zure
34 zenb.	Zure	zure
46 zenb.	Zure	zure
50 zenb.	Zure	zure

Hau da, Lekuonak «Utsuneak» delakoa eskribitu zuenean ere E-n ikusi dugun jarrera berbera izan zuen, hemen ere huts egin gabe. Esan dugu ez B-prior-en ez B-prior-etik A-ra bidean egindako aldaketetan ez dugula berriz «Zure > zure» aldaketa ikusiko; are gehiago, «Utsuneak» dokumentuaren bidez *Aitorkizunen* testuan sar zitezkeen «zure» guztiak, bi izan ezik,<sup>3</sup> «Zure» gisan agertzen zaizkigu A-n (257-259 or.):

	Uts	A
140 or. = XI, 2, 2 [304, 6]	zure	Zure
140 or. = XI, 2, 2 [304, 7]	zure	Zure

<sup>2</sup>Berez 9 dira, baina bat (35 zenb.) puntu baten ondoren dago eta, hortaz, letra larriarekin idatzita egon behar du nahitaez: honengatik ez dugu gure kontuan sartu.

<sup>3</sup>Bat falta zaigu kontua borobiltzeko, aldatu ez diren 2 gehi ohar honen deiaren ondoren datorren zerrendako 5, guztira, 7 baitira, eta 8 kasu aipatu ditugu gorago; falta zaigun hori 22 zembakiaren bukaera aldeko parentesikoa da («len «zure itza [...]»): «Zure > zure» aldaketaren nondik norakoa neurtzeko gainerako kasuak bezain esanguratsua zen (edo gehiago, Lekuonak honetan izan zuen sistematikotasuna erakusten duelako), baina parentesia ez zen A-ko testuan jaso behar eta, horregatik, 8 kasurekin lan egitetik pasatu gara 7rekin lan egin behar izatera.

173 or. = XIII, 2, 2 [378, 14]	zure	Zure
187 or. = XIII, 25, 38 [410, 6]	zure	Zure
192 or. = XIII, 34, 49 [421, 12]	zure	Zure

eta *ex novo* sartu diren bi *zure* letra larriarekin daude idatzita (215 eta 249 or.):

1 or. = I, 1, 1 [9, 6]	sorkari	Zure sorkari
115 or. = X, 4, 5 [247, 13]	doai oro	doai oro Zure da

Honetaz gain, askotan ukitu eta berrantolatu dira *zure* hitza duten pasarteak «Zure > zure» aldaketa egiteko aukera aprobeixatu gabe: ikus, bestela, 215-252 orrialdeetako zerrenda.<sup>4</sup>

Honen guztiaren aurrean erraz pentsa genezake ondorioa honako hau baino ezin litekeela izan, hots, «Zure > zure» eta «zure > Zure» aldaketan artean dagoen aldea kronologiari dagokiola, hau da, «zure > Zure» berriagoa dela «Zure > zure» baino; beraz, «Zure > zure» aldaketa egiteko erabakia, gutxi gorabehera, «Utsuneak» izeneko dokumentua egin zuen garaian kokatu behar litzateke eta gero, *Aitorkizunen* probak zuzentzerakoan, aldatu egingo zuen iritzia;<sup>5</sup> eta, honen arabera, ondorioztatu behar genuke *Egan*-era bidaltzekoa zen testua (hots, e) «Utsuneak» deitu ditugun paperak egin zituen sasoi berean prestatu zuela Lekuonak eta, inongo zalantzarik gabe, probetan egin zituen aldaketak egin baino lehenago. Historia, beraz, honela izan zitekeen: *Aitorkizunen* testuaren 1956ko ediziora eramango duten prestalanen aldi jakin batean, «Utsuneak» dokumentua idazten duenekoan alegia, Lekuonak erabakitzen du Orixeren —hau da, B-prior-eko— «Zure» guztiak «zure» inprimaraziko dituela eta aldaketa hori egiten du topatzen dituen «Zure» guztietan eta «zure» idazten du, orobat, *ex novo* sartzen dituenetan; sasoi honetantxe prestatzen du *Egan*-eko zatia eta, noski, momentu honetan dituen irizpideen arabera prestatzen du: B-prior-eko «Zure» guztiak «zure» bihurtzen ditu, «Utsuneak» deituriko paperetan egin zuen bezalaxe; ondoren, handik aste batzuetara, liburuaren probak zuzentzen dagoenean eta, hortaz, testuaren behin betiko itxura erabaki behar duenean, iritzia aldatzen du eta B-prior-eko «Zure» guztiak dauden daudenean mantentzen ditu. Iritzi aldaketa hau, bestalde, oso erraz uler liteke: erraz ulertzen

<sup>4</sup>Salbuespen bakarra dago: «Zure B : zure A» (170 or. = XII, 28, 38 [371, 2]); ikus 240 or.

<sup>5</sup>Ez dut uste esan dezakegunik «zure > Zure» aldaketa egiteko ere erabaki jakin bat hartu zuenik Lekuonak, «Utsuneak» dokumentuan egindako aldaketekin A-n gertatutakoak horixe bera pentsarazi behar digula badirudi ere: egia da «Utsuneak» delakoan 7 «zure» daudela A-n sartu beharrekoak (ikus, gorago, 3 oh.) eta horietatik 5 «Zure» bihurtu direla; baina ez dut uste 5 «Zure» horietako bat ere inoiz sartu zenik A-ko testuaren proba batean «zure» itxurarekin, hau da, ez dut uste Lekuonak «zure > Zure» aldaketa egin zuenik testu zati horietan. Badakigu B-prior-en eta A-ren artean ez zela kopia berririk izan eta inprimategiko langileak izan zirela «Utsuneak» izendatutako paperetan egindako aldaketak eta gehiketak *Aitorkizunen* testuan txertatu zituztenak: inprimatzaileak, jakina, B-prior-eko testutik ari ziren kopiatzen, huraxe zen testu nagusia, eta «Utsuneak» delakoan jasotako pasarteren batera jo behar zutenean pentsatzekoa da B-prior-eko testuarekiko aldaerak bakarrik kopiatuko zituztela handik, ez bietan —B-prior-en eta «Utsuneak» dokumentuan— berdina zen —edo izan behar zukeen— testua; hau guztia kontuan hartu gabe inprimategiko langileak, Lekuona ez bezala, *Aitorkizunen* testu osoa ari zirela kopiatzen, eta izango zuela eragina haiengan *zure* hitza ehunka aldiz «Zure» kopiatu izanak. Horrela bakarrik uler daiteke zergatik gelditu diren A-n ere letra xehearekin, gainerako 5ak ez bezala, 45. zenbakiko bi kasuak (205-206 or.): biak daudelako zati handienean gehiketa hutsa den pasarte batean, hau da, pasarte bat non B-prior-eko testuak ezin baitzuen inongo eraginik izan. Bestela esanda: ezin dugu frogatu «Utsuneak» delakoaren eta A-ko testuaren artean dauden «zure : Zure» aldaeretan Lekuonak esku sartu ez zuenik, baina esan beharra daukagu ez dela hori gertatutakoaren azalpen bakarra; are gehiago, egiantzekoagoa dela gauzak esan dugun bezala gertatu izana.

da, izan ere, *Aitorkizunen* testu osoari aurre egin behar izan zionean eta ez, ordura arte bezala, testu zati txiki bati bakarrik, oraindik zuzentzeko gauza asko gelditzen zitzaizkionean eta, gainera, probek jartzen dituzten baldintzen barnean, Lekuonak pentsatzea ez zuela merezi hain neke handia hartzea —eta huts gehiago egiteko arriskua, eta sistematikoa ez izatekoa— azken batean berdin zion puntutxo hura aldatzeko. (Eta badirudi ezingo genukeela esan erabaki edota iritzi finkorik gabe sortutako aldaketak direnik, momentuan momentuko apeten araberakoak alegia, *Aitorkizunen* testuaren historian dauden beste asko bezalakoak). Ordea datu bat dago hipotesi honen kontra: «zugurtze B[m2] : zuhurtze E» aldaketak «Utsuneak» dokumentua baino askoz beranduago kokatu digula (ikus 303 or.) *Egan*-eko zatia, 1956ko liburuaren prestalanan bukaera-bukaeran hain zuzen ere.

Baina, gorago genioen bezala, «Zure : zure» aldaera ez da «Utsuneak» izeneko dokumentuak eta *Egan*-eko testuak komun duten hizkuntz ezaugarri bakarra, dauden guztien adibide bereziki argi bat baizik. Hitz hasierako letra larriaren eta xehearen erabilerari dagokion sailetik irten gabe (ikus sailkapena 1 or.), ezin eztabaidatuzkoa da Lekuonak, e prestatu zuenean, *zure* hitzari buruz bezala (baina, paradoxa iruditzen arren, kontrako zentzuan), erabakita zuela *Aitorkizunetan* ugari diren zenbait hitz letra larriarekin idatzi behar zituela; hona, *zure* hitzari dagozkionak alde batera utzita, dauden guztiak (299-302 or.):<sup>6</sup>

	B	E	A
303, 4	iardun	Iardun	iardun
303, 10	aundi	Aundi	âundi
303, 13	ba-daki	Ba-daki	ba-daki
303, 18	#uzenaren [# = z + Z]	Zuzenaren	zuzenaren
304, 2	Orrri	orri	Orrri
304, 9	legea	Legea	legea
304, 23	idazti	Idazti	Idazti
305, 8	legearen	Legearen	legearen
305, 16	liburuetan	Liburuetan	liburuetan
305, 18	legearen	Legearen	legearen
305, 20	uri	Uri	uri
305, 20	sainduko	Sainduko	sainduko
305, 20	iaurerrira	Iaurerrira	iaurerrira
305, 25	iaurerria	Iaurerria	iaurerria
305, 27	legea	Legea	legea
306, 14	liburuetan	Liburuetan	liburuetan

Orobat gertatzen da «Utsuneak» izeneko paperetan (192 or.):<sup>7</sup>

<sup>6</sup>303, 10 eta 303, 13 bi punturen ondoren daude: ez dute horregatik balio gutxiago, bi punturen ondoren baitaude bai B-n bai A-n, baina litekeena da auzia beste modu batera azaldu behar izatea; zerrenda honetatik ezabatuko bagenitu ere gauzak ez lirateke asko aldatuko. 303, 18 kasurako, B-n *z* eta *Z* bata bestearen gainean tekleatu baitira, adierazgarria da A-ren kopiagileak *z* ulertu izana, eta horregatik sartu dut zerrenda honetan: hemen ere, ez litzateke ezer aldatuko, kenduez gero.

<sup>7</sup>Bada salbuespen bat: «Zugurtasunez B : zugurtasunez Uts» (202 or. 34 zenb.). Honek ere ez du, noski, gauza handirik aldatzen, baina esango nuke garrantzitsuena, honetan, ez dela horrenbeste norabide bakar batean

43 zenb.	zuzentasunak	Zuzentasunak
45 zenb.	iruren	Iruren
45 zenb.	batasuna	Batasuna

